


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**GIZARTE EKONOMIAREN AUKERA
ZAINTZEN KRISIAREN AURREAN:**

**GIPUZKOAKO PERTSONA NAGUSIEN ALORRA
AZTERGAI**

DOKTOREGO-TESIA

Egilea:

ENEKOITZ ETXEZARRETA ETXARRI

Zuzendariak:

BALEREN BAKAIKOA AZURMENDI

MIKEL ZURBANO IRIZAR

2012

Aitai ta amai,
irakurtzen eta idazten irakasteagatik
(besteak beste)

Esker onak

Lanaren azkenetan, nire eskerronak hona artekoan bidaide izan zaituztedan guztioi.

Balereni eta Mikeli, bidea irekitzen eta egiten laguntzeagatik

Anjeli, lehen aukera emateagatik,

Juankarri, Alexandriako bibliotekariari, gizarte-ekonomia eta ekonomia solidarioaren oihanean orientatzeko emaniko mapa eta iparrorratzogatik,

Aitorri, diziplina ezberdinekoak izanda ere nire tesia irakurtzen hartutako lanagatik eta eginiko ekarpenengatik,

Rafari, gizarte-ekonomiaren esparruan gure inguruko erreferentzia nagusietako bat izanik, emaniko azalpen eta orientabide guztiengatik,

Felixa, niretzat ezezaguna zen esparru batean sartzeko emandako laguntza ordainezinagatik,

Joseba eta Aitorri, zuen eskuzabaltasun eta gertutasunagatik,

Itziarri, nirekin partekatutako informazio guztiagatik,

Oso bereziki SIIS-eko lagunei; Josebari, bidegurutzean nintzela irtenbide ezberdinak seinalatzen asmatzeagatik eta Aneri, bidalitako erreferentzia eskergagatik,

Elkarrizketetan parte hartu duzuen guztiei, Fernando, Ander, Tere, Kontxi, Jose Luis, Eli, Mikel, Iñaki, Nagore, Iñaki, Rafa, Iñigo eta Mari Luzi, zuek zarete istorio honetako benetako protagonistak

Inkestak egiten laguntzeagatik (milesker Ainhoa!) eta inkesta erantzuteko denbora eskaini didazuen guztiei

Lehen Ategorrietan eta gaur Karlos Santamarian lankide zaituztedan guztiei: Joni, etengabe galdera berriak egiten laguntzeagatik, Mikeli, nire asistentzia teknikoari; Iratiri, Maribiri, Unairi eta Asierri, kaferen bat edo beste zor dizuet oraindik!

Tesitzar hau inoiz irakurtzerik opa ez dizuedan lagun eta senide guztiei; Aitziri, (zer egin zure aholkurik gabe?) eta Izturi, hainbeste orri idatzi behar izan diat bai, nahi niana esateko...

Iñargiri, goizero bizitza zure ondoan mila bider ederrago esnatzen zaidalako.

AURKIBIDEA

Esker onak

0	SARRERA.....	14
0.1	Hasiberriaren zalantza epistemologikoak eta beste	15
0.2	Tesia aurkezten	16
0.3	Tesiaren helburuak eta hipotesiak.....	22
0.4	Ohar metodologikoak	23
0.5	Tesiaren egitura.....	27

LEHENEGO ATALA: GIZARTE EKONOMIA

1	KAPITULUA: GIZARTE EKONOMIAREN JATORRIA ETA GARAPEN	
	HISTORIKOA: BI TRADIZIO NAGUSIREN ELKARKETA	32
1.1	Fenomenoaren gainbegirada historiko laburra	34
1.1.1	Elkartegintzatik kooperatibagintzara.....	34
1.1.2	XIX. mendeko kooperatibagintza literatura ekonomikoaren historian: korrante eta egile nagusiak.....	37
1.1.3	XX. mendea: bi tradizio ezberdinen sorkuntza	41
1.2	70eko hamarkada: kontzeptuaren birloratzea	45
1.2.1	AEBetako neokorporatisten hastapeneko bultzada	46
1.2.2	Adieren inflazioa eta 90eko hamarkadatik honako ekoizpen zientifikoaren berrikusketa	48
1.2.3	Ikuspegi europar propio baten eraikuntza	53
1.3	Gainbegirada kontzeptuala: hirugarren sektorea aztertzen duten bi tradizio nagusiak.....	55
1.3.1	Tradizio anglosaxoia: Mozkinen Besteko Erakundearen ikuspegia.....	56
1.3.1.1	Aitzindariak: inspirazio neoklasikoko teoriko anglosaxoiak.....	56
1.3.1.2	Hurbilketa normatiboa.....	63
1.3.2	Tradizio frankofonoa: Gizarte Ekonomiaren ikuspegia	66
1.3.2.1	Aitzindariak: XIX. mende hastapenetako eztabaidaren giltzarriak...	66
1.3.2.2	Hurbilketa normatiboa.....	69
1.4	Hirugarren sektorearen bi hurbilketa klasikoen analisi alderatua.....	75
1.4.1	Mozkinen banaezintasuna.....	76
1.4.2	Kudeaketa demokratikoa	79
1.4.3	Jardueren helburu eta misioa	80
1.5	Espainiako Gizarte Ekonomiako 5/2011 legea.....	82
1.6	Laburbilduz.....	85

2	KAPITULUA: GIZARTE EKONOMIA ETA ONGIZATE-ESTATUAREN ARTEKO ERLAZIOARI BURUZKO TEORIEN BERRIKUSPENA	88
2.1	Sarrera: gaiaren kokapena eta abiapuntua	89
2.2	Sektore arteko banaketaren ikuspegi historikoa	91
2.2.1	Sektoreak zenbatzen: hurbilketa soziologikoa	91
2.2.2	Analisi bisektorialetatik trisektorialetarako jauzia	93
2.2.2.1	Ongizate-estatuak: bi sektoreko sistemaren ezarpena	94
2.2.2.2	Bi sektoreko sistemaren haustura: hirugarren sektorearen aitortza...	96
2.3	Hirugarren sektorea eta estatuaren arteko erlazioaren ildo teorikoak:.....	98
2.3.1	Eskari eta eskaintzaren ikuspegiak	99
2.3.1.1	Merkatu nitxoaren eredua: <i>market/state failures</i>	99
2.3.1.2	Eredu transakzionala: <i>voluntary failures</i>	103
2.3.2	Gizarte zibila eta gizarte-mugimenduen ikuspegiak	105
2.3.2.1	Gizarte zibila eta kapital sozialaren ikuspegia	106
2.3.2.2	Gizarte-mugimenduen ikuspegia.....	107
2.3.3	Erregimenen ikuspegia eta teoria neo-instituzionalista	108
2.4	Hirugarren sektorea ongizate-erregimenei buruzko teoriaren baitan: sektore ahaztua	110
2.4.1	Ongizate-estatuari buruzko teoria ekonomikoen parametro nagusiak ...	110
2.4.2	Merkatu eta estatuaren arteko harremanak: ongizate-erregimenen ekarpena	114
2.4.2.1	Ongizate-kapitalismoaren hiru munduak	114
2.4.2.2	Sailkatzearen arazo metodologikoak eta bestelako proposamenak: eredu mediterraneorik ba al da?.....	118
2.4.2.3	Ongizate-erregimenen teoriari hirugarren sektoretik eginiko kritikak..	124
2.5	Hirugarren sektoreko teoriak ongizate-erregimenen gainean	126
2.5.1	Estatu liberalei buruzko lan konparatibo aurrekariak	126
2.5.2	Nazioarteko alderaketan oinarrituriko lan berriagoak	128
2.5.2.1	Banaketa funtzionalaren irizpidea	128
2.5.2.2	Harremanezko irizpidea	131
2.5.2.3	Gizarte-jatorrien teoria	132
2.5.3	Ongizate-erregimenetan oinarrituriko bestelako berrikuspenak.....	138
2.6	Laburbilduz	143

3 KAPITULUA: ONGIZATE-ESTATUAREN BERREGITURAKETA ETA HONEN INPLIKAZIO TEORIKOAK GIZARTE EKONOMIAN147

3.1	Ongizate-estatu keynesiarraren krisia eta berrantolaketa instituzionala.....	149
3.1.1	Ongizate-estatu keynesiarraren krisia: welfare state-tik workfare state-ra	149
3.1.2	Ongizate-erregimenetatik “erregimen europar” bakar baterantz?	153
3.1.3	Berrantolaketa instituzionalaren ondorioak: hirugarren sektorea eta sektore publikoaren arteko oreka berriak	156
3.2	Gizarte-ekonomia eta ongizate-estatuaren arteko harremanaren ikuspegi berriak	161
3.2.1	Sektore arteko banaketatik, sektore arteko zehargarritasunera	161
3.2.2	Neo-instituzionalismoaren ekarpena: testuinguru instituzionalaren garrantzia	163
3.2.3	Sistema misto eta irekiak: <i>welfare mix</i> edo <i>mixed economy of welfare</i> ikuspegia.....	165
3.3	Gizarte-ekonomia berria	169
3.3.1	Dinamika berri baten konstatazioa:“Gizarte-ekonomia berria”	170
3.3.2	Dinamika berri horien agerpenaren zenbait aldagai azaltzaile	172
3.3.3	Gizarte-ekonomia berriarentzat izendapen berria: Enpresa Sozialak	174
3.3.4	Europa mailako erreferentzia nagusiak	178
3.4	Gizarte-ekonomiarentzat oinarri teoriko berrien bila	180
3.4.1	Hirugarren sektoreari buruzko bi ikuspegi nagusien mugak	180
3.4.2	Enpresa sozialaren definizio operatibo baterantz	183
3.4.3	Enpresa sozialaz harago: ekonomia solidarioaren ekarpena	186
3.5	Hirugarren sektorearentzako oinarri teoriko berrien bila.....	193
3.6	Laburbilduz	199

BIGARREN ATALA: PERTSONA NAGUSIEN ZAINZA FORMAL ETA INFORMALA

4 KAPITULUA: ESPARRU INFORMALAREN GARRANTZIA PERTSONA NAGUSIEN ZAINZAREN ANALISIAN.....	203
4.1 Esparru informala: definizioa eta irismena	205
4.1.1 Kontzeptuak argitzen	205
4.1.2 Esparru informalaren irismenari buruzko datu orokorrak	207
4.1.2.1 Espainiako datu orokorrak	207
4.1.2.2 Euskadiko datu orokorrak	211
4.2 Ikusezintasuna hautsiz: esparru informalaren analisiaren aurrekari nagusiak eta ekarpen feministen oinarriak	216
4.2.1 Esparru informalaren analisiaren aurrekari eta lan ildo nagusiak	216
4.2.2 Zaintzaren-ekonomia: diziplina ekonomikoaren birkontzeptualizaziorako ekarpen feminista.....	219
4.3 Ongizate-erregimenen berrikuspena esparru informalaren ikuspegitik	222
4.3.1 Ongizate-erregimenen ekarpenaren irakurketa kritikoak	222
4.3.2 Esping-Andersen-en erantzuna: desmerkantilizaziotik desfamiliartzera	224
4.4 Ongizate-erregimenetatik harago zaintza-erregimenen analisia: zaintza formal eta informaleko eredu ezberdinak.....	228
4.4.1 Zaintzen hornidura informaleko esparrua: nazioarteko datu nagusiak...	229
4.4.2 Elementu kulturalak: nori dagokio zaintza lanen erantzukizuna?	233
4.4.3 Zaintza-erregimenen proposamena: zaintza formal eta informalaren analisian oinarrituriko nazioarteko sailkapenak	236
4.5 Eredu familiaristaren tentsio guneak: zaintzaren krisia	240
4.5.1 Espainiako zaintza-erregimenaren ezaugarri nagusiak: eredu familiarista	240
4.5.2 Zaintzaren krisia: ereduaren haustura eta krisiaren ebazpen atzerakoia.	242
4.6 Laburbilduz	246

5 KAPITULUA: GIZARTE ZERBITZUEN ANALISIAREN TESTUINGURU OROKORRA: ABIAPUNTUA ETA BILAKAERA OROKORRA.....249

5.1	Definizioa eta analisi markoa	251
5.1.1	Zeri buruz ari gara?.....	251
5.1.2	Espainiako Gizarte Zerbitzuen bilakabidea gainerako ongizate-zerbitzuen garapenaren testuinguruan: “gizarte-arrisku berrien” erantzuna	252
5.1.3	Ongizate-estatuaren eredu espainiarra gainerako eredu europarren testuinguruan: eredu latino-mediterranoaren ezaugarriak	257
5.2	Abiapuntua eta lehen urratsak.....	264
5.2.1	Ongintzazko sistemaren haustura	264
5.2.2	Gizarte-zerbitzuen sare publikoranzko ibilbide etena	266
5.2.3	Eredu dualetik eredu unibertsaleranzko prozesu bukatu gabea.....	269
5.3	Bilakaera normatiboa eta lege autonomikoak.....	272
5.3.1	Lege autonomikoen onarpena: lehen eta bigarren belaunaldiko legeak .	273
5.3.1.1	Lehen belaunaldiko lege autonomikoen onarpena	273
5.3.1.2	Bigarren belaunaldiko lege autonomikoen kontzepzio aldaketa.....	276
5.3.2	XX. mendeko lege autonomikoen berrikuspen kritikoa.....	279
5.4	Pertsona nagusien zaintzara bideratutako gizarte-zerbitzuen analisisa	283
5.4.1	Mendekotasun Legearen aurreko egoera: pertsona nagusientzako eskainitako gizarte-baliabideak	284
5.4.2	Mendekotasun Legeak ekarritako berrikuntza nagusiak	291
5.4.3	Legearen izaera eta ezarpenaren berrikuspen kritikoa	296
5.5	Laburbilduz	303

6	KAPITULUA: EAE-KO GIZARTE ZERBITZUEN ANALISIA	
	ESKAITZAREN TITULARTASUNAREN IKUSPEGITIK.....	305
6.1	Testuinguru orokorra: ongizate-erregimen autonomikoak	307
6.1.1	Alderdi substantiboak eta operatiboak	307
6.1.2	Euskadiko Gizarte Zerbitzuen kokapena ongizate-erregimen autonomikoen testuinguruan.....	312
6.2	Bilakaera normatiboa.....	315
6.2.1	12/2008 Legearen aurreko bilakaera normatiboaren mugari nagusiak .	316
6.2.2	12/2008 Legearen aurreko egoeraren diagnostikoa.....	320
6.2.3	12/2008 Legeak ekarritako berrikuntza nagusiak.....	323
6.2.4	12/2008 Legearen komentarioa sistemaren publikotasunaren inguruan	329
6.3	EAE-ko pertsona nagusien zaintzara bideratutako gizarte-zerbitzuen datuei buruzko analisia titulartasun publiko-pribatuaren ikuspegitik	332
6.3.1	Eskaria: pertsona nagusien esangura EAE-ko gizarte-zerbitzuen testuinguruan	332
6.3.1.1	Biztanleriaren zahartzearen datu nagusiak.....	332
6.3.1.2	Pertsona nagusiak eta zaintza premiak.....	336
6.3.2	Gizarte Zerbitzuen eskaintzaren analisia titulartasunaren eta finantzazioaren ikuspegitik:EAE-ko hiru ereduak	339
6.3.2.1	Abiapuntua: Arartekoaren 2004ko txostena.....	340
6.3.2.2	Jarraipen txostenak: “EAE-ko Gizarte Zerbitzuen egoeraren inguruko Txostenen” errepaso	343
6.3.2.3	Bestelako datu baseen erkaketa: IMSERSOren azterketak.....	355
6.3.2.4	Titulartasunari lotutako beste zenbait aspekturen analisia.....	360
6.4	Laburbilduz.....	363

HIRUGARREN ATALA: LANDA LANA

7	KAPITULUA: LANDA LANAREN EMAITZAK.....	366
7.1	Sarrera eta metodologia	367
7.1.1	Zedarritze kontzeptuala: pertsona nagusien zaintza esparruan diharduen gizarte-ekonomiaren unibertsoaren zehaztapena.....	368
7.1.2	Landa lanaren garapena, antolakuntza eta erabilitako ikerkuntza-teknikak.	374
7.1.2.1	Analisi kuantitatiboa	375
7.1.2.2	Analisi kualitatiboa	380
7.2	Landa lanaren emaitzak (I): sektorearen zifra nagusiak	383
7.2.1	Artatu beharreko pertsonak eta baliabide publikoak	383
7.2.2	Titularitatearen arabeko analisia: hirugarren sektorearen dimentsioaren azterketa alderatua	392
7.2.2.1	Gizarte-zerbitzuetako erakundeak oro har	393
7.2.2.2	Pertsona nagusiei bideraturiko zerbitzuen eskaintza.....	396
7.3	Landa lanaren emaitzak (II): gizarte-ekonomiaren analisia.....	405
7.3.1	Inkestaren emaitza orokorrak	405
7.3.2	Inkestaren analisi partziala: Gizarte Ekonomiaren familia ezberdinak ..	412
7.3.2.1	Lares Federazioko fundazioak: Matia Fundazioa	412
7.3.2.2	Gestión de Servicios Residenciales (GSR) kooperatiba	414
7.3.2.3	Boluntario elkarteak: Nagusilan.....	417
7.3.2.4	Etxez etxeko laguntzan diharduten elkarteak: Ilarki Elkargoa.....	419
7.3.2.5	Enpresa soziala: Bizitzen Fundazioa.....	421
7.3.3	Elkarrizketatuen diskurtsoaren analisia	422
7.3.3.1	Gizarte-ekonomiaren berezko ezaugarri bereizleak: tipologia ezberdinak.....	423
7.3.3.2	Hirugarren sektoreko erakunde zerbitzu-emaileak: logika ezberdinak eta ezaugarri lausotuak	426
7.3.3.3	Boluntario elkarteak: sare ahul baina beharrezkoa	433
7.3.3.4	Apustu kooperatiboa: logika berriak eta hirugarren sektorearekin uztartze gatazkatsua.....	438
7.4	Landa lanaren emaitzak (III): gizarte-ekonomia eta herri-erakundearen arteko erlazioaren analisia	444
7.4.1	Gizarte-ekonomiak ongizate-estatuaren aurrekari gisa jokatu izan duen funtzioaz	445

7.4.2	12/2008 Gizarte-zerbitzuen Euskadiko legeak ezarritako diskriminazio positiboko neurrien eztabaida.....	447
7.4.3	Finantzazio mekanismoak aztergai: ituntzea, kontratazioa, hitzarmenak eta diru laguntzak.	454
7.4.4	Parte hartze instituzionalerako organoak eta gizarte-ekonomiaren parte hartze maila.....	459
7.5	Landa lanaren emaitzak (IV): gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren etorkizuneko eredia eztabaidagai: gizarte-ekonomiaren tokia	466
7.5.1	Gipuzkoako ongizate-erregimena aztergai: lau gizarte-egituren egungo konposaketa	466
7.5.2	Berrikuntza normatiboen norantza: Mendekotasun legearen eta Gizarte Zerbitzuen Euskadiko legearen analisia	470
7.5.3	Etorkizuneko gizarte-zerbitzuen ereduaren inguruko eztabaida: eredu mistoa aztergai.....	474
7.6	Laburbilduz.....	483
8	AMAIERAKO GOGOETAK.....	488
8.1	Hipotesien inguruabarra.....	490
8.2	Hipotesien kontrastea.....	497
8.3	Etorkizuneko agertoki desiragarriak zirriborratzen	508
9	Bibliografia.....	518
10	Estekak	541
11	Koadro, irudi, grafiko eta taulen aurkibidea.....	542
12	Eranskinak	548

0 SARRERA

0.1 Hasiberriaren zalantza epistemologikoak eta beste

Pertsona nagusien zaintza beharrak asetzeko gizarte-ekonomiak Gipuzkoan egun jokatzen duen papera aztertzeko eginiko doktorego-tesi honek, azken urteetan boladan den gizarte-gai baten, hots, zaharkitze demografikoaren, hurbilketa ekonomikoa izan nahi luke. Bati, ordea, zalantzak ere sortzen zaizkio, hainbeste denbora hartu dion ikerlanak ekonomikotik zer duen pentsatzen jarri orduko, zenbaiten ahotan “ekonomiatzat” jotzen den ezkutuko diziplina horretatik nahiko urrun kokatu beharko baitu irakurleak eskuetan duen lan hau.

Nazioarteko Moneta Funtsak, ortodoxia ekonomikoaren zaindari nagusiak, berriki argitaratua da “bizitza-luzetasunaren arriskuaren” (*longevity risk*) eragin finantzariei buruzko ikerlan ekonomikoa. Diziplina ekonomikoaren egiteko moduen eredu behar lukeen txosten honetan, honako argudio bidea da jarraitzen dena gutxi asko: azken urteetan mundu mailan eginiko aurreikuspen demografiko okerrekin gizartearen zahartze tasaren eta halaber, honi loturiko arrisku finantzarien neurketa okerrak eragin dituzte. Horiek horrela, erretreta prestazioak kudeatzen dituzten erakunde eta gobernuek bere gain hartu beharreko arriskuak (eta konpromisoak) izugarri handituko liriateke: 2050 urterako bizitza esperantza kalkulaturikoa baino hiru urte luzeagoa balitz, zahartzearen kostuak egungoak baino %50 garestiagoak liriateke. Segidan gaixotasunarentzako errezetak: erretiro adina bizi-esperantzaren aldakuntzen arabera doitu (luzatu, alegia), halakorik ezean prestazioak murriztu, eta pentsio planei loturiko “bizitza-luzetasun arriskua” transferitzeko kapital merkatuetara jo, horiek kudeatzeko gaitasun handiagoa dutenen eskuetara, alegia. Eta hori guztia, egun sektore publiko zein pribatua sakoneko desorekan sartua duen ezegonkortasun finantzaria konpontze aldera. Ari duenarekin, “kudeatzeko gaitasun handiagoa duten erakundeez” jarduteak nago hotzikara ere eragin diezaiokeela bati baino gehiagori.

Ekonomia, hortaz, diziplina ekonomiko gisa horretan omen datza: (behin eta berriz oker egiten diren) kalkulu matematikoetan oinarrituriko aurreikuspen ekonomikoari aurre egiteko “neurri teknikoak” proposamenean, hain zuzen ere. Hain “teknikoak” ze kalkulu matematikoetan oinarrituak baitira. Nork eztabaidatu zenbaki eta grafikoak aurka.

Esan bezala, bati, hainbeste denbora eskaini dion ikerlanari begira, dardara epistemologikoa sorrarazten diote halako argudioek. Bi aukera ditu (doktorego-tesia berriz idazten hastea ez da horietako bat): edo analisi hori ezeztatzea derrigortuta dago, edota ekonomiaren bestelako nozio bati helduz egin behar du bere bidea.

Eta behin horretan jarrita bi erronkei batera helduz, kalkulu ekonomiko horiek, beste behin ere, oker egin dituztela baieztatzea ausartuko ginateke, hori frogatzeko baliabide askorik behar izan gabe. Ez goitik gainera, kalkuluak oso behetik egin dituztela baieztatuko genuke. Zahartzeari loturiko arriskuak ez baitira pertsona nagusien ugaltzetik soilik eratortzen, kostu horiek leundu edo xurgatzen dituzten gizarte-egituren eraldaketan ondorio baitira, neurri handiagoan ziur aski. Beldur naiz esparru informalean, familien baitan emakumeek emaniko dohaineko zaintza lan horiek, kontabilitate nazionaletan ageri ez diren jarduera horiek kalkulatzeko ahaztu ez ote zaien, berriro ere. Eta are, familia-ereduen bilakabideek datozen urteetan sor ditzaketan babesgabezia egoera berrietatik eratorritako “bizitza-luzetasunaren arrisku” guztiak hartu behar lituzkete kontuan beren eredu ekonometrikoko finduetan. Lanaldirik emankorrena opa diegu, beraz. Eta berrikuspen horiek egin bitartean, “neurri teknikoak” proposamenak egiteari utz diezaiotela erregutzen, bide batez.

Zalantza epistemologikoak, beraz, albo batera utzi eta ekonomia diziplina zientifiko gisa berrinterpretatzeko baliagarriak diren bestelako ikuspegiak landu nahi izan ditugu guk zaharkitze demografikoaren azterketa partikular honi ekiteko. Analisi kuantitatiboari muzin egin gabe, baina honek errealitatea bere osotasunean azaltzeko duen mugez jakitun, hori osatzeko bestelako metodologiak ere jorratuz. Eta konponbide ustez teknikoetatik ahalik eta gehien urrunduz, funtsean politikoak edo ideologikoak diren eztabaidak mahai gainean jarritz, eta horien artean, gure tokia bilatuz. Horixe da datozen lerrootarako prestatua dizuguna, irakurle, on dagizula espero.

0.2 Tesia aurkezten

Mendebaldeko gizartearen zaharkitze demografikoaren gaiak mota ezberdinetako azterketa eta hurbilketa izan ditu azken urteetan. Guk eginiko hurbilketa ekonomikoa da, baina ez ekonomizista, ez eraginkortasun terminoetan planteatua. Ez da beraz, egun

ditugun baliabide urrien erabilpen alternatiborik eraginkorrenaren peskizan abiatutako ikerlana. Argi gera bedi hori hasieratik, beraz.

Lan hau zahartzeari loturiko zaintza lanen gizarte-egituraketaren analisisan zentratu da, esparru honetan gizarte-egitura nagusiek, hots, estatuak, familiak eta merkatuak, agertzen duten konfigurazioa aztertu nahian. Nire gai honekiko interesaren ernamuina, gizarte-ekonomiaren baitan azken bi hamarkadetan “gizarte-ekonomia berria” bezala agertzen joan diren erakundeen analisitik abiatu zen. Baina egiari zor, gai honi heltzeko azken bultzada eman izana Amaia Pérez de Orozco ikerlariaren zenbait ekarpeni zor diet neurri handi batean, honek “zaintzaren krisia” izenburupean egiten duen diagnostiko zorrotzean aurkitu bainuen bi esparruok elkartu ahal izateko esparru emankor bat.

Egile honek, zaintzaren krisiaren ebazpen atzerakoia gertatzen ari dela aipatzen du, estatuak zein merkatuak bere gain hartu ez dituzten zaintza lanen testuinguruan, etxeguneen baitan eta emakumeen artean birbanatzen ari direla uste baitu ostera ere ardura horiek, emakumeen arteko botere ardatz (etnia, adina) ezberdinen araberrako kateak sortuz. Errealitate berri honi, batik bat zaintza lanetan geroz eta pisu handiagoa duten emakume pobre etorkinek sorturiko errealitate horri, “zaintzaren kate globalak” edo “afektuaren kate mundialak” deitu izan zaio, herri aberatsen zaintza beharren externalizazio edo globalizazio prozesu moduan ere interpreta litekeena. Lanaren nazioarteko banaketa berri baten kimuak lirateke, agian. .

Ebazpen atzerakoi honen bestelako alternatibak irudikatzen hasteko, Pérez de Orozco-k zirrikitu bat zabalik uzten du, bere hitzetan “*ni-ni*” esparru gisa definitua, hau da, ez estatu eta ez merkatuko eragileek osatzen dutena, hirugarren sektorearekin lotu izan dena eta monetazko zein ez monetazko baliabideak uztartzeko gai den esparrua dena. Hor kokatu behar litzateke gure abiapuntua, etorkizun hurbil batean geroz eta ugariagoak izango diren zaintza lan horietarako hirugarren sektore honek ager ditzakeen indarguneen analisisan, hain zuzen ere.

Hirugarren sektore hori ordea, gizarte-ekonomia adieraren bitartez ezaugarritu nahi izatea da ziur aski lan honen ekarpen argienetako bat. Hirugarren sektorea berez, bere

horretan ez baita ezer, ez bada beste bi sektoreen ukazioz definituriko esparrua (ez publiko eta ez pribatu kapitalista). Hizkera arruntean, hirugarren sektorea mozkin asmorik gabeko erakundeekin lotu izan bada ere, parekotasun hori zalantzan jarri nahi izan dugu, eta gizarte-ekonomiak, bere gaur eguneko adieran, hirugarren sektorearen etorkizuneko garapenerako zentzu berriak emateko duen gaitasuna aztertu eta kontrastatu nahi izan da lan honetan.

Honek, lehen unetik bertatik gizarte-ekonomiaren berrikuspen kontzeptuala egitea eskatu digu. Horretan eman ditugu tesi honen lehen hiru kapituluak. Maila akademikoan ezarria zegoenaren ildotik, Espainian 2011. urtean onarturiko Gizarte Ekonomiaren Legeak beregain hartzen du gizarte-ekonomiaren definizio zabalagoaren formulazioa. Esparru honek, hortaz, hari lotu izan zaizkion kooperatiba eta elkarteez gain, jarduera ekonomikodun fundazioak ere barnebilduko lituzke egun, baita bestelako enpresa sozialak (laneratze enpresa, enplegurako zentro bereziak eta erakunde singularrak) eta arrantza eta nekazaritza esparruko zenbait jarduera ere. Eta hortaz, definizio berri honek abagunea eman digu, Gipuzkoako pertsona nagusien esparruan zerbitzu hornitzaile diren hiru errealitate nagusiak, hots, fundazioak, elkarteak eta kooperatibak, logika partekatu komun batzuen ikuspegitik aztertzeko.

Doktorego-tesi honen ikergaia hortaz, Gipuzkoako pertsona nagusien esparrura bideraturiko gizarte-zerbitzuetan diharduten gizarte-ekonomiako eragileen analisisa da. Esparru honetan oso aspaldikoak diren fundazioen ondoan azken urteetan sortzen joan diren elkarte eta kooperatibak agertzen dira, guztiak ere (azken hogeita hamar urteetan gutxienik) publikoki erregulaturiko jarduera esparru batean garatzen joan direnak, eta beraz, herri-erakundeekiko harremanean ulertu behar direnak.

Aipatu behar genuke, halaber, ikerlan honetan ez dugula gizarte-zerbitzuen esparruko gizarte-politiken ebaluazioa egin nahi izan. Zentzu horretan, politika publikoen aldetik gizarte-ekonomiari ematen zaion trataera ere aztergai izan dugu, baina xehetasun handiegitan sartu gabe, ez baita hau gure ikergai zentrala. Era berean, gizarte-ekonomiaren parte hartzea ez dugu zerbitzu publikoen eraginkortasunaren ikuspegitik aztertu nahi izan, ez dugu gizarte-ekonomiako eragileek zerbitzu publiko horiek egokiago (merkeago) hornitzen ote dituzten baloratu nahi izan. Eraginkortasunaren

ikuspegi ekonomizista hori garrantzitsua izanagatik, are gehiago ongizate-estatuaren iraunkortasun ekonomikoa auzitan den garaiotan, guk gure ikuspegia bestelako elementu kualitatiboagotan zentratu dugu, uste baitugu, zerbitzu publikoen alorrean eraginkortasun ekonomikoa ez dela kontuan hartu beharreko elementu bakarra, ezta nagusia ere, ziur aski.

Aitzitik, gizarte-zerbitzuetan bilatu asmo den eredu komunitarioa egikaritzeko, gizarte-ekonomiako eragileek gainerako eragile publiko eta pribatuen aurrean bestelako berme ezaugarri batzuk barnebiltzen ote dituzten kontrastatzea izan dugu xede. Berme ezaugarri horiek, gizarte-ekonomiari berezkozat aitortu izan zaizkion zenbait praktiken ondorio lirateke (funtzionamendu demokratikoa, erabiltzaile eta langileen parte hartzea, barne zein kanpo elkartasuneko mekanismoak, mozkinen trataera komunitarioagoa, etab.), egiazki hala funtzionatuz gero, konfiantzari loturiko zenbait kostu ekidingo lituzketenak, bai erabiltzaileek zerbitzuen kontsumoan eta baita herri-erakundeek zerbitzuen kontratatzaile diren neurrian izan litzaketen kostuak ere.

Ikergai honek, beraz, gure iritzian interesa izan lezake uztartzen ahalegindu garen esparru ezberdinetan.

Lehenik eta behin gizarte-ekonomiaren munduarentzat. Euskal Herrian gizarte-ekonomiaren adiera oso lotua egon izan da jarduera industrialen esparrura nagusiki, eta hor, Mondragon Taldeak zentralizatzen duen errealitatera. Gizarte-ekonomiaren baitan, zerbitzuen alorra oraindik orain asko arakatu gabeko esparrua da, banaketa, finantza bitartekaritza edo hezkuntza bezalako alorretan bere presentzia duen arren, euskal kooperatibagintzak ez baitu urrats sendorik eman gizarte-zerbitzuen edo “gertutasunezko zerbitzu pertsonalen” esparruetan barneratzeko. Azken hausnarketen ildotik etorkizuneko eremu estrategiko gisa identifikatu den arren, oraindik kontsolidatu gabeko esparru bati buruz ariko ginatke, praktika kooperatiboak birdefinitzea eskatzen duena, eta merkatu horretan ondo kokatua egoteko esperientzia horien elementu bereizgarrien sendotzea premiazko duena.

Era berean, mozkin asmorik gabeko erakundeak trantsizio epealdi batean aurkitzen dira, erantzukizun publikoko zerbitzuen hornitzaile izateak profesionalizaziorantz edo egitura

enpresarialagoetara jotzera derrigortzen baititu, eta hor iruditzen zaigu guri, gizarte-ekonomiaren munduak zentzu eta praktika berri batzuk erantsi ditzakeela erakundeotan, besterik gabe merkatuko erakunde huts bilakatzea ekidinez.

Bigarren interesgunea gizarte-zerbitzuen esparruari loturikoa litzateke, ikusiko dugun eran oraindik orain esparru garatu gabea baita, heltze bidean dena, eta bere egituraketa instituzionalean guztiz definitu gabea. Eztabaida puri-purian den une eta eremu batean sartu garela iruditzen zaigu. Zentzu horretan, gizarte-zerbitzuen etorkizuneko ereduaz gogoetatzen hasita, eredu mistoaren eztabaidan bete betean sartzen da gizarte-ekonomiaren parte hartzearen afera. Sektore publikoaren nahi eta ezko hedapen handiago batekin batera, bestelako eragile pribatu eta informalen parte hartzea ere aurreikusten duen sistema batez dihardugularik, hor, gizarte-ekonomiaren ekarria interesgarria izan litekeela iruditzen zaigu, benetan leial bazaio berezko dituen aipaturiko ezaugarriei.

Azken interesgune bat, nahi bada akademikoagoa, ekonomia diziplina bezala berrinterpretatzeko eginiko saiotik erator liteke. Honela, bestela ezingo litzakeenez, pertsona nagusien zaintzaren gizarte-egituraketa lantzeko, esparru informala ikusgarri egitea izan da lehen eginbearra. Hau kontuan hartzeak, ekonomiaren *mainstream*-aren zenbait elementu axiomatiko zalantzan jartzea dakar, besteak beste: soilik monetazko esparrua kontuan hartzea, merkatua jotzea jarduera ekonomikoen kokagune edo agertoki nagusitzat, mozkin asmoa jotzea eragile ekonomikoen *leit motiv* bakartzat; etab. Ekonomia feminista eta ekonomia solidarioaren ekarrietatik, ekonomia birpentsatzeko elementuak proposatzeaz gain, horiek gizarte-ekonomiako eragileen bitartez praktikan jartzeko dauden aukerak arakatu nahi izan ditugu. Eta era berean, politika publikoen esparruari dagokionez, esparru informalaren garrantzia behar bezala hautemateak, lehenetsunak ondo ordenatzen laguntzen duela iruditzen zaigu.

Ez nuke aurkezpen atal hau pasatzen utzi nahi, azkenik, ikerlan hau egitera bultzatu nauten motibazio pertsonalen berri eman gabe.

Nire burua gizarte-ekonomiaren esparruan kokatzen dut, EHUko GEZKI, Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboko Institutuko kide naizen aldetik, ikerketa-ildo

honi loturik egin izan baititut nire orain arteko ikerketa munduko sartu-irten gehienak. Eskertzekoa da, eta eskertu nahi nituzke hargatik, GEZKI-k nire ibilbide laburrean eskaini dizkidan bitarteko materialak, kongresuetarako joateko edo argitalpenak bilatzeko emandako laguntzarik gabe, ezinezkoa izango baitzitzaidan hona arte iristea.

Baina bitarteko materialez gain aurkitzen dira pertsonak beti, baita kasu honetan ere, eta poza besterik ezin nezake adierazi GEZKI barruan eta honen aitzakian ezagutu ditudan pertsonak ondoan izatearren. Zortedun sentitzen naiz horiek guztiek nigana azalduriko gertutasunagatik eta ofizio honetan eman didaten askatasunagatik, nire ikerketa-aldiko joan etorrietan ondoan izan ditudalako beti. Lan akademiko astun hauek basamortuko ibiltariaren lanak izan ohi dira sarri. Ziur naiz honainokoak ez nituzkeela horrela egingo bidelagun izan ditudan kide horien konpainiarik gabe, gidatu egin nautelako sarri, eroraldietan aurrera jarraitzeko bideak iradoki dizkidatelako, eztabaida (noizbehinka sukartsuetan) gizarte-ekonomiari buruzko iritziak freskatzen eta aurre-iritziak gainditzen lagundu didatelako.

Nire burua gizarte-ekonomiaren aztertzaile gisa kontsideratu arren, ikerlan hau nolabaiteko akidura pertsonal baten aterabidea izan zela aipatzea ere ezin esan gabe utzi. Kooperatibagintzaren esperientzia industrialaz eta honi loturiko berrikuntza sistemez zenbait lan egin ostean, nire burua bertan kokatzeko gero eta kontraesan handiagoak eta motibazio ahulagoak sumatzen nituen. Eta hargatik heldu nion oso bestelako sektore bati, gizarte-zerbitzuenari alegia, uste dut gutxik zapalduko lurralde izatearen lilurak erakarrira edo.

Gizarte-ekonomiaren inguruan jarduteak nire pentsamoldean eta hazkuntza pertsonalean ere nabarmen eragin duela iruditzen zait, kooperatibista bazkide-langilearen alde bikotasun bera sentitu izan baitut nik sarri, nire langintza intelektual honetan. Kontraesan ustez salba ezinen aurreko geldialdi sentsazioa. Ereduen purutasunean sinesteari utzita, eredu konkretuak guztiz mistifikatu edo guztiz alboratu gabe, pentsamoldearen garapena eremu dialektikoetan barna egiten dela ondoen ikasi dudala uste dut. Edo horretan nabil, behintzat.

Beti mantentzen ahalegindu naiz, hargatik, kasik bizitzaren aurreko funtsezko jarrera gisa, sinesten dudan horrekiko izpiritu kritiko bat. Kasu honetan ere, gizarte-ekonomiako eragileek gizarte-zerbitzuen esparruan ager litzatekeen indarguneen analisisa ez dut fede itsu batek bultzatuta egin. Kooperatibak edo bestelako enpresa-molde alternatiboak, bere horretan helburua baino, bitarteko direla defendatzen dut. Bere horretan balioa (eta ez txikia) duten esperientziak izanagatik ere, horien baliozkotasuna beti ere bestelako erreferentzia marko zabalagoek baldintzatuta baloratu nahi izan dut. Kasu honetan gizarte-zerbitzuen sistema (formal) komunitario baterako eragile egokiagoak diren neurrian kokatu dut nire burua horien alde. Gizarte-ekonomiari loturiko praktika horiek egiazki betetzen diren kasuan nabarmendu nahi izan dut horien baliozkotasuna, horien hutsuneei ezikusirik egin gabe, eta horien kausaz sortzen diren gatazkak diren bezala agertuz. Edo horretan ahalegindu naiz behintzat.

0.3 Tesiaren helburuak eta hipotesiak

Helburu eta azpi-helburuak

Tesi honen helburu nagusia, hortaz, Gipuzkoako pertsona nagusien esparrura bideraturiko gizarte-zerbitzuen hornikuntzan gizarte-ekonomiako eragileek duten esangura aztertzea da. Esangura aztertzeaz gain, beste bi azpi-helburu finkatu dira: lehenik, gizarte-ekonomia bere baitan koherentea den esparru gisa edo logika dispareko eta uztartu ezinako errealitateek osatzen duten esparru gisa hautematen den aztertu nahi izan da; bigarrenik, gizarte-ekonomiak herri-erakundeekin duen harreman modua aztertu da, bereziki gizarte-zerbitzuen egungo eta etorkizuneko eredu mistoan izan dezakeen garrantzia ebazte aldera, gutxienik hiru esparrutan, zerbitzuen finantzazioan, zerbitzuen hornikuntzan eta politika publikoen diseinuan.

Hipotesiak

Horiek izanik gure ikergaiaren helburu nagusiak, gure abiapuntuko hipotesiak nagusiki bi lirarteke:

1. hipotesia: Gizarte-zerbitzuen esparruan garaturiko gizarte-ekonomiako esperientziek, gizarte-ekonomiaren adiera bera eraberritzea ekarri dute, eta oraingoz barne koherentzia ahuleko nozioa den arren, bere baitako logika ezberdinen arteko elementu komun partekatuak ezartzeko aukerak baditu.

Hipotesi hau frogatzeko lan bibliografiko zein enpiriko sendoa burutu dugu. Bibliografiaren berrikuspenaren atalean, gizarte-ekonomiaren gaur egungo definizioa iritsi arte garaturiko ibilbidea marrazten ahalegindu gara, gizarte-ekonomiaren gertuko zenbait nozioen arteko antzekotasunak nabarmenduz. Garapen teoriko hori errealitatearen gainean kontrastatu nahi izan da, gizarte-zerbitzuen esparruan ageri diren hiru logika enpresarial nagusien, hots, fundazio, elkarte eta kooperatiben analisi alderatua eginez, horien arteko elementu komun eta ezberdintzailei erreparatuz.

2. hipotesia: Gizarte-ekonomiaren bilakabidea estuki loturik agertzen da honek herri-erakundeekin izaniko harremanarekin, pertsona nagusiei bideraturiko gizarte-zerbitzuen eredu mistoaren osieran izan duen garrantzia eta izango dituen garatzeko aukerak horren lekuko dira.

Bigarren hipotesi hau frogatzeko ere, dokumentazio lana landa lanarekin uztartu dugu. Horrela, gizarte-ekonomia eta sektore publikoaren arteko harremana aztertu duen literatura oparo askoa arakatu ostean, gizarte-ekonomiaren tradizio ezberdinak bakoitza bere ongizate-erregimenaren inguruabarrean kokatu dira, eta gizarte-ekonomiaren egungo bilakaera ongizate-estatuaren krisiaren argitan aztertu da. Hipotesi honen kontraste praktikoa egiteko, gizarte-ekonomiak gizarte-zerbitzuen esparruan sektore publikoarekin, hots, ongizate-estatuarekin orain arte izaniko harremana aztertu da, baita etorkizuneko sistema mistoaren konfigurazioan izan beharreko lekuari buruzko eztabaida mahai gaineratu ere.

0.4 Ohar metodologikoak

Hitzaurrean aipaturikoaren ildotik, gure doktorego-tesiko hipotesi nagusien kontrastea aldagai kualitatiboko elementuen analisiaren bitartez gauzatu da. Hargatik, gizarte-ekonomiaren esangura aztertzeke analisi kuantitatiboetara jo dugun arren, honen barne

osaera eta logika ezberdinak, eta honek herri-erakundeekin duen harremana aztertzeko, ikerkuntza metodo kualitatiboez baliatu gara.

Funtsean edozein ikerketa lanetan baliatu ohi diren hiru esparru metodologiko nagusi jorratu dira hemen ere: gaiari loturiko literaturaren berrikuspen bibliografikoa batetik, ikerketa esparruaren zedarritzea bestetik, eta landa lana, azkenik.

Berrikuspen bibliografikoa: oinarri teoriko nagusiak

Landa lanaren inguruabarra definitze aldera, berrikuspen bibliografikoa bi gai nagusiren inguruan ardaztu da: lehen a gizarte-ekonomiaren definizioari loturikoa, eta bigarrena, gizarte-zerbitzuen analisiari dagokiona.

Bi horien arteko uztarketa bilatzeko, gure hari narratiboak aurkeztu dugun bigarren hipotesia izan du ipar: gizarte-ekonomiaren definizio ezberdinak ongizate-erregimen ezberdinen testuinguruan kokatu dira lehenik eta ongizate-erregimenen berrantolaketaren testuinguruan interpretatu dira gero, bai gizarte-zerbitzuen garapena bera, eta baita gizarte-ekonomiak zerbitzu horietan izaniko parte hartzea eta honen inplikazio teorikoak ere.

Gizarte-ekonomiaren berrikuspen bibliografikoa egiteko, aitortu behar dugu aurretik atzerako bidea dela tesian garatu duguna, nahiz eta idazketan sekuentzia kronologiko baten arabera aurkeztu emaitzak. Hain da horrela, gure abiapuntua edo interesgune nagusia ekonomia solidarioaren marko teorikoa izan baita. Korrante hau gizarte-ekonomiaren bilakabide (edo haustura) gisa aurkezten da, gizarte-ekonomiako eragile tradizionalak nozituriko isomorfismo prozesu ezberdinak gainditzeko helburuz proposatzen dena. Honela, kooperatiba asko merkatuko eragile huts bilakatu ote diren eta elkarte zein mutualitateak gero eta eragile para-estatalagoak ote diren ustea dutenez, ekonomia solidarioko teorialariek gizarte-ekonomiaren benetako zentzua biziberritzera datozen esperientzia berriak nabarmentzen dituzte, “gizarte-ekonomia berria” edo “enpresa sozial edo solidario” gisa izendatzen dituztenak.

Horiek jarduera esparru berrietan agertzen hasi dira, kasualki ongizate-estatuaren esparrukotzat jo arren honek asetzen ez dituen zenbait esparrutan, gizarte-bazterketan diren pertsonen laneratze enpresetan edo gizarte-beharrizanean diren pertsonen bideraturiko zerbitzuetan, hain zuzen ere. Eta azken honetan txertatzen dira bete betean pertsona nagusiei bideratutako zaintza zerbitzuak ere.

Guk aztergai ditugun esperientziak teorizatzeke marko egokiena izateaz gainera, ekonomia solidarioaren baitan ekonomia bere osotasunean birpentsatzeko elementuak proposatzen dituzten autore andana aurkitu dugu, baita horien proposamenez erakarrita sentitu ere. Hargatik esaten dugu ekonomia solidarioaren erreferentzia izan dela gizarte-ekonomiaren berrikuspenera egiteko baliatu dugun iparrorratz nagusia, nahiz eta beste bi eskolek ere toki garrantzitsua hartu duten gure oinarri teorikoetan: bata gizarte-ekonomia tradizionalari loturikoa eta CIRIEC erakundearen orbitako autoreek garatzen dutena, eta bestea, mozkinen besteko erakundeei loturikoa, eta ekonomialari neoklasiko anglosaxoien esparrutik datorrena.

Berrikuspen teorikoaren bigarren ardatza gizarte-zerbitzuen analisira gerturatzeko eginikoa da. Aipatu behar dugu, esparru hau bere osotasunean aztertu ahal izateko, ez zaizkigula nahikoak iruditu ongizate-estatuari loturiko azterketak, eta hargatik gainditu nahi izan dugu ikuspegi murrizkor hori esparru informala edo familiarra beren analisisan barneratzen duten ildo teorikoak landuz. Bi aipatuko genituzke nagusiki: lehena, ongizate-erregimenen proposamena, Esping-Andersen-ek famatu arren soka luzea ekarri duena eta zaintza-erregimenen proposamena bestea, ongizate-erregimenen berrikuspenetik abiatu eta zaintza formal eta informaleko baliabideak uztartuz garatzen dena. Marko horietan oinarri hartuz hirugarren sektoreko teorialariengandik eginiko berrikuspenak ere aztertu dira, erregimen ezberdinen sailkapen horietan hirugarren sektorearen analisiak barneratzeak sailkapenak aldatuko ote lituzkeen ebazte aldera.

Hurbilketa zabalago horien bitartez gizarte-zerbitzuen testuinguru orokorra aztertu ostean, konkretuki Espainia eta Euskadiko gizarte-zerbitzuak aztertzen dituzten autoreak irakurri ditugu, horiekin gure landa lanerako inguruabarra ondo definituta utzi asmoz.

Aipatu behar, literatura mordo hori bilatzeko iturri ugaritatik edan behar izan dugula: nazioarte mailako argitalpen, aldizkari espezializatu, kongresuetako ekarpen eta dokumentu ofizialez gain, gure gertueneko esparruetako argitalpen, txosten, datu-base eta eztabaidarako ekarpenak ere izan ditugu aztergai.

Ikerketa esparruaren zedarritzea eta landa lana

Esparru hauen xehetasunak tesiko 7. kapituluan luze zabal adierazi ditugunez, sarrera honetan zenbait ohar aurreratu baino ez ditugu egingo.

Marko teorikoan gizarte-zerbitzuen analisitik abiatu bagara ere, landa lanerako Gipuzkoako pertsona nagusien esparrua da gure ikerketa esparru gisa hautatu duguna. Gizarte-zerbitzuen esparru eta herrialde konkretu bat hautatzeak baditu bere arrazoiak. Lehena eta argiena, gertutasunarekin loturikoa, Gipuzkoan zentratzearekin erraztasun handiagoa izan baitugu bai datu-base ezberdinak eskuratu eta ustiatzeko, baita kontaktuak bilatzeko eta baita elkarrizketak burutzeko ere. Neurri batean Gipuzkoako errealitatetik eratorritako ondorioak gainerako herrialdetara ere orokortu litezke, baina neurri batean bakarrik.

Eta hargatik gizarte-zerbitzuen esparru konkretu bat hautatzearen arrazoia. Euskadiko gizarte-zerbitzuen gaineko eskumenak nagusiki foru aldundienak izanik, Euskadiren baitan herrialde bakoitzak bere eredu propioa garatu izan duela da 6. kapituluan ondorioztatuko duguna. Honek herrialdeen arteko analisi alderatuak egiteko esparru zabala iradokitzen duen arren, nahiago izan dugu kasu konkretu batean gehiago sakondu. Hiru herrialdeen artean Gipuzkoa hautatu dugu hemen sumatzen baita gizarte-ekimeneko erakundeekin itunduriko sistema misto baten garapenik handiena, eta beraz, gizarte-ekonomiako eragileen presentzia handiagoa.

Era berean, gizarte-zerbitzuen esparruak giza talde ezberdinetan eragiten du, nagusiki lautan: pertsona nagusietan, desgaitasuna duten pertsonetan, familia eta haurretan eta gizarte-bazterketan diren gainerako kolektiboetan. Guk lehenengo giza taldean zentratzea erabaki dugu, neurri batean tamaina handieneko giza taldea delako (gaur egungo pertsona kopuruz baina baita etorkizunera begirako proiektzioen arabera ere)

baina herrialde arteko analisisan gertatuko litzaigukeen eran, gizarte-ekonomiak presentzia molde eta esangura ezberdinak dituelako azpisektore batetik bestera. Honela, gizarte-ekonomiarik indartsuena desgaitasuna duten pertsonen sektorean aurkitzen den arren, sektore hau gehiago landu izan da orain arte, eta hargatik bete nahi izan dugu pertsona nagusien esparruan sumatzen genuen hutsunea.

Landa lana egiteko zein zerbitzu eta zein enpresa hautatu diren, eta zein teknika baliatu diren 7. kapituluan jorratuko dugu sakonago, esan bezala.

0.5 Tesiaren egitura

Tesiak hiru atal nagusi ditu: lehenengo atalean (1.go, 2. eta 3. kapituluak) gizarte-ekonomiaren berrikuspen kontzeptuala burutuko da, bigarren atalean (4., 5. eta 6. kapituluetan) Gipuzkoako gizarte-zerbitzuen hurbilketa egingo dugu, eta azken atala (7. kapituluan) gorde dugu landa lanaren emaitzak aurkezteko.

1.go kapituluan gizarte-ekonomiaren lehen hurbilketa historiko eta kontzeptuala burutuko da. Hirugarren sektorearen teoriarrien baitan bi eskola tradizio nagusi bereiziko dira: bata anglosaxoia, *Nonprofit Organizations* edo mozkin bezalako erakundearen adieran gorpuztua eta bestea europarra edo frankofonoa, *Economia Sociale* edo gizarte-ekonomiaren adieran jaso. Adiera horietako bakoitzaren jatorri historikoak bilatzen ahaleginduko gara lehenik. XIX. mendeko elkartegintza eta kooperatibagintzako esperientzien eskutik garatzen joandako ildo teorikoen oinarriak arakatu ostean, XX. mendeko 70.eko hamarkadan beste mugarri bat ezarriko da, hor hasten baita hirugarren sektorearen teorizazio garaikidea, esan bezala bere bi corpus nagusietan adierazia. Horietako bakoitzaren azterketa xehatua eskainiko da, bi horien arteko analisi alderatu egitearekin batera, Espainian 2011 urtean onarturiko Gizarte Ekonomiaren legeak ekarritako berrikuntzak azalduko direlarik.

2. kapituluan gizarte-ekonomiaren berrikuspena egiteko planteaturiko hipotesia lantzen hasiko gara, esan bezala helburu konkretu batekin: 1. kapituluan landu diren bi tradizio nagusiak, estatua eta gizarte-ekonomiaren arteko harremanenaren testuinguruan kokatuz. Honela, harreman horren analisisa egiten duten bi hurbilketa nagusiak garatuko

dira: bata, mundu anglosaxoitik (batik bat AEBtako teorialarien eskutik) egin diren analisi ekonomikoetan oinarritua, eta bi sektoreen arteko aurkakotasun harremanaren axioma ezartzen duena eta bestea, ikuspegi europarragoa duena eta hirugarren sektorea ongizate-estatuaren ezarpenarekin lotuta ikusten duena. Bigarren horiek Esping-Andersen-ek plazaraturiko ongizate-erregimenen marko teorikoa dute oinarri, nahiz eta proposamen honetan hirugarren sektoreari eskainitako arreta eskasa nabarmentzen duten, eta horren berrikuspena eginez sailkapen horiek egokitzen joan dira, horien artean bat nabarmenduko dugularik: Salamon eta Anheier-en gizarte-jatorrien teoria, hain zuzen ere.

XX. mende amaierak ordea, ongizate-estatuaren eta gizarte-ekonomiaren arteko harremana goitik behera eraldatu duen gertakari historiko baten aurrean jarri gaitu: ongizate-estatu keynesiarraren krisia, eta honen atzetik etorritako berrantolaketa instituzionala, hain zuzen ere. Berrantolaketa instituzional honek bai estatua eta baita gizarte-ekonomia ere birkokatzera derrigortu ditu, eta ondorioz, bi horien arteko harremanak aldatu dira, gizarte-ekonomiaren inguruko proposamen teoriko berriak agertu diren bezalaxe. Horiek dira **3. kapitulu**an jorratuko ditugunak. Lehenik ongizate-estatu keynesiarraren krisiaren koordinatu nagusiak azalduko dira eta berritasun horiek arestian landutako bi corpus teorikoetan nola eragin duten aztertuko da gero: lehenik, ongizate-estatuaren inguruko teoretan, non ongizate-erregimenen ordeztu ongizate mistoa bezalako adierak onarpena lortzen joan baitira, eta bigarrenik, gizarte-ekonomiaren eztabaida kontzeptualean, non enpresa soziala eta ekonomia solidarioa bezalako adierak indartzen hasiko baitira.

Behin gizarte-ekonomiaren berrikuspene kontzeptuala burutu ostean, bigarren atalean landa lana kokatzeko bigarren esparruaren analisisiri ekin diogu, hots, gizarte-zerbitzuen testuinguruaren azterketari.

4. kapituluan, esparru informaleko garrantziari erreparatuko zaio, bai pertsona nagusien zaintza lanetan duen esanguragatik, baina baita esparru informal hori barneratzeak arestian landuriko ongizate-erregimenen proposamena nabarmenki moldatu zezakeela sinetsita. Lehenik azterketa kuantitatiboa burutuko da, esparru informaleko Espainia zein Euskadi mailan pertsona nagusien arretan duen garrantzia

azaleratzeko. Bigarrenik, esparru informal horren analisiari loturiko corpus teoriko ezberdinetara hurbilduko gara: lehenik ekonomialari feministen ekarpen orokorretara, eta ondoren, ongizate-erregimenen berrikuspenean egin eta zaintza-erregimenen proposamenetara. Kapituluak Espainiari egokitutako analisi orokor batekin itxiko dugu, gizarte-zerbitzuen esparruak ageri duen eredu familiaristaren ezaugarri nagusiak laburbilduz, eta azken urteetan eredu horretan eragiten ari diren gizarte-fenomeno nagusien azalpena zirriborratuz.

5. kapituluak, Espainiako gizarte-zerbitzuen analisiari ekingo diogu. Gizarte-zerbitzuen definizioa eman ostean, honek gainerako gizarte-ongizateko esparruen aldean (osasuna, hezkuntza, eta gizarte-segurantza) izan duen garapen berantiarren azalpenari helduko diogu, hori Espainiako ongizate-estatu bukaturik gabearren testuinguruan kokatuz. Bigarren urrats batean Espainiako gizarte-zerbitzuen garapenean eman diren mugari historiko nagusiak aztertuko dira, horiei loturiko lege ezberdinak azalduz, baina batik bat, lege horien bitartez bilatu izan diren garapen ildo nagusien interpretazioa burutuz. Kapituluak amaitzeko, gizarte-zerbitzu orokorretatik pertsona nagusiei bideratutakoetara pasako gara, azterketa hori 2006. urtean onarturiko Mendekotasun Legearen arabera antolatuz.

6. kapituluak Espainia mailatik Euskadi mailarako jauzia egingo dugu. Lehenik Euskadik Espainiako beste zenbait herrialderen aldean agertzen dituen berezitasunen analisi egingo da, “ongizate-erregimen autonomikoen” azterketa alderatuaren bitartez. Bigarrenik, Euskadi mailako gizarte-zerbitzuen garapenean bizi izandako mugari nagusiak aztertuko dira, azpialde hau 2008. urtean onarturiko Gizarte Zerbitzuen euskal Legearen arabera antolatuz. Hirugarrenik, gure landa lanera egokituriko Euskadi mailako azterketa burutuko da, hots, gizarte-zerbitzuen analisia burutuko da baina optika konkretu batetik: zerbitzuen hornikuntzak ageri duen titulartasunaren banaketaren ikuspegitik, hain zuzen ere. Titulartasun publiko, pribatu eta soziala ezberdinduz, eta azken horretan kokatuz gizarte-ekonomiako eragileak (nahiz eta analisisian mozkin asmorik gabekoak soilik barneratu ahal izan), Euskadi mailan pertsona nagusien esparruan gizarte-ekonomiak duen presentzia aztertuko da, analisi alderatua burutuz hiru herrialdeen artean eta baita zerbitzu mota ezberdinen artean ere.

7. kapituluan landa laneko emaitzak aurkeztuko dira, hiru metodologia ezberdinen bitartez lorturiko datuak elkar gurutzatuz. Alde batetik sektorearen zifra nagusien gaineko analisi kuantitatiboa egin da, bestalde, gizarte-ekonomiako eragileen zerrenda bat osatu eta horiei igorritako inkestaren informazioa ustiatu da eta azkenik, sektoreko aditu ezberdinekin eginiko elkarrizketen pasarte nagusiak aukeratu dira.

Hiru iturri ezberdin horiek gurutzatuz, kapitulu bost azpiatal ezberdinetan garatuko da: lehenengo landa lana burutzeko baliaturiko metodologia nagusien eta harturiko erabaki nagusien berri emango da; bigarren, sektore zifra nagusiak aurkeztuko dira, datu-base eta dokumentu ofizial ezberdinetan oinarrituz; hirugarren, gizarte-ekonomiaren barne analisi sakonagoa burutuko da, bidalitako inkesta eta eginiko elkarrizketetatik eskuraturiko informazioa uztartuz, eta iradoki dugun 1.go hipotesiaren kontrastea burutuz; laugarren, gizarte-ekonomia eta herri-erakundeen arteko harremanaren analisia burutuko da, finkatu dugun 2. hipotesiaren kontrastea egiteko, hornikuntza, finantzazio eta parte hartze esparruak aztertuz; bosgarren, gizarte-ekonomiak etorkizuneko gizarte-zerbitzuen eremuan jokatu beharreko funtzioaz eginiko gogoetak plazaratuko dira, gure egungo abiapuntuko analisitik hasi eta orientazio desiragarrien inguruko eztabaidaren giltzarri nagusiak jasoz.

Aipaturiko kapitulu guztien amaieran, kapitulu jorraturiko ideia nagusien laburbilpen sintetiko bat eskainiko da, irakurleari ideiak finkatzen laguntzeko helburuarekin, eta nola ez, tamainako irakurketak beharrezko dituen arnasaldiak eskaintzeko asmoz.

LEHENENGO ATALA:

GIZARTE EKONOMIA

**1 KAPITULUA: GIZARTE EKONOMIAREN JATORRIA ETA GARAPEN
HISTORIKOA: BI TRADIZIO NAGUSIREN ELKARKETA**

Marko teorikoaren lehen zati honek gizarte-ekonomiak kontzeptu teoriko zein egitate sozio-ekonomiko gisa izan duen garapenaren berrikuspen historiko eta kontzeptuala egitea du xede.

Honela, eztabaida kontzeptualari heldu aurretik, gizarte-esparru honen hurbilketa historiko labur bat egin da, esperientzia horiek beren urrats luzeko ibilbidean, aro historiko bakoitzean eta lurraldearen arabera, ezaugarri ezberdinekin nabarmendu direla ikusiko da. Honela, bi aro historiko nabarmenduko dira: lehena XIX. mendeko mugimendu kooperatiboaren eztanda, eta bigarrena azken mende honetako 70eko hamarkadan bizi izandako birloratzea, non esperientzia berrien agerpenarekin bat, horien inguruko nozioak ere biderkatzen joan baitira.

Behin ikuspegi historiko hori eman ostean, kontzeptualki gizarte-ekonomiaren esparrua lantzen joan diren bi tradizio nagusien definizioa landuko da, lehena anglosaxoia, mozkinen besteko erakundeei lotua batik bat, eta bigarrena, frankofonoa, kooperatiben mugimenduan ardaztua eta gizarte-ekonomiaren adiera modernoaren zutarrak teorikoak eskaintzen dituenak. Bi ikuspegi horien alderaketatik ondorioztatuko da gehiago dela bi munduok batzen dituenak bereizten dituenak baino, eta are, ustez eskola bakoitzak berezko eta bereizgarritzat dituen ezaugarriak ere, beste eskolako praktika orokorrekiko oso gertukoak direla.

Kapitulua ixteko, Espainian berriki onarturiko Gizarte Ekonomiaren Legearen aipamena egingo da, gure iritzian, arestian aipaturiko bi eskola nagusien arteko integrazio ahalegin gisa interpreta bailiteke lege honetan ezarrita geratzen den nozioaren formulazioa.

1.1 Fenomenoaren gainbegirada historiko laburra

1.1.1 Elkartegintzatik kooperatibagintzara

Gizarte-ekonomiaren XX. mendeko azken laurdeneko berragerpena, aspalditik existitzen den gizarte-dinamika baten espresio berritua baino ez da. Gaiaren inguruan diharduten autore gehienek onartzen dute hala ere, dinamika horiek historian zehar ezagutu diren klase ezberdinetako elkartegintzazko erakundeetan dutela euren jatorria (Defourny eta Develtere, 1999) eta historian eman izan direla lehenago ere gizarte-ekonomiak indar hartu izan duen aro ezberdinak, nagusiki bat aipatzen bada ere gehien: XIX. mende hastapenetako mugimendu kooperatiboaren eztanda, hain zuzen ere.

Elkartegintza herritarreko esperientziak historia bezain zaharra eta mundua bezain zabala direino, kultura eta sinesmen erlijioso orotan aurki litezke gisa honetako herri mugimendu antolatuak (Defourny eta Develtere, 1999). Ikuspegi zabal eta historiko batetik, hortaz, errealitate honen muinean elkartegintza herritarreko esperientziak aurkitzen dira. Esperientzia horiek guztiek bultzada bera dute oinarrian: giza talderik ahul eta babesgabeen erantzuna, auto-laguntzarako sorturiko elkarteen bitartez, garaian garaiko zailtasun sozioekonomikoei aurre egiteko (Chaves eta Monzón, 2008).

XVIII. amaiera eta XIX. mendeko hastapenetan agertu zen, esan bezala, elkartegintzaren olde berri bat, langile klasearen bultzadaz sortu ziren elkarte, kooperatiba eta mutualitateen agerpenarekin. Mundu kooperatiboa ardatz duen errealitate honen inguruan sortu eta hedatzen joan zen gizarte-ekonomiaren adiera bera ere.

Hala ere, fenomenoaren antzinako formarik behinenak identifikatze aldera, industria-aurreko aro ezberdinetara jo du zenbaitek lehen ernamuinak bilatzeko (Defourny eta Develtere, 1999). Elkartegintzaren lehen sustraiak aurki litezke egiptoarren korporazioetan, greziarren heriotza-erritoak antolatzeko fundazioetan zein erromatar artisauen kolegioetan. Historian gertuxeago, IX. mendetik aurrera hasi ziren herrialde germaniar zein anglosaxoietan lehen lan-elkarte edo gremioak sortzen, eta XI. mendetik aurrerakoak dira ezagunak diren lehen ermandade edo anaitasunak.

Erdi-arotik aurrera, elkarteak mota guztietako forma juridikoekin (ermandade, gremio, karitatezko elkarte, merkataritza-elkarte, etab.) hedatzen hasi ziren mundu zabalean barrena. Esperientzia berri horiek guztiak, Europaren kasuan Elizaren zein Estatuaren kontrolpean jaio ziren, ordena feudalaren instituzio gisa ia, nahiz eta horien garapenean asko eta asko izan ziren erregimenaren monopolio korporatiboa eta egitura hierarkikoa zalantzan jartzen hasi zirenak.

Egungoarekin loturarik zuzenena duen mugimenduaren jatorrietara jo nahi bada, ordea, aro industrialaren hastapenetan eta Frantziar iraultzaren testuinguruan kokatu beharko gara. Industrializazio basatiak gizarte-ordena berrian sorturiko gizarte-disparekotasun erraldoien aurrean eta Frantziar iraultzak bere aldarrietan plazaratutako “elkartzeko askatasun printzipioaren” sozializazioaren testuinguruan ematen hasi ziren elkartegintza modernoaren lehen esperientziak (Moulaert eta Ailenei, 2005).

Ingalaterran sonatuak izan ziren, XVII. mendearen azkenetan sorturiko *Friendly Societies*-en atzetik, XIX. mendean ugaritzen hasitako langileen kooperatibak. Aurki Robert Owen eta beste zenbait sozialista utopikok kooperatibagintzaren estandartea altxatuko dute langile borrokaren ikur gisa, langileen emantzipaziorako eta sistema kapitalista iraultzeko aldarrikapenerako tresna gisa. Lehen hastapenetatik kooperatiben mundua hertsiki loturik azalduko da elkartegintzarenarekin, zehazki mugimendu sindikalarekin, bi horiek langile mugimenduaren txanpon beraren bi alde gisa garatu baitziren beren hastapenetan (Chaves eta Monzón, 2008).

Prozesu honek guztiak mugarri garrantzitsu bat ezagutu zuen William King-en bultzadaz *Rochdale*-ko kooperatiba sortu zenean 1844an, bertan adostu baitziren lehen aldiz kooperatibagintzaren printzipioak eta ordukoak baitira, funtsean, egungo kooperatiben nazioarteko erakunde erreferentziala den *International Co-operative Alliance (ICA)*-ren printzipio fundazionalak¹.

Ingalaterra izanagatik esperientzia horien jokalekurik nabarmenena, esparru kontinentalean ere hedatu ziren elkar laguntzazko izaera zuten beste hainbat esperientzia

¹ <http://www.ica.coop/al-ica/>

ere. Alemanian XIX. mende erdialdera indar handiz sartu ziren elkartegintza industrialaren ideiak, bai hiri-inguruneetan nola nekazaritza esparruetan ere, bereziki Friedrich Wilhelm Raiffeisen-en ekimenez, lehenengo kreditu mutuen sorrerarekin. Honen atzetik nekazari kooperatibek garapen garrantzitsua ezagutu zuten, 1977an Alemaniako Nekazaritza-Kooperatiben Federazioan gorpuztu zena.

Espanian, berriz, kooperatibagintzaren sorrera sindikalgintzarekin erabat lotua azaltzen da, ezagutzen den lehen lan elkartuko kooperatiba (*Compañía Fabril de Tejedores*) izen bertsuko lehen langile sindikatuaren ekimenez (*Asociación Mutua de Tejedores*) sortu baitzen Bartzelonan 1842an. Mugimendu hau ekoizpen-kooperatiba eta sorospenerako elkarte zen aldi berean (Reventos, 1960).

Italian oster, elkarren sorospenerako elkarteak ugariagoak ziren, XIX. mendearen bigarren herenean lehen esperientzia kooperatiboak ezagutzen hasi aurretik. Hala, horietako sorospen elkarte baten bultzadaz (*Società operaia di Torino*) sortu zen lehen kontsumo-kooperatiba, soldatapekoen eros ahalmena bermatze aldera. Italiako beste zenbait hiritan ere errepikatuko da prozesu bera, mutualitateak kontsumo-kooperatibetan bilakatzearena, alegia.

Nolanahi ere, kooperatibagintza elkartegintzaren adierazpide gisa argien ikusten den herrialdea Frantzia litzateke. Izendapenei erreparatuz ere, XIX. mendeko lehen erdialdeko ekoizpen-kooperatibei “ekoizpen langile-elkarteak” deitu zitzairen (*asocaciones obreras de producción*). Bertan korrante sozialistari loturiko zenbait pentsalari ekintzaileren bertutez sortu ziren lehen ekoizpen-kooperatibak: Saint Simon-en ildoko *La Association Chrétienne des Bijoutiers en Doré* 1934an, Fourier-en falansterioak edota, Blanc-en tailer sozialak, adibide batzuk jartzearen. XIX. mendean Frantzian sorospen mutuek ezaguturiko hedapen izugarriaren atzean ere, kasurik gehienetan langile mugimenduaren bultzada sumatzen da (Gueslin, 1987).

Industria iraultzak ekarri zuen gizarte-ordenaren asalduraren aurrean, gainerako elkartegintza esperientzien gainetik, kooperatiben mugimendua izan zen, beraz, dudarik gabe nazioarte mailan hedadurarik handiena izan zuen fenomeno, bai eta maila akademikoan analisi esparru landuena ere (Chaves, 1999). Aipatu den bezala, XIX.

mendeko gizarte-asalduraren testuinguruan, elkartegintzan oinarrituriko esperientzia kooperatibo zein mutualista andana jarri zen abian, ideologia eta mundu ikuskera askotarikoan inspiratuak.

Defourny eta Develtere-ren (1999) esanetan, elkartegintza modernoan eragin zuten ideologiarik nagusien artean leudeke Owen eta enparauen sozialismo utopikoa, kristau sozialistak, liberalak zein libertarioak ere (Proudhon kasu). Korronte ideologikoen aniztasuna oso agerikoa denez, inor gutxik egokitu ahal izango dio eskusiboki horietako inori kooperatibagintzaren amatasuna. Are, esparru ideologikoez harago, kooperatibismoa bere adiera eta adierazpide ugarian, elementu kulturei oso loturik dagoen gizarte-errealitate moduan ulertu behar litzateke. Hargatik ikus litezke historian zehar elkartegintzari loturiko esperientzien motibazioen artean kredo erlijioso ezberdinak (kristau, judutar, islamiar zein budista) eta baita nazio-identitateen aitortzan oinarrituriko gizarte-mugimendu franko ere (Defourny eta Develtere, 1999).

Monzón-ek (2003) bat egiten du Defourny eta Develtere-ren analisisetan (1999) aipatzen duenean kooperatibagintzaren inguruko teorizazioak azken bi mendeetan literatura ekonomikoan nagusitu diren korronte gehienetatik landuak izan direla.

1.1.2 XIX. mendeko kooperatibagintza literatura ekonomikoaren historian: korronte eta egile nagusiak

Monzón-ek (2003) proposatzen duen berrikuspenari lotuz, hiru dira XX. mendeko gerra aroen aurretik literatura ekonomikoan kooperatibagintzari nola-halako arreta eskaini dioten eskola nagusiak: i) Sozialista utopikoak eta antikapitalista ricardiarrak (1820-1844); ii) Tradizio liberaleko autore klasikoak, marginalistak eta neoklasikoak eta; iii) Korronte sozialista (1848-1914).

Lehen horien artean, sozialista utopikoen kasuan alegia, XIX. mendearen lehen erdiko Ingalaterran aurkitzen dira pentsamendu sozialistaren lehen ernamuinak, Robert Owen eta antikapitalista ricardiarrak direlarik korronte honen adierazlerik esanguratsuenak.

David Ricardo-ren *Principles*-en interpretazio antikapitalistaren erreferente nagusitzat William Thompson jotzen da (1775-1833). Egile honen aburuz kooperatibagintza kapitalismoaren alternatiba den sistematzat jotzen da, eta sindikatuari berebiziko garrantzia eskaintzen die beronen garapenean. Robert Owen aldiz, sozialismo erreformista ingelesaren ordezkariak puntakoena da, kooperatibagintzan oinarrituriko gizarte-ordena berriaren aldarria gizarteratzen lehena.

Kooperatibagintzaren lehen aro honetako lorpen nagusienak mugimendu kooperatiboaren osaera bera, mugimendu horren ezaugarri komunak teorikoki homogeneizatzeko sorturiko corpus zientifikoa eta kooperatibagintzaren funtzio politikoaren garrantzia ezartzea lirateke, orduko gizarte-eraldaketaren eragile sendoenetakoa bilakatu baitzen.

Tradizio liberalari dagokionean, Monzón-ek (2003) hiru alditako teorikoak ezberdintzen ditu: ekonomialari politiko klasikoak, korrante marginalista eta autore neoklasikoak.

Lehen klasikoen artean, bi dira, hipotesi guztiz kontrajarrien bitartez izan arren, kooperatibagintzaren errealitatea aztertzerantz iritsi ziren autore nagusiak: T.R. Malthus eta John Stuart Mill. Lehenak, bere *An Essay on the Principle of Population* obra sonatuan aipatu zituen hipotesien arabera, kooperatibagintzak Owen-en gizarte-idearioari eutsiz “pobrezia eta miseria unibertsala” baino ez zuen ekarriko. Ekonomialari klasiko ortodoxo gehienek ildotik, Malthus-ek ere sistema kapitalista kooperatibagintzan oinarrituriko sistemaren ordezkari gaitzetsi zituen.

Ez horrela John Stuart Mill-ek, bera baita kooperatibagintzaren aukeraz jabetu zen pentsalari liberal klasiko nagusia, batik bat bi aspektutan: produktibitatearen mesedetan eta gizarteko eraldaketa moralaren bultzatzaile bezala. Mill-entzako posible zen enpresa mota horiek sistema ekonomiko osora hedatzea, kapitala lan esku produktiboa osatzen zuten artean partekatzeak gizarte-justizian hobetzea eta industria-gaietan oro har mesedegarriak ziren ordenamenduak ezartzea suposatzen baitzuen. Aldiz, bere analisisan kooperatibagintzaren zenbait muga eta arrisku ere aurreikusi zituen gainerako enpresa kapitalistekiko, nagusiki: zuzendaritza karguetarako pizgarri materialen eskasia,

aurrezki eta inbertsiorako joera apalagoa eta erakunde ez parte hartzailetan bilakatzeko arriskua.

Lehen autore horien atzetik etorri ziren 1870 urte inguruan iraultza marginalistako teoriarriak. “Analisi Ekonomiko” modernoaren zutarrak finkatzen hasi ziren eta Ekonomiak zientzia hertsiki ingelesa izateari utziko zion apurka-apurka. Europa kontinentalean bi herrialde izan ziren kooperatibagintzaren analisisetan nabarmendu zirenak: Alemania eta Italia.

Alemanian, aro marginalistaren aurreko aro klasikoan teorizazio ekonomikoaren lehen urratsak emanak ziren jada, baina gai kooperatiboa zeharka landua izan zen “Interes Orokorreko Ekonomia”rekin parekatuz. “Eskola Historiko” zahar zein berriko pentsalariak, berrartu egin zuten ikuspegi horixe bera, Roscher, Schaffle eta Wagner bezalako egileen obretan. “Interes Orokorreko Ekonomia”ren baitan, on komunaren ideian oinarritzen ziren enpresa, erakunde eta sistema ekonomiko guztiak barneratzen ziren, eta estatuak merkatu-ekonomiaren erregulazioan zuen garrantzia azpimarratzen zen.

Italian aldiz, bi ildo bereizten dira: liberal zorrotzak, Francesco Ferrera buru eta liberal sozialak, Emilio Nazzari-ren lidergoan. Azken honek, merkatu zein lehiakortasunaren printzipioak alboratu gabe, horien baitan kooperatibek desenplegu arazoak gainditzeko zuten gaitasuna nabarmendu zuen. Horien atzetik, Leone Wollemborg eta Ugo Rabbeno-k hartu zuten lekukotza, beren azterketak enpresa kooperatiboaren izaera bereiziaren aitortzatik abiatuz. Biek ala biek, kooperatiben elkar laguntzazko izaera azpimarratu zuten, bazkideen mesedetan (ez interes kapitalista edota hirugarren pertsonen mesedetan) egituraturiko erakunde gisa ulertuz enpresa horiek. Korrante honetako egile ia guztiek (Rabbeno-ren salbuespen aipagarriarekin) beren ideario liberalei eutsiz adostasuna azaltzen zuten kooperatibak eta estatuaren arteko harremanari dagokionez: ez zen estatuaren egitekoa kooperatiben sustapenerako neurriak hartzea.

Azkenik, literatura neoklasikoaren corpus teorikoaren eraikuntzan, hiru herrialde eta hiru egile nabarmentzen dira bereziki: Alfred Marshall Britainia Handian, Léon Walras Frantzia eta Vilfredo Pareto Italian.

Lehenaren kasuan, kooperatiben gaiari arreta handirik eskaini ez bazion ere, langileek enpresan parte hartzeak izan zitzaizkeen onura ekonomikoak defendatu zituen, besteak beste: ekoizpen-unitateko beharrezko eskulanaren murrizketa, enpleguaren sorrera ala aurrezkirako pizgarriak eskaintzea. Bere hariari tiraka iritsitako egileek ere, kooperatiben gaiari baino areago, langileen parte hartzearen gaiari heldu zioten aurrerantzean ere².

Frantzia Léon Walras nabarmentzen da, kooperatibagintzaren teoriko izatez gain, mugimendu kooperatiboaren bultzatzaile eta partaide gisa ere. Kooperatiben alderdi ekonomiko eta moralak landu zituen, ez ordea sistema kapitalistaren alternatibaren ikuspuntutik, baizik eta beronen osagarri gisa. Berau izan zen kooperatibismoaren teorizazioetatik abiatuz, gizarte-ekonomiaren adiera proposatzen lehenetarikoa. Aipagarria azken ildo honi loturik Charles Gide-ren ekarpena, “elkartasunezko” korrontearen inspiratzaile (eskola liberal, sozialista edota kristauez aparte) eta “Nimeseko Eskolako” erreferentzia nagusia, zeina bilakatu baitzen kooperatibagintza post-rochdaliarraren lekukotza jaso zuen eskola nagusia.

Azkenik Italian Vilfredo Pareto-ren ekarpena interesgarria izan zen, kooperatibagintza ezaren alternatiba izatetik urrun, lehia inperfektuak sorturiko merkatu-akatsak konpontzeko eragile osagarri moduan ulertzen baitzuen.

Sozialista utopikoen eta autore liberalen ondotik, literatura ekonomiko sozialistan kokatzen diren zenbait autorek ere landu izan dute kooperatiben gaia.

² Bigarren Mundu Gerra ondorengo lehen hamarkadetan kooperatibagintzaren inguruko teorizazio askorik garatu ez zen arren, pentsamendu ekonomikoak arreta berria eskainiko zion autoeraketaren gaiari. Yugoslavia ohian praktikan jarritako sozialismo autoeratuak hauspotu zuen eztabaida honen lekukoa Benjamin Ward-ek hartu zuen, enpresa autoeratuaren teoria ekonomiko baterako lehen urratsak planteatuz. 1970eko hamarkadara arte itxaron beharko zen Jaroslav Vanek-en *General Theory of Labor Managet Market Economies* gaiaren inguruko erreferentzia nagusia kaleratzeko eta eztabaida analitikoak berpizteko (Monzón, 2003).

1840tik aurrerako teorizazio sozialistan, ordura arteko elkartegintzazko korrontearen gainetik korronte marxista gailentzen joan zen. Karl Marx-ek kooperatibagintza hiru ikuspegitatik landu zuen: i) kooperatibagintza gizarte kapitalistatik sozialistara igarotzeko indar eragile gisa; ii) kooperatibagintza, gizarte sozialistaren aurretiazko irudikapen moduan eta; iii) kooperatibagintzaren jarrera aholkagarria estatuaren aurrean.

Lehen puntuari dagokionean, Marx-ek Luis Blanc-en proposamenei kontra eginez, kapitalismotik sozialismorako igarobidea kooperatibagintzaren bizkar uztea, gizarteraldaketa sakonagoa esparru enpresarial hutsera murriztea zela uste zuen. Marx-en idazki eta diskurtso ezberdinetan errepikatzen da Marx-ek kooperatibekiko duen jarrera hori: kooperatibei, beren kasa, ez zien sistema eraldatzeko gaitasunik ikusten, nola eta ez den mugimendu nazional orokorragoen babesean.

Marx-en ikuspegi estatista hori bera gailenduko da gainerako bi hipotesien erantzunean ere: kooperatibak gizarte sozialista eratzeko oinarrizko lanabes izan arren, ekoizpenerako lanabes guztiak estatuan zentralizatuak egon behar lukete, eta beraz ez dagokio estatuari inolako laguntzarik ematea kooperatibei, alderantziz baizik.

1.1.3 XX. mendea: bi tradizio ezberdinen sorkuntza

Elkartegintzaren fenomenoak garaikideak, garapen eta ezarpen oso ezberdinak ezagutu izan ditu geroztik munduko herrialde ezberdinetan. Evers eta Lavelle-k (2004) fenomenoaren irakurketa historikoa burutuz, azken bi mendetan hiru epealdi bereizi litezkeela ondorioztatzen dute, elkartegintzak gizartean izan duen “txertatze politikoa” (*political embeddedness*) ardatz hartuta: lehen suspertze eta instituzionalizazio fase bat, bigarren fase batean sektorearen barneko eragileen garapen dispareko bat sumatzen da, eta hirugarren epealdiak XX. mendeko azken hamarkadako birloratzeari egiten dio erreferentzia.

Lehen faseari dagokionean, suspertze faseari alegia, Evers eta Lavelle-k (2004) argudiatzen dute elkartegintzaren lehen suspertze hori oso lotua egon zela hiritartasun nozio bati, zeinak elementu sozio-politiko indartsuak bereganatzen baitzituen.

Hiritartasun nozio honek, fenomenoa definitzerako orduan errealitate nazional ezberdinen arteko antzekotasun eta desberdintasunak azaleratzen ditu. Hortik eratortzen da, funtsean, gizarte-ekonomiaren garapenean aldi berean gauzatuko diren bi tradizioen gorpuztea: bata britainiarra (hedaduraz anglosaxoia), bestea frantsesa (hedaduraz frankofonoa).

Lehen tradizioan, XIX. mendeko Britainia Handian ezartzen joan zena, hiritartasun nozioa oso loturik azaltzen da karitatezko erakundeei, “hiritar onaren” nolabaiteko betebeharrak izango da borondatezko engaiamendu altruista bat izatea. Pérez eta López-ek (2004) aipatzen duten “*nobleza obliga*” printzipioak indar hartzen du klase altuko populazioaren baitan, baztertutakoekiko filantropia moduko bat praktikara eramanez. Gobernu viktoriarren helburua, zentzu horretan, gizarte bere kasa autoerregulatu zedin lortzea zen, nagusiki karitatezko elkarten bitartez eta gobernuarekiko guztizko autonomia gordez. Karitatezko erakunde horien biderkatzearen bitartez, estatuak bera eta hiritarren arteko “bitartekaritza erakundeak” sortu zituen, gizarte-prestazio publikoak bideratzeko.

Aitzitik, tradizio frantziarrari dagokionean, elkarrekin asko motibazio filantropikoen bitartez jaio arren, mugimendu honek berdinzaletasun errepublikanoaren kutsua izan zuen nabarmen. Rodríguez Cabrero-ren (2003) iritzian, mugimendu honek bi inspirazio iturritatik edan zuen: ekonomia fisiokratikoaren tradizioetik eta elkartasun nazionalaren tradizioetik. Politikari, legelari eta soziologo sonatuen bultzadaz (Leroux, Durkheim, Bouglé, Bourgeois, etab.), elkartasunaren alternatiba indartu zen, ordura arteko liberalismo lehiakor eta estatismo autoritarioen tarteko aukera gisa. Elkartasunaren ideario honek, XIX. mendeko amaierarako berdinen arteko elkartasunaz gain belaunaldi-arteko elkartasun nozioetan ere sakondu zuen, eta hor ezarri ziren zuzenbide sozialaren oinarri filosofikoak, bai eta lehenengo derrigorrezko gizarte-aseguruak ere.

Direnak direla bi tradizio horien oinarri filosofiko-moralak, oso gutxi jartzen dute zalantzan egun elkarrengandik ezberdinak diren bi tradizio paralelo osatzen joan direla. Lehen, britainiarra, gizarte-altruismoan oinarritua eta borondatezko elkarteetan gorpuztua eta bigarrena, frantziarra, elkartasunezko ekonomian oinarritua eta elkar laguntzako elkarteetan gorpuztua (Laville, 2003:13). Beste era batera esanda, lehen

tradizio zibilekoa, eta kanpo-elkartasuneko erakundeetatik bideratua, eta bigarrena, tradizio kooperatibokoa eta barne-elkartasun mekanismoen bitartez egituratua (Rodriguez Cabrero, 2004:24). Biak ala biak, beren hastapeneko espresioan jatorri berberetik abiatu ziren, kapitalismo hasiberriaren aurka antolaturiko mugimendu kooperatiboan, hain zuzen ere.

Bi jarduera-logika horien bitartez garatzen joan ahala, bi korrante horiek pixkanaka-pixkanaka jomuga berbera izan dute: instituzionalizazioan sakontzea. Honela, herrialde ezberdinetan zehar hasi ziren kooperatibak, mutuak edota elkarteak juridikoki eta forma legal bereizi gisa aitortzen, baita sektore publikoarekiko harremanak estutzen ere. Italian esaterako, gizarte-zerbitzuetako elkarte handiena agentzia estatal bilakatu zen. Frantzia elkarte jardunbide ekonomikoak estatuaren kontrol zorrotzak jaso zituen, atzetik zegokeen elizaren boterea mugatze aldera. Alemanian, Weimarko Errepublikan, estatuak onartu zuen gizarte-zerbitzuen alorrean ongizateko elkarte handiek lehentasunezko papera jokatzeko zutela, horiek bultzatzeaz batera zorrotzen zuelarik horien gaineko erregulazio eta kontrola ere.

Testuinguru honetan, aipaturiko eragile horiek garapen-bide ezberdinak jorratu zituzten, beti ere herrialde bakoitzean nagusitzen doan ongizate-erregimenekin harremanetan.

Alde batetik, kooperatibak leudeke. Kooperatiben garapenean ezaugarri komun bat nagusitzen joan da esperientzia ezberdinetan: gizarte-beharrizanen erantzun gisa sortzetik, merkatu eskakizunen arabera garatzen joango dira, iraunkortasun ekonomikoaren mesedetan bestelako helburu sozio-politikoak pixkanaka alboratzen joango direlarik.

Kooperatibak lehen fase batean gizarte-beharrizanen erantzun gisa hedatu ziren. Bouchard et al-en (2000) irudiko, gerra-aurreko epealdian gutxienik hiru fase ezberdin bereiz daitezke, garai bakoitzaren krisialdi ezberdinei erantzunez, horietako bakoitzean jarduera kooperatibizatua ezberdina izango delarik: lehen une batean, XIX. mendeko erdialdean, gremioetan oinarrituriko lan-erregulazioa desarautzeak sorturiko babesgabeziaren aurrean, elkar laguntzako erakundeak agertu ziren. Bigarren aro batean, XIX. mendeko azken laurdenean, kreditu-eta nekazaritza-kooperatibak indartu ziren,

ekoizle txikiek merkatu geroz eta lehiakorrago batera egokitzeko harturiko estrategia produktibo finantzari gisa. Azken fase bat bereiz liteke, XX. mende hastapeneko krisi sakonak bultzatuta, langile klasearen gutxieneko baldintzak ziurtatzeko eratu ziren kontsumo-eta etxebizitza-kooperatiben ugaltzeari lotuta.

Epealdi orokor honetako mugimendu kooperatiboaren joera orokorra hortaz, askoren iritziz DiMaggio eta Powel-ek (1983) “merkatu isomorfismo” modura izendatu dutenaren ildotik joan da, zeinaren arabera kooperatibek merkatu lehiak behartuta ekoizpen-moduen kontzentrazio eta jarduera ekonomikoaren espezializazioa gauzatu behar izan baitute, bestelako helburu sozialen kaltetan³.

Beste plano batean koka litezke mutualitate zein elkarteak, biak ala biak oso lotuta ez hainbeste merkatuaren eskakizunei, baizik eta eratzen joan diren ongizate-estatuaren beharrezkoak. Mutualitateen kasuan, joera nahiko orokortu bat ageri da: mutualitateak, aseguru-sistema pribatu izatetik, apurka-apurka estatuaren araudien arabera erregulatzen eta homogeneizatzen joan dira, azken buruan derrigorrezko gizarte-segurantza sistemen osagarri edo kudeatzaile bilakatuz (Evers eta Laville, 2004).

Elkarteei dagokienean ere, horien instituzionalizazioa oso loturik egon da ez bakarrik ongizate-erregimenen tipologiari, baizik eta kritika feministak nabarmenduko duen bezala, horiek emakumearen gizarte-berdintasunari buruz hartu izan duten jarrera politikoari ere (Lewis, 1992). Honela, nabarmen bereizi behar dira zerbitzuen hornidura unibertsala eskaini duten erregimenak monetazko transferentzietan oinarritu diren elkarrekin, horietako bakoitzak emakumeen emantzipazioan dispareko emaitzak sortu baitituzte.

Azken elementu horri loturik, eta Esping Andersen-ek (1990) plazaraturiko eskemari eutsiz, elkarrekin parte hartzea ongizate-erregimenetan oso disparekoa da erregimen tipo bakoitzean: sistema unibertsalean, zeinetan estatuak zerbitzu publiko unibertsalen bitartez ekoizten duen ongizatea, elkarteak gizarte-mugimendu gisara ezaugarritu dira,

³ Tentsiozko garapen horren adibiderik argiena Euskal Herriko *Mondragon Humanity at Work* (orain arte Mondragon Corporación Cooperativa) bildutako kooperatiben nazioartratze estrategietan azaldu da, Errastik (2002) eta Bakaikoa et al-ek (2004) sakonki aztertu duten moduan sistema dual baten egikaritzea ekarri duelarik: batetik matrizeko enpresa kooperatiboak eta bestetik kapital publiko zein pribatuz hornituriko horien menpeko filialak. Sistema dual honek kontraesan biziak sortzen ditu kooperatiben eguneroko bizitzan, euren helburu sozial eta ekonomikoen artean.

ez inola ere zerbitzu eskaintzaile gisa. Gisa berean, nahiz eta sistema aurkakoa izan, erregimen liberaleko sistemetan, diru-prestazio bidezko sistemak ongizate-zerbitzuen kudeaketa ekonomia domestikoaren esparrura edota merkatu ekonomiarenera desplazatu du, elkarreak bigarren plano baten lagaz. Azken tipologia baten, erregimen korporatiboko sistemetan, kausi liteke elkarteen protagonismo handiago bat, estatuak erregulaturiko eta zerga bidez finantzaturiko gizarte-politiken kudeaketan, elkarreek jokatu izan baitute paper garrantzitsu bat.

Azken kontsiderazio horien ildotik izendatu izan dute zenbaitek instituzionalizaio hau “ez-merkatuko isomorfismo” gisara (Evers eta Laville, 2004), DiMaggio eta Powel-ek erabilitako terminologia moldatuz. Termino horren bidez, mutualitateen kasuan argiro eta zenbait elkarteren kasuan ere berdin, estatuak horiek bereganatu izanaren konstantzia eman nahi da, beren hastapenetako autonomiaren kaltetan. Gauza hauez guztiez, ordea, sakon eta zabal jardungo gara marko teoriko honen bigarren kapituluan.

Gerturapen historiko honekin nolabait amaitze aldera, Rodriguez Cabrero-k (2003) proposatzen duen gogoeta berreskuratu dugu, autore honek aipaturiko bi tradizioen analisia egiterakoan egiten duen bereizketa interesgarria iruditzen baitzaigu:

“...En cierto sentido se podría decir que, en el caso de la economía social, se trata de una respuesta a los fallos de mercado o, mejor, a los fallos del capitalismo, en la solución de los problemas de empleo y bienestar. Las cooperativas y mutuas, núcleo esencial de la economía social, son una respuesta social a los límites del capitalismo en cuanto a su capacidad de generar igualdad. Por contra, el sector no lucrativo, en la tradición anglosajona, es una respuesta a los fallos de gobierno, a la incapacidad “natural” de éste para solventar los problemas de la solidaridad. En un caso se trata de lograr la solidaridad a través de la democracia económica, en el otro se trata de lograr la solidaridad a través de la compasión social.....” (Rodriguez Cabrero, 2003:24)

1.2 70eko hamarkada: kontzeptuaren birloratzea

Lehen atalean esan bezala, XX. mendeko azken laurdenean gizarte-ekonomiaren berpizkunde aro bat bizi izan da mendebaldeko gizarteetan emaniko gizarte-aldaketen kausaz ulertu behar dena. Birloratze hori, ordea, ez da XIX.ean bezala enpresa kooperatiboen hedapenaren eskutik etorri, elkarteen garrantzia handiago baten ondorioz

baizik, eta beraz horri loturiko teorizazio gehienek gizarte-ekonomiaren mozkin asmorik gabeko izaerari erreparatu diote gehiago, enpresa-antolamendu demokratikoen ezaugarriari baino.

Errealitatea hedatzen joan ahala zabaldu ohi dira horren gaineko azterketak zein diskurtsoak ere. Diskurtso ideologikoen esparruan kokatuz, gizarte-ekonomiak gizartean hartu beharreko leku eta funtzioen inguruko argudioek ñabardura eta ikuspegi ezberdinak azaltzen dituzte, zein den kontuan hartzen dugun korrontea. Hargatik beharrezkoa da azken birloratze horren atzean kokatzen den bulkada ideologikoaren gaineko analisi labur bat eranstea, aztergaiak beharrezko dituen elementuak gehitzeko.

1.2.1 AEBetako neokorporatisten hastapeneko bultzada

Zenbaiten aburuz (Pérez eta López, 2004; Rodriguez Cabrero, 2003) teorizazio garaikidearen jaiotze data AEBtako *Filer* Batzordeak 70eko hamarkadan idatziriko txostenean koka liteke. Batzorde honek (*Commisison on Private Philantropy and Public Needs*) AEBtako mozkinen besteko erakundearen gaineko lehendabiziko analisi alderatu eta diziplina-arteko sakona gauzatu zuen, Rockefeller Fundazioak bultzatuta eta garaiko *establishment* politikoko figura sonatuen babes garrantzitsuarekin. Ikerketa aitzindari honetan, mozkinen besteko erakundeak sektore bereizi gisa aurkezteaz gain, osasunean, hezkuntzan, gizarte-zerbitzuetan zein kulturaren egindako ekarpena aztertzeko lehen saioak egin ziren.

Pérez eta López-en irudiko (2004), lehen aitortza honek bultzada handia jaso zuen XX. mendeko azken herenean mundu intelektualera indar handiz sartu ziren bi ideiei eskerrak: “neokorporatibismoa”ren literatura politologikoa batetik, eta “gizarte zibila”ren inguruko teorizazio berriak, bestetik. Lehen korronte honek, gerora “governantza” adierarekin gorpuztuko den ideien lehen zutabeak ezarri zituen. Horien iritziak, interes-talde edo elkarteek mendebaldeko gizartearen gobernagarritasunean berebiziko funtzioa betetzen dute. Elkarte horiek, funtsean, gizartea eta estatuaren arteko bitartekaritza lana gauzatzen dute, zenbait interes sektorial (edo lurralde mailako) ordezkatuak izan daitezkeen bitartekaritza eskainiz, eta bi aldeentzat lotesleak izango diren akordioak ahalbidetuz. Azpimarratu behar da, interes-talde bezala jokatzeko duten

elkarteei erreparatzen zaiela nagusiki analisi horietan, mozkin bezeko erakundeak bere osotasunean aintzat hartu gabe, eta elkarte horien rol politikoan zentratuz.

Bigarren eskola bat, lehen honi oso lotua, “gizarte zibila”ren inguruko teorizazio liberal berrien eskutik etorri da. Nagusiki “neokorporatisten” eragina agerikoa den arren, neurri batean horiekiko erantzun kritiko gisa ere uler liteke, nagusiki esatera baitator “neokorporatismoak” oso modu murrizkorrean ulertzen dituela gizarte zibil garaikidearen konplexutasun eta dinamismo berrituak. “Gizarte zibila”ren ezaugarri garaikideak bere izaera pluralean, bere izaera auto-erregulatzailan eta komunitatearen onuran abiarazitako ekimen pribatuetan hezuramaitzen dira ondoen. Adiera honetan beraz, gizarte-ehunaren jardueraren dimentsio bikoitza barnebiltzen da, komunitatearen beharrak asetzen baititu bai merkatuko “esku ikusezina”ren bitartez, eta baita komunitatearen aldeko borondatezko “esku ikusgarri” edo ekinbide altruistaren bitartez ere. Horientzat, beraz, Estatuaren betebeharrak “gizarte zibila”ren autonomia errespetatzea da, eta bere egiteko nagusia legedia betearaztera eta ekimen pribatua (egoista zein altruista) libreki garatzeko beharrezko baldintzak ezartzera mugatzen da.

Ideologia neoliberalerako zientzialari politikoen altzoan sortuko da, hortaz, hasiera batean AEBtako ezaugarri bereizgarri moduan eta gerora mundu anglosaxoira hedatuko dena, Hirugarren Sektorearen adiera. Adiera hau, beste bi sektore nagusien ukaziotik abiatzen da, hau da, Hirugarren Sektore bati buruz aritu behar ginateke, honen logika ez baita Lehen Sektorea (ekonomia publikoa) eta Bigarren Sektorearen (ekonomia kapitalista) berdina. Bi horien ukaziotik sortzen den hirugarrena zerk bereizten duen ezartzerako orduan sortuko dira, aurrerago ikusiko dugunez, gizarte-ekonomiaren bi ikuspegi nagusiak.

Lehen mailako bultzada politiko honen atzetik, garapen teorikoa etorriko da, batik bat eskola neoklasikoak fenomenoarekiko interesa azalduko duenean. Ekonomia neoklasikoak, aurrerago sakonduko den gisan, mozkin bezeko erakundeen existentzia “gauzatze-akatsen” optikatik ulertzen du, merkatuak zenbait ondasunen ekoizpenean edota estatuak zenbait zerbitzu kolektiboren horniduran agerturiko akatsen esparruan (Sajardo, 1996). Teoria horiek guztiak eskatzaileak, hiritarrak, sektore publiko zein pribatuaren aurrean hirugarren sektore honekiko daukakeen lehenespena argudiatzera

datoz, eta leheneste-arrazoi horien erdigunean kokatzen dute erakunde horien “mozkinen besteko” izaera (Sajardo eta Chaves, 2006). Argudio lerro horien gainean eraikiko da hurrengo atalean azalduko den *Non-Profit* ikuspegia.

Alabaina, maila teorikoan emaniko hedapenak mundu anglosaxoian badu ere bere iturburua, errealitate sozio-ekonomiko gisa demokrazia liberaleko mendebaldeko herrialde gehienetan borondatezko elkarten eta mozkinen besteko erakundeen hazkunde ikaragarria emango da, Salamon eta Anheier-ek (1997) “elkartegintzaren iraultza global” gisa izendatu dute fenomenoaren agertuz.

1.2.2 Adieren inflazioa eta 90eko hamarkadatik honako ekoizpen zientifikoaren berrikusketa

Salamon eta Anheier-ek (1997) izendaturiko “elkartegintzaren iraultza global” horren eskutik, esanda bezala, izaera oso anitzeko mozkinen besteko erakunde ezberdinak garatzen joan dira mendebaldeko gizarteetan. Funtsean lehen mailako bereizgarria beren “mozkinen besteko” izaera hori mantentzea den arren, horretaz gain erakunde horiek zenbait ezaugarri propioen jabe dira.

Hortik eratortzen da hirugarren sektore hori izendatzerako orduan emango den ugaritze terminologikoa: “hirugarren sektorea”, “gizarte-ekonomia”, “elkartasunezko ekonomia”, “mozkinen asmorik gabeko sektorea”, “sektore boluntarioa”, “sektore filantropikoa”, “karitatezko sektorea”, “sektore independentea”, “ekonomia alternatiboa”, “ekonomia herritarra” etab. luze bat.

Jarraian azaltzen den taulan laburbiltzen ditu Sajardo-k (1996, 2006), errealitate hori izendatzeko erabili diren adiera ezberdin nagusiak, horien eduki zehatzak eta proposamen horien atzean ezkututzen diren autorerik esanguratsuenak.

Koadroa 1: Hirugarren Sektoreari loturiko izendapen ezberdinen zerrenda

Adiera	Edukia
Hirugarren sektorea (<i>Third sector</i>)	Adiera konparatiboa, Hirugarren Sektorea gainerako bi sektore ekonomiko instituzionalekin, Sektore publikoa eta Sektore Pribatu Kapitalista, kontrajartzen duena. Izendapena zalantzarria izan liteke, aipaturiko bi sektoreez gain Ekonomia Domestikoa ere existitzen baita, eta beraz Laugarren Sektore gisa ere izenda liteke.
Sektore boluntarioa (<i>Voluntary sector</i>)	Adiera honek sektorearen ezaugarri nagusizat jotzen du jarduera horiek zuzendu, burutu eta osatzen dituzten gizabanakoen lanaren izaera boluntarioa. Adiera zalantzarria izan liteke, erakunde horiek kudeaketa eta zuzendaritza lanetan soldatapeko langileak erabiltzen dituzten neurrian.
Mozkin asmorik gabeko sektorea (<i>Nonprofit sector</i>)	Nazio Batuen Kontu Nazional Integratuen Sistemak (<i>United Nations System of National Integrated Accounts</i>) hobetsitako adiera, hirugarren sektoreko erakundeek duten mozkin-asmorik gabeko izaera nabarmetzen duena. Erakunde horietatik askok mozkinak izan badituzten arren, ez da beren izateko arrazoia mozkinak lortzea eta bere kideen artean banatzea.
Sektore filantropikoa (<i>Philanthropic sector</i>)	Kausa sozial zein publikoen alde baliabide pertsonal zein materialak biltzen dituzten erakundeei loturiko adiera, fundazioen testuinguruarekin erlazionatua.
Karitatezko sektorea (<i>Charitable sector</i>)	Adiera honek gizarteak oro har hirugarren sektoreko erakundeei dohaintza pribatuen bitartez ematen dien laguntza azpimarratzen du, dohaintzaileek sektorearengan jartzen duten gizarte-utilitate edota motibazio altruista-karitatezkoaren seinale.
Gobernuz Kanpoko Erakundeen (GKE) sektorea (<i>Non-governmental Organizations-NGO</i>)	Garapen bidean edota azpi-garapenean aurkitzen diren herrialdeen sustapen sozio-ekonomikoaz arduratzen diren erakunde pribatuei erreparatzen dien adiera. Garapenerako lankidetzan diharduten erakundeez jarduteko ere termino erabilia da GKE-G.
Sektore Independentea (<i>Independent sector</i>) / Bitarteko sektorea (<i>Intermediary sector</i>)	Adiera honek hirugarren sektorearen izaera independentean jartzen du indarra, bai Sektore Publikoaren jarduerarekiko, bai eta Sektore Kapitalista mugiarazten duen mozkinen maximizazio izpiritutik ere. Bitarteko sektorearen adierak, aurrekoaren parekoa denak, hirugarren sektorearen indarra nabarmetzen du hirugarren gizarte-indar bezala. Bi sektoreen arteko bitartekari gisa ikusten da hortaz, merkatu interesen eta erakunde publikoen politiken artean, biek in harremana mantenduz.
Zergaz salbuetsitako sektorea (<i>Tax-exempt sector</i>)	Termino honen bitartez, hirugarren sektoreak herrialderik gehienetan jasotzen duen aldeko zerga-trataerari egiten dio erreferentzia, abantaila zein zerga-salbuespenen bitartez.
Gizarte Ekonomia (<i>Economie Sociale</i>)	Adiera honek aldiz, mozkinen besteko zenbait erakunde barnebiltzen ditu, ez-merkatuko azpisektore gisa, juridikoki elkarte eta fundazioek osatzen dutena, baina baita beste zenbait erakunde komertzialago ere, merkatura bideratuagoak, kooperatibak, mutuak, gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak edota zenbait finantza-erakunde, azken horiek merkatuko azpisektorean bilduak.

Iturria: Sajardo eta Chaves, 2006 (itzulpena geurea)

“Adieren inflazioa” hori, Sajardo eta Chaves-en (2006) hitzetan, hirugarren sektore honek herrialde bakoitzean izan duen jatorri, garapen eta jokabideei lotua agertzen da, eta adiera horietako bakoitzak sektorearen ezaugarri konkretu baten gainean jartzen du arreta berezia. Adieren ugaltze hori, alabaina, ez da inondik ere eragiketa intelektual neutral moduan ulertu behar, garaturiko kontzeptu bakoitzak “eraikuntza politiko konkretuei erantzuten baitie, egitasmo politiko konkretuen sorkuntza intelektualari,

inondik ere neutraltzat jo ez daitezkeen eragiketei”, hain zuzen ere (Perri6 eta Pestoff, 1993).

Adiera bakoitzak errealitate horien ezaugarri konkretu batzuei soilik erreparatzeak, arazoak sortu ditu ordea ez soilik maila kontzeptualean, baita sektorearen neurketa edo kuantifikazioari dagokionean ere, horietako bakoitzak ezarriko baitu bere ezaugarri nagusien arabera zeintzuk erakunde “sartzen” diren eta zeintzuk ez proposatzen den adiera bakoitzean. Adieren inflazioaren eskutik etorri dira, berebat, sektorearen gaineko nazioarteko ikerketa-lan ezberdinak ere. Lan horietako bakoitzak, esan bezala, sektorea definitzeko irizpide konkretu batzuk defendatzen ditu, eta definizio horietara egokitzen diren eragile sozioekonomikoen esparrua neurtzen du.

Sajardo eta Chaves-en (2006) irudiko bi dira nagusiki 90eko hamarkadatik hona erreferentzialtasuna irabazi duten nazioarteko lan nagusiak: alde batetik, eta mozkin asmorik gabeko erakundeen adiera landuz, *Johns Hopkins* Unibertsitateak zuzenduriko *The Comparative Nonprofit Sector Projecta* legoke. Egitasmo erraldoi honetatik nazioarteko ikerketa-talde bat osatu zen (*ISTR*), mundu osoko 20 herrialdetik gorako hirugarren sektoreko erakundeen gaineko diziplina anitzeko analisisa gauzatu zuena, herrialde bakoitzaren ardura autore ezberdinek bereganatuz (esaterako Alemanian Anehier eta Seibel (2001); Frantzia Archambault (1996); Italian Barbetta (1993) eta Espainian Ruiz Olabuénaga (2001) eta azken bilduma Salamon, Anheier, Toepler eta Sokolowsky-ren (2001) lanean jaso zelarik. Egitasmo honen beste emaitza esanguratsuetako bat litzateke Nazio Batuen Mozkinez Besteko Sektorearen Satelite Kontuen Eskuliburuaren elaborazioa ere.

Bigarren nazioarteko ikerketa ildo nagusia *CIRIEC-International* erakundearen altzoan garatu da azken bi hamarkadetan. 90eko hamarkadan “*La respuesta de las asociaciones a las crisis del empleo y del Estado de Bienestar*” goiburuko ikerketa-egitasmoaren baitan, nazioarteko herrialde ezberdinetako hirugarren sektoreen analisi alderatua gauzatu zen, bereziki bi esparrutan izaniko eraginaren ikuspuntutik: lehena lan merkatutik bazterturiko giza taldeen gizarteratze soziolaborala ardatz harturik (Defourny et al, 1998) eta bigarrena gizarte-ongizateko zerbitzuen, eta konkretuki etxez etxeko zerbitzuen esparrua landuaz (Laville et al, 2001).

Aipagarria da azken bi egitasmo horietatik, bertan parte hartu zuten ikerlari talde garrantzitsu batek *EMES Network* nazioarteko ikerlari-sare berria sortu izana (formalki 2002an egituratu zen arren, 1996tik lanean ziharduena). Ikerketa talde honek *OCDE* erakundearen Tokiko Garapenerako *LEED* Programaren baitan gauzatu zituen bere lehen lanak, mozkinen besteko erakundearen joera berrien inguruko analisiak plazaratuz. Ikertzaile sare hau *CIRIEC-International* erakundearen nolabaiteko eszizio gisa garatuko da gerora, bai landuriko ikerketa-lerroen ezberdintasunagatik (enplegua, gizarte-zerbitzuak eta lan-gizarteratzea izanik bere ikergai zentralak) eta baita adiera berri baten ordezkari gisa agertuko direlako ere, *Social Enterprise* edo Enpresa Sozialaren adierarena, hain zuzen ere.

Nazioarte mailan sona baduen beste ikerketa talde bat nabarmentzen dute Sajardo eta Chaves-ek (2006), Archambault eta Kaminsky-ren inguruan bilduriko *ADDES* erakunde frantziarra hain zuzen ere, gizarte-ekonomiaren dokumentazio eta garapenerako elkarte gisa diharduena.

García Delgado-k (2009) hirugarren sektorearen inguruko literaturaren berrikuspenari helduz, aipaturiko lan taldeez gain, literatura anglosaxoiari loturiko beste zenbait talde nabarmentzen ditu: alde batetik AEBetako *ARNOVA* (*Association for Research on Non-profit Organizations and Voluntary Action*) elkarte eta bestalde Britainia Handiko *CAF* (*Charity Aid Foundation*) edota *London School of Economics* unibertsitateko *Centre for Civil Society*, biak ala biak ere borondatezko elkarte filantropikoen analisisan zentratuak eta lan boluntarioaren ekarpena dutelarik ikergai nagusia⁴.

Ikerketa talde horien ingurumarian edo horien eraginpean, ugaldu egin dira azken bi hamarkadetan hirugarren sektorean espezializaturiko argitalpen zientifikoak ere. Sajardo eta Chaves-ek (2006) sailkatu egiten dituzte argitalpenok tradizio frankofono edo anglosaxoiaren arabera: lehen horien artean, nazioarteko onarpen handiena dutenak lirarteke alde batetik *CIRIEC-International*-ek editaturiko *Annales de l'économie publique, sociale et coopérative* aldizkaria, bigarren bat *Revue Internationale de*

⁴ Egungo nazioarteko literaturaren berrikuspen sakonago bat egiteko, jo aipaturiko bi iturrietara: Sajardo eta Chaves (2006) eta García Delgado (2009).

l'Économie Sociale (RECMA) eta azkenik Kanadako Quebec-en argitaratzen den *Nouvelles Pratiques Sociales*. Aldizkari espezializatu anglosaxoien artean aldiz, onarpen akademikorik zabalena duena arestian aipaturiko *ARNOVA* elkarteak argitaraturiko *Journal of Voluntary Action* aldizkari historikoa (egun *Nonprofit and Voluntary Sector Quarterly* izenez ezaguna) eta *Voluntas-International Journal of Voluntary and Nonprofit Organizations* aldizkariak dira nabarmentzen direnak.

Azken ikerketa lerro bati loturik, hain zuzen ere azken urteetan onarpena irabazten ari den Enpresa Sozialaren gai espezifikoa lantzen duten aldizkariak ere azpimarra litezke: alde batetik *Impresa Sociale* aldizkari italiar aitzindaria eta bestetik urte gutxiko ibilbidea urratu duen *Social Enterprise Journal* aldizkaria.

Argitalpen eta ikerketa talde horiek guztiak hirugarren sektorearen gaia diziplina ezberdinetatik aztertzen dute, García Delgado-k (2009) baieztatzen duenari eutsiz, hirugarren sektoreak berezkoa baitu diziplina anitzeko izaera hori. Horrela, autore honen irudiko, beharrezkoa da errealitate hau fenomeno historiko eta soziologiko gisa aztertzea, ez soilik zenbait eredu ekonomikoren emaitza gisa. Hori horrela izanik, hirugarren sektorearen inguruko azterketa gehienak hiru arreta guneri erreparatu diete nagusiki: sektorearen jatorri eta funtzionamenduaren inguruko azterketak batetik, sektoreak gizarte zibilaren berpiztearekin duen lotura jorratuz beste aldetik, eta azkenik hirugarren sektorea eta estatuaren arteko harremana plano politikotik aztertzen duena, sektoreak politika publikoetan duen eragiteko ahalmenari erreparatzen diona.

Rodríguez Cabrero-k (2003) ildo berari eutsiz, arreta gunere horietako bakoitzak ñabardura ezberdinak hartzen dituela aitortzen du, horien gaineko analisisian gailentzen den esparru diziplinarraren arabera. Honela, hiru diziplina zientifiko nagusi nabarmentzen ditu: lehenik zientzia politikoetatik egindako azterketak, elkartegintza eta demokrazia deliberatiboaren arteko harremanetan sakonduz; bigarrenik analisi soziologikoetan, gizarte-beharrizanen eta gizarte-integrazioaren esparruan egungo gizarteetan eratzten ari diren antolakuntza modu berriak hartzen dira ardatz nagusitzat, eta; azkenik, ikerketa ekonomikoak, hirugarren sektoreko eragileen ekoizpen-funtzioak aztertzen dituztenak, bai ez-eraginkorki hornituriko ondasun publikoen esparruan, bai

kontratu-akatsen alternatiba gisa, eta baita gizarte-zerbitzuetan edo gizarte-ekimenari loturiko esparruetan duten parte hartzeari erreparatuz ere.

1.2.3 Ikuspegi europar propio baten eraikuntza

Elkartegintzaren fenomenoaren eztandak Europan ere modu bertsuan jo zuen, baina Europan, AEBekin alderatuz, fenomeno honek ezaugarri propio eta ezberdin batzuk azaldu zituen, zeinak justifikatzen baitu zenbait autorek defendatzen duten ikuspegi europarraren berezkotasuna (Evers eta Laville, 2004; Defourny eta Pestoff, 2008).

Ikusi dugun moduan, lehen teorizazio lan handiak AEBetan garatu ziren, bertako errealitateari doituriko eskema analitikoak erabiliz, batik bat, elkartegintza anglosaxoiaren bereizgarri diren fundazioetan zentratuak eta “mozkinen banaezintasun printzipioa” dutelarik euskarri teoriko bereizgarri nagusia.

Ikuspegi europar propio baten aldeko teorikoen argudiatzen dutenez, ordea, AEBetan buruturiko lehen analisi horiek baliagarriak dira baina puntu batera arte, neurri handi batean Europako historia garaikidearekin parekatu ezin den errealitate batetik sortuak baitira. Baina herrialde bakoitzaren garapen eta tradizio soziopolitikoek sorturiko errealitate ezberdinez harago, nolabaiteko desadostasuna ere antzeman liteke errealitate horietara gerturatzeko erabili ohi diren eskema analitikoaren aferan ere, hitz bitan esanda, diziplina zientifikoaren arteko talka bat sumatzen da azken finean.

Honela, AEBetako ekarpen nagusiak teoria ekonomikoen esparruan kokatu behar lirateke, konkretuago, eskola neoklasikoaren baitan. Aurreratu dugun gisa, korrante honek bere “gauzatze-akatsen” teorizazioen bitartez, gizarte-ekonomiari hierarkikoki merkatua eta estatuaren menpeko izaera duen funtzio laguntzailea (are salbatzailea) egokitzen diote. Alabaina, Evers eta Laville-k (2004) argudiatzen dute historiak frogatu duela hipotesi hori okerra dela, gainera ezgauza dela errealitate nazional ezberdinetako fenomenoaren jatorri historiko eta sozialak hautemateko, eta hortaz, errealitate hau bere osotasunean ulertzeko premiazkoa dela ikuspegi ekonomizista bestelako diziplina soziopolitikoekin osatzea. Funtsean, eta horixe litzateke kritikaren bigarren zatia, enfoke ekonomizista horiek gutxietsi edo alboratu egiten dute gizarte-ekonomiako eragileen

eginkizun sozio-politikoak, elementu garrantzitsua inondik ere gizarte-ekonomia bitartekaritza esparru batean kokatzeko.

Eztabaida hori ez da hala ere diziplina zientifikoaren lehiara soilik mugatzen. Corpus teoriko bakoitzak aztertzen duen errealitate sozioekonomikoan ere ezberdintasun nabarmenak daude. Izendapenetik hasita, AEBetan “hirugarren sektorea” erabili arren, Europan ohikoagoa baita “gizarte-ekonomia” adiera erabiltzea, Atlantikoz bi aldetara ezberdinak baitira aztertu asmo diren errealitatearen ezaugarriak.

Evers eta Laville-rekin jarraituz (2004), Europan hirugarren sektore horrek gutxienik hiru berezitasun nabarmen azaltzen ditu AEBetakoarekin alderatuz: lehenik, fenomeno europarrak bultzada berezia jaso du borondatezko elkarte, karitatezko elkarte eta fundazioez aparteko bestelako erakundeengandik, zehazki, kooperatiba, mutualitate eta bestelako elkarteengandik. Horren ondorio da Europan gizarte-ekonomiaren adiera hobetsi izana, errealitate europarra ez baitago AEBetako borondatezko sektorearekin parekatzerik, ezta mozkinenez besteko erakundearen logikara murrizterik ere. Bigarren maila batean, errealitate europarraren ezaugarri bereizgarria da gizarte-mugimenduek jokaturiko papera, Europako elkartean sorreran langile zein herritar mugimendu ezberdinen bultzada ageri baita, zeinak elkarte horien jatorri, jarduteko modu eta ibilbideak baldintzatu baititu. Azkenik, ezberdintasun esanguratsu bat da gizarte-ekonomia eta sektore publikoaren arteko bereizketaren puntua: eskola neoklasikoarentzat hirugarren sektorea sektore guztiz autonomoa den bezala (*independent sector*), Europaren kasuan, hirugarren sektorea eta ongizate-estatua eskuz esku, elkar eraginez, elikatuz edo ordezkatzuz joan diren errealitateak dira, banaezinak beraz ikuspegi teorikotik.

Ezberdintasun horiek inplikazio teoriko sendoak dituzte: batetik, gizarte-ekonomiaren dimentsio ekonomikoari erreparatu behar zaio, bertan kooperatiba eta mutualitateek egindako ekarpena ezin ahantzizkoa baita. Konstatazio honetan oinarrituko da ekonomiaren pluraltasunaren ideia, gizarte-ekonomiaren berezitasun ekonomiko gainerako logikaren arteko pluraltasunean kokatuz. Eta bigarren inplikazio teorikoa, gizarte-ekonomiaren bitarteko izaeran legoke. Gizarte-ekonomia “sektore independentetzat” jo beharrean, bitartekaritza terminoetan pentsatu behar dela diote,

eskema trisektorialak erabili ordez, mota ezberdinetako hibridazio egituretan erreparatuz (3. kapituluaren sakonago aztertuko den moduan).

Dena den eta hori hala izanik ere, Defourny eta Pestoff-ek (2008) argudiatzen dutenaren ildotik, herrialde europarretan egin diren analisi alderatuetatik arestian aipatu diren gutxiengo komunak ezartzerik badagoen arren, ikusmira gehiago zorrozteak, herrialde europarren artean ere tradizio eta ibilbide oso ezberdinetako errealitateen aurrean jartzen gaitu. Erro historiko ezberdinetan sustraituak garatu dira esaterako Britainia Handiko zein Irlandako tradizio filantropikodun elkarteak edo herrialde eskandinaviarretako demokrazia eta berdintasunaren aldeko gizarte-mugimenduak. Berdin antzera, zenbait herrialdetako gizarte-ekonomian mugimendu kooperatiboak berebiziko bultzada suposatu duen bezala (esaterako Frantzia, Belgika, Danimarka edo Italia), beste zenbait herrialdeetan familia izan da paper esanguratsu bat jokatu duena ekimen ezberdinak abiaraztean (berbarako Espainia, Portugal, Grezia eta baita Italia ere...). Alderdi horiek guztiak garatuko dira zehaztasunez 2. kapituluaren.

Ikus dezagun jarraian, orain arte aipatu denaren ildotik jarraituz, esparru honetan nagusitzen diren bi tradizio akademiko nagusien ekarpenak zein diren.

1.3 Gainbegirada kontzeptuala: hirugarren sektorea aztertzen duten bi tradizio nagusiak

Orain arte garaturiko berrikuspen historikoaren ildotik ondorioztatzen da gizarte-ekonomiari loturiko errealitateek garapen aro ezberdinak ezagutu dituztela, eta horietako bakoitzean adiera ezberdinak nagusitzen joan direla errealitate horiek izendatzeko. Errealitate hori, ekonomia publikoaz eta kapitalistaz aparteko hirugarren sektore batean kokatuz, bi dira espazio hori definitu eta ikertzeko helburuz nagusitu diren adiera nagusiak, bata Gizarte Ekonomiarena eta bestea Mozkinez Besteko Erakundeena. Aurreratu dugun bezala, adiera horietako bakoitzak errealitate honen barneko esperientzia ezberdinen jartzen dute arreta, lehenak batik bat kooperatibagintzan eta bigarrenak nagusiki elkartegintzan. Hori horrela izanik, adiera bakoitzean ezaugarri ezberdinak hartzen dira aintzat errealitate honen elementu bereizgarriak nabarmentzerako orduan, eta hortaz, garapen teorikoa ere argudio

ezberdinak jorratuz egiten da. Garapen teoriko ezberdin horiek dira jarrian aztertuko ditugunak.

1.3.1 Tradizio anglosaxoia: Mozkinez Besteko Erakundeen ikuspegia

1.3.1.1 Aitzindariak: inspirazio neoklasikoko teoriko anglosaxoiak

Arestian aipatu den gisa, mozkinez besteko erakundeen inguruko lehen urrats teorikoak mundu anglosaxoian emango dira, zientzialari politiko neoliberalen bultzadaren ondorioz. Interes horri erantzunez, maila akademikoan ere lehen teorizazio lanak mundu iparramerikarrean agertzen dira, denak ere teoria neoklasikoaren esparruan kokatu litezkeenak, eta zientzia ekonomikoaren *mainstreama* osatzen dutenak.

Horiexek dira gerora Mozkinez Besteko Erakunde (MBE, aurrerantzean) edota *Non-Profit Organizations (NPO)* deituriko ikuspegia gorpuztu dutenak. Corpus teoriko hau 70eko hamarkadan azaldu bazen ere, 80ekoan izan zuen bere garapenik esanguratsuenak. Sajardo eta Chaves-en iritzian (2006) eskola honetan sar litezke: Ameriketako Estatu Batuetan Hansmann (1980), Weisbord (1975, 1977), James (1986), Young (1983), Rose-Ackerman (1986), Anheier eta Seibel (1990), Kramer (1981), Powell (1987); Britainia Handian Knapp eta Kendall (1992); Israelen Gidron, Bar eta Katz (2003); Alemanian Anheier eta Seibel (2001) eta Italian Gui (1991).

Anheier eta Ben-Ner-ek (2003) eginiko berrikuspen zabalaren argitan, 70eko azkenetan eta 80eko hastapenetan Weisbord-ek (1977) argitaraturiko “ondasun publikoen teoria” eta Hansmann-ek (1980) plazaraturiko “konfiantzaren teoria” lehen ekarpenak agertu zirenetik, hamaika dira geroztik horiek osatzera etorritako proposamen teorikoak. Autore horiek lau ildo berri gutxienik identifikatzen dituzte: i) “*stakeholders*” hurbilketa (Ben-Ner eta Gui, 1993; Krashinsky, 1986); ii) eskaintzaren aldeko edo enpresa-teoriak (James, 1987; Young, 1983); iii) teoria instituzionalak (DiMaggio eta Powell, 1983), eta; iv) hurbilketa konparatiboak (Salamon eta Anheier, 1998). Azken bi teoriak, instituzional eta konparatiboak hurrengo ataletan landuko direnez sakonago, atal honetan MBE hurbilketaren oinarritzko proposamen aitzindarien analisisan zentratuko gara batik bat.

Anheier eta Ben-Ner-ek (2003) gehitzen dute azken hamabost urteetako ekarpenak, ekoizpen teoriko berriak baino, 1975-1985 urte bitartean proposaturiko ildo teoriko ugariak frogatzera etorri diren lan enpirikoak izan direla batik bat. Honela, datu enpirikoen bilketan emaniko aurrerapausoak garrantzitsuak izan arren eta MBEen funtzionamendu eta jatorria ulertzen asko lagundu duten arren, lan enpiriko horiek guztiak duela ia mende laurden proposaturiko kontzeptu ekonomiko berberetan oinarritu izan dira: konfiantza, informazio asimetriak, ondasun publikoak, heterogeneotasun eskaria, transakzio kostuak, etab. Joera honen ondorioz, teoria ekonomiko horiek bestelako gizarte-zientzien diziplinen aldetik (soziologia edo zientzia politikoetatik, kasu) zaharkituztat jo izan dira eskuarki, balio enpirikorik gabekotzat. Honen ondorioz, MBEen inguruko teoria ekonomiko berrienek (teoria instituzional edo konparatiboek) bestelako gizarte-diziplinetatik ere edaten dutela egiazta liteke.

Ben-Ner eta Gui-ren (2003) iritzian, MBEen gaineko teoria ekonomikoek oro har honako galderei erantzun nahi izan diete: zer egiten dute MBEek, mozkin asmodun enpresek eta gobernu-erakundeek egiten ez dutenik? Mozkin asmodun enpresak bezain efizienteak al dira? Gobernu erakundeek ase nahi dituzten giza talde berberetara iristen al dira? Zerga tratamendu berezirik merezi al dute? Era berean, Steinberg-ek (2006) zehaztuko duen bezala, ekonomia “eskasia egoeratan harturiko erabakien azterketaz” arduratzen deino, teoria ekonomikoek gutxienik bi ikuspegitatik aztertu izan dute hautespen hori: zerk bultzatzen du pertsona bat MBE baten erabiltzaile edo kontsumitzaile izatera, edo zerk bultzatzen du pertsona bat MBE bateko partaide (langile edo boluntario) izatera.

MBEen analisi ekonomikoaren inguruko literaturaren berrikuspina osatu duten autore gehienek bi hurbilketa nagusi bereizten dituzte, hortaz: eskariaren aldeko teoriak batetik, eskola neoklasikoan txertatuak; eta eskaintzaren aldeko teoriak bestetik, lehenarekiko kritikoak (edo osagarriak) direnak zenbait analisi esparrutan (Sajardo, 1996; Sajardo eta Chaves, 2006; García Delgado (dir.), 2009; etab.)⁵.

⁵ Ben-Ner eta Gui-k (2003) hirugarren esparru batean kokatzen dituzte eskaria eta eskaintzaren ezarpenean eragiten duten bestelako ingurugiro aldagaiak, aldagai ekonomiko, teknologiko, instituzional, sozial zein kulturalak. Honela, esaterako badira MBEen eskariarengan modu negatiboan eragiten duten aldagaiak (informazio eskuragarritasunean hobekuntzak kanpo erregulazio edo barne bermeen bitartez)

a) Eskariaren aldeko teoriak

Lehen hurbilketan, eskariaren aldeko analisietan, kontsumitzaileek beren beharrianak asetzeko modu arrazionalan MBEen aldeko hautua egitearen arrazoiak aztertu nahi dira. Maila orokorrean, sektore honen existentziaren justifikazio ildo nagusia, gainerako bi sektore instituzionalen (publikoa eta pribatu kapitalista) “gauzatze-akatsen” bitartez azaltzen da, merkatuak ondasun kolektiboak kantitate egokian eskaintzen asmatzen ez duelako eta estatuak ondasun kolektiboak bere hautesleriaren desiren arabera esleitzen dituelako (Steinberg, 2006).

Sajardo-k (1996) proposatzen duenari helduz, hiru teoria nagusi nabarmen litezke eskariaren aldeko edo “Hautu Instituzionalaren” teoriaren baitan: bi “Gauzatze-akatsen teoriak”, hots “Estatuko-akatsen teoria” (non sar daitezkeen Weisbord-en lanak eta James-en “Eskariaren Heterogeneotasun teoria”) eta “Merkatuko-akatsen teoria” (non leudekeen Hansmann-en “Kontratu-akatsen teoria” eta Ben-Ner-en “Kontsumitzaileen Kontrol teoria”) eta hirugarren bat “Transakzio-kostuen teoria” deitua (Krashinsky-k proposatua).

Merkatuko-akatsen teoriaren defendatzaileen aburuz, merkatuak zenbait ondasun eta zerbitzuen esleipenean eraginkortasun akatsak⁶ azaltzen ditu. Akats horiek, egiazki, merkatuak “lehia perfektuko” egoeratik urruntzen direnean gertatzen dira, hau da, erosleek kontsumitu nahi luketen kantitatea eta ekoizleek ekoitz dezaketena berdintzen dituen orekako preziorik lortzen ez denean. Hansmann-en (1980) analisisian “lehia perfektuko” egoerarik ez da lortzen informazio perfektuko egoerarik ez dagoelako, bere “kontratu-akatsen teorian” eskatzaile eta eskaintzailearen arteko informazio asimetrietan kokatzen baititu ez-eraginkortasun honen arrazoiak. Kontratu-akats horiek gertatzen dira zerbitzua ematen den testuinguruagatik, edo zerbitzuaren izaeragatik beragatik,

zein modu positiboan eragiten dutenak ere (hornidura publikoaren murrizketak, heterogeneotasun erlijioso eta kulturalak, etab.). Era berean, badira MBEen eskaintzan positiboki eragiten duten kanpo aldagaiak (kapital sozial indartsuko komunitateak) eta negatiboki eragiten dutenak ere (sare sozialen haustura, etab.)

⁶ Eraginkortasun akatsak izan litezke ekoizpen-prozesu okerrean baliabideen azpi-erabilpen bat ematen delako (ez-eraginkortasun produktiboak) edota ondasun eta zerbitzuen output ezegokiak ekoizten direlako (esleipen ez-eraginkortasunak) (Steinberg, 2006).

kontsumitzaileak behar besteko elementurik ez duelako baloratzeko zerbitzu hori egokia den kantitate eta kalitatean eskaintzen ote den. Egoera horietan, zerbitzuaren ekoizleak kontsumitzaileak ordainketaren trukean jaso behar lukeen zerbitzua kantitate edo kalitate apalagoan eskaintzeko aukera (eta motibazioa) izango du (Hansmann, 1980).

Krashinsky-k (1986), bere “Transakzio kostuen” teorizazioan, erosle eta ekoizleen arteko desoreka honen lau egoera zehazten ditu: i) zerbitzuaren onuraduna ezezaguna denean, ii) zerbitzuaren onuradunak feedback desegokia egiten duenean; iii) borondatezko dohaintzak zerbitzu konkretuen kontraprestazioekin lotu ezin direnean (lobby erakundeak, kasu); iv) zerbitzuak oso konplexuak direnean eta kalitate apalak kontsumitzailearentzat arrisku larria dakarrenean (medikuntza-zerbitzuak esaterako).

Informazio asimetria horien aurrean, ekoizleek duten informazio erantsi hori beren interes partikularrak asebetetzeko balia dezakete, jokabide ez-desiragarriak gertatuz. Ondasun pribatuetan eman litezkeen kontratu-akatsen gain bestelako bi merkatu-akatsen ere identifikatu daitezke: ondasun kolektiboen (pribatuki hornituriko ondasun publikoak) hornidura ez-nahikoa eta hornidura baztertua⁷.

MBEek, zentzu horretan, merkatu-akatsak zuzentzeko mekanismo propioak leuzkakete, printzipioz mozkin asmodun enpresei egozten ez zaizkien abantaila batzuekin jokatuz. Nagusiki hiru lirateke abantaila horiek: i) “beren mozkin banaezintasun printzipioa”, zeinak portaera ez-desiragarriak ekiditeko aseguru gisa balio dezakeen⁸; ii) elkar laguntzeko MBEtan, non jardueraren onuradunak MBEko partaideak beraiek diren (partaidetza *stakeholder* moduan ulerturik), portaera ez-desiragarri horiek ekiditeko kontrol are handiagoa dago⁹; iii) MBEko partaideen borondatezko lankidetzak, baita

⁷ Ondasun kolektibo horiek ez-lehiakide baina baztergarri gisa kontsideratzen dira, hau da, posible da ordaintzen ez duena ondasuna gozatzetik baztertua, baina ez-eraginkorra izaten jarraitzen du bazterketa horrek, horiek ondasuna gozatzeko ez baitu ez baliabide gehigarriak agortzen ez eta ondasunaz gozaten duen beste inoren kaltetan jotzen.

⁸ Steinberg-ek (2006) “mozkinen banaezintasun printzipio” horren egiazkotasuna zalantzan jartzen du, ez baita hori beti nahikoa arrazoi izaten MBEen kudeaketa organoetan dabilzan pertsonen portaera ez-desiragarriak saihesteko.

⁹ Salamon eta Anheier-ek (1998) ildo teoriko honen baitan kokatzen dute orobat Ben-Ner eta Gui-k (1993) eginiko ekarpena ere. Egile horiek Hansmann-en kontratu-akatsen abiapuntua partekatuz, hirugarren sektoreko erakundeek egokitasuna ez dute mozkinen besteko izaeran kausitzen, baizik eta erakunde horien gobernu-organoei dute *stakeholder* osakeran. Egile horiek irudiko, erakunde horiek ekoizturiko eta banaturiko zerbitzuen gaineko kontrola eragile interesatu anitzek kontrolpean egoteak, informazio asimetria leundu ditzake, kasuren batean ekoizlea eta onuraduna pertsona bera izan baitaitezke

erabiltzaileek MBEekiko agertzen duten borondatezko engaiamendua ere (dela dohainen bidez, dela tarifa altuagoak ordaintzeko prestutasuna azalduz) (Ben-Ner eta Gui, 2003).

Bigarren gauzatze-akatsa Burton Weisbord-ek (1975, 1977, 1988) “Estatuko-akatsen teoriaren” (“ondasun publikoen teoria” bezala ere ezaguna) bitartez aztertu zuena litzateke. Estatuak eskainitako ondasun publikoen kasuan (definizioz ez-lehiakideak eta ez-baztertzailak diren ondasunak) merkatuko ez-eraginkortasunak kontsumitzaileen aldetik gerta litezke, askok ondasun horiek erabili eta ez ordaintzeko aukera eta motibazioa izango baitute. Ondasun publikoen merkatu-esleipen ez-eraginkorrak justifikatu izan du betidanik ondasun horiek estatuaren bitartez hornitzea. Estatu-akatsen jatorria, aldiz, puntu honetan aurkitzen da: estatuak, eskuarki, “tarteko hautesle”aren preferentziei erantzunez ekoizten ditu ondasun eta zerbitzu publikoak, eta beraz, eskari asegabe bat agertuko du medianaren neurri honetatik bi aldetara aurkitzen diren giza taldeen aldetik. Beste alde batetik, ondasun publikoen ordainketa zerga bidezko ordainketa derrigorra izanik, norbanakoak trukean jasoko duen ondasun publikoaren kantitatea edo hargatik ordainduko lukeena ez da askotan egokitzen zerga bidez ordaindutakoarekin.

MBEen bitartez lortzen da hortaz, “tarteko bozka emaile” esparru horretatik kanpo geratzen diren giza taldeek beren beharrianak asetzea, bai beren preferentzietara hobeto doitzeko aukera duelako eta baita borondatezko ordainketan oinarritzen delako ere (Steinberg, 2006).

Eskariaren aldeko ikerketa horien artean nahitaezkoa deritzogu Salamon-ek (1987) eginiko ekarpenak aipatzeari, merkatuko eta estatuko akatsez gain ohartaraziko baitu MBEek ere badituztela beren egiturazko gabeziak, zeinak horiek ere huts egitera eramaten baititu. *Voluntary failures* gisa ezagun diren akats horien analisisia 2. kapituluaren sakonago egingo denez ez gara hemen gehiago luzatuko, nahiz eta interesgarria den aipatzea ekarpen honek Weisbord eta Hansmann-en analisi eskemak iraultzen dituela, hirugarren sektorearen existentzia ez baita aurreko bien gabezien edo “gauzatze-

(auto-laguntzako edo mutualitate elkarteetan, kasu). Interesen partekatze horrek, zerbitzuen kalitate galeran jausteko arriskua ekiditen du.

akatsen” erantzun gisa ulertuko. Aitzitik, enpirikoki frogatua izan da MBEak direla gerta litezken gizarte-arazoen aurrean erantzuten duten “lehen lerroko” eragileak kasu askotan, eta hortaz, horien aldeko eskaria ez da besteen gabezia azaltzen ahal, MBEen berezko ezaugarrien bidez baizik.

b) Eskaintzaren aldeko teoriak

Ondorioz, orain arte aipatuaren arabera, MBEen aldeko eskaria (eta hortaz horien existentzia) justifika daiteke eragilerik egokienak direlako bai zenbait ondasun publiko ekoizteko, bai zenbait ondasun kolektibo baztertzailerik ekoizteko, eta baita zenbait ondasun pribaturen kontratu-akatsak zuzentzeko ere (Steinberg, 2006). Alabaina, arestian esan bezala, bigarren bloke handi bat osatzen dute eskaintzaren aldetik garaturiko lan teorikoek. MBEen eskaintzaren aldea osatzen dute ondasun eta zerbitzuen hornitzaileek baina baita MBEen organoen gobernantzan eragiten duten *stakeholders*-ek ere (Ben-Ner eta Gui, 2003).

Eskaintzaren aldeko hurbilketa egiten dutenek, MBEen hedapena ez dute soilik bere aldeko eskari hazkor batek determinaturiko errealitate gisa ulertzen “Hiru akatsen teoriak” (*market-state-voluntary failures*) hortaz, ez du elementu nahikorik eskaintzen MBEen eskaintza zergatik, zein helbururekin eta zein antolakuntza-ereduren arabera egituratzen den azaltzeko (Steinberg, 2006). Honela, MBEak existitzen dira ez soilik horien aldeko eskari konkretu bat ager daitekeelako, baizik eta eskaintza mota hori emateko motibazio konkretu eta berezi batzuk ere egon badaudelako. Nori bere jarduera-esparrua egozten dion eskaria elementu determinatzailea bada, nola esplikatu jarduera-esparru batean sektore ezberdinetako hornitzaileen koexistentzia? Motibazio eta antolakuntza-eredu horiek aintzat hartu gabe nola jakin zein modutan erantzungo duten MBEek aldaketa politiko, ekonomiko eta teknologikoen aurrean?

Ben-Ner eta Gui-ren (2003) esanetan, teoria ekonomikoarentzat erronka bereziki zaila izan da beren jardueraren ondorioz abantaila material argirik eskuratzen ez duten eragile ekonomikoen motibazioak analizatzea, eta hortik erator liteke teoria ekonomikoak izaniko hutsunearen kausa. Steinberg-ek (2006) gehitzen du teoria ekonomikotik soilik erreparatu izan zaiola efizientziaren aferari, ikuspegi lar instrumental batetik, albo

batera utziz errenta birbanaketarako gaitasuna edo MBEek jokatzen duten paper politiko eta soziala. Eskaintza horren motibazioen atzean, norbanako arrazionalaren kalkulu ekonomikoaz haraindi kokatzen diren aldagai sozial eta politiko ezberdinak ere kontuan hartu behar dira, dudarik gabe.

Hurbilketa horien baitan hiru argudio lerro bereizi daitezke Sajardo eta Chaves-en (2006) irudiko: lehena, erakundeon sustatzaileek interes material hutsez gain bestelako interes idealistak izan ditzaketela azpimarratzen duena, gizarte-prestigioa edo estatus soziala mantentzeko, eragin politikoa irabazteko, etab. (Young, 1983; Rose-Ackerman, 1996); bigarrenik, ekintzailetasun horien atzean gizarte-mugimenduak kokatzen dituztenak daude gizarte-espazio handiagoa eskuratzeko lehian dihardutenak (James, 1987); eta azkenik, kritikarik zorrotzenak teoriarari marxisten eskutik heltzen dira, horien iritzian estatua baita MBEen hedapenaren erantzule nagusia, bai modu horretan gizarte-kosturik apenas nozitu gabe bere erantzukizunei bizkar ematen dielako (Seibel, 1989) edota are, gizarte-mugimenduak zerbitzuen hornitzaile bilakatuz, horien funtzio eraldatzailea desmobilizatzea lortzen dielako (Petras, 2000).

Motibazio aldeko aspektu horiek berebiziko garrantzia hartzen dute MBEak sortzeko arrazoiaren artean, baina baita MBEek beren jardunbidean jasaten dituzten kanpo aldaketan aurrean harturiko erabakietan ere. Azken hipotesi honetan oinarritzen da Young-ek (1983) plazaraturiko “teoria enpresariala”ren funtsa, zeinaren arabera MBEen eskaintza-esparrua, zein antolakuntza-kultura hartzen duen, zein jarduera-esparrutan diharduen, etab. bete-betean azal bailiteke kudeaketaren literaturatik eratortzen diren enpresa-irizpideen bitartez¹⁰.

Steinber-ek (2006), hari horri tiraka, MBEen teoria osoago bat proposatze aldera, MBEei egokituriko teoria enpresariala eraikitzeke bi aurre-premisa eta prozedura bat finkatuko ditu: i) lehen aurre-premisak ekintzaileen motibazioen esparrua hartuko luke kontuan, sei interes-kategoria ezberdin finkatuz: ondasun kolektiboak hornitzea, kontsumitzaileen preferentziak aldaraztea, konfiantzako eragilea bilakatzea,

¹⁰ Aldiz, zehazten du aurrerago, enpresa-irizpide horiek baliagarriak direla baldin eta enpresa-ekintzailetasunaren adiera zabalago eta diziplinartekoago bat hobesten bada, helburu komertzial hutsen erdiespenaren analitiko harago joango dena (Young, 2003:167).

birbanaketan laguntzea, errenta abantailak eskuratzea eta bestelako etekin pribatuak erdiestea; ii) bigarren aurre-premisetan ekintzaileen arrakastarako aukerak baldintzatzen dituzten faktoreak jasotzen dira, besteak beste: merkatuko sarrera-kostuak, bestelako eragileen asistentzia lortzeko kostuak, baliabideen eskuragarritasuna eta aldeko erregulazioa izatea. Bi alderdi horiek, motibazio eta aukerek, analisi enpirikoak gauzatzeko (MBEen sailkapen ereduak egiteko) elementuak eskaini, eta hautespen-prozeduren ostean sorturiko emaitza posibleak (MBE berria sortzea, zahar bat birmoldatzea, etab.) interpretatzeko lanabesak eskaintzen dituzte.

1.3.1.2 Hurbilketa normatiboa

Nonprofit ikuspegiaren arabera bi dira hirugarren sektorea osatzen duten erakundeen ezaugarri komun printzipalak: “mozkinen banaezintasun printzipioa” eta baliabide boluntarioen mobilizazioa, uler, lan boluntarioa ekoizpenean eta dohaintzak finantza-bideetan (Sajardo eta Chaves, 2006). “Mozkinen banaezintasun printzipioak” ez du derrigortzen erakundea mozkinak ez izatera. Izan badituen kasuan, horiek erakundea kontrolatzen dutenen artean banatzea da debekatzen duena, horiek erakundearen helburuak lortzera edota erakundean erabakitze-ahalmenik ez duten hirugarren pertsonen mesedetan bideratu daitezke.

Instituzionalki, fundazio estatubatuarrak eta *charities* britainiarrak dira *Nonprofit* ikuspegi honek hirugarren sektorekotzat jo dituen eragile nagusiak, tradizio anglosaxoi filantropiko eta karitatezkora lotuak (Chaves eta Monzón, 2008).

90eko hamarkadan nazioarteko lehen ikerketa egitasmo konparatibo erraldoia gauzatu zen *Johns Hopkins* Unibertsitatearen babesean eta Salamon et al-ek (1999) zuzendua. Bertan, definizio erabilgarri bat proposatzeari begira, hainbat definizio-irizpide finkatu ziren. Sajardo-k (1996) irizpide horiek zerrendatu eta euren indargune eta ahuldadeen arabera baloratzen ditu, jarraian azalduko dugun eran:

- 1.- Irizpide legala: irizpide honek MBEak forma juridikoen bitartez definitzen ditu, herrialde bakoitzeko araudien bitartez jasotzen direnak. Espainiar ordenamendu juridikoak MBEak interes publikoko erakundetzat jotzen ditu, eta

hargatik jasotzen dituzte abantailak fiskalak bai erakundeek beraiek, bai eta erakundeen finantzazioan laguntzen duten pertsona fisiko eta juridikoek ere. Forma juridiko ezagunenak elkarteak eta fundazioak dira, nahiz eta lehen horiek interes publikokoak izateaz gain, interes partikularrekoak ere izan daitezkeen.

Irizpide honek sektorea identifikatzeko zehaztasun handia eskaintzen duen arren, zenbait muga ere baditu, juridikoa den neurrian interpretazio ezberdinei irekia geratzen baita, eta era berean, herrialde eta momentu konkretuei lotzen zaionez, denboran eta espazioan estrapolatzeko arazoak aurkezten baititu (nazioarteko erkaketak egiteko, esaterako).

2.- Irizpide ekonomiko-finantzaria: irizpide honek MBEak sailkatzen ditu beren errenten jatorriaren arabera. Honen harira, MBEak dira beren errenten gehiengoa ez ondasun eta zerbitzuen merkatuko salmentatik, ez eta zerga-sistemaren bitartez hiritarrek modu behartuan eginiko ekarpenetik eskuratzen duten erakundeen multzoa. Modu horretan, MBEen finantza iturri nagusiak bere bazkideen borondatezko ekarpenetan dute jatorria.

Irizpide honek MBEen elementu ekonomiko garrantzitsuak gehitzen dituen arren, esangura murrizten dio sektoreari, MBEtzat jo litezkeen erakunde askok eta askok beren errenten zati garrantzitsu bat sektore publikotik edota pribatutik lortzen baitute, nahiz eta formalki erakunde bereziak izan. Hargatik, irizpide honek MBEen sektorearen irudi osatugabea ematen du, MBEetako asko eta asko beste bi sektoreetako parte kontsideratzen baititu.

3.- Irizpide funtzionala: irizpide honen arabera, MBEak betetzen dituzten funtzioen arabera definituak geratzen dira. Funtzio horiek ezaugarri ekonomiko eta sozial ezberdinen bitartez definitzen direnez, irizpide honen baitan zerrendatuak izan daitezke MBEei buruzko teorizazio lan gehienek ekarpenak. Guk, ahalik eta ikuspegi eskematiko eta osatuena eskaintzeko, Sajardok (1996) proposatzen duen eskemari eutsiko diogu. Eskema honen arabera, lau dira nagusiki MBEek betetzen dituzten funtzioak:

- Ekoizpen funtzioa: MBEek ekoizpen funtzioan duten parte hartzea azaltzeko hurbilketa ezberdinak egiten dira MBE ikuspegiaren baitan, ekoizpen funtzio hori modu ezberdinetan ulertzen delarik: merkatuko akatsak ematen diren output-en eskaintza gisa (Ben-Ner, 1986; Hansmann, 1980), sektore publikoak eskaintzen ez dituen output kolektiboen eskaintza gisa (Weisbord, 1977), etab.
- Egonkortze eta birbanaketa funtzioak: Birbanaketa funtzioak MBEen jardueraren esparru ezberdinetan hautematen dira: outputak dohainik edo merkatukoaz azpitiko prezioetan eskaintzen direnean, erabiltzailearen araberrako prezio diskriminazioak egiten direnean, edota boluntarioen edota dohaintzen bidezko ekoizpena ahalbidetzen denean. Birbanaketa hori modu bertikalean egin liteke (hirugarrenen mesedetan) ala maila horizontalean, elkar laguntzako erakundeen bitartez. Zenbait autorek (Kramer, 1981; Salamon, 1987) ekoizpen, banaketa eta erregulazioa funtzioak izatez sektore publikoak beregain hartzen dituen funtzioetat jotzen dituztenez, MBEen funtzioa sektore publikoa gizarte-eginkizunen betearazpenean laguntzea dela deritzote.
- Demokraziaren sustapenean laguntzea: zenbaitentzat MBEak erabaki hartze publikoetan gizartearen parte hartzea mobilizatzeko erakunde egokiak dira. Are gehiago, MBEen baitan sumatzen den aniztasuna bera, bere horretan demokrazia eskolatzat eta gizarte pluralaren erakusletzat jotzen dute (Toquevilleren iturri zaharretik edanez). MBEen bitartez, hiritarrek sektore publikoaren aurrean beren gizarte-aldarrikapen zein interes eta eskubide partikularren defentsa bideratu dezakete. Aldiz, beste zenbaitentzat (Salamon, 1987), MBEek eginkizun horietarako hutsune nabarmenak azaltzen dituzte, beren arazo finantzario eta profesionaltasun gabeziaren ondorioz.
- Aitzindaritza funtzioa: MBEen errealitatearen ikuspegi historikotik eratortzen da, erakunde horiek direla gainerakoei aurrea hartzen dietenak gizarte-beharrizanen identifikazioan eta horiek asetzeko erantzunen hornikuntzan.

Irizpide funtzionalaren nazioarte mailako errealitate ezberdinak barnebiltzeko aukerak zabaltzen dituen arren, arrazoi horregatik beragatik azaltzen ditu bere ahuleziarik nagusienak, ez baitu zehaztasun nahikorik ematen kategoria funtzionalak oso irekiak eta aldakorak izan baitaitezke espazioan eta denboran.

Orain arte aipatu diren definizio-irizpide guztien ahuleziak gainditzeko Salamon eta Anehier-ek (1992) azken bat proposatzen dute, egiturazko irizpidea, zeinaren arabera zedarritzen baita gerora erabilia izango den definizioa. Irizpide horren arabera, hauexek lirateke sektore honen identitate ikurrik nagusienak:

Koadroa 2: Mozkinen Besteko Erakundearen definizio operatiboa

- i. Mozkinen banaezintasun printzipioa betetzen duten erakundeak
- ii. Izaera boluntariokoak, baliabide boluntarioak mobilizatzeko gaitasuna duten erakunde gisa ulertuta
- iii. Egitura formalekoak, hau da, instituzionalizazio maila bat izan behar dute, etxegunetako ekonomiek eta gizarte sare informalek ez bezala.
- iv. Autonomoak eta auto-gobernudenak, gobernu organo propioak eratuak izan behar dituzte eta ezin dira kanpo erakundearen kontrolpekoak izan.
- v. Izaera pribatukoak, edo sektore publikotik instituzionalki berezitako erakundeak, nahiz eta gradu ezberdinetan finantzazio publikoa jaso

Iturria: Salamon eta Anehier, 1992. (itzulpena gurea)

1.3.2 Tradizio frankofonoa: Gizarte Ekonomiaren ikuspegia

1.3.2.1 Aitzindariak: XIX. mende hastapenetako eztabaidaren giltzarriak

1.3.puntuan aurreratu dugun bezala, Europa mailan hirugarren sektorearen inguruan egin izan diren teorizazio lan nagusiak Gizarte Ekonomiaren (GE aurrerantzean) ikuspegitik egin dira. Frantzia Desroche (1983) eta Vienney (1994), Belgikan Defourny (1990), Kanadan Levesque (2003) eta Espainian Barea eta Monzón (1992) dira kontzeptzio honen oinarri teorikoen aitzindari nagusiak (Sajardo eta Chaves, 2006).

Gizarte-ekonomia lehen aldiz XIX. mende hastapenetako Frantzia azaldu zen. Charles Dunoyer-ek 1830ean *Nouveau traité d'économie sociale* argitaratu eman zuenean,

lehenengo bider proposatu zen terminoa egungoaren antzekoa den ezaugarriekin. Aurretik landu dugun MBE ikuspegia baino askozaz ere ibilbide luzeagoa egina duen kontzeptu batez ari gara hortaz, XIX. mende hastapenetako mugimendu kooperatiboaren karira sorturikoa izan arren historian zehar moldaketa ezberdinak ezagutu dituen eta egun ere moldatzen jarraitzen duena.

Lehen aitzindari honi Auguste Ott frantziarrak jarraitu zion 1851ean *Traité d'économie sociale* plazaratuz, baina Frédéric Le Play soziologoak emaniko bultzada da giltzarri nagusia gizarte-ekonomia kontzeptuaren onarpen hedatuagoa ulertzeko (Moulaert eta Ailenei, 2005). Berak sortua da 1856an *Société Internationale des Etudes Pratiques d'Economie Sociale* eta *Revue d'Economie Sociale* aldizkaria.

Hala eta guztiz ere, Charles Gide eta Léon Walras autore prestigiotsuen lanek eman zituen kontzeptuari benetako onarpen akademiko eta instituzionala.

Charles Gide-k (1904) gizarte-ekonomia “gizarte-justiziaren zientzia” moduan definitu zuen lehenengoz. Zehatzago: “*the social economy...could be defined in the strict sense: the study of all effort made to improve the condition of the people*”(Gide, 1904 :10). Horien artean kokatzen zituen langile-elkarteak, estatuaren gizarte-politikak eta karitatezko-elkarteak.

Léon Walras-en iritziko, gizarte-ekonomia hertsiki loturik zegoen estatuaren jardunbidearekin, bereziki merkatuaren gehiegikeriak erregulatzeko berebiziko papera jokatzeko eragiletzat aintzatesten baitzuen. Are, Walras-ek gizarte-ekonomia ekonomiatik justizia sozialera eginiko ekarpen moduan ulertzen zuen (Bidet, 1997). Eta analisi ekonomikoaren hiru esfera ezberdin proposatzen ditu: *ekonomia politikoa*, aberastasunaren sorkuntza aztertzen duen zientziatzat ulertua, hau da, norbanakoaren interesen mobilizazioari eta norbanakoa eta objektuen arteko erlazioei erreparatuz; *ekonomia aplikatua*, baliabide ekonomikoaren analisi gisa ulertua, naturaren legeei lotua; eta *gizarte-ekonomia*, aberastasunaren banaketaren zientzia gisa interpretatua (Bidet, 1997).

Chaves-ek (1999) ekarpen horiek bere testuinguru historiko eta sozialean kokatzen ditu, teoria horiek guztiak sortze edo sendotze bidean zen teoria ekonomikoaren eztabaidaren ingurumarian kokatuz, hain zuzen ere. XIX. mendearen hastapenetan pentsamendu ekonomikoaren baitan eztabaida epistemologiko indartsua ematen ari zen, ekonomia, politika, balioak eta erlijioaren arteko erlazioa zirelarik eztabaidaren ardatz nagusiak. Eztabaida horretan gailendu zen korrontea aski ezaguna da teoria ekonomikoan: balioetan neutrala izan nahi zuen zientzia diziplinarra, aztergune nagusitzat elkartruke eta ekoizpen modu kapitalista ezarri zuena.

Ontzat jotako paradigma zientifiko horrekiko ikuspegi kritikoa plazaratuz azaldu ziren beren burua gizarte-ekonomiakotzat izendatu zuten proposamen ekonomikoak, edo “Gizarte Ekonomialarien” ekarpenak (Chaves eta Monzón, 2008:14). Horien aburuz, ekonomia, balio eta erlijioarengandik bereizi ezineko diziplina zen. Era berean, industria-iraultzak suposatutako giza kostu izugarriarekin kezka nabarmena zuten, eta zientzia ekonomikoa kritikatzin zuten izaera sozialeko dimentsio horiengandik urruntzeagatik beren prozesu intelektualean. Are, gizarte-zientzialarien eginbehartzat zuten gizarte-arazoen analisisa eta horien konponbideak proposatzea, eta zentzu horretan, gizarte-ekonomiak ekonomia politikoa beste gisa batez egiteko xedea behar zuen (Gueslin, 1987).

XIX. mende amaiera aldera aldiz, gizarte-ekonomiaren sorrerako zentzu hori aldatzen joan zen. Gizarte-ekonomialariek egitura sozial ez-kapitalista eta ez-publikoei erreparatu zieten bereziki. Korronte marxistak harturiko bide iraultzaile estatistikak, zentzu horretan, distantziamendu bat ekarri zuen gizarte-ekonomialariek aztertutako ikergeaiekiko. Vienney-k (1994) argi azaltzen du gizarte-ekonomiaren adieraren aldaketa honen funtsa: gizarte-ekonomia, gailentzen ari zen ereduaren korronte kritikoa izatetik, logika nagusitik aldentzen ziren zenbait jardura eta eragileen azterketara igaro zen. Hortaz, gizarte-ekonomia, teoria ekonomiko nagusiaren kontrapuntuetako bat izatetik, teoria horrek aztertzen ez zituen esparruen analisisan kokatuko zen¹¹.

¹¹ Zentzu horretan Chaves-ek (1999) ukatu egiten du gizarte-ekonomiak teori gisa indarra galdu zuenik, arestian aipaturiko Léon Walras adibidetzat jarritz, berau *mainstream* ekonomikoaren ordezkari ezagunenetako bat izan arren, gizarte-ekonomiaren lerroa jorratu baitzuen bere ikerlanetan. *Etudes d'économie sociale* eta *Les associations populaires coopératives* dira bere obrarik esanguratsuenak (Chaves, 1999:119).

Gizarte-ekonomia, beraz, logika dominantei ihes egiten zieten erakunde eta jardueren analisisan zentratu zen gehienik, eta hor ezarri ziren gaur arte iraun duten ezaugarritze instituzionalik nagusiak. Zentzu horretan, mugimendu kooperatiboa izan zen nazioarte mailan “beste” jarduera horien erreferentzia nagusia, eta kooperatibismoaren inguruko teorizazioak izango ziren aurrerantzean gizarte-ekonomiaren adiera aberastu eta sendotuko zutenak. Jarduera-esparru berezi horien analisisen ondorioz ezarrita geratu ziren, gizarte-ekonomiaren erdigunean kokatzen diren hiru erakunde nagusiak: kooperatibak, mutuak eta elkarteak.

1.3.2.2 Hurbilketa normatiboa

Arestian aipatu moduan, gizarte-ekonomiaren adiera unibertso honetako erakunde tradizionalekin lotu izan da bereziki, hots: kooperatibak, mutualitateak eta elkarteak. Erakunde horiek beroriek izan dira, erakunde ordezkari zabalagoen bitartez beren burua definitzen joan direnak nazioarte mailako aitorten eta printzipio deklarazioen bitartez.

70eko hamarkadatik aurrera, eztabaida terminologiko berrituaren erdian, gizarte-ekonomiaren adiera tradizio frantziarreko literaturarekin erlazionatu izan da. Bouchard et al-en (2008) irudiko, GEn ohiko definizioen erreparatu bat egiteko, hiru dira tradizio frankofonoan egin izan diren hurbilketa nagusiak: lehena, sektorea osatzen duten eragileen aldetik (Desroche, 1983); bigarrena, jarduera-arauei ikuspegitik (Vienney, 1994) eta hirugarrena printzipio eta balioei erreparatuz (Defourny, 1990).

Lehen hurbilketatik nagusiki kooperatibak, mutualitateak eta elkarteak nabarmentzen dira, nahiz eta beste bazterreko erakunde batzuk ere aintzat hartzen diren¹². Frantzian bertan, aipaturiko hiru familia nagusiak *Comité national de liaison des activités coopératives, mutuelles et associatives* elkargoan bildurik argitara eman zuten 1980. urtean Gizarte Ekonomiaren Karta (*Charté de l'économie sociale*) adibidetzat hartuz, beren burua modu honetan definitzen zuten:

¹² Desroche-k beste lau figura juridiko aipatzen ditu gure testuinguruan identifikatzen zailak direnak, hala nola: enpresa komunitarioak (*community enterprise*), enpresa komunalak (*communal enterprise*), enpresa parte-hartzaileak (*participative enterprise*) eta enpresa bateratuak (*joint enterprise*).

“sektore publikotik landa, bazkideen arteko eskubide eta betebeharrak berdintasunez eta funtzionamendu eta kudeaketa demokratikoz jarduten duten erakundeak, erregimen berezia dutelarik jabegoaren eta mozkinen banaketan, urtealdiko mozkinak erakundearen beraren hazkundera zein bazkide eta oro har gizarteari eskainitako zerbitzuen hobekuntzara bideratzen direlarik”. (Monzón, 2006). (itzulpena propioa).

Jarduera arauen arabera definizioan, Vienney-k (1994) lau esparru ezberdin finkatzen ditu: i) bazkideen arteko esparruan, funtzionamendu demokratikoa (bazkide bat, bozka bat); ii) bazkideak enpresari lotuaz, bazkideen erabakimena da enpresaren jardura; iii) enpresarengandik bazkideetara jaitsiz, gainbalio edo mozkinen banaketa mugatua edo debekatua da, eta; iv) enpresaren egitura aldetik, berrinbertituriko gainbalioak jabego kolektibokoa izaten jarraitzen du beti.

Hirugarren hurbilketa, balio eta printzipioetan oinarritua, Defourny-k (1990) proposatua eta *Conseil Wallon de l'Économie Sociale*k beregain hartu zuena da. Bertan gizarte-ekonomiako erakundeak lau ezaugarri nagusi partekatzen zituzten erakunde gisara definitzen ziren: i) mozkinaz gaindi, helburua komunitateari edota bazkideei zerbitzuak eskaintzea; ii) kudeaketan autonomiadunak izatea; iii) erabakitze prozesu demokratikoak garatzea; iv) errentak banatzerako orduan pertsona eta lanaren nagusitasuna kapitalaren gainetik (Bouchard et al, 2008; Chaves eta Monzón, 2001; Defourny eta Develtere, 1999).

Adiera honi loturik, argia da gizarte-ekonomiak bere jatorrizko hirutasunari eusten diola, kooperatibak, mutuak eta elkarteak, nahiz eta kooperatibagintza jotzen den hiru horien artean pisu handienekotzat. Gizarte-ekonomiaren ardatz egituratzaile nagusia, hortaz, kooperatiben errealitatea izango da (Barea eta Monzón, 1992), eta bere ezaugarri bereizgarrienekin, kudeaketak demokratikoa kasu, bat egiten ez duten gainerako zenbait erakunde gizarte-ekonomiaren adieratik kanpo geratuko dira (fundazio pribatuak eta kutsu erlijiosodun elkarteak, esaterako) (Chaves eta Monzón, 2001).

2002. urtean, *Kooperatiba, Mutualitate, Elkarte eta Fundazioen Konferentzia Europar Iraunkorrak* bultzatuta, “Gizarte Ekonomiaren Printzipio Karta” onartu zen, jarraian azaltzen diren printzipioak adostu zirelarik:

Koadroa 3: Gizarte Ekonomiaren Printzipioen Karta

- i) Pertsonaren eta helburu sozialaren lehentasuna kapitalaren aurretik.
- ii) Atxikipen borondatezkoa eta irekia.
- iii) Bazkideen kontrol demokratikoa (fundazioak salbuetsita, bazkiderik ez baitute)
- iv) Bazkide erabiltzaileen interesen eta interes orokorraren bateratzea.
- v) Erantzukizun eta elkartasun printzipioen defentsa eta ezarpena.
- vi) Autonomia kudeaketan eta botere publikoekiko independentzia.
- vii) Mozkinen gehiengoa garapen iraunkorra, bazkideen zerbitzuen interesa eta interes orokorraren aldeko helburuetara bideratzea.

Iturria: Chaves eta Monzón, 2001 (itzulpena gurea)

Adierazpen horien bitartez, gizarte-ekonomiako eragileek beraiek ekarpen garrantzitsua egin zuten kontzeptu berriaren eraikuntzan beraien arteko ezaugarri komunak identifikatu eta euren arteko senidetasuna nabarmentzeko izenburu kolektibo hori defendatuz: gizarte-ekonomia (Defourny eta Develtere, 1999). Aurreko adierazpenekiko berritasun handiegirik eskaintzen ez bazen ere, azken adierazpen honetan gizarte-ekonomiaren adiera zabaltzen zen espresuki fundazioen esparrura, bai eta herrialde ugarietako zenbait forma juridiko zehatzetara ere (Espainiako Lan Elkarteak, adibidez) (Chaves eta Monzón, 2001).

Errealitatean sendotzen ari zen mugimendu horri erantzunez, 1980eko hamarkadatik aurrera heldu ziren gizarte-ekonomia adieraren zutarrri homologagarriak ezarri zituzten proposamen garrantzitsuenak. Monzón-en iritziz (2006), hiru mugarri nagusi ditu kontzeptuaren zedarritze prozesuak: CIRIEC erakundeak 90eko hamarkadan abian jarritako nazioarteko ikerketa egitasmoa (Monzón eta Defourny, 1992), Gizarte Ekonomiako enpresen Kontu Sateliteen Eskuliburu Europarra (2006) eta Europako Gizartea eta Ekonomia Batzordearen txostena gizarte-ekonomiaren gainean.

Lehen oinarriak, aipatu bezala, 90eko hamarkada hasieran CIRIEC nazioarteko erakundeak abian jarritako ikerketa egitasmoak ezarri zituen, 10 herrialdetako 20 ikerlarik herrialde guztietako errealitateentzako homologagarriak ziren printzipioak proposatu baitzituen. Horrela, printzipio kooperatiboetan eta Kontabilitate Nazionaleko metodologian oinarri hartuz, gizarte-ekonomia bi azpisektorek osatzen zutela ezarri zen

(Barea, 1990): i) merkatuko azpisektorea, merkatuan modu berezitan (kudeaketa demokratikoarekin eta kapital ekarpenei lotu gabeko mozkinen banaketarekin) diharduten enpresetan oinarritua, eta; ii) ez-merkatuko azpisektorea, mozkin asmorik gabeko erakunde pribatuak bilduko lituzkeena, salmentara bideratuak ez dauden etxeetarako zerbitzuak eskaintzen dituztenak.

Lehen oinarri horien gainean, Gui-k (1991) gizarte-ekonomiako eragileen aniztasunean berebiziko garrantzia hartzen duten bi kategoria sailkatu zituen: nagusigoa eta onuradunaren kategoriak. Lehenak, enpresan erabakitzeko ahalmena duten gizataldeei erreparatzen dien bitartean, bigarrenak, enpresaren jardueraren onurak jasotzen dituzten horiek aztertzen ditu. Azken kategoria honi loturik, gizarte-ekonomiako eragileen artean badira “interes mutualekoak” (edo elkarren laguntzakoak) zein “interes orokorrekoak” (jardueraren onuradunak bazkideak soilik ala komunitate zabalagoak diren kasuetan)¹³. Irizpide honek ezartzen duenez, onuradunen kategoria ezin osatu ahal izango da inbertitzaile kapitalistez.

Gizarte-ekonomiaren definizio argi eta zehatza osatze bidean bigarren mugarri garrantzitsua, Gizarte Ekonomiako enpresen Kontu Sateliteen Eskuliburu Europarraren (Barea eta Monzón, 2006) argitalpena izan zen. Lan honek gizarte-ekonomiako merkatuko azpisektoreko enpresak soilik jorratu bazituen ere (kooperatibak, mutualitateak eta antzeko enpresak) zorrotasun handiagoz izendatu zituen Europar Batasuneko ezain herrialdetan gizarte-ekonomiakotzat kontsideratzeko enpresek jarraitu beharreko irizpideak: kontabilitate-irizpideak. Modu horretan, SEC-1995 sistemarekin (*European System of National and Regional Accounts*) bateragarria izan behar duen metodologiaren baldintza teknikoak ezartzeaz gain, sektorea kontabilizatzeko euskarri sendoak ezarri ziren. Maila kontzeptualean ere aurrerapausoak barneratu zituen, gizarte-ekonomiako enpresen helburu-funtzioak gainerako enpresa kapitalistekiko berezitez¹⁴.

¹³ Interes mutualeko erakundeetan, nagusigoaren eta onuradunen kategoria bazkide erabiltzaileek osatuko lukete, kapital ekarpenak erakundearen zerbitzuez jabetzeko egiten baitituzte, kapital errendimenduak handitzeko egin beharrean. Aldiz, “interes orokorrekoa” den kasuan, onuradunen kategorian, nagusigoan parterik hartzen ez duten erabiltzaileek ere lekua dute.

¹⁴ Atal honetan Gui-ren (1991) kategoria analitikoak berrartu zituzten enpresa kapitalistekiko ezberdintasunak finkatzeko: enpresa kapitalista arrunteko nagusigo eta onuradun kategoriak inbertitzaile kapitalistez osatzen diren neurrian gizarte ekonomiako enpresetan ez. Gainontzean, gizarte-ekonomiako enpresek merkatuan jokatzeko duten neurrian, enpresa kapitalisten ekoizpen-funtzio bertsuak azaltzen

Kontzeptuaren sendotze bidean azken mugarrria Europako Gizarte eta Ekonomia Batzordearen enkarguz bideratutako nazioarteko lan konparatiboa izan da: *La Economía Social en la Unión Europea* (Chávez eta Monzón, 2008). Lan honetan finkatzen den definizioa, hitzez hitz, honako hau da:

“Conjunto de empresas privadas organizadas formalmente, con autonomía de decisión y libertad de adhesión, creadas para satisfacer las necesidades de sus socios a través del mercado, produciendo bienes y servicios, asegurando o financiando y en las que la eventual distribución entre los socios de beneficios o excedentes así como la toma de decisiones, no están ligados directamente con el capital o cotizaciones aportados por cada socio, correspondiendo un voto a cada uno de ellos. La Economía Social también agrupa a aquellas entidades privadas organizadas formalmente con autonomía de decisión y libertad de adhesión que producen servicios de no mercado a favor de las familias, cuyos excedentes, si los hubiera, no pueden ser apropiados por los agentes económicos que las crean, controlan o financian”

Definizio honetan berresten da gizarte-ekonomia adieraren aldebatasuna: merkatuko eta ez-merkatuko erakundearen osatura. Zehaztasun maila handiagora jaitziz, honako hau da azpisektore bakoitza definitzeko erabiltzen den irizpide multzoa:

- a) Merkatuko azpisektorea: multzo honetan kokatzen diren erakundeek, jarraian aipatzen diren ezaugarriak bete beharko dituzte:
- Bazkideen beharrianak asetzeko sortuak dira, hau da, kasurik gehienetan bazkideak jardueraren erabiltzaileak ere izango dira aldi berean.
 - Merkatuko ekoizleak dira, merkatuan jokatzeko baitute bai beren produktuak prezio esanguratsuetan salduz bertan eta baita ere bertatik lortuz erakundearen baliabide nagusiak.
 - Mozkinak erakundearen bazkide-erabiltzaileen artean banatuak izan daitezke, baina ez bakoitzak egindako kapital ekarpenaren proportzioan, baizik eta bakoitzak egindako lanari lotuta.

dituzte, hau da: balio-sorrera ahalbidetzea ekoizpen prozesu eraginkorren bitartez, emaitzarik onenak baliabiderik gutxienekin lortuz.

Sektore honetako erdigunean kokatzen dira kooperatibak eta mutualitateak, baina baita enpresa-errealitate horiekin antzekotasun nabarmenak dituzten beste zenbait erakunde ere, besteak beste: gizarte-ekonomiako enpresa-multzoak, lan-elkarteak, erantzukizun mugatuko lan elkarteak (beti ere kapital sozialaren gehiengoa enpresako langile-bazkideen jabetzakoa bada) zein gizarteratze-enpresak ere. Erakunde bakoitzaren forma juridikoa dena dela ere irizpide bat da guztien gaintik modu bereizgarri eta diskriminatzailean gailentzen dena: kudeaketa demokratikoa, bai erabakitze esparruetan (“persona bat, bozka bat”) bai eta mozkinen banaketan ere.

- b) Ez-merkatuko azpisektorea: gizarte-ekonomiaren partaidetzat hartzen dira orobat, zenbait erakunde pribatu, batik bat elkarte eta fundazioak, beren zerbitzuak hirugarren pertsoneri eskaintzen dizkietenak (familiak, etxeguneak, etab), beren zerbitzuak merkaturatu ditzaketenak baina beti ere prezio ez esanguratsuetan, beren baliabideen gehiengoa dohaintza, bazkideen kuota zein diru-laguntzen bitartez lortzen baitute. Erakunde horiek mozkin-asmorik gabekoak diren neurrian, mozkinik eskuratzekotan, ez dute erakundeko bazkideen artean banatzerik izango. Europako Kontularitza Sistemak (arestian aipaturiko SEC-1995) “*instituciones sin fines de lucro al servicio de los hogares*” moduan izendatzen ditu eta CIRIEC erakundeak “Gizarte-ekimeneko Hirugarren Sektore” gisa identifikatzen ditu (*Tercer sector de acción social*).

Ikuspegi normatibo honen bitartez, ikuspegi instituzionalak ekarritako herstura gainditu nahi da, adiera berrian ezaugarri partekatu konkretu batzuekin bat egiten duen zeinahi erakundek kabiera izan dezakeelarik, izan kooperatiba, mutualitate, elkarte ala hiruetako bat ere ez. Ezaugarri partekatu funtsezko horiek jarraian zerrendatzen direnak liriateke (Chaves eta Monzón, 2008):

Koadroa 4: Gizarte Ekonomiaren definizio operatiboa

- i. entitate pribatuak dira, hau da, ez sektore publikoaren baitakoak ez eta horien kontrolpekoak
- ii. formalki egituratuak, hots, izaera juridiko propioak
- iii. erabakitzeke autonomia osoa dute, besteak beste gobernu organoetako ordezkariak aukeratu eta kargugabetzeko, eta jarduera bere osotasunean kontrolatu eta antolatzeke ahalmen osoak dira
- iv. atxikipen librekoak, uler, ez derrigorrezko afiliaziozkoak
- v. bazkideen jarduerak izaniko balizko mozkinen banaketa, egin ahal den kasuetan, ez da egindako kapital ekarpenari lotua izango, baizik eta bazkideek erakundeetan betetzen dituzten eginkizunen arabera

Iturria: Chaves eta Monzón, 2008

1.4 Hirugarren sektorearen bi hurbilketa klasikoen analisi alderatua

Kapitulua ixteko, orain arte landu diren bi hurbilketa klasikoen artean antzematen diren antzekotasun eta desberdintasun nagusien inguruko azterketa aurkeztuko da.

Chaves eta Monzón-ek (2001) egindako azterketatik ondorioztatzen da bi ikuspegi horiek, duela urte gutxira arte elkar ezagutu gabe garatu izan diren arren, azken aldiko ekarpen teorikoek bi munduen arteko zubiak eraiki dituztela, elkarren arteko ezagutza eta aitopenetik abiatuz, bi eskolek partekatzen dituzten elementuetan gerturapen esanguratsuak gertatu direlarik.

Esan bezala, alde batetik Gizarte Ekonomiaren ikuspegia, eta beste aldetik Mozkinen Besteko Erakundearen ikuspegia, biak tradizio eskola ezberdinetatik jaioak dira. Laville-k (2004) zehazten duen moduan, horietako bakoitzak gainera motibazio iturri ezberdinetatik edaten du. Gizarte Ekonomiak, zeina tradizio frankofonotik eratortzen den, barne-elkartasunaren ideia du oinarri, eta eskola honetatik sorturiko erakunde gehienak elkar laguntzakoak dira, hau da, jardueraren bazkideak beraiek dira neurri handienean jarduera horren onuradunak. Beste aldetik, Mozkinen Besteko Erakundearen ikuspegiak eskola anglosaxoia du iturburu, karitatezko erakunde filantropikoetan gorpuzten da, eta elkartasuna bideratzeko formula horiek interes orokorreko formulatzat

hartuak izan ohi dira, jarduerak sorturiko onurak (dirutan zein ez-dirutan) bazkideez aparteko hirugarren pertsona edo giza taldeen mesedetan izaten baitira.

Sakoneko ezberdintasun epistemologiko horien kausaz, ikuspegi bakoitzak darabilen definizio normatiboan ezberdintasun esanguratsuak nabarmentzen dira. Hainbat autorek azpimarratzen du ordea, izan badirela bien arteko puntu komun ugari ere, eta ustezko ezberdintasun horien mugak, askotan nahikoa lausoak edo definigaitzak izan ohi direla (Monzón, 2006; Chaves eta Monzón, 2008; Borzaga eta Defourny, 2001).

Monzón-ek (2006) laburbiltzen duen legez, MBE ikuspegiak hirugarren sektore hau zedarrizteko darabiltzan bost printzipio nagusietatik lau (erakunde pribatuak, formalki antolatuak, erabakitze ahalmen eta atxikipen librekoak) GEren ikuspegiak ere partekatzen ditu. Borzaga eta Defourny-k (2001) eranstean dutenez, bi kontzeptuak erakundeen barne egitura eta antolakuntza arauen bitartez definitzen dira, euren errenten jatorritik egin beharrean.

Hala ere, eta kontrakotasunei erreparatuz, MBE ikuspegiak exijitzen duen “mozkinen banaezintasun” irizpidea ez da GE ikuspegiaren modu berean barneratzen, eta kontrara, GE ikuspegiak aipatzen dituen bi, zehazki demokrazia eta pertsona fisikoei zerbitzatzea, ez dira MBE ikuspegiaren aintzat hartuak (Chaves eta Monzón, 2008). Hiru elementu horiek dira modu oso orokortuan nabarmentzen diren hiru ezberdintasun nagusiak, hots, mozkinen erabilera, erakundeen gaineko kontrola eta helburuen zehaztapen irizpideak (Borzaga eta Defourny, 2001). Goazen banan bana.

1.4.1 Mozkinen banaezintasuna

Lehenik, “mozkinen banaezintasun printzipioa” da MBE ikuspegiak ezinbestekotzat jotzen duen irizpide nagusia. Irizpide horrek aplikazio zuzenekoak izaten du zenbait forma juridikoen estatutuetan, nagusiki fundazioetan, eta horiekin identifikatu izan dira MBE ikuspegiak aztertutako erakunde gehienak. MBE ikuspegiak “mozkinez besteko” irizpide hori modu bikoitzean inposatzen du: batetik, erakundeak sorturiko mozkinak ezin dira erakundea kontrolatu, kudeatu edo finantzatzen duten gizabanako edo erakundeen artean banatu. Baina bada beste aldetik, zentzu finalistagoan planteatzen

den bigarren baldintza bat ere: “mozkin asmorik gabeko” erakunde gisa sortuak izatea (*NPIs Handbook*, 2.16). Baldintza honek ezartzen duen legez, mozkinaz besteko erakundeak “nagusiki helburu edo xede komertzialetara orientatzen ez diren erakundeak” lirateke, eta beraz, kooperatiba eta mutualitateak, merkatuan diharduten “mozkin asmoko” erakunde diren neurrian, salbuetsita geratuko lirateke.

Arestian aipatu bezala, ordea, GEren ikuspegitik ñabardura esanguratsuak egin izan dira “mozkinaz besteko” printzipio horren inguruan. Bereizi egiten dira “*non-profit*” eta “*not-for-profit*” adierak, lehen horrek hirugarren sektoreko erakunde esanguratsuak bazter uzten dituela argudiatuta (nagusiki kooperatiba eta mutualitateak) (Chaves eta Monzón, 2001; Defourny eta Develtere, 1999). Aldiz, GEren ikuspegiak, “mozkinaz besteko” erakundeak aintzat hartzen ditu (elkarte, fundazio eta enpresa sozialak barne) baina horiez gain, kooperatiba eta mutuak ere barnebiltzen dira.

Zentzu horretan, interesgarria da “mozkin-asmoaren” inguruan GEko ikuspegitik egiten den ekarpena *Nonprofit* ikuspegiarekin kontrastean jartzea. Chaves eta Monzón-ek (2001) zehazten duten bezala bi modutara uler liteke “mozkin asmorik gabeko” erakundeak izatearen nozioa: helburuen arabera zentzuan ala barne antolakuntza-arauen zentzuan. *Nonprofit* ikuspegiak, bigarren adiera horri eusten dio, nagusiki “mozkinen banaezintasun printzipioan” oinarrituz. Honela, erakundeak mozkinak maximizatzeko logikatik at dihardutenaren bermea barne-egitura bera da, kanpo-akziodunen parte hartzeko motibazioa hozten baitu, erakundeak lorturiko mozkinak legez erakundearen bazkideen artean banaezinak diren aldetik.

Alta, bada beste hurbilketa bat ere, erakundeen helburuengan arreta jartzen duena. Honen arabera, erakunde bat mozkin asmorik gabekoa kontsidera daiteke baldin eta bere izateko arrazoi nagusia, *leitmotive*-a, mozkinen maximizaziotik urrun, “izaera sozialeko” elementuetan kokatzen bada. Izaera sozial hori, gizarte-beharrizanak asetzearekin edota baliagarritasun sozialarekin lotutako ekinbideetan islatuko litzateke, eta ondorioz, gizarte-ekonomiaren nozio ohikoenaekin loturiko edozein eragilek beteko luke baldintza hori (ez soilik “mozkinen banaezintasun printzipioa” jarraitzen dutenak, baita GEko merkatuko azpisektorean kokatzen diren eragileak ere).

Literatura anglosaxoniarrean oso modu zehatzean bereizten dira bi adiera horiek: lehena *non-profit* litzateke eta bigarrena *not-for-profit*¹⁵.

Kooperatibak oro har, “mozkin asmoko” edo “mozkinez besteko” erakunde diren baloratzeko, Chaves eta Monzón-ek (2001) araudi kooperatiboaren zehaztapan juridikoak ontzat jotzea proposatzen dute: kooperatiba bat mozkin asmokoa izango da baldin eta bere eragiketen artean hirugarrenen (ez bazkideen) bitartez buruturiko jarduera ez kooperatibizatuetatik eratorritako mozkinak, kooperatibako bazkideen artean banatzen badira. Horixe bera da Espainiako lege kooperatiboetan hertsiki ezartzen den baldintzetako bat: kooperatibek jarduera ez kooperatibizatueta (jarduera extra-kooperatiboak edota ez-ohikoa) emaitza positiborik eskuratuko balute, behartuta egongo dira horiek Derrigorrezko Erreserba Funtsera bideratzera (zeina bazkideen artean banaezina den, ezta erakundea disolbatuko balitz ere). Era berean, kooperatibak izan ditzakeen “metatutako mozkinak” ez dira bazkideen artean banatzen, ez horiek bajaran emandakoan ez erakundea disolbatzean ere. Kasu horretan, bazkideak kapital sozialera eginiko ekarpen nominala (KPI-aren arabera eguneratua) da itzuliko zaion kopurua.

Kooperatibak, hortaz, espresuki “mozkinen banaezintasun printzipiorik” ez duten arren, barne arautegi kooperatiboak printzipio horren oso antzekoak diren zenbait baldintzapan barneratuak dituzte.

Berdin antzeko kritika egin liteke fundazioen gainean ere. *Nonprofit* ikuspegiak horiek mozkin asmorik gabeko erakundeen paradigmatzat jo arren, horietako asko merkatu jardueretara guztiz emanak bizi dira, eta merkatuko salmentak dira beren finantzazio-iturri nagusia. Ezaugarri horrek “mozkinez besteko” erakunde izatetik salbuetsi behar lituzkeen arren, irizpide ekonomiko edo finantzaria betetzen ez duten neurrian, multzo horretan sartzen dira “mozkinen banaezintasun printzipiora” doitzen direlako juridikoki.

¹⁵ Gazteleraz ere modu antzekoan bereizten dira *entidades no lucrativas* eta *entidades sin ánimo de lucro*. Dena den, hirugarren sektoreko eragile horiek izendatzeko termino erabiliagoa da *no lucratividad* adiera, beti ere “mozkinen banaezintasun printzipioari” lotuta erabiltzen delarik. Euskarazko literaturan aldiz, “Mozkin Asmorik Gabeko Erakundeak” adiera da gehien erabiltzen dena, eta *no lucrativas* horren zentzuan erabiltzen da, gure iritzian *sin ánimo de lucro* edota *not-for-profit* adierekin gertutasuna handiagoa daukan arren. Bi adieren artean garrantzitsuak izan daitezkeen ñabardura horiek jasotzeko, hautatu dugun “Mozkinez Besteko” adiera erabiltzea, “*no lucrativas*” edo “*non-profit*” horien zentzuan. Eta nahiz eta testuan zehar nahiko modu bereizigabeen erabili den, sektorea aipatzeko “Mozkin Asmorik Gabeko Erakundeak” adiera hobetsi dugu, eta ikuspegi teorikoari erreferentzia egitean “Mozkinez Besteko erakundeen” ikuspegia erabiltzea jo dugu ontzat.

Eta azkenik elkarteen unibertso zabala legoke. Elkarteen artean aurki litezke egiturazko definizioan ezarri diren zenbait ezaugarriekin bat egiten ez duten errealitateak ere, dela autonomoak ez direlako (enpresa edo sektore publikoaren menpekoak izanik), dela atxikipen librerako oztopo nabarmenak jartzen dituztelako (elkarte elitisten kasua), edo dena delakoagatik. Hala ere, juridikoki elkarte gisa inskribatzen direnez, automatikoki MBE gisa kontsideratzen dira.

1.4.2 Kudeaketa demokratikoa

Bi ikuspegiaren arteko bigarren ezberdintasun nagusia irizpide demokratikoaren aferan ematen da, GE ikuspegiak derrigortzen duena izanik eta aldiz MBE ikuspegiak kontuan ere hartzen ez duela jakitun.

Irizpide hori, GEko merkatuko azpisektorean diharduten ezaugarri bereizle nagusia da, inondik ere (Chaves eta Monzón, 2001). Horren ondorioz, MBE ikuspegiak hirugarren sektorekotzat jotzen dituen erakunde askok, “mozkinez bestekoak” izanagatik ere ez dute funtzionamendu demokratikorik egiaztatzen (ospitale, unibertsitate, erakunde kultural eta artistiko, etab.). Horiek guztiak GE ikuspegiak ez ditu aintzatesten. Alabaina, GEren azkenaldiko zehaztapen terminologikoetan, irizpide honen ezinbestekotasuna erlatibizatzen duen elementu bat barneratu da: GEko ez-merkatuko azpisektorearen barneratzea, hain zuzen ere.

Arestian aipatu bezala, “Gizarte-ekimeneko hirugarren sektore” gisa izendaturiko borondatezko mozkinen besteko zenbait erakunde GEren parte kontsideratzen dira, nahiz eta funtzionamendu demokratikorik ez egiaztatu, baldin eta beren zerbitzuak etxegune edo gizabanakoen mesedetan eta prezio ez esanguratsuetan eskaintzen badituzte. Erakunde horiek aintzatesten dira “baliagarritasun sozialeko” erakundetzat jotzen diren heinean. GE ikuspegiaren irizpide demokratikoa irizpide baldintzatzailea den arren, mota honetako salbuespenak onartzeak, anbiguotasuna erantsi dio kontzeptuari. Pentsa liteke, GEren ikuspegiak MBEen inguruko teorizazio lanetara egindako hurbilpen keinu gisa hartu zela erabaki hori, Chaves eta Monzón-ek (2008) aipatzen

duen bezala, azken eranskin horrek GERen esparrua fundazioen mundura ere ireki baitzuen (kooperatiba, mutualitate eta elkarteen hirukote tradizionala gaindituz).

Dena den, ez edozein fundazio da GERen parte izateko hautagai. Lehenik eta behin, Espainiako Gizarte Ekonomiaren legean zehazten denez, jarduera ekonomikoa duen fundazioez ariko ginateteke nagusiki. Merkatuko jarduera ekonomikorik agertzen ez duen kasuan, maila akademikotik zehazten da soilik hartuko direla aintzat “Gizarte-ekimeneko hirugarren sektoreko” erakundeak (*tercer sector de acción social*”), hau da, ez MBE erakunde guztiak bere osotasunean, baizik eta soilik gizarte-ekimenekotzat jotzen direnak. Honela, mozkinen besteko erakundeen tipologiak egiteko baliatzen diren irizpideak aintzat hartuz, erabaki behar litzateke zeintzuk diren gizarte-ekintzakotzat jotzen direnak, batzuk zalantza gutxiago sortu arren (Gizarte Zerbitzuetako erakundeak kasu) beste batzuk zalantzarriagoak baitira¹⁶.

Gizarte-ekintzako elkartearen artean ere, sailkapena apurka-apurka fintzen joan beharra ere nabarmentzen da, zenbait boluntario elkarteren inguruan zalantza gutxiago sortu arren, Monzón-ek aipatzen duen moduan (2010: 51) eztabaida oraindik itxi gabe baitago “aisialdirako eta ordezkartzarako” elkartearen inguruan. Edozein delarik ere azken sailkapena, irizpide berri hau barneratzeak nolabait leundu egiten du gizarte-ekonomiaren bereizgarritzat jo izan den ezaugarri nagusiaren eskakizuna, hots, egitura demokratikoa izatearena, antolakuntza-mailako eskakizunak helburu eta misioen araberrako eskakizunekin nahasten hasi direlarik.

1.4.3 Jardueren helburu eta misioa

Hirugarren diferentzia nagusia, jardueraren helburuen aferan legoke, hortaz, mozkinak maximotu beharrean, pertsonen zerbitzura diharduten erakundeak direla dioen

¹⁶ Gizarte-ekimeneko hirugarren sektorea, esan bezala, mozkin asmorik gabeko erakundearen multzo osotik sektore konkretu batek osatzen du. Sektore hori zedarrizteak, osterara ere, hurbilketa instituzionalen zailtasunak agerian uzten ditu, elkarte, fundazio, kooperatiba, eta elkarte erlijiosoak aurkitzen baitira sektore honetan. Hortaz, sektorea zedarrizteko erabili ohi den irizpideetako bat jardueraren onuradunen analisia da. Analisi horretatik eratoritzen da Ruiz de Olabuenagak (2004:91) proposatzen duen sailkapena, bertan hamaika azpisektore ezberdintzen direlarik: i) kultura, kirola eta aisialdiko jarduerak; ii) hezkuntza eta ikerketa; iii) osasuna; iv) gizarte-zerbitzuak; v) ingurumena; vi) etxebizitza eta garapen komunitarioa; vii) eskubide zibilak; viii) bitartekari filantropikoak; ix) nazioarteko jarduerak; x) elkarte profesionalak; xi) gizarte-aurreikuspen mutualitateak. Esanda bezala, sektore horietatik gizarte-ekintzakoak zein liratekeen ebazteak, bigarren sailkapen galbahe bat eskatuko luke.

printzipioan, hain zuzen ere. Esparru honetan ez da aurreko bietan sumatzen den adostasunik ematen. Mozkinak maximotzeari dagokionean, GEn nahiko modu argian finkatzen da hori, mozkinak bazkide guztien artean banatzen baitira. Aldiz, MBEen kasuan, “mozkinen banaezintasun printzipioak” ez die erakundeoi, paradoxikoa dirudien arren, mozkina maximotzeko estrategiak erabiltzea debekatzen, soilik derrigortzen ditu mozkin horiek ez banatzera (Borzaga eta Defourny, 2001).

Eta bigarren zentzu batean, pertsonen zerbitzura egotearen afera dago. Printzipioz, MBE ikuspegiak interes orokorreko erakundeak kontsideratzen ditu eta GEk berriz, elkar laguntzakoak (Laville, 2004). Ñabardurak ordea, zentzu askotan egin litezke, banaketa hori modu puruan gertatzen ez dela ikusteko. Monzón-ek (2006) argudiatzen du MBE ikuspegiak ez duela “pertsonen zerbitzura dauden erakundeen” irizpidea esplizituki jasotzen, eta beraz, izan badirela errealitatean erakundeok kontrolatzen dituzten kapital elkartean mesedetan diharduten erakundeak. Aldiz, GEko erakundeek pertsonen zerbitzura edota GEko beste egitura batzuen zerbitzura egotea dute xede nagusi (Chaves eta Monzón, 2008). Modu horretan, lehen graduko GEko erakunde gehien onuradunak pertsona fisiko edo etxeguneak izaten dira, bai kontsumitzaile diren neurrian edo bai enpresari-ekoizle diren graduan.

Are gehiago, autore askoren iritzian GE erakundeak nagusiki elkarri laguntzeko motibaziotik jaiotzen diren arren, komunitate osoaren ongizatean eragiten duten jarduerak dira, besteak beste badituztelako estatutuz horretara bideratutako zenbait derrigorrezko moneta-funts banaezin (kooperatiben kasuan Derrigorrezko Erreserba Funtsak edota Hezkuntza eta Promozio Kooperatiborako Funtsak dira adibiderik argienak).

Azkenik, ezberdintasun bat gehitu daiteke bi ikuspegiok hirugarren sektorearen funtzioaren inguruan duten jarrerari dagokionean. MBE ikuspegiak, hirugarren sektorea estatua eta merkatuaren arteko sektore gisa ulertzen du, eta bere egitekorik nagusia ez merkatuak (eros ahalmenik gabeko eskari baten kausaz) ez estatuak (finantza publikoen ezintasunaz) ase ezin dituzten gizarte-beharrizan premiazkoen estalduran legoke. Funtzio honen bermea “mozkinen banaezintasun printzipioa” da, eta erakunde horien egitekoa maila asistentzialera mugatzen da.

GEren ikuspegiaren defendatzaileek aldiz, GE ez dute merkatu eta estatuaren artean kokatuko, baizik eta sektore kapitalista eta sektore publikoaren artean (Chaves eta Monzón, 2008). Horien aburuz, hirugarren sektorea ez da bazterreko sektore gisa ulertu behar, beste sektoreen ahulezien erantzule gisa, baizik eta horiekin batera diharduen “baliagarritasun sozialeko polo” bezala posizionatzen da. MBEko erakundeek “norabideko bakarreko elkartasun” jardueren ordeztuz, GEk “elkarrekiko elkartasun” enpresa-ekimenak bultzatzen ditu, karitate balioan zentratu beharrean, demokrazia eta pertsonen lehentasuna aldarrikatuz kapitalaren aurrean. Chaves eta Monzón-ek (2008: 16) baieztatzen duten moduan:

“GEk ez ditu pertsonak laguntza behar duten onuradun pasiboen ikuspegi filantropikotik aintzat hartzen, aitzitik, bere destinu propioaren protagonista aktibo bilakatuko dituen kategoriara altxatzen ditu hiritarrak”(itzulpena geurea da).

1.5 Espainiako Gizarte Ekonomiako 5/2011 legea

Orain arte garatu dugun eztabaida kontzeptualean planteaturiko zenbait galdera ebazten joateko, berriki gure iritzian oso garrantzitsua den gertakari bat eman da, Espainian 2011ko Martxoaren 29ko Gizarte Ekonomiaren legea¹⁷ onartu izana, hain zuzen ere. Lege hau aitzindaria da guztiz, ez da gaur arte mundu mailan gisa horretako beste legerik onartu, eta eztabaida kontzeptualari dagokionean, zenbait argibide eskaintzen ditu, nahiz eta, nola ez, beste zenbait galdera berri ere zabalik uzten dituen.

Hargatik ekarri nahi izan dugu lerrootara, maila akademikotik landa emaniko proposamena izan arren, guri dagokigunerako eragin zuzena duen gertakaria baita, eta gainera, orain arte landuriko eztabaidarekin guztiz koherentea den formulazio baten bitartez gauzatu baita.

Orain arte Espainian sektore publikotik Gizarte Ekonomiari eginiko aitortza instituzionala, Kooperatiben eta Lan Elkarteen Zuzendaritza Orokorra ordezkatzuz 1990ean sorturiko *Instituto Nacional de Fomento de la Economía Social* haren sokatik

¹⁷ Ley 5/2011, de 29 de marzo, de Economía Social (<http://www.boe.es/boe/dias/2011/03/30/pdfs/BOE-A-2011-5708.pdf>)

etorri da, egun Gizarte Ekonomiaren Sustapenerako Kontseilu gisa diharduena (*Consejo de Fomento de la Economía Social*). Euskadi mailan, berriz, Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailaren baitako Gizarte Ekonomia, Enpresen Erantzukizun Soziala eta Lan Autonomoaren Zuzendaritza da gaur egun esparru hau aitortu, erregulatu eta bultzatzen duen organo administratibo gorena (Bakaikoa et al, 2011). Dena den, egitura administratibo horiek esparru honetan kokaturiko erakunde ezberdinei (nagusiki kooperatiba eta lan sozietateak, baina baita laneratze enpresak eta enplegu zentro bereziei ere Euskadiren kasuan) bideraturiko neurriak hartuagatik ere, ez dute izan esparrua bere osotasunean erregulatzeko gaitasunik, enpresa-mota bakoitzak bere arautegi propioa mantendu izan baitu.

Gizarte-ekonomiaren esparrua *de facto*, politika publikoen aplikazioari dagokionez, sektore berezitatuz jo izan den arren, lege hori hala ezarrita uzten zuen agiri ofizialik ez zenez, hutsune hori betetzera etorri da Espainian 2011ko martxoan onaturiko Gizarte Ekonomiaren 5/2011 Legea. Lege hori edukiz betetzeko orduan, gainera, oso kontuan hartu dira maila akademikotik gizarte-ekonomiaren definiziorako eginiko garapenak. Horren lekuko da CIRIEC-España erakundeak legearen onartze prozesu honetan izaniko parte hartze esanguratsua, lehenik legearen aurreproiektu zirriborroa osatzeko sorturiko Aritu Taldean presentzia garrantzitsua izan baitzuen (kapitulu honetan hainbatetan aipaturiko José Luis Monzón izan zuelarik talde honek zuzendari), eta hortik eratorri baitzen CIRIEC-Españak 2009an argitaraturiko *Informe para la Elaboración de una Ley de Fomento de la Economía Social* txostena, funtsean aurreko atalean landuriko definizio nagusiak jasotzen zituen.

Afera kontzeptualari dagokionez, Legeak dioenez gizarte-ekonomiako erakundetzat jotzen dira bere partaideen interes kolektiboak edo interes ekonomiko eta sozial orokorrak (ala biak) bilatuz, honako printzipioak betetzen dituztenak (4.art.):

- i) *Primacía de la persona y del fin social sobre el capital, que se concreta en gestión autónoma y transparente, democrática y participativa, que conlleva priorizar la toma de decisiones más en función de las personas y sus aportaciones de trabajo y servicios prestados a la entidad, que en relación a sus aportaciones al capital social;*

- ii) *Aplicación de los resultados obtenidos de la actividad económica principalmente en función del trabajo aportado y servicio o actividad realizada por las socias y socios, en su caso, al fin social objeto de la entidad;*
- iii) *Promoción de la solidaridad interna y con la sociedad que favorezca el compromiso con el desarrollo local, la igualdad de oportunidades, la cohesión social, la inserción de grupos excluidos, la generación de empleo estable y de calidad y la sostenibilidad; y*
- iv) *Independencia respecto a los poderes públicos.*

Printzipioen mailan orain arte CIRIEC erakundearen baitan proposaturikoetatik gehiegi urruntzen ez den formulazioa dela egiaztatu genezake, legeak dakarrena. Funtsean bi tradizio nagusien lau ezaugarri bereizle komunak jartzen ditu mahai gainean: lehena, izaera demokratikoa, bigarrena mozkinen banaketari dagokiona, hirugarrena, jardueraren onuradunei dagokiona, eta azkena izaera pribatua. Testua arretaz irakurriz gero, hortaz, bi tradizio horietako bakoitzari eginiko keinu ugari antzeman liteke, nolabaiteko printzipio integratzaileak bilatu direlarik merkatuko zein ez-merkatuko gizarte-ekonomiaren eragile ezberdinak kabiera izan dezaten.

Hurbilketa instituzionalari dagokionean ere, legeak bete betean aitortzen ditu ordura arte maila akademikoan gizarte-ekonomiakotzat jotzen ziren erakundeak oro:

- i) Kooperatibak
- ii) Mutualitateak
- iii) Jarduera ekonomikoa duten Elkarte eta Fundazioak
- iv) Lan sozietateak
- v) Laneratze enpresak
- vi) Enplegu zentro bereziak
- vii) Arrantzaleen kofradiak
- viii) Eraldaketarako nekazaritza sozietateak
- ix) Erakunde singularrak¹⁸

Zerrenda honetan, nagusiki merkatuko erakundeen presentzia da nabarmentzen dena, elkarte eta fundazioak aipatzen direnean ere, horiek jarduera ekonomikoa izatea jartzen

¹⁸ ONCE (*Organización Nacional de Ciegos Españoles*) erakundea da legeak, hirugarren xedapen gehigarrian espresuki gizarte-ekonomiakotzat jotzen duen entitate singularra.

baita baldintza gisa, onartuak izan daitezzen. Doktorego-tesi honen lan enpirikoa garatzean ikusiko dugun moduan, oso argi geratzen ez bada ere “jarduera ekonomikoa” izateaz zer ulertzen den, figura juridikoei dagokienean legeak beste saio integratzaile bat egiten duela esan liteke, gizarte-ekonomiako ohiko eragileez gain (kooperatiba zein lan sozietateak) bestelako enpresa-egiturak ere zehazten baitira gizarte-ekonomiakotzat (laneratze enpresak zein enplegu zentro bereziak, esaterako, 3. kapituluan “enpresa sozial” gisa definituko direnak).

Orain arte landu dugun eztabaida kontzeptualarekin lotura ezarriz, beraz, esan genezake lege honek gizarte-ekonomiaren hurbilketa normatibo eta instituzionalari dagokionez urrats garrantzitsuak eman dituela, edo zorrotzago esanda, maila akademikoan emaniko aurrerapausoak ontzat jo eta horiei lege maila eman diela. Honela, Espainiako kasu konkreturako, bere errealitateari hobeto doitzen zaion markoa ezartzen da, gizarte-ekonomiaren esparrua kooperatiba, mutualitate eta elkarten hirutasunetik harago, bestelako izaera juridiko berrietara zabalduz.

Kontzeptuak legean jasotzen duen hedapen honek, gizarte-ekonomiako forma juridikoez aparteko bestelako erakundeak sartzeko aukera ere zabalik uzten duen neurrian, ikuspegi instituzionala baino ikuspegi finalistagoa izatea eskatzen du. Esparru hau, beraz, eragile berriei zabalik uzteak, gizarte-ekonomiaren garapenerako aukera interesgarriak sortzen ditu, baina hein berean, esparru hau guztiz desnaturalizatzea ekar lezakeen barneratze berrien afera ere mahai gainean jartzen du. Estatu mailako zein autonomia-erkidegoetako gizarte-ekonomiako erakundeen Katalogoak osatzen joateko, ebatzi beharreko afera izango da beraz, zein irizpide berri ezartzen diren gizarte-ekonomiako forma juridikoak hartzen ez dituzten eragile berriak barneratzeko.

1.6 Laburbilduz

Lehen kapitulu honetan landu ditugun ideia nagusien artean, honakoak nabarmenduko genituzke:

1.- Gizarte-ekonomiaren errealitateak aspaldiko eta askotariko jatorriak izanagatik ere, guk kontzeptu honek indarra hartu duen bi aro historiko azpimarratu

ditugu. Lehen XIX. mendeko industrializazioaren hastapenetan emandako eztanda kooperatiboaren testuinguruan eman zen. Batik bat sozialista utopikoen bultzadaz ernalduriko esperientzia kooperatibo hasiberri horiek korrante ezberdinetako teorialarien arreta bereganatu zuten, ekonomialari politiko klasikoenetik hasita autore neoklasikoetaraino. Tartean “gizarte-ekonomialariak” deiturikoak agertu ziren. Horien eskutik proposatu zen lehen aldiz gizarte-ekonomiaren adiera, nagusiki kooperatibei loturiko esperientzia horiek sistema kapitalistaren alternatiba gisa hauteman zituztelarik. Korrante hau, apurka-apurka, gizarte-ekonomiaren izaera makroekonomikoa lantzetik beronen ikuspegi mikroekonomikoagoa izatera pasa zen, beren analisiak enpresa eredu ez kapitalista eta ez publikoetan zentratuz, eta enpresa-egitura demokratiko eta parte hartzaileen funtzionamendua aztertuz.

2.- Gizarte-ekonomiaren bigarren loratze aldia XX. mendeko 70eko hamarkadan eman zen. Gizarte-ekonomia garai honetan, sistema kapitalistaren alternatibatzat jotzetik urrun, sektore publiko eta sektore pribatu kapitalistaren arteko hirugarren sektore gisa teorizatzen hasi zen. Esperientziak zabaldu ahala garapen teorikoak ere biderkatzen joan ziren, esperientzia horiei loturiko nozioen ugaltze garrantzitsua eman zelarik. Bi dira, hala ere, garapen teoriko horietatik hirugarren sektorearen analisisan eskola edo tradizio nagusitzat jo izan direnak gerora: bata, herrialde anglosaxoietan errotua eta mozkinenez besteko erakundearen analisisan zentratua, eta bigarrena, tradizio frankofonokoa eta gizarte-ekonomiaren adiera modernoa gorpuzten joan dena.

3.- Lehen ikuspegiak, *Non Profit Organizations* ikuspegiak alegia, tradizio anglosaxoiko karitatezko erakundearen iturritik edaten du, hirugarren sektorea mozkinenez besteko erakundeekin parekatzen du, eta hortaz, sektore hori besteengandik bereizteko darabilen irizpide nagusia erakunde pribatuon mozkin asmorik gabeko izaeran ezartzen du. Batik bat ekonomialari neoklasikoen eskutik, erakunde horiek bai merkatu-akatsak eta bai estatu-akatsak gainditzeko agertzen dituzten abantailen inguruan teorizatu da eta eragile horien funtzionamendu ezberdindu eta eraginkorragoaren azken bermea beren mozkinenez besteko izaeran finkatzen da, nagusiki. Oro har, beraz, ezaugarri horretan oinarritzen dira zenbait kontsumitzailek erakunde horiek lehenestearen eta baita zenbait ekintzailek gisa horretako erakundeak martxan jartzearen justifikazio teorikoak.

4.- Ikuspegi europarragoa du, ordea, hirugarren sektorea aztergai duen bigarren korranteak, hots tradizio frankofonoko gizarte-ekonomiaren eskolak. Aurreko mendeko gizarte-ekonomialarien lekukoa hartuz, ikuspegi honek ere enpresa publiko eta

kapitalistengandik bereizten diren erakundeen analisiari eutsi dio, ezberdintasun hori erakundeon izaera demokratikoan finkatuz, nagusiki. Honela, batik bat kooperatibetan zentratutako ikerketa ildoak izatetik, apurka-apurka bere analisi esparrua zabaltzen joan da, gizarte-ekonomia bi azpisektoreko unibertso gisa ulertzera iritsi arte: bata merkatukoa, eta bertan dihardute kooperatiba, lan sozietate eta antzerako erakunde demokratikoek, eta bestea ez-merkatukoa, honen bidez mozkinen besteko gizarte-ekintzako erakundeak ere gizarte-ekonomiakotzat jotzen hasi direlarik.

5.- Gizarte-ekonomiako ez-merkatuko azpisektore honen aitortza, beraz, hirugarren sektoreko mozkinen besteko tradizioari eginiko keinu gisa ere uler liteke, korrante honetako egile gehienek aitortzen baitute azken urteetan bi eskola horien arteko gerturatze eta elkarrizketa maila sakonagoa ematen ari dela. Honela, bi tradizioen analisi alderatutik ondorioztatu dugunez, gehiago da elkar batzen dituen elkar bereizten dituen baina. Mozkinen banaezintasun printzipioari dagokionez, horixe baita tradizio anglosaxoiaren teorizazioaren erdigunea, ikusi da kooperatibek beren mozkinak banatzeko politiketan legez barneraturiko betebeharrak asko hurbiltzen dituztela lehen horien praktiketara, edo bederen *not-for-profit* formulazioan bildu litezkeela bi munduok. Tradizio frankofonoaren bereizle den demokrazia enpresarialaren irizpideari dagokionez, berriz, gizarte-ekonomiaren korranteak apur bat leundu egin du eskakizun hori bere baitan nolabaiteko salbuespenak onartu dituen unetik aurrera, hots, gizarte-ekintzako erakundeak onartuz geroztik.

6.- Maila akademikoan sumatu dugun gerturatze horrek izan du, halaber, bere isla maila politikoan ere, horren lekuko baita Espainian berriki onarturiko Gizarte Ekonomiaren legea. Lege honek gizarte-ekonomiaren definizioari heltzean bai maila normatiboan, hots printzipio gidarien ezarpenean, eta baita maila instituzionalean ere, hau da, unibertso honi loturiko izaera juridikoen definizioan ere, formulazio integratzaileen alde egiten du, bi korranteen ezaugarri bereizgarriak izan direnak barne hartuz. Legez onarturiko gizarte-ekonomiaren nozio hedatu horren egonkortzeari dagokionez, ikusi egin beharko da aurrerantzean zein puntutaraino bateragarriak diren bere baitan barnebilduriko esperientzia ezberdinak.

**2 KAPITULUA: GIZARTE EKONOMIA ETA ONGIZATE-ESTATUAREN
ARTEKO ERLAZIOARI BURUZKO TEORIEN BERRIKUSPENA**

2.1 Sarrera: gaiaren kokapena eta abiapuntua

1.go kapituluaren ikusi denez gizarte-ekonomiak azken bi mendetan izaniko garapen ezberdinak zerikusi zuzena da honek sektore publikoarekin izaniko harremanarekin (Evers eta Laville, 2004). Ikusi den moduan, kooperatiben, mutuen zein elkarten bilakabide historikoan lehen planoan azaltzen den aldagaia da horiek estatuarekin (eta kooperatiben kasuan baita merkatuarekin ere) izaniko hartu-emanaren afera. Dela harreman lehiakor, dominatzaile, baztertzaile edo elkarlanekoen bitartez, bi sektoreok elkarri oso lotuak agertzen zaizkigu, hainbeste ezen Lewis-ek (2004) dioenari lotuz, ezinezkoa baita bataren garapena ulertzea bestearen garapena aztertu gabe. Smith eta Gronbjerg-en (2006) premisei eutsiz gizarte-ekonomia politika ekonomikoan sakonki txertatua, bereizi ezinezko moduan txertatua dagoela da kapitulu honetan frogatuko den hipotesia.

Gizarte-ekonomia eta estatuaren arteko harremana esparru ezberdinen bitartez gauzatu izan da: baliabide finantzarien eta bestelako baliabideen elkartrukean, esparru araugilean, mobilizazio politikoaren alorrean, etab. Era berean, bi sektoreok ez dute modu isolatuan jokatzeko, guztiz baldintzatuak agertzen baitira ekonomia eta merkatu egituren aldaketan aurrean, bai eta etxegune edo tokiko komunitateek era informalean gauzaturiko jardueren aurrean ere. Nolanahi ere, gizarte-ekonomia eta estatuaren arteko erlazioaren analisiak eskuarki bi ikuspuntutatik jorratu izan dira: ondasun eta zerbitzuen horniduran partekatzen duten eginkizunaren analisia batetik, eta bi sektoreon artean finkatzen den harreman eta elkar eragite politikoaren azterketa, bestalde (Smith eta Gronbjerg, 2006).

Gizarte-ekonomiaren gainean 70eko hamarkadatik aurrera azalduko interes akademiko geroz eta zabalagoak zerikusi zuzena du, autore ezberdinen hitzetan, urtealdi horietan sektore publikoan gertaturiko aldaketekin. Pestoff eta Brandsen-en (2010) irudiko, hiru tradizio teoriko nagusi dira aipaturiko gaiari sistematikoki erreparatu diotenak: i) hirugarren sektoreko ikerketa-eskolak; ii) kudeaketa publikoaren (*public management*) ikerketa-eskolak eta; iii) ongizate-estatuaren ikerketa konparatiboko eskolak.

Lehen ikerketa-lerroaz luze zabal jardun dugu lehen kapituluan. Bigarren ildo nagusia kudeaketa publikoaren esparrutik heldu da, batik bat hirugarren sektorearen “zerbitzu hornitzaile” funtzioan zentratua. *Management* publiko berriaren eskolek arreta berezia jarri dute zerbitzu publikoen azpikontratazioa hirugarren sektoreko eragileen bitartez egiteak dituen ondorioen gainean (Brandsen, 2004; Osborne, 2008). Elkarrekiko harreman horien analisiak, alabaina, nahiko maila lokalean burutu dira Pestoff eta Brandsen-en (2010) irudiko, zeinak bereziki zailtzen baitu analisi alderatuak egitea nazioarteko ongizate-sistema ezberdinen artean.

Hirugarren eskola nagusia da hortaz, hau da, ongizate-estatuaren teorikoek osatzen dutena, 2. kapitulu honetan arakatu nahi izan dugun harrobi nagusia. Eskola honen baitan, jarraian azalduko dugun legez, Esping-Andersen-ek (1990) proposaturiko *ongizate-erregimenen* teoriak nagusitasunezko tokia bete izan du azken urteetan. Erregimenen marko analitikoak lanabes garrantzitsuak eskaini izan ditu nazioarteko erkaketak egiteko, nahiz eta gizarte-ekonomia guztiz albo batera laga izan den ongizate-erregimen horien analisisetan. Gizarte-ekonomiarekiko eginiko ezikusi horrek autore askoren aldetik kritikak sortu izan ditu gerora, baita Esping-Andersen-en ereduaren birformulazio ugari ere (Sarasa, 1995; Salamon eta Anheier, 1998). Finean, eskola honek lanabes garrantzitsuak eskaintzen ditu kudeaketa publikoaren eskolek ez bezala, bi sektoreen arteko makro-testuingurua hautemateko.

Kapituluan sartu aurretik azken argipen kontzeptual bat egitea beharrezkoa zaigu. Gure helburua ongizate-estatua eta gizarte-ekonomiaren arteko analisia egitea izanik, jarraian garatzen dugun kapituluan bi kontzeptu horiek “sektore publikoa” eta “hirugarren sektorea” adierengatik ordezkatzeko ditugu. Lehenak arazo gutxiago sortzen badigu ere, bigarrenaren kasuan ikusi dugu gizarte-ekonomia eta hirugarren sektorea ez direla guztiz pareka litezkeen kontzeptuak, lehena bigarren horren baitako azpi-eskola gisa aztertu baita lehen kapituluan. Era berean, ohiko hizkuntzan hirugarren sektorea mozkinenez besteko erakundeekin parekatzen duen adiera denez gehien erabiltzen dena, nahasmena sor liteke hirugarren sektore horrekin zeri buruz dihardugun jakiterako orduan.

Argi utzi nahi dugu hasiera batetik, beraz, “hirugarren sektore” horren bitartez gizarte-ekonomia kokatzen den esparru sektorialari erreferentzia egin nahi diogula, “lehen sektorean” ongizate-estatuak kokatuko litzatekeen bezala, eta “bigarren sektorean” merkatuko enpresa kapitalistak. Errealitatearen banaketa sektorial hau egiteak zalantza ugari sortzen duen arren¹⁹, eta hirugarren sektorea beste bi sektoreen ukazioz definiturik “munstro (kontzeptual) lauso eta definiezin” (Kendall eta Knapp, 1995) bilakatzeko arriskua areagotzen dela jakinik ere, nazioarteko erkaketak egiteko hautu berbera egin duten autoreei jarraituz, guk ere hirugarren sektorea adiera baliatuko dugu bigarren kapitulu honetan, gizarte-ekonomia kokatzen den espazio sektorialari erreferentzia egiteko.

2.2 Sektore arteko banaketaren ikuspegi historikoa

2.2.1 Sektoreak zenbatzen: hurbilketa soziologikoa

ongizatearen inguruko teorizazio akademikoak oso lerratuak agertu izan dira tradizionalki ongizate-estatuaren analisisian. Modu honetan, estatua bere gizarte-politikako lanabesen bitartez gizarte-ongizatearen baldintzatzaile nagusi gisa hauteman izan da. Parekidetasun honek, epealdi historiko batean bere azalpena izan badezake ere, gizarte-ongizatearen ikuspegi oso murrizkorra ekarri du, analitikoki zein enpirikoki muga garrantzitsuak dituen.

Maila analitikoan gizarte-ongizatea ongizate-estatuarekin parekatzea, esan bezala, murrizketa gogorregia ezartzea litzateke. Marko teoriko zabalago batek, gizarte-politikak gizarte-egiturekin duen alde biko harremanean erreparatzera garamatza, gizarte-egituraz norbanako zein giza taldeek beren praktikak antolatzeke modu (instituzioak) eta horien arteko erlazioak (prozesu sozialak) ulertuko ditugularik (Adelantado et al, 2000). Testuinguru horretan gizarte-egiturak norbanako zein giza taldeak ezberdintasun-ardatz batzuen arabera kokatzen ditu baita horien identitatea eta gizarte-ekintzaren nolakoa baldintzatu ere. Gizarte-egituren nozioari eutsiz, hortaz,

¹⁹ Autore ezberdinek argudiatzen dute erakundeak sektore ezberdinetan kokatzeak “ikerkuntza munduko konbentzioei” erantzuten diela gehiago aurkikuntza enpiriko egiaztagarri baina (Anheier eta Seibel, 1990).

estatuaz gain beste esparru instituzional eta eragile batzuk kontuan hartzeak berebiziko garrantzia hartzen du, gizarte-desberdintasunen koordenatu guztiak jasotze aldera.

Bestelako gizarte-esparru edo eragile horien inguruan, oinarriko dikotomia bat eta dikotomia horren ebazpen ezberdinak ditugu finean. Funtsezko dikotomia, neurri handi batean eskola neoklasikoaren eraginez planteatua, estatua eta gizarte zibilaren artekoa litzateke. Honela, zenbaiten iritzian, gizarte zibila estatuaren kontrolpetik at kokatzen diren gizarte-instituzioen esparrua litzateke, non barnebiltzen diren merkatua, borondatezko elkarteak eta bestelako esparru publikoak ere (Pérez eta López, 2003). Rodriguez Cabrero-ren irudiko (2004) gizarte-egituren analisia binomio horretan laburbiltzea oso ikuspegi murrizkorra da, historikoki izan diren pentsamendu korrante nagusiek egin duten herrenetik sortua²⁰, eta gizarte industrializatuetakoa gizarte-instituzio eta eragile ezberdinak zehaztasunez identifikatzeko ezgauza.

Aldebiko ikuspegi hori gainditze aldera proposamen berriak azaldu dira: Habermas-ek (1988) “bizitzaren bi mundu” -esparru pribatua eta publikoa- eta beste bi azpi-sistema -ekonomikoa eta administratiboa- bereizten ditu, eta horien arteko elkarreaginean merkatua agertzen da hirugarren esparru instituzional gisa. García Roca-k (1993) bat egiten du gerora sailkapen hirukoitz horren abiapuntuarekin, eta gehitzen du gizarte zibila anbiguotasun moral eta ideologiko nabarmena duen adiera dela, zenbaitzuk merkatuarekin identifikatzen duten bitartean (neoliberalak), bestetzuk (neokontserbadoreek) senidetasun-esparru edo komunitatearekin parekatzen baitute.

Sailkapenik zehatz eta globalenak Polanyi-k (1944) bere garaian ezarritako “portaera ekonomikoen printzipioen” eskeman hartzen dute oinarri. Autore honek lau portaera ezberdin bereizi zituen, hala nola: elkarrekikotasuna, birbanaketa, etxeko-administrazioa

²⁰ Alde batetik Lock-en oinarritutako murrizketa naturalista aipatzen du, gerora liberal eta kontserbadoreek garatu dutena, zeinaren arabera gizarte zibilaren “ordena naturalaren” ideia defendatzen den, beti ere “estatuaren beharraz” babestu beharreko esparru natural eta harmoniko gisa. Beste aldetik, Hegel-ek gorpuzturiko murrizketa ekonomizista legoke, gerora Marx-ek besarkatuko duena, zeinaren arabera estatua baita gizarte zibilari berezkoak zaizkion gatazkak ebazteko eraikuntza historiko unibertsal behinena, gizarte zibilean aurkitzen diren ekoizpen eta elkartruke erlazioak ebazteko instituzio nagusia. Bi pentsamendu korrante horiek maila berbereko murrizketan erori arren, prozesu historiko ezberdinetan hartzen dute abiapuntua: lehenak industrializazio eta modernizazioaren hastapenetan sostengatzen ditu bere ekarpenak, non estatua gizarte zibilaren eta konkretuki merkatuaren hedapenaren baitan garatu baitzen. Bigarrena aldiz, industrializazioaren fase aurreratuago batean sortu zen, non estatuak berebiziko papera jokatu baitzuen modernizazio kapitalistaren garapenean eta honek sorrarazitako gizarte-gatazken ebazpenean (Rodriguez Cabrero, 2004:47-48).

eta elkartrukea. Gerora, portaera printzipio horietako bakoitzari esparru instituzional nagusi bat egokituz sortu dira sailkapen gehienak. Esate baterako, Rodriguez Cabrero-k (2004) Dekker eta Van den Broek-en (1998) analisiekin bat eginez lau esparru sozio-instituzional bereiztea defendatzen du: komunitatea, merkatua, estatua eta gizarte zibila, beren arteko mugak lausoak izanagatik ere lau jardute-logika nagusitan mugitzen direnak, hau da, lehen-mailako elkartasuna, lehiakortasuna, hierarkia eta borondatezko harremanak, hurrenez hurren.

Ildo beretik, Adelantado, Noguera eta Rambla-k (2000) lau esparruok merkantila, estatuala, etxegune-familiarra eta harremanezkoa gisa izendatzen dituzte (azken honetan sartuaz elkartegintzaren esparrua eta bestelako atxikipen komunitarioak), eta esparru bakoitzari jardute-logika propioa ezarri. Baina ohar garrantzitsu batzuk eranstean dituzte jarraian, eskemaren baliozkotasuna ukatu gabe berau erlatibizatzen garamatzatenak: lehenik eta behin esparru horien bereizketa soilik kontzeptuala dela diote, mundu errealean lau esparru horiek gainjarrita azaltzen baitira kasu askotan. Bigarrenik lau esparru horien arteko erlazioak ez dira inondik ere iraunkorrak, eite ezberdinak hartu izan dituzte historian zehar. Hirugarrenik, esparru horiek ez lirateke “toki” fisikoekin parekatu behar, askotan egiten den arren, gizarte-ekintzaren “dimentsio” gisa ulertu behar lirateke. Azkenik, pertsonak eta giza taldeak dira lau esparruok zeharka gurutzatzen dituztenak, esparru horietan dauden ezberdintasun-ardatzen bitartez.

2.2.2 Analisi bisektorialetatik trisektorialetarako jauzia

Arestian aipatu dugun oinarritzko lau sektoreko banaketari lotuta, jarraian XX. mendean mendebaldeko gizarteetan jazotako bilakabide historikoak markatu duen eztabaidaren parametro nagusiak planteatuko dira. XX. mendea ongizate-estatuaren eraketa, deseraketa eta berreraketaren prozesu historiko gisa ulertuta (Leibfried eta Mau, 2008), ekonomia politikoaren esparruko analisiak bi sektore nagusiren analisiaren gainean zedarritu izan dira: estatua eta merkatua, alegia. 70eko hamarkadatik aurrera, ordea, ongizate-estatuak sorturiko oreka bipolarren hausturarekin batera, hirugarren sektorearen gaineko analisiak ugaltu ziren.

Laugarren sektorea, zientzia ekonomikoak betidanik alboraturiko sektorea izanik, ez da kapitulu honetan jasotako teorietan islatua agertzen. Sektore honen “ikusezintasunaz”, eta beronek ongizate-estatuaren eraikuntzan jokaturiko berebiziko garrantziaz, 4. kapituluan jardungo dugu sakonago.

2.2.2.1 Ongizate-estatua: bi sektoreko sistemaren ezarpena

Maila analitikoan emandako eztabaida horiek, ariketa intelektual huts izatetik garrantzia berritua eskuratu dute mendebaldeko gizarteetan azken hamarkadetan izaniko garapenaren testuinguruan, bereziki ongizate-estatuaren jaiotza, ezarpena eta mende amaierako berregituraketa prozesuen testuinguruan, hain zuzen ere.

Mendebaldeko gizarte modernoak funtzionalki bereziak diren hiru sektore instituzionaletan egituratuak diren sistema gisa hautematea, ordura arte emaniko gizarte-ordenaren aldaketaren eskutik etorri da. Zenbait autorek sistema bisektorialetik, trisektorialera emaniko jauzi gisara izendatu izan dute prozesu hau (Pérez eta López, 2003). Funtsean, XX. mendeko garapen sozioekonomikoan eragile nagusi izan diren bi esparruen, hots, merkatua eta estatuaren arteko harreman dialektikoaren emaitza gisa interpretatzen da mende amaierako hirugarren sektorearen berpizte hau.

XX. mendean zehar, gizarte-optikaren ikuspegitik gertaturiko bi disfuntzioen ondorioz azaldu izan da mende amaierako eszenatoki berria: lehenik merkatuak eta ondoren estatuak, gizarte-beharrizan konkretuei erantzuteko agertu izan duten eraginkortasun faltaren ondorioz, hain zuzen ere. Honela, Rodriguez Cabrero-k (2003) zehazten duen moduan, iragan mendearen hastapenentarako jada merkatuak ezintasun nabarmenak agertu zituen gizarte-beharrizanak asetzeko esleipen mekanismo gisa. Orduko haustura, XX. mendeko lehen hiru hamarkadetan gertaturiko krisi ekonomiko eta sozial sakonetan agertu zena, ez zen gainditu ordura arte garrantzia eztabaidaezina zuten hirugarren sektore edo gizarte-ekonomiako eragileen ekinaz. Merkatu-akats larri horiei aurre egiteko, historian lehen aldiz, gizarte-egitura birbanatzaile erraldoi berri bat agertu zen nagusi: ongizate-estatua. Merkatuaren eraldaketa hark gizarte-birbanaketaren esparruan aparatu instituzional indartsu baten premia ekarri zuen, gizarte-babesaren zein legitimazio politikoaren iturburu bilakatuko zena.

Modu honetan artikulatzen joan da XX. mendeko gerraosteko aroa mendebaldeko gizarteetan ezaugarritzen duen sistema, sistema bisektoriala. “30 urte loriatsu” (1945-1975) horietan sistema bisektoriala da indarrean jarri dena beraz, sektore publikoa eta pribatua izanik garapen sozio-ekonomikoaren bi zutabe nagusiak, eta bazterreko lekuan lagaz hirugarren sektorearen garrantzia²¹.

Gizarte-erregulazio keynesiarrean bi dira eragile instituzional nagusiak, hots, merkatua eta estatua, eta ordura arteko politika makroekonomikoengandik bereiziko duen elementu nagusia estatuari emandako zentraltasuna da (Rodriguez Cabrero, 2003). Estatuaren papera indartua atera zen bai esku hartze ekonomikoari dagokionean, enpresari gisa eta eskari efektiboaren sostengatzaile gisa jokatzuz, baina baita alderdi sozio-politikoan ere, elkarrizketa sozialaren funtsezko bitartekari instituzional izateaz gain, belaunaldi eta klase sozialen arteko elkartasunaren zutarri zen gizarte-babeserako sistemen ezarpenean protagonista izan baitzen. Antolaketa instituzional honek ekoizpen modu fordistan eta masa-kontsumoan hartu zuen oinarri, enplegu egonkortasuna eta enplegu beteko egoerak gailendu zirelarik urte luzeetan zehar.

Ekonomia kapitalisten ikuspegi bisektorial honek, merkatua jotzen zuen aberastasunaren sorkuntza mekanismo nagusi gisa, nahiz eta aldaketa ziklikoen menekoa zen neurrian mekanismo inperfektua izan eta sistema porrotera eraman zezakeen estatuaren esku hartzerik izan ezean. Estatua altxatu zen horrela merkatua gobernatu beharko zuen bigarren instituzio gisa, batik bat bi funtzio ekonomiko nagusirekin: ziklo ekonomiko aldakorrak kudeatzeko politika ekonomiko keynesiarrak aplikatzeko eta ongizate-estatuaren zutarrak jartzeko (Pérez eta López, 2003). Ongizate-estatuaren funtsezko ideian, estatuak merkatutik baliabideak eskuratzen zituen irizpide sozialen bitartez birbanatzeko, bai merkatuak asetzen ez zituen gizarte-beharrizanak estaltzeko, edo baita (lan) merkatuan parte hartu ezin zuten gizabanakoei gizarte-babesa eskaintzeko ere.

²¹ Erdialdeko zein Ekialdeko Europa, bien bitartean, sistema sobietarraren itzalpean eta estatuak planifikaturiko ekonomian txertaturik egotean, jarduera ekonomikoa oso-osorik estatuaren eginkizuna zen, sistema unisektorial batean egituratuz, eta jarduteko inolako esparrurik laga gabe merkatuko zein hirugarren sektoreko eragileentzat. Kooperatibak izan ziren zenbait kasutan burua altxa zuten bakarrak, beti ere bere-bereak dituzten zenbait printzipio (atxikipen librea, autonomia, edota antolakuntza demokratikoa, esaterako) guztiz albo batera utziaz (Chaves eta Monzón, 2008).

Ekoizpena, hortaz, nagusiki merkatu ekonomiaren mekanismoen bitartez bideratu bazen ere, estatuak bere mekanismo instituzional eta ekonomikoak indartu zituen gizarte-beharrizanak ase, eskari efektiboari eutsi eta ekonomia konplexu baterako gizarte-inbertsioaren kostuak sozializatzeko (Rodriguez Cabrero, 2003). Hazkunde jarraitu eta enplegu beteko testuinguru honetan, enpresa pribatuak eta ongizate-estatuak ia hiru hamarkadetan zehar ziurtasun ekonomiko eta politikoko giroa bermatu zuten.

Modu honetan, mendebaldeko ekonomia mistoko sisteman (baita zentralki planifikaturikoan ere) hirugarren sektorea bazterreko errealitate izatera igaro zen, XIX. mendean zehar langile mugimenduaren eskutik bizi izandako loraldian eten nabarmena emanen. Epealdi honetan, gizarte-ekonomia hazkunde ekonomikoa eta gizarte-ongizatearen harmonizazio-eragile gisa erabat alboratua geratu zen, estatuak oso-osorik beregain hartu baitzuen eginkizun hori (Chaves eta Monzón, 2008).

2.2.2.2 Bi sektoreko sistemaren haustura: hirugarren sektorearen aitortza

Nolanahi ere, mendebaldeko ekonomia mistoko sistema horiek XX. mendeko azken laurdenean jo zuten hondoa, jazotako krisi ekonomikoaren eraginez. Krisi honek bete betean jo zuen gerra-osteko kapitalismoaren bi zutabe nagusietan: merkatuan eta estatuan. Kasu honetan aldiz, merkatu-akatsengan baino estatuko akatsengan bilatu zen arazoan iturburua, politika keynesiarren eraginkortasuna eta ongizate-estatuaren bideragarritasuna auzitan jarriaz (Rodriguez Cabrero, 2003).

Alde batetik hortaz, estatua merkatua gobernatzeko gaitasunik gabeko instituziotzat jotzen zen, errezeta antizikliko keynesiarrak ez baitziren eraginkorrak izan krisialdi hori gainditzeko. Estatuaren atzerakada hori, izaera liberaleko doktrinen berragerpenarekin batera etorri zen, zeinak protagonismo handiagoa ematen baition merkatuari baliabideen esleipen-prozesuetan. Doktrina neoliberalaren ezarpenak, era berean, berarekin ekarri zuen ongizate-estatuaren ahultzea, gastu publikoan austeritatea predikatzearekin batera gastu soziala izan baitzen, gainerako gastu publikoen artean bereziki murriztu zena. Estatua hortaz, agerian geratu den moduan, ez zen aurrerantzean gai izango krisialdiak sorrarazitako gizarte-beharrizak guztiei erantzuteko.

Ongizate-estatuaren krisiarekin batera etorri da, ondorioz, hirugarren sektorearen mende amaierako berpizkundera. Birloratze hori, zeina gizarte-ekonomiaren eta borondatezko elkarte bitartez manifestatu baitzen, historikoki hirugarren sektoreak eragin izan duen bi parametroen inguruan lerratu zen: merkatuak batik bat enpleguan sorturiko ziurgabetasunei eta estatuak gizarte-beharrizan berrien aurrean erantzuteko azalduko ezintasunei erantzunez, hain zuzen ere (Rodríguez Cabrero, 2003:25). Enplegu galerek eta gizarte-bazterketan erortzeko arriskuak, auto-enplegurako dinamika berriak sortu zituen, baita giza talderik kaltetuenak lan mundura gizarteratzeko esperientziak ere. Merkatu-ekonomiako sistemetan²², ez sektore pribatuak, bere mekanismo auto-erregulatzailen bitartez, ezta sektore publikoak ere politika makroekonomiko tradizionalen bitartez, modu egokian asetzea lortzen ez duten gizarte-beharrizan berrien agerpenaren eskutik garatu da hirugarren sektorearen errealitate berria (Chaves eta Monzón, 2008).

Hirugarren sektorearen berraurkikuntza hori, beraz, arestian aipatu bezala, hertsiki loturik dago gainerako gizarte-instituzioen garapenari. Rodríguez Cabrero-k (2003:26) nabarmentzen duenez, hirugarren sektorearen hedapena bestelako gizarte-aldaketa prozesu sakonagoen baitan ulertu behar da, konkretuki hiru prozesu elkar gurutzaturen testuinguruan: ongizate-estatuaren berregituraketa, harreman sozial eta ekonomikoen ber-merkantilizazioa eta gizarte zibilaren berreratze prozesuak. Gizarte-aldaketen ataka berri horien ebazpena, aldi berean, modu geroz eta argiagoan zedarritzen joan da esparru estatalaren uzurtzea eta esparru zibil zein merkantilaren hedapenaren bidetik.

Eraldaketa prozesu honen ondorioz, “gizarte-ongizatearen ekoizpenaren banaketa mistoko” sistema berria argia ikusten hasi zen: ongizate-estatuak bere erregulazio eta finantzazio eskumenak mantendu arren, zerbitzu publikoen hornidura eta kudeaketa hirugarren sektoreko zein merkatuko eragileen esku delegatzen hasi zen. Merkatuak, modu horretan, bere espazio material eta pisu ideologikoa berrindartu zuen eta

²² Ez horrela bloke sobietarraren orbitakoak ziren Europa Erdialdeko zein Ekialdeko herrialdeetan. Sistema sobietarraren erorketarekin batera, ordura arte funtzionamenduan ziharduten kooperatiba gehienen porrota etorri zen. Are gehiago, kooperatibek oro har iritzi publikoaren mesprexua irabazia zuten, eta horrek galarazi zuen neurri handi batean (baita instituzionalki onarpenik ez izateak ere) kooperatiben geroztiko garapena.

hirugarren sektorea ere modu bertsuan nabarmendu zen, sektore publikoarekiko autonomia edo dependentzia gradu ezberdinekin eta sektore pribatuarekin lehia edo lankidetzaren mota ezberdinetako harremanak finkatuz.

Gai horiek guztiak dira hurrengo atalean, 3. kapituluaren, sakonago aztertuko direnak. Horiek landu aurretik, ordea, kapitulu honetan arreta eskainiko diogu sektore publikoa eta hirugarren sektorearen arteko harremanari buruz garatu izan diren teoria nagusiei.

2.3 Hirugarren sektorea eta estatuaren arteko erlazioaren ildo teorikoak

Smith eta Gronbjerg-ek (2006) proposaturiko sailkapena da teoria ezberdinak aurkezteko baliatuko dugun eskema.

Bi autore horien iritzian, hiru dira sektore publikoa eta hirugarren sektorearen arteko harremana aztertu duten eredu teoriko nagusiak: lehenik, “eskaria eta eskaintzaren ereduak” leudeke. Ikuspegi honen bitartez, bi eragileek ondasun eta zerbitzu konkretu batzuen horniduran azal ditzaketan ahulezien aurrean, zein modutan elkar osatu edo ordezkatzan duten aztertzen da, Steinberg-ek (2006) izendaturiko “hiru akatsen teoria” osatuz. Honela, bi sektoreen arteko harremanak “hautu arrazionalen” bitartez adierazten den eskari konkretu baten eskaintza-egitura koordinatu gisa hautematen dira, nahiz eta bi azpi-eredu ezberdin topatu litezke bertan: bi sektoreak merkatuko lehiak gidatzen dituen eragile independenteak dira batzuentzat (merkatu “nitxoaren” teoria), edo bi sektoreak kostu eta onura partekatuetako testuinguruan kontratu bidezko transakzio ezberdinen bitartez erlazionatzen dira (teoria transakzionala).

Aipaturiko lehen eredu horreza gain Smith eta Grojenberg-ek (2006) beste bi definitzen dituzte: gizarte zibil/gizarte-mugimenduen eredu batetik, eta erregimenaren eredu edo eredu neo-instituzionala, bestetik. Lehenak bi sektoreen arteko harremanaren ikuspegi multi-dimentsionalagoa jorratzen du, eskari eta eskaintzaren ereduaren aldean harremanaren ikuspegi politikoagoa landuz. Bigarrenak, aldiz, gizarte-egitura ezberdinak (tartean hirugarren sektorea) denboran zehar zein modutan instituzionalizatzen joan diren aztertzen du, instituzionalizazio modu hori sortarazi duten baldintza sozial eta historikoei erreparatuz.

Azken ikuspegi hori da modurik sakonenean landuko dena jarraian aurkezten dugun laburbilduman, metodologia aldetik zein ikerketa-helburuei dagokienean, gure analisi-ildoari hobekien doitzen zaion eredu dela uste baitugu

2.3.1 Eskari eta eskaintzaren ikuspegiak

Teoria ekonomikoen artean, alabaina, eskari eta eskaintzaren eredukoak dira gehien nabarmendu direnak eta horiek dira jarraian landuko direnak. Esan bezala, “eskari eta eskaintzaren” ereduaren baitan bi ikuspegi ezberdinduko ditugu: sektoreen arteko independentzia defendatzen dutenak lehenik, “gatazkaren paradigma” (Salamon eta Anheier, 1998) edo “merkatu nitxoen eredu” (Smith eta Gronbjerg, 2006) gisa izendatuak, eta sektoreen arteko elkarmenpekotasuna nabarmentzen dutenak edo “teoria transakzionalak” gero.

2.3.1.1 Merkatu nitxoen eredu: *market/state failures*

Esan bezala, ikergai honen lehen fasean nabarmenduko diren teoria ekonomiko nagusiak koka litezke paradigma honen barruan. 1.go kapituluko Mozkinez Besteko Erakundeen ikuspegiaren baitan aztertu diren autore esanguratsuenen ekarpenak barnebilduko lirateke bertan. Atal horretan aipatzen genuen moduan, MBEak aztertu dituzten ekonomialarien azterketa esparru nagusietako bat MBEak gainerako bi eragileekin (pribatua eta publikoa) alderatzean zetzan. Modu esplizituan beraz, lehen autore horiek izan dira gizarte-ongizatearen esleipenean hirugarren sektore bereizi baten aitortza egingo dutenak. Lehen esandakoak errepikatzeko asmorik gabe, jaso ditzagun jarraian ekarpen horien giltzarri nagusiak.

Hasteko, teoria horiek guztiak hirugarren sektore honen existentzia, sorrera edo beharraren inguruko argudio bideak lantzen dituzte, guztietan agertzen delarik estatuarekiko “*zero sum*” erlazioa (Sajardo, 1995). “Jabego eskubideen” doktrina ekonomikoak predikatzen duenaren aurka, (zeinaren aburuz mozkinen besteko erakundeak ez dira merkatuko eragileak, beren mozkinen banaezintasun irizpideak eragile ez-eraginkorrak bilakatzen baititu), lerro honetako ekonomistek mozkinen

besteko erakundeen egokitasuna defendatzen dute ondasun eta zerbitzu konkretu batzuk esleitzeko, merkatu “nitxo” konkretu batzuk asetzeko, bestela esanda (Smith eta Gronbjerg, 2006).

Horien artean Weisbord (1977), Hansmann (1980), James (1986) eta Rose-Akermanen (1996) lanak nabarmendu litezke. Egile horientzat guztientzat, mozkinenez besteko erakundeak merkatua zein estatuak ez-eraginkorki esleituriko ondasunak hornitzeko eragile egokienak dira, eta bakoitzak ez-eraginkortasun horren kausak azaltzeko aldagai ezberdinak jorratuko dituzte (merkatu eta gobernu-akatsak Weisbord-ek, kontratu-akatsak Hansmann-ek, etab.)

Salamon eta Anheier-en (1998) irudiko hiru dira teoria horien artean bete-betean hirugarren sektorea eta estatuaren arteko harreman moduei erreparatzen dietenak: Weisbord-en “heterogeneotasun teoria”, James-en “eskaintzaren aldeko teoria” eta Hansmann-en “konfiantzaren teoria”.

Burton Weisbord-ek garaturiko ikuspegi teoriko honek nagusitasunezko tokia bete izan du orain gutxi arte hirugarren sektoreko teorien artean. “Heterogeneotasun teoria”, “ondasun publikoen teoria” edo “gobernu-akatsen teoria” bezala ezagun egin den ekarpen hori hezuramitzeko, Weisbord-ek (1975, 1977, 1988) teoria ekonomiko klasikoaren lanabes analitikoak baliatzen ditu. Autore honen irudiko, hirugarren sektorearen existentzia bi “gauzatzeko akatsen” ondorioz justifikatzen ahal da: lehenik eta behin, teoria ekonomiko klasikoak merkatuari “ondasun publikoak” (guztientzako eskuragarri diren ondasunak nahiz eta guztiek zertan ordaindu ez) eskaintzeko zenbait muga atxikitzen dizkio, esleipen-mekanismo ez-eraginkorra dela iritzita (*free rider*-aren afera, besteak beste²³). Merkatu-akats horien karira justifikatu izan da halaber, gobernuen esku hartze publikoa ondasun horien horniduran. Nolanahi ere, Weisbord-ek gaineratzen du gobernuaren hornidura hori soilik dela arrakastatsua demokrazia batean, baldin eta bozka emaileen gehiengo batek sostengatzen badu ondasun konkretu horren

²³ *Free rider*-aren afera, labur azalduta, merkatu librean sorturiko esleipen ez-eraginkor bat litzateke. Ondasun publikoen kasuan, norbanakoak ondasun horretaz gozatzeko ordaintzen duenari, ordaintzen ez duenak ere (*free rider*-ak) hartaz gozatzeko abagunea sortzen du. Baldintza horietan, merkatuak ez du ondasun hori behar bezainbesteko kantitatean hornitzen, ez eta bataz besteko ongizatea maximotzen ere. Hargatik esku hartzen du gobernuak ondasun horien ekoizpenean, bere zerga-biltze gaitasunarekin ondasunaren kostua hiritar guztien artean partekatzea lor baitezake.

ekoizpena. Premisa honek, bistan denez, preferentzia partekatu zabalen existentzia eskatzen du, eta hortik eratortzen denez, gehiengoak osatzeko zailtasunak ondasun publikoen eskari asegabeak mantentzea dakar. Biztanlerian heterogeneotasun handia antzematen den gizarteetan (kulturalki, etnikoki edo maila erlijiosoan anitzak diren gizarteetan) joera handiago dago beraz “gobernu akats” horiek azaleratzeko.

Hirugarren sektorea da hortaz, “tarteko bozka emaile” esparru horretatik kanpo geratzen diren giza taldeek beren beharrianak asetzeko hobesten duten sektorea. Baldintza konkretu horietan agertzen da, ondorioz, ez merkatuak ez eta estatuak ase ezin dituen ondasun publiko horien hornidura betetzen duten hirugarren sektoreko eragileen aldeko eskaria. Hirugarren sektoreko eragileek gobernuek ez dituzten zenbait abantailarekin jokatzen dute: ez dute gehiengoan nahiei bizkar emanez jardutearen kostu politikorik jasaten, ez dute gobernuek bezala kontu emate publiko zorrotzik jasaten, interes partikularrei erantzuteko malgutasun handiagoa azaltzen dute, etab. Finean, demokraziaren arazo zentral bat konpontzen lagun dezakete: beharrianen aniztasuna nola ase (James, 1987).

Eskariaren aldeko teoria horien artean kokatuko litzateke halaber Hansmann-en (1980) “Kontratu-akatsen Teoria”. Hirugarren sektorearen existentziaren jatorria ez du ondasun publikoen aferan kokatzen, ondasun pribatuen bestelako merkatu-inperfekzio batean baizik: kontsumitzaileak pairatzen duen informazio asimetrikotik eratorritako akatsetan, hain zuzen ere. Honen irudiko, kontsumitzaileak hainbat salerosketa burutzeko duen abiapuntua informazio ez-osoko egoera izanik, ez du behar bezala epaitzerik izaten aukera ezberdinen arteko kalitatearen artean²⁴. Funtsean asimetria ekoizle eta kontsumitzaileen artean ematen da, lehenak duen informazio osoagoa baliatuz bigarrenari zenbait transakzio-kostu bizkarreratu diezazkioke eta. Kasu horietan, erosleak prezioaz aparteko bestelako oinarriak baliatzen ditu ondasun/zerbitzuaren kalitatean konfiantza izateko. Bestelako oinarri horien artean kokatuko litzateke hirugarren sektoreko erakundeen “mozkin asmorik gabeko” izaera. Salerosketa horretatik lorturiko balizko mozkinak maximotzea ez denez erakunde horien xedea,

²⁴ Egoera horiek eman litezke ondasun/zerbitzuaren ordaintzailea eta kontsumitzailea/erabiltzailea pertsona bera ez diren kasuan (zaintza zerbitzu gehienek kasua), edota zerbitzuaren beraren ezaugarri konplexu eta hautemanezinak direla medio. Bereziki aplikagarria suerta liteke ikuspegi hau ongizate-zerbitzuak aztertzeke, zerbitzu horien kalitate eta eraginkortasuna neurtzeak zailtasunak baititu.

mozkinen banaezintasun irizpide horrek fidagarriago bilaka ditzake erosleen begitan hirugarren sektoreko erakundeak bestelako merkatu eragileak baino.

Salamon eta Anheier-ek (1998) ildo teoriko honen baitan kokatzen dute orobat Ben-Ner eta Gui-k (1993) eginiko ekarpena ere. Egile horiek Hansmann-en kontratu-akatsen abiapuntua partekatuz, hirugarren sektoreko erakundeen egokitasuna ez dute mozkinaz besteko izaeran soilik kausituko, baizik eta erakunde horien gobernu-organoei duten *stakeholder* osakeran. Egile horien irudiko, erakunde horiek ekoizturiko eta banaturiko zerbitzuen gaineko kontrola eragile interesatu anitzen kontrolpean egoteak, informazio asimetria leundu dezake, kasuren batean ekoizlea eta onuraduna pertsona bera izan baitaitezke (elkar laguntzako edo mutualitate elkarteetan, kasu). Interesen partekatze horrek, zerbitzuen kalitate galeran jausteko arriskua ekiditen du.

Eskariaren aldeko analisisiez gain, azterketa ekonomikoak eskaintzaren aldetik ere egin izan dira, hots, pertsona batek eite horretako erakunde batean langile edo *stakeholder* gisa parte hartzeko izan ditzakeen motibazioen analisisik (Ben-Ner eta Gui, 2003). Eskariaren esparrua aintzat harturik ere, bigarren corpus teoriko honek argudiatzen du lehen teoria hori osatze aldera, merkatu/gobernu-akatsen teoria baldintza beharrezkoa izanik ere, ez dela baldintza nahikoa hirugarren sektoreko erakundeen garapena azaltzeko. Eskaintzaren esparruko teoriko nagusiak, James-ek (1987) argudiatzen duenez, bigarren baldintza bat ere beharrezkoa da: eskaintza-egitura egokia izatea, alegia, dohaintza indibidualak finantzaketan eta gizarte-ekintzaileen (*social entrepreneurs*) presentzia horniduran, hain zuzen ere. Gizarte-ekintzaile horiek ase gabeko eskari horiek hauteman eta horiek eskaintzeko pizgarriak izan behar dituzte. Gizabanako horien agerpena, halaber, ez da ausaz ematen den fenomeno, baldintza historiko eta sozial konkretuen eraginpean ematen baita neurri handiagoan.

Baina zeintzuk lirateke hortaz gizabanako ekintzaileen pizgarri horiek? Merkatu eragileentzat mozkinak maximotzea den bezala, eta gobernu erakundeentzat bozka emaileak bereganatzea, zein lirateke ekintzailea hirugarren sektoreko erakunde bat abiaraztera laramaketan arrazoiak? Bistan da, arrazoiak ez-monetazkoen esparruan bilatu beharko direla. Arrazoi ezberdinen artean James-ek (1987) gehien nabarmentzen

duena erlijio arteko lehiarena da²⁵, beste zenbait autorek bestelako arrazoiak nabarmentzen dituzten bitartean (1.go kapituluan aipatu dugun moduan). Edozein delarik ere ekintzailetasun horren atzen gordetzen den arrazoa, mozkinaz besteko erakundeak erakunde egokienak bilakatzen dira batetik, zenbait gutxiengoren eskariak beregain hartzeko duten aukeragatik (governuek ez bezala)²⁶, eta eskaintza hori kudeatzeko jatorri ezberdinetako baliabideak (lan boluntarioa, dohaintza pribatuak, dirulaguntza publikoak, etab) mobilizatzeko gaitasun berezia dutelako, bestetik.

2.3.1.2 Eredua transakzionala: *voluntary failures*

Arestian aipatu bezala, hirugarren sektorea eta sektore publikoaren arteko erlazioa landu duten lehen teorizazio lanek bi eragile horien aurkakotasunean oinarritzeak arazo empiriko eta analitiko sakonak sortzen ditu. Maila empirikoan balizko hori hankaz gora jartzen duten kasu andana aztertu direlako, batetik, eta maila analitiko batean hiru fenomeno garrantzitsuren aurrean ezikusiarrena egin izan delako: i) sektore arteko lankidetzazko harremanen existentziarik ez da mahai gaineratzen; ii) hirugarren sektorearen existentzian gizarte-politiken izaerak duen eragiteko gaitasuna ez da nabarmentzen, eta; iii) hirugarren sektoreak erantzukizun publikoko gizarte-ongizateko esparruetan jokatu izan duen papera ez da aztertzen (Sajardo, 1996).

Hori hala izanik, estatua eta hirugarren sektorearen elkarlanerako beharra, nagusiki Salamon-ek (1987) proposaturiko “borondatezko erakundeen akatsen” teoriari (*voluntary failures*) justifikatu du. Haren irudiko, merkatuak eta governuek huts egiten duten bezalaxe, hirugarren sektoreak baditu berezkoak dituen baldintzapen batzuek, hornidura osorik beregain utziz ez-eraginkortasun egoerak ekar ditzaketanak. Lau dira mugapen nagusiak: i) “ez-nahikotasuna”, zeinak hirugarren sektoreak beren jarduera garatu eta hedatzeko beharrezko duen finantzazioa eskuratzeko gaitasun eskasa

²⁵ James-ek aztertzen duenez, erlijioek tradizionalki agertu izan dute ondasun eta zerbitzu publikoak eskaintzeko interesa, ez hainbeste etekinak maximotzearen xedeari segiz baizik eta ahalik eta erabiltzaile/jarraitzaile gehien erakartzeko helburuarekin.

²⁶ Bigarren tipologia bat osatuko lukete, besterentzako zerbitzuak eskaini beharrean, zerbitzua eskaintzen duen giza taldea zerbitzuaren onuradun nagusia bilakatzen duten mozkinaz besteko erakundeak. Autolaguntzako edo *self-help* tipologiako talde horiek, gizartearen baitatik sorturiko beharrianak kanalizatu eta auto-hornitzen dituzten erakundeak lirateke, hortaz. García Delgado-ren irudiko (2009), eskaintzaren aldeko teoriak agertzen duten hirugarren sektorearen izaera bikoitz hori, alegia zerbitzu-prestatzaile eta sustatzaile ideologiko izatea aldi berean, da azken aldiko ikerketa lerroen arreta gune nagusietako bat, zeinak aintzat hartzen duen hirugarren sektorearen izaera ekonomikoa, baina baita sozio-politikoa ere.

azaleratzen duen, dohaintzak eskuarki nahikoak ez direnean, finantzazio publikoarekiko dependentzia agertzen baita; ii) “amateurismoa”, lan boluntarioaren bitartez antolaturiko ekoizpenak profesionaltasun ahuleko zerbitzuak sor baititzake; iii) “partikularismoa”, interes-talde konkretu batzuei bideratutako eskaintza izateak, bestelako gizarte-talde batzuen kaltetan eragin baitezake, eta; iv) “paternalismoa”, hirugarren sektoreko eragileek herren egin baitezakete ase beharreko gizarte-beharrizanak identifikatzerako orduan, soilik kontuan har baititzakete beren ikusmiran dauden beharrizanak (edo dohaintzaile pribatuen interesekoak diren horiek), eta ez komunitate osoaren egiazko beharrak.

Hirugarren sektoreak berezkoak dituen akats horien aitortzak sektorea eta estatuaren arteko elkarmenpeketasun harremana uzten du agerian, bi sektoreak elkarlan harremanen bidez jardun behar luketela ondorioztatuz. Modu honetan, Weisbord-ek (1975) planteatzen duen sekuentzia lineala hausten da, zeinaren arabera hirugarren sektorea soilik sartzen baita jokoan gainerako biek huts egiten duten kasuan. Horren orde harreman zirkularra hobesten da Salamon-en lanetan, lehen katebegian hirugarren sektorea dagoelarik kasurik gehienetan (kasu askotan bera baita gizarte-arazoen aurrean azkartasun handinez erantzuteko gaitasuna duen eragilea), honek huts egiten duen kasuan gainerako bi sektoreek bola jokatzen duten aztertzen da gero (Steinberg, 2006).

Hala ere, Smith eta Gronbjerg-en (2006) iritzian, Salamon-en irakurketa hori ez da nahikoa: elkarlanak zergatik eman behar lukeen azaltzen du, ez ordea, elkarlana zein baldintzatan gertatzen den egiazki. Honela, Salamon-en lan aurrekarien atzetik ikerketa mordoa egin da hirugarren sektorea eta sektore publikoaren arteko transakzioen nolakoa aztertzeke, eta ondorio argi gisa bakarria azpimarra liteke: ez dagoela transakzio horiek azaltzeke eredu bakarrik, gobernuaren laguntzak mota askotakoak izateaz gain (zuzeneko diru laguntzak, azpi-kontratazioa, etab.), elkartruke horien bitartez bakoitzak lortzen dituen onura eta kostuak ere, oso disparekoak izan bailitezke kasu bakoitzean²⁷.

²⁷ Ebidentzia enpirikoetatik eratorritzen denez, hirugarren sektoreak lankidetzaren onuren artean leudeke: finantza baliabide egonkorrak eskuratzea, profesionaltasunean hobetzea, eragile politiko bezala legitimitasuna eta “ahotsa” irabaztea, etab. Kostuen artean, ordea, finantzamenpeketasunaren arazoak nabarmenduko lirateke: elkartearen jabeen interesetara beharrean gobernuaren interesetara makurtzea, gobernuaren diru laguntzak eta kontratuak kudeatzeak berekin dakartzan eskakizun administratibo eta burokratikoak betetzearen kostuak, kudeaketa ahalmena arautegi zorrotzengatik baldintzatua izatea, etab. Gobernuaren ikuspuntutik, berebat, hirugarren sektorearekin lankidetzan aritzeak honako onurak ekar lezizkioke: gobernuak berak bestela ekoiztuko ez lituzkeen

Eskari eta eskaintzaren ikuspegiko teoria ezberdinen analisitik honakoa ondoriozta liteke: hirugarren sektorearen abantaila merkatuak zein estatuak eginiko akatsak berdintzeko gaitasunean legoke, guztia merkatu nitxo ezberdinduen lehia testuinguru batean. Lehia ekonomiko eta politiko honen baitan, hirugarren sektorea eta estatuaren arteko harremana, lehia eta elkarlanaren arteko nahasketa litzateke, ondasun eta zerbitzu konkretuak asetzeko bi eragiletako bakoitzak dituen aldeko eta kontrako ezaugarrien arabera. Hiru sektore horien arteko lehia egoerak, nolabaiteko “lanaren banaketa” bat dakar, zeina esan beharrik ez dagoen, oso loturik dagoen gizarte bakoitzaren preferentzia ideologiko eta politikoekin. Banaketa horretan zein sektoreri dagokion zer ekoiztea, zein punturaino diren estatuaren betebeharrak ala eragile pribatuen bitartez hornitzekoak, eta pribatuen artean mozkin-asmodunak ala mozkinenez bestekoak diren egokienak, erabakimen politikoaren esparruko aferak lirateke.

2.3.2 Gizarte zibila eta gizarte-mugimenduen ikuspegiak

Eskari eta eskaintzaren ikuspegitik jorraturiko teoriak, funtsean, analisi-eskema neoklasikoen koordinatuetan mugitzen dira, hau da, gizabanako arrazionalak zenbait baldintzapenen aurrean (denbora, aurrekontu zein esparru legaletik eratorriak) harturiko erabaki estrategikoen analisisian zentratzen dira denak ere. Teoria horiek guztiek, halaber, bi sektoreen arteko elkartrukeen eraginkortasunari erreparatzen diete, ez ordea elkartruke horren bestelako eraginei. Jarraian laburki azalduko ditugun bi ikerketa lerroek, gobernu eta hirugarren sektorearen arteko harremanak tokiko komunitateetan sortarazten dituzten harreman sozialen analisiari lotuak agertuko dira.

zerbitzu espezifikoak eskaini ahal izatea, kostu apalagoetan eskuarki, eta beharrezanean modu azkarragoan erantzunez, tokiko arazoek gaineko ezagutza eta gertutasun handiagoa baitute hirugarren sektoreko eragileek. Neurri berean, gobernuaren erantzukizuna disolbatu egiten da beharrezan publiko ezberdinen aurrean, baita horien aurrean kontuak emateko betebeharra ere. Kostuen aldean, ordea, “agentzia arazoak” aipatzen dira (*agency problems*): zerbitzua azpikontratatzeko sortzen dituen esleipen eta kontrol arazoak alegia, zerbitzu bakoitzaren hornikuntzarako zein eragile den egokiena ebatzi beharra, emandako laguntzen edo sinatutako kontratuen bidez finkaturiko helburuak behar bezala bete direla egiaztatu beharra, zerbitzuaren erabiltzaileen ahetasuna ebaluatu beharra, bai eta eskariaren aldetik emandako aldatetara egokitu beharra ere (Smith eta Gronbjerg, 2006).

2.3.2.1 Gizarte zibila eta kapital sozialaren ikuspegia

“Gizarte zibila” nozioaren bitartez, estatua eta merkatuaren esparruetatik at kokatzen diren elkarte, talde eta jarduera informalen sarea eman nahi da aditzera. Gizarte zibilaren teorikoen ikuspuntutik, honela, hirugarren sektorea ondasun publikoen hornitzaile funtzioetik aztertu baino, demokrazia eta askatasunari ekarpenak egiten dizkieten gizarte-eragileen gisa aztertzen da. Hargatik, horien gaineko analisiak ez dira eraginkortasun ekonomikoaren parametroetan neurtzen, bestelako lorpen sozialen arabera baizik: askatasuna, lankidetzaz, ardura indibidual eta komunitarioa, hiritarren parte hartzea, eta batik bat, kapital soziala.

Ikuspegi honen baitan bilduko lirateke funtsean hirugarren sektorea hiritarren parte hartzea kanalizatzeko eragiletzat aintzatesten duten egileak, Tocqueville soziologo amerikarraren lan aurrekariak, Hayek ekonomialari austriarraren ekarpenak, edo Nisbet bezalako zientzialari politikoen lanak. Ildo teoriko horiek guztiek gobernu eta gizarte zibilaren arteko sakoneko aurkakotasuna nabarmentzen dute, halako moduz ezen gobernuaren esku hartzea tokiko mailako komunitate eta elkartearen aurkakotzat jotzen baita, edo sinpleki askatasunaren aurkako ekintzatzat (Hayek, 1960). Tradizio toquevilletarraren bi adierazpide garaikide nagusiak, Smith eta Gronbjerg-en (2006) iritzian, komunitarismoaren eta kapital sozialaren ekarpenak lirateke.

Komunitaristei dagokienez, estatua eta hirugarren sektorearen arteko harremana ez da esentzialki oposiziokotzat jotzen. Aitzitik, gobernuak eta hirugarren sektoreak elkar hartuz jokatzen duten komunitate baten parte diren kideztzat jotzen dituzte hiritarrak. Hiritarren adierazpiderik gertukoena hirugarren sektorea izan arren, gobernuak berebiziko papera joka dezake hiritarrek hirugarren sektorearekiko agertzen duten engaiamendu bizkortzeari dagokionean, eta noski, hirugarren sektoreak modu zuzenean eragin dezake lehentasun publikoen definizioa ezartzen, edo gizarte-programa eta zerbitzuen eskariak kanalizatzen (Barber, 1984).

Kapital sozialaren teorizazioari dagokionean, berriz, Putnam-en (1993) lanetan borondatezko elkarteei berebiziko garrantzia aitortzen zaie kapital soziala indartzeari dagokionean, komunitate edo erregio baten lankidetzazko eta konfiantzazko sareak

eratzen funtzio esanguratsua betetzen baitute. Gobernuarekiko harremanaren ikuspegian aldiz, harremana sare bidezko lankidetzaren harreman gisa planteatzen da, gizarte-kapitala areagotzeak ekintza kolektiboak bizkortzea baitakar, eta honek gobernuaren aldetiko erantzun eskuzabalagoak espero izatea baitakar. Honela, hirugarren sektorean parte hartuz kapital soziala indartzeak onurak sortzen dizkio gobernuari zerbitzu publikoen eraginkortasuna eta dibertsifikazioa ahalbidetzen baititu, eta norbanakoen parte hartze aktiboagoa baitakar bizitza publikoan. Aldebiko harreman positibo horien onura teorikoetatik harago, alabaina, Putnam nahiko eszeptiko agertzen da horien aplikazio errealaz, hirugarren sektorearen baitako zein gobernuaren aldetiko azkenaldiko zenbait jokabidek, kapital soziala indartzetik urrun, honen kaltetan eragiten dutela uste baitu.

2.3.2.2 Gizarte-mugimenduen ikuspegia

Gizarte-mugimenduen ikuspegiak hirugarren sektoreko eragileen eginkizun politikoari erreparatzen dio, nagusiki *advocacy organizations* delakoei erreparatuz. Sektore publikoarekiko harremanaren analisisian hiru ezaugarri nabarmentzen dira: i) bi eragileen arteko harremana deliberatuki gatazkatsua da, hirugarren sektoreko eragile horien izateko arrazoia bera, gobernuaren politikak aldaraztea baita; ii) hirugarren sektoreak gobernu-politikak aldatzeko agertu duen arrakastak zerikusi zuzena izan du hirugarren sektorearen azken 30 urteetako hazkundean, eta; iii) gizarte-mugimenduen jarduerak modu esanguratsuan eragiten du gainerako hirugarren sektoreko eragileen politizazioan ere.

Orain arteko ekarpen teorikoen aldean, gizarte-mugimenduen proposamenak aldaketa esanguratsuak dakartza gutxienik bi axiomen gainean: alde batetik, eredu dualistak zalantzan jartzen ditu, hirugarren sektorea eta sektore publikoaren arteko bereizketa auzitan jarriz. Gizarte-mugimenduek politika publikoetan duten eragiteko ahalmena dela medio, zenbait afera esparru pribatukoak izatetik “arazo publiko” bilakatu arazten ditu, eta publikoki babesturiko hirugarren sektorearen bitartez kudeatzera igarotzen dira kasu askotan. Beste alde batetik, bi sektore horien arteko harremanaren analisia estatunazioen mugen barruan aztertzeko joera ere auzitan jartzen du, globalizazioaren eraginez zenbait afera “ondasun publiko globalizat” hartzen diren heinean, gizarte-mugimenduen nazioartratzeak ere harremanaren ikuspegi globalagoa eskatzen baitu.

Azken analisi esparru batek gizarte-mugimenduen profesionalizazioak sorturiko harreman berriak aztertzen ditu. Gizarte-mugimendu asko, giza talde informal izatetik hirugarren sektoreko erakunde gisa jardutera igaro dira, formalki erregistraturiko elkarte gisa, eta beraz, diru laguntza publikoen onuradun bilakatuz. Finantrazio publikoaren eskuragarritasunak, ordea, arestian aipaturiko alde biko ondorioak sortzen ditu: elkarteen iraunkortasuna bermatzen duen neurri berean, elkarteen dependentzia ekonomiko eta politikoa sor baitezake, eta honek kontraesan nabarmenak sortzen ditu *advocacy* erakunde horien misioan.

Ikuspegi honetako bi ekarpenen puntu komunak laburbiltze aldera, honakoa aipa liteke: gizarte zibila/kapital sozialaren ikuspegiak hirugarren sektoreak gizabanakoen artean elkartasuna sortzeko duten gaitasuna aztertzen du, komunitate loturak era ezberdinetan indartzeko. Gizarte-mugimenduen ikuspegiak aldiz, hirugarren sektoreak gizabanako eta gobernuaren arteko erlazioaren bitartekari gisa eragiteko duen gaitasunari erreparatzen dio. Ondorio nagusi gisa, ikuspegi horiek gobernu eta hirugarren sektorearen arteko erlazioa nola sortu eta aldatzen den aztertzen dute, gizarte bakoitzaren aldaketa politikoen argitan. Lanabes gutxi eskaintzen dute ordea, nazioarteko erkaketak egiteko edo harreman honen denboran zeharreko bilakabidea eskema makroanalitikoaren bidez hautemateko. Hutsune horiek betetzera etorri dira ongizate-erregimenen analisia eta ikuspegi neo-instituzionalista, jarraian modu sakonagoan aztertuko direnak.

2.3.3 Erregimenen ikuspegia eta teoria neo-instituzionalista

Erregimenen ikuspegia, hurrengo atalean luze zabal aztertuko dena, Esping-Andersen-ek (1990) proposaturiko “ongizate-erregimenen teorian” eta Salamon eta Anheier-ek (1998), lehen hori osatze aldera plazaratutako “Gizarte-jatorrien teorian” oinarritzen da nagusiki. Arestian aipaturiko lehen teoria ekonomikoekin alderatuz, bi dira ikuspegi honek eginiko ekarpen nagusiak: alde batetik, nazioarteko erkaketa lanean oinarritu izana, erregimen-tipologia ezberdinak finkatze aldera (ez soilik AEBtako errealitatean zentratuz). Beste aldetik, ikuspegi honek lehenago aipaturiko gizarte-mugimenduen ikuspegiarekin bat egiten du neurri handi batean, uste baitu herrialde bakoitzean

hirugarren sektoreak jokaturiko paperak zerikusi zuzena duela herrialde bakoitzaren bilakabide historikoarekin, eta konkretuki bilakabide horretan klase sozial ezberdinek izaniko indar korrelazioarekin. Honela, ikuspegi honen arabera, ongizate-estatu eta gizarte-politika ezberdinen existentzia, herrialde bakoitzean klase sozial bakoitzak izan duen eragiteko ahalmenaren argitan hauteman behar litzateke, gizarte-politika bakoitzak klase sozial konkretuen eskariei erantzun eta ondorioz, klase sozial hori bera indartzen amaitzen baitu. Funtsean, klase botereak estatuaren baliabide esleipena baldintzatzen du, zeinak aldi berean berrindartzen baitu klase botere (Smith eta Gronbjerg, 2006)²⁸.

Bestalde, ikuspegi neo-instituzionala estatuaren zentraltasuna nabarmentzen duen ikuspegia da, honen aburuz hirugarren sektorearen tamaina eta iraunkortasunaren aldagai azaltzaile nagusia estatuaren funtzio publikoa baita. Ez beraz soilik gizarte-mugimenduen eskariz sortua, ez soilik gizarte baten baitako konfiantzazko harreman-sare eta kapital sozialaren osasunaren arabera ulergarria, ezta norbanakoen eskari arrazionalak baldintzatua ere. Hirugarren sektorearen bizkortasun eta osasuna, hortaz, nagusiki emaitza politiko, legal eta instituzional gisa ulertu behar litzateke, zeina guztiz oinarritua baitago azken buruan, estatuaren egitekoan. Estatuak hirugarren sektorearengan agertzen duen guztizko eragiteko ahalmen honen kausaz, teoriko neo-instituzionalek auzitan jartzen dute orain arte ontzat jo dugun sektore arteko banaketa honen egiazkotasuna. Analisi-eskema honek bat egiten du ongizate-erregimenen ostean indar hartu duen ongizate-teoria berri batekin, *welfare mix* deituarekin hain zuzen ere. Teorizazio lerro berri horiek ongizate-estatuaren berregituraketa aroan kokatu behar liratekeenez, horien analisi xehatua 3. kapituluaren burutzea erabaki dugu.

²⁸ Ohar bedi irakurlea, orain arte jorraturiko teoria ekonomikoek, nagusiki “merkatu nitxoek” ikuspegiaren azaldu direnek, arreta guinea klase sozialetan jarri beharrean, nagusiki elizaren botereari erreparatu izan diotela. Honela, Weisbord-en (1977) “heterogeneotasun teorian” argi azaltzen da hipotesi nagusia horixe bera dela: zenbat eta handiagoa herrialde bateko aniztasun etniko eta erlijiosua, orduan eta handiagoa mozkinen besteko erakundearen presentzia, eta eliza katolikoaren boterea estatu-akatsen aurrean. James-en (1987) eskaintzaren aldeko teorian ere ekintzailetasun erlijiosuak berebiziko pisua du mozkinen besteko erakundearen existentzia azaltzerako orduan. Aurrerago ikusiko dugun gisan, Salamon eta Anheier-ek (1998) banan bana aztertzen dituzte hipotesi horiek, bakoitzaren indargune azaltzaileak ebaluatuz, eta esanda bezala, horien gainetik bestelako aldagai bat ezarriz: klase sozialen arteko botere korrelazioa, hain zuzen ere.

2.4 Hirugarren sektorea ongizate-erregimenei buruzko teorien baitan: sektore ahaztua

2.4.1 Ongizate-estatuari buruzko teoria ekonomikoen parametro nagusiak

Jarraian garatuko dugun atalaren xedea ez da inondik inora ongizate-estatuaren inguruko literaturaren errepasso osatua burutzea. Izan ere, hamaika dira ongizate-estatuaren analisira gerturatu diren diziplina zientifikoak (ekonomia, soziologia, filosofia, etab.), eta kontaezinak ongizate-estatuaren jatorri historiko, bilakabide eta egungo erronkez diharduten ikerlanak. Gure arreta, hortaz, ongizate-estatuaren den “eraikuntza sozial ikaragarria” posible egin duten prozesu historiko ezberdinetan hirugarren sektoreak hartu izan duen garrantzia aztertzea izango da, bigarren une batean ongizate-estatuaren teoretan hirugarren sektoreari eskaini zaion arretaz jarduteko.

Ezer izatekotan, ongizate-estatuaren, estatua eta hiritarren arteko harremana sakonki eraldatu duen eraikuntza soziala da, dela hiritarrak norbanako gisa dela gizarte-talde ezberdinetan (klase, belaunaldi, sexu) antolatuta (Leibfried eta Mau, 2008). Ongizate-estatuaren, merkatuak sorturiko ezberdintasunak zuzendu eta gizarte-arriskuak babesten dituen estatu-programen hedapen gisa ulertua (Kaufmann, 2001), azken bi mendetan gora-behera ezberdinak bizi izan dituen eraikuntza soziala da. Lehenengoz Alemanian 1919ko Weimarko Konstituzioaren bitartez lehen gizarte-aseguruak ezarri zirenetik, estatu-nazio ezberdinetan erakundetze prozesu ezberdinak jarraitu izan ditu, Bigarren Mundu Gerra ostean berealdiko hedapena ezagutu zuelarik, harik eta 1970eko erdialdeko petrolio-krisiak berriz kinka larrian jarriko duen arte. Orduz geroztik jazotako zenbait prozesu politiko, ekonomiko eta sozialek (globalizazioa, presio demografikoa, indibidualizazioa, desenplegu altua, gizarte-disparekotasun handiagoa eta uzkurdua fiskala), azkenaldian ikerlari gehienek arreta bereganatu duen galdera zabaldu dute: iraunkorra ote da ongizate-estatuaren epe luzean?

Ongizate-estatuaren etorkizunaz bezalaxe, berau posible egin duten indar historikoen analisisiaz ere, zenbat buru hainbat aburu topa genezake. Leibfried eta Mau-k (2008) gaiaren inguruko berrikuspen zabala eskaintzen dute *Welfare states: construction, deconstruction, reconstruction* bilduma lan erraldoian: Marshall-en (1992)

modernizazio teorietatik abiatuz, zeinaren arabera ongizate-estatu hiritarren eskubide zibil, politiko eta sozialak bermatu dituen mekanismo instituzional nagusia den, bi dira autoreon iritzian gerora gehien nabarmendu diren azalpenak: funtzionalistak eta neo-marxistak.

Lehenek ongizate-estatu industrializazio prozesuaren ondorio logikotzat jotzen dute, beronek ekarritako urbanizazio, populazio hazkunde eta garapen ekonomikoaren aurrean eman beharreko erantzun gisa. Estatuak, honela, industriak sorturiko “gizarte-beharrizan objektiboak” asetzeko xedea du, lan-indarra arduratsu eta osasuntsu mantentzeko. Neo-marxisten aburuz, ordea, aurreko ikuspegiak klase ekonomikoen arteko gatazken analisiari muzin egiten dio, ongizate-estatuaren eraikuntzaren alderdi politiko eta ideologikoak bazterreraz lagaz. Honela, ezinezkoa litzateke estatua klase-harremanen ikuspegitik kanpo ulertzea (Jessop, 2002). Estatuak kapital metaketarako baldintza egokiak bermatzen ditu “lan-eskaintza” esku hartze publikoaren bitartez mantenduz. Azken teoria honengandik gertu dagoen “botere-baliabideen hurbilketa” eskandinaviarrak, ongizate-estatu klase borrokaren emaitza gisa hautematen du, zenbat eta handiagoa izan langile klasearen indarra, orduan eta birbanatzaileagoa delarik estatua²⁹.

Ongizate-estatuaren funtzio birbanatzailea izan da teorikoen aldetik gehien aztertu izan den esparruetarik bat. Zenbaitentzat, ongizate-estatuaren xede nagusia pobrezia murriztea eta talde zaurgarriak babestea den bezalaxe, beste zenbaitek uste du gizarte-babeserako politikak hiritar orori bideratuak behar luketela. Edozein delarik ere gizarte-politiken xedea, teoria ekonomikoen arreta nagusia birbanaketa hori eraginkortasunez betetzen den aztertzean datza.

Barr-ek (2001) eginiko beste erreferentziatzko bilduma erraldoian, *Economic Theory and the Welfare State* lanean hain zuzen, gaiaren inguruko parametro nagusiak eskaintzen dira. Egileak berak aitortzen duenez, eraginkortasunaren inguruko ekarpen ekonomikoek ongizate-estatuaren gerraosteko kontsentsua apurtzeak sorturiko beharrei

²⁹ Gerora hainbat autorek langile klaseaz gain bestelako klase sozialek jokaturiko paperak nabarmenduko dituzte: Baldwin-ek (1990) klase ertainaren garrantzia azpimarratzen duen bitartean, Abram DeSwaan-ek (1988) eliteko langileen interesak nabarmentzen ditu eta Hacker eta Pierson-ek (2002) enplegatzaileen interesak ongizatearen kostuak ongizate-estatuarengan externalizatzen.

erantzuten die, non ongizate-estatu bera auzitan jarri izan baita eragile ez-eraginkortzat joz. Hiru dira, halaber, ongizate-estatuaren inguruan eraiki teoria ekonomiko nagusiak: i) merkatu-akatsen teoria; ii) informazio arazoaren teoria, eta; iii) hautu publikoa eta gobernu-akatsen teoria.

“Merkatu-akats” ezberdinen inguruko lanak³⁰ funtsean premisa berberetik abiatzen dira: badira zenbait ondasun merkatuak modu ez-eraginkorrean esleitzen dituenak, eta hau da estatuaren esku hartzearen azken justifikazioa, esku hartze hori merkatu-akats horietako bakoitzaren ezaugarrietara egokitu behar litzatekeelarik (dela erregulazio bidez, dela prezioak subentzionatuz, dela ekoizpen publiko bidez, dela errenta transferentzia bitartez, etab.). “Informazio arazoaren teoriak”, kontsumitzaile zein enpresek informazio inperfektuaren kausaz beregain hartu beharreko kostuei erreparatzen diete, eta zentzu horretan estatuaren esku hartzea justifikatzen da ez soilik merkatu desoreken “babes sare” gisa, baizik eta eraginkortasunezko arrazoi teknikoengatik, estatuak merkatu pribatua eraginkorragoa izan dadin lor baitezake.

Azken corpus teorikoa “hautu publiko eta gobernu-akatsen” lanek osatuko lukete. Autoreok, estatuari arestian aipaturiko bi funtzioez gain (merkatu-akatsen zuzentzaile eta errenta birbanatzaile), beste bi funtzio identifikatzen dituzte, gobernuak ez-eraginkorrak diren esleipenak egin ditzakeenak: hautesleriaren interesen erantzule eta langile publiko edo burokraten interes partikularren erantzule izatea. Interes partikular horien mesedetan harturiko erabakiak, onura publikoko interesen kaltetan izan litezke, estatuaren esku hartzearen justifikazio nagusia kolokan jarritz.

Ongizate-estatuaren inguruko teoria nagusien errepasso laburra egin ondoren, zer da gure aztergaiari dagokionean, hots hirugarren sektorearen aitortzari dagokionean, ondoriozta genezakeena? Konklusio argi bat gailentzen da besteen gainetik: hirugarren sektorea eragile ikusezina da ongizate-estatuaren teorikoentzat. Aurrerago frogatuko dugun gisan, hirugarren sektoreko teorikoak izan dira, eta ez ongizate-estatuaren teorikoak, teoria ekonomiko neoklasikoak emaniko lanabes horiek berak baliatuz, hirugarren sektorea analisisian sartzeko saioa burutu dutenak. Ongizate-estatuaren teorikoen aldetik

³⁰ Barr-ek (2001) gutxienik zazpi merkatu-akats mota bereizten ditu: i) lehia inperfektua; ii) kanpo-eraginak; iii) eskalako itzulkinak; iv) ondasun publikoak; v) merkatu ez-garbiak (nahigabeko langabezia, kasu); vi) errenta externalitateak, eta; vii) merituzko ondasunak.

jasotako ageriko gutxieste honen kausak izan litezke teknikoak (teoria horien esparruak gaintzen dituztelako) edo izan litezke ideologikoagoak.

Barr-ek (2001), esaterako, ongizate-estatuaren teorien zailtasunen artean hiru nabarmentzen ditu: i) estatua ez da ongizate-iturri bakarra; aitzitik, lan merkatua litzateke errenta-sarreraren bitartez “ongizate-okupazionalaren” instituzio nagusia, eta atzetik letozke iturri pribatuak (aurrezki indibidual edo borondatezko aseguru pribatuak), borondatezkoak (familia, nagusiki) eta estatua; ii) estatua ez da ongizate-hornitzaile bakarra, zerbitzuak publikoki finantzatu arren, estatuak erabaki baitezake modu pribatuan ekoiztea eta eskaria diruz laguntzea ekoizpen pribatuak kontsumitzeko; iii) ongizate-estatu tipologia ezberdinetan, estatuaren zentraltasuna ezberdina da. Autore honen irudiko, beraz, analisia estatuan soilik zentratzea arrazoi teknikoei zor zaio.

Beste zenbait autoreren hitzetan ordea, ezikusi horrek arrazoi teknikoei baino arrazoi ideologikoei erantzuten die. Salamon eta Anheier-en irudiko (1998), ongizate-estatuaren teoriak hirugarren sektorea kasurik onenean bazterreko kategoria gisa aztertu izan du. Are gehiago, teoria horiek guztiek hirugarren sektoreak historikoki zein egungo eztabaida politikoan izan lezakeen esangura ukatzen dute. Horrela, fenomeno hori gizarte-aferei erantzuteko mekanismo aurre-moderno gisa ikusten dute, zeinak bere funtzionaltasuna galtzen baitu merkatu sistemaren sendotzearekin eta estatuaren esku hartzearen hedapenarekin batera. Pentsaera ildo honen baitan, estatuaren hedapena garapen ekonomikoaren azpi-produktua baino ez da, eta harreman hori hala ematen ez den kasuetan soilik (esaterako garapen ekonomiko oparo eta ongizate-zerbitzu publiko eskaseko herrialdeetan) uler liteke mekanismo aurre-moderno horietara jotzea.

Esanak esan, Leibfried eta Mau-k (2008) aitortzen dutenez, ongizate-estatuaren teoriak “egundo arakatu gabeko esparru zabalenetakoa da” hirugarren sektorearena, ikuspegi hau estatua eta merkatuaren arteko dikotomian oinarritua izan delako nagusiki, eta albora laga izan dituelako bi horien artean betidanik egon izan diren bestelako erakundeak, hirugarren sektorekoak alegia.

2.4.2 Merkatu eta estatuaren arteko harremanaz: ongizate-erregimenen ekarpena

Ongizate-estatuaren teorizazioen baitan azken hamarkadatan toki esanguratsua bete izan dute nazioarteko analisi konparatiboek. Horien artean ongizate-erregimenen tipologia sailkapenak izan dira gehien orokortu direnak, Titmuss-en (1974) lehen proposamenaren ondotik, Esping-Andersen-en (1990) ongizate-kapitalismoaren hiru munduen proposamenak atea ireki zuelarik gerora zenbaitek “ongizate-ereduen negozio” gisa (Abrahamson, 1999) izendatu izan duen proposamen ezberdinen eztanda moduko bati.

2.4.2.1 Ongizate-kapitalismoaren hiru munduak

Esping-Andersen-en lanek mugari sendo bat ezarri dute. *The three worlds of welfare capitalism* (1990) obra seminalean autoreak, ongizate-estatuaren krisia deitu izan denaren inguruko literatura ugaritzen ari zen garaian, kontzeptu berritzaile bat proposatu zuen: ongizate-erregimenaren ideia, hain zuzen ere. Obra honetako ideia zentrala erregimenaren kontzeptuak gordetzen du: ongizate-estatuaren delako krisia (baldin eta gertatu bada) ez da soilik estatuari merkatu-presioek eragin diotenaren ikuspegitik aztertu behar. Aitzitik, krisi edo berrantolaketa honek gizarte-egitura denak ukitu eta elkarlotzen dituen neurrian, testuinguru zabalago batetik krisia estatuak lan-merkatua eta familia-antolakuntzarekin duen elkarrekintzaren baitan ulertu behar litzateke. Esping-Andersen-ek, modu horretan, ongizate-teorietan ekonomia politikoaren analisi-kategorietan egin izan den murrizketa gainditzen du, ongizate-teoriak oso zentratuak egon izan baitira estatua eta merkatua binomioaren arteko harremanaren azterketan. Planteamendu honen indargune nagusia, hortaz, ongizate-teorietan familia-ekonomiek egindako funtzioak jaso beharra barneratzea izango da³¹.

Halaber, ongizatearen esparruan merkatua eta estatuaz haragoko hirugarren esparru bat ezartzeaz gain, Esping-Andersen-en (1990) ekarpenean berebiziko garrantzi hartzen

³¹ Lehen obra honetan, alabaina, autoreak abiapuntuko eskema hirukoitz hori aitortzen badu ere, hirugarren “hanka” horren analisisan oso motz geratzen da, eta hortik etorriko zaizkio geroztik jasotako kritikak, bai eta horiek aintzat hartuz autoreak argitara emango duen bigarren obra ere, *Social Foundations of Postindustrial Economies* (1999), hain zuzen ere.

duena “desmerkantilizazio” kontzeptua da, estatua eta merkatuaren arteko erlazioari erreparatzen diona nagusiki. “Desmerkantilizazio” adieraren bitartez, ongizate-estatuak pertsonen gizarte-eskubideak bermatzeko merkatuko parte hartzeari lotu gabeko moneta-bidezko harremanak zein gradutan ezartzen dituen neurtu nahi da (Ibidem, 1990). Modu horretan, gizabanakoek ongizate-zerbitzuak merkatu mekanismoetatik kanpo jasotzeko duten aukera neurtzen da, horixe baita azken buruan ongizate-estatuaren izateko arrazoia eta benetako irismenaren neurria. Gaitasun horrek bi adierazpide ditu: lehena gizabanakoek errentak merkatuaz landa eskuratzeko aukerak dakarrena, eta bigarrena, gizabanakoen eskubide sozialetan oinarrituriko kontsumo prozesuetan zentratua (Adelantado eta Gomá, 2000). Herrialde bakoitzaren “desmerkantilizazio-tasa”, modu horretan, gizarte-politiken hedadura eta intentsitatearen konbinazioz lortzen da, estaldura mailaz gain errenta bermatzera bideraturiko laguntzen zenbatekoa aintzat hartuz.

Analisi irizpide hortaz baliatuz, nazioarte-mailan antzematen diren ongizate-erregimenen hiru tipologia nagusiak proposatzen ditu, oraindik orain modu hedatuan ontzat jotzen direnak: lehena liberala, bigarrena kontserbadorea eta hirugarrena sozialdemokrata.

Honela lehenak, eredu liberalak, hiru ezaugarri nagusi leuzkake: merkatuaren nagusitasuna, estatu minimoa eta arriskuen indibidualizazio. Herrialde anglosaxoiak bilduko lirake eredu honetan, nahiz eta barne ezberdintasun handiak sumatu (esaterako langile mugimendu indartsua izan dutenak –Britainia Handia eta Australia- eta izan ez dutenen artean –AEB-). Eredu honetan estali asmo diren gizarte-arriskuen (eta ondorioz onuradunen) kontzepzio mugatua azaltzen da: gizarte-bermeak soilik “gizarte-arrisku onartezinean” aurkitzen diren gizabanakoentzat eskaintzen dira eta “gizarte-arrisku onargarrian” diren gizabanakoek merkatu mekanismoen bitartez ase ditzakete beren beharrianak (pentsio edo aurreikuspen planak, bizitza-aseguruak, etab.).

Bigarren multzo batean legoke herrialde nordikoek osatzen duten eredu sozialdemokrata. Eredu liberalean ez bezala, sistema horiek estali asmo diren arriskuen eta onuradunen kontsiderazio globala dute, eta unbertsalismo eta igualitarismo horietan

datza horien elementu bereizgarria. Ez da hortaz arrisku onargarri eta onartezinen arteko bereizketarik emango, eta edozein hiritarrek, bere hiritartasunaren espresio gisa ulertua, behar duen momentuan edozein dela ere bere beharrian edo errenta maila, hornidura publikoa bermatua izateko eskubide aitortua du. Hornidura publiko honen hedadura dela medio, sistema honek agertzen du “desmerkantilizazio” mailarik altuena, ongizate-zerbitzuen hornidura pribatuari ateak itxiz eta laguntza publiko eskuzabalen sistema ezarriz³².

Azken taldea herrialde kontserbadoreek osatuko lukete, Europa kontinentaleko herrialdeek, hain zuzen ere³³. Horien funtsezko ezaugarria familiarismoa eta estatusaren segmentazioaren arteko nahasketan legoke. Familiarismoa batik bat Europa hegoaldeko herrialdetan doktrina katolikoak zabalduko subsidiarioritasun ideien kausaz uler liteke, eta funtsean ongizatearen lehen erantzukizuna familia-esparruari dagokiola ezartzen du. Estatusaren segmentazioa, aldiz, gizarte-segurantzaren sistema garatu duten herrialdeetan egikaritzen da, herrialde horien ondare historiko korporatistak administrazio publikoko langileek gainerakoekiko lehentasunezko tratua izatea ahalbidetzen baitu. Zenbait prestazio (pentsioak kasu) gizarte-segurantzaren bitartez eskaintzen diren arren, beste hainbat zerbitzutan (osasuna esaterako) ekimen pribatuak parte hartzen du, neurri handi batean mozkinen besteko borondatezko erakundeek ekimenez. Zentzu batean, eredu liberalarekin antzekotasunak azaltzen ditu arriskuen bazterreko estaldurari dagokionean, ezberdintasun argi batekin: eredu liberalean hornidura publikoa “merkatu-akatsen” kausaz justifikatzen den bitartean, eredu kontserbadorean “familia-akatsen” ondorio izaten da.

Adelantado eta Gomá-k (2000) Esping-Andersen-en analisiak ontzat jotzen, erregimen horietako bakoitzean aplikaturiko gizarte-politikek herrialde bakoitzaren gizarte-egituraren modu disparekoan eragiten dutela gehitzen dute. Honela, eredu liberalak errenta ertaineko eta baxuko biztanleen arteko gizarte-polarizazioa dakar, lehen horiek

³² Ongizate politika pasiboez gain, politika aktiboen esparruan ere, esaterako enplegu politiketan eta bereziki emakumeen enplegatze mailetan, inguruko herrialdeek baino datu hobek agertzen dituzte. Herrialde horiek, alabaina, ez dira kontraesanik gabe garatzen ari, batik bat tentsio fiskal hazkor eta aurrekontu arazoek eraginda, azken urteetan ereduaren berrikuspen sakonak gertatzen ari baitira.

³³ Kontserbadore izendapen honek, gutxiespenezko espresioa izatetik urrun, sistema horiek eratu dituen bultzada politikoaren eiteari egiten dio erreferentzia, nagusiki estatismo monarkikoak (Alemania, Austria eta Frantzia), korporatibismo tradizionalak edo gizarte-doktrina katolikoak aurki baititezke herrialde horien ideologia nagusien artean.

kalitatezko merkatu pribatuetarako sarbidea duten bitartean, azkenak gutxieneko zerbitzutara lotzen baititu. Bestalde, eredu kontserbadoreko gizarte-politikek, gizarte-segurantzaren bitartez, lan-kategoria, status eta genero ezberdintasunak instituzionalizatzen dituzte, trataera ezberdindua emanez gizon ala emakume edota langile publiko ala pribatuei. Azkenik eredu sozialdemokrata da, itxura guztien arabera, errenta-egitura eta hierarkia tradizionalak berdintzera gehien jotzen duen eredua.

Are, autore horien iritziz, “desmerkantilizazio” politika horiek bete-betean eragiten dute ongizate-estatu keynesiarraren funtsezko bi jardute-esparruak izan direnetan: gizarte-babeserako sistemak, batetik, eta enplegu-politikak bestetik. Gizarte-babesari dagokionez, eredu nordikoa eskubide sozialetan oinarrituriko zerbitzu eskaintza eta errenta-transferentzietan oinarritzen da, zergapetze zuzen eta progresibo batek jasanik, eredu birbanatzaile gisa nabarmenduz. Erregimen kontserbadoreak, aldiz, gizarte-babesa gizabanakoak lan-merkatuarekiko duen posiziora baldintzatzen du, lan-merkatua izanik eskubide sozialen iturburu eta ezberdintasunen arrazoi. Lan-kotizazioek jasaten duten zergapetze eredu bat izaki, eredu bermatzaile gisa izendatzen dute. Azkenik, eredu liberalean gizarte-babesaren onurak errenta-maila baten azpitik egotera baldintzatzen dira, zergapetze maila baxua eta zerbitzu publikoen ordainketa partekatua nahasiz, bazterreko eredu gisa finkatuz.

Gizarte-babes sistema horiek enplegu-politika berezituarekin konbinatzen dira. Oro har, esan liteke ongizate-estatuaren gerraosteko eraikuntza bera ere lan-merkatuaren antolamendu fordista baten oinarrian altxa zela, non estatuak bere ekinbidez zein langileriak bere ekintza sindikalaren ondorioz, langileen eskubideen estaltze mailan hobekuntza nabarmenak ezagutu ziren. Alabaina, marko orokor horrek bere ñabardurak azaltzen ditu erregimen bakoitzean. Ezaugarri orokorrei erreparatuz, herrialde nordikoen eredua hitzarmen kolektibo zentralizatu eta zabaleko eredua litzateke. Lan-merkatuaren gaineko erregulazio publikoa ahula da, estatua enplegu beteko egoerak mantentzera mugatzen baita, eta hortaz lan-merkatuko eragileek hitzartzen dituzte enplegu-politikak, ekintza sindikal indartsuko testuinguru batean. Europa kontinentalean ere, hitzarmen kolektiboen estaldura handia izanagatik ere, lurralde zein sektore arteko egoera disparekoagoak aurkitzen dira, baita sindikaltze maila apalagoa ere. Era berean, kasu honetan lan-merkatuaren gaineko erregulazio publikoa oso indartsua da, hitzarmen

kolektiboetan eragiteko ahalmen handia duelarik. Azkenik, herrialde anglosaxoietan, herrialde edo sektoreko hitzarmenen gainetik aurkitzen dira enpresen baitako hitzarmenak, eta sindikaltze maila altua izanagatik ere, hitzarmen kolektiboen estaldura murriztagoa da. Erregulazio publiko hemen ere, gizarte-babeseko sisteman bezalaxe, irismen murriztekoa da.

Koadroa 5: Ongizate-erregimenen tipologia multidimentsionala

	Erregimen nordikoa	Erregimen kontinentala	Erregimen anglosaxoia
Erreferentzia arauemaile nagusia	Berdintasuna	Ziurtasuna	Asistentzia
Gizarte-gastu maila (GG/BPG)	Altua	Altua	Baxua
Desmerkantilizazio maila	Altua	Ertaina	Apala
Finantzazio Egitura	Zerga bidezkoa	Kotizazio bidezkoa	Zerga eta kotizazio bidezkoa
Biztanleria estaldura modua	Unibertsala	Selektiboa	Selektiboa
Prestaziotarako eskuragarritasun irizpidea	Eskubidea (hiritartasuna)	Lan gizarteratzea	Beharizana
Lan merkatuaren arautze gradua	Ertaina	Altua	Baxua
Hitzarmen kolektiboaren egitura	Oso zentralizatu eta koordinatua	Ez hain zentralizatu eta sektorizatu	Deszentralizatu eta zatikatua
Hitzarmen kolektiboaren estaldura maila	Altua	Oso altua	Ertain/altua
Dentsitate Sindikala	Oso altua	Ertaina	Altua
Printzipio estratifikatzailea	Berdintasunezkoa	Erreproduzitzailea	Dualizatzailea

Iturria: Adelantado eta Gomá (2000) (itzulpena geurea)

2.4.2.2 Sailkatzearen arazo metodologikoak eta bestelako proposamenak: eredu mediterraneorik ba al da?

Gizarte-zientzien esparruan kategorizatzeko, tipifikazio edo sailkatze ariketak ohiko lanabes metodologikoa diren arren, asko dira eragiketa intelektual horien mugez zein baliagarritasun gabeziak plazaraturiko iritziak. Baldwin-en (1990) muturreko jarrera aipatu izan da sarri, zeinak kategorikoki epaitzen baitzuen “sailkatzea dela lan intelektualaren denik eta formarik baxuena”.

Zentzu honetan, ez da harriztekoa Esping-Andersen-ek proposaturiko hiru munduen sailkapena mota ezberdinetako kritiken galbahetik pasa izana. Lehenik eta behin alderdi metodologikotik eginiko kritikak azalduko zaizkigu, sailkatze ariketa batean erdietsitako emaitzak, azterketa konparatiboan aintzat hartu diren aldagaien arabekoak

direla ohartarazten duena. Egitate metodologiko eztabaidaezina da, gure azterketa ereduan barneratzen ditugun aldagai kopuruak, eta horietako bakoitzari emandako pisuak, modu esanguratsuan alda ditzaketela azterketa bataren ala bestearen emaitzak.

Bestelako kritika ildoei jaramon eginez, ongizate erregimenak hiru, bi, lau edo zazpi “mundu” ezberdinetan sailka ote litezkeen ebazteak mota ezberdinetako eztabaidak piztu ditu. Hemen ere, autoreak haina iritzi aurki genezakeen arren, nagusiki hiru dira gehien errepikatzen diren sailkapen moduak: funtsean bi eredu direla argudiatzen dutenak, hirugarren erdibideko bat existitzen dela argudiatzen dutenak, eta laugarren erregimen baten berezkotasuna defendatzen dutenak.

Lehenengoan artean, zenbait autorek ongizate eredu ezberdinak muturreko bi eredutan banantzearen egokitasuna defendatzen dute. Horien artean legoke, esaterako Chassard eta Quintin-ek (1992) proposatzen duten oinarrizko bereizketa: Beveridge vs Bismarck ongizate sistemen sailkapena Esping-Andersen-en sailkapen hirukoitza, aurretiaz Titmuss-ek (1974) proposaturikoaren birformulazioa baino ez dela argudiatzen duenik ere bada (Abrahamson, 1995; Adelantado eta Gomá, 2000; Leibfried eta Mau, 2008). Titmuss-ek hiru ereduak *bazterreko eredia*, *lorpen bidezko eredia* eta *eredu instituzionala* bezala bereizten zituen, bigarren hori litzatekeelarik Esping-Andersen-ek aurrerago eredu kontinental (edo kontserbadore) gisa izendatuko duena, eta azkenekoa sistema nordiko (edo sozialdemokrata) gisa birbataiatuko duena.

Bada ordea Esping-Andersen-en oinarrizko sailkapen hirukoitzari bestelako laugarren eredu bat eranstea nahikoa ezaugarri sendorik aurkitu izan duen autorerik ere. Teoria horien artean, besteak beste Leibfried (1992) eta Ferrera-k (1996) proposaturiko erregimen mediterraneo da gure ikerketa esparruari gehien eragiten dion ekarpena, eta horretan zentratuko gara, erregimen mediterraneo bereizi bat baden ala ez ebaztera, hain zuzen ere.

Hainbat autoreren irudiko, beraz, eredu kontinentalean azpi-multzo bat bereiz liteke, Europa hegoaldeko herrialdeek osatzen dutena, eta eredu mediterraneo propio bat egikaritzeko lain ezaugarri propio baduena. Sarasa eta Moreno-k (1995) gai honen inguruan eginiko ekarpenen konpilazioan planteatzen duten galdera nagusia honakoa

da: esparru mediterraneoan kokatzen diren herrialdeen ongizate-eredua Europa kontinentaleko gainerako herrialdeen bertsio azpigaratu gisa ulertu behar litzateke, ala izan badute berezkotasuna damaien ezaugarri propiorik, horien garapenak eredu kontinentalerantz gerturatuko dituela zalantzan jartzen duena?

Zenbaiten aburuz, hegoaldeko herrialdeek gizarte-ereduaren koordinatu nagusiak partekatzen dituzte eta beraz eredu propio bat osatzen dute, gizarte-babeserako gastu maila apal batek ezaugarritua. Gizarte-gastu apal honek, alabaina, ez ditu herrialdeok eredu anglosaxoira hurbiltzen, alderantziz, erregimen kontinentalerantz garatuko diren herrialde “enbrioiak” lirateke. Sarasa eta Moreno-ren (1995) iritzian aldiz, ez da aski elementurik herrialde mediterraneoek eredu propio bat eta bakarra dutela baieztatzeko, nahiz eta elementu bereizgarri zenbait izan badiren, eta horiek mahai gainean jartzea beharrezkoa den hegoaldeko herrialdeen ekinbide politikoaren orientabideak planteatzeko. Era berean, hegoaldeko herrialdeen alderdi bereizgarri horiek modernizazio hutsarekin disolbatuz joan baino, areagotu edo erreproduzitzera egingo dutela aipatzen dute, esanaz bezala gizarte-babesaren estaldura hedatze hutsak ez dituela besterik gabe erregimen kontinentalean txertatuko.

Elementu bereizgarrien bilduma honetan jasotzen diren ekarpen nagusienetatik, hiru izaera ezberdineko ekarpenak taldekatuko genituzke: i) lehenik, gizarte-politiken jiteari erreparatzen dieten azterketak; ii) bigarrenik, familia-egituren funtzioetan jartzen dutenak arreta, eta; iii) azkenik, gizarte zibileko edo hirugarren sektoreko ezaugarri bereizgarrietan sakontzen dutenak. Azken bi analisi-esparruak aurrerago sakonduko ditugunez, lehen ardatzaren inguruko gogoetak jasoko ditugu jarraian.

Herrialde mediterraneoan gizarte-politiken inguruko azterketak bi ikuspuntutatik garatu izan dira. Lehen ikuspuntuak gizarte-politika horien hedadura edo intentsitatea neurtu izan dute, gainerako herrialde europarrekin alderatuz. Bigarren ikuspuntu osagarri batek, gizarte-politikaren ezaugarri horiek bestelako gizarte eta kultur ezaugarriekin harremanetan jarri izan dituzte, gizarte-politiken nolakoa azken horien testuinguruan ulertu behar litzatekeela aditzera emanez.

Leibfried-ek (1992) Europa hegoaldeko herrialdeetan gainerako herrialde kontinentalekin alderatuz gizarte-asistentziaren maila oso apala dela argudiatuz eredu bereizi baten beharra aldarrikatzen du. Ildo horri lotua agertzen da Rodriguez Cabreroren (1999) analisia ere, Espainiako gizarte-babeserako politiken garapenari erreparatuz. Honen iritzian, Espainiako ongizate-estatuaren adierazle nagusia gizarte-politiken esangura kuantitatibo eta kualitatiboa izan bada ere, lehen hori politika ekonomiko orokorragoen arabera garatu izan da, lan-malgutasun, moneta-ortodoxia eta desarautze politikek modu nabarmenean mugatu eta baldintzatu baitute gizarte-politiken hedapena, partzialki pribatizaturiko sistema asistentzial batetara murriztuaz.

Esping-Andersen-en (1999) irudiko, gizarte-asistentzien ahultasunean zentratzen diren argudio lerroak ez dira aski ongizate-erregimen bat osoki ezaugarritzeko. Erregimenen irakurketa nahiko murriztua dela deritzo, gizarte-erregimenen hanketako bat soilik hartzen baita kontuan, gizarte-babesera bideratutako prestazio ekonomikoena hain zuzen ere. Ongizate-erregimen bat, aitzitik, beste hainbat aldagaik ere definitzen dute, eta aldagai horien guztien arteko harreman moduak definituko luke erregimen berezituaren nolakoa. Hargatik argudiatzen du gizarte-asistentziarako politiken ahultasuna beste elementu garrantzitsuago baten ondorio dela: herrialde horien familiarismo markatua. Gizarte-babes ahula izatea familiar ongizate-ekoizle gisa egotzi izan zaion arduraren ondorio litzateke, eta hortaz, eredu mediterraneorik baden edo ez bigarren irizpide horren arabera ebatzi beharko litzateke.

Azken hari mutur honi tira eginez, Esping-Andersen-ek (1999) eredu kontserbadorea bi azpimultzotan (kontinentala eta mediterraneora) banatzearen egokitasuna aztertzeko herrialde horien familiarismo graduarekin erlazionaturiko bi adierazleren araberako analisi alderatua egiten du: ongizate-estatuak familiei bideratutako politikak alde batetik eta familiak beren gain hartutako ongizate lan-kargen analisia bestalde. Bi irizpide horiek adierazle ezberdinekin neurtu eta analisi alderatua egin ostean ondorioztatzen du bere iritzian ez dagoela justifikatua laugarren eredu bat tipifikatzea, ez baita

ezberdintasun esanguratsurik hautematen bi azpi-multzo horien artean (1999:125-126)³⁴.

Ferrera-k (1995, 1996) garaturiko analisisietan zentzu batean arestian aipaturiko dimentsio kuantitatibo zein kualitatiboak agertzen dira, gizarte-politiken nolakoa herrialde horien kultura politikoarekin eta gizarte-egituraketarekin harremanetan jartzen baitu. Autore honen aburuz Europa hegoaldeko herrialdeetako politika publikoen jitearen elementu bereizgarriak modu honetan laburbildu litezke: i) errenta-sarreraren mantentze-sistema zatikatua, herrialde mediterraneoek lan merkatu oso zatikatua duten neurrian (enplegatu publikoak eta gainerakoak), errenten birbanaketak zatikatze eskema horri erantzuten dio, sistema dual eta ez-eraginkorra sortuz; ii) osasun-sistema quasi-unibertsala, herrialde horietan guztietan hedatu da osasungintzari loturiko zerbitzu publikoko sistema bat, nahiz eta horien unibertsaltasun erreala zalantzarria izan³⁵; iii) ongizatearen banaketan “klientelismo politikoaren” pisua: herrialde horien tradizio politiko eta kulturaletan oso sustraitua dago bozka trukean giza talde konkretuen mesedetan bideraturiko laguntza publikoen praktika, argitara ateratako ustelkeria kasu andana lekuko; iv) gizarte-politiken garapen berandutu eta murrizta.

Hitz bitan, Ferrera-k nabarmenduriko ezberdintasunaren giltzarria banaketa-praktiketan legoke, gizarte-laguntzen erabilera “klientelismo” politikoaren mesedetan erabili izanean, hain zuzen ere. Esping-Andersen-ek (1999) kritika horiei erantzunez, ongizate-politiken erabilera interesatua edo makurrak nekez defini dezakeela beste erregimen oso bat uste du, eta bertan behera botatzen du Ferrera-ren proposamena.

Adelantado eta Gomá-k (2000) Ferrera-ren analisiari beste zenbait puntu gehitzen dizkie: i) gizarte-segurantza kontributiboko sistema oso zatikatzalea, onuradun kategorien mailakatze handiarekin; ii) lan merkatuaren konfigurazio propioa, hitzarmen kolektiboaren estaldura oso zabala eta sindikatze-maila oso apalak konbinatuz; iii)

³⁴ Aitzitik, autoreak berak aitortzen du analisi alderatua genero ikuspegitik landuz gero, lanaren banaketa sexualarekin lotura zuzenagoa duten adierazleak sartuz gero alegia, zenbait emaitza kontraesankorrak direla “hiru munduen” eskemarekin.

³⁵ Bai herrialdeen baitako eskualde-ezberdintasunak direla kausa, eta baita finantzabide mistoak, hornidura pribatuaren existentziak edota lan-status ezberdinen irispide eta trataera ezberdinak direla medio ere.

Europar Batasuneko gizarte-politiken eragin handia, bai kuantitatiboki (egiturazko funtsen hartzaile diren heinean) eta baita kualitatiboki ere (estatu-politikak irizpide horien arabera doitzearren); iv) ongizatearen lurralde-disparekotasun nabarmena, batik bat ipar/hego ardatzean adierazia, estatuen baitako barne tentsio nabarmenak sorrarazten dituen. Herrialde horien kokapen ezberdina gizarte-garapen berankor batek baldintzatzen du funtsean, neurri batean gainjartze historiko bat gertatu baita: itun sozio-keynesiarraren garapena (1975-1985 epealdian), arestian aipaturiko ongizate-estatuen berregituraketa prozesu sakon baten baitan gertatzen ari da eta.

Abrahamson-ek (1995) bere aldetik, Leibfried-en lanetan oinarri hartuz, orain artean aipatu diren elementu guztiak barneratzen ditu sektore publikoaren jardunbidea arakatzeaz gain bestelako aldagai batzuk ere kontuan hartuz, hala nola, merkatuko aseguru zein borondatezko elkarteen garrantzia, familien egitekoa, gizarte zibilaren lekua etab. Bere analisisen emaitza gisa laugarren erregimen baten existentzia defendagarria dela ondorioztatzen du, autoreak erregimen katoliko, latindar edo “rudimentario” gisa izendatzen duena. Oroz gain laugarren eredu hori definitzen duen ezaugarria nagusia “subsidiarioritasun printzipioaren” nagusitasuna dela argudiatzen du, zeinak antolatu eta hierarkizatzen baitu gainerako osaera instituzional osoa³⁶.

Subsidiarioritasun printzipio honen nagusitasunari dagokionean, ezaugarri hori berori da Esping-Andersen-ek (1999) eredu kontserbadore edo kontinentalari egozten dion ezaugarri nagusietarik bat, eta beraz, ez litzateke propio hegoaldeko herrialdeen elementu bereizgarri bat. Abrahamson-ek (1995) zentzu honetan, aurkezturiko lau ereduak funtsean bi eredu ezberdinen “intentsitate ezberdineko bertsio” gisa hauteman litezkeela ere aitortzen du: eredu sozialdemokrata Beveridge estiloko eredu liberalaren “luxuzko bertsioa” litzatekeen modu berean, eredu katolikoa eredu kontserbadore edo Bismarckiarraren “edizio merkea” litzateke (Ibidem, 1995:124).

³⁶ Gizarte-doktrina katolikoaren muinean aurkitzen den printzipio honek edozein gizarte-arazo gertueneko eragilean baitan ebaztea hobesten du. Honela lehen mailako ardura norbanakoarengan legoke. Norbanakoak arazoak bere kasa gaingintzeko zailtasunak dituenean, bere hurrengo gertueneko esparruetara joko luke, familia lehenik, familia hedatua edo klana gero eta tokiko gizarte zibileko zein eliza inguruko erakundeak azkenik. Horiek huts eginez gero, merkatuko aseguruaren aukera legoke (tamainako eros-ahalmena duten horientzat soilik dena eskuragarria) eta azken buruan, aurreko guztiak porrot eginez gero estatuaren esku-hartzea beharrezkotzat joko litzateke.

Azken konklusio gisa, eta gure azterketan hartuko dugun posizionamenduari dagokionez, herrialde mediterraneoez zenbait ezaugarri bereizgarri izan badituztela defendatuko dugu aurrerantzean, horiek erregimen propio bat osatzeko lain sendotasun baduten ala ez epaitzen sartu gabe. Begien bistako egitatea da Europa hegoaldeko herrialdeek, gerraosteko epealdi luze batean erregimen diktatorialen azpian makurraraziak izan ondoren, tradizio kultural konkretuetatik abiatuz beren modernizazio politiko eta sozioekonomikoan ibilbide nahiko paretsua agertu izan dutela. Ferrera-k (1995) nabarmentzen ditu horien traza nagusiak: industrializazio berankorra, barne eskualdeen garapen desorekatua, lan-merkatu eta lan-status oso zatikatua, erregimen autoritarioko epealdi luzeak, eliza katolikoa eta instituzio korporatiboen indar handia, familia-unitateengan delegazio altua, etab.

Pentsatzekoa da horratik, ezaugarri kultural, politiko eta sozio-ekonomiko horiek gainerako gizarte-politiken esparruan ere bere itzala edo aztarna utzi izana. Eztabaida liteke, eztabaidatzen denez, elementu bereizgarri horiek soilik herrialde mediterraneoei atxikitako elementuak diren ala ez. Esaterako inork argudia dezake “klientelismo politiko” hori gainerako herrialde europarretan berdin antzekoa dela, gobernu guztiak aurkitzen baitira sarri askotan ondoen antolatutako presio-taldeen eskakizunetara makurtu beharrean. Esan liteke halaber, familiarismo ezaugarri horiek berdin aurki litezkeela Austrian zein Alemanian, eredu kontinentaleko herrialde erreferentzialetan, alegia. Sarasa eta Moreno-k (1995) ondorioztatzen dute, ezaugarri horien “intentsitate mailan” kokatu behar litzatekeela afera, ezaugarriok inon baino areago agertzen baitira hegoaldeko herrialdeetan. Zenbatean zor zaion egoera hori modernizazio berankorrari eta zenbatean garapen eredu propioei, ikusteke dago.

2.4.2.3 Ongizate-erregimenen teoriari hirugarren sektoretik eginiko kritikak

Hirugarren atalean jorratu diren ongizate-estatu eta ongizate-erregimenen analisisien azalpenean argi geratu da hirugarren sektorea eragile ikusezina dela korpus teoriko horien baitan.

Ongizate-estatuaren teorikoen artean, lehenago aipatu da ikusezintasun honen kausak izan daitezkeela arrazoi tekniko edo disziplinarioak tarteko (Barr, 2001) edo arrazoi

ideologikoagoen kausaz (Salamon eta Anheier, 1998). Hutsune are larriagoa, aldiz, ongizate-erregimenen proposamenaren itsutasunean sumatzen dute bestetzuk. Erregimenen bidez ongizatearen analisia estatuaz kanpoko bi esparruetara zabaltzen delarik, hala nola, lan-merkatua eta familiara, benetako akats analitikotzat jotzen dute hirugarren sektorea kontuan hartu ez izana.

Zentzu horretan, Pestoff-ek (1999) aztertzen duenez Esping-Andersen-ek lan berriagoetan aipatu izan du hirugarren sektorea, aipamena oin-oharren bidez egiten badu ere. Aitortzen du bere analisi hirukoitzean hirugarren sektorea barneratzeko arrazoiak egon litezkeela, batik bat zerbitzuen horniduran paper garrantzitsua jokatzen dutelako (1999:35). Hala ere, zenbait zailtasun antzematen ditu azterketa hori zehaztasunez egiteko: lehenik, nazioarteko lan konparatiboen urritasuna, zeinak bereziki zailtzen baitu hirugarren sektoreak ongizate-estatuan eginiko ekarpenaren analisi sistematikoa egitea. Bigarrenik, sektore bereizi gisa kontsideratzea ere zalantzazkotzat jotzen du, sektore honetan langileen erdiak soldatapekoak direlako, sektorearen errenta-sarrera nagusiak finantzaketa publiko bitartez bideratzen direlako, eta azken buruan hirugarren sektoreko eragileen jardueraren zati txiki bat soilik delako gizarte-zerbitzuen esparruan kokatzen dena (bataz beste % 40 inguru).

Lewis-ek ere (2004), ildo beretik, hirugarren sektorea ongizate-erregimenen analisisian “bere ausentziatik dela deigarria” esango du (*conspicuous by its absence*). Ausentzia horren zergatien artean, arreta guneen aukeraketa aipatzen du lehenik. Izan ere, ongizate-erregimenen analisia estatua eta (lan) merkatuaren arteko diru-transferentzietan eta gizarte-segurantza sistemen analisisian oinarritu izan da, argiago ikusten baita bertan bien arteko erlazioaren tamaina eta bilakabidea. Aldiz, analisia hezkuntza, osasun edo gizarte-zerbitzuen horniduran edo zerbitzuen kalitatean zentratu izan balitz, hirugarren sektorearen aipamena egitea ekidinezina litzateke. Hala ere, egile honen iritzian sakoneko arrazoiak sektoreari egotzitako garrantzia analitiko ezdeusari zor zaio, teorialari horien irudiko hirugarren sektoreak ez baitu zinez estatua eta merkatuaz aparteko alternatiba bereizi gisa kontsideratua izateko behar besteko garrantzirik.

2.5 Hirugarren sektoreko teoriak ongizate-erregimenen gainean

Kapitulu honetako hirugarren atalean, 2.3. puntuan alegia, hirugarren sektorea eta estatuaren arteko harremana nagusiki oposiziokotzat edo lehiakortzat jotzen duten teoriak nabarmendu dira, bi talde handitan sailkatuz: teoria ekonomiko neoklasikoan lerraturiko autoreak alde batetik, eta kapital soziala eta gizarte-mugimenduen esparruko autoreak bestetik.

Jarraian aurkezten dugun atalean, berriz, ongizate-estatu/erregimenen teorizaziotan oinarri hartzen duten lan teorikoen aurkezpena egingo da. Orain arte aipaturiko teoria nagusien hutsuneak betez, nazioarteko ikerketa konparatiboetatik eratortzen diren ekarpenak leudeke, hirugarren sektorea barneratzeak arestian aipaturiko ongizate-erregimenen sailkapenetan nola eragiten duen arakatuko delarik.

Sajardo-k (1995) gai honen inguruko berrikuspen zabala eskaintzen du 70eko amaieratik hona eginiko ekarpen ezberdinak jorratuz. Bere analisitik eratortzen denez, ordutik gaur arte ezagutzera eman diren ekarpenak bi bloke nagusitan bereiz genitzake: i) harremana estatu liberalaren optikatik landu duten lan aurrekariak, batetik, eta; ii) harremana bestelako testuinguru politiko-ideologikoko estatueta hedatu duten lan berriagoak, bestetik.

2.5.1 Estatu liberalei buruzko lan konparatibo aurrekariak

Esparru teoriko honetan kokatzen diren autore guztiek ordura arte ontzat jotzen zen harreman tipo bakarraren analisisa (gatazkaren paradigma) osatu dute bestelako harreman ereduak ere aintzat hartuz, nahiz eta eredu teoriko horiek guztiak estatu liberalaren testuinguruan kokatzen dituzten. Gerora zenbait autorek (Wolch, Salamon eta Anheier, Seibel, etab.) horixe bera leporatzen diete, funtsean Estatuaren Teoria bat ez izatea, eta harreman eredu ezberdinak soilik estatu liberalaren eszenatokian kontenplatu izana.

Sajardo-ren irudiko (1995) lehen talde honetako ekarpenik esanguratsuenak modu honetan laburbildu litezke.

Lehen urratsa Britainia Handiko Wolffenden Batzordearen eskutik eman zen, 1977an, bi proposamen nabarmendu zirelarik bertan: Darvill-en lana batetik eta Cousins-ena bestetik. Batak zein besteak, aurkakotasun harremanez gain bestelako harreman klase asko eman litezkeela nabarmentzen dute: lankidetzak gatazkatsu baina beharrezkoa, menpekotasunezko harremanak (hirugarren sektorea zerbitzari akritiko eta menekoa delarik), helburuen lorpenerako harremana, lankidetzak baketsukoa, etab.

Modu argiagoan, sailkapen zehatzago bat eginez planteatzen ditu Abrams-ek (1980) hiru harreman-tipo nagusiak: baterako existentzia (harreman parekidean oinarritua), gatazka (harreman lehiakorra) eta azkenik kolonizazioa (hirugarren sektorearen menpeko egoera bere hiru adierazpidetan: kanpo dominazioa, kanpo jabetzea, eta integrazioa).

Geroxeago Kramer-ek (1981) harreman horiek osatzen ditu herrialde ezberdinen arteko lehen erkaketa lan osatuagoa baten bidez, kontuan hartzen dituelarik testuinguru politiko orokorraz gain bestelako aztergai batzuk ere, hala nola: barne egiturak, finantzabideak, zuzendaritza moduak, etab. Autore honek lehenengo bider aipatzen du harreman horiek ez direla inola ere gauza estatikoak, testuinguru politiko eta ekonomikoaren arabera aldatzen doazenak baizik. Honela, bost harreman klase sailkatzen ditu: i) pribatizazioa (mozkin asmodun erakundeengan ia osorik delegatzea), ii) baimentzea (mozkin asmorik gabeko erakundeetan ia osorik delegatzea), iii) elkartzeko pragmatikoa (eragile guztien arteko lankidetzak puntualak, osagarritasun ezberdinak bilatuz), iv) sektore publikoaren operazioa (non mozkin bezalako erakundeak, oztopo gisa ikusirik, bazterreko papera jokatzen duten) eta v) nazionalizazioa (ardura osorik sektore publikoarengan legokeelarik).

Gladston-ek (1978) bere aldetik, harremanaren bi muturreko espresioak aipatzen ditu (zerbitzuen hornidura osorik merkatuak edo estatuak egitea) eta tarteko “ongizatearen pluralismo” batean kokatzen du bere burua, finantzazio nagusiki publiko batean oinarrituz, hirugarren sektorea eta estatuaren arteko lankidetzak formulak defendatzen baititu.

Azkenik, Gronbjerg-ek (1987) menpekotasun harremanaren aurkako bertsioa jorratzen du, sektore publikoa, mozkin asmoko erakundeak eta mozkin bezalakoak elkarmenpekotasun egoera aldakorretan kokatuz: mozkin asmodun erakundeak ahulak diren esparruetan sektore publikoa mozkin bezalako erakundeen beharrezko geratzen da; aitzitik, mozkin asmodun erakundeak indartsuak diren kasuan, beste biak egoera horretara egokitzen dira.

2.5.2 Nazioarteko alderaketan oinarrituriko lan berriagoak

Arestian aipaturiko teoriak oro estatu liberalaren markoan aztertuak izan dira. Wolch-ek (1990) kritikatu duen gisan, teoria horiek herren nabarmena egiten dute eszenatoki posible bakartzat estatu liberala jotzen dutenean. Egile honen iritzian, gidaritza politikoaren ildo ideologikoen berebiziko eragina dute sektore arteko harremanaren nolakoan, nahiz eta ez duen analisi zehatzagorik eskaintzen.

Sektore arteko harremanaren nazioarteko alderaketa lan sendoenak hiru lirateke Brandsen-en (2008) iritzian: Gidron et al-en (1992) “Banaketa Funtzionalaren sailkapena”, Kuhnle eta Selle-ren (1992) “Harremanezko sailkapena”, eta azkenik Salamon eta Anheier-en (1998) “Gizarte-jatorriaren teoria” (*Social Origins Theory*). Goazen banan banan.

2.5.2.1 Banaketa funtzionalaren irizpidea

Banaketa funtzionalaren irizpideak gizarte-ongizatearen funtzio publikoetan ardura banaketa ezberdinak finkatzen ditu sektore publikoa eta hirugarren sektorearen artean. Ardura banaketa horiek gizarte-ongizate zerbitzuen horniduran funtsezkoak diren bi esparruren analisisian zentratzen dituzte: finantzazioa alde batetik, eta ekoizpena bestetik (Brandsen, 2008).

Lehenik, muturreko bi egoera tipikak definitzen dituzten eredu puruak finkatzen dira, non: i) sektore publikoa den gizarte-ongizatearen hornitzaile hegemonikoa, edo; ii) hirugarren sektoreak betetzen duen paper hegemoniko hori. Bigarrenik, tarteko eredu hibrido edo mistoak ezartzen dira, non era berean beste bi azpi-eredu orokor antzeman

daitezkeen: lankidetzaren ereduak (funtzio banaketa ezberdinekin) edota eredu dual edo paraleloak (non biak ala biak diren modu berezian gizarte-ongizate hornitzaile funtzioak betetzen dituztenak). Jarraian aurkezten den koadroak sintetizatzen ditu eredu guztiok.

Koadroa 6: Sektore publikoa (SP) eta hirugarren sektorearen (HS) arteko harreman ereduak irizpide funtzionalaren arabera

	Sektore Publikoa nagusi	Eredu Duala	Lankidetzaren Ereduak							Hirugarren sektorea nagusi
EKOIZPENA	SP	HS	SP HS	SP	HS	SP HS	HS	SP	SP HS	HS
FINANTZAZIOA	SP	HS SP	SP HS	SP HS	SP HS	SP	SP	HS	HS	HS

Iturria: Sajardo (1995), Gidron, Kramer eta Salamon-engan (1992) oinarritua (itzulpena gurea)

Lehen eredutik hasita, sektore publikoaren hegemonia esparru guztietan ematen da: zergapetze sistema orokor baten bidez eskuratuko da beharrezko finantzazioa administrazio publikoak beregain har dezan osorik ongizatearen ekoizpen eta banaketa. Sajardo-k (1995) aipatzen duenaren ildotik, eredu hau eskuarki parekatu izan da ongizate-estatu modernoekin, nahiz eta identifikazio hau okerra izan litekeen kasu askotan. Gaineratzen du Kramer-en (1981) sailkapenean oinarri hartuz eredu hau bi kasutan eman daitekeela: i) hirugarren sektorea sektore publikoak xurgatzen duen kasutan (dependentsia finantzariaren muturreko bertsioa), edo; ii) hirugarren sektorea oztopotzat jotzen denean ongizate-sistema unibertsal eta berdintasunezkoa ezartzeko, eta ondorioz, baztertu egiten denean.

Kontrako muturrean, hirugarren sektorea denean gizarte-ongizatea eskaintzeko nagusitasunezko papera jokatzen duena, finantzazioa, ekoizpen eta banaketa funtzioak beronek hartzen ditu beregain. Sajardo-ren (1995) irudiko eredu hori lau kasutan ager daiteke: i) ongizate-estatuaren garatu aurreko fasean, gizarte-babesa publikoki onarturiko eskubidea izan aurretik; ii) esku hartze publikoaren aurkako jarrera ideologiko argia duten herrialdeetan; iii) eskariaren heterogeneotasun handiko gizarteetan, non gizarte-beharrizanen preferentziak hain diren dispareko eta anitzak ezen ezinezkoa baita sektore publikoak eskaintza sozial tipo bakarra ezartzea; iv) Kramer-ek (1981) ezarritako

pribatizazio³⁷/autorizazio³⁸ egoeratan, non sektore publikoak ia osorik delegatzen duen bere funtzio publikoa merkatuko eragiletan edo mozkinenez besteko erakundetan, hurrenez hurren.

Lankidetzaren ereduak, hirugarren tokian, tipologia askotakoak izan litezke, koadroan ageri den gisan ekoizpen/finantzazio mailan eman daitezkeen konbinaketa ezberdinen arabera, edo baita bestelako irizpideak ere kontuan hartuz: dela eragile bakoitzaren erabakitze gaitasuna, dela zerbitzuen osagarritasun/ordezkarritasun³⁹ maila, etab. Sajardo-k (1995) ereduaren aniztasun hori, Esping-Andersen-en ongizate erregimenen tipologiarekin bateragarria izan liteken sailkapen hirukoitz batean antolatzen du: i) Estatu Kontratu ereduak, non sektore publikoak mantentzen duen ardura nagusia, berak erabakitzen duen zein punturaino eskaini zerbitzuak eragile pribatuaren bitartez, kontratazio zein deszentralizazio politiken bitartez; ii) Itzalpeko Estatu ereduak (Wolch, 1990), non ez dagoen eragileen arteko nagusitasun argirik, eta bakoitzak bestearen akats edo ahuleziak osatzera jotzen baituen, eta; iii) Interes Pribatuaren Gobernuak, non funtzioen banaketa gobernuaren erabakietan eragiteko ahalmena duten interes-talde ezberdinen artean burutzen den.

Lankidetzaren eredu horiez gain azken eredu posible bat legoke, eredu dual edo paraleloak jasotakoa, non bi sektoreen koexistentzia berezia ageri den gizarte-ongizatearen eskaintzan. Bi eragileek oso-osorik hartzen dituzte bere gain finantzazio, ekoizpen eta banaketa funtzioak, baina nor bere esparruan. Bi eragileen eskaintza paralelo hori, modu baketsu zein lehiakorrean gauzatu liteke.

³⁷ Pribatizazioaren aldeko politikak kontsumitzaileen aukeratzeko aukera handiago baten argudiopean burutu izan dira, batik bat azken bi hamarkadako politika kontserbadoreen testuinguruan. Honela, eskaintzaileen arteko lehia handitzeak eskaintzailearen outputaren kalitatea hobetzean positiboki eragiten du. Premisa horiek, ordea, enpirikoki oso eskasak suertatu izan dira, teoriak diotenaren aurka estrategia horiek gizartearen estratifikazio eta diskriminazioa baitakarte, eskaintza soilik bideratzen baita errentagarritasun ekonomikoa posible den esparruetan.

³⁸ Arestian aipaturiko Wolffenden Batzordeak, gizarte-ongizatearen hornidura osorik hirugarren sektorearen gain uztearen alde egin zuen, estrategia honek kontsumitzaileen hautatzeko aukerak handitzeaz bat, gizarte-ongizatea bermatu eta sektore publikoaren larregizko burokratizazio eta paternalismoarekin amai zezakeela sinetsita.

³⁹ Osagarritasun/ordezkarritasun mailen inguruan Kramer-ek (1981) hainbat zehaztapen egiten ditu: zerbitzu osagarrien ereduak, sektore publikoak eskaintzen ez dituen zerbitzuak hirugarren sektorearen eskutik eskainiak diren ereduak litzateke; ordezkarritasunak, ordea, bi maila ezberdin leuzkake: hirugarren sektoreak sektore publikoaren zerbitzu berberaren eskaintza alternatiboak egin ditzake, edota zuzenean eskaintza publikoa desagertaraziz ordezko hornitzailean bilaka liteke.

2.5.2.2 Harremanezko irizpidea

Kunhle eta Selle-k (1992) gai honen inguruan eginiko ekarpenak interesgarria dira bestelako faktoreak ere kontuan hartzen laguntzen duten neurrian. Honela, arestian aipaturiko banaketa funtzionalaren irizpidearekin bat egiten dute finantzazio-harremanek sor ditzaketen dependentzia/independentzia egoerak analisisian sartuz. Autoreok, ordea, ekoizpenaren esparrua aztertu beharrean, harreman-ikuspegia barneratzen dute beren analisisian, sektore publikoa eta hirugarren sektoreko eragileen artean suma litezkeen gertutasun ideologiko/kultural/informalek sor ditzaketen kontaktu eta komunikaziorako erraztasunei erreparatuz.

Hortaz, analisia bi ardatz horietan finkatuz, finantzazioaren esparrua dependentzia/independentzia ereduetan banatuko litzateke, eta harremanen esparrua gertutasun/urruntasun bektoreen bitartez, hurrengo koadroan laburbiltzen diren lau ereduak osatuz:

Koadroa 7: Sektore publikoa (SP) eta hirugarren sektorearen (HS) arteko harreman ereduak harreman-irizpidearen arabera

	GERTUTASUNA	URRUNTASUNA
DEPENDENTZIA	Dependentzia integratua(1)	Dependentzia banatua(2)
INDEPENDENTZIA	Independentzia integratua(3)	Independentzia banatua(4)

Iturria: Kunhle eta Selle-n (1992) (itzulpena gurea)

Autoreek ohartarazten dutenez, sailkapen modu hori finkoa izatetik urrun denboran aldakorra da guztiz, bai sektore publiko edo bai hirugarren sektoreko eragileen baitan eman daitezkeen aldaketengatik, baina baita sektore pribatu zein lehen-mailako sareetan gerta litezkeenengatik ere.

Alabaina, analisi enpirikoetatik ondorioztatzen denez, harreman honen garapen historikoak harremanen gehiengo laugarren laukitik lehen eta bigarren laukira desplazatu da, estatu minimoaren espresiotik estatuaren nagusitasun egoera batera, non hirugarren sektoreak gizarte-politikan eragiteko ahalmen eta askatasun murrizta duten. Egileok, alta, hirugarren laukian kokatuko lukete beraiek defendaturiko ideal pluralista, non hiritarrek hirugarren sektoreko erakundeen bitartez antolatuz gizarte-politikan

eragiteko ahalmena luketen, baina erabakitze eta ezarpen prozesuetan integratuak izan gabe.

2.5.2.3 Gizarte-jatorrien teoria

a) Ekarpen teorikoaren oinarri enpirikoak

Orain arte aipaturiko analisisien artean froga enpirikoen bitartez kontrastatu den teorizazio nagusia Salamon eta Anheier-ek (1998) *Social Origins Theory* gisa izendaturikoa litzateke. Eztabaida kontzeptualari eskainitako kapituluak aipatu den *John Hopkins* Institutuak gidaturiko *Comparative Nonprofit Sector Project* ikerketa-egitasmo erraldoiaren emaitza teoriko nagusia litzateke aipaturiko teoria hau.

Lan honek aurretiaz eginiko lanekiko aurrerapauso nabarmenak barneratzen ditu, kapitulu honen argudio-ildoei eutsiz, besteak beste: bi sektoreen arteko aurkakotasun teoria murrizkorrak gaindituz, elkarlaneko harremanen existentzia azpimarratzen delako; bestetik emaitza teorikoak nazioarteko erkaketa lan enpiriko zabal baten emaitza direlako⁴⁰, ez “tipo-idealen” eraikuntza teoriko abstraktu hutsa, eta; gainera, arestian aipaturiko ongizate erregimenen sailkapenarekin bateragarria eta osagarria den ekarpena egiten duelako.

Are gehiago, esparru metodologikoan indargune nabarmenak azaltzen ditu: “gizarte-jatorrien teoria”, arestian aipaturiko teoria nagusien konstatazio enpirikoen mugak gainditzen dituen ekarpena da. Lan honetan, beraz, Weisbord (1977), James (1987); Hansmann (1980) eta Ongizate-estatuaren teorikoen lanetatik hipotesi zehatz eta kontrastagarriak ezartzen dira, nazioarteko datu-base sistematizatuaren bitartez zein punturaino diren enpirikoki egiaztagarriak aztertzeko. Kontraste hori burutzeko herrialde bakoitzeko hirugarren sektorea modu esanguratsuan definitzen duten bi aldagai-giltzarri finkatzen dira: eskala alde batetik, hirugarren sektoreko erakundeen

⁴⁰ Autoreek aitortzen dutenez, nahiz eta 13 herrialderen gaineko datu-base sistematikoa osatzea izan lehen fase batean egitasmoaren xedea, azken buruan datu esanguratsurik lortzerik izan ez zen herrialdeak baztertu ondoren, zortzi herrialde geratu ziren: Ameriketako Estatu Batuak, Britainia Haundia, Frantzia, Alemania, Italia, Suedia, Hungaria eta Japonia. Hungariaren kasurako, herrialdea azterketa egin zen urte sasoiaren (1990) trantsizio-fase argi batean zela argudiatuta, lorturiko datuen esangura nahikoa ez zela irizita alderaketa sistematikotik kanpo utzi zuten.

kopuru eta tamaina, modu ezberdinetan neurtua (enplegatu kopurua, jarduera-aurrekontua eta boluntario kopurua); eta egitura finantzarioaren osaera (zein proportziotan nahasten diren diru laguntza publikoak, merkatuko salerosketetatik eratorritako etekinak eta dohaintza pribatuak).

Teoria horietako bakoitzaren hipotesi nagusiak nazioarteko datu-bilketaren bitartez kontrastatu ostean, honako emaitzak erdiesten dira⁴¹:

- a) Heterogeneotasun teoria arrazoizko moduan betetzen da. Teoria honen hipotesi nagusiak herrialde batek gero eta heterogeneotasun etno-linguistiko handiagoa izan hirugarren sektoreko erakundeen kopuru eta tamaina handiagoa behar lukeela adieraziko luke, batik bat hezkuntza alorrari dagokionean. Bai maila orokorrean eta baita hezkuntzaren esparrura mugatuz ere, ebidentzia enpirikoak bi aldagai horien arteko korrelazio positibo esanguratsua frogatzen du.
- b) Eskaintzaren-esparruko teoria arrazoizko moduan betetzen da. Teoria honen arabera, geroz eta handiagoa izan herrialde batean sumatzen den erlijio arteko lehia, orduan eta handiagoa behar luke hirugarren sektoreko erakundeen kopuru eta tamaina, batik bat hezkuntzaren alorrean. Hipotesi nagusi hori betetzen den arren, hirugarren sektoreko erakundeen finantzazio egituren gainean buruturiko hipotesia ahula dela frogatzen da, teoriatik espero zitekeenaren aurka, erlijio arteko lehia handiagoa den herrialdeetan hirugarren sektorearen sarreretan dohaintza pribatuak suposatzen duten parte handiagoa izatea ez baita frogatua geratzen, are gutxiago hezkuntzaren alorrean.
- c) Konfiantzaren teoriak datuen sostengu apala eskuratzen du. Teoria honek liokeenaren aurka, ez da apenas korrelazio positiborik frogatzen kontsumitzaileek oro har enpresa pribatuekiko azalduko konfiantza eskasa eta hirugarren sektorearen eskala handiagoaren artean. Oraindik areago, teoria hau bereziki aplikagarria litzatekeen informazio-asimetria

⁴¹ Herrialdez herrialdeko eta hipotesiz-hipotesiko analisi xehatuago bat guztiz aholkagarria den arren, tarte honetan emaitzarik esanguratsuenak jaso dira. Sakonago aztertzeko ikus: Salamon eta Anheier (1998).

nabarmeneko esparrutan, hots osasun eta gizarte-zerbitzuen esparruan, ere ez da frogatzen halako erlaziorik.

- d) Ongizate-estatuaren teoriak oso sostengu eskasa du nazioarteko datuen aldetik. Teoria honen arabera, hirugarren sektorea fenomeno anakronikoa denez ongizate-estatu garatuaren testuinguruan, geroz eta handiagoa izan gobernuek gizarte-ongizatera bideraturiko gastua orduan eta txikiagoa litzateke hirugarren sektoreko erakundeen kopurua eta tamaina. Datuetatik eratorritzen denez, *per-capita* sarrera paretsuko herrialdeetan borondatezko elkarteetan enplegu-tasa oso disparekoak sumatzen dira. Areago, teoria honek baliagarritasun handiena behar lukeen esparrutan, osasun, hezkuntza eta gizarte-zerbitzuen esparrutan alegia, erlazioa orduan eta ahulagoa da.

b) Emaitza nagusiak: hirugarren sektorearen lau erregimenak

Gatazkaren paradigman lerrokatutako teoria ildoen aurka, lehenik eta behin “gizarte-jatorrien teoriak” estatua eta hirugarren sektorearen arteko elkarlan egoerak nabarmentzen ditu. Aldiz, bestelako elkarmenpekotasuneko argudio ildoen aldean, dela banaketa funtzionalen zein harreman-irizpideko teorizazioen aldean, proposamen honek bi sektoreon arteko elkarlana bideragarri egiten duen inguruabar sozio-historikoaren analisia gaineratzen du. Zentzu horretan, teoria ildo honek ekonomia neoklasikoaren oinarri teorikoak baztertzen ditu: ongizate-zerbitzu nagusietarako merkatua, hirugarren sektorea edo estatua hautatzea ezin da merkatu ireki bateko kontsumitzaileek askatasun osoz harturiko erabaki indibidualen emaitza gisa ulertu. Aitzitik, balizko aukera horiek une eta gune bakoitzaren garapen historikoak guztiz baldintzaturik agertzen dira, tokian tokiko aukera multzo eskuragarriak eredu historikoengatik erabat mugatuak geratzen direlarik (*path dependency* gisa ezagutzen dena).

Salamon eta Anheier-ek (1998) proposaturiko “hautespen instituzionalaren dinamikaren” ikuspegi hori, guztiz islaturik agertzen da orobat aurretiaz eginiko bestelako lanetan, nagusiki bitan: Esping-Andersen-en (1990) ongizate-estatu modernoaren jatorrien lanetan eta Barrington Moore-k (1996) demokrazia eta faxismoaren “gizarte-jatorrien” lanetan, hain zuzen ere. Gure aztergai teorikoari estuen

lotzen zaion erreferentzia Esping-Andersen-ena izanik, lehen autore honen proposamenekiko eginiko aurrerapausok dira jarraian jorratuko ditugunak.

Arestian aipaturiko Esping-Andersen-ek (1990) eginiko ongizate erregimenen sailkapen hirukoitzari dagokionean, autore honek berak gehitzen du herrialde-tipologia horietako bakoitzean ematen den gizarte-politikaren eiteak zerikusi zuzena duela historian zehar gizarte-eragile ezberdinek jokaturiko paper eta indar korrelazioarekin.

Honela, esaterako eredu korporatibistan kokatzen dituen herrialdeetan ez da kasualitatea elizak, aristokraziak eta estatu autoritarioak historikoki mantendu izan dituzten nagusitasunezko posizioak aurkitzea. Alde erantzira, herrialde anglosaxoietako erregimen liberalaren ezarpenean berebiziko garrantzia du herrialde horietan absolutismoak bizi izandako endekapenak eta *laisse-faire* espirituko burgesiak eskuraturiko nagusitasunak. Erregimen liberal/korporatibista/sozialdemokrataren horietako bakoitzaren oinarrian hiru gizarte-aldagai giltzarriren konbinazio konkretuak sumatzen ditu: langile-klasearen mobilizazio maila, langile-klaseak erdietsitako gizarte-koalizio handiagoen maila eta ongizate-horniduraren elementuekiko klase ertainak agerturiko jarrera.

Kapitulu honetan zehar jorratu den gisan, ongizatearen teoriak ezikusi nabarmena egin arren hirugarren sektoreko erakundeei, beren analisietatik bazter utziaz, Salamon eta Anheier-ek (1998) analisi modu horien baliagarritasuna defendatzen dute azken erakundeon analisiak burutzeko. Modu horretan, hirugarren sektoreko erakundeen existentzia eta nolakoak, gizabanako arrazionalen hautespenean indibidualei erantzun beharrean, jatorri historiko eta sozial sakoneko gizarte-fenomeno zabalagoei erantzungo lieke, esaterako hirugarren sektoreak eta elizak izaniko erlazio moduei.

Elizak eta hirugarren sektoreak lotura estua izan dutela ontzat joz gero, espero izatekoa da, elizak eta estatuak Europako historia modernoan jokatu izan duten gatazka-egoeretan murgildua agertzea hirugarren sektorea ere. Honela, elizak estamentu sekularrekin nola halako integrazio paketsua lortu izan duen herrialdeetan, Alemania bismarckiarrean kasu, espero izatekoa den bezala estatu indartsu baten eskutik hirugarren sektore indartsu bat agertzen da, eta kontrako kasuetan, non estatuak elizaren

boterea murriztu edo zokoratu izan duen, espero izatekoa aurkako litzateke, estatuak hirugarren sektorea xurgatu edo baztertu izana, alegia.

Laburbilduz, Salamon eta Anheier-ek (1998) gidaturiko nazioarteko datu-bilketaren trataera burutzeko, Esping-Andersen-en analisi-eskemak apur bat doitzen dituzte hirugarren sektorea eskema horietan barnebiltzeko. Eragiketa honen ondorioz egileok lau “mozkinen besteko erregimen” (*nonprofit regimes*) identifikatzen dituzte, bi aldagai nagusiren gurutzaketa eginez: gobernuak gizarte-ongizatean eginiko gastuaren dimentsioa batetik eta hirugarren sektoreko erakundearen dimentsioa bestetik.

Koadroa 8: Hirugarren sektoreko erregimenak

		Mozkinen besteko erakundearen dimentsioa	
		Apala	Altua
Gobernuaren gizarte-ongizateko gastua	Apala	Estatista	Liberala
	Altua	Sozialdemokrata	Korporatibista

Iturria: Salamon eta Anheier (1998:19)

Koadroak jasotzen duenari eutsiz, Salamon eta Anheier-ek (1998) Esping-Andersen-ek ezarritako sailkapen hirukoitzari laugarren bat gehitzen diote: eredu estatista, hain zuzen ere.

Lehen eredu liberala litzateke, non gobernuaren gastu apal bati hirugarren sektoreko erakundearen unibertso zabal bat gehituko litzaiokeen. Herrialde horietan gobernuak gizarte-ongizateko esparru zabalak hornitzearen aurkako posizionamendu ideologiko eta politiko argia suma liteke, zeinaren kausaz justifikatzen baita eskaintza hori eragile pribatuen esku geratzea. Era berean, historikoki klase ertain indartsua izan duten herrialdeak lirateke, lan-eremuko eliteen eta langile-klasearen arteko aurkakotasuna apala edo hutsa izan dutenak. Nabarmendu behar, azkenik, hirugarren sektoreko teorizazio nagusiak inguruabar honetatik ekoitziak izan direla.

Bigarren maila batean legoke eredu sozialdemokrata zeinak aurreko ereduaren kontrako konbinazioa agertzen duen: ongizate-politiken sistema hedatua eta hirugarren sektoreko erakundearen egiteko mugatua. Herrialde horietan langile-klasearen mugimendu indartsuak aurki litezke, baita horiek bestelako gizarte-esparruekin lorturiko koalizio esanguratsuak ere. Nolanahi ere, hirugarren sektoreko erakundearen funtzioa ongizate-

zerbitzuen esleipenean oso bazterrekoa izan arren, horrek ez du esan nahiko sektore ahula espero behar denik; aitzitik, hirugarren sektoreko erakundeek oraindik orain presentzia aktiboa dutela egiaztatzen da, ez hainbeste hornitzaile funtzioan, baizik eta gizarte-beharrizan politiko eta sozial ezberdinen kanalizatze erakunde bezala, finean.

Aurreko bi horiez gain bestelako bi eredu ere nabarmendu litezke, biak ala biak alde batera utziak izan direnak literatura ekonomikoaren *mainstream*-aren partetik.

Alde batetik eredu korporatibista dago, Esping-Andersen-ek (1990) erregimen kontinental edo kontserbadore gisa izendatu duena. Eredu honetan, estatuak “kausa komuna” egin izan du hirugarren sektorearekin, eta hargatik estatuak babestu izan duen sektorea da gizarte-elite konkretuen babesa eskuratzeko eta gizarte-babes zabalagoen aldarri erradikalak ekiditeko. Herrialde hauetan, hortaz, ez da harritzekoa izango landa-inguruetako elite eta elizak estatuarekin aliantzak ezarri izana, estatuak gidaturiko gizarte-babeseko politiketan hirugarren sektoreari funtzio esanguratsuak aitortuz. Datuen bitartez frogaturiko egitate horiek *mainstream*-ak predikaturiko aurkakotasun erlazioak auzitan jartzen ditu, gobernuen ongizate-gastu handiagoa hirugarren sektore zabalago batekin bat etortzen baita.

Azken eredu bat gehitzen diete aurreko hiru eredu estatista bat zehaztearekin batera. Aldagaien konbinazioak esfortzu publiko apala eta hirugarren sektore apala azaleratuko ditu, ez ordea “espresio minimoko” gobernuaren karira. Izatez estatu indartsuko herrialdeak dira, baina ez herrialde sozialdemokraten gisan langile klasearen aldarrikapenen gizarte-antolakunde gisa, baizik eta estatuaren mesedetan edo elite ekonomikoen mesedetan botere publikoa erabiltzeari muzin egiten ez diotenak.

Behin lau tipologia horiek ezarri ostean, Salamon eta Anheier-ek (1998) proposaturiko “gizarte-jatorrien teoriak” hirugarren sektorea eta sektore publikoaren arteko harremani gogozkielarik, ez dute harreman bakan eta linealik planteatzen, erregimenaren arabera harreman aldakorrak baizik: erregimen liberal eta sozialdemokratan bi sektoreen arteko aurkakotasun erlazioa da espero behar litzatekeena, halako moduz ezen bataren hazkundeak bestearen kaltetan joko lukeen; kontrara, erregimen korporatibista eta estatistan erlazio zuzena da itxarotekoa, non bataren hazkundeak edo murrizteak zentzu

berbereko aldaketa lekarkeen bestearengan ere. Lehen bi eredutan sektore alternatibo edo ordezkagarriak diren modu berean, azken bi eredutan sektore osagarriak lirateke.

Are, eginiko erkaketa lan enpirikoak azalduriko hipotesi horiek arrazoizko moduan betetzen dituela frogatua geratzen da⁴².

2.5.3 Ongizate-erregimenetan oinarrituriko bestelako berrikuspenak

Salamon eta Anheier-en (1998) “gizarte-jatorrien teoriaren” ondotik, hamaika dira ongizate erregimenen tipologiak hirugarren sektorea barneratuz osatze aldera eginiko proposamenak.

Rodriguez Cabrero-ren (2003) aburuz, bi dira funtsean, hirugarren sektorea eta estatuaren arteko harremanaren tipologia nagusiak: bata anglosaxoia, batik bat iparamerikarra, non hirugarren sektorea estatuarekiko sektore arrotza edo bereizia den, eta bestea, europarra, non hirugarren sektorea eta bereziki gizarte-ekintzako hirugarren sektorea ongizate-estatuari estuki lotuta garatu izan den, bere jaiotzatik hasita bere bilakabide osoan zehar.

Interesgarria, halaber, tradizio bikoitz honi buruz Leibfried eta Mau-k (2008) eskaintzen duten irakurketa: AEB-en kasuan, industrializazioa prozesua estatuaren ezarpenaren aurretik jazo izanak bi ondorio argi utzi ditu ongizateari dagokionean: lehena, interes-talde ekonomiko boteretsuak eratu izana estatua ezarri aurretik, eta ondorioz, behin (ongizate) estatua hedatzen hasiko denean, honen garabidea oso baldintzatua agertzen da interes-talde horien eskakizunetara. Gauzak honela, Europar gizarte-segurantza eta estatu-horniduraren bitartez ardazturiko ongizate-zerbitzuak, AEB-tan gizarte zibileko eragileen aldetik eskainiak izan dira. AEB-tan hirugarren sektorearen posizioa bere dimentsio ekonomikoak baldintzatu izan duen bezalaxe, esparru europarrean hirugarren sektorearen dimentsio politiko eta instituzionalak hartu izan du garrantzia handiagoa (Rodriguez Cabrero, 2003).

⁴² Espero zitekeenaren ildotik, eredu liberalean lerratzen dira Ameriketako Estatu Batuak eta Britainia Handia; eredu sozialdemokratan Suedia eta (neurri apalagoan) Italia; eredu korporatibistan Frantzia eta Alemania; eta eredu estatistan Japonia.

Bi izanik ere tradizio nagusiak, Rodriguez Cabrero-k (2003) azaltzen duenez ongizate-estatuaren nazioarteko alderaketa egiteko hirugarren sektoreak duen pisu eta garrantzia instituzionala kontuan hartu duten proposamen bat baino gehiago egin dira geroztik. Sailkapen horiek guztiak, finean, estatua eta hirugarren sektorearen arteko harremana bere alderdi bikoitzetik (politiko eta ekonomikotik) aztertzen duten aldagaien bitartez burutu izan dira.

Aipagarria da, zentzu horretan Sarasa-k (1995) eginiko ekarpena. Autoreak, Gidron et al-en (1992) proposamenak emaitza nahiko kontraesankorrak lortzen dituela esaten du, esaterako “elkarlan ereduko” multzo berean sartzen baititu AEB, Holanda eta Italia, eta “estatuaren nagusitasuneko eredu” berriz Suedia, Suitza eta Frantzia bezalako herrialde disparekoak. Era berean, Kuhnle eta Selle-ren (1992) ekarpenak sailkapen egokiagoa eskaintzen duela uste du, nahiz eta analisisan herren nabarmena egin ez baita kontuan hartzen nork eskaintzen dituen zerbitzuek, eta hortaz, zein motako botere politikoa eskuratzen duten xede horretara bideraturiko talde egituratuak.

Sarasa-k (1995), hortaz hiru irizpide hartuko ditu kontuan: i) zerbitzuak nork finantzatzen dituen; ii) nork eskaintzen dituen; iii) sektore pribatua eta publikoaren artean gizarte-politikak hitzartzeko dauden kanal instituzionalen existentzia eta nolakoa. Sailkapen irizpide horiek ezarrita, Sarasa-k (1995) estatua eta hirugarren sektorearen arteko harremanen lau “tipo-idealeko” eskema proposatzen du, neurri handi batean bateragarria Esping-Andersen-en erregimenekin, baina egiazki zentratuagoa herrialde bakoitzeko hirugarren sektoreko eragileen analisisan. Lau eredu horiek jarraian azaltzen direnak dira:

- i) Erregimen “renaniarra”: Alemania, Suitza, Herbehereak eta Austria leudeke talde honetan. Bertan, kutsu erlijiosoko hiruzpalau lerro ideologikotan lerrokatutako erakunde pribatu indartsuak ageri dira, oso zentralizatuak eta hierarkizatuak, hirugarren sektorean nola-halako oligopolio egoera bat dutenak. Erakunde horiek izaera ia publikoa dute, funts publikoetatik elikatzen baitira gehienez, eta gizarte-politiketan eragiteko berealdiko

indarra dute, estatu zentralizatuak izateaz gain “subsidiarioritasun printzipioaren”⁴³ arabera kudeatzen baitira.

- ii) Sistema “eskandinaviarra”: Norvegia eta Suedia lirateke herrialde paradigmaticoak. Bertako hirugarren sektorea ere oso egituratu eta zentralizatu dago, nahiz eta ez den ezberdintasun ideologikoen arabera antolatzen, baizik eta gizarte esku-hartze esparruen arabera. Alabaina, aurreko ereduari kontrajarriz, sistema honetan estatuak du nagusitasunezko papera, bera baita planifikatu, finantzatu eta hornitzen duena. Horrek ez du kentzen, alabaina, estatuak hornidura publikoa elkarte profesionalekin batera itunpean eskaintzea, eta kasu askotan, estatua bera izatea elkarte profesional konkretuen eraketa bultzatzen duena zerbitzu konkretu batzuk asetzeko⁴⁴.
- iii) Eredu “mediterraneo”: Espainia, Frantzia eta Italia kokatuko lituzke multzo honetan. Eredu honetan bi sektoreen arteko harremana “urruneko egokitze” gisa definitzen du. Herrialde horietan tradizionalki elkartegintza altruistan eliza katolikoak berebiziko indarra izan du, batik bat hezkuntza eta gizarte-zerbitzuetan. Bestelako elkartegintza laikoko espresioak, gizarte-ekonomiako eragileak hain zuzen, nahiko sakabanatuak eta ordezkariak sendorik gabeak izan dira⁴⁵. Finantzazioa subentzio publikoen bitartez bideratu izan da, baina kasu hauetan ez da estatua eta elkarten arteko kanal instituzional sendorik ezarri, zeinaren ondorioz horien arteko harremana sarri gatazkatsua, mesfidatia edo errezeloz betea agertu izan baita, eliza eta estatuaren arteko harreman ez beti adeitsuen (areago, harreman lehiakorren) eraginez.
- iv) Sistema “iparramerikarra”: multzo honetan Ameriketako Estatu Batuak litzateke erreferentzia nagusia nahiz eta beharrezko zuhurtziarekin jokatu,

⁴³ Sistema alemaniarra ezaugarritzen duen printzipio honen arabera, estatuak debekatua du gizarte-ongizateko esku-hartze esparruren batean hornidura publikorik ezartzea, baldin eta lehenago elkarteren bat existitzen bada hori egiten duena. Era berean, alderdi politikoen edo lerro ideologikoen bitartez egituratzen diren elkarte horiek, gizarte-politiketan duten monopoliozko egoera baliatzen dute estatuari etengabeko oposizioa egiteko, eta politika orokorreko gaietan ere eragiteko.

⁴⁴ Herrialde eskandinaviarretan aldebiko harremana da egiazki ematen dena: gizarte zibiletik eratutako elkarteak izan dira neurri handi batean ongizate-estatuaren garapenean gehien eragin dutenak (Kuhnle eta Selle, 1992), nahiz eta egia izan, orobat, estatua bera izan dela kasu askotan elkarteak sortzea bultzatu duen eragile nagusia. Edozein kasutan, ekimen pribatuko elkarteak eskuarki botere publikoek xurgatuta amaitu ohi dute.

⁴⁵ Herrialde horietan elizak modernizazioaren aurka jokatutako papera esanguratsua den bezala, esanguratsua da halaber ideologia errepublikazaleak azaldu duen jite estatualista, zeina errezeloz betea baitzegoen nagusiki elizak (baina baita anarkismoak ere) kontrolatzen zuen elkartegintzaren fenomenoaren aurrean. Guzti horrek ekarri du bi sektoreen arteko harremana lehiakorra izatea, mesfidantzaz betea eta klientelismo politikoko kutsua izatea.

bestelako herrialde anglosaxoietera ere heda liteken eredia, Kanada, Britainia Handia, Australia, Zelanda Berria, etab. Bertan hirugarren sektorea identitate etniko eta erlijiosuen ardatzean egituratzen da, batik bat tokiko mailan. Finantzazioaren zati bat estatuak ordaintzen badu ere, beste ezein eredutan baino iturri garrantzitsuagoak lirateke dohaintza pribatuak eta merkatuko salerosketetatik eratorriak. Azkenik, ez da existitzen inolako onarpen publikorik, ez eta gizarte-politikak adosteko kanal instituzionalik ere⁴⁶.

Sarasa (1995) bere analisiaren amaieran, Rodriguez Cabrero-k (2003) erdietsitako ondorio berera iristen da: funtsean bi eredu nagusi baino ez dira, bata europarra, kultura estatalista batean oinarritua eta bestea anglosaxoia, betidanik orientatu izan dena gehiago zerbitzuen kontratazio eta ituntzera, eta ondorioz hirugarren sektorearen portaera komertzialago batera. Herrialde europarretan aldiz, esan bezala, estatalismoaren hiru aurpegi bereiz litezke: hirugarren sektore zentralizatu eta indartsua duten kasutan, horiek estatuaren planifikaziopean garatu daitezke (eskandinaviarra) edo are, zerbitzu hornitzaileak izateaz gain estatuaren aurrean presio-talde indartsuak izan daitezke, estatuaren gizarte-politika bera baldintzatzeko gai direnak (renaniarra). Azken talde batean bi eragileen arteko harreman ambigua ageri da, non hirugarren sektorea publikoki aitortua den arren mesfidantzaz begiratua baita.

Rodriguez Cabrero-k (2003) gai honen inguruan gerora eginiko sailkapen nagusiak jasotzen ditu, hein handi batean Sarasa-ren sailkapenaren ildo beretik doazenak. Abrahamson-ek (1995) lau erregimenak tradizio politiko-ideologiko nagusien arabera banatuko ditu (katolikoa, kontserbadorea, liberala eta sozialdemokrata); Gomá-k (1996), eredu korporatibo, unibertsal, bazterrekoa eta tradizionala bereizten ditu, funtsean Esping-Andersen-en sailkapenari eutsiz. Kendall-ek (2001) bere aldetik, Sarasa-ren analisiaren aldagai bera jasoz, sailkapena hirugarren sektorearen heldutasuna eta instituzionalizazio graduaren arabera egiten du, baina bigarren aldagai bat gehituz: honek politika estataletan zein dimentsio europarrean duen eragiteko ahalmena

⁴⁶ Herrialde anglosaxoiak eliza eta estatuaren arteko bereizketa zurruna ezarri izan dute betidanik, zeinak ekarri duen gobernu ahuleko sistema izatearekin batera gizarte zerbitzuen esparruan mota guztietako talde komunitario erlijiosu eta etniko sortu izana. Sistema honetan hirugarren sektoreak inon baino autonomia handiagoa du estatuarekiko.

ebaluatuz, alegia. Honela, hirugarren sektore helduko herrialdeak, eta aldi berean politika estatal zein europarretan eragiteko ahalmen handiko herrialdeak Alemania eta Herbehereak lirateke; Frantziak, Belgikak, Britainia Handiak eta Irlandak heldutasun handiko baina eragin europar ertaineko multzoa osatuko lukete, eta Europa hegoaldeko herriek, oro har, hirugarren sektore ahula agertuko dute, berdin maila estatalean eta are maila europarrean ere.

Proposamen horien guztien artean Laville et al-ek (2001) eginiko analisia nabarmenduko genuke, aurrekoei balio erantsiren bat gehitzen dien neurrian. Autoreok, hirugarren sektorea eta estatuaren arteko harremanak aztertzeaz gain, azken urteetako joera berritzaileen hurbilketa bat egiten dute, bereziki aproposa dena marko teoriko honen 3. kapitulua kokatzen hasteko. Modu oso sintetikoan laburtuta, autoreok erregimen bakoitzean joera berritzaile nagusi batzuk antzematen dituzte: i) eredu unibertsaleko herrialdetan (herri eskandinaviar edo sozialdemokratetan, alegia), estatuaren zentraltasuna auzitan jartzen duen gizarte-zerbitzuen kooperatibizazio prozesu hazkor bat antzematen dute; ii) eredu liberaleko herrialdetan (herri anglosaxoietan, alegia) gizarte-politikaren esparru zabalak esparru pribatuaren (merkantil zein mozkinenez besteko) eskutan laga ostean, mozkinenez besteko erakundeak gizarte-ekonomiako enpresen formak hartzen hasiak dira; iii) Europa hegoaldeko herrialdetan (eredu dualean), hirugarren sektoreak dimentsio hazkunde nabarmenak bizi izan ditu azken urteetan, batik bat bere esparru tradizionaletan (desgaitasuna duten pertsonen laneratze edo adineko pertsonen zaintza zerbitzuetan) enpresa pribatuaren sarrera indartsuk lehia bizia ezarri baitu; eta, azkenik, iv) eredu korporatiboko Europa kontinentaleko herrialdetan ere joera antzekoak agertzen ari dira hirugarren sektore esperientzia berritzaileak agertzen ari baitira zaharren zein haurren zaintza-zerbitzuen esparruan.

Sailkapen proposamen eta azken aldiko prozesu berritzaile horien guztien balorazio orokorra egite aldera, Rodriguez Cabrero-k (2003) ateratako konklusio nagusiekin itxiko genuke atala. Alde batetik, i) jarraikortasun historiko (*path dependency*) argi bat antzematen da hirugarren sektoreko eragileek azken bi mendetan herrialde bakoitzean izandako bilakabidean, zeina oso-osorik lotua dagoen tokian tokiko ongizate-estatuaren eraikuntza historikoaren garapenarekin; ii) ongizate-estatuaren XX. mendeko azken

laurdeneko berregituraketa prozesuaren baitan, hirugarren sektorearen birloratze eta hedapen izugarri bat antzematen da bereziki gizarte-ekintzako esparruan. Berragerpen hori ez da soilik ekonomikoa izan, gizarte-zerbitzuen ekoizpenaren bidetik, baita instituzional eta politikoa ere, gizarte-erakundetze eta parte hartze formula berriak eskainiz. Eta, iii) mende berrian sartzearekin batera, hirugarren sektoreak bizi izandako loraldia neurri batean moteldu egin dela baieztatu liteke, batik bat esparru merkantilak erdietsitako hedapenaren ondorioz, zeinak derrigortu egin dituen hirugarren sektoreko eragileak harreman modu berriak frogatzera enpresa pribatu zein estatuarekin.

2.6 Laburbilduz

Bigarren kapitulu honetan jorraturiko puntu ezberdinen artean, honakoak nabarmenduko genituzke:

1.- Gizarte-ekonomiaren izaera (eta hortaz, definizio) ezberdinak oso loturik agertzen dira honek herrialde bakoitzean (nagusiki) estatuarekiko harremanean izan duen posizio edo botere harremanari. Horixe da gure berrikuspen kontzeptualaren hipotesi nagusia eta lehen hiru atalen bidez frogatzen ahalegintzen ari gara. Estatuarekiko harremanak eraginik baduen ala ez aztertzeo, beraz, beharrezkoa da analisi sektorialak egin dituzten egileetara jotzea, hots, gizarte-ekonomia bere horretan aztertzeo harago, estatuarekiko harremanean aztertu dutenengana jotzea, eta horretara dator bigarren kapitulu hau. Analisi sektorial horietako terminologiara egokitzeko, eta beharrezko argipenak eman ostean, hirugarren sektore adiera hobetsi dugu gizarte-ekonomia kokatzen den esparru sektorialari erreferentzia egiteko adiera baliagarritzat jota.

2.- Gizarte-ekonomia eta estatuaren arteko harremanaren inguruko analisiak gutxiengo batean aztertu izan dira kudeaketa publikoaren ikerlarien aldetik, eta are gutxiago ongizate-estatuaren teorialarien aldetik. Honela, ongizate-estatuaren teorialarien artean ikusi den bezala, gehienak hirugarren sektorea fenomeno aurre-moderno edo anakronikotzat jotzen dute, ongizate-estatuaren garapenarekin batera desagertzera joko lukeen egitate gisa. Bestalde, azken bi hamarkadetan erreferentziazko tokia gorde izan duen ongizate-erregimenen ikuspegiak ere, ezikusi argia egin izan du

hirugarren sektoreari dagokionean, ez baitu analisirako aldagai gisa ere kontsideratzen, teorizazio horietan eragingo ez lukeen errealitate ez esanguratsu gisa hartuz.

3.- Ongizate-estatuaren eta oro har gizarte-ongizatearen analisietan hirugarren sektorea ez aztertzeak sortzen duen hutsunea betetzera etorri dira, hortaz, hirugarren sektoreko teorialariak, nagusiki azterketa guk proposatzen dugun ardatzetik planteatuz: hirugarren sektoreak estatuarekiko izaniko harremanaren ikuspegitik, alegia. Zentzu horretan, eta teoria horiek guztiak bi multzo handitan bereizi behar izanez gero, bi motako ekarpenak nabarmendu ditugu: harreman hori lehiatzeko harreman gisa ikusten dutenak, batetik, eta elkarmenpekotasun terminoetan hautematen dutenak, bestalde.

4.- Hirugarren sektorea eta estatuaren arteko harremana lehiatzkotzat (*zero sum*) dutenen artean, AEBtako ekonomialari neoklasikoen ekarpenak nabarmentzen dira, 1. go kapituluaz aztertutako Mozkinen Besteko Erakundearen ikuspegiaren lerratuak liratekeelarik gehienak. Horien aburuz, ez estatuak eta ez merkatuak ase ezin dituzten merkatu nitxo batzuk hornitzeko eragile egokiena litzateke hirugarren sektorea, eta hortaz azken hau aurreko bien gautzatze-akatsen ondorioz justifikatuko lukete. Estatu-akatsen artean, gizarte oso heterogeneoetan estatuak giza talde guztien beharrezkoak asetzeko duen gaitasun faltaren argudioa nabarmentzen da, eta merkatu-akatsen artean, berriz, informazio-asimetrien aferak hirugarren sektoreko erakundeak erakunde garantista edo eraginkorragoak bilakatzen dituela uste da. Bi kasuetan beraz, hirugarren sektoreak beste bi sektoreek estaltzen ez dituzten esparruak beteko lituzke, sektore independentea litzateke hortaz, eta harremana osagarritasun terminoetan ulertu beharrean, lehia terminoetan ulertzen da, uste baita hirugarren sektoreak soilik hartzen duela parte lehen bi sektoreek huts egiten duten kasuetan.

5.- Orain arte azalduriko argudio horien guztien berrikuspenean Salamon-ek eginiko lan oparoa azpimarratu dugu kapituluaz. Ekonomialari neoklasikoen teoriaren aurrean, Salamon-ek bere nazioarteko ikerketa lan alderatuetatik bi ondorio ezberdin ateratzen ditu: lehenik, hirugarren sektorea eta estatuaren arteko harremanak oso mota ezberdinekoak direla azpimarratzen du, eta harreman moduren bat orokortu behar balitz, hori lankidetzazko harremana litzatekeela ere aipatzen du, nagusiki hirugarren sektoreko erakundeak izan ohi dituzten ahulezia batzuek (*voluntary failures*) hartara beharturik. Bigarren ondorioa, metodologikoagoa dena, ekonomialari neoklasikoen sakoneko axiomak zalantzan jartzen dituen da, Salamon-ek uste baitu hirugarren sektorearen existentzia ezin dela gizabanako arrazionalen merkatuko aukera (edo eskari funtzio)

gisa interpretatu. Aitzitik, hirugarren sektoreak herrialde bakoitzean duen izaera (eta beraz ezaugarritzea) bestelako gizarte-egitura orokorragoen (eliza, langile mugimendua, estatua) garapenaren baitan ulertu behar dela defendatzen du, hauek nolabaiteko *path dependency* edo menpekotasun historikoak eranstean baitizkiote hari.

6.- Salamon-ek Esping-Andersen-ek proposaturiko ongizate-erregimenen berrikuspena ere egiten du, analisi alderatu horietan gizarte-gastuaren tamainaz gain hirugarren sektorearen dimentsioa ere barneratzen duelarik aldagai gisa. Analisi horretatik lau erregimen ezberdineko marko teorikoa proposatzen du, erregimen liberala, sozialdemokrata, korporatibista eta estatistak osaturikoa, hain zuzen ere. Funtsean Esping-Andersen-en sailkapen hirukoitza ezeztatu baino, osatu egiten duela iruditzen zaigu, erregimenak ezberdintzeko hirugarren sektorea aldagai determinante gisa kontsideratu arren, sailkapena aldatu baino, ezaugarri berriez hornitzen baitu. Honela, erregimen liberala eta korporatibista hirugarren sektore indartsua izateagatik (ere) bereiziko lirateke gainerakoengatik, lehenengoan hirugarren sektorea estatuarekiko lehiatzeko harremanean garatu den bezala, bigarrenean hirugarren sektorea estatuak babesturiko sektore gisa garatu delarik. Erregimen sozialdemokratan aldiz, sistema publiko zabaleko herrialdeak izanik, hirugarren sektoreak dimentsio apalagoa ageri du zerbitzu hornitzaile gisa, nahiz eta gizarte-beharrizan politiko eta sozialen kanalizatzaile gisa baduen bere tokia.

7.- Salamon-en berrikuspen horrez gain, Sarasa-k eginiko proposamena ere nabarmendu nahi izan dugu, neurri batean hobeto egokitzen delako doktorego tesi honetan gure testuingururako defendatzen ari garen hipotesira. Sarasa-k uste du badela laugarren erregimen bat, iparamerikar, renaniar eta eskandinaviarraz apartekoa, erregimen mediterraneo gisa definitzen duena eta non kokatuko ginatekeen gu geu ere. Honela, ongizate-erregimenen analisisian defendatu dugunaren ildotik, iruditzen zaigu Espainiak badituela berezko zenbait ezaugarri eredu kontinental-kontserbadoretik urruntzen dutena, horietako bat izanik hirugarren sektorearen errealitatea bera ere. Sektore honek Espainian bi adierazpide nagusi dituela ondorioztatzen du, bata elizari lotua eta mozkinaz besteko erakundeez osatua eta bestea elkartegintza laikoaren ildokoa eta gizarte-ekonomiaren esparruan kokatzen duena. Hirugarren sektore hau estatuarekiko harremanean nagusitasunezko posizio batean kokatzen urrun (eredu kontinentalean gertatzen den gisan) errezeloz beteriko elkar hartze mesfidati baten testuinguruan garatu da.

8.-Kapituluko ondorio orokor gisa beraz, bi ideia azpimarratuko genituzke: lehenik, *path dependency*-aren ideiarri lotuz, gizarte-ekonomiak egun duen ezaugarritzea historikoki eman diren gizarte-prozesu ezberdinen ondorio gisa ulertu behar litzatekeela iruditzen zaigu, eta bigarrenik, baldintzapen historiko horiek hor egonik ere, errealitate horiek funtsean dinamikoak direla uste dugu, hurrengo kapituluan frogatuko dugun moduan, sektore horietako batean gertaturiko aldaketek gainerako sektoreetan ere eragiten baitute, gizarte-ekonomiaren definizioa etengabeko berrikuspen premian jarritz.

3 KAPITULUA: ONGIZATE-ESTATUAREN BERREGITURAKETA ETA HONEN INPLIKAZIO TEORIKOAK GIZARTE EKONOMIAN

Hirugarren kapitulu honen bitartez, orain arte garatu ditugun bi kapitulutan ezarritako oinarriak azken bi hamarkadatan nola eraldatu diren azertu nahi dugu. 2. kapituluan aztertutako teoria ezberdinak, besteak beste “Hautu Instituzionalen teoria”, “Ongizate-erregimenen teoria” edota “Gizarte-jatorrien teoria”, ongizate-estatuaren eredu keynesiarraren ereduari loturiko errealitateen azterketatik eratorritako teoriak dira guztiak ere.

Paradoxikoa dirudien arren, XX. mendeko 70eko hamarkadan, gizarte-ekonomiaren teorizazio garaikidea garatzen hasi zen epealdi berean, pixkanaka pixkanaka ongizate-estatu keynesiarraren zutabeak sakonki eraldatu zituen prozesu sozio-ekonomikoa abiatu zen mendebaldeko gizarteetan. Bi prozesu horien aldiberekotasunaren kausaz, aurreko bi kapitulutan garaturiko corpus teorikoak ongizate-estatu keynesiarraren krisiaren aurreko errealitatearen testuinguruan garatuak dira. Kointzidentzia historiko horrek orain arte landuriko bi ikerketa ildo nagusien berrikusketa edo eguneratzearen premia sortu digu. Helburu hori betetzera dator jarraian aurkezten dugun kapitulua.

Honela, lehen hurbilketa batean ongizate-estatu keynesiarraren krisiaren koordinatu nagusiak azalduko dira, gure arreta gunea horren ondorioz geratu den berrantolaketa instituzionalaren esparruan kokatuz. Aipaturiko berrantolaketak, bai ongizate-estatuaren esparruan kokaturiko teoriak eta baita gizarte-ekonomiari loturikoak ere berrikustea eskatzen du. Horri erantzunez sortu diren ekarpen berri nagusiak aipatuko dira, hortaz, elkarren hurrenkeran: lehenik, ongizate-estatuaren esparruan sektoreen zehargarritasunetik abiatuz proposatu diren ekarpenak jasoko dira, “Ongizate mistoaren” ekarpena nabarmenduko dugularik horien artean. Bigarren lekuan, gizarte-ekonomiaren baitan garatzen joan diren hurbilketa berritzaileak jasoko dira, batik bat “Enpresa Soziala” eta “Ekonomia Solidarioaren” deituen pean garatu diren teoriak erreparatuz.

3.1 Ongizate-estatu keynesiarraren krisia eta berrantolaketa instituzionala

3.1.1 Ongizate-estatu keynesiarraren krisia: welfare state-tik workfare state-ra

Ongizate-estatuaren krisia deitu izan zaionaren atzean mota askotako iritziak plazaratu izan dira. Iritzi horien bi muturretan leudeke alde batetik ongizate-estatu aparatua burokratiko moduan desagertzera kondenaturiko instituzio gisa kontsideratzen dutenak, eta beste aldean, estatuak oraindik orain eta azken urteetan emaniko aldaketen gainetik zentraltasuna izaten jarraitzen duela diotenak. Era berean, ongizate-estatu gizarte-egitate gisa alderdi eta diziplina ugarititik aztertu izan denez, ongizate-estatuaren krisiaren kausez dihardutenen artean ere askotariko azalpenak aurkitzen dira: krisiaren jatorria eraldaketa ekonomikoetan kokatzen dutenak (Castells, 1997; Mishra, 1999,...) plano ideologiko eta kulturaletan finkatzen dutenak (Alvarado, 1998), krisiaren alderdi sozio-politikoei erreparatzen dietenak (Rosanvallon, 1995; Navarro, 1997), krisi fiskalaren bidetik irakurketa instituzionala burutzen dutenak (Offe, 1990; Adelantado, 2000), edo guzti horiez gain eztabaida plano filosofikora altxatzen dutenak (Schmidt eta Goodin, 2000; Nozick, 1988)⁴⁷.

Ongizate-estatuaren krisia bere osotasunean aztertzeak analisi xehatu eta zabala eskatuko luke, eta ez da hori lan honen xedea. Azalpen horien guztien artean, gure arreta batik bat faktore endogenoetara bideratu nahi genuke, onartuaz jakina aldagai horiek beste hainbat kanpo-faktoreren testuinguruan soilik uler litezkeela. Honela, gure ikerketa esparrua are gehiago mugatuaz, delako krisi horren ondorioz ongizate-estatuaren baitan jazotako berrantolaketa instituzionala da arakatu asmo duguna, batik bat merkatuak, gizarte zibilak eta familiak oreka (edo desoreka, nola begiratzen den) berri horretan duten kokapenari kasu eginez, eta azterketa enpirikoan burutuko dugun gizarte-zerbitzuen analisisirako lehen pausoak emate aldera.

Gure analisi ildoarekin bete-betean bat egiten dute, horrela, Rodriguez Cabrero-ren lanek (2004). Autore honen iritzian azken hiru hamarkadetan ongizate-estatuaren garapenean emaniko krisia ez litzateke gizarte-babeserako sistemen uzkuartzearen optika

⁴⁷ Ongizate-estatuaren krisiaren ohiko azalpenen laburpen oso eta argigarria irakur liteke euskaraz Aitziber Etxezarretak *EAE-ko etxebizitza sistema eta politika Europako testuinguruan* izenburupean eginiko doktorego-tesian (Etxezarreta, 2008)

murrizetik soilik irakurri behar, testuinguru orokorrago baten baitan baizik. Estatuak, beraz, gizarte-babesean atzeraldian sartzeaz bat orain arte ezarritako gizarte-ongizatearen ekoizpenaren banaketa tradizionalen zuen zentraltasuna galdu du. Honela, azken urteotan banaketa konplexuagoa eratzen joan da, gizarte-egituraren ehuna eraldatu duten aldagaiei (lan-merkatuetako gizarte-zatikatzeko handiagoa, emakumearen enplegatze progresiboa edo familia eta bizikidetzaren unitateen rol berriak, esaterako) merkatuaren protagonismo handiagoa gehitzen zaielarik.

Panorama berri horretan, estatuaren egiteko tradizionalen aldaketak gertatu dira batik bat ekoizpen-funtzioak delegatzearen bidez, nahiz eta erregulazioa eta finantzazioa neurri handi batean estatuaren eskumenekoak diren oraindik. Ongizate-estatuaren eraispenaz baino, beraz, beronen berregituraketa instituzional eta berrorientatze ideologikoz hitz egitea egokiagoa litzateke. Berrantolaketa honen muinean Rodriguez Cabrero-k (2004) sakoneko hiru eraldaketa prozesu nabarmentzen ditu: i) ekoizpen sistema fordistaren oinarrien eraldaketa, ii) ongizate-estatuaren barne segmentazioa, eta iii) gizarte-balioen eskala berria.

Metatze-erregimen fordistaren krisia 1973tik aurrera gertatu zen, ordura arteko hazkunde erdua eta lan-merkatuaren antolaketa suntsitzearen eskutik etorri zelarik ongizate-estatuaren eredu keynesiarraren haustura ere. Adelantado-k (2000) sakoneko krisi ekonomiko horren hiru aldagai nabarmentzen ditu: i) eredu teknologikoaren akidura, ekoizpen estandarizatuaren errentagarritasun beherakorrek eraginda; ii) eredu energetikoaren krisia, petrolioaren garestitzearen eskutik, eta; iii) lan-eredu fordistaren haustura, lanaren banaketa tekniko eta espezializazio funtzionalaren eraginkortasun faltak eraginda. Lan-munduko aldagai horiei, beste zenbait gehituko zaizkie: estatuaren diru-sarreraren uzurtzea, krisi fiskala, defizit publikoa eta inflazioa. Aldaketa horien guztien konbinazioak ordura arteko hazkunde ereduaren akidura edo etetea ekarri zuen, eta hedaturaz, baita ongizate-estatuaren funtzionaltasuna auzitan jartzea ere.

Esfera ekonomikoan emandako haustura horiek, lan-merkatuetan gizarte-zatiketa konplexuagoa ekarri zuen, eta horrek bere aldetik ongizate-estatuaren segmentazio handiagoa (Rodriguez Cabrero, 2004). Honela, ordura arteko “estatu bakar” hori gutxienik hiru estatutan zatitu zen: ongizate-estatu lan finkoko langile eta klase

ertainarentzat, estatu asistentziala langabe, langile prekarizatu eta pobre gizarteratuentzat, eta estatu-liberala gainerako baztertuen kontrolerako. Lan-merkatuaren zatiketa handiagoak ziurtasun ekonomiko, kontsumo maila eta gizarte-babes behar ezberdineko langileak sortu ditu eta horrek bere isla izan du gizarte-babeserako sistemen dualizazioan ere. Gizarte-babesaren uzkurdua beraz, ez da soilik politika ekonomiko murrizkorren kausaz izan, baita estatuen baitan eskubide sozialak gauzatzeko eman den gizarte-diferentziazio hazkorraren emaitza ere.

Azkenik, eta hirugarren plano batean, gizarte-balioen aldaketak ere eragin du ongizate-estatuaren berregituraketan, balio horiek irizpide kolektibo eta publikoak sostengatzetik, norbanakoaren eta esparru pribatuaren defentsan kokatzera igaro baitira. Ongizate-estatuaren izaera burokratikoa modu irekian kritikatu izan da, esku hartze publikorako eredu berriak (deszentralizatuagoak, indibidualagoak, parte hartzaileagoak) proposatzen joan direlarik.

Lewis-ek (2004), zentzu horretan, ekarpen interesgarriak egiten ditu gizarte-balioen mailan emandako aldaketek gizarte-politiken diseinuan izaniko eraginei buruz. Honen irudiko, ongizate-estatuaren berregituraketa instituzionala printzipioen birplanteamendu batean oinarritzen da: “erantzukizuna” nabarmentzea “eskubideen” ordez, eta “aukera berdintasuna” bultzatzea “gizarte-prestazioen” sistema mantendu beharrean. Printzipio aldaketa honetatik abiatuz garatu dira “ongizate-estatu aktiboa” (pasiboaren aurka), “ongizate-estatu ahalbidez-zailea” (*enabling state*, estatu ongizate-emailearen aurka) edo *workfare state* moduko izendapen berriak. Printzipio berri horien arabera diseinaturiko gizarte-politiken aplikazioak bi ezaugarri nagusi agertu ditu: alde batetik, gizarte-hornidurako partidak (pentsioak, langabezia prestazioak, etab.) berrikustea, murrizketaren aldeko politikak eramanez kasurik gehienetan. Beste aldetik, gizarte-babeserako prestazio publikoen murrizketarekin batera, gizarte-horniduren esparruan “merkantilizazio” prozesu hazkorra gauzatu da. Modu honetan, merkatuko eragileek (mozkin asmodun zein mozkin bezalakoak) parte hartze handiagoa dute orain arte publikotzat jotzen ziren zerbitzuen esleipenean, eta are, merkatuko printzipioak ezarri joan dira sektore publikoaren kudeaketa eremuan ere (*new public management* deiturikoa).

Prozesu zabal honek atzetik bulkada ideologiko argia agertzen du Lewis-en (2004:178) hitzetan, globalizazio neoliberalaren diskurtsoa nagusitu baita moneta-politika eta zerga-politikan bezalaxe, baita gizarte-politiken formulazioan ere: hornidura pribatua publikoaren aurretik, merkatuaren arabera esleipena beharizanen arabera bainoago, hornidura selektiboa unibertsalaren ordez, ordainketa pertsonalizatua zerga-bilketan oinarrituriko finantzaketa beharrez, deszentralizazioa planifikazio zentralistaren ordez, etab. Honen ondorioz, *workfare* eredu berri honetako gizarte-politiken filosofian, gizarte-onuren aitortzea nola halako kontraprestazioekin baldintzatzen da, trukean prestakuntza edo komunitaterako lan orduak eskatuz, esaterako. Funtsean, beharizanak jotako norbanakoari lan-merkatuarekiko engaiamendu handiagoa eskatzen zaio gizarte-babeserako prestazioen onuradun izan nahi badu.

Laville et al-ek (2001) eredu berri honen ezarpenean bi fase bereizten dituzte: lehen fase batean 80ko hamarkadan “tutoretzapeko gizarteratze-erregulazioa” jarri zen abian, bigarren une batean, 90etik aurrera, “erregulazio lehiakor subentzionatu” batetara igarotzeko. Lehenik, beraz, “tutoretzapeko gizarteratze-erregulazio” edo “desenpleguaren trataera sozial” gisa deituriko ongizate-politika horiek gizarte-politika tradizionalaren eta enplegu-politiken tartekotzat jotzen dituzte. Politika horietan, enplegua gizarteratzeko funtsezko elementutzat aintzatesten da, eta estatuaren egitekoa beharizana duten horiei prestazio eta zerbitzuak eman beharrez, lan-kontratuak eskaintzean datza⁴⁸. Modu honetan, lehen fase honetan estatua “kontratatzaile” papera betetzera igaro zen, “merkatu sozialak” bultzatu eta horiek lehiatik babestuz eta erakunde publikoek edo mozkinak besteko hirugarren sektoreko eragileek baliatuz langabe horien lan-gizarteratzea bideratzeko.

Bigarren fase bat antzematen dute ordea *workfare* eredu honen ezarpenean, batik bat herrialde korporatistetan (Frantzia, Alemania, Belgika, etab.) tutoretzapeko erregulazioak sorturiko arazoei erantzun bat eman asmoz: “erregulazio lehiakor subentzionatuko” ereduak jarri baitzuten martxan, hain zuzen ere. Eredu berri honetan,

⁴⁸ Egileek onartzen dute politika hau modu disparekoan ezarri zela “ongizate-erregimen” ezberdinetan: Britainia Handian ezarri zen lehenik eta modurik sakonenean, erregimen korporatistako herrialdeetan ezartzen hasi zen 80ean, eta beranduago berriz erregimen kontserbadoreko edo dualeko herrialdeetan, mediterraneoetan, alegia. Egileen iritzian, berriz, prozesu honek eragin apalagoa izan zuen (hasiera batean) erregimen sozialdemokratadun herrialde eskandinaviarretan (Laville et al, 2001).

merkatu “sozialak” sortu eta babestu beharrean, merkatu horiek izaera ezberdineko hornitzaileei (pribatu, publiko, mozkin ez besteko) ireki zaizkie, eskaintza beraien arteko lehiaren esku utziaz. Politika publikoak, honela, soilik eskaintzaren gain eragin beharrean (hornikuntza-egiturak sortu eta finantzatzuz) eskariaren gain ere eragin nahi dute, kontsumitzaileen eros ahalmenean zuzenki eragiten duten diru laguntzak emanaz. Eskaintzaren aldeko politiketan subentzioak kontratu-bidez eginiko akordioengatik ordezkatzeko joan dira. Funtsean, ongizate-estatu eredu berri honek kontsumitzailearen aukeratzeko askatasun handiagoan eragin nahi du, gizarte-prestazioen pertsonalizazioan hobekuntzak sartzeko hornitzaile kopurua (eta horien arteko lehia) handituz eta erabiltzaileen eskaria diruz lagunduz.

3.1.2 Ongizate-erregimenetatik “erregimen europar” bakar baterantz?

Oraintsu zirriborraturiko argudio-ildoei ondotik, prozesu sozio-ekonomiko antzerakoak arestian landuriko ongizate-erregimen guztietan berdin antzera gertatzen ari direla egiaztatzeak, erantzunak ere molde berekoak izaten ari ote diren galdetzera eraman gaitzake. Ascoli eta Ranzi-k (2002), zentzu horretan, 80ko amaieran eta 90eko hasieretan ongizate-estatuaren inguruko kuestionamendua oso ikuspegi ekonomizistetatik egiten hasi zirela nabarmentzen dute, gizarte-arrisku berriei “eraginkortasunik eta hedapenerako marjinarik gabeko erakunde publiko hipertrofiatuen” bidez nola aurre egin eztabaidatzen ari baitziren. Gizarte-arrisku berri horien izaerak, halaber, ongizate-politikarako mekanismo tradizionalen eraginkortasuna ere zalantzan jartzen zuen, errenta-transferentzietan oinarrituriko sistemetatik (pentsio sistema, gizarte-segurantzak, etab.) zerbitzu publikoen hedapena lehenesten zuten politiketara desplazatuko delarik diskurtsoa.

Erronka berri horiei herrialde europarretan ia ahobatezko moduan politika privatizatzaileen bidez aurre egin zitzaien, bi norabide nagusitan eraginez: i) sistema publikoaren berrantolaketa, batetik, esparru honen kudeaketan merkatuko kudeaketa mekanismoak barneratu zirelarik eta; ii) ongizate-zerbitzuen hornikuntzan eragile pribatuak barneratuz bestetik, izan horiek mozkin asmodun ala mozkin ez besteko (Ascoli eta Ranzi, 2002). Era berean, eta azken neurri horri lagunduz, hornitzaileen eskaintza handiago baten aurrean aukeratzeko gaitasuna izan zezan, eskari hori

finantzatzerako bideraturiko laguntza publikoak ere (zuzeneko laguntza bidez edo kenkari fiskalak medio) martxan jarri ziren.

Autore batzuen iritziz, hortaz, 90eko hamarkadako erronka berri horien aurrean herrialde ezberdinetan harturiko neurriak antzerakoak direla ikusirik, ongizate-erregimenen arteko konbergentzia prozesu bat edo ongizatearen “eredu europar komun” bat definitzen joan ote den ikusi behar litzateke.

Esping-Andersen-ek (2002) aztertzen duenaren arabera, estilo honetako bidegurutzeak lehenago ere ezagutu dira, denak ere nazioarte mailako eztabaiden bitartez burutu direnak, eta ez direnak beti neurri pribatizatzaile hutsen bidetik joan. Gutxienik lau momentu historiko nabarmentzen ditu: lehen gizarte-erreforma bismarckiarraren garaia, non mundu osoko herrialdeek eredu germaniarraren egokitasunaz jardun baitzuten (baita zenbaitzuk bete-betean indarrean jarri ere, Japoniak esaterako). Honen atzetik, bigarren gizarte-erreforma handia Gustav Moller, Franklin Roosevelt eta Lord Beveridgeren bultzadaz etorri zen, gerora “eredu beveridgearra” moduan ezagutu denaren zutarriak jarritz.

Oinarriko bi eredu horiek modu sakonean birformulatu dituzten beste bi garai historiko azpimarra daitezke halaber, biek ala biek gizarte post-industrialaren erronka eta arrisku berrien formulazio alternatibo gisa aurkeztu zutenak euren burua: lehena, arestian aipaturikoa, 80ko hamarkadan, batik bat Hayek-en obrarengan inspiraturiko bigarren olde neo-liberala, gizarte-babesaren pribatizazioa, desarautzea eta indibidualismoa bezalako balioak sustatu zituen. Garaiko arazoaren iturburu nagusitzat gerra-osteko ongizate-estatu erraldoiaren eraginkortasun gabezia joz, merkatuaren nagusitasuna defendatzen zuten, hau gizarte-ongizatearen esleipen-mekanismo egokiena dela iritzita.

Honen atzetik garai post-industrialeko bigarren birformulazioa 90eko “Hirugarren Bidearen” eskutik etorri zen, osteraz ere Britainia Handian baina oraingoan alderdi laboristaren zigiluarekin, zeinak neo-liberalismoaren doktrinaren alderdi batzuk bereganatzeaz batera (norbanakoaren ardura eta egitura lehiakorrago beharra), ardura

publikoko zenbait eginkizunen mantenua ere defendatu baitzuen (Giddens, 1999)⁴⁹. Oinarrizko ideia “ongizate aktiboaren” ideia litzateke, funtsean zera dioena: merkatuko jardueratik sorturiko gizarte-arrisku eta klase-ezberdintasunak merkatuaren bitartez konpon litezke, politika publikoek hiritar guztiek baldintza berdintasunean lehiatzeko oinarriak bermatuz gero.

Azken bi horiek izanagatik ere aplikazio unibertsaleko aspirazioarekin jaiotako bi proposamen indartsuenak, Esping-Andersen-ek (2002) aipatzen duenez harrera hotza izan dute batak zein besteak Europako herrialde gehienetan. Zenbaitentzat lehen proposamena erradikalegia zelako, beste zenbaitentzat berritik ezer gutxi zekarrelako (herrialde nordikoen kasuan Hirugarren Bideari erreferentzia eginez). Funtsean, harrera hotz horren atzean herrialde bakoitzaren berezkotasunen errealitate ekidinezina dago, arestian aipaturiko erregimen bakoitzak beharrian berriekiko azaltzen dituen abiapuntuko posizio ezberdinen afera, alegia.

Ildo beretik jarraitzen dute autore gehienek balizko “ongizate-politika europar” baten existentziaren ahultasunaz dihardutenean. Paper gaineko hamaika deklarazio, tratatu eta ebazpen ez-lotesleez harago, nekez aurki liteke Europa mailako herrialde guztietan aplikazio zuzeneko izan den aginpiderik. Gallego et al-ek (2003) Europar Batasuneko gizarte-politikei buruz eginiko analisisian bi aro nagusi ezberdintzen dituzte: lehena, 1957tik 1987ra artekoa politika europarren egiturazko ahuleziak ezaugarritzen du, eta bigarrena, batik bat Amsterdam-eko Ituna eta Luxenburgoko enpleguaren gaineko Gailurrak bultzatua (1988-2001), europartze erlatiboko garaitzat jotzen dute, Europar Batasunetik gizarte-politikei loturiko zenbait aurrerapauso eman baitziren.

Honela, gizarte-politika komun horiek batik bat hiru esparrutan eman zirela baieztatzen da: enplegu politikak, gizon eta emakumeen arteko berdintasun politikak eta gizarte-bazterketaren aurkako politikak, hurrenez hurren. Gizarte-kohesiorako programek ere garrantzia izan dute, aurrekontu garrantzitsuak bideratuz batik bat lan munduratzeko eta prestakuntza okupazionalerako esparruetara. Egileon irudiko, hortaz, ongizate-estatuak estatuaz gaindiko mailako gizarte-politiken dimentsio europar bat ere badute egun,

⁴⁹ “Hirugarren Bidearen” proposamenaren aitatasuna Anthony Giddens-en *The Third Way* (1999) liburuari aitortzen zaio. Interesgarria da, halaber, Vicenc Navarro-k ekarpen honi buruz eginiko analisi kritikoa, *Globalización económica, poder político y Estado del bienestar* (2000) liburuan.

estatuen eskumenen kontra doan eredu harmonizataileetatik urrun, integrazio estrategiko eta malguagoa bilatzen duten orientabideak markatzen dituen, eta neurri batean neoliberalismoak 80ko hamarkadatik aurrera indarturiko politika pribatizataileari nolabaiteko galga jartzen diona (Gallego et al, 2003).

Eztabaidarekin jarraituz, beraz, neurri pribatizataileen aldeko joera orokor bat antzeman litekeen arren, herrialde ezberdinen ongizate-politiken balizko konbergentzia hori bi ardatz ezberdinen elkarreraginak definituko duela uste du Esping-Andersen-ek (2002): alde batetik XXI. mendeko beharrizan eta gizarte-arrisku berrien identifikazioak eta bestetik, horien aurrean erregimen bakoitzak duen abiapuntuko posizioak.

Beharrizan berrien esparruan, autoreak lau politika-esparru makro nabarmentzen ditu: familia eta haurren zaintza, genero-berdintasuna, lan-bizitza eta erretiro-aldiko politikak, hain zuzen ere. Lau esparru horietako erronkei aurre egiteko, erregimen bakoitzean orain arte eman den banaketa instituzionalaren (familia, lan-merkatua, estatua) izaerak determinatuko du herrialde bakoitzaren abiapuntuko tokia eta egokitze gaitasuna⁵⁰.

3.1.3 Berrantolaketa instituzionalaren ondorioak: hirugarren sektorea eta sektore publikoaren arteko oreka berriak

Eraldaketa horien guztien ondorioz gizarte-politiken esparrua sakonki birplanteatu da, eta horrek bete-betean eragiten du gizarte-egituren antolamenduan, bereziki esparru instituzional ezberdinen arteko ardura banaketan formulazioan. Erregimenak erregimen eta ñabardurak ñabardura, ardura banaketa berri honetako argazki orokorra honakoa litzateke: estatuak eta merkatuak garai fordista-keynesiarrean lorturiko oreka

⁵⁰ Banaketa instituzional horretan ongizate-ekoizpena hiru zutabe horietako zeinetan indartu beharko den ebazteko, era berean, bi funtsezko premisa teoriko birformulatu beharra aipatzen du: alde batetik, “hau instituzionalen” edo “merkatu/estatuko akatsen” teoriak berrikusi beharra dagoela dio, asko aztertu izan baita “merkatu akatsen” inguruan, baina apenas ezer ez “familia akatsei” dagokienean. XXI. mendeko gizarte-arrisku garrantzitsuenek zerikusi zuzena dute familiek gizarte-tentsioak xurgatzeko duten gaitasun edo gaitasun galerarekin, familia-egituren ezegonkortzeak eta presio demografikoak eragindako zaintza-beharrizan hazkundeak eskaria eta eskaintzaren arteko desoreka berriak sortu baitituzte. Bigarren berrikuspen teorikoa, ongizate-ekoizpena zutabe horietako bakoitzean finkatzeak sortzen dituen “bigarren mailako eraginen” analisia osatzean zentratu behar litzateke, asko idatzi baita estatuaren esku-hartzeak sorturiko eragin negatiboen inguruan eta ezer gutxi ardura osoki familiengan delegatzeak sorturiko eragin negatiboei buruz (Esping-Andersen, 2002).

merkatuaren aldera desplazatu da, zentzu batean estatuak zentraltasuna galdu duelako, baina bi eragile horiez gain esparru informalak (familiak edo komunitateak) zein gizarte zibilak (hirugarren sektorea edo gizarte-ekonomiak) ere paper berritua jokatzen dutelako.

Orain arteko argudio ildoei eutsiz, gure analisi esparrua bereziki hirugarren sektorearen analisisian oinarritu da, honek bizi izandako bilakabidea sektore publikoarekin mantenduriko harremanarekin erlazionatuz. Bi eragile horiek testuinguru berri honetan honako joera nagusi hauek jarraitu dituzte Rodriguez Cabrero-ren (2004) ustez: i) alde batetik hirugarren sektorearen baitan gizarte zibilaren eraldaketa bat eman da merkatu-presioei erantzunez, borondatezko jardueretatik zerbitzu hornikuntza profesionalizatzerara berrorientatuz; ii) bestetik, lehen honi loturik ongizate-estatuaren berregituraketa sakon bat eman da, arestian aipatu gisa, ongizate-ekoizpenerako formula mistoak erabiliz eta engaiamendu sozial ahulago bat azalduz (Ibidem, 2004:53).

Evers-ek (2005) ildo berean argudiatzen du esaten duenean ongizate-sistema europarraren bereizgarri izan diren ezaugarri nagusiak irauli egin direla azken bi hamarkadetan. Hiru dira egilearen irudiko sistema europarraren bereizgarriak: i) lehen mailan, estatuaren zentraltasuna gizarte-segurantza, osasun zein hezkuntza sisteman, eta oro har, lan merkatuari loturiko zerbitzuetan, ii) bigarrenik, sektoreen arteko banaketa zorrotza, bereziki publiko-estatal eta pribatu-merkatuko sektoreen artean. Azkenik, iii) gizarte zibilaren jarrera, Putnam-en (1993) baieztapenekin bat eginez, gizarte zibilak “nola hala informaturiko afera publikoen behatzaile” jarrera hartu baitu, “jokoan parte hartzeraz apenas iritsi gabe” baina. Hiru ezaugarri funtsezko horietan gertatu da hain zuzen ere egile honen iritziz joera aldaketa argi bat.

Horrela, egitura hierarkikoko estatuaren zentraltasun egoera batetik, deszentralizazio eta delegazio prozesu sakonak eman dira, gizarte-ongizateari loturiko esparruak lehen fase batean tokiko mailako erakundeen ardurapean lagaz. Tokiko mailako zerbitzuen kudeaketa burutzeko estrategia bat nabarmendu da bereziki: merkatu sozialen sorrera eta ondorioz, hornitzaile aniztasun handiagoa zerbitzu horien eskaintzan. Honek, aldi berean, arestian aipaturiko bigarren ezaugarria jarri du kolokan, sektore publiko eta pribatuaren arteko bereizketa zorrotza, alegia. Zentzu horretan, mozkinaz besteko zein

mozkin asmodun enpresek hornituriko zerbitzuen ordaintzaile eta erregulatzaile funtzioa betetzera mugatzen dira ongizate-estatuak. Aldi berean, *new public management* deiturikoaren bitartez, administrazio publikoaren kudeaketan enpresa pribatuari loturiko eraginkortasun irizpideak barneratu dira finantzaketa, inbertsio zein pertsonalaren kudeaketan. Azken ezaugarriari, gizarte zibilaren engaiamendu politikoari dagokionean berriz, azken hamarkadetan gizarte zibilaren parte hartzearen areagotzea nabarmentzen duten ikerketa andana egin da, dela erabiltzaileen parte hartzeari buruz, tokiko mailako ekimenetan, auto-laguntzako esperientzietan zein hirugarren sektoreko eragile ezberdinen bitartez.

Estatuaren balizko zentraltasun galeraz, ordea, eztabaida zabala mantentzen da egun. Gizarte-ongizatearen ekoizpenean eragile gehiago sartu diren arren, besteren artean Adelantado-k (2000) defendatzen du estatuak mantentzen duela oraindik orain sistemaren zentraltasuna, bera baita finean gizarte-politikaren bitartez sistema merkantilizatu/desmerkantilizatu, estatalizatu/desestatalizatu, familiartu/desfamiliartu edo komunitarizatu/deskomunitarizatu dezakeena. Gizarte-politikak hortaz, baliabideak sektore batetik bestera mugitzeko gaitasuna du, ongizatearen horniduraren ardura sektore baten ala bestearen gain ezarriz, norabide askotako desplazamenduak eginez⁵¹.

Banaketa berri horretan estatuaren zentraltasuna defendatzen dutenen artean kokatzen da Rodriguez Cabrero (2004) ere, azken honi egokituz eskubide sozialen berme-egitura bakarraren funtzioa, nahiz eta gizartean azken urteetan emaniko aldaketek estatuaren kudeaketa pluralista bat martxan jartzea beharrezko bihurtu duten. Gutxienik bi zentzutan emandako aldaketek egiten dute berregokitze hori atzeraezina: batetik, gizarteak beharrianen pertsonalizazioa eta norbanakoaren hautatzeko aukera lehenesten dituelako (non merkatuak paper berritua jokatuko lukeen hautespen-mekanismo efizientea den neurritan arte), eta bestetik hiritarrek afera komunen gaineko kontrol eta parte hartze handiagoa eskuratu nahi dutelako.

⁵¹ Esaterako, estatuak politika sozialaren bitartez erabaki dezake gizarte harreman bat desmerkantilizatzea (edo desfamiliartzea), merkatu arauetatik (familia esparrutik) atera eta eskubide sozial gisa aitortuaz, baina era berean eragin dezake alderantzizko norantzan ere (zerbitzuak pribatizatuz edo ez eskainiz), edo sektore arteko zeharkako desplazamenduetan ere, adibidez, zerbitzu bat desfamiliartuz gero merkantilizatzeko (zaintza lanengatik soldatak ezarriaz, esaterako) (Adelantado, 2000:52-53).

Azken bi aldaketa horiekin estuki loturik agertzen da hirugarren sektorearen balio berritzea ere. Lewis-ek (2004) azpimarratzen duenez, XXI. mendearen hastapeneko ongizatearen berrantolaketaren baitan, hirugarren sektoreari aitortzen ari zaion garrantzia estrategiko, politiko eta demokratikoaren ondorioz, espazio berri bat zabaltzen ari da estatua eta hirugarren sektorearen lankidetzaren eredu berriak planteatzen hasteko, orain arte nagusi izan diren harreman instrumentalak gainditu eta elkarrekiko errespetuan oinarrituko den lankidetzaren ereduera igarotzeko. Sektore publikoarekiko harremanean agertzen diren aldaketekin batera, hirugarren sektoreak bere merkatueginkizunen profila ere egokitu behar izan du, arestian aipaturiko *workfare* ereduaren argitan, hirugarren sektoreari enplegu-sortzaile eta zerbitzu-emaile profileen sakontzea eskatzen baitaio geroz eta gehiago, hirugarren sektorearenganako hurbilketa enpresarialak (gizarte-ekonomiaren gertuko adierak, bistan da) indarra irabaziko duelarik.

Honela, analisi orokor hau erregimen bakoitzari loturiko errealitateei egokituz, hirugarren sektorea eta sektore publikoaren arteko harreman moduak nola aldatzen joan diren ikusteko, Ascoli eta Ranzi-k (2002) lau joera ezberdin ezberdintzen dituzte:

- i) Merkatua gailen den ereduaren herrialdeetan (herrialde liberaletan, alegia) lehenago ere sektore pribatuaren garrantzia handia eta esku hartze publikoa tamaina mugatukoa zen, eta hirugarren sektorea subentzio bidezko neurrien bidez bultzatzen zen. Joera aldaketa, hortaz, hirugarren sektorearen dimentsioan baino, honek estatuarekiko duen harreman moduan eman da, subentzio politiketatik azpikontratazio formulatara jotzen ari baita, formalismo handiagoa ezarriz bai finantzazioan eta baita horniduran ere, eta ondorioz, izaerarik profesionalena duten hirugarren sektoreko erakundeak indartuz bestelako *advocacy* erakundeen aurrean.
- ii) Subsidiaritasun ereduaren (eredu kontserbadorearen), hirugarren sektoreak historikoki jokatu izan duen nagusitasunezko tokia da zalantzan jartzen ari dena, zerbitzu publikoen hornidura lehia publikora irekitzeak kolokan jarri baitu orain arte indarrean zen itun korporatiboa. Honela, erakunde pribatu berrien barneratzea bultzatu da esparru horiek quasi-merkatu

gisara antolatuz, estatuak merkatuok erregulatzeko gaitasun handiagoa duelarik.

- iii) Estatu gailen den erduetako herrialdeetan (sozialdemokratetan), pribatizazioa ez da eragile pribatuen parte hartze handiagorearen eskutik etorri (nahiz eta azpikontrataziorako joera handiago bat ere nabarmentzen ari den), baizik eta ongizateko zerbitzu publikoen emaitza eta kostuen inguruko kontrol handiago batetik. Honek, zentzu batean hirugarren sektorearen autonomiaren kaltetan egin du, berau *advocacy* funtzioetatik zerbitzuen hornitzaile izatera pasaz.
- iv) Hirugarren sektorea gailen den erduetako herrietan (hala deitzen diete eredu mediterraneoko herrialdeei, gure iritzian deitura zalantzarria den arren) mekanismo konpetitiboak barneratzeak herrialde horien partikularitasuna apur baten leundu du, estatuarekiko harremanean gardentasun handiagoa jarriz eta sistemari egonkortasun handiagoa emanez, eta neurri berean, hirugarren sektoreari aitortza instituzional eta legal handiagoa egin zaio,

Panorama instituzional berri honetan, beraz, garai fordista-keynesiarreko analisi eskemak aldatzen joan dira. Gure ikerketa esparruari eragiten dieten bi eragile nagusienei dagokienean, ongizate-estatu (edo sektore publikoa) eta gizarte-ekonomiari (edo hirugarren sektoreari) buruzko teorizazio lanak ibilbide berriak jorratzen hasi dira: alde batetik, ongizate-estatuaren teorizazioen esparruan, “ongizate-erregimen”-en analisietatik, “ongizatearen gizartea”, “*welfare mix*” edo “ongizate sistema pluralista” moduko terminoak indarra hartuz joan dira. Beste aldetik, gizarte-ekonomiari dagokionean, “enpresa soziala” eta “ekonomia solidarioa” bezalako adierak gero eta hedapen handiagoa eskuratu dute.

Jarraian garatzen den kapituluan, banan bana aztertuko ditugu bi sektore horietan emaniko garapen teoriko eta enpiriko nagusiak.

3.2 Gizarte-ekonomia eta ongizate-estatuaren arteko harremanaren ikuspegi berriak

Ongizate-estatu keynesiarraren krisiak ekarritako berrantolaketa instituzionalak erronka berriak sortu ditu ongizate-estatuaren teorizazio lanen esparruan. Honela, ongizate-estatua eta gizarte-ekonomia bi sektore bereizi gisa hauteman izan dituzten ikuspegietatik, bestelako ikuspegietara igaro gara. Estatua eta merkatuaz gain, hortaz, beste bi gizarte-egitura nagusiak ere (esparru informal eta komunitarioa) analisisan sartzen hasi dira eta horien arteko harremana modu holistiko eta nahasiagoan planteatzen duten ekarpenak ugaritzen doaz.

3.2.1 Sektore arteko banaketatik, sektore arteko zehargarritasunera

Ongizate-estatuaren krisi eta berrantolaketa instituzionalak, estatuaren zentraltasuna auzitan jarri eta bestelako eragile pribatuen parte hartze handiagoa egiaztatzeaz bat, maila teorikoan orain arte ontzat jotako axioma nagusia ezbaian jarri du: sektoreen arteko banaketaren egokitasunaren afera, hain zuzen ere. Azken bi hamarkadetan bai ongizate-estatuan zein hirugarren sektorean hauteman diren aldaketa sozio-ekonomiko nagusien ondorioz, bi sektore horien arteko harremana lehia/osagarritasun terminoetan aztertzeak muga sakonak dituela frogatu da.

Era berean, askoren iritzian azken urteetako bilakabide sozio-ekonomikoaren karira, “sektore” kontzeptu tradizionalak bere gaitasun analitiko eta teoriko ia osoa galdu du, gutxienik hiru fenomeno berriren ondorioz: i) hirugarren sektoreak finantzaketa publikoarekiko duen dependentzia hazkorragatik; ii) tradizionalki hirugarren sektoreak hornituriko zenbait esparrutan (osasuna, hezkuntza eta gizarte-zerbitzuak) lehia bizkortu delako gobernuek beren funtzioak pribatizatzearen bidetik, eta; iii) zenbait irabazi asmodun enpresa mozkinenez besteko enpresatan bilakatu direlako, edo mozkinenez besteko erakunde subsidiarioak ezarri dituztelako (Kramer, 2004).

Zentzu horretan, Kramer-ek (2004) lau paradigma berri proposatzen ditu, sektore arteko muga lausotze edo konbergentzian oinarritzen direnak, eta ikerkuntza sektorialen osagarri izan litezkeenak: i) giza zerbitzuen politika ekonomikoa (Hasendelf, 1983); ii)

merkatu ekonomiaren ekologia (Hammack eta Young, 1993); iii) neo-instituzionalismoa; iv) sistema ireki eta mistoak. Paradigma horiek guztiek, esan bezala, sektore arteko “zehargarritasunetik” abiatzen dira, bakoitzak bere ikuspuntua jorratuz. Lehen biak gainera azalduko dira, azken bietan gehiago sakonduko dugularik.

Hasenfeld-en (1983) iritzian, politika ekonomikoaren ikuspegia⁵² bereziki aproposa da erakundeen zerbitzu hornidura sisteman baliabideak eskuratzeko kanpo baldintzapenak zein modutan eragiten duten ulertzeko, bereziki sektoreartekotasun handia agertzen duten erakundeetan. Giza zerbitzuen politika ekonomikoak osasuna, hezkuntza eta gizarte-ongizatea bezalako esparruen bereizgarritasuna parte interesatuen aniztasunean (*multiple stakeholders*) kokatzen dute (bezeroak, aholkularitza-erakundeak, elkarre-profesionalak, ordaintzaileak, zuzendaritza organoak, organo erregulatzaile eta legegileak, etab). Honela, giza zerbitzuen horniduran erakunde berean bat egiten dutenez sektore guztietako eragileak (pribatu, sozial zein publikoek) erakunde horien jardueraren analisia egiteko interes talde ezberdinek erakundearen baitan duten botere eta erlazio ekonomiko aldakorrei erreparatu beharko zaie, halaber. Erakunde horiek sektorearteko testuinguru batean beren autonomia mantentzeko estrategia ezberdinak har ditzakete aldi berean eragile ezberdinekin (lehia, elkarlana edota kooptazioa), sektoreei egotzitako jardute-logika puruen premisa hautsiaz.

Merkatu ekonomiaren ekologiatik begiratzen dutenentzat (Hammack eta Young, 1993), publikoa, pribatua eta hirugarren sektoreak merkatu ekonomian elkarmenpekotasun harremana duten nitxo ezberdinak hartzen dituzte. Ikuspegi honen arabera, behin erakundeek kanpo inguruarekiko harremana finkatu dutelarik, erakundeen egiturak berdina antzera jarraitzen du, ia aldaketarik egiteke. Sektore bakoitzak beregain hartzen dituen nitxoaren zergatiak, gizarte-fenomeno historiko sakonagoetan bilatu beharko dira (arestian aipaturiko *path dependency*-aren ildotik, esaterako elizak eta estatuak mantenduriko harremanetan). Ikuspegi honek, autoreek aitortzen dutenez, soilik du baliagarritasunik erakundeen inguruabarra nahikoa iraunkorra izan den kasuetan, eta

⁵² Politika ekonomikoaren adiera modu honetan ulertzen da: “politikak” erakunde ezberdinen arteko botere eta legitimitatea nola lortu eta mantentzen den eta gobernantza sistema hori nola ezartzen den begiratu luke; “ekonomiak” bere aldetik, erakunde horiek beharrezko dituzten baliabideak (funtsak, langileak, bezeroak, etab.) nola eskuratzen dituzten aztertuko luke, baita zerbitzu horien ekoizpena eta horniduran ezarritako lanaren banaketa ere (Hasendelf, 1983).

hargatik izan da kritikatu neo-instituzionalisten aldetik, egiazki gertatu diren “isomorfismo prozesu” ezberdinek baliorik gabe uzten baitute ikuspegi ekologikoaren iraunkortasunaren premisa.

3.2.2 Neo-instituzionalismoaren ekarpena: testuinguru instituzionalaren garrantzia

Sektore arteko bereizketaren aurka egiten du ekarpen neo-instituzionalak ere, baina ikuspegi honen abiapuntuko hipotesia honako hauxe da: hirugarren sektorearen existentzia eta nolakoa bere testuinguru instituzionalaren optikatik soilik uler daiteke (Powell eta Dimaggio, 1991).

Hirugarren sektoreari buruzko teoria ekonomiko aitzindariak fenomenoaren existentzia ase gabeko edo oker asetako hiritarren eskarrietan kokatzen dute, batik bat. Horien aurka, gizarte zibiletik edo gizarte-mugimenduen optikatik begiratzen dutenek, hirugarren sektorea gizarte baten kapital sozialaren emaitza gisa ulertzen dute, ez hainbeste merkatu-mekanismoen bitartez adierazia, baizik eta gizartearen baitan antzematen diren gizarte-sare kooperatiboen adierazpide gisa. Aipaturiko ikuspuntu horiek guztiek esango dutenaren aurka, teoria neo-instituzionalak defendatzen du hirugarren sektorea testuinguru instituzionalak baldintzaturiko norbanakoen aukeren emaitza dela. Honela, Van Til-en (1994) lanetan aurki liteke halako aplikazio holistiko argi bat, hirugarren sektorearen deskribapena burutzen baitu hori bere ingurunekeo gizarte-instituzioekin harremanean jarriz, besteak beste: dohaintza emaileak, bitartekariak, bestelako hirugarren sektoreko eragileak, onuradunak, etab.

Testuinguru instituzional horren osaeran, Smith eta Gronbjerg-en aburuz (2006) ikuspegi neo-instituzionalistak garrantzia berezia aitortzen dio gobernuaren zentraltasunari. Zentzu horretan, publikoa, pribatua eta sozialaren arteko bereizketa sektoriala gobernuak bultzaturiko politika konkretuen emaitza da, gobernuak berak erabaki edo bideratu baitezake erregulazio, zergapetze edo subentzioko politika ezberdinak ezarriz sektoreetako bat ala bestea bultzatu.

Hirugarren sektorearen eta estatuaren arteko elkar-menpekotasun erlazio batera itzuliko ginateke hortaz, bien arteko harremana ez baita hirugarren sektorea sektore independentetzat jotzen dutenek aurreikusiko zuketena izango (*zero sum* erlazioa, alegia), guztiz aurkakoa baizik: gobernu politikak hirugarren sektorearen aldekoak diren neurrian bizkortzen da bigarrena, eta bigarren honen bizkortzeak lehenengoaren engaiamendu handiagoa eskatzen du trukean. Zentzu horretan ulertu behar dira Skocpol-en (1999) lanak, zeinak frogatu uste izan baitu gizarte-mugimenduen iraunkortasuna estatuak gizarte-eskubide horien mesedetan eginiko politiken arabera dela, edo pribatizazio politikek esaterako ez dutela besterik gabe hirugarren sektorearen aldeko pizgarria suposatzen (estatu funtzioak uzkuetzeak hirugarren sektorearen kaltetan jo izan duelako). Bi sektoreon arteko erlazioa, hortaz, sinergiazko eta osagarritasunezkoa litzateke, hirugarren sektoreak nekez eusten baitio erregulazio publiko mesedegarririk jaso ezean, baina ere berean hirugarren sektoreak positiboki eragiteko ahalmena baitu funtzio-publikoen sakontzean.

Orain arte aipatu diren osagarritasunezko teorien aurrean (nagusiki “gizarte-jatorrien teoria”ren bitartez azaldu duguna), teoria neo-instituzionalistak ezberdintasun argi bat markatu nahi du sektoreak berezitu behar hori auzitan jarritz. Neo-instituzionalistentzat publiko eta pribatuaren arteko mugak erabat lausoak dira, inor ez da izatez ona edo txarra ondasun publikoak hornitzeko, inork ez du bere kasa baliabide ez ezagutza nahikorik programa iraunkorrak garatzeko. Hirugarren sektorearen kasuan berriz mugak are dira lausoagoak, muga sektorialak gainditzen dituzten gizarte-erlazio sareetan txertatuak baitaude sektore honetako eragile gehienak. Kramer-ek (2004) gaineratzen duenez, “hain da handia sektore publikoa eta pribatuaren arteko nahasmena non oinarritzko bereizketa horrek errealitatea hautemateko modu baliagarria izateari utzi baitio” (itzulpena gurea).

Sektoreen zehargarritasunaren nozio honetatik abiatuz, teoriko neo-instituzionalek gizarte-ekonomiaren ezaugarritzea baldintzatzen duen bestelako hipotesi bat proposatzen dute: eragile bakoitzaren jardute moduetan beren jabego-egiturek baino askoz eragin nabarmenagoa du horien testuinguru instituzional eta ekologikoak, zehatzago esanik, industria bakoitzean suma daitezkeen lehia eta isomorfismo graduek (DiMaggio eta Anheier, 1990). Honela hainbat lan enpirikoren bitartez frogatu da

hirugarren sektoreko eragile asko egiturazko isomorfismo prozesuen ondorioz bilakatu direla erakunde burokratiko, profesionalizatu eta komertzial hutsetan (Kramer, 2004). Bestelako lan enpirikoek modu bertsuan frogatua utzi dute, edozein izanik ere erakundeen jabego-egitura, erakunde gehienek modu bertsuan erantzuten dutela arazo antzekoen aurrean.

3.2.3 Sistema misto eta irekiak: *welfare mix* edo *mixed economy of welfare* ikuspegia

Azken hiru paradigma horietatik apur bat bereizita agertzen zaigu azkena, sistema ireki eta mistoena. Soziologia politikoaren esparruan duela bere jatorria, Europan AEBtan baino eragin handiagoa izan du *welfare mix* edo *mixed economy of welfare* deituriko ikuspegi honek (Evers, 1991, Evers eta Svetlik, 1993).

Hurbilketa hau ongizate-estatuaren krisi edo berregituraketaren ondoren agerian geratu den egitate batetik abiatzen da: estatuan zentratutako ongizatearen nozio dominantearen hegemonia galera, hain zuzen ere (Evers eta Svetlik, 1993:3). Modu honetan, oraintsu aipatu dugun hurbilketa neo-nstituzionalistak defendatzen duen hipotesia bertan behera botatzen du hurbilketa berri honek. Honela, estatuaren zentraltasun tradizionalaren ordez, ongizate-sistemen pluraltasuna onartzen da abiapuntutik: lau esparru instituzionalen parte hartzea jartzen dute oinarrian, hots, estatua, merkatua, hirugarren sektorea eta etxegunetako ekonomia (Kramer, 2004). Baina era berean, hurbilketa honek garrantzia berezia aitortzen dio hirugarren sektoreari, honi aitortzen baitzaio benetako bitartekari izatea (*intermediary sector*), hots, gainerako esparruak harremanetan jartzen dituen esparru nagusia izatea, hain zuzen ere.

Bi dira, Evers eta Svetlik-en (1993) irudiko ekarpen honen sorkuntza hauspotu duten eztabaida nagusiak: bata, AEBtako teorikoek hirugarren sektorearen funtzioen inguruan sorturiko literatura (zeinaren errebaso sakona egin baita lan honen lehen eta bigarren ataletan); bigarren eztabaida Ingalaterran pizturiko “ongizatearen pluraltasunarena” litzateke, jarraian sakonduko duguna. Ongizate mistoaren hurbilketa, hortaz, aurreko bi eztabaida nagusi horien berrikuspen kritikoaren emaitza gisa ere interpreta liteke.

Lehen argudio ildoaren aurrean, “mozkinez besteko erakundeen” ikuspegi gisa definitu dugunak, ongizatearen pluraltasunaren eztabaidan lehen ekarpena suposatu zuen, hirugarren sektorearen aitortzarekin, gizartearen ongizatean merkatua eta estatuaz aparteko beste eragile baten existentzia defendatzen baitzen. Lehen ekarpen horiei ondoren eginiko kritikak, eskuarki, beren izaera ekonomizistegian zentratzen dira. Ongizate mistoko teorikoen iritziz, honako ahulguneak nabarmentzen dira lehen ekarpen horietan: i) soilik hartzen da aintzat hirugarren sektorearen eginkizun ekonomikoa, hots, bere zerbitzu hornitzaile funtzioa, bestelako eginkizun politiko edo sozialagoak alboratuz; ii) estatua, merkatua eta hirugarren sektorearen bilakabide historikoaren azterketari oso modu mugatuan edo antzuan erantzuten zaio; iii) hirugarren sektoreko elkarteen eratze-logika eta motibazioak oso modu mugatuan aztertzen dira irizpide soilik utilitaristak baliatzen baitira; eta iv) hirugarren sektoreak estatua eta merkatuarekin dituen harremanak aztertzen diren arren, ez zaio erreparatzen honek sektore informalekin (etxegune, familia, edo maila komunitarioa) duen harremanari (Evers eta Svetlik, 1993).

Modu orokor batean esanik, ongizate mistoaren teorikoentzat gizarte-ordenaren teoria utilitarista horiek kontsumitzaileen portaera arrazionalaz kanpoko aldagaitzat jotzen dituzte oro har gizarte bakoitzaren esparru moral eta sozialak. Honela, ongizatea hoberenatzeko erabaki-hartze logikoen artean, eraginkortasun eta baliagarritasun irizpideak dira, oroz gain, “hautu instituzional” egokiena hartzeko kontuan hartu beharrekoak. Teoria ekonomiko puru horiek “kanpo eragiletzat” harturiko aldagai horiek, aldagai historiko, kultural eta sozialak hain zuzen ere, horiek dira soziologiaren ikuspuntutik aldagai zentralak, funtsezkoak hirugarren sektorearen bilakabide, funtzio eta esanahiak ulertzeko.

Aipaturiko bigarren iturria, Ingalaterran ongizate pluralismo edo *welfare pluralism* bezala ezaguturiko eztabaida da, *mixed economy of welfare* adieragatik ere ezagun dena (Johnson, 1999; Lewis, 2004). Eztabaida hori bete-betean kokatu behar litzateke arestian aipaturiko ongizate-estatuaren krisiaren inguruabarrean, eta horren erreformarako herrialde anglosaxoian baliatu izan diren kontzeptuen ingurumarian (ongizate aktiboa edo *workfare* estatua, ondoren “hirugarren bide” gisa birplanteatu zuena laborismoak).

Honela, Wolfenden txostenean lehenengo bider pluralismoaren nozioa agertu zenetik, Johnson-en (1999) iritzian bi dira hurbilketa honek ekarritako berrikuntzak: lehenik, akademiko iparramerikarrek ez bezala, ongizatearen pluraltasun honetan hirugarren sektoreaz gain laugarren bat ere aintzat hartu beharra ohartarazten da, sektore informala, hain zuzen ere. Estatuaren zerbitzuetan zentratutako ikuspegiak emakumeen bitartez eta nagusiki etxeguneetan emaniko zerbitzuak albo batera utzi izan dituzte (ongizate-erregimenen salbuespenarekin). Ikuspuntu honetatik sektore informalak betetako lanaren aitortza egiten da, halako moduz ezen ongizate-estatuaren nozioa sektore publikoko profesionalen ardura izatetik, norbanako eta komunitatean oinarrituriko ardura izatera igaroko baita (Evers eta Svetlik, 1993).

Baina lau esparru instituzional horien existentzia aitortzea baino areago, hurbilketa honen lehen ekarpen nagusia lau horien arteko oreka zertan den aztertzean datza. Oreka berri hori aldakorra izan arren herrialde batetik bestera, garai batetik bestera eta ongizate-zerbitzu batetik bestera ere, azkenaldian eredu eta joera argi batzuk marraztu litezkeela defendatzen da (Johnson, 1999). Honela, ekonomia misto tradizional eta garaikidearen arteko bereizketa argi bat planteatzen da: ekonomia misto tradizionalan gobernu eta hirugarren sektorearen arteko “lanaren banaketa korporatista” bat ematen zen, Alemania delarik eredu honen erakusle nagusia. Eredu garaikidean aldiz aldagai berri bat sartzen da, hornitzaile komertzialena hain zuzen, eta harremanak korporatiboak beharrean, nagusiki lehiakorrak dira hiru eragile horien artean. Harreman hori aztertzeko proposaturiko irizpideak hirugarren sektoreko teorikoen analisisetatik hartuko dira (Anheier eta Seibel, 1990), funtsean hiru esparru bereiziz: hornidura, finantzaketa eta erregulazioa (Johnson, 1999:23).

Ongizatearen pluralismoak proposatzen duenaren arabera, joera argi bat antzematen da aipaturiko sistema misto garaikideko eragile nagusien artean: estatuak bere zerbitzu hornitzaile funtzioa asko murriztu du, mozkin asmodun eta mozkin bezalako besteko erakundeen mesedetan. Alabaina, estatuaren funtzioa berrindartu egingo da zerbitzuaren erregulatuzaile, ordaintzaile, eta azken buruan kalitatearen ebaluatzaile gisa. Estatuak, zentzu horretan, zerbitzu publikoa eskainia izango denaren berme bilakatzen da, baita finantzatuzaile nagusia ere: zuzenki hornitu ez arren, bera da hornitzaile pribatuen diru

iturri nagusia, kontratu-bidezko harremanen bidez. Era berean, herrialde anglosaxoieta nagusiki baina baita beste hainbat herrialdetan ere, “aukeratzeko aukera” handitzen duten politikak ezartzen ari dira, hornitzaile kopurua handitzeko eskaintza politikak kontsumitzailearen eros ahalmenean eragiten duten eskari politiken bitartez osatuz.

Balitzko pluraltasun horren balio diskurtsibotik harago, hainbat autorek argudiatzen dute oreka berri horrek, funtsean, sektore pribatuaren hazkunde eta sektore publikoaren uzkurdura ekarri duela. Pluralismoaren diskurtsioa erabilia izan da gobernu kontserbadoreen aldetik (Tatcherismoa, kasu) bai “*rolling back the state*” izpirituko politikak legitimatzeko (Johnson, 1999:26) edo areago, merkatuko eragileen funtzioak areagotu eta kudeaketa irizpideei eta dimentsio ekonomikoei garrantzia handiago emateko, hirugarren sektoreko eragileen balitzko abantailak ustiatzeko aukera albo batera utziz (Evers eta Svetlik, 1993).

Pluralismoaren adiera hau, bistakoa denez, eragile ezberdinen arteko oreka modu ezberdinetara irekita agertzen den neurrian, guztiz baldintzaturik dago elementu ideologikoengatik, nagusiki, ideologia bakoitzak estatuaren zentraltasunaz agerturiko jarrengatik. Johnson-ek (1999) aipatuko dituen sei ideologia politiko nagusiek (erdiko bidea, sozialdemokrazia, marxismoa, eskuin berria, feminismoa eta ekologismoa) jarrera ezberdinak dituzte estatuaren zentraltasunaren inguruan, eta logikaz, nork duen boterea hark finkatu du pluralismo honen izaera. Esparru politiko honetan gehiago sakondu gabe, hurbilketa honek aurrekoarekiko dakarren berrikuntza nagusia azken ezaugarri horretantxe datzala defendatzen du Evers eta Svetlik -ek (1993), bulkada politikoaren garrantzia aipatzean hain zuzen ere, hirugarren sektoreko eta gainerako bilakabidearen aldagai nagusitzat.

Hastapenetan aipatu bezala, hurbilketa honek aparteko garrantzia aitortzen dio hirugarren sektoreari bai zerbitzu hornitzaile lanetan eta baita maila kontzeptuarean ere. Maila kontzeptuarean hirugarren sektorea aparteko sektorea edo sektore independentea izan beharrean, beste hiru sektoreek (estatu, merkatua eta komunitateak) bat egiten duten sektore gisa hautematen da (Evers eta Svetlik, 1993), eta ikuspuntu amerikarrak nabarmentzen duen mozkinen besteko izaeraren garrantzia bigarren plano batean uzten du (Kramer, 2004). Hornitzaile gisa auresuposatzen zaizkion abantailak dagokienez,

erabiltzaile eta boluntarioen arteko gertutasun handiagoak kontsumitzaileen preferentziekiko adiago egon ahal izatea dakarrela argudiatzen da, eraginkortasun gabe edo maila mugatuan erabilitako baliabideen ustiaketa hobea lortuz. Maila kontzeptualean berriz, ongizate mistoaren hurbilketak hirugarren sektorea kontzeptualizatzeko intuizio batzuk eskaintzen ditu, batik bat honako bi baieztapen hauetan laburbil genitzakeenak:

- Hirugarren sektorea gizarte zibilaren esparru publikoaren dimentsio nagusia da, tentsiozko esparru gisa hautematen dena, sektore arteko muga argirik gabea eta diskurtso eta logika ezberdinak (publiko, pribatu eta komunitario) elkar eraginez eta elkarrekin bizi diren esparru gisa, bitartekari funtzioa betetzen duena.
- Hirugarren sektorea gainerako sektoreak barnebiltzen dituen esparru gisa ulertua, hirugarren sektoreko erakundeak beren baitan ongizate mistoaren adierazleak lirateke, erakunde hibrido edo balioaniztun gisa definitu behar liratekeenak.

Bi intuizio nagusi horiek nabarmentzen dira, jarraian ikusiko den moduan, azken hamarkadan gizarte-ekonomiaren kontzeptuaren inguruan berrikuntza esanguratsua suposatu duten bi ildo teorikoren muinean, Ekonomia Solidarioak eta Enpresa Sozialaren ekarpenen mamian, hain zuzen ere.

3.3 Gizarte-ekonomia berria

70eko hamarkadatik hona, arestian aipaturiko “30 urte loriatsuek” sortu zuten garapen ereduaren hausturarekin batera, gizarte zibilaren baitatik hirugarren sektoreko zenbait ekimen sozio-ekonomiko berri ugaritzen ari dira mendebaldeko herrietan zehar. Zenbait autoreren iritziz, ekimen sozio-ekonomiko horiek, arrazoi ezberdinak direla medio, behar bezala hautematen zailak dira hirugarren sektorearen analisisian gailendu diren bi ikuspegi bidez, uler, Gizarte Ekonomia eta Mozkinez Besteko Erakundearen ikuspegi bitartez. Eraikuntza teoriko horiek azaltzen dituzten mota guztietako zurruntasunak gaitzite aldera aldarrikatu du bere burua hirugarren ikuspegi batek, Ekonomia Solidarioaren ikuspegiak, hain zuzen ere.

3.3.1 Dinamika berri baten konstatazioa: “Gizarte-ekonomia berria”

Autore askok izendatu izan dute ekimen sozio-ekonomiko berrien olde hori “Gizarte Ekonomia Berria” deiturarekin (Defourny et al, 1997; Spear et al, 2001; etab.) Deitura berri horrek inplikazio bikoitza adierazten du: batetik, gizarte-ekonomia izendapena mantentzen da, ekimen berri horiek nagusiki elkartegintza eta kooperatibagintzaren errealitateak sortzen baitira. Halaber “berria” adjektiboa eransten zaio, adierazi nahian, ekimen horiek nekez azal daitezkeela gizarte-ekonomiaren ohiko analisi eskemetatik, besteak beste erakundeon jarduera esparru, motibazio iturri, eta funtzionamendu arauetan. Chaves eta Monzón-ek (2008:33) baieztatzen duten moduan, ohiko GE eragileen aldean azaltzen diren ezberdintasunak hiru esparru nagusitan bildu litezke: i) erantzun asmo dituen gizarte-eskarien izaeran; ii) gizarte-eraldakuntzarako aurkezten duten ageriko borondatean, eta; iii) ekimen horiek bultzatzen dituzten eragileen izaeran.

Erantzun asmo dituzten gizarte-eskariak dagokienean, hirugarren sektoreko ekimen sozio-ekonomiko berri horien jarduna inoiz baino lotuagoa azaltzen da ongizate-estatuaren delako atzeraldi edo birmoldaketarekin, esan nahi baita, hutsune horiei lotuta ageri dela elkartegintza eta kooperatibagintza modernoak hedakuntzarik esanguratsuenak.

Aurreko kapituluan azaldu den gisan, ongizate-estatuaren krisia gutxienik zentzu bikoitz batean islatu da 70etik aurrera: batetik, enplegua mantentzeko politika makroekonomiko keynesiarren eraginkortasuna gabeziaren aldetik; eta bestetik, merkatuko parte hartzetik baztertuak geratuko diren gizataldeen gizarte-babeseko politiken aldetik (Pérez eta López, 2004). Errealitate berri horren aurrean, nazioarte mailan hedatzen joan den gizarte-ekintzaitasun berriak, bi jarduera esparru horietan eragin du bereziki: lan-merkatutik at geratu diren pertsonen laneratze enpresak⁵³ batetik eta zaintza komunitario

⁵³ Aipagarria da zentzu honetan, lan munduratzeko edo intsektzioarako enpresen gaiaren inguruan argitaratu diren ikerketa lanen ugartasuna. Lehen aldiz 1998an *CIRIEC-International*-en bultzadaz Defourny, Favreau eta Lavillek zuzenduriko *Inserción y Nueva Economía Social* liburua kaleratu zenetik, *EMES-Network* taldeak lideratu ditu gaiaren inguruan Europa mailan finantzaturiko ikerketa egitasmo garrantzitsuenak. Berezi *ELEXIES Project* eta *PERSE Project*-en egitasmoen testuinguruan, aipaturiko ikerketa taldeak lan integratuzko enpresa sozialen (*WISE-Work Integration Social Enterprise*) afera landu dute modu konparatiboan Europako herrialde ezberdinetako errealitateak ikertuz. Egitasmo horien fruitu dira *EMES* sareak gerotik argitaratu dituen liburu gehienak, besteak beste: Spear, Defourny, Favreau, Laville (dir.)(2001): *Tackling social exclusion: the contribution of social economy*; Borzaga,

edo gizarte-zaintza zerbitzuen alorra bestetik (Borzaga eta Defourny, 2001) zenbaitek zerbitzu pertsonal edo gertutasunezko zerbitzu gisa izendatu dutena (Laville, 1993).

Nolanahi ere, dinamika berri horiek bete betean sartzen dira “lehentasunezko ondasunen” ekoizpenean, ordura arte sektore publikoaren erantzukizun izan arren, gizarte-beharrizan berrien eskutik (adineko pertsonen bizi-kalitate eskasa, iraupen-luzeko langabezia, etorkin eta gutxiengo etnikoak, desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea, etab.) hirugarren sektoreko erakundearen bitartez hornitzen baitira (Chaves eta Monzón, 2008).

Beste alde batetik, ekintzailetasun berri horren oinarrian aurkitzen diren motibazioen inguruan ere, ohiko gizarte-ekonomiarengandik nolabaiteko ezberdintasunak azaltzen ditu dinamika berri honek. Esan den bezala, gizarte-eraldaketarako ageriko borondate bat azaltzen dute ekimen berriok. Gizarte-ekonomiako ohiko eragileak, interes mutualistaren edo elkar laguntzako logiken bitartez azalduak izan dira nagusiki, ekimenaren bultzatzailek partekaturiko interes materialek eraginda. Aldiz, ekimen berri horiek “elkartasunean oinarrituriko ekintzailetasun” espresio moduan interpretatzen dira (Laville, 2003). Mozkin asmotik urrun egonik eta erakundearen biziraupen ekonomikoaren gaitetik, erakunde horiek modu orokorrean esanda demokrazian sakontzeko duten anbizio esplizitua da nabarmentzen hasten dena. Ekimen horiek gizarte-beharrizanak erantzutera mugatu beharrean, giza talde ezberdinen aspirazio sozio-ekonomikoak gauzatzeko tresnatzat ulertzen dira (Levesque, 2004) gizartearen garapen kolektiboa identitate-ikurtzat eta mundu demokratikoago eta berdinzaleago bat gizarte-proiektutzat duten ekimenak baitira (Favreau, 2005).

Elkar laguntzako erakunde izatetik, hortaz, engaiamendu zibiko eta politiko eraldatzailearekin jaio dira dinamika berri horiek (Laville, 2004). Sajardo eta Chaves-ek (2006) epaitzen duten moduan, diferentziarik nagusiena ikuspegi honen izaera politikoagoan legoke.

Defourny (dir.)(2001): *The Emergence of Social Enterprise* edota Nyssens (dir.)(2006): *Social Enterprise. At the crossroads of market, public policies and civil soviet.*

Jarrera politiko aktiboagoa izate horretan, dinamika berri horiek gizarte-sare zabalagoetan txertaturik egoteko joera handiagoa azaldu ohi dute, eta hortik hirugarren ñabardura aipagarria, eragile bultzatzaileen izaerari lotzen zaiona. Gizarte-ekonomiako eragileen aldean, dinamika berri horiek ere identitate kolektibo baten kanalizatzaile dira, baina ezberdintasun nabarmen batekin: kolektibotasun horrek izaera askoz ere anitzagoa du, ez da gizarte-ekonomiako eragileetan bezain kolektibo homogeneotan antolatzen (Laville, 2004). Oinarriko heterogeneotasun honen ondorioz, ekimen berri horien izaera hibridoa da nabarmentzen dena, bai bazkide diren eragileen aniztasunagatik, bai bateratzen dituen lan mota ezberdinengatik eta baita mobilizatzeko gai den baliabide ugartasunagatik ere. Oinarriko aniztasun horrek, bistan da, erronka propioak sortzen ditu erakundeon barne kudeaketa eta ordezkatzeko-organoen antolakuntzari dagokionean.

Esan dezagun lehen sarrera hau amaitze aldera, Laville-k (2004) iradokitzen duen gisan, gizarte-ekonomiak erantzun gabe uzten duen galdera bati loturik azaltzen direla erakunde berriok: zein den funtzionamendu berezia duten erakundeon papera orokorki ekonomia eta demokrazia garaikidean. Moduren batean, gizarte-ekonomiaren XIX. mende hastapenetako eztabaidaren parametroetara itzuli gara, gizarte-ekonomiaren misio eta anbizioaren inguruko bi jarrera antzematen direlarik: arau propioen bitartez baina kapitalismoaren baitan funtzionatzen duen sektore instituzional berezi gisa hartzen dutenak alde batetik eta sistema kapitalistaren alternatiba bilakatzeko bide-urratzailetzat dutenak, beste aldetik.

Ekimen horietako asko, tradizionalki gizarte-ekonomiari atxiki izan zaizkion forma juridikoekin sortu izan badira ere, gerora herrialde ezberdinetan legedia bereziak sortzen joan dira errealitate berezi horiek erregulatzen joateko.

3.3.2 Dinamika berri horien agerpenaren zenbait aldagai azaltzaile

Errealitate horiek ugaritzen joateko arrazoien artean, nagusiki arrazoi ekonomiko zein soziologikoak eskaini izan dira. Lehen horien artean leudeke Borzaga eta Defourny-k (2001) azpimarratzen dituzten elementuak. Horien iritziz, ekimen berri horien agerpenak harreman estua izan du oro har 70etik aurrera Europako herrialde ezberdinetan jasandako hazkunde ekonomikoaren geldialdi eta desenplegu tasen

gorakadarekin. Aldaketa ekonomiko horiek izan dira halaber, ongizate-estatuaren krisia sorrarazi dutenak, bai bere eraginkortasunari begira, eta hedapenez, baita gizarte-legitimazioaren ikuspegitik ere.

Hazkunde ekonomikoaren geldialdiak, hasiera batean izaera fiskaleko krisia sortu zuen hainbat estatutan. Lehen erreakzio batean, estatuaren gastu tradizionalaren zenbait partiden egokitzapenera desplazatu zen zerga sarreretan izaniko uzkurdura: konkretuki desenplegurako diru laguntzetan eta gizarte-zerbitzuen horniduran murrizketak ezarri. Honek esan bezala, zentzu batean Europako ongizate-erregimenengan legitimazio krisi bat ekarri zuela ikusita, europar *policy-makers*ak ongizate-sistema honen birformulazioa diseinatu zuten gizarte-politiken esparrua geografikoki tokiko esparruetara deszentralizatuz, prezio zein tarifa batzuk ezarri, zenbait zerbitzu pribatizatuz eta enplegu politika pasiboetatik, politika aktiboetarako jauzia emanaz.

Joera pribatizatzaile honek emaitza nagusi bat ekarri zuen, gizarte-ekimeneko enpresen ugaritzea ekarri zuena: ongizate-zerbitzuen esparruan finantzazioa eta hornidura bereiztea, hain zuzen ere. Horrela, zerbitzuen erantzukizun finantzarioa esparru publikoak mantendu arren, zerbitzuen hornikuntza enpresa pribatuen eskuetara igaro da, eta hor, tradizionalki mozkin asmoko enpresentzat erakargarri suertatu ez den sektorean, ugaltzen hasi dira arestian aipatu diren gizarte-dinamika berri horiek.

Laville-k (2003) berriz, aipaturikoez gain beste zenbait elementu sartzen ditu analisisian, nagusiki bi fenomeno sozio-ekonomikori erreparatzen dielarik: gizarte zibilaren konpromiso publikoaren eraberritzea alde batetik, eta ekonomiaren “tertziarizazio” prozesu hazkorra bestetik. Lehen aldagai honek, gizarte zibileko zenbait erakunde sozio-politikoren gainbehera konstatatzen du (sindikatuak, alderdi politikoak eta erakunde boluntarioak), gizartearen parte hartze politikoa kanalizatzeko; erakunde horien endekatzearekin batera, gizarte parte hartzeak “ohiko gizarte-mugimenduetatik” aparteko bideak urratu ditu, gizarte-beharrizan ezberdinen protesta eta aldarrikapenera (*advocacy*) mugatzen diren erakundeetatik, zerbitzu espezifikoen horniketara diharduten erakundeetara igaroz. Honela, lan boluntarioaren eta gizarte-ekintzailetasunaren arteko konbinazio berriak ugalduz joan dira, zerbitzu-eskaintza akritiko bati elementu

aldarrikatzaileak erantsiz, edo nahiago bada, protesta eta gizarte-kontzientziaziorako erakundeen bitartez jarduera produktiboak abiaraziz.

Beste aldetik, ekonomiaren alderdi ezberdinetan eman den “tertziarizazio” prozesu hazkorrak gizarte zibilaren baitan emaniko gizarte-engaiamenduaren aldaketa erraztu duela irizten dio Laville-k (2003). Industriatik hasita, bere baitan emaniko baliabideen mugikortasun eta lankidetzaren forma konplexuagoi lotuta, eta kalitatean (eta ez prezioan) oinarrituriko lehiakortasun estrategia berrien ondorioz, berrikuntza prozesu sakon bat gauzatu da (teknologikoa zen antolakuntza mailakoa). Berrikuntza horien eskutik, eskulanaren kontzentrazioan desplazamendu bat hauteman da lanik estandarizatuenetatik zerbitzu-orientatiodun lanetara. Zerbitzuek bestalde, enpleguaren osotasunean proportzio handiagoa eskuratzen dute, kasu honetan ere “harremanezko zerbitzuak” agertzen direlarik “zerbitzu estandarizatuak” aurretik eskulanaren intentsitatean, enplegu berriak sortzeko gaitasuna handiago batekin.

Modu orokor batean, enpleguan jazotako “tertziarizazio” prozesua ez da manufaktura-industriatik zerbitzuen sektorerara emandako desplazamendu batekin azaltzen ahal soilik. Maila sakonago batean ekoizpen sektore osoan elkar bizi diren bi ekoizpen-moduren artean eman da tertziarizazioa: enplegua lan estandarizatuetatik harremanean intentsiboak diren zerbitzuetara igaro da. Testuinguru honetan, hainbat autorek baieztatzen dute zerbitzuen alorra dela egun, eta bereziki “harremanezko zerbitzuen”, enplegu berriak sortzeko gaitasun handiagoa azaltzen duen esparrua..

3.3.3 Gizarte-ekonomia berriarentzat izendapen berria: Enpresa Sozialak

Arestian aipatu bezala, 70eko hamarkadatik aurrera hedatzen joan diren dinamika sozio-ekonomiko berri horiek hainbat berezitasun azaltzen dituzte gainerako gizarte-ekonomiako eragileengandik edota mozkin asmorik gabeko erakundeengandik.

Izatez enpresa-ekimenak diren arren, nekez azal liteke horien sortze motibazioa mozkin asmoaren edota interes material hutsaren bitartez, guztiek ere partekatzen baitute tokiko mailan jarduera ekonomiko bat burutuz demokrazia bultzatzeko nahikundea. Laville-k (2003) “ekintzaitetasun zibikoa” deituraren bitartez (*civic entrepreneurship*) izendatzen

ditu, “elkartasunean oinarrituriko enpresa-ekimen” berri horiek. Gizarte zibiletik, eta partekatzen den “ondasun komunaren” nozioari eskerrak, gizarte-sare ezberdinak osatzen dira, eskainiriko zerbitzuaren erabiltzaile eta prestatzaileak, zein bultzatzaile diren finantzatzaile eta bazkideak inplikatzeko direlarik. Hain harreman estuz osatzen dira sare horiek, eskaria eta eskaintzaren arteko eraikuntza partekatu bat gertatzen dela esaten baita, gertuko elkarrizketa bitartez (Lewis, 1992). Modu honetan, eskaintzaileak eskariak azaltzen dituen beharizan berriak asetzeko sentsibilitate bereziarekin jarduten du, eta eskariak bere beharrak aditzera emateko erraztasunak lortzen ditu.

Era berean, gizarte-sare horien bitartez sortuak izatean, normalki tokiko mailan kokatzen diren ekimenak dira, eta gertutasunezko izaera dute, bai zerbitzua eskaintzen den esparru geografikoari dagokionean, baina baita zerbitzu honek dituen “harremanezko” elementuengatik ere, jarduera ekonomikoan interesa duten parte inplikatu guztiak, *stakeholder*-ak, elkar eragiteko egiturak osatuz (Laville, 2003).

Ezaugarri horiengatik guztiengatik, autore askok jarduera horiek “gertutasunezko zerbitzuak” bezala identifikatzen dituzte (Sajardo eta Chaves, 2006). Hala ere, ekintzaitasun olde berri honek dituen ezaugarri bereizgarrien inguruko azterketarik zehatz eta xehatuena *Social Enterprise* edota Enpresa Sozialaren inguruko teorizazio eskolen aldetik etorri da, eta horiexek aztertuko dira jarraian.

Defourny-k (2001) ekintzaitasun berri hau analizatzeko Schumpeter-ek bere obra klasikoan (1934) erabilitako kategoriak berrartzen ditu, oinarrian dagoen talde ekintzaileak aldaketa esanguratsuak eranstean dizkie enpresa-egitasmo horiei, berrikuntza ezberdinak sartuz jarraian agertzen diren alderdietan:

- Produktu klase berriak: gizarte-ekonomiaren teoria azaltzaile guztiek bere eginkizuna merkatuak zein estatuak ase gabeko esparruetan kokatu badute ere, egun ekintzaitasun berri bat hautematen da, bereziki Europan, ongizate-sistemen krisiari loturik (aurrekontu, eraginkortasun eta legitimitate krisia, aldi berean). Ordura arte estatuaren eskuduntza eskusiboa ziren zenbait zerbitzu, eragile pribatuen bitartez hornituak izaten hasi dira. Berezi bi jarduera esparru nabarmendu dira: desgaitasuna duten pertsonen

lan integrazioa eta desabantaila egoeran dauden gizataldeentzako zerbitzu pertsonalak (bereziki haur eta adineko pertsonak, baina baita etorkin, errefuxiatu, tratu txarrak jasotako emakumeak, etab.)

- Ekoizpen eta antolakuntza-metodo berriak: enpresa sozialen beste bereizgarritasun bat enpresa-egitasmo horietan inplikaturiko eragileen aniztasuna litzateke, partaidetza partekatuko egituretan biltzen baitira soldatapeko langile, boluntario, erabiltzaile, erakunde bultzatzaile zein autoritate lokalak ere. Partaidetza eredu horiek, *multi-stakeholders* bezala ezagunak, gizarte-ekonomiako erakundeetan baino heterogeneotasun handiagoa izateak, ekoizpen prozesua bera modu ezberdinean antolatzea eskatzen du, parte interesatu ezberdinen arteko lankidetzak esparruak eta aliantzak egituratzea eskatzen baitu.
- Ekoizpen-faktore berriak: soldatapeko lana lan boluntarioarekin bateratzen duten ekimenak dira enpresa sozialak. Errealitate horrek giza baliabideak kudeatzeko trebetasun berezia eskatzen du. Horretaz gain lan kategoria horietako bakoitzean gertatzen doazen aldaketak bereganatzeko malgutasuna ere eskatzen dio erakundeari, esaterako lan boluntarioak gero eta izaera enpresarialagoa (ez hain boluntario edo militantea) azaltzea, edota soldatapekoak era berean erakundeko bazkide izateak berekin dakar gobernu-organo parte hartzaileak izatea, etab.
- Merkatu-harreman berriak: enpresa sozialak tradizionalki familiak eta estatuak bere gain harturiko zenbait zerbitzuen “desfamiliarizazio” eta “desestatalizazio” prozesuei erantzunez jaio dira, zerbitzu horiek merkatu harreman berrien bitartez eskainiz. Tradizioz merkatu elkartrukeen bitartez hornitu ezin ziren zerbitzuak merkatura atera direnean (estatuak buruturiko azpikontratazioen bitartez, edota familien baitan jazotako externalizazio prozesuen ondorioz), enpresa sozialak jarduera esparru horietan kokatu dira, merkatu harreman berriak proposatuz.
- Enpresa-forma berriak: enpresa-egitasmo berritzaile horiek Europan zehar hedatzen joan ahala, herrialde ezberdinetan ekimen horietara hobeto egokituko zen legediaren garapena eman da. Horrela, enpresa sozialen artean aitzindari eta erreferentziazkoa den Italian “Kooperatiba Sozial” estatusa onartu zen legalki 1991ean. Horien atzetik etorri ziren 1995ean Belgikako

“*Company with a social purpose*” deiturikoak, edota Portugaleko 1998ko “*social-solidarity co-operative*”-ak, eta Grezian “*social co-operatives with limited liability*”-ak 1999an. Britainia Handian “*community interest company*” bezala arautu ziren 2004an eta gertueneko esparruan, hots Euskadiko araudian, erregulazio espezifikoa garatzen joan da enpresa sozialekin identifika daitezkeen hainbat enpresa egituren gain, besteak beste, “gizarte-integratioko kooperatibak” (4/1993 kooperatiben legea), “herri onurako kooperatibak” (64/1999 dekretua), “gizarte-ekimeneko kooperatibak” (61/2000 dekretua), eta intertzio enpresak (305/2000 dekretua) (Del Burgo, 2009).

Aipaturiko izaera berritzaileko elementu horiek, enpresa sozialak gainerakoengandik ezberdintzen dituen ezaugarri nagusia merkatuko, ez-merkatuko eta ez-monetazko egitura hibridoak izatean datza. Hibridazio hori enpresa sozialen alderdi ezberdinetan gauzatzen da: bai parte hartzen duten eragileen aldetik (aipaturiko *multi-stakeholders* eredu); baita mobilizatzen dituzten finantza baliabideen aldetik (izan litezke merkatuko salmentetatik eratorriak, izan litezke sektore publikotik diru laguntza edo azpi-kontratazio bidez eratorriak, edo baita norbanakoen dohainen bitartez ere); eta baita baliatzen dituen ekoizpen faktoreetan ere (soldatapeko zein borondatezko langileen bateratzea).

Azken ideia horri loturik justifikatzen da orobat, enpresa horien izaera soziala. Izan ere zer dela eta deitu behar litzaieke enpresa horiei, enpresa “sozial”? Defourny-ren iritziko (2001), Gizarte Ekonomiaren zein Mozkinez Besteko Erakundearen korrante teorikoek proposatzen dituzte izaera sozial hori detektatzeko giltzarri nagusiak, eta hiru dira nagusiki: i) jardueraren helburuei dagokienean, mozkinen peskizan aritu ordez, mozkinen gaineko betebeharrak jakinak dituzten erakunde izatea, konkretuki nola-halako mozkinen sozializazio bat gauzatu beharra (bai komunitatearen mesedetan edo bai jardueraren garapenean berrinbertituz); (ii) aipaturiko baliabideen hibridazioa, merkatuko, ez-merkatuko, eta ez-monetazko baliabideak erabiltzearen, eta; (iii) antolakuntza mailako ezaugarrietan, erakunde parte hartzaileak diren neurrian, beren erabaki-organo autonomoekin eta bazkideek erabakitze ahalmen parekidea dutelarik, horiek egindako balizko ezein kapital ekarpenengandik apartekoa.

3.3.4 Europa mailako erreferentzia nagusiak

Enpresa Sozial horien inguruko eraikuntza teoriko guztia, pentsatzekoa denez, han eta hemen agertu izan diren ekimen sozio-ekonomikoen behaketa eta analisisetatik eratorri izan da.

Europa mailan enpresa sozialek oso garapen disparekoa ezagutu dute herrialde batetik bestera: zenbait herrialdeetan azken urtetako hazkundea eztabaidaezina den arren (nagusiki Italia eta Britainia Handian), beste zenbait herritan garrantzia esanguratsua lortu dute baina oso sektore espezifikoetan (esaterako Suedia eta Finlandian haurtzaindegi eta enplegu zerbitzuen alorretan). Beste zenbait herritan, aldiz, bazterreko presentzia dute (Grezia edo Danimarkan) edota ez dira gehiegi bereizten sektore publiko edo hirugarren sektoreko erakunde tradizioetatik (adibidez Alemanian edo Herbehereen kasuan). Borzaga eta Defourny-ren iritzian (2001), herrialdeen arteko desberdintasun horiek hiru faktore ezberdinen bitartez azal litezke: herrialde bakoitzaren garapen sozio-ekonomikoa, ongizate-erregimena eta sistema legala aintzat hartuz, hain zuzen ere.

Herrialde bakoitzaren garapen sozioekonomikoak eragin zuzena du enpresa sozialen agerpenean: gutxien garaturiko herrialdeetan, gizarte-zerbitzuen karga familia unitateen bitartez estaltzen den neurrian, adierazitako gizarte-zerbitzuen eskaria apalagoa da bestelakoetan baino, eta beraz, enpresa sozialak gutxi garatzen dira esparru honetan, eta gehiago lan merkatutik bazterturiko pertsonen gizarteratze esparruetan. Gizarte-zerbitzuen eskariak beraz, lotura du herrialdeen maila sozioekonomikoarekin, baina baita horien ongizate-erregimenarekin ere: ongizate-zerbitzuak nagusiki publikoak edo informalak diren herrialdeetan, ez da enpresa sozialen hedapen handirik ezagutu. Aldiz, prestazio bidezko ongizate-sistema garatua duten herrialdeetan, enpresa sozialek testuinguru egokia aurkitu dute ugaltzeko: eskari kaudimenduna batetik, eta hornidura publikoaren gabezia, bestetik. Aldagai horiei, herrialde bakoitzarena propioa den arautegia erantsiz gero, emaitza nazioarteko esperientzi ezberdinen argazkia litzateke.

Kasurik aztertuenak aipatzekotan, hurrengoak aipatu behar lirateke. Frantzia gurasoen parte hartzearekin osatu diren haurtzaindegi zerbitzuak eta helduen edota menpekotasuna azaltzen duten pertsonentzako etxez etxeko laguntza zerbitzuak dira gehien azpimarratzen direnak. Ekimen berri horiek, estali asmo duten beharrianari erreparatuz gertutasunezko izaera azaltzen dute, bai esparru geografikoari dagokionean baina baita agertzen duten harremanezko elementuen ondorioz ere. Hori dela eta eman izan zaie “gertutasunezko zerbitzuen” izendapena (Laville, 2004).

Gizarte-zerbitzuen kooperatibizazio prozesuaren erakuslerik nagusienak Italiako kooperatiba sozialak dira zalantzarik gabe, dinamika berri horien aitzindari eta erreferentzia nagusi. Borzaga eta Santuari-k (2001) aztertzen dutenez, kooperatiba sozialak 1991ean legalki errekonozituak izan zirenetik, hainbat eta hainbat borondatezko elkarte kooperatibetan bilakatu ziren gizarte-zerbitzuen hornidurara igarotzeko. Nagusiki bi motako kooperatibak bereizten dira, A eta B motakoak, lehenak gizarte-zerbitzu, osasun eta hezkuntza adarretan dihardutenak, eta bigarrenak desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzen diharduten enpresak. Hala ere, nagusiki helduen zaintza-zerbitzuetan diharduten kooperatibak dira kooperatiba sozialak. Kooperatiba horien ezaugarrien artean nabarmentzekoak lirateke, besteak beste: beren jabetza partekatu edo mistoa (langile, erabiltzaile, finantzatzaile zein laguntzaile boluntarioak elkartzen baitira), baliabide finantzarien aniztasuna (merkatuko, ez-merkatuko eta ez-moneztako baliabideak uztartuz) eta beren tokiko eta tamaina txikiko izaera.

Horiekin batera aztertu izan dira Britainia Handiko etxez etxeko zaintza-kooperatibak, tokiko mailako autoritateek abian jarritako azpi-kontratazio (*contracting out*) edota quasi-merkatu publikoen eraketaren testuinguruan aurkitu baitituzte ugaltzeko baldintzak (Spear, 2001). Autore horrek berak baieztatzen du Britainia Handiko ongizate-zerbitzuen sektorean bi aldibereko prozesu ematen ari direla, hots, lurralde deszentralizazioa, eskumenak udalerrri mailara igaroz, eta zerbitzuen azpi-kontratazioa edo pribatizazioa. Testuinguru horretan ari dira ugaltzen enpresa sozial ezberdinak, dela tradizio handiko borondatezko elkarte erraldoien bultzadaz edo dela tokiko mailako kooperatiba txikien ekimenez.

Suediako kasuan, aldiz, azterketa garrantzitsuak egin izan dira halaber gurasoek auto-kudeaturiko haurzaindegien gainean (Pestoff eta Brandsen, 2010).

Hala ere, aipaturiko kasu horien artean fenomenorik hedatuena nazioarteko herrialde ezberdinetan (besteak beste Suedian, Danimarkan, Portugalen, Italian, Luxenburgon, Grezian, Espainian eta baita gertueneko planoan, Euskadin ere) lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonen integrazioarako ekimenak dira, bai desgaitasun fisiko edo mentalen bat pairatzen dutenen mesedetan eta baita gizarte-bazterketan edota epe-luzeko langabezian dauden pertsonak bergizarteratzeko asmotan dihardutenak ere. Horiek ezaugarritu izan dute bereziki enpresa sozialaren adiera, hainbeste ezen autore batek baino gehiagok parekatu izan baitute intertzio-enpresen munduarekin.

3.4 Gizarte-ekonomiarentzat oinarri teoriko berrien bila

3.4.1 Hirugarren sektoreari buruzko bi ikuspegi nagusien mugak

Behin dinamika berritzaile horien konstatazioa egin ostean, eta horien sortze arrazoiak iradoki ostean, egile ezberdinek argudiatzen dute ordura arte hirugarren sektorearen azterketan nagusiak diren bi ikuspegi marko teorikoak zailtasun edo muga nabarmenak azaltzen dituztela ekimen berri horiek bere osotasunean entelegatzeko.

Defourny-ren irudiko (2001), bi ikuspegiak dituzte zenbait zurruntasun dinamika horien berpizkundea ulertzeko, bai beren garrantzia, bai beren forma juridiko ezberdinak eta baita beren motibazio fundazionalak aztertzeke ere. Bi dira honen iritzian muga nagusiak: alde batetik, bai gizarte-ekonomiaren eta baita mozkinen besteko ikuspegiak ere, hirugarren sektore osoa printzipio bateratzaileen bitartez biltzera jotzen dute, izaera anitzeko erakunde multzo bat definizio bakar eta orojakile batean laburtuz. Hautu bateratzaile honen ondorioz, bi ikuspegietatik bat ere ez da partzialki bere definizioarekin bat egiten ez duten errealitateak hautemateko gauza, eta beraz, gaitasunik gabeak azaltzen dira hirugarren sektorea bere osotasunean azal lezaketan “izendatzaile komun” zabalagoak proposatzeko.

Beste aldetik, bi ikuspegiok esentzialki estatikoagoak dira dinamikoak baino, kasurik gehienetan *a posteriori*ko analisietan zentratzen direnak. Metodologia deskriptiboaren erabilera hori ez da sarri askotan lagungarri izaten ekimen ezberdinen azpian ematen ari diren bilakaerak hautemateko, motibazio interesak ulertzeko, etab. Bi ikuspegiok serie historikoak lantzen dituzten arren, dela enpleguaren bilakaera edo bestelako faktore giltzarriak azalduz, estatistika deskriptibo horiek ahulezia berbera azaltzen dute, gehienera ere argazki estatikoen segida bat egiteko balio baitute, ez mugimendua irudikatzeko.

Ondorioz, Defourny-k (2001) dinamika berri horiek kategorizatzeko bi ikuspegiok errefusatuko ditu. Mozkinaz besteko ikuspegiak ez du errealitate berri honetan askok hartu ohi duten formula kooperatiboa barnebiltzen. Gizarte-ekonomia ikuspegiak aldiz, malgutasun handiagoa azaltzen du enpresa horiek kontenplatzeko, baina arazo handiagoak azaltzen ditu horiek juridikoki ohiko hirukote instituzionalarengandik (kooperatibak, mutualitateak eta elkarteak) urruntzen badira.

Lehen gerturatze hau modu sakonagoan osatzen du Laville-k (2004). Mozkinaz besteko ikuspegiari dagokionean, ekonomia neoklasikoaren baitatik egiten diren teorizazio lanetan jartzen da arreta. Argudio lerro azaltzaile horien aurrean Laville (2004) kritikoa azaltzen da arrazoi ezberdinengatik. “Hautu Instituzionalen” teoriak hirugarren sektoreari bigarren edo hirugarren aukerako lekua aitortzen dio, hots, merkatua zein estatuaren eraginkortasun gabezien alternatiba gisa. Laville-k (2004) ildo horien kritika, gutxienik hiru alderdi nagusitan antolatzen du: lehenik, “Hautu Instituzionalaren” teoriak “mozkinen banaezintasun” printzipioari ematen dion garrantzia zalantzan jartzen du, gizarteak erakunde horien aldeko eskaria azaltzerako orduan, aldagai azaltzaileetarikoa bat dela iritzita, ez inola ere bakarra; bigarrenik, teoriak ez du erakunde horien genesiari buruzko aldagairik kontenplaten bere analisietan, hau da, elkarteak aurretiaz jadanik existitzen diren balizkako baten gainean oinarritzen da teoria osoa. Balizkako honek, erakundeon genesian aurkitzen diren interes komun materialez gain, bestelako aldagai politiko eta sinbolikoen existentzia ukatzen du, eta horregatik, herren esanguratsua egiten du fenomenoaren bere osotasunean azaltzeko; azkenik, analisi horien izaera trisektoriala kuestionatzen du, ez soilik hirugarren sektorearen bazterreko alternatiba izatearen zentzua ukatzen duelako, baizik eta hirugarren sektorea sektore

ordezkatzaile edo osagarri izatetik urrun, gainerako bi sektoreekin bat, eta batik bat estatuarekin elkarreraginez garatzen den gizarte gertaera dela uste baitu.

Gizarte-ekonomiaren ikuspegiarekiko mantentzen duen erlazioak aldiz, interpretazio ezberdinetarako atea irekitzen ditu. Badira, dinamika berri horiek funtsean gizarte-ekonomiaren jarraipen naturaltzat jotzen dituztenak (Jeantet, 2001), edo funtsean gizarte-ekonomiaren baitako jarduera esparru espezifiko eta mugatutzat jotzen dituztenak (Sajardo eta Chaves, 2006) eta maila praktikora jaitsita, gizarte-ekonomiaren baitakoak direla defendatzen dutenak (Chaves eta Monzón, 2008).

Horren adibide argia da Espainian 2011urtean onarturiko Gizarte Ekonomiaren legeak errealitate berri horien inguruan hartzen duen posizionamendua ere. 1.go kapituluan garatu dugun moduan, gizarte-ekonomiaren egungo adieraren baitan sartuko lirateke laneratze enpresak eta enplegu zentro espezialak ere, zeinak juridikoki gizarte-ekonomiako formuletara guztiz ez egokituta ere, beren jardute printzipioengatik gizarte-ekonomiako eragiletzat onartuak izan baitira legeari begira. Zentzu horretan, 1.go kapituluan gizarte-ekonomia definitzeko baliatu dugun irizpide instituzional hertsian mugatu baino, bestelako irizpide zabalagoak baliatuz gizarte-ekonomiaren hedapen kontzeptual bat ezarri da legez Espainiaren testuingururako, lotura zuzena duelarik honek maila akademikoan CIRIEC erakundearen baitan azken urteetan defendaturiko argudio nagusiekin (Etxezarreta eta Morandeira, 2012).

Badira ordea, bi ikuspegi horien arteko haustura argi bat hautematen dutenak, nagusiki egungo gizarte-ekonomiaren desnaturalizazio prozesuaren aurrean, honako hau XIX.eko gizarte-ekonomiaren oinarrietara itzultzen den (*retorno al origen*) korrontea dela iritzita (Levesque, 2003; Lavelle, 2004; Favreau, 2005, etab.).

Esperientzia berri horiek eta gizarte-ekonomiaren tradizionalaren arteko haustura planteatzen duten autoreen artean legoke Lavelle (2004). Bere kritikaren puntu zentrala honako hauxe litzateke: gizarte-ekonomiaren ikuspegi modernoak oso izaera juridiko-instituzionala hartu duela, erakunde horien antolakuntza alderdietan oso zentratua eta ondorioz, analisi ildo oso “ekonomizisten” bidez garatu dela, aintzat hartu gabe gizarte-ekonomiak zein erantzun eman nahi dituen egungo garapen ereduaren inguruan. Funtsean,

gizarte-ekonomiaren ikuspegiak eskola ekonomizista hori besarkatuz bizkar eman die fenomeno hau ulertzeko ezinbestekoak diren beste zenbait aldagaien analisi xehatuagoari, besteak beste, erakundeon genesi eta irismenei, aldaketa instituzional orokorragoetan izandako eraginei, interes materialez gain existitzen diren alderdi kolektibo eta sinbolikoei, edota erakundeen barne antolakuntza arauen analisi enpiriko kritikoei. Alderdi horiek guztiak dira, neurri batean edo bestean, Enpresa Sozialaren teorizazio lanek beregain hartzen dituztenak.

3.4.2 Enpresa sozialaren definizio operatibo baterantz

Enpresa sozial gisa ulerturiko enpresa ekimenak 80eko hamarkadatik aurrera biderkatzen joan diren arren, Enpresa Sozial kontzeptuak esparru akademikoetan onartua izan arte urte batzuk gehiago itxaron behar izan ditu. Horrela, 1990eko hastapenetan *Harvard Business School*-ak “*Social Enterprise Initiative*” delakoa abian jarri zueneko jotzen da kontzeptu berri honen hastapeneko mugarri garrantzitsuentzat (Defourny, 2001). Europara etorrira aldiz, esan bezala esperientzia fundatzailea Italian eman zen, mugimendu kooperatiboaren baitatik sortua, kooperatiba sozialen errekonozimendu legalaren eskutik.

90eko hamarkadan zehar antzeko esperientziak hedatzen joan ziren Europan zehar, nahiz eta legalki izendapen ezberdinekin aitortuak izan. Herrialdeetan zehar ezaugarri bertsuekin sortzen ari ziren esperientzien gaineko analisi alderatuak egin asmoz, 1996an *EMES European Research Network* delako ikerketa taldea sortu zen, geroztik enpresa sozialaren erreferente teoriko nagusia bilakatu dena. Politika publikoen esparruan, berriz, Britainia Handiko gobernu laboristak berebiziko bultzada emango zion 2000eko lehen urteetan enpresa sozialaren gaiari, *Social Enterprise Unit* gobernu organoaren bitartez, sektorearen gaineko ezagutzan sakontzeko eta enpresa molde berritzaile horiek promozionatzeko politikei ekin zielarik.

Behin enpresa sozialaren errealitatea nazioarte mailan modu bereizian errekonozitua izan zelarik, gaiari loturiko eskola eta ikuspegi ezberdinak jorratzen joan dira. Horien guztien artean, guk, *EMES* sarean bildutako ikerlariak proposatzen duten definizioari

eman diogu erreferentzialtasuna, beharrezkoak diren gutxieneko adostasun puntuak jasotzen dituen definizio baliagarria dela iritzita.

EMES sareak proposatzen duen definizioak bi irizpide osagarri erabiltzen ditu, ekonomikoak batetik, eta sozialak bestetik (Defourny, 2001)(Nyssens, 2006).

Koadroa 9: Enpresa Sozialaren definizio operatiboa: irizpide ekonomiko eta sozialak

Irizpide ekonomikoak

- Ondasun eta zerbitzuen ekoizpen eta salmenta jarduera jarraitua: mozkin asmorik gabeko erakundeen aldean, enpresa sozialen eginkizun nagusia ez da laguntza edo birbanaketazko funtzioetan zentratzen. Aitzitik, jendartearentzat modu jarraituan ondasunen ekoizpenean eta zerbitzuen hornikuntzan jardutea da horien eginkizuna. Jarduera produktiboa da, gainerakoan gaineratik, enpresa sozialen izateko arrazoia.
- Autonomia maila altua: enpresa sozialak gizatalde batek modu autonomoan eta buruaskian sorturiko ekimenak dira. Finantzazio publikoarekiko dependentsia maila bat ager dezaketen arren, ez dira inolaz ere ezin autoritate publikok ez bestelako erakundek zuzenki ez zeharka kanpotik kudeatuak izango. Jarduera abiatu zein amaitutzat jotzeko eskubide osokoak dira.
- Arrisku ekonomiko maila esanguratsua: enpresa soziala abiarazten dutenek, osoki edo partzialki asumitzen dute beren ekimenaren arriskua. Instituzio publikoen aldean, enpresaren bideragarritasun finantzaria bazkide eta langileek beharrezko baliabideak ziurtatzeko egiten duten ahaleginaren arabera da.
- Gutxieneko lan ordaindua: mozkin asmorik gabeko erakunde gehienek kasuan bezala, enpresa sozialek monetatzko zein ez-monetatzko baliabideak baliatu ditzakete, lan boluntarioa zein soldatapekoaren bitartez. Alabaina, enpresa sozialaren bitartez buruturiko jarduerak gutxieneko lan ordaindu maila bat izatea du baldintza.

Irizpide sozialak

- Komunitatearen mesedetan jarduteko helburu esplizitua: enpresa sozialaren helburu nagusietako bat, komunitatearen edota gizatalde konkretu baten mesedetan jardutea da. Zentzu berean, enpresa sozialen ezaugarrietako bat da tokiko mailan gizarte-erantzukizunaren zentzua hedatzeko asmoa izatea da.
- Hiritar talde batek abiarazitako ekimena: enpresa soziala engeinamendu kolektiboaren emaitza da, beharizan edo aspirazio konkretu bat partekatzen duen gizatalde edo komunitate baten parte diren pertsonengandik sortua. Izaera kolektibo hori denboran zehar mantendua izango da, nahiz eta horrek ez oztopatu modu bateko edo besteko lidergorik izatea (norbanako edo talde txikien lidertza).
- Kapitalaren jabearen oinarritzen ez den erabaki-hartze ahalmena: normalki “persona bat, bozka bat” printzipioari men egiten dio horrek, edo bederen gobernu organoen bitartez bideraturiko erabakitze prozesuak, eta finean erabakitze eskubideak, kapital ekarpenen arabera banaketarik ez izatea. Honetaz gain, kapitalaren jabeek beren garrantzia izanagatik ere, gainerako parte interesatuekin (*stakeholders*) partekatuko dituzte erabakitze eskubideak.
- Izaera parte-hartzailea, jarduerak eragiten dien parte interesatuak barnebiltzen dituenak: enpresa sozialen ezaugarri garrantzitsuak dira kudeaketa parte-hartzailea, parte interesatuek erabaki hartzeetan eragina izatea eta erabiltzaile zein kontsumitzaileen ordezkapen eta parte hartzea bermatzea. Kasu askotan, enpresa sozialen asmoetarik bat izaten da tokiko mailan jarduera ekonomikoaren bidez demokrazian sakontzea.
- Mozkin banaketa mugatua: enpresa sozialen artean kokatzen dira “mozkinak banatu ezinaren” baldintzapean jokatzeko duten erakundeak, baina baita mozkinen banaketa mugatua onartzen duten erakundeak ere –kooperatibak, kasu- beti ere mozkinak maximotzeko portaerak bazter utziaz.


Iturria: Defourny, 2001 (itzulpena geurea)

Autore horiek beroriek azpimarratzen dute, proposatzen duten adiera gizarte-ekonomiaren eta mozkinen besteko ikuspegiaren arteko zubi bat dela, hau da, bi ikuspegiaren ezaugarriak jasotzen dituen adiera. Honela, Defourny-k (2001) zehazten duenez, kooperatiben mundutik elikatzen da bereziki, zenbait herritan enpresa sozialek formula kooperatiboa besarkatzen dutelako (ohikoagoak dira lan elkartuko kooperatibak, erabiltzaile (edo kontsumo) kooperatibak baino). Horrez gain, kooperatiba horietan *stakeholder* talde zabalagoak osatzen dira, eta beren jardunbidean lan elkartuko ohiko kooperatibek baino bokazio handiagoa izaten dute komunitate osoaren mesedetan aritzeko.

Beste aldetik, mozkinen besteko erakundearen ezaugarriak ere jasotzen dituzte, zenbait herrialdetan elkarte edo mozkin asmorik gabeko erakunde gisa erregistratuta azaltzen baitira enpresa sozialak. Dena den gertuago daude ekoizpenaren bideraturiko mozkinen besteko erakundeetatik, gainerako babes elkarte (*advocacy*) zein subentzionatutako fundazioetatik baino.

Jarraian aurkezten duen irudiak laburbiltzen du grafikoki enpresa sozialaren kokapena bi mundu horien artean:

Irudia 1: Enpresa soziala, mozkin ez besteko sektore eta kooperatiben arteko bidegurutzean



Iturria: Defourny (2001)

Enpresa sozialek, ordea, arestian aipatu den bezala, bi corpus teoriko horietatik edan arren, horiek errealitate berri hauek hautemateko dituzten mugekin jotzen dute, eta ekonomia solidarioaren ikuspegi osoago baten baitan aztertuz gero hartzen dute benetako zentzu berritzaile bat.

3.4.3 Enpresa sozialaz harago: ekonomia solidarioaren ekarpena

Ekonomia solidarioaren teorizatzaile nagusien adskripzio akademikoari erreparatuz gero, ohar gintezke ikuspegi hau soziologiaren oinarrietatik gertuago dagoela gizarte-ekonomiarena edo mozkin ez besteko teorikoena baino (Sajardo eta Chaves, 2006). Izan ere, zenbait autorek “Soziologia Ekonomiko Berria”ren corpus teorikoaren baitan kokatu izan dute korrante hau (Levesque, 2003).

Hala ere, eta ikusmira apur bat gehiago zabalduz, ekonomia solidarioa sostengatzen duen corpus teorikoa zorretan aurkitzen da, neurri handi batean, merkatu-ekonomiaren kritikan XX.eko hastapenetan erreferentziazko egin ziren bi antropologo ekonomikoren ekarpen nagusiekin: Karl Polanyi eta Marcel Maussen lanekin, hain zuzen ere (Laville,

2004). Biek ala biek, XIX. mende erdialdetik nagusitasunez garatzen zihoan merkatu-ekonomia eta teoria ekonomiko neoklasikoei erantzunez, bi ardatz nagusitan zentratu zuten euren teorizazio kritikoa: ekonomiaren izaera politikoa eta ekonomiaren izaera pluralaren ildotik.

Alde batetik beraz, ezein gizarteren antolakuntza ekonomikoa berezi ezina dela gizarte horren gainerako instituzioekiko (politiko, erlijioso, sinboliko, natur-baliabide, etab.) defendatzen dute. Polanyi *embeddedness* terminoa proposatzen du (Polanyi, 1944), ekonomia gainerako gizarte-instituzioetan txertatua dela baieztatzeko, eta horixe da korrante formalistaren aurrean bere ikuspegi substantibistaren euskarri nagusia. Ekonomia beraz, ez da neoklasikoei definitu duten gisa “eskasiaren kudeaketaren diziplina” gisa ulertu behar, baizik eta gizataldeek euren artean zein natur-baliabideekiko duten elkarmenpekotasun harremanetik eratortzen den gizarte-antolakuntza gisa. Lehen baieztapen honen haritik tiraka aldarrikatzen dute ekonomia solidarioaren teorikoei ekonomia birpolitizatu beharra, eragileen izaera ekonomikoari, bestelako eginkizun politikoak aitortuz.

Beste aldetik, eta lehen hari horri tiraka, ekonomiaren izaera plurala edo pluraltasuna da azpimarratzen duten puntua. Honela, teoria neoklasikoak ekonomia modernoa oso modu mugatuan ulertzen du autoreon iritziz: ekonomia lehia perfektuaren balizko zorrotzaren gainean eraikitzen den merkatuaren bitartez kudeatzen da eta auto-erregulatzeko gai da (uler, eskaria eta eskaintzaren arteko prezio bidezko oreka lortzen da merkatuz kanpoko ezein erakunderen esku hartzerik gabe). Are, enpresa modernoa enpresa kapitalistarekin identifikatzen da, zeinaren bitartez enpresa-jabeek beren kapital ekarpenen maximotzea beste helbururik ez baitute beren parte hartze ekonomikoaren motibazioan. Ekonomiaren kontzepzio hertsia honen aurrean, Polanyi-k printzipio ekonomikoen pluraltasuna aldarrikatu zuen, Mauss-ek jabego moduen pluraltasuna gehitu zuen bitartean (Laville, 2004)⁵⁴.

⁵⁴ Marcel Mauss-ek, bere obrarik sonatuenean “*Essai sur le don*” edo “*Dohainari buruzko entsegu*” dohaintza bidezko harreman ekonomikoen azterketa egin zuen, zenbait gizarte indigenek mantentzen duten *Potlach* sisteman oinarrituz. Dohaintzak, elkartruke horretan parte hartzen duten gizabanakoen arteko betebeharrak moral zein materialak finkatzen ditu. Dohaina, zentzu horretan, ez da trukean ezer jaso gabe egiten den oparia, aitzitik, dohain emaileak zenbait eskubide eskuratzen ditu dohain jasolearekiko, bigarren hori dohaina itzultzerik derrigortzen duelarik. Dohaina ez emateak, ez jasotzeak edota ez itzultzeak, elkartrukean parte hartzen duten gizabanakoen ohore zein estatusaren kaltetan eragiten du. Eman-jaso-itzuli prozesu hirukoitz horrek, hortaz, agerikoa denez gizarte-sare ezberdinak egituratu eta

Oinarri teoriko horien jatorria partekatuz, herrialde ezberdinetako teorialarien bultzadaz garatu izan da azken bizpahiru hamarkadatan ekonomia solidarioaren teorizazioa.

Lurralde eremuri dagokionean, ikuspegia honen sorterritzat Frantzia jo genezakeen arren, adiera honek harrera beroa izan du gainerako herrialde frankofonoetan ere (bai Belgikan baina batik bat Quebec-en) eta baita Hego Ameriketako zenbait teorizazio altermundialisten baitan ere. Pérez de Mendiguren (et al)(2009)-ek ezartzen duten moduan bi dira, laburbilduz, gaiaren inguruan landuriko ikuspegiak: bata europarra eta bestea latinoamerikarra (bereziki Txile, Argentina eta Brasilen zentratuak).

Korronte latinoamerikarraren barruan Guerra (2004) eta Da Ros-ek (2007) hiru iturri nagusi identifikatu dituzte: lehenik Luis Razzeto (2007) txiletarraren pertsonan gorpuzten dena, “C faktorearen”⁵⁵ inguruko ekarpenetan oinarritua; bigarrenik, Lan Elkartuko Kooperatiben Latinoamerikako Konfederazioak (*COLACOT*) antolaturiko bilguneetan zehazten da, ekonomia solidarioaren nozioak kooperatibagintzaren esparruetara zabaltzeko nahian; azkenik, Brasilen eman da gaiaren inguruko garapen teorikorik esanguratsuenetakoa, maila akademikoko hainbat pentsalariren (tartean Marcos Arruda (2004, 2005) eta Paul Singer (2006)) ekarpenez gain, pisuzko zenbait eragile sozioekonomikok ere (bereziki *Central Unificada de Trabajadores* deiturikoak) beren interesa azaldu baitute. Korronte horiek guztiak, neurri handiagoan ala txikiagoan bada ere, ekonomia solidarioa gizarte-eraldaketa sakonen bidean kokatzen dute, kapitalismoaren jardunbide nagusiei aurre eginez, neoliberalismoaren oinarri teorikoak auzitan jarri eta alternatibak proposatuz.

sendotzeko oinarriak jartzen ditu, eta ondorioz, elkartruke horiek interes material hutsetik ulertzen ahalegintzea ariketa antzua da, bere benetako logika eta funtzionamendua ulertzeko ezinbestekoa baita gainerako harreman sozial eta sinbolikoei erreparatzea.

⁵⁵ “C faktorea” ekonomia solidarioko erakundeei lehiakortasuna damaien faktoreak izendatzeko erabiltzen da, Razzeto-ren aburuz, erakunde horiek kapital, teknologia eta eskulan espezializatuaren alorretan izan ditzaketan gabezien aurrean, elkartasunari lotutako faktoreen abantailekin jokatzeko baitute, (denak ere gaztelerazko C letrarekin hasten direnak: *comunidad, compañerismo, compartir, colaboración, cooperación*,

Horien artean aipagarriak dira Jose Luis Coraggio-k eginiko ekarpenak. Egile honen azken argitalpenetan *Economía Social y Solidaria* adiera da garatzen duena⁵⁶, adiera honen bi dimentsio ezberdin nabarmenduz: bata, sistema ekonomiko batekin parekatzen duena, gizarte justu eta orekatu baterako oinarri materiala eskainiko lukeen sistema gisa ulertuz, eta bestea, egungo sistemak sortzen dituen gizarte-eragin negatiboei aurre egiteko helburuz sorturiko ekintza kolektiborako egitasmoei erreferentzia egiten diena (Coraggio, 2011: 373). Ekarpene horiek guztiak Hego Ameriketako zenbait herrialdeetan (Ekuadorren nagusiki, baina baita Perun ere) garatzen eta praktikan jartzen ari diren *Buen Vivir* (Acosta, 2011; Tortosa, 2009) paradigmaren inguruabarrean kokatzen ditu autoreak, egungo garapen-ereduekiko erradikalki ezberdina den garapen modu berriak eraikitzerako orduan, ekonomia solidarioari toki garrantzitsua emanez⁵⁷.

Tradizio europarrera etorriz, Soziologia Ekonomiko Berriaren inguruabarrean diharduten autoreen artean, Levesque-ek (2003) egiten duen diziplinaren gaineko errepasoan, bi korrante nagusi nabarmentzen ditu: lehena Perret eta Roustang-ek gidatzen dutena, “ekonomia gizartearentzat” izendatzen duena (bi autoreen *L'Économie contre la société* (1993) liburuaren izenburua moldatuz) eta lan harremanen analisisian zentratzen dena nagusiki. Korrante honek enplegua eta gizarte-eskubideen arteko erlazioak arakatu ostean, enplegua eta ekonomia birpentsatzeko ardatzak proposatzen ditu, baita enplegua eta lana, bi kontzeptu ezberdin gisa ulertzeak dakartzan inplikazio teorikoak argitu ere. Bigarren korrantean kokatuko litzateke Jean Louis Laville-k ezagutzera eman duen ekonomia solidarioaren ekarpena, zeina baita dudarik gabe Europa mailan lehen mailako erreferentzia gai honetan. Korrante honek tradizio frankofonoko lurraldeetan bere eragina izan du, nagusiki Quebec-en, jarraipen sendoa izan baitu Ivan

⁵⁶ Adiera hau azkenaldian indarra hartzen ari da baita tradizio bere ingeleseko itzulpenean ere (*Social and Solidarity Economy*), eta nazioarteko kongresu eta konferentzia geroz eta gehiago egiten ari dira bi nozioak (gizarte-ekonomia eta ekonomia solidarioa) aldi berean erabiliz. Horren adibide dira, esaterako, 2011 urtean Paris-en izaniko *Les États généraux de l'économie sociale et solidaire* kongresua, Montreal-en urte berean ospaturiko *International Forum on Social and Solidarity Economy* kongresua, edo Lanaren Nazioarteko Elkarteak argitaraturiko, *The Reader 2010: Social and Solidarity Economy: Building a common understanding* argitalpena ere.

⁵⁷ *Buen Vivir* adiera orain ate landuriko *Bien Estar* adiera ordezkatzera datorren proposamena da, garapenaren eta hazkundearen teoria kritikoen testuinguruan kokatu behar litzatekeena, hots, post-garapena eta des-hazkundera bezalako corpus teorikoen ingurumarian. “Ongi izatearen” ideia, gure gizarteetan ongizate-estatuetan instituzionalizatua, gizarte-beharrizanak asetzeko hazkunde produktiboan, ekitatean, eta eraldaketa sozialean oinarritu bada, “ondo bizitzearen” ideiak horiek barne armonia, gizarte-armonia, eta naturarekiko armoniagatik ordezkatu nahi ditu (Unzeta, 2011). Maila teorikotik bere garapen politikoa izaten ari den adiera da, halaber, Ekuadorren onartu den Montecristi Konstituzioa horren lekuko (Acosta, 2011).

Comeau, Louis Favreau eta Jaques Boucherek zuzentzen duten *Économie et Solidarités* aldizkarian, baita Ives Vaillancourt eta Lucie Fréchettek zuzentzen duten *Nouvelles Pratiques Sociales* aldizkarian ere (Levesque, 2003).

Laburbilduz, Pérez de Mendiguren (et al)(2009)-ek eginiko sailkapenaren arabera ekonomia solidarioa ulertzeko bi modu nagusi agertzen dira, elkarri oso lotuak egon arren eskema analitiko ezberdinen bitartez garatzen ari direnak: bata makroekonomikoa eta bestea mikroekonomikoa. Martinez eta Alvarez-en (2008) hitzetan, “ekonomia solidarioak gauza ugari azaltzen du aldi berean: batetik, ekonomiaren ikuspegi teoriko bat da (gizatiartasun karga handiduna), bestetik antolakunde mota espezifiko bat da (demokrazian eta enpresari kolektiboan oinarritua). Bietan giza faktorea eta elkartegintza oinarrizko elementuak dira prozesu ekonomikoen artikulazioan” (itzulpena gurea).

Lehen maila horretan, beraz, teorialariek ekonomia solidarioa ekonomia bere horretan ulertzeko gako berriak proposatzeko lanabes gisa darabilte, ekonomia birpentsatzeko giltzarriak emanez, dela orain arteko teorizazio ekonomikoen oinarriak zalantzan jarriz edo dela “Beste Ekonomia” (*Otra Economía*) baterako oinarri teoriko berriak proposatuz (Coraggio, 2011). Ekonomia solidarioaren adar hau nagusiki teorikoa litzateke, eta errealitate konkretuen analisisetatik abiatu arren maila zabalagoan, ekonomia bere prozesu guztietan (ekoizpen, merkataritza, banaketa, finantzazioa, kontsumoa, etab.) eraldatzeko ekarpenak jasotzen dituzte.

Honela, Coraggio-k (2011: 377-382) zerrendatzen dituen moduan, ekonomia solidarioak printzipio berri batzuk finkatu nahi lituzke bai maila produktiboan (lana pertsona guztientzat, ekoizpen bitartekoen eta ezagutzaren gaineko jabegoa langileen aldetik, lankidetzaz lehiaren aurretik, etab.), baita banaketa mailan (gizarte-bazterketan diren pertsonen integrazioa, errenten banaketa parekoa, lan zapalkuntzarik eza,...), baita elkartruke mailan (buruaskitasuna, elkarrekikotasuna filantropiaren aurretik, gaineratikoen birbanaketa kolektiboa, etab.), kontsumo mailan (kontsumo arduratsua eta ingurugiroarekiko errespetuzkoa) zein zeharkako moduan ere. Ildo berari eutsiz, Askunze-k (2007) ere ekonomia solidarioari loturiko printzipioak zehazten ditu, sei nabarmenduz, besteren artean: i) erakundeen barneko berdintasuna; ii) enplegua (lan

merkatura sartzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat bereziki); iii) ingurugiroarekiko errespetua; iv) lankidetzaren erakunde barruan zein kanpoan; v) mozkinen besteko izaera eta; vi) inguruarekiko konpromisoa.

Zentzu horretan, ekonomia solidarioaren enpresak ez dira, huts hutsean, gizarte-helburuak dituzten jardura ekonomiko gisa definitzen. Aitzitik, esparru ekonomiko eta sozialaren hedapen gisa agertzen dira, esparru ekonomikoan printzipio ekonomikoen pluraltasuna aldarrikatuz eta esparru politikoan gizartearen demokratizazioaren alde bultzatuz eginez (Martinez eta Alvarez, 2008).

Ekonomia solidarioaren oinarri teorikoaren funtsean dagoen ideia, aipatu bezala, jardura ekonomikoen pluraltasunarena da, “Ekonomia Plurala” gisa izendatu izan dena beste batzuen aldetik (Laville, 2003; Levesque, 2003, 2004; Favreau, 2005). Ideia honen bitartez ekonomia hautemateko orduan dagoen axioma nagusia auzitan jartzen da, hain zuzen ere: gizarte eta ingurugiro aurrerapena merkatu ekonomiaren emaitzei lotzen duen ikuskera (Laville, 2004)⁵⁸.

⁵⁸ Merkatu-ekonomiaren ikuspegi mugatu honen aurrean, autoreok ekonomiaren ikuspegi hedatuagoa izateko hiru jardura poloen bereizketa proposatzen dute, Polanyi-ren (1944) hiru printzipio ekonomikoetan babes hartuz: i) merkatuko ekonomia: esparru honetan ondasun eta zerbitzuen ekoizpen eta banaketak interes materialei erantzuten die, eta horien elkartrukea merkatuaren bitartez bideratzen da, eskaria eta eskaintza adostasuneko orekara eramaten dituen prezio jakin batean. Eskaria eta eskaintzaren arteko erlazioa kontratu bidez finkatzen da, eta hortaz, prozesu ekonomikoak modu autonomoan gertatzen dira, esan nahi baita, beste inolako ez-merkatuko gizarte-erlazioekin loturarik izan gabe. ii) ez-merkatuko ekonomia: ondasun eta zerbitzuen ekoizpen eta banaketa estatuak gobernaturiko prozesu eta antolakundearen esku geratzen den esparrua litzateke hau. Ez da beraz merkatuko elkartruke printzipioa esparru hau gidatzen duena. Aitzitik, birbanaketa printzipioa da nagusi, eskubide indibidualen jabe diren norbanakoen mesedetan eraturiko gizarte-segurantza, ongizate edota gizarte-larrialdietarako asistentzia sistemen bitartez. Birbanaketa prozesu horiek sektore publikoaren bitartez gauzatzen dira, zeinak kontrol demokratikoaren pean jokatzeko duen. iii) Ez-monetazko ekonomia: ondasun eta zerbitzuen ekoizpen eta banaketa elkarrekikotasun printzipioaren menpe dago. Elkarrekikotasuna, pertsona zein gizataldeen artean elkarren onurarako ezartzen diren erlazioen bitartez ematen da, baldin eta gizatalde horiek erlazio horiek sortzeko esparruetan parte hartzeko erabakia hartzen badute. Ez-monetazko ekonomia oinarritzko ekintza ekonomikoen forma bat da, eta “dohaina”ren (ingelerazko *gift* edo gaztelerazko *don*) gizarte-ekintzan gorputzen da. Alta, dohaina ez da ulertzen altruismoa edota ordainik gabekoa izatearen zentzuan. Dohaina jasotzen duenak, nola-halako askatasuna du, ez baitago berez dohaina itzularaztera behartuko duen kanpo-indarrik. Hala ere, dohaintza harremanak beti ezartzen dira trukean zerbait jasotzeko eskubidea irabaztearen zentzuan. Hortaz, elkarrekikotasunak ez du zerikusirik merkatuko elkartrukeekin, giza harremanei eta botere-harremanei hertsiki loturik azaltzen baita, ez eta birbanaketazko elkartrukeekin, ez baitago inolako kanpo botere betearazle zentralik. Etxeguneetako ekonomia (ekonomia domestikoa) familia unitateei lotuta, eta elkartegintza esparru komunitarioago batean dira gaur egun elkarrekikotasun harremanen adibide esanguratsuenak.

Bestalde, aipaturiko bigarren adierazpidea ekonomia solidarioa maila mikroekonomikoagoan aztertzen duena da, erakundeen funtzionamendu-arau, forma juridiko, jarduera-esparru, baliabideen kudeaketa eta abar aztertuz. Analisi horiek jite enpresarial nabarmenagoa dute, eta jadanik landu den *Social Enterprise* edota Enpresa Sozialaren inguruko teorizazioekin lotura zuzena dute.

Askunze-k (2007) ekonomia solidarioko enpresa horiek, enpresa sozialak edo enpresa solidarioak, honako esparru hauekin identifikatzen ditu: i) ingurugiroarekiko errespetuzko negozioak, dela birziklatze eta berrerabilpena bultzatuz, dela nekazaritza ekologikoko ustiapenen bitartez); ii) gizarte-bazterketan diren pertsonen integrazioa bilatzen duten enpresak, intsertzio edo laneratze enpresak, hain zuzen ere; iii) bitartekaritza finantzario alternatiboko egitasmoak, banka etikoa, nagusiki, baina baita moneta osagarriak (tokikoak eta sozialak), elkartruke ez-monetarioko egitasmoak (trukeak, denboraren bankuak, ezagutzen elkartruke egitasmoak, etab.); iv) bidezko merkataritzako egitasmoak; v) ekonomia solidarioko merkatuak, non elkartrukatzen baitira oro har orain arte azalduko ekonomia solidarioko ondasun eta zerbitzu ezberdinak. Ekinbide ekonomiko horiez gain, ekonomia solidarioko eragileek sentsibilizazio lan orokorrageotan ere kokatzen dira, dela kontsumo arduratsuko ohiturak bultzatuz gizarte osoan, dela herri-erakundeen kontratazio eta erosketetarako klausula sozialen aldeko kanpainak eginez, eta baita hiritar guztientzako hezkuntza eta sentsibilizazio esparruetan eraginez.

Laburbilduz, ekonomia solidarioak justizian, lankidetzan, elkar laguntzan eta elkarrekikotasunean oinarrituriko dinamikak piztu nahi ditu ekonomiaren esparru guztietan (ekoizpenean, banaketan, kontsumoan eta finantzazioan), kapitalaren ordeztasunak eta horien lana jarriaz sistemaren erdigunean, eta merkatuak pertsona guztien ongizatearen eta planetako bizitzaren erreprodukzioaren zerbitzura jarritz (Pérez de Mendiguren, et al, 2009).

Alabaina, merkatu-ekonomiaren funtzionamenduak berebiziko menpekotasuna agertzen du ez-merkatuko zein ez-monetazko ekonomiekiko. Alde batetik sektore publikoak merkatu-ekonomian duen esku hartzea, eta beste aldetik ez-monetazko esparruan familien, batik bat emakumeen esku geratzen diren mota guztietako zaintza lanak,

merkatu-ekonomiaren analisisian barneratu beharreko ezinbesteko aldagaiak dira denak ere.


3.5 Hirugarren sektorearentzako oinarri teoriko berrien bila

Orain arte landu ditugun ekarpen teoriko ezberdinen analisisietatik ondorioztatzen dugunez, gizarte-ekonomiaren inguruan sortu diren adiera berriek neurri batean erantzun egingo liokete modu orokorrean hirugarren sektorea eta sektore publikoaren arteko harremanean emaniko aldaketei. Honela, kapitulu honen bigarren atalean ikusi ditugun teorizazioek, hirugarren sektorea sektore bereizi bat baina bitarteko sektore gisa hautematen dute, ongizate mistoaren testuinguruan eman diren funtzioen berrantolatzeen ondorioaz. Era berean, hirugarren eta laugarren atalean ikusi dugunez, gizarte-ekonomiaren ildoko korrante teoriko berriek proposatzen dutenez gizarte-ekonomia (berria) erakunde hibridoen multzo gisa ulertu behar litzateke, non bat egiten duten merkatuko, ez-merkatuko eta ez-monetazko logika ezberdinek.

Arrazoi horiengatik ondorioztatu behar genuke, hirugarren sektorea ere, ukazioz definitu dugun espazioa izatetik, azken urteetako aldaketa hauen karira teorikoki berrikusi beharreko kontzeptua dela, espazio bereizi eta independentea baino, beste espazioen elkartze gune edo ebaketa gisa kokatu behar litzatekeelako.

Pearce-ek definituriko “Hirugarren Sistemaren” abiapuntua ontzat joz, orain arte gizarte-ekonomiari loturiko nozio ezberdinek hirugarren sistema zabal batean tokia leukakete, bai enpresa sozialek, bai kooperatibek, bai boluntario elkarteek eta baita bestelako zenbait gizarte eragilek ere.

Irudia 2: Hirugarren Sistema




Iturria: Pérez de Mendiguren et al, (2009:30) (Pearce-ren irudian oinarritua)

Irudian ageri den bezala, hortaz, hirugarren sistema honetan merkatuko zein ez merkatuko erakundeak leudeke, lehen sektore (pribatuarekin) kontaktuan leudekeelarik hirugarren sistemako erakunde enpresarialenak (tartean gizarte-ekonomiako ohiko erakundeak, enpresa sozialak, jarduera ekonomikoa duten mozkin bezeko erakundeak, etab.) eta aldiz, sektore publikoaren logikei lotuagoak agertzen dira Pearce-ek (2003) hirugarren sisteman kokatzen dituen bestelako zenbait eragile ere, bai ekonomia formalean dihardutenak (nagusiki mozkin bezeko boluntario elkarteak, sindikatuak, gobernu kanpoko erakundeak, etab.) baina baita esparru informalean diharduten familia-ekonomiei loturiko jarduerak ere.

“Hirugarren sistema” adiera, hortaz, hirugarren sektorea adieraren hedapen bat litzateke, guk doktorego tesi honetan jorratu ditugun adiera denek kabiera luketen espazioa, nahiz eta zorrotzagoak izanik, gizarte-ekonomiari lerraturiko sektorea ez den hirugarren sistema honek bere osotasunean hartzen duena. Gizarte-ekonomiari legokiokeen esparrua, esparru formal eta independente gisa definitu dugu, eta hortaz hirugarren sistema honen baitako azpisektore enpresarialaren esparruan kokatuko litzateke.

Gure analisi ikuspegira “hirugarren sistema”ren adiera hori baino hobeto egokitzen da, hala ere, Pestoff (1998) eta honen sokako beste zenbait teoriarik egin duten ekarpena, hirugarren sektorea “ongizatearen triangelua” osatzen duten hiru gizarte-egitura nagusien ebakitze puntuan kokatzen duena, hain zuzen ere. Jarraian agertzen den irudiak jasotzen duen moduan, hirugarren sektorea ez litzateke beste sektoreez aparte sektore gehigarri bat, baizik eta beste sektoreak bere baitan batzen dituen bitarteko esparrua (Defourny eta Pestoff, 2008).

Irudia 3: Hirugarren sektorea ongizate-triangeluaren baitan



Iturria: Pestoff 1998, 2005

Irudiak modu grafikoan hirugarren sektorearen (zirkulu margotua) kokapena ilustratzen du sektore publiko, pribatu eta komunitarioaren arteko esparru batean. Tarteko esparru honek hirugarren sektorearen bitarteko izaera azpimarratzen du, ez baita inondik ere esparru isolatu gisa hauteman behar, baizik eta beste hiru sektoreekin etengabeko elkarreraginpean.

Honela, hirugarren sektorearen erdigunean boluntario elkarteak kokatuko litzaketen arren, alderantzizko hiruki horrez gain, hirugarren sektorea beste sektoreekiko elkarreragin eremu ezberdinen bitartez zabalduko litzateke, irudian lerro ez-jarraien bidezko mugen bitartez margotu direnak.

Lehen gainezarpen eremua, hirugarren sektorea eta merkatuaren artekoa litzateke. Gainezarpen honen tentsiozko eremuak, merkatuak ezarririko mozkinen maximotze eta hirugarren sektoreak zein estatuak berez dituzten birbanaketa funtzio eta antolaketa demokratikoaren artean sumatzen dira. Kooperatibek gorpuzten dute ondoen tentsio hori, oso-osorik merkatu-arauen arabera funtzionatzen duten arren, gainerako enpresa pribatuen aldean bestelako helburu sozialak erdiestea baitute xede. Aldebikotasun horrek, bereziki kooperatiben baina baita bestelako enpresa sozialen kasuan ere, helburuen desoreka edota antolakuntza mailako atrofiak sortzeko arriskua dakar (Defourny eta Pestoff, 2008).

Bigarren gainezarpena, hirugarren sektorearen eta estatuaren artean legoke. Marko teoriko honen garapenean sakon aztertu den gisan bi horien arteko mugak geroz eta izaera lausoagoa hartzen du, azken urteetan ugaritzen ari diren izaera hibridoko erakundeak direla medio. Honela, hainbat esparrutan (nekazaritza politikak, gizarte-zerbitzuak, hezkuntza zein osasunean) estatua eta hirugarren sektorearen arteko lankidetzak edo ituntze politikak gauzatzen ari dira, horien bitartez hirugarren sektoreak beregain hartzen duelarik zerbitzu horien ekoizpena, baina beti ere estatuaren erregulazio eta gainbegiratze zorrotzen bitartez. Erlazio eredu horiek kasu askotan zalantzan jartzen dute hirugarren sektorearen autonomia, baita formalki independenteak diren egiturak mantentzea ere.

Azken gainezarpena, hirugarren sektorea eta komunitatearen artean ematen da. Elkar hartze hau, kapital soziala kontzeptuak aztertzen duenez maila askotan formalki egituratu gabeko esparruetan bideratzen da, gizarte zibilaren ekimena baita kasurik gehienetan hirugarren sektoreko erakundeen ernamuinean aurkitzen den bulkada. Gizarte zibileko norbanakoak mozkin asmorik gabeko erakundeetan inplikatu litezke, ez soilik bertako bazkide eginez, baita dohaintza bidezko finantzazioa emanaz edota lan boluntarioaren bitartez ekoizpena lagunduaz ere. Honen emaitza da mota ezberdinetako erakunde mistoak osatzen joatea.


Ongizatearen triangeluak beste gainezarpen txikiago batzuk ere kontenplatzen dituen arren⁵⁹, aipaturikoak lirateke nagusienak. Ondorioz, hirugarren sektoreko erakundeek gizartearen gobernantza ereduetan duten parte-hartze anitzaren ondorioz, sektore honen behar bezalako ulermenerako, berezitasun aipagarrien kontzientziaren jabe egin beharra dago: batetik, zerbitzu ekoizle izateak damaien izaera ekonomikoaz gain, rol politiko eta sozial garrantzitsu bat ere jokatzeko baitute; bestetik, aipaturiko sektoreen arteko bitartekaritza esparrua den neurrian, hirugarren sektoreak bere baitan baliabide nahasketa handiarekin jokatzeko baitu, zeinak berarekin dakarren erakunde horiek oso modu anitzean garatzea eta oso forma ezberdinen pean egitea garapenok.

Hirugarren sektorea ongizatearen triangeluko bitarteko sektore gisa interpretatzen duen irakurketa hau nahiko gertu dago, halaber, ekonomia solidariotik eginiko analisisetatik. Honela, ekonomia solidarioaren baitan bereziki aipatu da dinamika berri horien izaera plurala, merkatuko, ez-merkatuko eta ez-monetazko baliabideak partekatzeko azaltzen duten gaitasuna dela medio. Horren harira, zenbait autorek defendatzen dute ekonomia solidarioak eskaintzen duen argitze kontzeptualak, ordura arte analisi trisektorialetan oinarritzen ziren teorien marko teorikoak gainditzen dituela, halako moduz ezen jadanik ezin izango baitzaio printzipio ekonomiko bakoitzari sektore bat egokitu, hiru printzipio ekonomikoak eman baitaitezke hiru sektore horietako bakoitzean (Lewis eta Swinney, 2007).

⁵⁹ Azaltzeko geratzen diren esparruak triangelu txikiagoen bitartez adierazten dira. Horien bitartez, agentzia publikoetan ematen diren lankidetzak informalki (ezkerrean), bereziki mozkinen eskizian diharduten enpresa publikoak (eskuinean) edota ekimen pribatu informalki, esaterako, "beltzean" trukatzeko direnak (behean).

Ekonomia solidarioak dakarren jauzi kontzeptual kualitatibo hori Pearce-ek (2003) proposaturiko “Hirugarren Sistemaren” irudiaren gainean jarriz, modu honetan irudikatuko litzateke.

Irudia 4: Pearce-en hirugarren sistema eta ekonomia solidarioa



Iturria: Lewis eta Swinney, (2007) (Pearcen grafikatik moldatua)

Irudian hiru sektore instituzional bereizi sailkatzen dira eta ekonomia solidarioko praktikak hiru esparru horietan gerta litezkeela defendatzen da.

Honela, sektoreen ohiko ezaugarritzera joz, lehen sektorea, sektore pribatu edo kapitalista, mozkinen eskurapenera orientatua, eta oroz gaindik efizientzia ekonomikoaren logikaren arabera funtzionatzen duena litzateke; bigarren sektorea edo sektore publikoa, hornidura planifikatuan oinarritua eta oroz gaindi ekitate ekonomikoaren logikatik diharduena, eta azkenik; hirugarren sektorea edo sistema, bere baitan biltzen dituena merkatura orientatutako erakundeak, bai eta bestelako

borondatezko erakunde zein etxeguneetako ekonomiak ere, eta oroz gaindi elkarrekikotasun irizpideen arabera diharduena.

Ekonomia solidarioko teoriariek argudiatzen dute, Pearce-en (2003) “Hirugarren Sistemari” finkatzen diren muga horiek benetan ahulak direla, kasu askotan sumaezinak izatera arte. Laville-k (2004) esaten du ekonomia solidarioaren egitekoa muga horien sakoneko berrazterketan datzala Horrela, historia garaikidean oinarrituriko ikerketa empirikoek sektorearen nozio hori erabat erlatibizatzen dutela uste du. Gure ikergairi loturiko adibide bat jorratuz, bereziki estua dela dio elkartegintza eta sektore publikoaren arteko bilakabidea, bigarren kapituluan frogatu dugun gisan. Elkartegintza sektore publikoaren atzeraldiaren erantzun gisa azaltzen duten teoria neoklasikoen aurka, Laville-k (2004) uste du historiak guztiz baliogabetu duela hipotesi hori. Elkartegintza, Salamon (1987) berak frogatzen duenez, beti kokatu izan da “defentsako lehen lerroan”, nahiz eta bere ahulezia propioen kausaz (*voluntary failures*) bilatu izan dituen gerora estatuarekin lankidetzara modu ezberdinak. Are gehiago, kasu gehienetan elkartegintzatik abiatutako garapen instituzionalean bilatu behar da estatu sozialaren ernamuina, mutualitateetan aurki daitekeen bezala gerora unibertsalak bilakatu diren gizarte-segurantzen ernamuina.

3.6 Laburbilduz

Kapitulu honetan jorraturiko ideia nagusien artean, honakoak azpimarratu litezke:

1.- Kapitulu honek gizarte-ekonomiaren berrikuspen kontzeptualerako darabilgun hipotesian sakontzea du xede. Honela, 2. kapituluan gizarte-ekonomiaren adiera ezberdinak honek ongizate-estatuarekin duen harremanaren testuinguruan kokatu ditugunez, hirugarren honetan ongizate-estatuak azken hiru hamarkadetan bizi izandako eraldaketek gizarte-ekonomian nola eragin duten aztertu nahi izan dugu, bai maila praktikoa eta baita honen teorizazioari dagokionez ere. Aurkeztuko dugun gizarte-ekonomiaren birkontzeptualizazioan, beraz, ongizate-estatuaren berrantolaketa instituzionalak zerikusi zuzena izan duela frogatzea da kapitulu honen helburua.

2.- Ongizate-estatuaren birmoldaketa ideia politiko berrien eskutik etorri da. Honela, ongizate-erregimenen osaera ezberdinak nagusiki eredu bismarckiar eta eredu

beveridgearraren erreferentzia bikoitzari erantzun izan badiote ere, 80ko hamarkadaz geroztik beste bi ideologia berrik ordezkatu dituzte erreferentzia horiek. Alde batetik, korronte neoliberalak indar hartu duela ikusten da, estatuaren eraginkortasuna zalantzan jarri eta politika privatizatzaileen alde eragin duena. Beste aldetik, hirugarren bidea gisa ezagutu den korronteak ere eragin esanguratsua izan du ongizate-politikei dagokienean, gizarte-transferentzietan oinarrituriko ongizatearen ikuspegi pasibo batetik, ikuspegi aktibo baterako jauzia eman nahi izan delarik, *welfare state* adieratik *workfare state* adierara igarotzeak ilustratzen duenez, gizarte-beharrizanean diren pertsonen aterabidea lan merkatuaren bitartez bideratzea bultzatzen ari baita.

3.- Ideologia berri horien ildoak eutsiz han eta hemen aplikaturiko gizarte-politikek norabide antzekoa erakusten dute: estatuaren zentraltasuna ahultzen den neurri berean indartu nahi da eragile pribatuen parte hartzea, eta gizarte-eskubideen estaldura maila uzkuertzen doan neurri berean doa hedatzen esparru informalaen irismena ere. Testuinguru berri honetan, hirugarren sektoreko eragileei oro har aitortza handiagoa egin izan zaie ongizate-zerbitzu ezberdinen hornitzaile izateari begira, eta honek, ezinbestean, hirugarren sektoreko eragileek izaera profesional eta enpresarialagoak hartu behar izatea ekarri du.

4.- Testuinguru berri honek inplikazio zuzenak ditu orain arte landuriko bi ikerketa ildo nagusietan, bai ongizate-estatu/erregimenen gaineko analisietan eta baita gizarte-ekonomiari dagozkionetan ere. Lehen horietatik hasitan, kapitulu honetan bi proposamen teoriko nabarmendu dira: neo-instituzionalistena batetik, eta ongizate mistoaren teorikoa, bestetik. Biek ala biek orain arte ongizate-erregimenen teoriak hirugarren sektoreari eginiko ezikusia gaintzen dute, eta hirugarren sektoreak sektore publikoarekiko duen harremanean lehiazko ereduaren orokortzea saihesten dute. Honela, neo-instituzionalistentzat hirugarren sektorea estatuaren politikekin batera (edo horien menpean) modu osagarrian garatzen den errealitatea den bezala, ongizate mistoaren teoriariek ongizate-zerbitzuen hornikuntzan zentraltasuna estatutik hirugarren sektorerara desplazatu dela argudiatzen dute, lehen honen funtzioak erregulazio eta finantzazio esparruetara mugatuz.

5.- Estatua eta hirugarren sektorearen arteko teoria berri horietatik, halaber, hirugarren sektorea ezaugarritzen duten intuizio berriak eratortzen dira. Hirugarren sektorea, hortaz, beste bi sektoreekiko independentea izan beharrean, esparru publiko, pribatu eta komunitarioaren arteko bitartekaritza espazio batean kokatzen da, eta

bitartekari izaera horrek eragiten du hirugarren sektoreko erakundeen izaera hibridoa bera ere, bere baitan ongizate mistoaren mikro-errealitate bilakatuko bailirateke, merkatuko, ez-merkatuko eta ez-monetazko baliabideak aldi berean ustiatzen dituzten erakundeak diren neurrian.

6.- Errealitate eta teoria berri horiek zerikusi zuzena dute, hortaz, gure iritzian azken bi hamarkadetan gizarte-ekonomiaren esparrutik sortu diren bi korrante berri nagusiekin. Alde batetik enpresa sozialaren ekarpena legoke, honen bitartez aztertzen ari baitira lan merkatutik kanporaturiko pertsonen laneratzean eta gizarte-beharrizanean diren pertsonen zaintza komunitario edo gertutasunezko zerbitzuetan diharduten esperientzia berriak. Esperientzia horiek teorizatzen dituztenen aburuz, ez mozkinenez besteko eskolaren bitartez eta ezta gizarte-ekonomiaren eskola tradizionalaren bitartez ere egoki interpreta ezin daitezkeen errealitate berriak dira, sektore berrietan eta planteamendu enpresarial ezberdinekin agertzen ari baitira, eta horrek justifikatuko luke, azken buruan, adiera berri batekin (enpresa sozialarenarekin) teorizatu beharra. Honekin loturik, baina ikuspegi askoz ere makroekonomiko, sistemiko eta eraldatzaileagoa besarkatuz agertu da gizarte-ekonomiaren esparruko bigarren ildo teoriko berria, ekonomia solidarioarena, “beste ekonomia” baterako oinarrizko printzipio berriak ezartzen dituen neurri berean aztertzen baititu ekoizpenean, banaketan, finantzazioan zein kontsumoan bestelako logika eraldatzaileagoen bitartez diharduten esperientziak.

7.- Ekarpen berri horiek gizarte-ekonomian duten txertatzeari dagokionez, 1. kapituluan aztertu dugun Espainiako 5/2011 Gizarte Ekonomiaren legeak argi ezartzen du esperientzia berri horiek denak gizarte-ekonomiaren gaur egungo adieraren baitan sartzen direla, gizarte-ekonomia tradizionala (kooperatibak eta lan sozietateak) eta ekonomia solidarioko enpresen (laneratze enpresak eta bestelakoak) arteko gerturatze bat egiazta daitekeelarik (lehen kapituluan mozkinenez besteko erakundeekin egiaztatzen gerturatzearen parekoa). Azken hauek, gizarte-ekonomiari loturiko forma juridikorik hartu ez arren, beren jarduera printzipioengatik gizarte-ekonomiaren parte kontsideratzen dira, eta honek aldi berean dakar, gizarte-ekonomiaren adiera bera ere ikuspegi instituzional zorrotzetik baino bestelako irizpide normatibo edo finalistagoen bitartez zabaltzen joatea.

BIGARREN ATALA:

PERTSONA NAGUSIEN ZAINZA FORMAL ETA INFORMALA

4 KAPITULUA: ESPARRU INFORMALAREN GARRANTZIA PERTSONA NAGUSIEN ZAINZAREN ANALISIAN

Marko teorikoan ezarritako analisiari eutsiz, estatua eta merkatuaz gain, gizarte-ongizateari loturiko esparruetan beste bi gizarte-eragile nagusik ere jotzen dutela da gure abiapuntua. Deitura ezberdinei erreparatuz, zenbaitek “komunitatea” eta “gizarte zibila” gisa (Rodriguez, 2004) identifikatzen ditu, eta bestetzuk “esparru familiar” eta “harremaneko esparru” bezala (Adelantado, et al, 2000) gure analisian “esparru informala” eta “gizarte-ekonomia” deiturapean aztertuko ditugun errealitateak.

Gizarte-ekonomiak duen parte hartzea aztertzea da tesi honen ikergune zentrala eta 5. kapitulutik aurrera aztertuko duguna Espainia, Euskadi eta Gipuzkoaren kasurako.

Horretan sartu aurretik ordea, ezinbestekoa zaigu, errealitatea bere egiazko parametrotan neurtze aldera, beste kapitulu bat eskaintzea pertsona nagusiei bideraturiko gizarte-baliabideetan funtsezko papera betetzen duen aldagai bati: esparru informalaaren analisiari, hain zuzen ere.

Kapituluan ikusiko dugun moduan pertsona nagusien zaintza lanetan esparru informalak oraindik orain duen esku hartzeak alde ikaragarriarekin gainditzen ditu gainerako gizarte-esparruak, eta beraz, egiari zor, ezin hasi genezake beste modu batez gure ikerlana. Areago oraindik, esparru honen inguruko azterketak oso berriki eta oso bigarren maila batean egin izan dira ekonomiaren diziplinatik, eta zientziaren aldetiko ikusezintasun honek sakon-sakoneko arrazoiak agertzen ditu analisia genero-ikuspegiaren optikatik eginez gero.

Ikusezintasun hori hautsi eta errealitatea bere benetako neurritan jaso nahi izateagatik batetik, eta errealitate hau kontuan hartzeak gure orain arteko analisian eragin ditzakeen aldaketak kontuan hartzearen bestalde, jorratu dugu jarraian aurkezten den kapitulua.

4.1 Esparru informala: definizioa eta irismena

4.1.1 Kontzeptuak argitzen

Esparru informala, merkatutik pasatzen ez den ekonomia den neurrian, teoria ekonomikoak oso arreta gutxi jarri izan dion esparrua da. Ekonomia ez-ofizial den neurrian, ukazioz definituriko esparru gisa hautematen da eta hala definitzen diren kontzeptu askoren moduan adiera aniztasuna da bere ezaugarrietako bat: ekonomia informala, ekonomia urperatua, lurpeko ekonomia, ekonomia paraleloa, ekonomia beltza, ezkutuko ekonomia, ekonomia domestikoa...horiek guztiak kontzeptu parekide gisa erabiltzen dira usu (Larrañaga eta Jubeto, 2008).


Nolanahi ere, lehen atal honetan ekonomia informalaz jardungo dugu, eta konketuago, zaintza edo laguntza informalaren adiera da erabiliko duguna. Zaintza informala modu honetan definitua dator Mendekotasunaren Liburu Zurian: “(mendekotasun edo desgaitasun graduren bat duten pertsonen) modu altruistan bideraturiko arreta litzateke, nagusiki beren familiar eta senideen aldetik, baina baita arretarako zerbitzu formalizatuengandik ezberdinak diren gainerako sare eta eragileen aldetik ere” (Rodriguez Rodriguez, 2004)(itzulpena gurea). Hortaz, esparru informala, esparru formalaren ukazioz definitzen da, hots, gizarte-zerbitzu edo osasun sistema publiko zein pribatuko profesionalen aparteko esparru gisa, eta nagusiki beharrezan den pertsonaren familiak osatzen du (edo bestelako gertutasun harremanek lotzen dituzten lagun edo bizilagunek), baina baita, beste maila batean bada ere, elkarren laguntzarako elkarte, sare eta boluntarioek desinteresatuki emaniko laguntzak ere (IMSERSO, 2005: 9).

Esparru informal honek, hortaz, bi ezaugarri bereizgarri leuzkake: mendeko pertsonarekiko afektibitatezko harremana duen gertueneko esparruan ematen dela batetik, eta modu desinteresatuan edo altruistan (hots, ordaindu gabean)⁶⁰ ematen dela bestetik.

⁶⁰ Zaintza informalaren elementu altruistan ez da ulertu behar zaintzaileak libreki eta maila indibidualean hautaturiko desira moduan, inondik ere. Zaintza lanen motibazioen inguruan egin izan diren azterlanek zaintza lanekiko “betebehar moralaren” pisua nabarmentzen dute benetako desira bat baino areago (IMSERSO, 2005; Aurtenetxe et al, 2008). Horrek ez du esan nahi zaintza lanak kasu guztietan modu

Esparru formalaren eta informalaren arteko bereizketa hau arestian aipaturiko gizarte-egituren analisiarekin gurutzatz gero, eskema modu honetan geratuko litzateke: estatua oinarritzat harturik, lehen bereizketa bat sistema publiko eta ez-publikoaren artean egin beharko litzateke. Herri-erakundeek emaniko prestazioez aparte esparruan, gainera, bigarren bereizketa nagusi bat legoke modu ordainduan edo ez ordainduan ematen diren zerbitzuen artean. Zaintza pribatu ordainduak jaso litezke merkatuko eragileen bidez baina baita (sarri modu irregularrean) ordainduriko zaintzaile partikularren bitartez ere, eta bestalde, zaintza pribatu ez-ordainduena, esparru informalarik dagokiona, bereziki esparru familiarrean eta oso modu bazterrekoan hirugarren sektoreko boluntarioen bitartez (laguntza informalaren %0,5 Espainian) ematen da (Rogero, 2010). Eskema osoa, hortaz, jarraian aurkezten dugun irudian laburbilduko litzateke:

Irudia 5: Esparru formal eta informalaren eskema



Iturria: Geuk elaboratua

Sistema publiko eta informala (familiarra), ongizate-erregimenen analisisian argiro azaldu denez elkarren eraginpean dauden bi sistema dira, nahiz eta bi horien arteko eraginaren nolakoaz adostasunik ez dagoen. Ez da gai hau sakonki jorratzea gure lanaren interesgune zentrala, baina eztabaidaren koordinatu nagusiak eskaintze aldera esango

negatiboan eragiten duenik zaintzailearengan, askoren iritzian honek asetasun maila altua sortzeaz gain pertsona bezala errealizatzen baititu (IMSERSO, 2005) nahiz eta ez den ahaztu behar beste zenbait kasutan zaintzaileek lan horiek inposaketa moduan bizi izatea (Mier et al, 2007). Kasu guztietan esan genezake zaintzaileek zaintza lanak egonarriz hartzen dituztela, erresignazio puntu batekin alegia, beste erremediorik geratzen ez zaion pertsonaren konformismoarekin.

genuke batzuen iritzian estatuaren esku hartze handiagoak familia desmobilizatzen jotzen duen bitartean, besteentzat justu aurkako eragina lekarkeela, elkartasun familiarra sendotzearena, alegia. Halaber, sektore publikotik abian jartzen den ezein politikak ez du beti modu positiboan edo modu berean eragiten familien gaineko zaintza-kargak arintzeari begira, ordainketa partekatuko sistemen ezarpenek, eredu komunitarioaren erabilpen okerrekin zein zerbitzuen aurretik prestazio ekonomikoak hobesten dituzten politiken emaitzek agertu duten bezala (Roger, 2010).

Dena den, eta edozein izanik ere esku hartze publikoaren eragina, gauza jakina da orain arte sektore publikoak, eta bereziki gure gertueneko testuinguruan, bigarren maila batean esku hartu izan duela gizarte-zerbitzuen esparruan, hau da, nagusiki parte hartu izan duela sare familiarren faltan (*family failure* esango genuke, arestian landuriko *market/state failure* analisiek bat eginez) eta baliabide ekonomiko nahikorik izan ez eta sektore informal zein pribatuaren bitartez beren beharrianak ase ezin izan dituzten gizabanakoak artatzeko. Horixe bera da jarraian frogatuko duguna, esparru informala esangura nabarmentzen duten datu orokor batzuk eskaintzeaz batera, argi geratuko baita gurean esparru formala esparru informala osagarri dela existitzen den kasuan, ez inondik ere ordezkagarri.

4.1.2 Esparru informala irismenari buruzko datu orokorrak

Pertsona nagusien esparrua aztertzean, eta gure gertueneko eremuari erreparatu, datuek ez dute eztabaidarako aukerarik uzten. Ikerlan honetarako kontsultatu diren dokumenturik zaharretatik hona, eraldaketa nabarmenik jasan gabe gaur arte iraun duen errealitate bat agertuko zaigu: goitik behera emakumeek okupatu izan duten jardura ekonomiko bati buruz ariko gara hurrengo lerroetan, bai zaintzaileen profilarri begiratu, baina baita zaintza-premian den biztanleriaren profilarri begiratzen badiogu ere.

4.1.2.1 Espainiako datu orokorrak

Espanian, pertsona nagusien zaintzan esparru informala duen esangura aztertu duten inkesta ugari kaleratu izan da azken hamarkadan. Daturik berrietatik abiatuz,

IMERSO-k gaiari buruz argitaraturiko azken txostenaren arabera (Rogerero, 2010), datuak honakoak lirateke Espainiaren kasurako: laguntza pertsonalak jasotzen dituzten pertsona nagusien %89ak zaintza informala jasotzen du, eta horien artean %77,5arentzat zaintza informala da jasotzen duen laguntza bakarra.

Laguntza formala jasotzen dutenen artean, pertsona nagusien %6,4ak laguntza formal pribatua soilik jasotzen du, eta %4ak gizarte-zerbitzu publikoak bakarrik. Hortaz, zaintza formalaren esparruan, etxeko-langileek emaniko laguntza publikoki finantzaturiko gizarte-zerbitzua halako bi litzateke: hiru pertsonatik bi zaintzaile partikularren bitartez zaindua da eta bat gizarte-zerbitzuetako profesionalen bidez. Baliabide formal eta informalak uztartzen dituzten pertsona kopurua ere oso mugatua da, zaintza informala jasotzen duten pertsonen %8,1ak soilik ordaintzen baitu zaintzaile partikular baten zerbitzuak jasotzeko, eta apenas %3,8ak uztartzen baitu zaintza informala gizarte-zerbitzuekin (Rogerero, 2010).

Taula 1: Espainiako pertsona nagusi ez-instituzionalizatuak jasotako zaintza-mota, esparru formal eta informala arabera, 2003

	Biztanleria	%
Guztira	1.292.893	100
Zaintza informala bakarrik	1.001.376	77,5
Zaintza informala eta zaintza formal pribatua	104.787	8,1
Zaintza formal pribatua bakarrik	82.817	6,4
Zaintza informala eta zaintza formal publikoa	48.945	3,8
Zaintza formal publikoa soilik	51.279	4,0
Zaintza formal publikoa eta pribatua	3.689	0,3

Iturria: Rogerero, 2010:213 (itzulpena gurea)

Zaintzaile informalaren artean bikotea (emazteak nagusiki) eta alabak dira zaintzaile nagusiak (%28ren bueltan bi kolektiboak), baina egiazki alabak dira, bai horiek soilik edo bai bestelako familiarren baten laguntzaz, laguntzarik gehien eskaintzen dutenak (%40aren bueltan). Zaintzaile nagusien artean nolabaiteko hierarkizazio bat dagoela ondorioztatzen da, hortaz, senidetasun-gertutasunaren arabera: pertsona nagusiak adinean aurrera joan ahala, alabek presentzia handiagoa dute bikoteen aldean, eta horiek dira ondorioz mendekotasunik handienak dituzten pertsonen zaintzaile nagusiak, horien oso atzetik datozelarik pertsona nagusiaren semea (%5,2), erraina (%5,2), etab.

Era berean, zaintzaile informalek ez dute zaintza formaleko zerbitzuen laguntzaz baliatzeko ohiturarik, guztira zaintza informala jasotzen duten pertsonen %12ak baino ez baitu jotzen horiek zaintza formaleko zerbitzuekin osatzera. Behaturiko beste joera bat da zaintzaile informalaren senidetasun-gertutasuna ahulduz joan ahala hasten dela ikusten bestelako gizarte-baliabideen presentzia handiagoa, hots, zaintzaile nagusia alaba edo emaztea izan beharrean, erraina, suhia, bizilaguna edo laguna dela antzematen den kasuetan. Aurkako muturrean, berriz, zaintza informalik jasotzen ez duten pertsona nagusien %34,4ak zaintzaile partikularra jasotzen du etxean eta %21ak gizarte-zerbitzuak (soilik %1,6ak bien konbinazioa) (Rogerero, 2010).

Zaintzaileen profila guztiz feminizaturik dagoen bezalaxe, pertsona zainduarenak ere emakumearen profilari erantzuten diola ikusten da: zaintza beharrean diren pertsona nagusien %67,5 emakumeak dira, eta horien artetik %57,9ak mendekotasun larria edo guztizkoa du (gizonezkoen %50,1aren gainetik). Laguntza premian diren emakumeen %34,1a soilik dago ezkondua (gizonezkoen %77aren oso atzetik), eta %20,6 etxean bakarrik bizi dira (Rogerero, 2010). Datuotatik eratoritzen denez, emakumeak dira laguntza premiarik gehien dutenak, bai kuantitatiboki eta baita kualitatiboki ere, gizonezkoena baino bizitza esperantza handiagoa izatean kolektibo horretan ematen baitira mendekotasun maila larrieneko kasu gehienak.

Azken datu horietatik abiatuz, ondorio ezberdinak atera litezke. Lehenik, esparru informalaren garrantzia hori azken hamarkadan murriztu baino mantendu egin dela esan liteke (IMSERSO, 2005: 3), eta azken boladan, Mendekotasun Legea indarrean jarriz geroztik batik bat esparru informalean emaniko laguntzen kopurua handitzen joan dela baieztatu liteke (Cervera et al, 2009). Datuak dira horren testigu. Esate baterako, INE-ren 1999ko “*Encuesta sobre Discapacidades, Deficiencias y Estado de Salud*” (EDDES-1999) inkestan ondorioztatzen zenez, graduren bateko mendekotasuna agertzen zuten adinekoen hiru laurdenak gutxi asko, etxe esparruan eta familiarrengandik zainduak izaten ari ziren. Zaintza lan horietan kasurik gehienetan, gainera, zaintzailea zainduaren etxean bertan bizi zela hautematen zen (%61,5), eta zaintzaileak beste etxegune batean bizi ziren kasuan ere, %58 inguru zainduaren alaben kolektiboak osatzen zuten (Rodriguez Cabrero, 2004).

Bigarrenik, eta sarri askotan hain argi esaten ez bada ere, esparru familiarra esatea andrazkoak esatea dela baieztatu behar litzateke, zaintza familiarren esparruan (ere) andrazkoak baitira lan-kargarik handiena beregain hartu dutenak betidanik. Datuak, zentzu horretan, ezin argigarriagoak dira eta azken hamarkadan aldaketa esanguratsurik jazo ez dela egiaztatzen dute. Mendekotasunaren Liburu Zurian IMSERSO erakundeak azken hamar urtetan eginiko inkesten emaitzen bilakaeraren analisia egiten da: 90eko hamarkadan zaintzaile familiar guztien artetik %83 andrazkoak zirela ondorioztatzen bazen (eta horien artetik %61,5ek bestelako inoren laguntzarik jaso gabe), 2004an ehuneko hori apur bat handiagoa zen, %84koa, hain zuzen ere. Arestian aipaturiko zaintzaileen hierarkizazio egoera ere hautematen zen 2004an, lehenik emazteak, ondoren alabak, eta horien atzetik errain, arreba etab. hurrenkera horretan agertzen direlarik zaintzaile nagusien artean (IMSERSO, 2005: 24).

Dena den, 2004an bestelako familiarren laguntza ere jasotzen zuten andrazkoen portzentajea nabarmenki hazi zen (%40 eskas izatetik %66 izatera) eta beste joera bat zen geroz eta indar handiagoz sartzen ikusten zena: etxeko-langile ordainduen bidez (%14) zaintzeko joera, alegia. Azken puntu honetan hautematen zen ziur aski azken hamarkadako joera aldaketarik esanguratsuenetako bat: esparru informalez gain laguntza formala jasotzen zuten pertsonen erdiek zaintzaile partikularren laguntza jaso izana aitortzen zuten (gizarte-zerbitzuen aurretik), eta herrialde hegoamerikarretako etorkin nagusiki andrazkoen kolektiboa da geroz eta neurri handiagoan zaintza lanen karga bereganatzen ari dena (IMSERSO, 2005:46).

Datu orokor nagusi horietatik abiatuz, ondoriozta liteke zaintza formal eta informalen eredu espainiarrak honako erduei eusten diela (Rogerero, 2010):

- Ohikoena pertsona nagusiek zaintza informala soilik jasotzea da (%77,5).
- Zaintza formal pribatuak soilik ordezkaten du zaintza informala, azken hori existitzen ez den kasuan eta familiak baliabide ekonomiko nahikorik azaltzen badu (%5,9 kasutan).
- Zaintza formal publikoko baliabideen hazkunde garrantzitsua eman den arren azken urteetan, zaintza mota honek are eta kasu gutxiagotan ordezkaten du

zaintza informala, azken hori existitu ez eta baliabide ekonomiko nahikorik ez den kasuan soilik (%3,7 kasutan).

- Azken bi datuetatik eratortzen denez, soilik hamar kasutatik batean (%9,6) ordezkutzen du zaintza formalak informala. Arruntagoa da, alabaina, zaintza formala zaintza informalen osagarri izatea, beti ere patroi konkretu batzuei eutsiz: zerbitzu publikoak pertsona nagusia adinean aurrera joan ahala eta baliabide ekonomiko urriko egoeretan gehiago agertzeko joera izan ohi dute eta zerbitzu pribatuak gehien eskatzen dira hiri-guneetan, status sozial altuagoko eta ezkondurik ez dauden emakumeen aldetik.

Hortaz, ondoriozta genezake zaintzen eredu espainiarra baliabide formal eta informalen osagarritasun eredu bat litzatekeela, ordezkagarritasun eredu bat beharrean. Mekanismo nagusia zaintza informalena da, eta baliabide formaletara jotzen da lehen horiek gainezka egiten duten kasuan soilik (mendekotasun larriko egoeretan, batik bat). Dena den, errealitate nagusia hori izan arren, azken urteetan eta batik bat zaintzaile pribatuen erabilpen geroz eta orokortuagoaren eskutik, baliabide formalek informalak ordezkutzen dituzten egoerak ere hedatzen ari direla hautematen da.

4.1.2.2 Euskadiko datu orokorrak

Euskadiren errealitatea aztertzen duten dokumentuetara joz gero, berriki Eusko Jaurlaritzak INGEMAREN laguntzaz argitaraturiko *Pertsona Nagusien Bizi Baldintzen Inkestan* (ECVPM- Euskadi 2010) ere esparru familiarrean emaniko zaintzen nagusitasuna azaleratuko da, nahiz eta estatu mailako datuek baina portzentaje apalagoak eman. Honela, 60 urtetik gorako pertsona ez instituzionalizatuek jasotako laguntza guztien %52 familiarren aldetik jasotzen dute soilik eta %72ak familiarra gehi bestelako laguntza formalen konbinazioa da hautatzen dutena. “Gizarte-babeseke ejertzito ikusezin” hori, nagusiki pertsona nagusien alabek eta geroz eta neurri handiagoan etxeko-langile gisa diharduten emakume etorkinek osatuko luketela ere baieztatzen da, eta hortaz, laguntza familiarren atzetik %15,3ak etxeko-langile pribatuak kontratatzen ditu⁶¹ eta %5,5ak jasotzen du gizarte-zerbitzu publikoren bat

⁶¹ Interesgarria da, zentzu honetan, etxeko-lan ordainduei buruz Larrañaga eta Jubeto-k (2008) Euskadiko errealitateari buruz eginiko ikerlanari erreparatzea.

bakarrik. Zaintza mota bat baino gehiago jasotzen duten pertsona nagusientzako, beraz, mota horietako bat familiarra da ia kasu guztietan (%98,9), eta hori usuago osatzen da zerbitzu pribatuekin (%66,5) gizarte-zerbitzuekin baino (%49,8) (Sancho, 2011).

Esparru familiarrean andrazkoen kolektiboak duen presentziaz, halaber, ondorioztatzen da laguntza ematen duten familiarren %63,6 andrazkoak direla, nagusiki zaintza premian den pertsonaren alabak eta neurri apalagoan ezkontidea. Zaintzaile nagusien artean pisurik handiena, hortaz, andrazkoek emaniko laguntzak hartzen du, nahiz eta bigarren mailako zaintzaileen artean gizonezkoen parte hartzea handitzen doala hautematen den azkenaldian (Sancho, 2011: 77).

Datu horiek, Espainiako kasuan legez, jarraikortasun bat agertzen dute denboran zehar, honen antzerako emaitzak lortzen baitziren 2006an Eustat-ek eginiko *Estadística de Demanda de Servicios Sociales/Necesidades Sociales 2006* (EDSS-2006) (Eustat, 2006) inkestan ere, nahiz eta analisisa mendekotasun egoeran diren pertsonen kolektibo osoari buruz egin egon. Honela, eta (neurri batean) kolektibo ezberdinei bideraturiko datuak alderatzeak eskatzen duen zuhurtziaz jakitun, emaitza berdina antzekoak lortzen direla baieztatu liteke: beren etxegunetan diren mendeko pertsonen artean, mendekotasun larriko %62,9 eta mendekotasun apaleko %69entzat beren laguntzaile nagusiak sare informaleetatik eratortzen ziren. Horien artean %46,3ak ez luke laguntza horiez gain bestelako kanpo-laguntza osagarririk jasoko (izan etxez-etxeko laguntza publiko eta pribatuen aldetik). Esparru familiarretik kanpo jasotako laguntza moten artean ere, etxez etxeko laguntza publiko zein pribatuen pisua antzerakoa zela ondorioztatzen zen (%21,5 eta %25,3 hurrenez hurren) (SIIS, 2007b:122).

Azken ikerlan bat aipatzearen, Aurtenetxe et al-ek (2008) Eusko Jaurlaritzarentzat eginiko *Zaintza informala EAE-n: zaintzaileen premiak* ikerlanean lorturiko emaitzak aipa daitezke: EAE-n adinekoak zaintzen dituzten zaintzaileen %77 andrazkoak dira (horien %23,68ren kasuan beraiek bakarrik) eta horrez gain ikerturiko zaintzaileen artean %86,3 zainduaren senitartekoak dira, nagusiki seme-alabak (erdiak baino gehiago) eta bigarren maila batean ezkontideak. Zaintzaileen artean ere gehienak, %60, pertsona zainduaren etxean bizi dira. Zaintzailearen profil feminizatu hori bera agertzen da zainduarenean ere: %66,2 andrazkoak dira zaindutako pertsona nagusien artean, eta

adinean aurrera joan ahala areagotu egiten da portzentaje hori, 80 urtetik gorakoan %74 baitira andrazkoak.⁶²

Lehen aspektu horri dagokionez beraz, Euskadin ere esparru informalak duen garrantzia gainerako baliabideen oso gaintik dagoela ondorioztatu behar litzateke. Ezaugarri horri bigarren bat gehitu behar litzaioke, kontsultaturiko txosten gehienetan agerian geratzen dena: zaintzaile informalek baliabide formalez egiten duten erabilpena oso mugatua da. Aurtenetxe et al-en (2008) ikerlanean agertzen denez, zaintzaile informalen %80 pasatxok baliabide formalen berri izanagatik ere, %20k soilik eskatu du inoiz zerbitzu horietakoren bat, eta eskaturiko ia ehuneko ehunak jaso du eskaturiko zerbitzua.

Mier et al-en (2007) iritzian, baliabide formal eta informalaren konbinaketarako ohitura falta hori oraindik zaintzaile informalaren artean oso zabalduta dagoen uste batekin argudia liteke, hau da, pertsona nagusia bere etxean baino hobeto inon zaindua ez dagoenaren ustea, alegia. Kanpoko zaintzaileen laguntza pertsona nagusiaren intimitatearen aurkako erasotzat hartzea ere nahiko inpresio orokortua da. Honi loturik EDSS-2006 inkestan lorturiko emaitzetako batek argi gehiago ere eman dezake, bertan ondorioztatzen baita soilik jotzen dela baliabide publikoetara zaintza lanen ezaugarriek familien baitan tentsio-egoera garrantzitsuak sortze dituztenean, hots, mendekotasun maila larriagoek edo egoera familiar zaugarriagoek sorturiko tentsio-egoeren konponbide gisa (SIIS, 2007b:132).

Zaintza formalen esparruan, berriz, jasotako laguntzen artean titulartasun publikoko zerbitzuen esangura (izan zuzeneko kudeaketan edo itunduan) eskasa dela eta laguntza pribatu partikularren atzetik kokatzen dela ikusi da (SIIS, 2007b). ECVPM- Euskadi

⁶² Nolanahi ere, ikerlan honetan zaintza-ereduan zenbait berrikuntza edo praktika berri indarra hartzen ari direla ere azpimarratzen da, besteak beste honako fenomenoak seinalatuz: i) gizonezkoen inplikazio handiagoa zaintza-lanetan, batik bat 60 urtetik gorakoan artean (%29,5ak laguntzen du moduren batean, nahiz eta zaintzaile nagusia gutxitan izan); ii) zaintzaile nagusi mota berri baten sorrera, modu xumean bada ere: zainduaren etxean bizi ez dena, familiako beste kideekin banatzen duena laguntza eta %94 kasutan kanpoko laguntzaren bat jasotzen duena, publikoa nahiz pribatua; iii) zainduarekin bizi ez diren zaintzaileekin batera, bakarrik bizi diren pertsona nagusien portzentajea ere asko handitu da, Estatu datuekin alderatuz 1999an %11,4 baino ez zenean (INE, 1999), 2004an %15,4 izatera pasa arren, EAE-n 2006rako %20 baitira bakarrik bizi direnak, lautik hiru andrazkoak horiek ere (gizonezkoen kasuan bikotekidearekiko bizikidetzaren eredu baita nagusi); iv) azken joera berri bat, lehenago ere aipatu dena, etxeko-langile etorkinen erabilera litzateke, kanpoko laguntzaileen bidez zaintzen diren hiru pertsonatik batek zaintzaile etorkina baitu, eta 90 urtetik gorako pertsonen kolektiboan gehiago baitira zaintzaile etorkina dutenak besteak baino (Aurtenetxe et al, 2008).

2010 inkestan baliabide formalen irismen mugatuaz ere zenbait datu ematen dira: instituzionalizaturik ez dagoen pertsona nagusien %5,9ak baliatu ditu zaintzaileei bideraturiko diru-laguntzak, %5,4ak etxez-etxeko laguntzak, %5,4ak opor-modalitatea, %4,2ak teleasistentzia jaso du eta %3,2ak eguneko zentroetara joan ohi da (Sancho, 2011).

Zaintza formalen erabilpen mugatu honek bi arrazoi nagusiri erantzun diezaike: alternatiba errealeen gabeziari edo horien kalitate faltari, batetik, edota zaintza formaletara jotzeko ohitura faltari, bestetik. Lehen horri lotuta, pertsona zainduen asetasun mailen analisisian ikusten da emaitza hobeak erdiesten direla laguntza partikularra jasotzen dutenen artean laguntza publikoa jasotzen dutenen artean baino. Areago, kanpoko inolako laguntzarik jasotzen ez dutenek ere (hots, soilik zaintza familiarra jasotzen dutenek ere) balorazio baikorragoa agertzen dute jasotako laguntzaren inguruan laguntza publikoa jasotzen dutenek baino (SIIS, 2007b:124).

Bigarren alor horri heldurik, berriz, pertsona nagusien preferentzien esparruari alegia, EDSS-2006 inkestan ondorioztatzen da mendekotasun-egoeran diren pertsonak gehien lehenesten dituzten gizarte-baliabideak eredu komunitarioko zerbitzuak direla, hots, pertsonak ahalik eta denbora gehienez bere gertueneko esparruan mantentzera bideraturiko laguntzak, hain zuzen ere. Hortik ulertu beharko da pertsona gehienek prestazio ekonomikoak nahiago izatea ezein zerbitzu publiko jasotzea baino; bigarrenik, zerbitzuak eskatzekotan, izaera komunitariokoak eta norbanakoari zuzendurikoak (teleasistentzia eta etxez-etxeko laguntza) dira gehien baloratzen direnak, egoitza espezializatuen eta zaharren egoitzen oso aurretik; hirugarrenik, egoitzen artean, gehien baloratzen direnak aisialdirako zentroak dira, eta ez internamendukoak; azkenik, egoitza-zentroak mendekotasun larriko pertsonen artean eskatzen dira nagusiki (SIIS, 2007b:126).

ECVPM-Euskadi 2010 inkestak ere antzerako preferentziak jasoko ditu lau urte geroago, gehien baloratzen diren bi zerbitzuen artean kokatzen baititu prestazio ekonomikoak eta etxez-etxeko laguntza nahiz eta bi horien artean preferentziak aldatzen doazela egiaztatu adinean aurrera joan ahala: adinean zaharragoek geroz eta gehiago baloratuko dituzte prestazio ekonomikoak, orduan eta erresistentzia handiagoa azaltzen

baitute bere betiko ingurunetik mugiaraz ditzaten. Hargatik, pertsona nagusien %59,8ak bere etxean mantentzea hobesten du eta hoberen baloratzen den arreta modua zerbitzu profesionalak zaintza familiarrekin batera beren etxeetan jasotzeko modalitatea da (%28,5). Etxetik alde egin behar izatekotan, nabarmen hobesten da seme-alabaren baten etxebizitzara desplazatzea egoitzaren batera mugitzea baino (esan bezala are modu agerikoagoan pertsona nagusia adinean aurrera joan ahala) (Sancho, 2011: 80).

Preferentzien esparru honetan, alabaina, diferentzia nabarmenak agertzen dira pertsona zainduen eta zaintzaileen artean. Aurtenetxe et al-ek (2008) analisia zaintzaileen ikuspegitik egiten dutenean ikusten da, zaintzaile informalek oso modu positiboan baloratzen dituztela administrazioak emandako laguntzak, batik bat etxez etxeko laguntza eta egoitza eta eguneko zentroak, eta ez hainbeste zaintzaileei emaniko prestazio ekonomikoak. Horri lotutik, zaintzaileen %28,8ak administrazioaren parte hartze handiagoa eskatzen du, eta esku hartze hori modu mistoan egin dezala gehitu: pertsona zainduarentzako zerbitzu publikoen hornidura hedatuz, batetik, baina zaintzaileei emaniko prestazio ekonomikoak alboratu gabe. Zentzu horretan, EAE-n estatuko datuekin alderatuz administrazioaren aldeko jarrera hedatuagoa dagoela ikusten da, zaintzaileen %56,5k uste baitu horri dagokiola zaintzaren erantzukizun nagusia (izan bakarrik ala familiak lagunduta) eta aldiz %41,3ak hobesten baitu familiaren protagonismo handiago bat, beti ere administrazioaren laguntza subsidiarioarekin kontatuz.

Zentzu horretan, eta orain arte mahai gaineratutako datuetatik ondorioztatzen denez, Euskadiko zaintza eredua ez da arestian azalduriko espainiarraren oso disparekoa, nahiz eta esparru informala garrantzia apur bat apalagoa den zerbitzu publikoen estaldura handiago baten ondorioz. Preferentzien esparruan ere, EAE-ko biztanleen aldetik zerbitzu publikoen aldeko eskari handiagoa suma liteke Estatuko datuekin alderatuz, dela berton hedadura publikoa handiagoa delako edo dela horien kalitatearen pertzepzioa hobe delako. Dena den, pertsona nagusien zaintza esparru nagusia, esparru informala dela dudarik ez dago (%72), eta horien osagarri diren zaintza formaleko mekanismoen artean pribatu eta publikoen arteko oreka handiago bat antzematen da, beti ere lehenengo horien aldekoa izanik balantzea. Dena den, inondik inora ere ezingo genuke bi sistemen ordezkagarritasun eredu batez jardun, laguntza formala ia kasu

gehienetan laguntza informalaren osagarri baita, eta oraindik orain nahiko mugatua soilik laguntza formala jasotzen dutenen proportzioa (%21 eskas).

4.2 Ikusezintasuna hautsiz: esparru informalaren analisiaren aurrekari nagusiak eta ekarpen feministen oinarriak

4.2.1 Esparru informalaren analisiaren aurrekari eta lan ildo nagusiak

Zaintza informalaren inguruan ekonomiaren diziplinatik eginiko analisien berrikuspenera egitera doana apenas jorratu gabeko esparru baten aurrean dagoela ohartzen da berehala. Izan ere, zaintza informalaren esanguraren gainean eta zaintzaile informalaren egoerari buruz orain oso gutxira arte kasik ez da egin ikerketa esanguratsurik ekonomiaren aldetik.

Lehen azalpen batek, merkatutik pasatzen ez diren jarduerari ekonomiak oro har egin izan dien ezikusaren argudioa plazaratu lezake, nahiz eta ikusezintasun honek erro sakonago eta egiturazkoagoak dituela baieztatuko duten gaiari heldu dioten autore gehienek. Honela, esparru honen ezaugarri nagusietako bat da horien iritziz teorizazio maila ahul honen arrazoirik nagusia, hots, betidanik andrazkoek egindako lana izatea, hain zuzen ere.

Zaintzaileen kolektiboan andrazkoak gehiengoa izateak inplikazio zuzenak ditu honen gaineko ikerkuntza jardunean, horiek tradizionalki izan duten botere ekonomiko eta politikoaren gabeziak oztopatu egin baitu horien beharrezanen berri emango duten ikerketa-lerroak sozialki aitortuak eta bultzatuak izatea (Roger, 2010). Carrasco (2011) oraindik harago joango da, egile honen iritzian zientzia ekonomikoa sistema patriarkalean oinarritu izanak, gizonei sozialki esleituriko lanak unibertsaltzat jo eta andrazkoek eginikoak aintzakotzat ez hartzea ekarri baitu. Beharrezkoa da, beraz, ikergune honen garapen teoriko ahularen zergatietan aztarrika aritzeko, “lanaren banaketa sexualak” ezarritako gizarte-egituraketa baztertzaileren prisma begien bistatik ez galtzea.

IMSERSOk ikergai honen aurrekariari buruz egiten duen analisisian, lehen ikerketa aipagarriak aurreko mendeko 70eko hamarkadan kokatu ditu, batik bat AEB, Britainia Handian eta Europa iparraldeko herrialdeetan, eta Espainiara hogeitazero urteko atzerapenez heldu direla aipatzen du (Rogerero, 2010). Honela, 90eko erdialdetik aurrera eta batik bat pertsona nagusien mendekotasun egoeraren analisei loturik agertzen hasi ziren Espainian zaintza informalarik buruzko ikerlanik oparoenak, herri-erakunde ezberdinek (horien artean nagusiki IMSERSO berak) bultzaturik eta gaian adituak diren ikertzaile garrantzitsuen eskutik⁶³.

Zaintza informalaren analisia, bestalde, nagusiki bi gai zentralen inguruan burutu izan da Espainian: zaintzailearen profil sozio-demografikoa aztertu izan duten azterlanak batetik, eta zaintza lanek zaintzailearen bizi-kalitatean duen eragina aztertzen dutenak bestetik (Montoro Rodriguez, 1999). Bestalde, teoria ekonomikoa zaintza informalaren errealitateari bi optika nagusitatik hurbildu dela baieztatu daiteke, “lan ez ordainduen” analisetatik eta “denboraren erabilerari” buruzko analisetatik, nagusiki (Rogerero, 2010).

Honela, lehen analisi esparru horietan, etxeguneetan egiten den lan ez ordaindua jarduerak ekonomiko funtsezkoa dela aldarrikatuko da, sistema ekonomikoaren eraikinak behar dituen oinarriak eskaintzen dituenak (Carrasco, 2004). Hortaz, ekonomia bere osotasunean ulertzeko, bi azpi-sistema bereizi behar direla seinalatuko da, bata monetarizatua eta bestea ez-monetarizatua. Gary Becker ekonomialari nobel saridunak 60ko hamarkadan proposaturiko “Etxeguneetako Ekonomia Berria”, etxeguneen funtzio produktiboaren aitortzearen lehen mugarrietako bat izan zen diziplinaren *mainstream*-aren baitan, eta ildo honi jarraiki etorri dira aurrerantzean ordaindu gabeko lanen balorazio eta kuantifikazio ekonomikoa egitea xede izan duten ikerketa-ildoak (nagusiki Kontabilitate Nazionalaren kontuetan barneratzeko helburuarekin, Kontabilitate Integrala osatzeko (Durán, 1995)).

Bigarren lan ildo nagusia, esan bezala, “denboraren erabileraren” inguruko analisen bitartez garatu da. Soziologiaren esparruan garapen garrantzitsua ezagutu duen lan ildoak izan arren, ekonomiaren esparruan gutxiago jorratu da, berriz ere Gary Becker

⁶³ Besteren artean aipatu litezke Pilar Rodriguez, Mayte Sancho, Maria Ángeles Durán, Cristina Carrasco, Demetrio Casado edo Gregorio Rodriguez Cabrero bezalako egileak.

autorearen “Denboraren Esleipenaren Teoria” (Becker, 1965) jotzen delarik teoria ekonomiko neoklasikoen erreferentzia nagusizat, nahiz eta gerora hainbat autorek berrikuspen sakona egin dioten hurbilketa horri (Folbre, 2004). Lan ildo honek, zaintza informala zenbatean, zeinek, nola eta zein momentutan ematen den azaleratzea ahalbidetu du, alde batetik, eta zaintzaileei beren denboraren dedikazio horrek beren bizitza kalitatean nola eragiten dien aztertzea ekarri du, bestetik. Espainian erreferentziazkoak dira zentzu horretan CSIC zentroak eginiko inkesta eta ikerlanak, etxeguneetako jardueren banaketari buruzkoak, eta Euskadin Eustat-ek aldiro egiten dituen Denbora Aurrekontuen Inkestak (Rogerero, 2010)⁶⁴.

Orain arte aipatu diren erreferentzia eta ikerketa ildoak oro mugimendu feministaren lan politiko eta akademikoaren fruitu dira. Gizarte-mugimendu honi aitortu behar zaio, beraz, gizarte-egituren analisia genero-ikuspegitik egin izanaren ekarpena, bai eta “lanaren banaketa sexuala” gizartea egituratzeko ardatz nagusi gisa seinlatu izanaren ekarpena ere.

Castro et al-ek (2008) zaintzaren inguruan feministek eginiko lan honek Euskadin izaniko eragina azaltzean, 90eko hamarkadatik gaur arte alor honetan eginiko ekimen nagusien kronologia osatzen dute. Honela, 90eko lehen urtetan zenbait autoreren testu erreferentzialen (besteren artean Emilce Dio Bleicmar-en *La depresion de la mujer*, Maria Angeles Durán-en *Costes invisibles de la enfermedad* edo Celia Amorós-en *Hongos hobbesianos, setas venenosas* aipatzen dira) irakurketetan oinarrituz hasiko dira Bizkaiko Emakumeen Asanbladatik mugimendu feminista zaintzaren esparrura gerturatzen eta lehen ekimenak abian jartzen (esaterako 1993ko “*No al servicio familiar obligatorio. Insumisión*” ekimena). Hortik aurrera, 2000. urtetik aurrera lege-egitasmo ezberdinen aitzakiaz plataforma feminista ugari sortzen joango dira, tartean mendekotasun legearen aurrean sorturiko *Plataforma por un Sistema Público Vasco de Atención a la Dependencia* 2005an, eta gaiaren inguruko ezagutzan sakontzen joateko ikerketa eta kongresu ezberdinak antolatuko dituzte, besteak beste Emakundek 2003an antolaturiko *Cuidar cuesta: costes y beneficios del cuidado* kongresua.

⁶⁴ Bi lan ildo nagusietako horietako bakoitzaren erreferentzietan sakondu nahi duenak jo beza aipatu txostenera: Rogerero, 2010:93-110. Egun lan ildo horietako bakoitzean agertzen diren oztopo, zailtasun eta erronka nagusiak zeintzuk diren jakiteko, ikus Carrasco, 2011:217-221.

Teorizazio feministak, halaber, diziplina akademiko orotan aurkitu du bere isla, gizarte- zientzien esparru gehienetan aplikatuz prisma feministak eskaintzen dituen kategorია analitikoak eta lanabes metodologikoak. Gure ikerlan honetako esparru informaları buruzko lehen hurbilketa honek helburu xumeagoak ditu, ordea. Nagusiki erreparatuko diegu diziplina ekonomikoaren baitan kokatzen diren ekarpenei, arreta berezia jarriz arestian garatu dugun ongizate-erregimenen berrikuspenari heldu diotenei.

4.2.2 Zaintzaren-ekonomia: diziplina ekonomikoaren birkontzeptualizaziorako ekarpen feminista

Honela, lehen atal batean, teoria ekonomiko feministek diziplina ekonomikoari eginiko zenbait ekarpen jasoko dira, *mainstream* ekonomikoaren errotikako kuestionamendu bat burutzen dutenak, eta sistema ekonomikoa bere osotasunean eta behar den bezala ulertzeko beharrezkoak diren elementu analitikoak eskaintzeko, kontzeptu ekonomiko giltzarri batzuen berrikuspena proposatzen dutenak.

Teoria ekonomiko feministetatik diziplinari egin zaizkion ekarpen nagusienak aztertzeko Cristina Carrasco autore oparoak eginiko analisisetan zentratuko gara nagusiki. Autore honen iritzian, ekarpen feministek kontzeptu ekonomiko nagusiak birplanteatzeaz gain, estatistika ekonomikoak eztabaidatzen, ordaindu gabeko lanak kontuan hartzen dituzten estatistika berriak proposatzen, adierazle berriak asmatzen eta genero-ikuspegia barneratzen duten politika publikoak bultzatzen ere lagundu izan du, besteak beste, (Carrasco, 2011).

Alorrik teorikoenean, ekarpen feministaren ardatzetako bat teoria ekonomikoak darabiltzan kontzeptu eta balizkakoak zalantzan jartzea izan da, horiek andrazkoen ikusezintasunean eta azpiratzean dituzten ondorioez jabetuta. Kuestionatuko duen lehen kontzeptu nagusia lanaren kontzeptua izango da. Carrasco-ren (2011) irudiko teorialari klasiko nagusiek (Adam Smith, David Ricardo edo Marx berak), ekonomiaren analisisa ekoizpenaren prismatik eginez, lanari berebiziko zentraltasuna eman zioten, baina lana beti ere lan industrialarekin parekatuz, eta ondorioz, lan indar horren erreprodukziorako beharrezko gainerako lanak beren analisi eskemetatik kanpo utzi zituzten. Zaintza lanen edo orokorrago, ordaindu gabeko lanen ikusezintasunerako bigarren urratsa teorialari

marginalisten ekarpenen bidez emango da, horiek ekonomiaren analisia ekoizpenaren prismatik egin beharrean merkatu-sistemaren ikuspegitik egingo baitute (baliabide eskasen esleipenaren analisia proposatuz ekoizkortasun marjinalaren eta utilitate teorien bitartez, besteren artean).

Pentsamendu ekonomikoaren lan ildo berri honek bi inplikazio nagusi izango ditu ordaindu gabeko lanaren bazterketari begira: espazio publiko-ekonomikoa eta pribatu-ez ekonomikoaren bereizketa ezartzea, batetik (lehen horri merkatua egokituz eta bigarrenari esparru familiarra); eta beste aldetik, etxeko lan familiarren esparruan merkatuz kanpoko esparru gisa definitua geratzean, ekonomiaren arreta gune izateari utziko dio. Lana, hortaz, “ekoizpen faktore” huts gisa kontsideratuko da, eta hortik aurrera ezarriko da lana enpleguarekin (soldatapeko lanarekin, alegia) berdintzen duen axioma, lanaren definiziotik kanpo utziz merkatuen ematen ez diren giza jarduera oro.

Carrasco-k (2011) gaineratuko du bereizketa honen bitartez hezurmamituko dela “lanaren banaketa sexuala”, patriarkaltasunaren eskemetan oinarrituta egin ere, gizonari sozialki esleituriko lanek balio unibertsala lortuko dutelarik, eta gainerako esparruak, andrazkoek okupatzen dituztenak, ikusezin bilakatuko dira.

Industrializazio garaian ezarriko den gizarte-erakuntza honen aurrean, ekonomia feministaren helburua ekonomiaren ikuspegi berria egikaritzea da, gizakien biziraupenerako beharrezkoak diren lan guztiak barnebilduko dituen ikuspegi berri bat proposatzea (Carrasco, 2011). Ikuspegi feministak proposatzen duen metodologia, hortaz, “bizitzaren iraunkortasunaren” kategoria analitikoan laburbiltzen da, hau da, “gizarte bakoitzak giza bizitzaren iraunkortasunaren arazoak ebazteko erabiltzen dituen formen ulermenean” (Carrasco, 2001). Kategoria analitiko hau, era berean, bi oinarritzko premisa teorikoren gainean eraikitzen da: i) ekonomia ez da merkatuetara murrizgarria, hots, ekonomia bizitzaren mantenurako erabiltzen diren monetazko zein ez-monetazko esparruen analisia da, eta kasu honetan, monetazko merkatu-harremanak bigarren plano batean kokatzen dira, eta; ii) generoa ezein sistema ekonomikoren elementu antolatzaile zentrala da, eta hortaz, ezinbestekoa da egitura sozioekonomikoen edozein analisi genero-harremanen optikatik egitea (Pérez Orozco, 2006).

Premisa berri horien gainean 60 eta 70eko hamarkadetatik aurrera hasiko dira elaborazio teoriko berriak sendotzen, andrazkoen lanari buruz eginiko analisi enpirikoetatik abiatuta beti ere. Elaborazio teoriko horietan ekonomia merkatuaz harago dauden giza jarduerak ere osatzen dutela defendatuko da, eta bi esparru ezberdin baina elkarloturen erlazio dinamikoaren eskema planteatuko da: merkatuko ekoizpen kapitalistaren esparrua batetik eta giza garapenarena bestetik, edo bestela esanda, merkantzien ekoizpenerako esparrua batetik eta biztanleriaren edo lan-indarraren erreproduktzioarako esparrua, bestetik (Carrasco, 2011). Modu honetan, sistema ekonomikoa “iceberg” baten itxurako errealitate gisa ulertu beharko da, non ur azalaz gainetik merkatuan gertatzen den esparru ikusgarria legokeen, kapital metaketaren esparru gisa definitua, baina beti ere ur azal azpitik dagoen bestelako sistema “ikusezin” batean duelarik bere euskarria, gizarte-beharrizanen asetzeaz arduratzen dena, hain zuzen ere (Pérez Orozco, 2006).

Bigarren oinarri hori gehitzeak ez-merkatuzko esparruaren ikusgarritasuna bilatzea du helburu, baina era berean, bi esparru horien arteko oreka eta desorekak aztertzea ere bai. Ez dira, hortaz, ekonomiak gainontzean proklamaturiko “oreka armoniko”-ko egoera batean egongo bi esparruok, aitzitik, tentsioz beteriko esparruak izango dira, nagusiki bi tentsio esparruk zehaztuta: soldata eta mozkinen artekoa bata (marxisten aburuz sistema kapitalistaren oinarritzko kontraesana dena) eta lanaren banaketa sexualak ezarria bestea (Carrasco, 2011).

Bi oinarritan eraikitako ekonomia honen ikuspegiak, hortaz, bi oinarri horien arteko harremanaz ezarritako zenbait axioma ere zalantzan jartzera eramango ditu egileok, nagusiki merkatuaren independentzia edo buruaskitasunari erreferentzia egiten diona. Ekonomialari ortodoxoek ekonomia arau propioak dituen sistema burujabe gisa hautematen dute, gainerako gizarte-harremanen analisitik isolatua. Ekonomialari feministek, kontrara, ekonomiaren merkatuko esparrua ez-merkatukoaren guztiz menpekoa dela argudiatuko dute, azken honetan burutzen baita merkatuan jokatzeko duten lan-indarren biziraupenerako erreproduktzio lana, eta gainera, merkatuko sistema kapitalistak ezingo bailuke egungo eskematan iraun ez balitz esparru domestikora desplazatzen dituelako lan-indarraren erosketak berez dakartzan kostuen zati handi bat,

erreprodukzio lanei dagokiena, alegia (eta kapitalisten etekinaren konposizioan berebiziko garrantzia duena, logikaz) (Picchio, 2001).

Ekarpen feministek eskainitako kategoria analitiko berri horiek baliatuko dira, era berean, ongizate-estatuaren teoriak kritikatzeko, eta baita, gure ikergune konkretuagoa den ongizate-erregimenen teorizazioa berrikusteko ere. Azal ditzagun jarraian gai honen inguruan eginiko ekarpenik esanguratsuenak.

4.3 Ongizate-erregimenen berrikuspena esparru informalaren ikuspegitik

4.3.1 Ongizate-erregimenen ekarpenaren irakurketa kritikoak

Aurreko atalean landu den Ongizate-erregimenen analisia, batik bat Esping-Andersen-en (1990) “Kapitalismoaren Hiru Munduak” ekarpenetik eratorritakoa, onarpen oso zabaleko ekarpena izanik ere, beste hainbatean berrikusitako teorizazio lana da. Aurreko atalean ikusi da, arrazoi metodologikoetan oinarriturik, hainbat autorek bestelako ongizate-familien eta ereduaren taldekatzeak proposatu izan dituztela. Atal honetan, aldiz, Esping-Andersen-en proposamena bestelako analisi ardatz batzuetatik aztertu dutenen ekarpenak jasoko ditugu, bereziki loturik agertzen direlako esku artean dugun gaiaren analisiari, hots, esparru informalaren ikusezintasunaren gaiari.

Honela, ongizate-erregimenen berrikuspena esparru informalaren optikatik egin izan dutenen artean bi arazo nagusi mahai gaineratzen dira: genero-ardatzari jaramonik ez egin izana, batetik, eta espezieetan emaniko prestazioengan arretarik jarri ez izana, bestetik (Österle, 2009). Bi kritika ildo horiek elkarri estuki loturik daudela aditzera ematen dute gainera, ongizate-erregimenen analisisian genero-ardatza kontuan ez hartzearen ondorio baita analisia soilik prestazio ekonomikoen bidetik egitea. Honela, kritika feministak analisi modu honen oinarrian “gizon-langile hiritar ideala”ren fikzioa dagoela kritikatzeko (Lewis, 1992; Orloff, 1993), halako moduz ezen, sistemaren oinarrian gizon-langile-ekonomikoki-independientea kokatzeak, ongizate-teorien arreta gune nagusia errenten transferentzien esparrua izatea ekarri baitu (pentsioak, desenplegu edo gaixotasunagatikoko prestazioak, nagusiki). Moneta transferentzia bidezko ongizate-politika horien onuradun printzipalak gizonezko-langileak dira eta emakumeak

zeharkako moduan jaso lezake halako onurarik, baldin eta gizon-langilearekiko senidetasun-harreman finkorik egiaztatzeko gai bada.

Lewis-en (1992) argudioei eutsiz, beraz, ongizate-erregimenen analisiak “gizon-soldata-irabazleari” bideraturiko politiken prismatic soilik begiratu ez ditu aintzat hartzen, besteak beste: i) gizarte-segurantza eta zerga-sisteman emakumeek jasotako tratua; ii) gizarte-zerbitzuen hornidura maila, eta; iii) emakumeen lan-merkatuko egoera. Estatu-merkatu dikotomia murrizkorra gainditu eta familiek eta batik bat emakumeek lan ordaindu zein ordaindu gabearen bitartez emaniko ongizate-hornidura kontuan hartu behar litzatekeela ere defendatzen du, eta analisi murrizkor horiei aurre egiteko, Lewis-ek (1992) bestelako ongizate-estatu sailkapen bat proposatzen du, “sostengatzaile nagusi” (ingelesezko *breadwinner*, hots, gizon-ogi-irabazle) indartsuko, apaleko edo ahuleko ereduak proposatuz.

Ongizate-teorien izaera “maskulinoa” edo “sexista” gainditzeko, ongizate-erregimenak genero ikuspegiaren arabera egokitu beharra (*gendering welfare regimes*) aldarrikatzen dute beste zenbaitzuk (Sainsbury, 1994). Erregimenen analisisia “generotzeko” saio nagusiak, arestian aipaturiko “desmerkantilizazio” adieraren berrikuspenaren bidetik egin izan dira. Adiera honekin kritikoak direnek argudiatzen dute aipaturiko hori ez dela irizpide egokia ongizate-erregimenen analisisia egiteko, besteak beste zerbait desmerkantilizatzeak aurretiaz merkantilizatu izan dena adierazten baitu. Esparru informalean emandako zaintza lanak, aitzitik, merkantilizatu gabeko lanak izatearren bereizten dira ordea, monetazko ordainsaririk jasotzen ez duten aldetik. Beraz, “desmerkantilizazioaren” adiera ez da egokia emakumeak eta ongizate-estatuaren arteko erlazioak aztertzeko (Orloff, 1993).

Horren ordez, esaterako Orloff-ek (1993) “autonomia pertsonalaren” irizpidea hobetsiko du, zeinaren arabera zaintzen hornidura jarriko baitu eztabaidaren erdigunean eta zaintzaileak aukeran dituen (edo ez dituen) baliabideen analisiaren bitartez garatuko baititu eredu ezberdinak. Bigarren saio bat burutuko du Bamba-k (2004) aurreraxeago, “desmerkantilizazio” irizpidea “desfamiliaritze” irizpidearekin ordezkatzuz, lehenago Esping-Andersen-ek (2000) zabalduriko bideari jarraituz. Irizpide berri honen analisisia aurrerago garatuko dugun arren, aurrera dezagun indize honek emakumeak lan-karga

familiarrekiko duen autonomia maila neurtzen duela. Indize honekin eginiko analisisetan funtsean bi eredu daudela ondorioztatzen du Bambra-k (2004), bata iparraldekoa, non desfamiliartze tasa altuak lortzen diren eta erdi mailako tasa batekin leudeke Europako gainerako herriak.

Bigarren berrikuspen ildoan, lehenari estuki lotua dena esan bezala, diru laguntzen edo monetazko prestazioei emaniko zentraltasun handiegia zalantzan jartzean datza. Pentsioak, gaixotasunagatiko diru-laguntzak eta desenpleguagatiko diru-laguntzez gain, ongizate-estatuaren gizarte-prestaziotan bestelako zerbitzu ugari daude, analisisan barneratu behar liratekeenak. Honela, herrialde europarretako gizarte-gastuaren herena, gutxi-gora-behera, espezieetan emaniko prestazio horietara bideratua dago, nagusiki osasungintzako zerbitzuak, baina baita, neurri aldakoragoan izan arren, zaintzarako politikak zein politika familiarrak ere (Österle, 2009). Azken zerbitzu horien artean leudeke gizarte-zerbitzu gehienak eta konkretuki haur zein pertsona nagusiei emaniko zaintza zerbitzuak ere, genero-ikuspegitik berebiziko garrantzia hartzen dutenak emakumearen egoerari dagokionean (Anttonen eta Sipilä, 1996).

4.3.2 Esping-Andersen-en erantzuna: desmerkantilizaziotik desfamiliartzera

Esping-Andersenek aintzat hartu eta bere egingo ditu aipaturiko kritikak, eta bere lehen obraren berrikuspena proposatzen du *Social Foundations of Postindustrial Economies* (1999) bigarren lan nagusian. Obra honetan, espresuki aitortzen du bere lehen lanari eginiko kritiken zuzentasuna eta erregimenen analisisan barneratu beharreko adierazle berrien premia. Alabaina, kritika horiek aintzat hartzeak bere proposamena baliogabetzen duen ala ez baloratzerako orduan, gaineratzen du elementu gehigarriak analisisan barneratzeak (familia-ekonomien analisiak) enpirikoki baieztatu egiten duela, ezeztatu beharrean, proposaturiko ongizate-erregimenen sailkapenaren egokitasuna (Esping-Andersen, 2000: 67).

Honela, bigarren obra nagusi honetan kapitulu oso bat eskaintzen dio familia-ekonomien analisiari, eta ongizate-erregimenen berrikuspena analisi-ardatz berri hau barneratuz egiten du. Lehenik aitortzen du “desmerkantilizazio” adierak ez duela errealitatea bere osotasunean azaltzeko nahikoa zehaztasunik eskaintzen, esate baterako,

Europa kontinentaleko herrialde gehienek “desmerkantilizazio” gradu esanguratsuak azaltzen dituzten arren, aldi berean oso gizarte familiaristak direlako. “Desmerkantilizazio” hori ez da gertatzen ongizate-estatuak zerbitzuok beregain hartzen dituelako, familia esparruaren baitan asetzen direlako baizik. Honela, ongizate-estatu indartsua garatu duten herrialdeetan ere (nagusiki herrialde kontserbadoreei buruz dihardu), familia oraindik orain funtsezko gizarte-egitura gisa mantentzearen alde bestelako arrazoibide moral eta kulturelek ere eragiten dutela azpimarratzen du (ideologia kontserbadoreak ezarritako “subsidiaritate” printzipioaren eraginez batik bat) eta horiek bete-betean eragiten dutela erregimenaren osaeran.

Hortaz, herrialde sozialdemokrata zein kontserbadoreetan, bietan “desmerkantilizazio” gradu altua agertzen den arren, ezberdina da horietako bakoitzean merkatuko esparrutik eman den desplazamendua: lehenengoan estatua da beregain hartzen dituen zerbitzuok eta bestean familia da hornitzaile nagusi gisa agertzen dena.

“Desmerkantilizazio” adieraren mugak aitortzearekin batera, beste adiera berri bat proposatzen du horiek gainditzeko: “desfamiliaritzea”, hain zuzen ere. Adiera berri honen bitartez, norbanakoak familiarekiko duen dependentzia arintzen duten politikari erreparatuko zaie, familiako elkarrekikotasun harremanez gaindik, norbanakoak autonomia ekonomikorik gehien izatea ahalbidetzen duten politikari, alegia. Ardura familiarrak neurri handiengan andrazkoei egozteak, horiei (soldatapeko) lanetik lortutako independentzia ekonomikoa erdiestea oztopatzen dienez, horien “desfamiliaritze” maila ongizate-estatuaren sendotasunaren adierazle argia litzateke⁶⁵.

Honela, “desfamiliaritzean” positiboki eragin dezaketen neurriak hiru motakoak liratekeela aipatzen du: dirua ematen dutenak, denbora ematen dutenak edo zerbitzuak eskaintzen dituztenak. Ongizate-estatuak, ikusi denez, nagusiki errenta-transferentzien

⁶⁵ Adiera berri horren inguruan hainbat zehaztapen egiten ditu jarraian. Alde batetik, “desfamiliaritzearen” aldeko politikak “familien aldeko” politiken parekoak ez direla aipatzen du, azken horiek kasu askotan emakumearen “etxekotzean” sakontzen duten bitartean, lehenak emakumearen lan-karga familiarrak arintzea baitu xede. Are gehiago, herrialderik familiaristenak familiaren aldeko politikarik ahulena dituztenak direla gehitzen du. Beste aldetik, ez lirateke politika “antifamiliar” gisa ere ulertu behar, lortu asmo dutena gizarte-arriskuak familiengandik “besterenganatzea” baita, familia-unitateen ongizate-erantzukizunak arinduz. Horrela, sistema bat “familiarista” da, politika publikoak norbanakoaren ongizatean lehentasunezko erantzukizuna familiari egozten dion kasuan eta kontrara sistema “desfamiliarizalea” da norbanakoen ongizatea sendetasun-erlazioen loturetatik askatzeko gai den sistema.

bitartekoa baliatu du gizarte-beharrizanak “desmerkantilizatzeke”, baina horiek gizarte-beharrizanak “desfamiliartzeko” eraginkorrak diren ala ez, ordea, eztabaidagarria litzateke. Esping-Andersen-ek (2000) adierazten du neurriok eraginkortasun mugatua agertu izan dutela emakumeen karga familiarak arintzeko, gutxienik bi arrazoiengatik: edo ez direlako familia-kideen independentzia ekonomikoa ziurtatzeko kopuruetara inoiz iritsi, edo ez direlako nahikoak izan zerbitzuok merkatuan kontratatzea ahalbidetzeko, merkatuko alternatibak oso modu murriztuan ordezkatu izan baitu familien “autozerbitzu” eredia⁶⁶.

Puntu honetan sakontzen dute Sarasa eta Mestres-ek (2007) *cash or in-kind* (eskudirutan ala espezieetan) dikotomia aurkezten dutenean ere, azterketa mendekotasuna duten pertsonen zaintza esparruan zentratuz, batak ala besteak mendekotasuna agertzen duen pertsonarengan eta baita zaintzailearengan ere ondorio ezberdinak sor ditzakeen ustean. “Desfamiliartzeari” dagokionean, moneta transferentzien kasurako zaintzaileen aukera kostuak (soldatapeko lanik ez izatearen “diru-galera”) neurri batean leuntzen lagun badezake ere, soilik izango da eraginkorra merkatuko zerbitzuen kostuak ordaintzeko nahikoak diren kantitateetara gerturatzen denean. Kontrako kasuan, emakumeak are gehiago “etxekotzea” ekarriko du. Laguntza horiek, aldiz, familientzako zerbitzu errealean bidez ematen diren kasuan ere, emaitzek zerikusia izango dute zerbitzu horien nolakoarekin, hots, kalitatezko zerbitzuak diren kasuan soilik ordezkatu dute emakumeen etxegunetako hornidura. Bide batek zein besteak, hortaz, eragin bat ala guztiz aurkakoa izan dezake bere kalitatearen arabera.

Monetazko transferentzia eta zerbitzuez gain, Esping-Andersen-ek (2000) “denboren banaketan” eragiten duten politiken garrantzia ere aipatzen du “desfamiliartze” politiken alorrean. Honela, korrelazio negatibo argia ikusten du emakumeen enplegu-tasa eta etxeko lan ordaindu gabeei eskainiriko orduen artean. Aldiz desoreka gizonezkoen

⁶⁶ Zerbitzu horiek merkatu ordezkagarritasun mugatukoak izatea faktore askoren kausaz izan liteke. Carrasco-k (2001) emakume zaintzaile roleri loturiko elementu kulturalak nabarmentzen dituen bezala, Esping-Andersen-ek (2000) “kostuaren gaitza” kontsideratuko du arazo nagusia. “Kostuaren gaitz” hori, oro har zerbitzuek epe luzera azaltzen duten ekoizkortasun eta soldata erlatiboaren arteko harremanean oinarritzen da. Honela, zerbitzuen epe luzeko produktibitatea apalagoa denez ondasunen ekoizpenaren aldean, soldatek erreferentzia horrekiko azaltzen duten ezein aldaketek merkatua hustu dezakete: zerbitzu emailearen soldata produktibitatearen azpitik kokatzen bada, merkatua eskaintzaren aldetik desagertzen da; aitzitik, zerbitzu emailearen ordainsaria bere produktibitatearen gainetik kokatuz gero, eskaria da atzenduko dena.

aldetik letorke hemen, emakumeen azken urtetako enplegu-tasak joera gorakorra izan arren, gizonezkoek oro har etxeko aferei eskaintako ordu kopuruak ez baitu aldaketa esanguratsurik ezagutu⁶⁷.

Laburbilduz, Esping-Andersen-ek (2000), ongizate-erregimenen berrikuspena “desfamiliartze” irizpidearen bitartez gauzatzeko, kontuan hartuko ditu ongizate-estatuaren eskaintza publikoa alde batetik, (nagusiki haur eta nagusien zaintzarako zerbitzu publikoak eta mendekotasuna duen pertsona baten kargu hartzeagatik familiantzako diru laguntzen bitartez), familiaren baitan emandako denbora-esleipenak bestalde, eta merkatuak eskaintzen dituen ongizate-zerbitzu pribatuen kontratazio maila, azkenik. Hiru aldagai horien herrialde-arteko azterketatik, Esping-Andersen-ek (2000) finkaturiko hiru ereduen ezaugarri nagusiak honela laburbilduko lirateke:

Koadroa 10: Ongizate erregimenen berrikuspena “desfamiliartze” irizpidearen arabera

	LIBERALA	SOZIALDEMOKRATA	KONTSERBADOREA
<i>Familiaren papera</i>	Bazterrekoa	Bazterrekoa	Zentrala
<i>Merkatuaren papera</i>	Zentrala	Bazterrekoa	Bazterrekoa
<i>Estatuaren papera</i>	Bazterrekoa	Zentrala	Subsidiarioa
<i>Elkartasun mota nagusia</i>	Norbanakoa	Unibertsala	Senidetasunezkoa Korporatibismoa Estatismoa
<i>Elkartasun esparru nagusia</i>	Merkatua	Estatua	Familia
<i>Desmerkantilizazio maila</i>	Minimoa	Maximoa	Handia (etxeko nagusiarentzat)
<i>Eredu idealak</i>	AEB	Suedia	Alemania Italia

Iturria: Esping-Andersen (2000:115) (itzulpen propioa)

⁶⁷ Fenomeno honen atzean oraindik orain Becker-ek (1965) proposaturiko erabakitze partekatuko eredu neoklasikoa betetzen dela uste du Esping-Andersen-ek (2000:84), zeinaren arabera gizonezkoak lan-errenta handiagoak jasotzen dituen neurrian, familiak bere osotasunean “gehiago galduko” du gizonak etxeko lanen mesedetan bere lan-ordu ordainduei uko egingo balie. Becker-en “Denbora esleipenaren teoria” gerora oso modu zabalean kritikatu izan da zenbait autoreren aldetik, esaterako Folbrek (2004) onartezintzat jotzen baitu emakumeak ez-merkatuko ekoizpenean espezializatzea, aukeren arteko aukerarik hoberen gisa interpretatzea. Horren aurrean bere “Denboraren esleipen okerraren teoria” aurkeztu du, zeinetan argudiatzen baitu denbora-esleipen prozesuetan ez direla merkatu lehiakorren balizkakoak betetzen, gutxienik bi arrazoigatik: norbanakoaren erabakiak hartzeko gaitasuna mugatua delako, eta gizarte-instituzioen eraginkortasuna ere mugatua delako. Honela, Folbreren irudiko (2004:7) denboraren esleipen prozesuetan banaketa-gatazkak eta koordinazio-arazoak sortzen dira, halako moduz ezen adostasuna lortzeko ezintasunek norbanakoak nahi lukeena lortzea oztopatzen baituen. Eta gainera, koordinazio arazo horiek konpontzeko sorturiko gizarte-egiturek aldaketarako erresistentzia azaldu ohi dute, nahiz eta modu ez-eraginkorrean aritu.

Ondoriozta liteke, beraz, orain arte landutakoaren ildotik, ongizate-erregimenen berrikuspena “desfamiliartze” irizpidearen arabera egiteak, aldagai berriak analisisan sartu arren ez duela guztiz ezeztatzen Esping-Andersen-ek (1990) proposaturiko sailkapen hirukoitza, funtsean hiru eredu nagusi bereizten jarraitzen baitu: liberala, sozialdemokrata eta kontserbadorea, hain zuzen ere. Dena den, horiei “desfamiliartze” adierazlea gehituta, hiru eredu horien berezitasunei bestelako ezaugarri bat erantsiko zaie: herrialde sozialdemokratak izango dira bai “desmerkantilizazio” eta bai “desfamiliartze” tasarik handienak agertzen dituztenak; herrialde kontserbadoreetan, arrazoizko “desmerkantilizazio” tasak “desfamiliartze” tasa baxuekin konbinatzen dira, eta azkenik; herrialde liberaletan, “desfamiliartze” tasak emaitza hobeak emango ditu “desmerkantilizazioarenak” baino.

4.4 Ongizate-erregimenetatik harago zaintza-erregimenen analisisa: zaintza formal eta informaleko eredu ezberdinak

Zenbait autoreren iritzian, ordea, “desfamiliartze” indizean oinarrituriko analisi berri horiek oraindik ez dute errealitatearen benetako argazkirik eskaintzen, analisi horietan ez baita zaintza lanen esparrua sistematikoki lantzen (Razavi, 2007). Honen zergatietako bat analisi-esparruaren izaerari berari zor zaio, Europako herrialde gehienetan ez baita zaintzei loturiko sistema propiorik garatu, osasungintza edo errenta-transferentzien esparruetan ez bezala (Österle, 2009). Honela, ikuspegi berri honek analisisa gizarte-zerbitzuen optikatik egin beharra mahai gaineratzen du (zeina 5. atalean garatuko baita).

Atal honetan ordea, zaintza-erregimenen analisisa da jorratuko dena, ikuspegi honek gizarte-zerbitzuena baino esparru zabalagoa hartzen baitu kontutan, mendekotasun egoeran diren pertsonen gizarte-babeserako baliabide formalez gain, baliabide informalaren analisisa ere gaineratuko baitu. Honela, ongizate-erregimen guztietan aurkitzen da zaintza-erregimen motaren bat, erregimen bakoitzean ageri den esparru formal eta informalaren konbinaziotik eratorriko dena.

Honela, zaintza lanetan zentratutako ezein analisisik gutxienik honako elementuak barneratu behar lituzke Jenson-en (1997) irudiko: zaintzailearen identitatea eta bere

gizarte edo senidetasun lotura pertsona zainduarekin (nork zaintzen du?), zaintzaren finantzazioa (nork ordaintzen du?) eta zaintzaren hornidura instituzionala (non zaintzen da?). Bettio eta Plantenga-k (2004) Europako zaintza-erregimenen sailkapena burutzeko, arestian aipaturiko zaintzaren bi esparruak hartzen dituzte kontuan, hots, esparru formala eta informala, eta zaintza-mota horietako bakoitza definitzeko guk aurretiaz erabilitako antzerako irizpideak baliatzen dituzte: zaintza informaleko esparruan arautu gabeko eta gehienetan ordaindu gabeko zaintza lanak barnebiduko lirateke eta esparru formalean legez edo bestelako kontratu bidezko erregulazioz arauturiko hornidurak.

4.4.1 Zaintzen hornidura informaleko esparrua: nazioarteko datu nagusiak

Zaintza informaleko esparrua, hortaz, monetazko harremanetatik kanpo kokatzen den esparrua litzateke, ordaindu gabeko lanean oinarritzen dena eta familiareko, lagun edo bizilagunen eskutik hornitzen dena nagusiki. Merkatu zein estatu esku-hartzetik landa ematen diren zaintzen esparruan geundeko, hortaz (Pommer et al, 2007).

Nazioarteko datu orokorretatik abiatze aldera, gizarte-zerbitzuen sistema indartsuak lortu dituzten herrialdeetan ere, zaintzen estaldura nagusia esparru informaleko hornitzaileen bitartez ematen dela esan behar litzateke lehenik. Nazioarteko errealitateen batz bestekoaren analisitik, aurretiaz Espainia zein Euskadirentzako jaso diren datuen antzekoak lortzen direla ondorioztatzen da: zaintza-lanen %80 inguru esparru informalean ematen direla estimatzen da, eta esparru honetan zaintzaile nagusi batek hartzen du lanaren arduraren nagusia, kasurik gehienetan andrazkoa delarik. Zaintzaile gizona oro har erretiro aldian diren pertsonak dira, andrazkoen kasuan berriz batz beste 40 eta 50 urte arteko adinean aurkitzen dira, hots, etxetik kanpoko lana eta zaintza-lanak uztartu beharreko adinean (Österle, 2009:52).


Oro har, gainera, herrialde gehienetan esparru formala geroz eta garrantzia handiagoa hartzen joan da azken urtetan, eta politika publikoen pautak komun batzuk ere hauteman litezke: monetazko prestaziotarako eta osasun zerbitzuetarako sistema zentralizatuagoak agertzen badira ere, gizarte-zerbitzuen sistemak deszentralizatuagoak ageri dira, tokiko gobernuei lotuagoak. Era berean, egoitza-zerbitzuetan zentratutako zaintza-ereduetatik,

joera aldaketa bat ageri da eredu komunitarioagoen alde, eta estatua geroz eta gehiago zerbitzuen (ko)finantzatzaile paperean zentratzen da, zerbitzuen hornidura erreala mozkinenez besteko zein mozkin asmodun eragile pribatuen eskuetan lagaz (Österle, 2009:53).

Dena den, azkenaldiko joera orokortuen kausaz herrialdeen arteko hurbilketa bat ematen ari dela uste daitekeen arren, herrialde-arteko analisi alderatu batek abiapuntuko egoera oso ezberdinen aurrean jartzen gaituzte oraindik orain.

Zaintza-erregimenen analisisetara itzuliz, beraz, herrialde-arteko analisi alderatuan Bettio eta Plantenga-k (2004), Eurostat-ek argitaratu duen *European Community Household Panel* (ECHP) datu-basetik abiatuz, adierazle konposatu bat eraikitzen dute “zaintza informaleen intentsitate adierazle” gisa deitua⁶⁸. Adierazle horren bidez jarraian aurkezten diren emaitzak lortzen dira:

Grafikoa 1: Zaintza informaleen intentsitate adierazlea (1996)




Iturria: Bettio eta Plantenga, 2004:88.

⁶⁸ *Index of informal care intensity* delakoa, funtsean bi adierazle ezberdinen arteko konbinaketaren emaitza da: i) alde batetik, egunean gutxienez 2 orduz haur (16 urtetik beherako), gaixo, adineko edo desgaitasunen bat duten pertsonen zaintzan enplegatzen dituzten helduak mendeko pertsonen guztizko kopuruarekin (16 urtez beherako haurrak eta 70 urtez gorako helduak) erlazionatzen duen ratioa, eta; ii) kanpo haurzaintza erregularrik (guraso edo tutore legalez aparte beste norbaitek eskainia) ordaintzen ez duten etxeguneen portzentaia, haurren bat duten etxegune guztiekiko. Adierazle konposatuaren eraikuntzaren zehaztasun gehiagorako, jo iturri nagusira.

Egileok adierazten dutenez, zaintza informalaren intentsitate adierazlearen bitartez lorturiko emaitza batzuk espero izatekoak izan arren, badira beste zenbait ulertzen zailagoak direnak. Lehen horien artean leudeke herrialde mediterraneoak –Espainia, Italia, Grezia- eta Irlanda, zaintza lanetarako esparru informala gehien baliatzen dutenak eta kontrako aldean, Finlandia zein Danimarka zaintza informalaren erabilerarik ahulena egiten duten herrialde gisa. Haatik, autoreek aitortzen dutenez, emaitza harrigarria ematen dute Herbehereak eta Britainia Handiak alde batean, eta Portugal eta Frantziak beste muturrean.

Lehen taldekatze proposamen honez gain, Bettio eta Plantenga-k (2004), esparru informalaren ezaugarriak ulertzeko funtsezkoak diren beste bi elementuren analisia gehitzen dute: zaintza lanen genero eta belaunaldi arteko ardura banaketaren analisia, hain zuzen ere. Lehen adierazleak, “zaintza ordaindu gabeko belaunaldi-arteko banaketa” adierazleak, egunean gutxienik bi ordu zaintza lanei ematen dizkien heldu guztietatik, 50 urtez gorakoek zein ehuneko duten aztertzen dute:

Grafikoa 2: 50 urtez gorako zaintzaile ehunekoa zaintzaile guztiekiko.




Iturria: Bettio eta Plantenga, 2004:89.

Adierazle honen bitartez, adineko zaintzaileen proportzio handiagoak lortzen dira familia kohesio handieneko herrialdeetan (Europa hegoaldeko herrietan), tarteko posizio batean leudeke Europa kontinentaleko herrialdeak, eta zaintzaile gazteen presentzia handiagoa emango dute herrialde nordikoentzat.

Belaunaldi arteko banaketaz gain, zaintza horniduran dagoen genero disparekotasuna ere zaintza informaleko ezaugarri konstantea da. Kasu honetan proposatzen duten adierazleak haurren zaintzari egiten dio erreferentzia, eta egunean gutxienik bi orduz haurren zaintzan diharduten pertsona helduen artetik horietatik zenbat diren emakumezkoak kalkulatu du:

Grafikoa 3: Emakume zaintzaileen ehunekoa zaintzaile guztiekiko



Iturria: Bettio eta Plantenga, 2004:90.

Portugal mutur batean eta Danimarka bestean kokatuagatik ere, autoreek azpimarratzen duten datua da herrialde ia guztietan listoa %70-80 artean kokatzen dela, eta hortaz genero amildegia (*gender gap*) begien bistakoa bilakatzen da esparru informalean ere, oro har lau emakumeko gizonetako batek eskaintzen baitu bere denboraren zati esanguratsu bat zaintza lanetan.

Autoreek ondorioztatzen dutenez, hortaz, esparru informalean Europako herrialdeetan aurkitzen diren ezberdintasunek zerikusi zuzena dute horietako bakoitzaren ezaugarri kultural eta historia politikoarekin (Bettio eta Plantenga, 2004).

4.4.2 Elementu kulturalak: nori dagokio zaintza lanen erantzukizuna?

Egindako lehen sailkapen honen gainean, Pommer et al-ek (2007) elementu kulturalen garrantzia azpimarratzen dute, horiek zaintza ereduekin duten lotura hertsia argudiatuz. Honela, edozein zaintza eredu aztertzeko, autoreok hiru elementu kontuan hartu behar direla diote: lehenik, norengan datzan zaintza beharizanak asetzeko lehentasunezko erantzukizuna; bigarrenik, nola bideratzen den laguntza publikoa (zerbitzutan ala eskudirutan) eta azkenik, nork duen laguntza publikorako eskubidea (unibertsala ala baldintzatua). Autoreok ondorioztatzen dutenez harreman estu-estua dago hiru aldagai horien artean, izan ere, zaintza beharrak asetzea norbanakoarengan geroz eta zentratuagoa egon (eta ez hainbeste familiarengan) orduan eta handiagoa izango da estatuaren esku-hartzea.

Korrelazio honi beste egitate batek laguntzen dio, “eredu hierarkikoaren” proposamenak plazaratu duena, zeinak dioen familia dela zaintza beharren hornitzaile nagusia eta zaintza formalen sistema soilik aplikatzen da lehen horrek huts egiten duen kasuan (Cantor eta Little, 1985).


Familia agertzen da hortaz, autore ezberdinen analisisietatik eratortzen denez, zaintza sistemaren oinarritzko instituzio moduan, eta instituzio honen eraginkortasunaren arabera sartzen dira jokoan bestelako eragileak. Zaintzarako erantzukizun sozialei buruzko lehen lanek, emaitza nagusi gisa, Ipar-Hego Europako herrialdeen bereizketa nagusi bat antzematen dute, familia indartsuko gizarteak izanik hegoaldekoak eta ahulagokoak iparraldekoak (Österle, 2009).

Honela, Millar eta Warman-en irudiko (1996), Herbehereak eta herrialde nordikoetan epe-luzeko zaintza lanak erantzukizun publikokotzat jotzen dira, publikoki finantzatzen direlarik zerbitzu horiek (nahiz eta ordainketa partekatuko sistemak ere egon badauden). Kontrara, Europa hegoaldeko eta ekialdeko herrialdeetan erantzukizun legal nagusia familian datzala ondorioztatzen dute. Hala ere, zenbait herrialdek (Erresuma Batua eta Irlanda, kasu) ipar-hego kategoria horietan sartzeko zailtasun handiagoak ematen dituzte, erantzukizun legala estatuarena izan arren, hornidura publikoaren hedapen murriztagoak familiak oraindik orain zaintza-lanen hornitzaile oso garrantzitsu

bilakatzen baititu. Ondorio antzekoetara iritsiko dira Glaser, Tomassini eta Grundy ere (2004), ipar-hego bereizketa nagusi horrez gain, herrialde bakoitzaren testuinguru propioa ere kontuan hartzekoa dela ikusi baitute, batik bat herrialde bakoitzaren joera demografikoek eta politika publikoen tradizioak definituko duelarik zaintza-erregimenen gizarte-erantzukizun banaketa.

Argigarria da, honen harira, Pommer et al-ek (2007) jasotzen duten Eurobarometroak 2002an eginiko inkestako emaitza, non argi agertzen baita hainbat herrialdetako preferentzia kulturalak zeintzuk diren.

Grafikoa 4: Nork hartu behar luke gurasoen kargu, horiek beren kasa bizitzerik ez dutenean?



Iturria: Eurobarometroa, 2002.

Aldagai horien konbinazio ezberdinetatik abiatuz hiru eredu bereiz litezkeela ondorioztatzen dute (Pommer et al, 2007): familia-eredukoa (edo mediterranea), eredu mistokoa (edo kontinentala) eta eredu publikoduna (edo eskandinaviarra).

Lehen honetan, eredu mediterraneoan (Grezia, Italia, Espainia), familiak du bere senitartekoak zaintzeko betebeharrak legala eta zerbitzu publikoak soilik dira eskuragarri baliabide informalik ez duten gizabanakoentzat. Oro har, gobernuak zaintzaren erantzukizuna familiarengan delegatzen du mota ezberdinetako diru laguntzak bideratuz, beti ere diru laguntza horiek familia unitateen errenta egoerak aztertu ostean estimatzen diren beharrezkoen arabera egokituz. Azkenaldian orokortzen ari den beste fenomeno bat, autoreon iritziz, zaintzaile etorkinen erabilpena da, zeinak zaintzen ardurua sistema publiko garatuago batetara desplazatuz urrun, familien ardurapean lagatzen jarraitzen baitu.

Bigarren, eredu kontinental legoke. Bertan familia da zaintzaren lehen unitatea, baina osasun arazo larriko gizabanakoek zerbitzu publikoak jasotzeko eskubide legala dute. Eskubide hori zenbait kasutan gizarte-segurantzako sistemaren bidez egituratzen da, (Alemania) hornidura publiko zuzenaren bidez beste zenbaitetan (Austria), hala biak ala biak uztartuz (Frantzia, Belgika). Laguntza publikoa hortaz, eskudirutan zein zerbitzu errealean bideratzen da, beti ere mendekotasun mailaren arabera eta zenbait kasutan familiaren errenta mailak baldintzatuta (Frantzia). Zaintzaile etorkinen presentziak ere bere lekua du herrialde horietan, baina eredu mediterraneoko herrialdeen aldean, maila askoz apalagoan.

Azkenik, eredu eskandinaviarrean, zaintza beharrezko diren pertsonen erantzukizuna sektore publikoarengan datza. Hala ere, Suedian zein Herbehereetan, estatuak ez du zaintzak eskaintzeko betebeharrak legalik baldin eta beharrezko denak gertuko pertsonaren baten laguntza badu eskuragarri. Danimarkan, aldiz, familiak ez du adinekoen zaintzarako betebeharririk, eta jasotako diru laguntzak hornidura publikoaren osagarri gisa kontsideratzen dira. Herrialde horietan diru laguntza publikorik apenas den, eta zaintzaile etorkinen presentzia ere oso bazterrekoa da.

4.4.3 Zaintza-erregimenen proposamena: zaintza formal eta informalen analisisian oinarrituriko nazioarteko sailkapenak

Nazioarte mailan esparru informalak zaintza lanetan duen esangura aztertzeaz gain, herrialde bakoitzeko preferentzia kulturalen analisisia burutu ostean, zaintza-erregimenen analisi bateratua burutzen duten lanen emaitzak azalduko dira jarraian. Esan den bezala, zaintza-erregimenen analisisia zaintza-lanetara bideraturiko baliabide formal eta informalen konbinazioa aztertzen duten adierazle sintetikoen bitartez gauzatzen da. Baliabide formalen analisisirik atal honetan xehetu ez dugun arren (hurrengo atalean egingo baita hori sakontasun handiagoz eta Euskadiko errealitateari erreparatuz bereziki), analisi horren emaitzak bestelako aldagai informalen emaitzekin uztarturik jorratu dituztenen lanak aipatuko dira jarraian.

Lehen lanetatik abiatuz, Anttonen eta Sipilä-k (1996) bi erregimen-eredu nagusi bereizten dituzte: zerbitzu publikoen eredu eskandinaviarra batetik eta zaintza familiarren Europa hegoaldeko herrialdeen eredu, bestetik. Europako erdialde eta ekialdeko herrialdeentzat eredu argirik ez dute hautemango, eta aipaturiko bi ereduen arteko punturen batean kokatuko lituzkete herrialdeok.

Esping-Andersen-ek (1999) bere aldetik, ikusi dugun bezala, Europa hegoaldeko herrialdeak bere familiarismo gradu handiagatik nabarmentzen direla aitortu arren, ez du arrazoi nahikorik aurkitzen herrialde horiek gainerako Europa kontinentaleko herrialdeen eredutik bereizteko. Bettio eta Plantenga-k (2004), zaintzaren adierazle formal zein informalak kontuan hartuz nolabaiteko taldekatze sintetiko bat proposatuko dute, honako emaitzak erdietsiz:

*Koadroa 11: Europako zaintza estrategien sailkapena*⁶⁹

	Zaintza informalearen intentsitatea	Pertsona nagusiei bideratutako zaintza formaleko estrategiak		
		Pentsio publikoko programen adierazlea	Egoitza-zerbitzuak	Etkez-etxeko laguntza zerbitzuak
Italia	Altua	Altua	Apala	Apala
Grezia	Altua	Apala	Apala	Apala
Espainia	Altua	Apala	Apala	Apala
Portugal	Apala	Apala	Apala	Apala
Irlanda	Ertaina	Apala	Ertaina	Ertaina
Britainia Handia	Altua	Ertaina	Altua	-
Herbeherak	Altua	Altua	Altua	Ertaina
Austria	Ertaina	Altua	Ertaina	Apala
Alemania	Ertaina	Ertaina	Ertaina	Apala
Belgika	Ertaina	Ertaina	Ertaina	Apala
Frantzia	Apala	Ertaina	Ertaina	Apala
Danimarka	Apala	Ertaina	Altua	Altua
Finlandia	Apala	Ertaina	Ertaina	Ertaina
Suedia	-	Ertaina	Ertaina	Altua

Iturria: Bettio eta Plantenga, 2004

Taulan ikus litekeen moduan, beraz, egileok bost multzo nagusi bereizten dituzte:

i.- Lehen taldea zaintza lanak familiarengan osoki delegatzen dituzten herrialdeek osatuko lukete: Italia, Grezia eta Espainiak, hain zuzen ere. Zaintza informaleko adierazleetan balio altuak emateaz batera, zaintza formaleko sistema azpigaratua agertzen dute, oso zentratua pentsio bidezko moneta-transferentzietan eta ahulak gizarte-zerbitzuen horniduran⁷⁰.

ii.- Bigarren taldea Britainia Handiak eta Herbehereak osatzen dute, non zaintza informalak garrantzitsua izaten jarraitzen baitu. Horien elementu bereizlea haur zein helduentzako zaintza sistemen arteko ezberdintasunean legoke: lehena ia

⁶⁹ Taula honetan pertsona nagusiei bideraturiko zaintza estrategiak soilik jaso baditugu ere, kontuan hartzekoa da autoreek beren analisisan haurren zaintzarako estrategiak ere neurtu dituztela, eta beraz, herrialdeen sailkatze hori bi esparru horietan erdietsitako emaitzen sintesia litzateke.

⁷⁰ Lehen talde honetan Portugal eta Irlanda kasu atipikoak dira. Portugalen kasuan, zaintza formaleko adierazleetan emaitza baxuak eman arren, zaintza informalean ere parekoak lortzen ditu. Autoreek bi azalpen aurkitzen dituzte: emakumeen enplegu-tasa altuek eman dezakete zaintza informalean datu hori, edo bestela, datuek ez dute sendotasun handirik frogatzen. Irlandaren kasuan, aldiz, zaintza formaleko zenbait alorretan maila altuagoa ematen duen neurrian, “tarteko-bidean” koka liteke lehen talde hau eta bigarrenaren artean.

osoki esparru pribatuan hornitzen den bitartean, bigarrenak esku hartze publikoa izan ohi du.

iii.- Hirugarren taldea Austria eta Alemaniak osatua da. Aurreko bietan bezala zaintza lanak modu informalean gauzatzen dira kasurik gehienez, baina horien kostuak nolabaiteko babes publikoa jaso ohi dute. Baimen eta diru laguntzen adierazleetan, zein adineko pertsonentzako zerbitzuen horniduran erdi mailako balioak erdiesten dituzte. Eredua definitze aldera, publikoki finantzatua den zaintza eredu informala dela esan liteke. Subsidiaritate printzipioak, halaber, indar handia du, zaintza lanen berezko hornitzaile naturala familia esparrua dela arautuz.


iv.- Belgika eta Frantzia laugarren talde batean sartuko dira, non zaintza formaleko esparrua orain artekoena baino askoz garatuagoa aurkitzen den. Baimen bidezko denbora murrizketetan asko sakondu ez den arren, haur zein nagusientzako zerbitzuen eskaintza lehenetsi izan da.

v.- Bosgarren taldea herrialde nordikoena litzateke, zaintza formaleko esparru guztietan tasarik altuenak azaltzen baitituzte. Ezaugarri nagusia sistemaren unibertsaltasuna da, eta familia esparruak paper nahiko apala jokatzen du, estatuaren sustapena jaso beharrean, estatuagatik ordezkaturia izan baita.

Sailkapen proposamen berri honen bitartez Bettio eta Plantenga-k (2004) ondorioztatzen dute zaintza estrategien analisisan, gizarte-zerbitzuez gain esparru informaleko aldagaiak barneratuz gero, taldekatzeetan aldaketak hautematen direla. Esaterako, zaintza informalean agertzen duten intentsitateak azpitalde ezberdinak sorrarazten ditu eredu kontinentaleko herrialdeetan, Herbehereak, Alemania eta Frantzia hiru talde ezberdinetan kokatzera eramanez. Berdin antzera gertatzen da Britainia Handiarekin ere, zaintza formaleko esparruetan zerbitzu garatuak izanagatik ere (neurri handi batean merkatu mekanismoen bidez estaliak), zaintza informalak duen pisuak bigarren taldean kokatzea baitakar.

Sailkapen proposamen horren berrikuspena egiten du Pommer et al-en (2007) sailkapen ereduak, kasu honetan analisia mendekotasun egoeran diren pertsonen bideraturiko zaintzetan zentratuaz, honako emaitzak lortzen direlarik:

Irudia 6: Zaintza formal eta informalaren arteko korrelazioak Europa zenbait herrialdetan⁷¹



Iturria: Pommer et al(2007)

Horrela, autoreek aitortzen dutenez beren sailkapenak Bettio eta Plantenga-renarekin (2004) erabilitako irizpideetan eta emaitza nagusietan antzekotasun argiak izanagatik ere, zenbait ezberdintasun ere nabarmendu behar lirateke. Belgikak zein Frantziak zaintza formalean maila altuagoak eskuratzen dituzte orain (herrialde nordikoen mailakoa gutxi-asko), eta Herbehereak aldiz, zaintza informaleko gradu apalagoa⁷². Herbehereak, modu horretan, eredu eskandinaviarretik gertuago leudeke, eta kontrara, esaterako Suedia, oraindik ere iparraldeko ereduaren tipo idealean kokatu arren, azken urtetako joeraren ondorioz etxez-etxeko laguntzan behera egin ahala zerbitzu horiek

⁷¹ Akronimoen azalpena: AT: Austria; BE: Belgika; DE: Alemania; DK: Danimarka; ES: Espainia; FR: Frantzia; GR: Grezia; IT: Italia; NL: Herbeherak; SE: Suedia.

⁷² Herbehereen kasuan lehen sailkapena eta bigarren honen arteko diferentzia esanguratsua dela jabetuta, autoreek emaitzen gaineko interpretazio sakonagoa eranstean dute. Horien iritzian, ezberdindu behar lirateke zaintza informaleko sareen eskuragarritasuna alde batetik, eta horien erabilpen erreala bestetik. Honela, Herbehereetan zaintza informalerako eskuragarritasun handia hauteman litekeen arren, horien benetako erabilpenak tasa oso apalak agertzen ditu. Beraz, edozein neurketa are gehiago zailtzen duen elementu baten aurrean geundeekeela ondoriozta genezake: hornidura konkretu baten eskuragarritasun mailak ez du zertan horren erabilpen errealean eragin behar (zeina bat etorriko litzatekeen orain arte gure analisian agertu den merkatuko alternatibaren ordezkarritasun maila apalaren ideiarekin).

familien baitan ematera igarotzen ari denez eredu kontinentalerantz desplazatzen ariko litzateke.

Hegoaldeko herrialdeen artean, berriz, Greziak familia hedatu mediterraneoaren kasu tipikoa izaten jarraituko luke, baina autoreek Espainia eta Italia Alemaniarekin batera aurkezten dituzte, Grezia eta herrialde nordikoen arteko esparru batean kokatuz. Frantziak eta Belgikak, azkenik, Austriarekin batera, esparru formal zein informalean estaldura zabalak izanik, eredu kontinentalaren kasu paradigmaticoak izaten jarraitzen dute.

4.5 Eredu familiaristaren tentsio guneak: zaintzaren krisia

4.5.1 Espainiako zaintza-erregimenaren ezaugarri nagusiak: eredu familiarista

Orain arte eginiko analisisien ondorio gisa, Espainian pertsona nagusien arretara (eta oro har mendekotasuna agertzen duten pertsonen atentziora) bideraturiko sisteman esparru informal-familiarrak duen pisu ikusita, duda handirik gabe baieztatu liteke Espainiak “ongizate-erregimen familiarista”ko gizarte bati erantzuten diola bete-betean (IMERSO, 2005), nagusiki bi arrazoigatik: politika publikoen aldetik ontzat jotzen delako familiei dagokiela beren kideen ongizatearen kargu hartzea eta, era berean, beste herrialde europarretan baino politika publiko murriztagoak garatu baitira esparru familiarren babeserako (Esping-Andersen, 2002).

Espainia mailako datuen analisisian argi ikusi da esparru informalak jokatzeko duela nagusitasunezko papera pertsona nagusien zaintzari dagokionean, eta soilik esparru honen osagarri gisa edo honek huts egiten duenean agertzen direla esparru formaleko baliabideak, izan pribatu zein publikoak. Halaber, Espainia Europako gainerako herrialdeekin erkatu izan duten analisisetan bi emaitza nagusi agertzen direla ikusi da: batzuen iritziz Espainiak eredu kontinentaleko herrialdeen lortzari jarraituko lioke nahiz eta herrialde horietan ageri den baliabide formaleko hedapen mailarik lortu ez duen (Esping-Andersen, 2000), eta beste batzuen iritziz, Espainiak eredu mediterraneo edo hegoaldeko eredu europar argi bati erantzungo lioke, nabarmen bereiziz hortaz eredu kontinentaleko herrialdeetatik (Bettio eta Plantenga, 2004).

Aurreko atalean ondorioztatu dugun moduan, gure iritzian funtsean dagoen eztabaida eredu mediterraneo propio bat izan badela defendatzen dutenen artean eta aurkakoa uste dutenen artean legoke, eta gu lehen horien artean kokatzen garen neurrian, Espainia argiki eredu mediterraneoko herrialdeztat joko dugu, besteak beste:

- Familiak, gainerako gizarte-egituren aldean jokatzen duen paper zentrala eztabaida ezina delako (Rodríguez Cabrero, 2004)
- Esparru publikoari dagokionez, Espainiako gizarte-gastuak gastu publiko osoarekiko edota BPG-arekiko suposatzen duen ehunekoari dagokionean, oso estaldura murrizteko sistema izaten jarraitzen duelako Europako edozein herrialderekin alderatuz gero (Esping-Andersen, 2000).
- Bestalde, merkatuan diharduten eragileen eskaintzari dagokionez, tradizionalki gizarte-zerbitzuen sektorean ekimen pribatuak, eta bereziki mozkinen besteko sektoreak izan duen protagonismoa baztertu ezineko errealitatea delako (Rodríguez Cabrero, 2004).

Aipaturiko ezaugarri horiek guztiak kontuan izanik, espainiarra ongizate-eredu familiarista batean kokatzen dela ondorioztatzen dute autore gehienek, nagusiki familia egituren eta konkretuago emakumeen lan ikusezinean sustengatua, esku hartze publiko apal batekin eta merkatuaren parte hartze hazkor batekin.

Sarasa eta Mestres-en (2007) iritzian ere espainiar zaintza sistemak Europa hegoaldeko herrialdeen ereduarekin bat egingo luke bete betean, gizarte-babeseko sistema oraindik orain hedatzeke eta zabaltzeke dagoen neurrian. *Tabula rasa* egoera horren aurrean, autoreek hiru alternatiba ezberdinen artean aukeratu beharra planteatzen dute : i) eredu britainiarra, laguntza publikoa soilik beharizan larrian aurkitzen diren gizabanakoetara bideratzea, beti ere zaintza lanak merkatuan erosteak dakartzan kostuei aurre egiten laguntzeko; ii) Austria, Alemania edota Luxemburgoko ereduak, hots, gizarte-segurantzaren bitartez kanalizaturiko errenta transferentzien ereduak, edota; iii) eredu eskandinaviarra, zaintza zerbitzuen hornidura publikoko azpiegitura sendoa batean oinarritua.

Dena den, azken hamarkada honetan Espainian eta baita Euskadi mailan ere gizarterbitzuen esparruan eman diren aurrerapausoak direla medio, hedadura publikoari dagokionez sistemak baliabide publikoen eskuragarritasun handiagoa bizi izan duela ere errealitate ezkuta ezina da. Zentzu horretan, eta aurrerapauso horien analisia denez datozen bi ataletan sakon landuko dena, ez dugu hemen halakorik aurreratuko, baina soilik utzi nahi genuke agerian aipaturiko sailkapen horiek guztiak izaera dinamikoa dutela, eredu bakoitzaren erreferentzia izan diren herriak (Suedia, kasu) bestelako erregimenetara gerturaten doazen bezala, Espainiaren kasuan ere azken urtetako lege aldaketek eragin lezakete, gure iritzian, aipaturiko analisisetan aldaketa esanguratsurik. Eta lege aldaketek bezalaxe, oraindik denboran gertuago dugun 2008. urtean hasitako krisialdiak eta handik eratorritako zor publikoaren krisialdiak ere, zer esanik ez, eragina izaten ari dira ezarritako ereduari, baina baita ezarri asmo den eredu berriaren garapenean ere

4.5.2 Zaintzaren krisia: ereduaren haustura eta krisiaren ebazpen atzerakoia

Oraintsu aipaturiko izaera dinamiko horri loturik, jarraian “zaintzaren krisia” izendapenarekin ezaguna egin den diagnostiko baten berri eman nahi genuke, gure iritzian, nahiko modu integralean ematen baitu azken urte laburretan zaintzen esparruan Espainian ematen ari diren sakoneko aldaketen berri.

Zaintzaren krisiaz dihardutenek Espainiak azaltzen duen eredu familiarista hau krisian dagoela argudiatzen dute, hainbat gizarte-faktoreen garapenak orain arteko zaintza moduen iraupena ezinezko bilakatzen dutela uste baitute. Autore gehienek bat eginik ere ereduaren aldaketa eragiten ari diren faktoreen analisisan, oso garbi geratzen ez dena zera da: sakoneko berregituraketa honek eredu familiarista gainditzen duen ala, guztiz kontrara, eredia “ber-familiartzea” dakarren, finean.

Familia esparruko elkartasun eredu hau berregituraketa prozesu sakon batean sartzen ari dela argudiatzen da, hortaz, nagusiki batera etorri diren hiru aldaketen eskutik: i) zaintzaile potentzialen eskaintzan gertaturiko murrizketa eta epe luzeko zaintza beharrianak dituzten pertsona nagusien kopuru hazkundera, batetik; ii) familia eredu

tradizionalean emaniko aldaketak⁷³, eta; iii) emakumearen gizarte-posizioan gertaturiko aldaketak, nagusiki bere lan munduratzeko progresiboarekin lotua, zeinak biztanleria zaintzailea gutxitzeaz batera, zaintza lanetara bideratu ahal diren orduen murrizketa dakarren (Rodriguez Cabrero, 2004).

Autore gehienek aipatuko dute ereduaren haustura nagusiki eskaria eta eskaintzaren arteko desoreka batetik eratortzen ari dela: alde batetik zaintza-beharrizanean den giza taldearen bolumena handitzen ari da (nagusiki gizartearen zahartzearen eskutik) eta bestetik familiek horiek beren baitan artatzeko agertzen duten gaitasuna apalagoa da, bai ugalkortasun-tasa apalagoek bultzatuta baina baita emakumeen lan merkaturatze progresiboa dela medio (IMSERO, 2005:56). Testuinguru honetan galdera begien bistakoa da: posible al da familiek hartzea orain arte bezala aurrerantzean ere pertsona nagusien zaintzaren ardura nagusia? Eta hala ez bada, nola gertatzen ari da ardura-banaketa berrien prozesu hau? Noren kaltetan eta noren mesedetan ari da gertatzen?

Galdera horien erantzunak ematerakoan zenbait autorek “zaintzaren krisi” gisa identifikatu duten prozesuaz dihardute, zaintzen gaineko arduren banaketa-ereduan ematen ari den desorekatze prozesu konplexuari erreferentzia eginez (Pérez Orozco, 2006). Horien irudiko begien bistakoa da orain arte indarrean izan den “zaintza ereduatan” pitzadura nabarmenak gertatzen ari direla, eraldaketa horien erroak oso sakonak direlarik, orain arte indarrean mantenduriko “lanaren banaketa sexualaren” egitura gertatzen ari baitira.

Arestian aipatu bezala, ikuspegi feministaren irudiko sistema ekonomikoa “lanaren banaketa sexualak” ezarririko eremu publiko eta pribatuaren bereizketan garatu izan da, eremu ikusezin eta ikusgarrien “iceberg” egitura horretan. Sistema hori, halaber, egitura familiar nuklear tradizionalaren bitartez egikaritu izan da. Familia nuklear fordista honetan bikote heterosexuala da oinarria, “gizonezko soldata irabazle” eta “etxeko-andrearen” gainean eraiki izan delarik bai lan merkatua oro har, eta baita hedaduraz ongizate-estatua bera ere (Lewis, 1992; Sainsbury, 1994). Lan merkatuak hortaz, zaintza

⁷³ Rodriguez Cabrero-k (2004), zentzu horretan, bikoteen banaketa-tasen gorakada, guraso bakarreko familien hedapena edota 30 urtera arte gurasoen etxean bizi diren seme-alaben existentzia azpimarratzen dituen moduan, IMSERO-k (2005b) bestelako faktore batzuk ere aipatzen ditu: familia hedatuko ereduaren desagerpena, ezkontza-adinaren atzerapena, familien mugikortasun geografiko handiagoa, pertsona bakarreko etxeguneen hedapena, izatezko bikoteen ugaritzea, familia-etorkinen ugaritzea, etab.

lanez salbuetsitako esku-lan maskulinoa baliatu izan du, eta lan-egoera horren gainean eraiki izan da, halaber, ongizate-estatuaren egitura osoa ere. Emakumeen egoera, eredu honetan, “presentzia ikusezin” gisa deskribatu izan da (Hewitson, 1999), egitura osoa sustengatu izan duen zaintza lanen esparruan kokatzean, lan pribatu ordaindu gabeen eremu ikusezinean jardun baitu.

“Iceberg” itxurako gizarte-eredu hori da arrazoi ezberdinen ondorioz gero eta modu nabarmenagoan arrakalatzan ari dena, baina autore feminista hauen iritzian, ematen ari den gizarte-berregituraketak berarekin dakartzan ondorio kezagarriak ere kontuan hartu behar lirateke, horien irudiko prozesu hau modu atzerakoian ixten ari baita (Pérez Orozco, 2006)

Zaintza lanen ardura banaketa berria nagusiki bi prozesu kontraesankorren bidetik ematen ari da egileon iritzian: batetik etxeguneen “externalizazio” prozesu bat hauteman liteke (Precarias a la deriva, 2005), non zenbait etxegunetan zaintza lanak kanpo zerbitzuen bitartez (publiko zein merkatukoak) hornitzen hasi baitira eta bestetik, “externalizazio” hori gainerako gizarte-egiturek hartu nahi ez dituzten erantzukizunen testuinguruan ematen ari da, hots, ez estatuak ez merkatuak beregain hartzen ez dituzten erantzukizunen testuinguruan.

Honela, estatuak (kasu honetan espainiar estatuak) ez du egileon iritziz gizarte-eskubideen inguruan funtsezko eraldaketarik indarrean jarri, oraindik ere zaindua izateko eskubideak familia-unitateari lotuta agertzen baitira, eta horiez baliatzeko gizarte-baldintzapen hertsia ezartzen baitira. Gizarte-eskubideen esparru honetan, eskubide urraketak esparru ezberdinetan hauteman litezke: nagusiki ez dago oraindik orain egiazki bermaturik ez: i) mendeko egoeran daudenak zainduak izateko duten eskubiderik; ii) ez osoki zaintza lanetan jarduteko eskubiderik (lan merkatutik denboraldi batez osoki erretiratzeko aukerarik); iii) ez eta ez-zaintzeko eskubiderik ere (Pérez Orozco, 2006).

Beste aldetik, merkatuek enpresa pribatuen eskutik beren protagonismoa handitu dute zaintzen esparruan, nahiz eta honek ez duen berarekin ekarri zaintza lanen gaineko ardurarik beregain hartzea. Merkatuaren protagonismo handiago hau zaintza zerbitzuen

horniduran enpresa pribatuen ugaritzean islatu da, esparru horietan aurki litezkeen mozkinak erakarrita. Dena den, espainiar estatuan oraindik orain zerbitzu horiek merkatuan erostea oso modu mugatuan egiten da zenbait herrialde europarrekin alderatuz, ekonomia informalak pisu erlatibo handia izaten jarraitzen baitu (Carrasco eta Rodriguez, 2000). Merkatu-alternatibaren erabilpen murriz hori, ez da soilik ulertu behar irizpide ekonomiko hutsetatik, badira, era berean, Carrasco eta Rodriguez-ek (2000) argudiatzen dutenaren ildotik bestelako alderdi etiko eta moralak ere, balizko eskaria asko uzkuertzen dutenak batik bat amatasunari lotzen zaion zaintzaren kultura altruista bati lotuak.

Ez estatuak ez merkatuak beregain hartu ez dituzten arduren ondorioz, analista feministek nabarmentzen dute zaintzaren birbanaketa hori modu atzerakoian ematen ari dela, berriro ere etxeguneen esparruaren gain erortzen ari baita zaintza-lanen ardura banaketa. Birbanaketa berri honek, ordea, ezaugarri berriak azaltzen ditu. Lehenik, arestian aipatu dugun bezala, egun bizikidetzaren unitateetan eredu eta egoeren aniztasun handiago bat agertzen bada ere, oraindik ere lehentasunezko paper bat jokatzen du “odolezko” familiak zerbitzu horien horniduran. Bigarren, IOÉ Kolektiboak (2001) aztertu duen gisan, birbanaketa honek klase egiturekin erlazio zuzen bat agertzen du, oso ezberdin aplikatu baita errenta altuko edo baxuko etxeguneetan: lehen horiek izan dira beren eros ahalmen handiagoa baliatuz kanpo zerbitzuak erosi ahal izan dituztenak, eta bigarrenei, existitzen diren kasuan zerbitzu publikoen aukera baino ez zaie geratzen.

Edozein izanik ere eredu berria hartzera doan itxura, izan publikoagoa ala pribatuagoa, gauza batek ez dirudi aldatzeko itxura handiegirik duenik: andrazkoen protagonismoak zaintza lanen arduretara. Egiazki, emakumezko kolektiboaren baitan ematen ari da, ematekotan, zaintza lanen aipaturiko birbanaketa hori, zeinak berarekin ekarri duen emakumeen arteko gizarte-disparekotasunak handiagotzea ere. Gizonezkoek, oro har, ez dute zaintza lanen gaineko ardurarik handiagotzen, ez baitute beren soldatapeko lanaren erritmo zein formarik egokitzen zaintza lanei loturiko beharrian aldatzeko. Emakumeak, hortaz, lehengo ereduak “presentzia ikusezin” egoera hartatik, egoera berrian “presentzia ikusezin bikoitz” batera igaro dira (Izquierdo, 1998), lan merkatuan zein zaintza lanetan aldi berean egotea eta ez egoteak sortzen dituen sufrikario eta mugapenei lotuta.

Ondorioz, zaintzaren krisia ebazteko hartzen ari den modu atzerakoiak arazoak emakume batzuetatik besteetara transferitzea dakarrela ikusten da, beti ere emakumeen arteko botere ardatz ezberdinen bitartez, eta gizonezkoak kate horietatik guztiz kanpo kokatzen direlarik. Kate horiek hain izan litezke luze, zabal eta konplexuak, ez-monetazko esparru domestikoak gainditzeaz gain, nazioz gaindikoak ere izan baitaitezke, zenbait autorek izendatu izan duten “afektuaren kate mundialak” (Hochschild, 2001) edota “zaintzaren kate globalak” (Precarias a la deriva, 2004) ideien ildotik. Kate horien bitartez, zaintzen krisiaren nazioarteratzea ematen ari dela diote, arazoa nazioartera esportatzen delarik beti ere mendebaldearen hegemonia ekonomikoa eta klase, etnia eta generozko botere harreman globalen testuinguruan.

4.6 Laburbilduz

Orain arte, kapituluan garaturiko ideia nagusietatik honakoak nabarmenduko genituzke:

1.- Pertsona nagusiei bideraturiko gizarte-baliabideen artean esparru informalak du, alde handiarekin, lehentasunezko tokia. Espainiako datuek zein Euskadi mailakoek ere ez dute inolako zalantzarik uzten zentzu horretan, nahiz eta Euskadi mailan esparru informala erabilera-tasa apalxeagoa antzematen den eskaintza publiko handiago batek eraginda, Espainiaren aldean beti ere.

2.- Esparru informala esatea familia esatea da, eta familia esatea andrazkoak esatea da. Datuek ez dute zalantza izpirik uzten: guztiz feminizaturiko esparru bati buruz ariko ginbateke, bai zaintzaileen profilarri erreparatuz, baina baita zaintzak jasotzen dituzten pertsoneri erreparatuz ere. Funtsean ia beti emakume batek gehiengo batean beste emakume bati emaniko zerbitzuez dihardugu zaintza lanez dihardugunean..

3.- Esparru informala nagusitasun horri bestelako baliabide formalekin egiten den konbinaketa edo uztartze maila eskasa gehitu behar zaio, gutxiengoa baita zaintza informalak jaso eta aldi berean baliabide formaletarako irispidea duena. Baliabide formal horien artean ere aipatzekoa da, proportzionalki garrantzitsuagoak direla zaintzaile partikularretara jotzen dutenak, zerbitzu publikoak jasotzen dituztenak baino, eta azken horien artean, izaera komunitariokoak dira gehien eskatzen direnak, prestazio

ekonomikoak lehenik, eta etxez etxeko laguntza zerbitzuak zein teleasistentzia, horien atzetik.

4.-Arestian aipaturiko bi datu horiek esparru formal eta informalaren arteko orekari buruzko ondorio honetara eramango gintuzkete: bi horien arteko harremana ez da ordezkagarritasun terminoetan ematen, hots batetik (formaletik) gehiago izateak ez dakar berarekin bestetik (informaletik) gutxiago eskatzea. Zentzu honetan, zorrotzak izanik, harremanak hierarkizazio argi bat agertzen duela aipatu behar da: lehen hornitzailea familia da, eta honek huts egiten duenerako (*family failure*) jotzen da bestelako baliabidetara. Eredu horren atzean kausa ezberdinak ageri dira (zerbitzu publikoen existentzia edo ezagutza falta, esparru familiarra lehenesten duen beharrizan morala –zaintzailearentzat- edo preferentzia kulturala –zainduarentzat-, etab.) baina dinamikak nahiko orokortua dirudi: ahal den arte etxean (eta etxekoen aldetik) zaintzen da eta baliabide honekin aski ez denean jotzen da bestelako baliabidetara. Areago oraindik, bestelako baliabideak jasotzen direnean ere, horiek ez dute esparru informala ordezkatzeko, horren osagarri izan ohi dira gehienez.

5.- Esparru informalaren begien bistako nagusitasun hori bete beteko kontraesanetan dago esparru honek jasan ohi duen gizarte-ikustezintasunarekin. Teorialari feministen eskutik agerian geratzen da funtsean esparru formala dela informalarekiko mendekotasuna ageri duena, lehen hori soilik garatu bailiteke bigarrenak egindako erreproduktzio lan horien gainean, edo zehatzago izanik, soilik metatu baitaiteke kapitala merkatuan esparru informalak hainbat eta hainbat gizarte-kostu xurgatzen dituen neurrian, besteren artean, zaintza lanei loturikoak.

6.- Errealitate hau kontuan hartzeak hainbat axioma eta analisi berrikustera eramane behar gintuzke, gure kasuari loturik, ongizate-erregimenen analisia ere berrikusi delarik. Honela, ongizate-erregimenen sailkapena “desmerkantilizazio” irizpidearekin egin beharrean “desfamiliaritze” irizpidea baliatuz egitea hobetsi da, hots, zaintza beharrak familia esparrutik at asetzeko dauden aukera errealean gain jarriz arreta. Irizpide berri honek, informazio gehigarria eman arren, ez du printzipioz arestian ezarritako erregimenen sailkapenik ezeztatzen, eta Espainiak, baita Euskadik ere maila apalagoan bada ere, eredu familiarista bati eutsiko lioke bete-betean, non esparru informalaren intentsitate altua baliabide formalen erabilpen murriztu batekin uztartzen baita. Zaintza erregimenen analitik ere, hots, baliabide formal eta informalaren analisi bateratutik ere antzerako sailkapenak erdiesten dira, Espainiak Italiarekin batera eredu

mediterraneo bati erantzungo lioke, nahiz eta batzuen iritzian gertuago egon Greziako erreferentzia mediterranearen argitik eta besteen iritzian gertuago egon Alemaniako erregimen korporatistatik.

7.- Zaintza erregimen horien sailkapenak edozein izanik ere, eta edozein delarik ere gure kokapena bertan, saio teoriko honen indargunea ez litzateke sailkapenaren doitasunean neurtu behar, sailkatzeko erabilitako irizpideen egokitasunean baizik. Are gehiago, sailkatze lan horiek ikuspegi dinamikoa behar dutela hartu behar litzateke aintzat, etengabeko berrikuspenera behartuak leudeke, hortaz, aldatuz baitoaz herrialde bakoitzean aplikaturiko politika publikoak, baita horiek gertatzen diren testuinguru ekonomiko orokorrak ere. Zentzu horretan, gure kasurako, analisi horietan aldaketa esanguratsuak ekarri dituzten duela gutxiko bi gertaeren aipamena egin da, Espainiako mendekotasun legearen onarpena bata, zeina hurrengo atalean landuko baita, eta 2008ko mundu mailako krisi ekonomikoaren eztanda bestea, zeinaren ondorioen benetako sakontasuna ikusteko denbora beharko den oraindik.

8.- Batzuen iritziz ordea, horien aurretikakoak dira bertoko zaintza ereduaren haustura eragiten ari diren gizarte-fenomenoak, zaintzaren krisiaz dihardutenek aipatzen baitute zaintza eskariaren eta eskaintzaren arteko desoreka ageriko baten aurrean gaudela aspaldi. Desoreka horri lanaren banaketa (sexual) berri (bezain atzerakoi) batekin egiten ari zaio aurre: merkatu zein estatuek beregain hartzen ez dituzten erantzukizunek ereduaren ber-familiartze bat dakarte, eta esparru informalean gizonezkoek azaltzen duten parte hartze eskasak, funtsean emakumeen arteko lan banaketa berri baten aurrean kokatzen gaitu, klase eta etnia ardatzen bitartez gertatzen ari dena eta muga oro gaindituz “zaintzaren kate globalekin” egituratzen ari dena

**5 KAPITULUA: GIZARTE ZERBITZUEN ANALISIAREN TESTUINGURU
OROKORRA: ABIAPUNTUA ETA BILAKAERA OROKORRA**

Jarraian garatzen dugun kapituluan, pertsona nagusiei bideraturiko baliabide formalen artean, Gizarte Zerbitzuen esparrukoak liratekeen zerbitzu publikoen inguruko analisia da jorratzen duguna.

Kapitulu hau, zentzu horretan, datozen bi kapituluaren sarrera gisa aurkezten da, gure helburua azken finean Gipuzkoan (eta Euskadin oro har) egikarituriko gizarte-zerbitzuen sistemaren analisia egitea baita, bertan gizarte-ekonomiak duen presentziari erreparatu. Hori behar bezala egiteko beharrezkoa iruditu zaigu analisia bere testuinguruan kokatzea, abiapuntutzat esparru zabalago bat hartuz, hau da, Espainiako Gizarte Zerbitzuen azterketatik abiatuz.

Lana, hortaz, esparrurik zabalenetik hasi eta konkretuenera jaitsiz antolatu da. Lehenik, aztergai ditugun Gizarte Zerbitzuen definizioa jorratu da, eta esparru honetarako hurbilketa bi testuinguru ezberdinetatik egin da: gainerako gizarte-ongizateko esparruekin alderatuz izan duten bilakaera aztertuz aurrena, eta are modu orokorragoan, gizarte-zerbitzuak Espainiako ongizate-erregimenaren ezaugarrien testuinguru zabalean kokatuz, hurrena.

Bigarren eta hirugarren azpiataletan Gizarte Zerbitzuek XX. mendean zehar izaniko aurrerabide nagusiak aztertu dira, ikerketa hori bi ardatz nagusiren arabera antolatuz: sistemaren publikotasunean eragin duten ildoak aztertuz lehenik, eta sistemaren unibertsaltasunean eragin dutenak behatuz bigarrenik. Estatu mailako lege erreferentziez gain, maila autonomikoko legeei erreparatu zaie zehatzago.

Laugarren atal batean Gizarte Zerbitzu orokorretatik pertsona nagusiei bideratutako zerbitzuetarako jauzia egin dugu, analisia esparru honetan mende berriarekin mugarri izan den lege baten arabera antolatuz: 2006an Espainian onartutako “Mendekotasun Legea” deiturikoaren arabera, alegia.

Aipatzekoa da halaber, jarraian garatzen dugun kapituluan ez dugula erantsi 2008ko krisi ekonomikoaren osteko egoeraren inguruko analisirik. Dударik ez da krisi sakon honek bete betean eragin dien neurrian aurrekontu publikoei, honek zuzen zuzeneko eragina izango duela etorkizuneko gizarte-zerbitzuen sistemaren hedatze eta

egonkortzean. Dena den, bai datuen eskuragarritasun faltagatik (daturik eguneratuenak 2009ko urtealdiari dagozkionak ditugu), baina baita krisiaren benetako irismenak sakoneko analisia eskatzen duelako ere, soilik nabarmendu nahi izan dugu zein zentzutan eragin dezakeen aipaturiko krisiak, bestelako analisi gehigarriak egin gabe.

5.1 Definizioa eta analisi markoa

5.1.1 Zeri buruz ari gara?

Jarraian garatzen dugun kapituluak, pertsona nagusiei bideraturiko baliabide formalen artean, Gizarte Zerbitzuen esparrukoak liratekeen zerbitzu publikoen inguruko analisia da jorratzen duguna.

Kapitulu hau, zentzu horretan, datozen bi kapituluaren sarrera gisa aurkezten da, gure helburua azken finean Gipuzkoan (eta Euskadin oro har) egikarituriko gizarte-zerbitzuen sistemaren analisia egitea baita, bertan gizarte-ekonomiak duen presentziari erreparatuz. Hori behar bezala egiteko beharrezkoa iruditu zaigu analisia bere testuinguruan kokatzea, abiapuntutzat esparru zabalago bat hartuz, hau da, Espainiako Gizarte Zerbitzuen azterketatik abiatuz.

Lana, hortaz, esparrurik zabalenetik hasi eta konkretuenera jaitsiz antolatu da. Lehenik, aztergai ditugun Gizarte Zerbitzuen definizioa jorratu da, eta esparru honetarako hurbilketa bi testuinguru ezberdinetatik egin da: gainerako gizarte-ongizateko esparruekin alderatuz izan duten bilakaera aztertuz aurrena, eta are modu orokorragoan, gizarte-zerbitzuak Espainiako ongizate-erregimenaren ezaugarrien testuinguru zabalean kokatuz, hurrena.

Bigarren eta hirugarren azpiataletan Gizarte Zerbitzuek XX. mendean zehar izaniko aurrerabide nagusiak aztertu dira, ikerketa hori bi ardatz nagusiren arabera antolatuz: sistemaren publikotasunean eragin duten ildoak aztertuz lehenik, eta sistemaren unibertsaltasunean eragin dutenak behatuz bigarrenik. Estatu mailako lege erreferentziez gain, maila autonomikoko legeei erreparatu zaie zehatzago.

Laugarren atal batean Gizarte Zerbitzu orokorretatik pertsona nagusiei bideratutako zerbitzuetarako jauzia egin dugu, analisia esparru honetan mende berriarekin mugarri izan den lege baten arabera antolatuz: 2006an Espainian onartutako “Mendekotasun Legea” deiturikoaren arabera, alegia.

Aipatzekoa da halaber, jarraian garatzen dugun kapituluan ez dugula erantsi 2008ko krisi ekonomikoaren osteko egoeraren inguruko analisisirik. Dударik ez da krisi sakon honek bete betean eragin dien neurrian aurrekontu publikoei, honek zuzen zuzeneko eragina izango duela etorkizuneko gizarte-zerbitzuen sistemaren hedatze eta egonkortzean. Dena den, bai datuen eskuragarritasun faltagatik (daturik eguneratuenak 2009ko urtealdiari dagozkionak ditugu), baina baita krisiaren benetako irismenak sakoneko analisia eskatzen duelako ere, soilik nabarmendu nahi izan dugu zein zentzutan eragin dezakeen aipaturiko krisiak, bestelako analisi gehigarriak egin gabe.

5.1.2 Espainiako Gizarte Zerbitzuen bilakabidea gainerako ongizate-zerbitzuen garapenaren testuinguruan: “gizarte-arrisku berrien” erantzuna

Ez da atal honen xedea Espainiako ongizate-estatuaren garapenaren hurbilketa bat eskaintzea⁷⁴. Are gutxiago, arestian Europa mailarako aztertu diren ongizate-estatuaren eraketa, deseraketa eta berreraketa (Leibfried eta Mau, 2008) prozesuen ezaugarri nagusiak bertan ostera ere errepikatzea. Soilik eskaini nahi dugu lehen argazki bat Espainiako gizarte-zerbitzuen ezarpen berankor eta bukatu gabearen (Rodriguez Cabrero, 2004) errealitatera gerturatzeko, ikusiko baita horixe dela gainerako gizarte-babeserako mekanismo instituzionalen artean beranduen eta modurik azalekoenean garatu dena.

Esan liteke Ongizate Estatuak oro har bi zutabe nagusiren gainean eraiki direla European zehar: gizarte-babeserako politikak batetik eta enpleguaren gaineko politiken oinarrian, bestetik (Gallego et al, 2003), eta bi horien arteko konfigurazio ezberdinen bitartez garatu izan dira arestian jorraturiko kapitalismoaren hiru (edo lau) munduak edo erregimen ezberdinak (Esping-Andersen, 1990). Bigarren aro batean, eta gizarte eta

⁷⁴ Espainiako ongizate-estatuaren bilakabide orokorraren errepaso egiteko ikus: Moreno (2009), Rodriguez Cabrero (2004), Gallego et al (2003), González (2003) edo Adelantado (2000), besteren artean.

enplegu-politiken eraldaketa prozesu sakonen ondorioz, ongizate-estatuaren berregituraketa bera gauzatuko da eta horien ondorioz sortuko dira zenbaitek “gizarte-arrisku berri” (Esping-Andersen, 2002; Moreno, 2009) gisa izendatu izan dituztenak, nagusiki lau esparrutan eragin dutenak:

- i) emakumeek lan-merkatu formalean izaniko sarrera handiagoa, zeinaren eskutik etorriko baitira genero-arteke berdintasunaren aldarriak bai hezkuntzan zein prestakuntzan, eta baita enplegu zein soldata baldintzetan ere;
- ii) familien baitako eraldaketak, zaintza beharrak dituzten pertsonen kopurua handitzea ekarri dutelarik alde batetik, (mendekotasun egoeran diren pertsona nagusiei dagokienez eta baita haur eta gazteen kasuan ere) eta guraso edo pertsona bakarreko etxeguneen biderkatzea hauteman delarik bestalde;
- iii) lan-merkatuan gertaturiko aldaketek gizarte-bazterketa egoera berriak sortu dituzte, batik bat desenplegu kontzentrazio handienak kualifikazio baxuko langileen kolektiboetan ematen direlarik, eta;
- iv) zerbitzu pribatuen hedapena eta zerbitzu eta prestazio publikoen desarautzea (Moreno, 2009: 27).

“Gizarte-arrisku berri” horien kausaz gizarte-ongizatearen esparru edo “aztarnategi” berriak agertu dira, batik bat bi norabidetan: gizarte-bazterketa egoera berriei erantzuna emateko eta genero-arteke berdintasuna gauzatzeko (Gallego et al, 2003). Izan ere, orain gizarte-talde berriak aurkitzen dira zaurgarritasun egoeran, honek gizarte-beharrizanen esparru berriak sortzen dituelarik besteak beste: i) lan ordaindu eta familia-arduren kontziliazio arazoengatik; ii) lan egonkor eta egokia lortzeko beharrezko gaitasun eta prestakuntza ez izateagatik; iii) gizarte-zerbitzuak ez-nahikoak edo desegokiak eskaintzen dituzten hornitzaile pribatuetara jo behar izateagatik (Esping-Andersen, 2002).

Gizarte-beharrizan eta gizarte-politiken bilakabidearen gaineko azaleko berrikuspen honek gizarte-zerbitzuen garapen berankor eta amaitu gabearen azalpenerako giltzarri batzuk eskaintzen dituela iruditzen zaigu. Nagusiki bi aipatuko genituzke: alde batetik,

ongizate-estatuaren gizarte-babeserako politiken lehen aroko garapenak bigarren maila batean utzi zuen gizarte-zerbitzuen esparrua, bestelako esparru batzuk lehenetsiz, nagusiki Gizarte Segurantzaren bidezko errenta transferentzien esparrua, eta zerbitzu publikoen bidez hornituriko Osasun eta Hezkuntza sistemak, hain zuzen ere. Hargatik kontsideratu izan da gizarte-zerbitzuen esparrua gainerako sistemen akats eta gabeziak estali beharko zituen esparru gisa (Rodriguez Cabrero, 2004), Espainiako kasuan Gizarte Segurantzaren osagarri gisa eratu baitzen lehen unetik bertatik (Aguilar, 2009).

Bigarren giltzarri bat gizarte-zerbitzuen bidez estali asmo diren gizarte-beharrizanen izaera aldakor eta dinamikoan aurkitu beharko genuke. “Gizarte-arrisku berrien” analisitik eratortzen denez, gainerako gizarte-ongizateko esparruen “onuradun” edo “erabiltzaile” taldeen profila nahikoa estatikoa den bezala (nahiz eta aldaketa kuantitatiboak eman litezkeen erabiltzaile kopuruaren aldaketengatik), gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen profil hori aldakorra da oso, oso loturik baitago gizarte-talderik zaurgarrienen ezaugarriari, eta beraz prozesu sozio-ekonomiko ezberdinen ondorioz bazterrean geratzen diren giza talde espezifikoaren gizarte-beharrizana aldakorrei.

Izan arrazoi horiengatik ala beste batzuegatik, gizarte-zerbitzuen analista guztiek nabarmentzen dute esparru hau dela Espainian azken tokian eta modurik murriztuz gertatu den gizarte-politikaren adarra.

Rodriguez Cabrero-k (2004), esaterako, espainiar ongizate-estatuaren bilakabidearen mugarri nagusiak nahiko modu argigarrian finkatuko ditu, lau aro nagusi bereiziz:

- i) Hastapen aroa, 1963-75 urteen artean garatua Gizarte Segurantzaren ezarpenaren ondotik, diktadura frankistak zenbait gizarte-politiken ernamunak martxan jarri zituen;
- ii) Gizarte-eskubideen aitortze aroa, 1976-1982 bitartean espainiar Konstituzioaren onarpenaren bitartez, gizarte-babeserako zerbitzu eta prestazioak hedatuz joan ziren, besteak beste langabezia tasa altuek, industria birmoldatzeak eta biztanleriaren zahartze-prozesu hasi berriak sorturiko gizarte-beharrizanak eraginda;

- iii) Zerbitzuen unibertsaltasun aroa, 1983-1993 urte artean gizarte-gastuaren hazkunde indartsuaren bitartez, hezkuntza zein osasun-sistemak eta baita pentsio sistema ere unibertsalak bilakatu ziren, ez horrela gizarte-zerbitzuak;
- iv) Ongizate-estatuaren berrikuspen aroa, bai eskariaren aldetik, gizarte-beharrizan batzuen larriagotzea (biztanleriaren zahartzea eta desenplegu altuaren iraupena) eta berrien agerpenak (etorkinen fenomenoak, esaterako) estaldura zabalagoa eskatuko duelako, eta baita eskaintzaren aldetik ere, defizit publikoaren kontrol neurriek eta sektore pribatuak zenbait zerbitzu publikoren kudeaketan sartzeko eginiko presioen ondorioz, estatua bigarren plano batera desplazatzeko politika ekonomikoak nagusituko direlako.

Ikusten dugunez, gizarte-zerbitzuak ez dira egiazki garatzen hasiko azkeneko berrikuspen aro horretara heldu arte, 80ko eta 90eko hamarkadetara arte, alegia, bien bitartean gainerako gizarte-babeserako sistemek garapen garrantzitsua ezagutu zuten bitartean. Moreno-k (2009) eginiko analisisian ere aurkitzen dira oraintsu aipaturiko joera nagusiak, Espainiako ongizate-estatua osatzen duten lau zutabe instituzionalen mugarri historiko nagusiak aztertzen dituenean:

Koadroa 12: Espainiako ongizate-estatuaren zutabeak

Gizarte-politikak	Eskubideak	Mugarri instituzionalak
Hezkuntza	Oinarrizko eta derrigorrezko (6-16 urte) hezkuntzarako eskubide unibertsala	<i>Ley Orgánica de Educación</i> (1985), <i>Ley de Ordenación General del Sistema Educativo</i> (1990)
Osasuna	Osasun Sistema Nazionalerako sarbide unibertsala	<i>Ley Genral de Sanidad (Sistema Nacional de la Salud)</i> (1986)
Errenta transferentziak	Pentsio eta desenpleguagatik sarrerak Beharizan egoeran eta baliabiderik gabeko pertsoneri diru laguntzak	<i>Ley Genral de la Seguridad Social</i> (1967), <i>Ley de Pensiones No Contributivas</i> (1990), <i>Leyes regionales de rentas Mínimas de Inserción (RMIs)</i> (1989-1995))
Gizarte Zerbitzuak	Prestazioen oinarrizko sarerako sarbide unibertsal eta deszentralizatua Mendekoen zaintza eta autonomia bultzatzeko eskubideak	<i>Plan Concertado de Servicios Sociales de la Corporaciones Locales</i> (1987), <i>Leyes regionales de Servicios Sociales</i> (1980-), <i>Ley de Dependencia</i> (2006)

Iturria: Moreno, 2009 (geuk itzulia)

Taulan ikus daitekeenez, Gizarte Segurantzaren legea da lehenengo mugarri instituzionala espainiar ongizate-estatuaren ezarpenean, eta beraz lehen-lehenik garatu den esparrua. Gizarte Segurantzaren oinarrizko egitura instituzionalaren eraketa izan da

beraz, espainiar ongizate-estatuaren ernamuin historikoa (Rodriguez Cabrero, 2004), eta beronek agertzen duen zentraltasunak, Espainia, ongizate-erregimen kontserbadore edo eredu bismarckiarreko estatu gisa lerratzen du (Aguilar, 2009).

Era berean aipagarria da, Gizarte Segurantzaren garapenarekin zerbitzu publikoen bidea urratu beharrean, monetazko prestazioen bidea jorratu dela gehiago, gizarte-bazterketan eroritako pertsonen errenta galerak erlatiboki berdintzeko laguntzen bidez. Bi izan dira hastapenetatik gizarte-segurantzaren programa nagusiak, erretretagatiko pentsioa eta desenpleguagatiko diru laguntzak, alegia, eta sortu zirenetik gaur arte ez da hasierako ereduaren berrikuspen sakonik egin: eredu profesionalista, zentralizatua eta kontribuzio bidez finantzatua izaten jarraitzen du (Gallego et al, 2003).

Gizarte Segurantzaren atzetik, Hezkuntza eta Osasun esparruak dira 80eko hamarkadaren erdialdean erregulatu ziren bi esparruak, biak ere kontzepzio unibertsal batean oinarrituak eta hiritarren (hezkuntza eta osasunerako) eskubideen aitorpenarekin bermatuak. Lehenaren kasuan, hezkuntzarako eskubidea eskola publikoaren aldeko gastu publikoaren hazkunde apal baina jarraituarekin bermatu zen, eta aldi berean, irakaskuntza-askatasunaren printzipioa bermatu zen eskola pribatuen sarea kontzertatuz; bigarrenaren kasuan, osasun-sistemaren kasuan, alegia, kontribuzio bidez finantzatutako eredu profesionalista batetik, zerga bidez finantzatutako eredu unibertsal baterako jauzia eman zen 80eko erdialdean, eta sistema zentralizatua izatetik Autonomia Erkidegoek kudeatu eta zentralki koordinaturiko sistema izatera igaro zen (Gallego et al, 2003).

Gizarte Zerbitzuena, berriz, hurrengo ataletan ikusiko dugun moduan, hasiera batean Gizarte Segurantzaren baitan kokatuzetik apurka-apurka sistema unibertsal eta publiko baterantz garatzen joan den esparrua da, modu nahiko ahul eta disparekoan lurralde ezberdinen arabera, eta ez da eskubide subjektiboen aitorpenik legalki egikaritutako 2006ko Mendekotasun Legea onartu den arte.

5.1.3 Ongizate-estatuaren eredu espainiarra gainerako eredu europarren testuinguruan: eredu latino-mediterranoaren ezaugarriak

Orain arte aipaturiko gizarte-babesaren bilakabideak espainiar ongizate-estatuari ezaugarri bereizgarri batzuk ematen dizkio, European ezarrita dauden bestelako ereduetatik urrundu edo gerturatzen dutena, eta azken buruan, gizarte-zerbitzuen sistemaren konfigurazioa baldintzatzen dutenak neurri handi batean.

Marko teorikoan garaturiko ongizate-erregimenen oinarritik abiatuz, eta 4. atalean zaintza informaleko aspektuak gehituz doitu dugun eskemari helduaz, lau-ongizate-erregimen eredu nagusien ezaugarri behinenak berreskuratuko ditugu lehenik, orain honetan gure ikerketa esparruari doituak, hots, mendekotasun egoeran diren pertsonen bideraturiko gizarte-zerbitzuen ezaugarriak laburbilduz:

Koadroa 13: Mendekotasunera bideratutako gizarte-babes politika europarren sailkapena

	EREDU LIBERALA (Britainia Handia)	EREDU KONTINENTALA (Alemania, Austria, Frantzia, Luxemburgo)	EREDU NORDIKOA (Suedia, Danimarka, Finlandia)	EREDU LATINOA (España, Italia, Portugal)
Izaera	Izaera ASISTENTZIALEKO eredia	DERRIGORREZKO ASEGURU PUBLIKOKO eredia	Izaera UNIBERTSALISTAKO eredia	Izaera ASISTENTZIALEKO eredia
Onuradunak	Errenta baxuko pertsonen lehentasuna prestazio publikoetan, laguntza baliabide ekonomiko ez nahikoen froga egin ostean bideratzen da. (<i>means-tested</i>)	Mendekotasun egoerak babesteko eskubide subjektiboa, edozein delarik ere gizabanakoaren egoera ekonomikoa.	Gizarte- eta osasun-zerbitzuen hedapen gisa ezarria, irispide unibertsalekoa, edozein delarik ere gizabanakoaren egoera ekonomikoa.	Nagusiki pobreak eta esparru informaleko sarerik ez dutenak.
Laguntza motak	Prestazioak mendekotasun egoeran dauden pertsonentzat (eskudiru zein zerbitzutan) eta lan adinean diren zaintzaileentzat.	Laguntzak mendekotasun mailaren arabera, prestazio zein zerbitzu bidez, familien aukeran utziz. Zaintzaileari bideratutako diru-laguntzak, eszedentziak, etab.	Nagusiki zerbitzu publikoen hornidura	Prestazio ekonomikoak zerbitzuak baino askoz areago. Gizarte-zerbitzu publikoen garapen ahula.
Finantzazioa	Finantzazioa zerga orokorren bidez eta erabiltzaileen ordainketa partekatuko mekanismoen bidez.	Nagusiki Gizarte Segurantzara eginiko ekarpenen eta zergen konbinazio bidez. Erabiltzaileen ordainketa partekatuko maila bat mantentzen da gastu publikoa kontrolatzeko.	Nagusiki publikoa, estatuak eta eskualde-administrazioen artean. Maila apalagoan, erabiltzaileen ordainketa partekatuko formak zerbitzu mota eta erabiltzailearen errenta mailaren arabera.	Eskualde mailakoa eta lurralde-desoreka handikoa.
Kudeaketa	Osasun Sistema Nazionaletik gizarte-segurantza eta tokiko gizarte-zerbitzuetara eskualdatu dira zerbitzuak.	Kudeaketa deszentralizatua (eskualde edo tokiko maila).	Zentrala eta eskualde mailakoa	Deszentralizatua eskualde eta tokiko mailara eta zerbitzuen kudeaketa pribatua.
Joera	Gastu publikoaren uzkuartzea eta erabiltzaileen ordainketa partekatua areagotzea. Mendekotasunaren babeserako aseguru publikoa ezartzeko perspektiba ahula.	Estaldura hedatzen joan ahala, sistema defizitarioa bilakatuz joan da. Prestazioak lehenetsi dira, zerbitzuen aldean. Familiaren pisuaren nagusitasuna mantentzen da zaintza jardunean.	Kudeaketa tokiko mailara deszentralizatzen doa eta zerbitzuen hornidura pribatua areagotzen, eros ahalmen handieneko gizataldeen eskariz.	Zaintza lanak nagusiki familia esparruaren ardurapean jarraitzen du, nahiz eta sistemaren modernizatorako eta arreta unibertsal egiteko saioak agertzen hasi diren Italian edo Espainian.

Iturria: Rodriguez Cabrero, 2004. (geuk moldatua).

Taulan laburbildutakoak izanik eredu nagusiak, kontuan hartu behar da gizarte-babesaren konfigurazio partikular bakoitza ez dela bete-betean arestian aipaturiko ongizate-erregimenetako baten ezaugarrietara guztiz doitzen. Espainiar ongizate-estatuaren bilakabideak, hortaz, aro ezberdinak izan dituela nabarmenduko da jarraian, horietako bakoitzean eredu ezberdinek hartu dutelarik nagusitasuna, eta hortaz, ezinbestean aurkituko ditugu egungo espainiar ongizate-estatuaren ezaugarrien artean erregimen-ideal ezberdin horietako ezaugarriak nahasturik.

Azken 30 urteetan, oro har espainiar gizarte-babeserako sistemen garapen-ildo nagusiak hiru ardatz nagusitan bildu daitezke: i) 80ean abiatutako unibertsaltasun prozesu dispareko eta bukatu gabea batetik, prozesu disparekoa gizarte-babesaren adar guztiei ez dielako berdin eragin, eta bukatu gabea 90eko hamarkadatik aurrera gizarte-gastuaren uzurtze politikek auzitan jarri dutelako sistemaren babes-intentsitatea edo benetako irismen unibertsala; ii) gizarte-babeseko sistemen deszentralizazio prozesua, bestalde, Autonomia Erkidegoen eta udalerrien eskumen maila handiagoetan islatu dena, Gizarte Segurantzaren salbuespenarekin; iii) pribatizazio prozesu selektibo baina hazkorra, azkenik, sistema bakoitzean modu ezberdinean egin delarik, dela osasun eta hezkuntza-zentro pribatuak ituntzearen bidetik edo dela sektore boluntario zein enpresarialaren parte hartzea bultzatuz zerbitzu publikoen hornikuntzan (Rodriguez Cabrero, 2004).

Azken urtetako pribatizazio prozesu hazkor horri erreparatu izan diote beste zenbait egilek ere, tartean Noguera-k (2000), egile honek uste baitu merkatua bera dela azken urtetako ongizate-hornikuntzaren esleipenean tarterik handiena eraman duena: bai etxebizitza hornikuntzan, geroz eta gehiago osasuna eta hezkuntzan, baita haur zein nagusientzako zaintza zerbitzu ezberdinetan (haurtzaindegi edo etxez etxeko laguntzan, esaterako) baina baita orain arte debekatuak zituen zenbait zerbitzuren eskaintzan ere (lan bitartekaritza organoetan, INEM-en kudeaketarako organo autonomikoetan, ospitale, unibertsitate eta eskola publikoetan, etab.). “Bir-merkantilizazio” neurri horiek bide ezberdinetatik planteatzen ari dira: lehenik, arestian aipatu dugun enpresa pribatuen sarreraren eskutik, hornitzaile ordezkoko edo osagarriak bilakaturik; bigarrenik, erabiltzaileen ordainketa-sistema osagarrien bidetik, zerbitzu publikoen dohaintasunean atzera eginez; eta hirugarrenik, kontribuzio-sistemak mantentzeagatik prestazio ekonomiko nagusien oinarrian, sistema horiek publikoak izanagatik ez baitute inola ere lan merkatuko disparekotasunik konpontzen, are gehiago, lan merkatuak sorturiko gizarte-desberdintasunak areagotu baino ez baitituzte egiten⁷⁵.

⁷⁵ Interesgarria iruditu zaigu gizarte politiken inguruan Noguera-k (2000) eskaintzen duen interpretazio hau, gizarte-politikek lan merkatuarekiko duten mendekotasuna nabarmentzen duelarik, egile honen iritzian betidanik eman baita lan merkatuaren zentraltasun nabarmenegia gizarte-politiken diseinuan. Honela, gizarte-politikan ematen ari diren eraldaketak, lan merkatuan geratzen ari direnekin hertsiki loturik ulertu behar dira, lan merkatuan geratzen ari diren desarautze, prekarizazio eta hitzarmen kolektiboaren individualizazio prozesuen ondorioa baita gizarte-politiken onuradunen artean ematen ari den zatiketa ere (Noguera, 2000: 480)

Ongizate-estatuaren sare publikoaren azken hamarkadako ustezko atzeraldiaren inguruan bestelako ikuspegia eskaintzen dute Del Pino eta Ramos-ek (2009), horien iritziz gehiegi esatea baita askok aipatzen duten ongizate-estatuaren uzkurdura (*retrenchement*) bat eman denik. Eskubideen aitorpenari dagokionez atzerapausorik eman denik ukatzen dute, eskubide berrien onarpena gauzatu dela argudiatuz (familia eta generoari dagozkien politiketan, kasu). Benetako eraldaketak “gizarte-arrisku zaharren” kudeaketan hautematen dituzte, nagusiki pentsio eta desenplegu prestazioetan⁷⁶ eta osasun sisteman, baina horiek “gizarte-arrisku berriei” (mendekotasuna, inklusioa, gizarte-zerbitzuak eta gazteria) ere erantzun beharraren testuinguruan ulertu behar lirateke. Hori guztia, gainera, ongizate-estatuaren jarraikortasun finantzarioaren kuestionamendu baten testuinguruan eman da, zeina gastuaren euste-politiketan (*cost containment*) islatu den, bai laguntzen kantitatea mugatuz, bai denbora-iraupena mugatuz eta baita eskuragarritasun-baldintzak gogortuz ere.

Politika horien ondorioz interpreta daiteke beraz, merkatuko mekanismoen barneratze bat eman dela gizarte-politiketan, horrek orain arte finkatzen joandako ongizate-erregimenaren “bir-merkantilizatzean” (*re-commodification*) (Esping-Andersen, 1999) sakontzea ekarri duelarik, nahiz eta inork gutxik defendatuko duen sistemaren guztizko pribatizazio bat eman denik (Noguera, 2000; Rodriguez Cabrero, 2004; Del Pino eta Ramos, 2009). “Bir-merkantilizatzearen” ildoan sakontzeak, espainiar erregimena planteamendu kontserbadore/unibertsalistetatik planteamendu asistentzialistetarantz desplazatu du (Noguera, 2000), eta horren ondorioz, ongizate-erregimen ezberdinen ezaugarrien nahasketa bat de Espainiak gaur-gaurkoz azaltzen duen eredua.

Honela, lehen gerturapen bat egiteko, espainiar ongizate-estatuak errenten bermerako mekanismo bismarckiarrak eta estaldura unibertsaleko planteamendu beveridgearrak uztartuko dituela ondorioztatzen du Moreno-k (2009), paradoxikoki gizarte-eskubideen unibertsaltasuna gizarte-babesera bideraturiko zenbait prestazioren murrizketarekin batera eman delarik.

⁷⁶ Eraldaketak eman dira, esaterako, gizarte-aurreikuspeneko plan pribatuen orokortzearen bidetik, edota desenplegu prestaziotarako eskubidea izateko baldintzen gogortzearen ondorioz (Del Pino eta Ramos, 2009:139).

Noguera-ren (2000) iritzian ere, Espainian, European zehar identifikaturiko hiru erregimenen ezaugarriak agertzen dira nahasian: eredu unibertsal/sozialdemokratako programekin batera (osasuna eta hezkuntza), eredu kontinental/kontserbadoreko elementu sendoak ere agertzen dira (kontribuzio bidez finantzaturiko pentsio eta desenplegu diru laguntzak), eta baita eredu asistentzial/liberaleko zenbait aparteko prestazio ere (prestazio ez-kontributiboak, gizarteratzeko gutxieneko errentak, gizarterbitzuak, lan merkatuko desarautzeak, etab.).

Hiru eredu horien gainezarpenak sekuentzia historiko argi bati erantzuten diola gehitzen du, gainera: lehen aro aurre-demokratikoan neurri kontserbadoreak nagusitu ziren, trantsizioko aroan planteamendu sozialdemokratak indartu ziren eta azken bi hamarkadetan jite liberaleko ildoen hedapen progresibo batean murgilduak gara. Egile beraren ustez eredu liberal/asistentzial baterantz gerturaten gaituzten neurriak nagusitzen ari dira bai osasun arloan, bai lan merkatuan, eta bai pentsio edo desenplegurako programetan ere (Noguera, 2000). Hala ere, espainiar ongizate-estatuaren “asistentzializazio” prozesu bat ematen ari dela modu kategorikoan baieztatu beharrean, egile honek dualizazio prozesu baten kontzepzioa hobesten du: zatiketa gero eta argiagoa ematen ari da lan merkatuan integratutako biztanleen (zeintzuk gizarterababes publiko indartsu bat gozaten duten kontribuzio-erregimenen bitartez) eta lan merkatutik at geratu diren gainerako biztanle prekarizatu eta gizarterababes publikorik gabekoaren artean.

Gallego et al-en (2003) iritzian, egun antzematen den ezaugarri nahasketa hori Espainian emandako garapen berankorrari zor zaio, ongizate-estatu keynesiarraren eraketa prozesua eta berriraketa prozesua une historiko berean gainezarri izanaren ondorio, alegia. Egileon iritzian, eraketa prozesu hori berandu hasi izanak (1975-1985 epealdian, hain zuzen) espainiar ongizate-sistemaren zabaltzea eta hedapena beste testuinguru sozioekonomiko batean egitea ekarri du, eta hargatik antzematen dira eraketa prozesuko zenbait joera (unibertsaltasuna, sare publikoaren hedapena, etab.) berriraketa prozesuko beste zenbait joerekin gainezarriak (defizit publikoaren kontrola, kudeaketa pribatuaren hazkundera, etab.). Modu grafikoago batean ilustratzeko gainezarpen honen kontraesana, esan liteke etxearen eraikuntza amaitu aurretik, eta

oraindik teilaturik, trenkadarik, igeltsurik edo baldosarik ezarri baino lehen, hasiak garela etxearen zimenduak zulatzen eta habeak higatzen (Noguera, 2000: 479).

Hiru eredu europarren nahasketaz gain, beste hiru ezaugarri nabarmentzen ditu Morenok (2009) espainiar sistemaren bereizgarri gisa: lehena, gizarte-politiken egitura deszentralizatua, bai politika publikoen diseinuan eta baita aplikazioan ere; bigarrena, elkartegintzako erakundeen parte hartzea zerbitzuen hornikuntzan, arestian landuriko *welfare mix* ereduko sistema egikaritzen ari delarik; eta hirugarrena familiarren (eta zehazkiago, emakumeen) esku hartze zabala gizarte-politiken esparru guztietan, zeinak baliabide familiarren gain-ustiatzean eta “super-emakumeetan” oinarrituriko eredu batean ezarpena ekarri baitu (Moreno, 2002).

Eredu familiarista hori bera nabarmentzen dute autorerik gehienek ere, 4. ataleko analisisian ondorioztatu dugun legez Espainian betidanik izan baitu familiak zentraltasun argi bat ez estatuak ez merkatuak ase ez dituen ongizate-zerbitzuen estalduran. Are larriagoa dena, arestian aipaturiko “gizarte-arrisku berrien” testuinguruan, estatuak ez du emakumeak orain arte bete dituen eta apurka-apurka betetzeari utzi behar liokeen zerbitzu horien hutsunea betetzeko estaldura publiko nahikorik finkatu eta paradoxikoki beharizan berri horiei erantzuteko “ber-familiartze” joeran kokatzen diren politikak jarri ditu abian (Noguera, 2000; Pérez Orozco, 2006), super-emakumeen errealitatea sortuz: etxeko ardurak albo batera ez uzteaz gain lan-merkatuko betebeharrei erantzun behar dien emakumearen figura, alegia (Moreno, 2002).

Hortaz, orain arte aipaturiko ezaugarrietatik eratortzen denez, Espainia eredu latino-mediterraneoko eredu argia dela defendatuko dute landuriko autore gehienek. Ezaugarri horiek guztiak modu eskematikoan biltzeko, Adelantado eta Jimenez-ek (2003), eskaintzen duen ezaugarri-zerrenda gehituko dugu atal hau ixteko:

- Errenten bermerako sistema dual baten existentzia, zeinetan prestazio nagusienak lan formaleko merkatuarekin erlaziorik handiena duten gizartetaldeen mesedetan bideratzen diren, eta aldi berean, bestelako prestazio diskrezional eta urri batzuk geratzen diren gainerako biztanleentzat (Ferrera, 1995).

- Zatikatzeko instituzional handiko sistema, programa ezberdin andana bideratzen baitira gizatalde espezifiko ugariengana zuzenduak eta estatu zentralak, erregioek zein udalek kudeatu ditzaketenak, maila anitzeko sistemen koordinazio-arazoak agertzen direlarik (Gough, 1997).
- Errenten sarrera-segurtasunerako sare publikorik eza, ez baitago baliabide nahikorik gabeko pertsona ororentzat gizarte-prestazioak bermatzen dituen programa nazionalik (Gough, 1997).
- Gizarte-laguntzak proiektzio eskasa du gizarte-segurantzaren baitan, eta hirugarren adineko pertsonentzat, gutxitasun fisikoak dituztenentzat, langabeentzat edo beharrean diren familientzat bideratutako diru laguntzak europar batz bestekoaren azpitik daude (Gough, 1997). Era berean, finantzazio publikodun baliabideen eskaintza, dela egoitza edo eguneko zentroen bidez, dela etxez etxeko laguntza zerbitzuekin, europar batz bestekoaren oso azpitik kokatzen da, zeinak zaintza lanen erdigunean familia jartzen duen, bereziki emakumeak direlarik mendekotasuna duten pertsonen zaintzaile funtzioak betetzen dituztenak (Antonnen eta Sipilä, 1996).
- Mozkin asmodun enpresen eta ekimen komunitarioaren esku hartze esparru zabala (Sarasa eta Obrador, 1999).
- Herri erakunde, sektore pribatu eta elkarte boluntarioen arteko harremana partikularitasun edo irizpidekerian oinarritzen da, eta zerbitzuak ituntzeko kultura eskasa dago (Sarasa, 1995).
- Erregio arteko ezberdintasun handiak agertzen dira, bai ongizate-zerbitzuen bolumen zein kalitatean, eta baita kudeaketa ereduetan ere, hego-ipar lurralde zatiketa sortuz (Italiaren kasuan bezalaxe) eta izaera politiko anitzeko tentsioak sorraraziz, bai esparru sinboliko-nazionalen eta baita baliabideen lurralde arteko banaketa politiketan ere (Adelantado eta Gomá, 2000).
- Ongizatearen kudeaketa publikoan izaera klientelarreko mekanismo ugariaren iraupena egiaztatzen da, aparatu administratiboek logika aurre-weberiarrik dituztelarik logika arrazional-burokratikoaren ordez (Adelantado eta Gomá, 2000).

Oinarri horien gainean eraikitzen joan da Espainian Gizarte Zerbitzuen sistema, jarraian zehatzago aztertuko den moduan.

5.2 Abiapuntua eta lehen urratsak

Gizarte-zerbitzuena, gizarte-babesaren baitako “marka” berezitu gisa (Casado, 2007) Espainian lehenengo aldiz 60ko hamarkadan planteatu baino lehen ibilbide luzea eginiko errealitatea da⁷⁷, eta orduz geroztik, nozioak garapen propio eta birformulazio sakonak ezagutu ditu, gaur egun ezagutzen dugunera arte iristeko. Gizarte-zerbitzuen hurbilketa egiteak, beraz, ezinbestean eskatzen du honen bilakabide historikoaren errepassoa egitea, ibilian egiten joan den adiera izanik, lotura estua baitu oro har gizarte-babesari loturiko gainerako esparruen bilakabidearekin, eta modu orokorragoan esanda, baita ongizate-erregimenen garapen ezberdinduarekin ere.

Gipuzkoako gizarte-zerbitzuen analisirako, berriz, ezinbestekoa izango da eskumen hau erkidego mailara igorri aurretiko Espainiako gizarte-zerbitzuen bilakabide historikoaren testuingurua aztertzea, asko baitira hartatik datozkion ondareak, nahiz eta aurrerago ikusiko denez berezkoak dituen zenbait ezaugarri ere agertzen dituen.

5.2.1 Ongintzako sistemaren haustura

Gizarte-zerbitzuena da, arestian esan bezala, gizarte-ongizateko gainerako esparruekin alderatuz garapenik berankorrena eta eskasena izan duena espainiar estatuan, osasuna, hezkuntza, etxebizitza, gizarte-segurantza eta errenta-bermeen oso atzetik. Hala ere, 80ko hamarkadan jasaniko krisi ekonomikoak “soldatapeko gizartean” sorturiko deskalabruak gizarte-babesaren bi dispositibo nagusiak kinka larrian jarri zituela ikusi da: desgaitasuna duten pertsonen intertziorako laguntzak eta lan merkatuan barneratutako pertsonentzat (nagusiki gizonezkoak) prestazioak (Adelantado eta Jimenez, 2003). Honek guztiak sistema asistentzialaren gain berealdiko presioa eragin zuen, eta gizarte-zerbitzuak agenda politiko eta akademikoetan barneratzea ekarri zuen.

⁷⁷ Gizarte-zerbitzuen ernamuinak izan litezkeen prozesu eta erakundeen berrikuspen historiko osoagoa izateko, ikus: Casado, 2002, 2007; Roldán eta García, 2006; Sarasa, 2000;

Espainiako gizarte-zerbitzuen bilakabide historikoaren analisia egiten duten autore gehienek, ordea, 80ko hamarkadaren aurretik beste inflexio-puntu argi bat identifikatzen dute une historiko giltzarri gisa: 60ko hamarkada erdialdea. Erregimen frankistaren azken urteetan kontzepzio aldaketa bat ematen hasi zen. Ordura arte, eta XIX. mendeko hastapenetatik hasita, egungo gizarte-zerbitzuei loturiko hainbat zerbitzu pertsonal eta kolektibo Ongintza Publiko gisa ulertuak ziren, zeinak funtzio argia baitzuen: beharrez ziren pertsonen laguntzea (Casado, 2007).

Aro frankistako azken urteetan, berriz, Opus Deiko teknokratek Espainiako erregimen diktatorialaren nolabaiteko irekiera planteatu zutenean, hasi zen “Ongintza Publikoaren” kontzepzioa “Gizarte-Laguntzako” kontzepzioagatik ordezkatzeko. Logika honen barruan ezartzen joan ziren *Fondo Nacional de Asistencia Social* izeneko lehen funtsa 1960an, zeina zerga bidez finantzatua baitzen edota aurrerago *Instituto Nacional de Asistencia Social* delakoaren sorrerak 1974an, zeinak ordura arteko Ongintza Publikoaren eta Falange Espainiarraren *Auxilio Social*-aren zerbitzuak batu eta bereganatuko zituen (Casado, 2007). Modu honetan, “ongintza” deiturapean elkarte pribatuen zerbitzuak izendatzen jarraitzen dira, baina esku hartze publikoko mekanismo horientzat “gizarte-laguntza” hobesten hasi zen.

Kontzepzio aldaketa honek esku hartze publikoaren ikuspegian eragin zuen, nahiz eta oso modu azalekoan izan. Honela, frankismoaren azken epealdian baliabide ekonomikoen eskasia egiaztatzen zuten biztanleek estatuaren nolabaiteko esku hartzea eskatzeko moduak ezartzen joan ziren, estatuak bere nahikundearen arabera erantzun zezakeena, baina inola ere ez juridikoki ezarritako eskubide objektiboen erantzule gisa.

Prozesu luze hori, ongintzazko ekinbidetik eskubide subjektiboen onarpenera doana, aro ezberdinetatik igaro da Espainian. Lehen une batean, ongintzazko eredutik gizarte-laguntzen eredura igarotzea izan zen lehen urratsa, Espainiako trantsizio demokratikoko aroan ezartzen joan zena eta bi ardatz nagusitan egikaritu zena: lehena, sistema publikotzearen ardatzean, erantzukizun eta kudeaketa publikoko sistema baten ezarpen ahaleginean, eta bigarrena, eredu unibertsal baten planteamenduan.

Gizarte Zerbitzuak 80ko hamarkadatik aurrera Autonomia Erkidegoen aldetik kudeatzen hasi ziren arte, ordura arteko garapena estatu mailan eman ziren neurri berrien eskutik

gauzatu zen, gure analisisian bi norabide-ardatz nagusi horietan aztertuko ditugunak: sistemaren unibertsaltasunerantz eta publikotzerantz emandako neurriak.

5.2.2 Gizarte-zerbitzuen sare publikoranzko ibilbide etena

Gizarte-zerbitzuen bilakabidean norabide argietako bat, esan bezala, ongintzazko elkarte erlijiosoetan oinarrituriko karitatezko hornikuntza sistema batetik gizarte-zerbitzuen sare publiko batera igarotzea izan da. Roldán eta García-k (2006) prozesu honen berrikuspen interesgarria burutzen dute, gizarte-zerbitzuen egituratzea aztertzen dutelarik eragile publiko eta pribatuen aro ezberdinetan mantenduriko oreka ezberdinen ikuspegitik. Honela, egileon iritzian honako aro hauek bereiz litezke Gizarte Zerbitzu espainiarren sare publikoaren osatze prozesuan:

- Frankismoaren azken urteak (1960-1978): aro honetan Europako herrialde demokratiko ezberdinak ongizate-estatuaren ezarpenean diharduten bitartean, Espainian erregimen frankistak familia bultzatzen du norbanakoen gizarte-beharrizanak asetzeko instituzio nagusi gisa. Are gehiago, frankismo garaian indar handiz mantendu zen subsidiarotasunaren ideia, familiaren zentraltasuna indartzeaz batera eliza katolikoak bereganatzen zuelarik zerbitzuen hornikuntza ia osoa. Erregimen frankistaren baitan ordea barne mugimenduak sortzen joan ziren bai elizaren baitan (*Cáritas* edo *Juventudes Obreras Católicas* bezalako mugimenduen bidez) bai eta auzo-elkarteen ekimenez, ongintzazko sistema karitatetsu honetatik apurka-apurka “gizarte-laguntza” bezalako adierak sartzen joateko.
- Trantsizio politikoko aroa (1978-1982): trantsizio politikoarekin batera bi gizarte-prozesu eman ziren aldi berean: elizari loturiko ongintzazko/karitatezko erakundeen gutxiespen soziala alde batetik eta frankismo berantiarrean sorturiko gizarte-mugimenduen krisia, bestalde, mugimendu horietako lider ugari administrazio publikoetara igaro baitziren. Prozesu horiek gizarte-zerbitzuen sistema publiko baten ezarpenaren aldeko mugimendua sortu zuten, 1978ko Konstituzioaren izpirituak bultzatuta aldi berean, udal guztietan gizarte-ongizateari loturiko egitura administratibo berriak sortu ziren, eta gizarte-langintzari loturiko profesional berriak

kontratatzan hasi ziren langile publiko gisa. Sistemaren publikotze saio honek gizarte-mugimendu laikoen desaktibazioa ere ekarri zuen neurri batean, baita ongintzazko elkarte erlijiosoen urruntze bat ere herri erakundeekiko (nahiz eta azken horiek beren ongintzazko zerbitzuetan jarraitu).

- Gizarte-zerbitzuen garapen aroa (1982-1990): Gizarte Zerbitzuen eredu publikoaren ezarpena gauzatu zen, 1978ko Konstituzioak ezarritako lurralde-deszentralizazioan sakonduz, Autonomia Erkidego eta udalerriek lehen mailako protagonismoa eskuratu zuten. Hamarkada honetan bi etapa ezberdin ere nabarmendu litezke: i) 1982-1986 urtealdia, non Autonomia Erkidegoetako Gizarte Zerbitzuen legeak onartu baitziren ikuspegi oso estatalista batekin eta elkarte laikoen garapen mugatuarekin; ii) 1987-1990 urtealdia, non gizarte-zerbitzuen udal-sare publiko baten proposamena gauzatu baitzen, batik bat 1988ko Hitzartutako Planaren eraginez (*Plan Concertado de Prestaciones Básicas de Servicios Sociales en las Corporaciones Locales*)⁷⁸.

Roldán eta García-ren (2006) irudiko, hortaz, 60ko hastapenetatik 90eko amaierara arte gizarte-zerbitzuen sare publikoa sortzen joatea izan zen bilakabidearen ardatz nagusietako bat. Adelantado eta Jimenez (2003) bat datoz puntu honetan, horien iritzian epealdi honetan ezker politikoaren kulturaren nozio partekatua baitzen gizarte-zerbitzu unibertsal, publiko eta tokiko mailako egokitasuna. Argudio horiek, ongintzazko irizpide asistentzialen aurkakoak ziren, nahiz eta nolabaiteko elkarbizitza mantendu sektore horiekin, elkarte erlijiosoak mantendu egin baitziren beren zerbitzu hornitzaile funtziotan.

Rodríguez Cabrero-k (2004) nabarmentzen du, ordea, lehen une batean sistemak bere publikotasunerantz jo zuen arren, 90eko hamarkadatik aurrera, eta lege autonomikoen garapenaren eskutik, sistema misto bezala egituratzen joan dela. 60ko hamarkadatik hona, lau etapa nagusi bereizten ditu:

⁷⁸ Euskadin ez zen Hitzartutako Plana sinatu, Kontzertu Ekonomikoaren ondorioz kupo bidezko finantzazio mekanismo propioa izateak ez baitzuen hartara behartzen (Casado, 2007).

- 70eko hamarkadan ordura arteko ongintzazko bazterreko ereduaren haustura eman zen, bereziki hiru mugarriren eskutik: Gizarte Segurantzaren baitako gizarte-zerbitzuen hazkundera, gizarte-eskubideen lehen lege-aitortza eta ordura arte gizarte-laguntzaile kontsideratuak zirenen profesionalizazioa, (gizarte-langilearen profila sortuz).
- 80ko hamarkadan gizarte-zerbitzuen erakundetze aroa eman zen, gizarte-babesaren sistema gehigarri eta berezitu gisa garatzen joan zelarik. Garapen horretan lagundu zuten udal mailako gizarte-zerbitzuetarako sailen sorkuntzak, gizarte-zerbitzuen lege autonomikoen onarpenak edo bestelako Plan Nazionalen ezarpenek ere. Instituzionalizazioan sakontzearekin batera etorri zen gizarte-zerbitzuen helburu eta bitartekoen bir-kontzeptualizazio prozesu bat ere, zeinak ekarri baitzuen ongintzazko ereduaren gainditzea.
- 90eko hamarkadaren hastapenetan kontsolidazio erlatiboko aroa etorri zen, zerbitzu publikoen sare zabal baten hedapena ematen hasi baitzen, baina aldi berean ereduaren berrikuspen kritikoa gauzatu zen, sorturiko gizarte-beharrizan eta gizarte-bazterketa fenomeno berrien aurrean gizarte-zerbitzuek azalduriko erantzuteko ahalmen mugatuak bultzatuta eta gizarte-langileen lan profesionalaren birplanteamenduaren ondorio. Aro honetan bertan hasi ziren gizarte-ekintzako elkarte zein enpresa pribatu ezberdinak gizarte-zerbitzu berrien eskaintzan sartzen (esaterako etxez-etxeko laguntza zerbitzuetan).
- 2000. urtetik hona zabaldu da azken aro bat, non beharrezko aurkitzen diren gizarte-talde berrien presioak eraginda, mahai gainean jarri baita zenbait oinarritzko gizarte-prestazio unibertsal bilakatzeko premia, gizarte-zerbitzuen ohiko izaera asistentziala gaindituz. Unibertsaltasuneranzko apustu honek gizarte-zerbitzuen sistema gainerako sistema unibertsalekin parekatzea bilatu du. Era berean, aurreko hamarkadan agertzen hasitako fenomenoaren orokortzea eman da, hau da, elkarte boluntarioek, enpresa pribatuek eta estatuak partekaturiko zerbitzuen hornikuntzarako sistema mistoaren hedapena, alegia.

Badirudi beraz, 90eko hamarkadak sistema publiko bihurtze bidean inflexio puntu bat ekarri zuela. Adelantado eta Jimenez-ek (2003) joera aldaketa hau urte horietan

emandako tesi neoliberalen garaipenaren testuinguruan interpretatzen dute. Tesi neoliberal horien aplikazioa gizarte-politiken esparruan bi ardatz nagusitan mamitu da: gastu publikoaren euspena alde batetik eta zerbitzuen zuzeneko hornikuntzari muzin egitea bestetik. Bi joera aldaketa horiek abagune berria sortu dute ekimen pribatuarentzat, ongintzazko elkarteek, maila komunitarioko ekimenek eta batik bat enpresa pribatu merkantilek beren posizioa berrindartua ikusi dutelarik (Sarasa, 2000).

5.2.3 Eredu dualetik eredu unibertsaleranzko prozesu bukatu gabea

Gizarte Zerbitzuen sare publikoa osatzearekin paraleloki doan beste prozesua sistemaren unibertsaltasunean sakon nahi izan duen garapen-ardatza da, unibertsaltasun-eskariak gizarte-zerbitzuen sistemari erantzukizun publikokoa izateaz gainera bigarren baldintza bat ere jartzen baitio: hiritar ororengana iristea, zerbitzu asistentzialen izaera baztertzailera gaindituz. Argi dezagun hasieratik sistema baten unibertsaltasunak ez duela zerikusirik sistemaren finantzazioarekin, baizik eta sistemaren irismenarekin. Hargatik, sistema bat unibertsala izateak ez du esan nahi hiritarrentzat doako sistema bat denik (hots, guztiz finantzatua publikoki), baizik eta behar duen pertsona ororentzat eskuragarri izango dela, edozein dela ere pertsona horren egoera ekonomiko eta soziala, eta ondorioz indarrean jar litekeen ordainketa partekatuko sistema (Fantova et al, 2005).


Unibertsaltasunaren bide hau Espainian, ordea, bestelako abiapuntu batetik abiatu da: eredu bismarckiarrean oinarrituriko sistema dual batetik, alegia (Aguilar, 2009). Casadok (2002, 2007) aztertu duenez, Gizarte Zerbitzuak (letra larriz) lehen aldiz herri erakunde batentzako “marka” propio gisa 1963ko Gizarte Segurantzako Oinarrien Legean (*Ley 193/1963 de Bases de la Seguridad Social*) agertu ziren⁷⁹. Lege hau lehen mugarrria da gizarte-babesaren onuradun diren giza taldeen hedapenaren bidean, beharrezanean ziren pertsonen atentziotik harago, zerbitzu horiek Gizarte Segurantzaren kotizatzen duten langile afiliatu orori eskaintzen baitio onuradun izateko aukera, bai eta horien meneko haurrei eta pentsiodunei ere⁸⁰.

⁷⁹ Nahiz eta egiari zor, Cáritas izan zen urte batzuk lehenago, 1957an termino hori lehenengo bider plazaratu zuena, ongintzazko-ekintza eredu batetik, gizarte-ekintzako eredura igarotzeko beharrezkotzat jotako jarduerari deitu zitelarik gizarte-zerbitzuak (tartean izango dira haurtzaindegiak, kontsumo-kooperatibak, kreditu-kooperatibak, etab.) (Casado, 2007: 112).

⁸⁰ Honela, Gizarte Segurantzaren baitan sortzen joan ziren lehen Gizarte Zerbitzuak izan ziren: 1968an *Servicios Sociales de Asistencia a los Menores Subnormales*, 1970ean *Servicios Sociales de Asistencia a*

Gizarte Segurantzaren oinarrituriko gizarte-laguntza horiek eredu bismarckiarreko estaldura batean hartzen dute oinarri, hortaz, langileen lan estatusari lotuta eta horien gizarte-kotizazioen bidez finantzaturik (Aguilar, 2009). Helburua ordura arteko derrigorrezko gizarte-aseguruak⁸¹ sistema bakarrean bateratzea zen, Gizarte Segurantzaren zentralizaturik, eta aldi berean, estaldura honetatik kanpo geratzen ziren norbanakoentzat gizarte-laguntza sistema bat ere mantendu zen. Honela, Gizarte Segurantzaren baitan bi mekanismo ezberdin ezarri ziren, langileen kontribuzioetan oinarritutako gizarte-zerbitzuen bata eta botere publikoen diskrezionaltasunean oinarrituriko gizarte-laguntzena bestea⁸².

Irudia 7: Espainiako gizarte-babeseko sistema duala (1960-1980)



Iturria: Aguilar, 2009:181

Ancianos eta Servicios Sociales de Recuperación y de Rehabilitación de Minusválidos, etab. (Casado, 2007).

⁸¹ 1963an Gizarte Segurantzaren Oinarriak finkatu aurretik, XX. mendean aseguru sektorial ezberdinak onartzen joan ziren, hasieran modu boluntarioan kontratatzeak zirenak eta denbora joan ahala derrigorrezko bilakatuko zirenak, besteak beste: *Retiro Obrero* (1919), *Seguro de Accidentes* (1922), *Seguro de Maternidad* (1929), *Seguro Obligatorio de Enfermedad* (1942), *Seguro de Vejez e Invalidez* (1939), *Seguro Nacional de Desempleo* (1961) (Gutiérrez, 2005).

⁸² Lehen klase honetan, gizarte-zerbitzuen esparruan alegia, barneratu ziren laneko segurtasun eta higiene neurriak, medikuntza prebentiboa, prestakuntza jarduerak, eta desgaitasuna duten pertsonen bergizarteratze neurriak; gizarte-laguntzen esparruan geratu ziren, halaber, desenplegu prestakuntzarik gabeko langabetuentzako diru laguntzak, baliabiderik gabeko pertsonentzako salbuespenezko osasun-zerbitzuak, eta barnerapena behar duten gaixo mentalen laguntza neurriak (Aguilar, 2009).

Irudian ikus litekeen moduan, hezkuntza sistema da epealdi honetan eredu unibertsal bati erantzuten dion gizarte-esparru bakarra, bai osasunak, bai gutxienerako errentek eta bai gizarte-zerbitzuek eredu dualeko sistema bati erantzuten baitiote. Gizarte-zerbitzuen esparruari dagokionean, bi eredu horiek barnebiltzen ditu: bata asistentziala, non kokatzen baita arestian aipaturiko *INAS* institutua, eta bigarrena kontributiboa edo ekarpen bidezkoa, Gizarte Segurantzaren baitako *INSERSO Instituto de Servicios Sociales* delakoaren bidez kudeatu zena, bereziki hirugarren adineko eta desgaitasuna duten pertsonen zuzendutako zerbitzuak gauzatzen zituen (Casado, 2007).

Mekanismo osagarrien planteamendu honek eredu dual bat sortu zuen, Gizarte Segurantzak eta gizarte-laguntzak osatua, bigarren horiek lehenak babesten ez dituen gizabanakoak laguntzea zuelarik helburu. Ongintzazko karitatezko sistema huts batetik, beraz, eredu dual batera pasa zen, non zentraltasuna langileen kontribuzio bidez eraikitako gizarte-babes sistemak zuen, eta era berean gizarte-laguntzako mekanismoak mantendu ziren kontribuziorik egin ahal izan ez zuten (eta beraz gizarte-babesik gabe geratzen ziren) giza taldeen beharrianak asetzeko (Aguilar, 2009).

Gizarte-laguntzarako mekanismo horien bitartez beraz, nahiz eta eskubide subjektiboen onarpenetik urrun egon oraindik, Gizarte Segurantzaren osagarri den erantzukizun publikoko sistema unibertsal baterako lehen mugariak ezartzen ahalegindu ziren, nahiz eta oso modu mugatuan lortu.

Eredu dual horren esentzia bera da gizarte-zerbitzuen ezarpen bidean bigarren mugari nagusitzat jotzen den lege-onarpenean islatu zena, 1978ko Espainiar Konstituzioan, alegia. Konstituzio espainiarrak ez ditu gizarte-zerbitzuak sektore gisa aitortzen, soilik egiten du horien aipamena pertsona nagusien gizarte-babesaz diharduenean, baina adierarik zabalenean (osasun, etxebizitza, aisialdi eta kultura-zerbitzuak ere barnebilduko baititu) (Casado, 2007). Konstituzioak, zentzu horretan, eginiko ekarpenik garrantzitsuena, ordura arte indarrean zen sistema dualaren gainean ezarritako eskumen banaketa da: Estatuaren eskumenerako bilakatu ziren Gizarte Segurantzaren sistema, eta Autonomia Erkidegoen eskumenerara pasa zen Gizarte Laguntzaren esparrua (Aguilar, 2009). Modu honetan, Estatuari egokitzen zaio Gizarte Segurantzaren baitako gizarte-zerbitzuen gaineko eskumen osoa, baina apurka-apurka eskumen horiek edukiz husten

joango dira, Autonomia Erkidegoetara igarotzen joan ahala lehenago INSERSOaren bitartez kudeaturiko zerbitzu gehienak (Casado, 2002). Lehen erreforma politiko honek ordura arteko gizarte-zerbitzuen sistema zatikatu eta deskoordinatu hau nolabait antolatu nahi izan zuen, baina ez zuen lortuko aipaturiko eredu dual hori gainditzetik.

Urte horietan berberetan iritsi ziren Espainiara unibertsaltasunaren aldeko haizeak, Casado-k (2002) aipatzen dituen “gizarte-zerbitzuen eskola bartzelonarraren” bultzadaz, gizarte-langileen zenbait kolektibok, Kataluniako alderdi sozialistak eta Kataluniako Generalitateak osatu zutena. Ideologikoki sozialdemokratagoa zen haize unibertsalista honek harrera hobea izan zuen lehen unetik bertatik Osasun sisteman, nahiz eta gizarte-zerbitzuen alorrera hedatzea gehiago kostako den. 1982tik 1992ra Autonomia Erkidego guztietan onartzen joan ziren “Gizarte Zerbitzuen lege” ezberdinek neurri batean jaso zuten izpiritu unibertsalista hori, aipaturiko eredu kontributibo/asistentzial dual hori gainditu asmoz gutxienik bi norabidetan: i) biztanleria osora hedatuz gizarte-zerbitzuen onuradun izateko aukera, errentarik apaleneko sektoreetatik harago, eta; ii) prestazio tekniko bidea hobetsiz (zerbitzu eta laguntza profesionaletan oinarrituak) prestazio ekonomikoen ordeztuz (Aguilar, 2009). Lehen ezaugarri horrek, ongintzak konpondu ezineko bazterketak eta gizarte-segurantzak sorturiko klasismoa gainditu nahi litzuzke; bigarrenak erantzukizun publikoa eta finantzazioa publikoa modu banaezinean planteatzen ditu, kasu honetan Autonomi Erkidegoen eskumenera igaroz (Casado, 2002).

5.3 Bilakaera normatiboa eta lege autonomikoak

Espainiako ongizate-estatuaren ezarpena berezitasun propio bat agertzen du: ongizate-estatuaren garapena estatuaren deszentralizazio politiko eta administratiboarekin batera etorri izana, hain zuzen ere (Gallego et al, 2003). Bi prozesu ezberdin baina elkarlotuak dira bi horiek, zeinak maila anitzeko gobernu-egitura bat sortu duten. Egitura honetan, estatua, gobernu autonomikoak eta tokiko gobernuen arteko eskumen eta baliabideen banaketa prozesu luzea eman da, oraino bukatu gabea dena.

Testuinguru honetan, esku hartze publikoak geroz eta hedapen handiagoa izan du bai jardute-esparruen hazkundeari dagokionez eta baita horietan egindako esfortzuaren

intentsitateari dagokionean ere. Autonomia Erkidegoak, zentzu honetan, nagusitzen joan dira gainerako gobernu-mailen aldean gizarte-politikaren diseinatzaile eta aplikatzaile funtzioetan, nork bere eskumen kopuruaren arabera garapen maila ezberdinak ezagutu baditu ere.

Jarraian XX. mendearen amaierara arte Espainian gizarte-zerbitzuetan emaniko garapen normatiboa aztertuko da, onartzen joan diren lehen eta bigarren belaunaldiko lege autonomikoen bitartez garatu dena nagusiki.

5.3.1 Lege autonomikoen onarpena: lehen eta bigarren belaunaldiko legeak

5.3.1.1 Lehen belaunaldiko lege autonomikoen onarpena

Ikusi dugunez, Espainiako 1978ko Konstituzioak ez zuen gizarte-zerbitzuen aipamen bereziturik egin, ezta horietarako eskubide subjektiborik aitortu ere modu esplizituan, nahiz eta artikulua ezberdinetan zeharka bada ere aipamena egite zaion tradizionalki gizarte-zerbitzuen onuradun izan diren giza taldeak babesteko behar konstituzionalari (Roldan eta García, 2006). Era berean, 1978ko Konstituzioak Gizarte Laguntzaren eskumena Autonomia Erkidegoak bereganatzeko aukera zabalik utzi zuen.

Konstituzioaren onarpenarekin batera, zenbaitzuk gobernu zentralak berak “Gizarte Zerbitzuen Esparru-Lege” bat proposatzearen premiazkotasuna defendatu zuten, gerora garatu ziren lege autonomikoen erreferente izango zena. Ez zen halakorik gauzatu. Hargatik, 1982an lehen aldiz Euskadiko Autonomia Erkidegoak bere “Gizarte Zerbitzuen Legea”⁸³ onartu zuenetik, autonomia-erkidegoak izan dira Konstituzioak “Gizarte Laguntza” arautzeko emaniko eskuduntzaren bitartez eta beren autonomia-

⁸³ Euskadiko Gizarte Zerbitzuen 6/1982 Legeak, lehenengo lege autonomikoa den neurrian, gainerako lege autonomikoentzako zenbait erreferentzia ezarri zituen, Casado-k (2007) laburbiltzen dituenez: i) sistema publikoaren ezarpena (1go art.); ii) izaera unibertsalista (2. art.), baina eskubide subjektiboen aitortpenik gabe; beharrian- esparruen finkapena (informazio eta aholkularitza orokorra, familia, haurtzaro eta gaztaroa, hirugarren adina) (3. art.); aldizkako prestazio ekonomikoak (4. art.); legearen printzipioak: erantzukizun publikoa, elkartasuna, hiritarren parte hartzea, integrazioa, deszentralizazioa, planifikazio eta prebentzioa (5. art.); eskumen-banaketa, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta Udalen artean (6. art.); mozkin asmorik gabeko elkarteen lankidetzeta (7. art.). etab. Aurrerago ikusiko denez jarraian agertu diren lege autonomikoak “molde” berekoak irtengo dira.

estatutuetan horien garapenak jasoz, nor bere gizarte-zerbitzuen legeak onartzen joan direnak.

Lege autonomiko horiek guztiek Espainiako Alderdi Sozialistaren marka argia eraman zuten, 1984an argitaratu zuen “Gizarte Zerbitzuen Erregimen Publikoa”⁸⁴ txostenean agertzen ziren printzipioak jasotzen baitira lege horietako askotan, besteak beste: i) helburua hiritar ororen bizi-kalitate mailarik handiena erdiestea da, gizarte-desabantailarik larrienak dituzten pertsona eta kolektiboekin esku hartuz; ii) gizarte-zerbitzuen eredu komunitarioa defendatzen da, zeina eskusiboki erantzukizun publikokoa izango den eta hiritarrarengandik gertueneko herri erakundeetatik bideratuko den, udal mailatik, alegia; iii) elkarte altruista eta boluntarioen jarduerak esku hartze publikoaren lagungarri izango dira, ez ordezkagarri; iv) gizarte-zerbitzuen egikaritzeak antolakuntza modu bat eskatzen du, erantzukizun politiko-erabakitzaileko mailez gain, bestelako parte hartze organoak ere eskainiko dituen (Gizarte-Ongizatearen Kontseilu gisa izendatuak) (Roldán eta García, 2006).

Irizpide eta zeinu ideologiko komun horietatik abiatuz, Autonomia Erkidego guztiak beren gizarte-zerbitzuen legeak onartzen joan ziren: lehena, esan bezala, Euskadi, Gizarte Zerbitzuen 6/1982 Legearen bitartez, ondoren Nafarroa, Gizarte Zerbitzuen 14/1983 Foru Legearen bitartez, hurrenak Madril (1984), Katalunia (1985) eta Murtzia (1985), eta horrela banan bana Kantabriak 1992an bere Gizarte-Ekintzako 5/1992 Legea onartu bitarte. Lehen belaunaldiko lege horiek guztiek honako ezaugarri edo printzipio nagusiak partekatuko dituzte (Roldan eta García, 2006):

- Erantzukizun publikoaren printzipioa: herri erakundeena da gizarte-zerbitzuak eskaintzearen azken ardura;
- Berdintasun eta Unibertsaltasun printzipioak: unibertsaltasunak hiritar guztiak bilakatzen ditu gizarte-zerbitzuen onuradun edo erabiltzaile, horrekin gizarte-zerbitzuen izaera asistentziala gainditu nahian. Nolanahi ere, unibertsaltasunak bere kasa berdintasunik bermatzen ez duenez,

⁸⁴ PSOE alderdiak 1979an ospaturiko Gizarte Zerbitzuen inguruko Jardunaldi Federaletik bere proposamena fintzen ziharduen, eta bere ideiek eragin handia izan zuten lege autonomiko gehienen konfigurazioan (Casado, 2007; Roldan eta García, 2006). 1984an argitaratu zuen txosten honetan jasoa geratzen dena.

diskriminazio positiboko neurriak ere barneratuko dira gehien behar duten giza taldeen alde;

- Deszentralizazio printzipioa: beharizanen aurreko erantzuna, horiek agertzen diren gertueneko erakundeetatik kudeatuko da, hots, erakunde autonomiko eta tokiko erakundeen aldetik;
- Normalizazio (edo integrazio) printzipioa: pertsonen bizi-baldintzak normalizatzea bilatuko da, beraien gaitasun pertsonalak hauspotuz eta gizarte-integraziorako ingurugiro egokia eskainiz;
- Parte hartze printzipioa: deszentralizazioaren ideiarekin loturik, pertsona kaltetuen zein horiek kokatuta dauden komunitatearen parte hartzea bultzatuko da, gizarte-zerbitzuena egitura hertsiki instituzional eta formala izatea ekidinez;
- Prebentzio, planifikazio eta koordinazio printzipioak: prebentzioa, bazterketa eragiten duten kausetara bideratzeko lana; planifikazioa, arazo eta beharizanak detektatzeko, horien joera aurreikusteko, baliabideak lehenesteko, etab; koordinazioa, gizarte-baliabideen dispersioa ekiditeko eta efizientzian irabazteko.

Lege autonomiko horiekin batera estatu mailatik eratorritako bi lege nagusi ezarri ziren epealdi honetan: i) 1985ko *Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local* deiturikoa, zienak udaletxeek hartu beharreko eskumenak zehaztu baitzituen. Lege honen baitan, besteak beste, 20.000 biztanletik gorako udalerrietan zenbait gizarte-zerbitzu eskaintzeko “betebeharra” finkatu zen eta aldi berean, Foru Aldundiei koordinazio, laguntza eta udal-mailaz gaineko ekintzen eskumena esleitu zitzairen, eta; ii) *Plan Concertado para el Desarrollo de Prestaciones Básicas de Servicios Sociales de Corporaciones Locales* deritzona, zeinak udalerrri guztietan aplikatu beharreko oinarritzko prestazio eta ekipamenduak zehaztu baitzituen (tartean, etxez etxeko laguntza, harrera etxeak, etab. (Casado, 2007).

Lege estatal horiek guztiek lurralde arteko garapen ezberdinduak nola hala koordinatzeko saioak izan ziren, nahiz eta Gizarte Zerbitzuen garapenak lan hori benetan nekeza izan dela egiaztatu, eta ondorioz Autonomia Erkidego guztiek beren

ordura arteko legeen bertsio berriak argitaratuko dituzte, Roldan eta García-k (2006) deituriko “bigarren belaunaldiko” legeei bidea irekiz.

5.3.1.2 Bigarren belaunaldiko lege autonomikoen kontzepzio aldaketa

Esan bezala, Roldan eta García-k (2006) “lehen belaunaldiko” lege autonomiko horien atzetik “bigarren belaunaldi” bat ere antzematen dute, Galiziak lehen postuan 1993an Gizarte Zerbitzuen lege berria atera zuenetik, beste 7 autonomia-erkidegotan onartzen joan baitziren legearen bertsio berriak (Galiziakoaren atzetik helduko ziren Euskadikoa eta Kataluniakoa 1996an). Bigarren txandako lege horiek bestelako testuinguru sozio-ekonomiko bati erantzuten diote eta bestelako inpronta batekin idatziko dira. Guillen eta Vilá-k (2007) argitzen dutenez, ia lege guztien “zioen azalpenean” errepikatzen dira argudio antzekoak: i) gizartean gertaturiko aldaketa sozio-demografikoak eta horiek sorturiko beharizan berriak: ii) zerbitzu eta prestazio gehigarrietarako eskumen berrien eskualdatzea: iii) ekimen pribatuko erakundeen parte hartze eta paperaren birplanteamendua, eta; iv) bestelako testu normatibo berrien onarpena.

Arestian Adelantado eta Jimenez-ek (2003) aipaturiko tesi neoliberalen garaipen testuinguru batean kokaturik, administrazio publikoa modernizatzearen aldeko korrante berriak barneratzen hasten dira, *New Public Management* deritzon korrontearen eskutik (Roldan eta García, 2006). Ideario politiko modernizatzaile honek estatuaren defizit fiskala murriztu nahiko du zerbitzuen privatizazioaren eta desarautzearen bidetik, zerbitzuak bezeroen eskarrietara orientatuz eta gobernuz kanpoko erakundeak integratuz zerbitzuen hornikuntzan.

Azken ardatz hori bera izan da, ekimen pribatuaren parte hartzea alegia, bigarren belaunaldiko legeen berrikuntza nagusietako bat, lehen belaunaldiko legeen ezaugarri komun nagusia sare publikoaren ezarpena zela ikusi baita, mozkin asmorik gabeko erakundeei funtzio lagungarri bat onartuz eta mozkin asmodun enpresen gaineko erreferentziarik ere apenas egin gabe. Bigarren belaunaldikoetan, beraz, protagonismo handiagoa eskuratzen dute mozkinen besteko elkarteek, baina agian berrikuntzarik garrantzitsuena mozkin asmodun enpresen aintzatespena izango da, zenbait lege

autonomikotan espresuki aitortzen baita enpresa horiek ere lehiatu ahal izango dutela zerbitzuen hornikuntzagaratik (Galiziaren kasua)⁸⁵, nahiz eta beste zenbaitetan lehentasun argia ematen zaien gizarte-ekimeneko erakundeei (Katalunia, kasu)⁸⁶.

Baina ez hori bakarrik, gizarte-zerbitzuen liberalizazio eta pribatizazio neurrietan bestelako neurri batzuk ere eragin zuten: i) ekimen pribatuko erakundeen integrazioaren eskutik, zerbitzuen hornikuntza ituntze mekanismoen bitartez gauzatzen hasiko da gero eta gehiago, eta; ii) erabiltzaileei zuzenean egingo zaizkio baliabideen transferentziak eta beraz ordainketa partekatuko moduak onartuko dira zerbitzuen finantzaziorako mekanismo gisa, behin prezio publiko batzuk ezarri ostean erabiltzaileak zerbitzu horien kostuaren zati bat beregain hartu beharko duela onetsiko baita (Roldan eta García, 2006).

Dena den, Roldan eta García-ren (2006) irudiko, lege berri horietan aipamen horiek egin izanaren garrantzia erlatibizatu behar litzateke, ez baitute hainbestean suposatuko lehen belaunaldiko legeekiko errotikako haustura bat. Lege horien bitartez, gizarte-zerbitzuen esparruan betidanik eman izan diren praktika batzuk (hornikuntza pribatua, alegia) arautzeko saioa egin nahi da nagusiki, beti ere aurretiaz ezarritako funtsezko oinarriei eutsiz: erantzukizun publikoa eta ekimen pribatuaren arautze estua. Honela, deigarria da zentzu horretan, lege gehienak nola zuhurtziaz arautzen duten mozkin asmodun enpresen kontratazioa, kontratazio publikoari dagokion erregulazio zorrotza ezartzeaz gain, enpresa merkantilei bestelako inspezio neurriak ere ezartzen baitzaizkie mozkin bezalako edo gizarte-ekonomiako erakundeei ez bezala, arauen betekizunak behar bezala konplitzen direla ziurtatzeko.

Guillén eta Vilá-k (2007) ematen dute legeen jarraikortasun ideia horren argazkirik osatuena, bigarren belaunaldiko lege horiek berrikuntza batzuk ekarriko dituzten arren, orokorrean lehen belaunaldiko legeek ezarritako oinarrietan sakontzen jarraitu baita. Bi egileon balorazioa, lege autonomiko berrietako esparru ezberdinak aztertuz, honakoa litzateke:

⁸⁵ “...se reconoce no sólo la iniciativa privada carente de fin de lucro, sino también la iniciativa privada lucrativa...” Ley 4/1993 de 14 de abril

⁸⁶ Decreto 284/1996 de 23 de julio

- Gizarte-zerbitzuekiko eskubideen inguruan aurrerapauso nabarmenik ez da jasotzen;
- Printzipioei dagokienean, aurreko legeetakoak mantentzen dira eta berri batzuk sartu: atentzio pertsonalizatuarena, ekimen pribatuaren parte hartze handiagoarena eta kalitate eta efizientzia eskakizun handiagoena, besteak beste.
- Prestazioen alorrean, lehen aldiz ezberdintzen dira prestazio ekonomikoak (esku-dirutan), teknikoak (zerbitzu profesionalak) eta materialak (espezietan jasotakoak). Gutxieneko prestazioen kontzeptua jasotzen hasiko da.
- Erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak gehiago zehazten dira, horiek erabaki hartzeetan parte hartzera bultzatuz.
- Finantzazio arloak oraindik orain argitu gabeko arazo nagusienetakoa izaten jarraitzen du, ez baita zehaztua geratzen nola banatu zerbitzuaren kostuaren ordainketa administrazio publikoaren maila ezberdinen artean. Era berean, etengabeko aipamenak egiten dira ekimen pribatuaren lankidetzari buruz eta baita erabiltzaileek beren errenta mailaren arabera izan beharreko parte hartze ekonomikoaren inguruan ere.
- Gizarte-zerbitzuen sistemaren ideia finkatzen hasten da, bai eta sistema hau erantzukizun publikokoa izatearen ideia ere, nahiz eta disparekotasunak agertuko diren sistema hori osatzen duten eragileen artean: batzuetan titulartasun publikoko zerbitzuek soilik osatuko dute sistema, beste batzuetan publiko eta itunduek, eta azken batzuetan diruz lagunduriko erakunde pribatuak ere izango dira sistemaren parte.
- Lurralde eta funtzio egituraketari dagokionez aurreko legeetan zehazturiko bi mailatako egituratzearekin jarraitu da: oinarrizko zerbitzuak batetik eta espezializatuak bestetik, nahiz eta banaketa hori arrazoi teknikoek ikuspegitik kuestionatua izaten hasiko den.
- Eskumenen banaketan joera zentralizatuarekin jarraitzen da (Autonomia Erkidegoen zentraltasunarekin, esan nahi da), Euskadin izan ezik, non lurralde deszentralizazioaren planteamendutan sakontzen jarraituko baita.
- Gizarte parte hartzea bideratzen duten kontseiluen bidetik jarraitzen da, horien aholkularitza-izaera mantenduz.

- Mendekotasunaren afera agertuko da, nahiz eta ez den zentzu horretan prestazio horiekiko eskubide efektiboen inguruan inolako aurrerapausorik emango.

5.3.2 XX. mendeko lege autonomikoen berrikuspen kritikoa

Orain arteko analisisian kontuan hartu dugun epealdia estatu mailako lehen legeetatik hasi eta lehen eta bigarren belaunaldiko lege autonomikoen onarpenera artekoa izan da, XIX. mendearen atariko aroa aztertuz, hainbestean. Ikusi dugun moduan, planteamendu zentralista eta publiko batzuetatik abiatu ostean, 1978ko Konstituzioak ezarritako eskumen banaketaren bidetik, gizarte-zerbitzuen garapen autonomiko ezberdinen existentzia egiaztatu da.

Honela, balorazio orokor batetik abiatuz, gizarte-zerbitzuek azterturiko epealdian eraldaketa garrantzitsua bizi izan dutela esan liteke, lehenago indarrean zen eredu asistentzialaren krisiaren ondorio, udal mailako gizarte-zerbitzuen hedapen eta modernizazioa etorri baita hainbat gizarte-beharrizan berrien eskutik (biztanleriaren zahartzea, gizarte-bazterketa forma berriak edota lan-egituran emandako aldaketen ondorio) (Rodríguez Cabrero, 2004). Zentzu horretan, aurrerapauso garrantzitsuak eman dira juridikoki gizarte-zerbitzuen sare publikoa hedatze bidean, sektorean diharduen giza baliabideen kantitatea ere erruz handitu da (nahiz eta modu oso prekarizatuan hedatu diren lanpostuok), eta gizarte-zerbitzuak geroz eta irismen handiagoa dute gizarte-klase ezberdinetako biztanleriaren eskueran izateko (nahiz eta gehien gehienez herritarrik txiroenak izan erabiltzaile nagusiak)⁸⁷.

⁸⁷ Egile ezberdinek egindako ikerketatik ondorio paretsuak atera litezke: Casado-k (2002), 1993ko inkesta batean oinarrituz, ondorioztatzen du frogatua geratzen dela hiritar guztiek dutela gizarte-zerbitzuetarako irismena, nahiz eta gizarte-klasearen faktoreak erabilpen hori modu disparekoan definitzen duen: gizarte-mailan behera joan ahala apalagoa baita gizarte-zerbitzu enpresarialen eskaera eta handiagoa zerbitzu publikoena. Halaber, gizarte-klaserik baxuenen artean agertzen dira mozkinen besteko erakundeek emaniko zerbitzuen erabiltzailerik gehien. Eraitza osagarriak lortzen ditu Rodríguez Cabrero-k (2004) ere, 1998an eginiko inkesta batetik abiatuz zera ondorioztatzen du: familia pobreen ia erdiek jo zutela noizbait gizarte-zerbitzuetara, eta horien artean erdiek udaletxeko gizarte-zerbitzuetara eta beste erdiek mozkinen besteko erakundeetara (*Cáritas* eta Gurutze Gorria). Erabiltzaileen lurralde alderaketa gehituz, beste patroik argi bat agertzen da: herrialderik aberatsenetan gizarte-zerbitzu publikoetara jotzen dute txiro gehienek, eta kontrara, herrialderik txiroenetan dira *Cáritas* eta Gurutze Gorria hornitzaile nagusiak.

Casado-k (2007) bere aldetik aipatzen duenez, lege autonomikoan erreforma planteamenduak zenbait hobekuntza ekarri du gizarte-zerbitzuen esparrua finkatze eta definitze aldera, besteak beste:

- Gizarte Zerbitzuak “jarduera tekniko konkretuen” esparru definitu gisa konfiguratzeko hasi dira, ez eredu zaharreko “onuradunen profilarren” edo “arrisku gertagarrien tipoen” arabera. Definituak geratzen dira hortaz, bestelako esparru teknikoez aparte (osasuna, hezkuntza eta monetazko prestazioez aparte) Gizarte Zerbitzuenak propioki diren jarduera teknikoak.
- Gizarte Zerbitzuak “sistema” berezitu bezala kontsideratzen hasi dira, “sistema nagusiki publiko” bezala hasi ere, gizarte-ekimeneko eragileen jardueraren gaineko erregulazio zorrotzak ezarriz eta merkatuko eragileei oso bazterreko tokia lagaz.
- Gizarte Zerbitzuen hedatze teknikoaren lurralde-antolakuntzan adostasun nahiko orokorra erdietsi da. Honela, sistemak bi maila tekniko eta territorial garbi ditu: lehena, udal mailakoa eta hiritar ororentzat eskuragarri dena, “oinarrizko gizarte-zerbitzu” gisa definitua eta bigarrena, “gizarte-zerbitzu espezializatuen”, zeina nagusiki gizarte-kolektibo ezberdinen arabera antolatzen den.

Lorpen horiek, ordea, bestelako argi-ilunak ere azaltzen dituzte, batzuk izaera teknikoagoa dutenak, eta bestetarik ordea, erdietsi asmo den sistemaren printzipioei eragiten dietenak. Bigarren horietan zentratuko gara atal honetan, gure iritzian ia autore gehienek aldetik gehien errepikatzen diren hiru argudio nagusiak elkarlotuz: i) sistemak ez du oraindik xede duen unibertsaltasunik lortu, hiritar oroenganako irismenik erdietsi ez duen neurrian; ii) sistemak ez du bilatu asmo zuen berdintasunik ere lortu, deszentralizazioaren bidetik errealitate dispareko eta injustuak ager baitaitezke herrialde (eta udal) ezberdinen artean, eta; iii) aurreko bi hutsune horien “jatorrizko bekatua”, neurri handi batean, herri-erakundeek aldetik (legez erantzukizun publikokotzat definitu duten sistema batean) harturiko erantzukizun apalean datza, horien betebeharrak publikoak ez baitira behar bezala finkatu oraino, eta are garrantzitsuagoa dena, ez baita hiritarren eskubide subjektiborik aitortu egin behar horien betekizuna galdatzeko.

Hiru argumentu nagusi horiek agertzen dira bai sistema bere osotasunean aztertzen duten egileen aldetik, eta baita, lege autonomikoen analisi alderatua egin dutenen aldetik ere. Lege autonomikoen arteko antzekotasunak eta puntu komunak aztertu ostean, horien hutsuneek ere patroia berberari erantzutea espero izatekoa da. Casado-ren iritzian (2002) hiru dira lege autonomiko horien hutsunerik garrantzitsuenak: i) hiritarren eskubide (subjektibo)en aitortzarik egin ez izana, hiritarrek dagozkien gizarte-zerbitzuak jasotzea galdatu eta exijitu dezaten; ii) botere publikoen betebeharrak argiro zehaztu ez izana, horien betekizuna ebaluatua eta eskatua izan dadin, eta; iii) berdintasun printzipioa benetan egikaritzeko mekanismorik ezarri ez izana, gizarte-zerbitzuen “sarrera nagusia” udal mailan ezartzeak, udal bakoitzaren ahalmenaren (eta nahikundearen) arabera utzi baitu oinarrizko prestazioak eskaintzea.

Hiru gabezia horien baturak, azken buruan, planteamendu unibertsalistaren irismena mugatzea ekarri du, hiritarrek eskubiderik ez eta herri erakundeek betebeharrak galdagarriak ez duten neurrian, zenbait gizarte-prestazioren eskaintza publiko ez-nahikoak ostera ere erabiltzaileekiko diskriminazio neurriak ezartzea ekarri baitu. Honela, botere publikoetatik baliabiderik gutxien duten gizabanakoekiko lehentasuna ezartzeak, “ongintza publikoko” eskemetan irautea esan nahi du, gizarte-zerbitzuen bazterreko irudian sakonduz⁸⁸. Udalerri ezberdinen artean gerta litezkeen disparekotasunek ere, bilaturiko unibertsalismoaren eta berdintasunaren aurkako zentzuan eragiten dute nabarmen. Baina nagusiki, unibertsalismori kalterik handiena egingo dion elementua eskaintza publikoaren ez-nahikotasuna da (Casado, 2007).


Adelantado eta Jimenez-ek (2003) ere puntu horietan berberetan jartzen dute arreta, orain arte konfiguraturiko sisteman hiru hutsunea nagusi hautematen baitituzte: i) gizarte-babesera bideraturiko gastu publiko eskasa BPG-ari dagokionean, eta hortik eratorritako gizarte-zerbitzuen estaldura publiko mugatua; ii) gizarte-zerbitzuekiko eskubideen eta finantzazio iturrien definizio eza, eta; iii) familiaren garrantzia gizarte-zerbitzuen esparruan oraindik orain oso garrantzitsua izatea, giza talderik zaugarrienen (pertsona gaixoak, nagusiak eta haurrak) zaintza beharren arduradun nagusia esparru familiarra baita gaur egun ere.

⁸⁸ Interesgarria zentzu horretan Aguilar-ek (2010) eginiko ekarpena, gaur gaurkoz gizarte-zerbitzuen sistemak dituen ongintzazko ezaugarrien analisia egiten baitu.

Roldán eta García-ren (2006) berrikuspen kritikotik ere antzerako puntuak nabarmendu litezke. Egileon iritzian, lege autonomiko horien guztien hutsunerik larriena gizarte-eskubideen aitortza faltatik eratortzen da, horren ondorio baitira jarraian zerrendatzen diren gainerako hutsuneak oro: i) zerbitzu batzuen onuradun izatea beharizan-egoera egiaztagarri bati baldintzatua egotea, eta beraz, hiritar ororen irismena baldintzatu egotea; ii) eskaini beharreko zerbitzu eta prestazioen definizio falta eta eskaintza publiko ez-nahikoa egotea; iii) zurruntasun normatiboa, aldakorrak diren beharizanei behar bezala egokitzea eragozten diena herri-erakundeei; iv) eskubideen egikaritze erreal bermatu ezina, eta; v) beharizan mota ezberdin guztien estaldura osorik administrazio publikoaren eskaintza publikotik bideratzeko ezintasuna, zeinak ezinbestean derrigortzen dituen merkatuko zein gizarte-ekimeneko eragileak ere (eta neurri handiagoan esparru familiarra) sistemaren parte bilakatzera.

Unibertsaltasunaren gabezia da Aguilar-en (2009) irudiko ere Gizarte Zerbitzuen garapenean gainditu ez den koska nagusia. Autore honek eskubide subjektiborik ezaren afera aipatzeaz gain, bere analisia gainditu gabeko eredu dualaren azalpenean oinarritzen du. Honela, eredu asistentziala gizarte-zerbitzuen esparruan gainditu nahiak ez du esperotako emaitzarik lortu, diru-prestazioak albo batera utzi eta zerbitzu teknikoetan zentratu nahiak ere arrakasta erlatiboa izan baitu. Honela, oraindik orain Gizarte Zerbitzuen bitartez kudeatzen dira lehenago Gizarte Segurantzaren eskumenekoak ziren zenbait Gutxieneko Errenta Bermatzeko Diru Laguntza, bai pentsio ez kontributiboen bidetik bai eta gizarteratzeko gutxieneko errenten kudeaketaren bitartez ere (jarraian agertzen den irudian ikus litekeen moduan).

Irudia 8: Espainiako gizarte-babesaren sektore eta mailak: berrorientatze unibertsalista (1980-2008)



Iturria: Aguilar, 2009:187.

Goiko iruditik ondorioztatu daitekeen moduan, Espainiako gizarte-babeseko zenbait sektore dagoeneko hertsiki unibertsal gisa definitu litezke azterturiko azken epealdi honetarako, osasun eta hezkuntza sistema, hain zuzen ere. Hala ere, Gizarte Zerbitzuen esparrua oso eremu definitu gabean kokatzen da oraindik, esan bezala, Gizarte Segurantzaren zenbait monetazko prestazio kudeatzen jarraitzen duelako, baina aldi berean, bere baitan mekanismo kontributibo eta asistentzialeko mailak barnebiltzen dituelako. 2006az geroztik indarrean dagoen SAAD (*Sistema de Autonomía y Atención a la Dependencia*) sistemaren ezarpenak, orobat, gizarte-zerbitzuen irismena gaintitzeaz gain, beronen birdefinizioa ere ekarri du, hurrengo atalean azalduko den bezala.

5.4 Pertsona nagusien zaintzara bideratutako gizarte-zerbitzuen analisia

Gizarte-zerbitzuen analisi orokorretik, pertsona nagusien arretara bideraturiko gizarte-zerbitzuak aztertzerara pasako gara jarraian.

Esparru konkretu honetan lehen eta orain bat markatzen duen mugarri normatibo argi bat dago, “Norberaren Autonomia Sustatzeko eta Mendetasun egoerako Pertsonen Laguntza Emateko abenduaren 14ko 39/2006 Legea” hain zuzen ere, edo laburrago eta

hizkera arruntean esanda, "Mendekotasun Legea". Hargatik antolatu dugu atala lege honen aurreko eta osteko egoeraren analisi bereizia eginez.

5.4.1 Mendekotasun Legearen aurreko egoera: pertsona nagusientzako eskaintako gizarte-baliabideak

Mendekotasun Legearen onarpenaren aurretik Espainia mailan pertsona nagusiei bideraturiko gizarte-baliabideen errepaso egiteko kontuan hartu behar dira, alde batetik Estatu mailan indarrean ziren neurriak, eta bestalde, 80ko hamarkadaz geroztik Autonomia Erkidego bakoitzak bere eskumenak baliatuz ehunduriko gizarte-zerbitzuen hedapena ere.

Mendekotasunari loturiko gizarte-baliabideez aritzeko, halaber, komeni da politika publikoen mekanismoen abiapuntu orokorrago batetik hasia. Castro et al-ek (2008) argudiatuko duten gisan, hiru dira zaintzara bideraturiko politika publikoen mekanismo nagusiak: i) denbora eskaintzen dutenak; ii) dirua eskaintzen dutenak; iii) zerbitzuak eskaintzen dituztenak.

Lehenengo horien artean leudeke, familia eta lan bizitza konziliatzeko neurri nagusiak, izan eszedentziak, ordutegi murrizketak edota lanaldiaren antolaketa malguak bestelako zaintza lanak burutzeko. Bigarren horien artean mekanismo nagusienak diru laguntzak eta zerga-arinketak lirateke, dela mendekotasun-egoeraren arretak sorturiko gastu gehigarriak edo errenta murrizketak berdintzeko, dela zuzenean zerbitzu pribatuak kontratatuzko. Azkenik, zerbitzuen artean, nagusiki Mendekotasun Legeak ezarritakoak baina baita hori onartu aurretik autonomia-erkidego ezberdinetako gizarte-zerbitzuetan eskaintakoak leudeke, jarraian sakonago aurkeztuko ditugunak.

Gure analisi-esparrua Gizarte Zerbitzuen sistematik enfokatzeko ari garenez, jarraian azaltzen dugun laburpenean sakonago erreparatuko zaie sistema horren baitan aitorturiko prestazio eta zerbitzuei, bestelakoei aipamenak egingo zaizkien arren.

Estatu espainiarrean pertsona nagusiei bideraturiko gizarte-baliabideei dagokienez, Autonomia Erkidego guztiek partekaturiko gutxiengo komun horien analisisian

aipatzekoak dira Pilar Rodriguez Rodriguez (2006) edo Gregorio Rodriguez Cabrero (2004) bezalako autoreek eginiko analisiak. Bigarren honen analisisiei helduz, lau tresna nagusi joko ditugu mendekotasun egoeran diren pertsonen beharrak asetzeko gizarte-baliabide nagusitzat: i) Gizarte Segurantzako prestazio ekonomikoak; ii) Gizarte Zerbitzuak; iii) zerga-arinketak, eta; iv) zaintzaileari bideraturiko laguntzak, batik bat lana eta familiako bizitzaren arteko kontziliazio neurrietan zentratuak (arestian Castro et al-ek (2008) proposaturiko eskemari eutsiz, lehen eta hirugarren mekanismoek dirua ematen dute, bigarrenak zerbitzuak eta azkenak denbora).

Rodriguez Cabrerok aipatzen du orobat, jarraian zehazten diren lau kategori nagusi horiek, mugapen nagusi batzuen testuinguruan garatu izan direla. Alde batetik, legez babesturiko egoerak lan-istripuei loturik edo lanerako desgaitasunari loturik aitortzen direla aipatzen du, ez oraindik mendekotasun egoera orokorragoetara, adinari edo gaixotasunei loturikoei zabaldua (ez bada modu asistentzial hutsean, hau da, baliabide nahikorik frogatzen ez duten gizabanakoei soilik bideratuta). Bigarrenik, osasun-estalduran ez bezala, gizarte-zerbitzuen eskaintza eskubide “ahulduen” gainean oinarritzen da, ez oraindik eskubide subjektibo gisa jaso. Eta azkenik, Autonomia Erkidego bakoitzaren eskumeneko gaia izanik, lurralde-arteko disparekotasun nabarmenak dituen sistema gisa egongo da hedatua.

Baldintza horien gainean, hortaz, mendekotasun egoeran diren pertsonen bideraturiko gizarte-baliabideen eskaintza jarraian agertzen den taulan laburbilduko litzateke:

Koadroa 14: Mendekotasunerako gizarte-babeserako zerbitzu eta prestazio ekonomikoak Espainian (2004)

GIZARTE ZERBITZUAK	GIZARTE SEGURANTZAKO ETA ERKIDEGO AUTONOMOETAKO PRESTAZIO EKONOMIKOAK	ZERGA-ARINKETAK 40/1998 Legea, PFEG zergan	FAMILIA-BIZITZA ETA LANA BATERATZEKO 39/1999 LEGEA
Etkez etxeko laguntza zerbitzuak eta teleasistentzia	Desgaitasun handiagatiko laguntza hirugarren pertsonari	Gutxieneko pertsonala: Desgaitasun eta errenta mailaren arabera zerga-arinketak	Lanaldi murrizketa
Eguneko zentroak	% 75eko desgaitasuna dutenentzat osagarri ez-kontributiboak	Gutxieneko familiarra: Desgaitasun eta errenta mailaren arabera zerga-arinketak	Urte bete arteko zaintzagatiko eszedentzia
Egoitza-zentroak	Gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko legeak		
Babesturiko etxebizitzak	% 75etik gorako desgaitasuna duen haurren kargua hartzeagatiko prestazioa		
	Autonomia Erkidego eta Udaletxeetako laguntza puntualak.		

Iturria: Rodriguez Cabrero (2004) (itzulpena geurea).

Diru prestazioen esparruan leudeke Gizarte Segurantzako prestazioak eta zerga-arinketak. Gizarte Segurantzako prestazioei dagokienean, Rodriguez Cabrerok (2004) helburu oso antzekoak lortzeko diru iturrien aniztasun handiegien arriskuaz dihardu. Prestazio horien izaera ezberdinak alde batetik (kontributiboak zein ez-kontributiboak nahasten baitira) eta helburu duten giza talde bakoitzari dagokion kopuru ezberdinuak beste aldetik, pertsona bakoitzak jaso dezakeen prestazioan diferentzia handiak egotea dakar eta ondorioz, prestazio hori ez da beti onuradunak duen benetako mendekotasun egoeraren erantzun egokira doitzen. Egileak, hortaz, aniztasun hori koordinatu eta gizabanakoaren mendekotasun mailara egokituko den prestazio sistema baten premia seinatzen du.

Bestalde, zerga-arinketen bideari zenbait arazo ikusten dizkio, batetik zerga-aitorpenik egiten ez dutenak laguntza horietatik kanpo geratzen baitira, eta bestetik, arinketa Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko (PFEG) zergan aplikatzen denez nagusiki⁸⁹,

⁸⁹ Dizey et al-ek (2006) gehitzen dute zerga onurei dagokienez, mendekotasun egoeran diren pertsonen ezarritako zergez gain (nagusia PFEG zerga nagusiki) badirela estatu mailan bestelako zergapetze sistemak esparru honetan eragiten dutenak, nagusiki beste bi bidetatik: i) zerbitzuen hornitzaileei eragiten dietenak (izan pertsona fisikoa edo erakundeak) eta hortaz, PFEG zergaz gain Sozietaten Gaineko zerga ere begiratu behar litzateke; ii) jarduera sozio-sanitarioa arautzen duten zeharkako zergak, ondasun eta zerbitzu konkretuen salerosketaren gainean eragiten dutenak (eta beraz, hor barruan leudeke Ondare-

pertsona bakoitzaren zerga-aurrezkoa bere errenta mailaren arabera izango delako, mendekotasun mailak sorturiko beharizanen arabera izan beharrean. Gainera, zerga-arinketaren onuradun izateko zaintzaileak zainduaren etxe berberean bizitzeko baldintza jartzen da, eta honek zaintzaileen %37 inguru onuradun izatetik salbuesten du. Hortaz, zerga-arinketa horiek ekitatiboak ez diren neurrian, horiek gaintitu beharra aldarrikatzen du.

Dizy et al-ek (2006) pertsona nagusiei bideraturiko gizarte-zerbitzu nagusien definizio zehatzagoa eskaintzen dute, jarraian aurkezten dugun laburpen taulan biltzen ahalegindu garenak:

Koadroa 15: Marko orokorra: pertsona nagusiei bideraturiko gizarte-zerbitzuen katalogoa Espainian

	Definizio eta helburuak	Eskumen-esparrua	Atzipen-eskakizunak	Prestazioak	Zerbitzuaren kudeaketa	Finantzazioa
Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua	<p>Izaera prebentibo eta errehabilitatzailekoa, onuradunaren etxebizitzan ematen diren teknika eta zerbitzu profesionalak, mendekotasun mailaren bat duten pertsona nagusiei bideratuta.</p> <p>Helburu nagusia erabiltzailearen autonomia pertsonala handitzea da, bere ohiko ingurunean mantenduz.</p>	Tokiko herri-erakundeak: udalerriak eta udalerririk ezean Foru Aldundiak	<ul style="list-style-type: none"> - Erregulazio autonomikoa (eskumena tokikoa izan arren) - Lurraldetasuna: zerbitzua eskatzen deneko udalerriko egoiliar izatea - Mendekotasuna agertzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Arreta pertsonalerako zerbitzuak: eguneroko bizitzako jarduera nagusietarako arreta - Etxearen arretarako zerbitzuak: etxe-garbitzeta, erosketa, janak prestatzea, ... - Babes psiko-sozialeko jarduerak: entzuketa aktiboa, norbere zaintza, etab. - Babes familiarreko jarduerak: familiarekin lankidetzatza eta kohesioa indartu. - Harremanak lantzeko jarduerak: bere inguruneko pertsonekin harremanak lagundu, gizarte-sarean garapena, etab. 	<ul style="list-style-type: none"> - Erakunde hornitzaileak: orokorki erakunde pribatuekin itun sistema (kooperatibak, mozkinen besteko erakundeak eta enpresa komertzialak) - Berme eskakizunak: baimen administratiboak, gutxieneko funtzionamendu baldintzak eta pertsonalaren profil profesionalaren ezarpena erregulazio autonomikoaren menpe. 	<ul style="list-style-type: none"> - Mistoa: tokiko mailako diru laguntza publikoak eta erabiltzailearen parte hartzea (ordainketa partekatua) - Ordainketa partekatua ezarpena: tokiko mailako erregulazio bidez.
Telelaguntza	Etxez etxeko laguntzaren zerbitzu osagarria. Nagusiki mendekotasun edo ahultasun egoeran eta bakarrik bizi diren pertsona nagusiei bideratua.	Tokiko herri-erakundeak: udalerriak eta udalerririk ezean Foru Aldundiak	<ul style="list-style-type: none"> - Erregulazio autonomikoa (eskumena tokikoa izan arren) - Lurraldetasuna: zerbitzua eskatzen deneko udalerriko egoiliar izatea - Beharrezko justifikatzen duten zirkunstantzia pertsonalak betetzea. 	Eskurik gabeko telefono bidezko laguntza zerbitzua. Erabiltzaileak berekin daraman dispositiboak sakatuz gero, arreta-zerbitzu zentralarekin konektatzen da.	Itun sistema bidez, erakunde hornitzailea etxez etxeko laguntza zerbitzua eskaintzen duen bera izan ohi da.	Unibertsala
Eguneko Zentroak	Egoitza eta etxebizitzaren artean kokatzen den bitarteko laguntza baliabidea da. Mendekotasuna duen pertsona nagusiari arreta integral espezializatua (profesionala) emateaz batera, familiari aholkularitza eta	Herri-erakunde autonomikoak eta tokikoak	<ul style="list-style-type: none"> - Erregulazio autonomikoa - Autonomia-erkidego guztietan eskatzen dira: lurraldetasuna, osasun egoera eta gutxieneko adinari loturiko eskakizunak - Autonomia-erkidego ia guztietan eskatzen dira: mendekotasun egoerak 	<ul style="list-style-type: none"> - Oinarrizko beharrezko pertsonal, terapeutiko eta sozialak. Oinarrizko zerbitzuak: garraioa, mantenua, eta eguneroko bizitzako jardueretan laguntza. - Zerbitzu terapeutikoak: gizarte-arreta, psikologia-okupazionala, osasun 	<ul style="list-style-type: none"> - Erakunde hornitzaileak: Titulartasun publikoko eta pribatuko erakundeak. Indarrean den itun sistema kudeaketa pribatuko plazen finantzazio publiko partzalean datza. - Berme eskakizunak: baimen administratiboak, gutxieneko funtzionamendu 	<ul style="list-style-type: none"> - Mistoa: diru ekarpen publikoak eta erabiltzailearen parte hartzea (ordainketa partekatua) - Ordainketa partekatua ezarpena: Ekarpeneko publikoaren gehienezko kantitatea plazaren kostua edo prezio publikoa da.

	beharrezko babesa ematea du helburu		agertzea eta balorazioa irizpideak gainditzea.	zainketak,... - Familiarekin esku hartze programak: informazioa, aholkularitza, ... - Zerbitzu osagarriak: ile apaindegia, podologoa, kafetegia, ...	baldintzak eta baldintza material, funtzional eta pertsonalak erregulazio autonomikoaren menpe.	Onuradunaren ekarpenaren zenbatekoa bere diru-sarreraren oinarriaren ehuneko ezberdinak aplikatuz kalkulatzeko da.
Egoitzak	Behin-behineko edo behin betiko ostaturako gerontologia baliabidea da, mendekotasuna duten pertsona nagusiei arreta sozio-sanitario multiprofesionala ematen zaiolarik. Helburua autonomia pertsonala erraztu eta mantentzea da, profesional zein zerbitzuen erabiltzaileei bideratutako programen bidez	Herri-erakunde autonomikoak eta tokikoak	- Erregulazio autonomikoa - Autonomia-erkidego guztietan eskatzen dira: lurraldetasuna, osasun egoera eta gutxieneko adinari loturiko eskakizunak - Autonomia-erkidego ia guztietan eskatzen dira: mendekotasun egoerak agertzea eta balorazioa irizpideak gainditzea.	Zentroaren tamainaren arabera aldakorrak dira. Oinarrizko zerbitzuak eta terapeutikoak eskaintzen dira, mendeko pertsonen bideraturiko programen bidez (osasun arlokoak, terapeutikoak, zainketa aringarrikoak) eta familietan esku hartuz. Zerbitzu osagarriak eman daitezke: ile apaindegia, podologoa, kafetegia,...	- Erakunde hornitzaileak: Titulartasun publikoko eta pribatuko erakundeak. Espainiako ereduak itundutako kudeaketa pribatuarena da. - Berme eskakizunak: baimen administratiboak, gutxieneko funtzionamendu baldintzak eta baldintza material, funtzional eta pertsonalak erregulazio autonomikoaren menpe.	- Mistoa: diru ekarpen publikoak eta erabiltzailearen parte hartzea (ordainketa partekatua) - Ordainketa partekatuen ezarpena: erkidego gehienek plazaren kostua hartzen dute gehieneko ordainketa publikorako erreferentziatzat, gutxi batzuk ezarri dituzte prezio publikoak.. Onuradunaren ekarpenaren zenbatekoa diru-sarreraren oinarriaren ehuneko ezberdinak aplikatuz kalkulatzeko da. Ekarpene publikoak erabiltzailearentzat zein hornitzailearentzat suposatzen duen estaldura maila ezberdina da erkidegoaren arabera.

Iturria: Dizy et al (2006) (geuk itzulia eta moldatua)

Azkenik, zaintzaileari bideratutako laguntzak, nagusiki familia eta lana bateragarri egiteko irten diren legedietan jaso direnak, oraindik orain oso mugatuak direla ondorioztatzen da, zaintza konpromisoengatik lanaldi murrizketek zein eszedentziak hartzeko legezko eskubidea izan arren, horrek ondorio ekonomiko kaltegarriak sortarazten baitizkio baimen horien erabiltzaileari (ez delako zaintza-epealdia ordaintzen jarraitzen ez eta Gizarte Segurantzako kuotak ere)(Rodriguez Cabrero, 2004). Ildo bertsuan Carrasco-k (2004) aipatzen du kontzilizazioaren aldeko neurriak neurri batean lan baldintzak malgutzeko prozesu sakonago baten mesedetan probesten ari direla, eta Castro et al-ek (2008) azpimarratzen dute soilik eragin positiboa dutela zirkulu familiarren bat duten pertsonen zaintza beharrak asetzeko, eta ez bestelako egoera pertsonalei erantzuteko. Azkenik, kontziliaziorako laguntza horiez gain, Roldán eta García-k (2006) bestelako esku-hartze programa batzuk ere seinalatzen dituzte, familien zaintza kargak arintze aldera eskaintzen direnak: informazio, orientazio eta aholkularitza zerbitzuak, “atsedenaldi zerbitzuak”, nagusien eguneko egonaldiak gerontologia-zentroetan (Eguneko Zentroen ezberdinak), denboraldi baterako egonaldian egoitza eta bestelako ostatueta, etab. (denak ere gizarte-zerbitzuen baitan ematen direnak eta beraz, aurrerago jorratuko direnak)

Laguntza publikoen analisiari azken ñabardura bat gehitu behar litzaioke administrazio publikoak mota ugarietako hobariak eskaintzen baitizkie “mendekotasun aseguru pribatuak” (bizitza aseguruak zein gaixotasun aseguruak, nagusiki) kontratatzen dituzten gizabanakoei (Rodriguez Cabrero, 2004), nahiz eta autoreak berak aitortzen duen aukera honek gastu publiko osoarekiko duen esangura nahiko bazterrekoa dela, eta izatekotan aseguru publikoen funtzio osagarria beteko luketela gehienera jota⁹⁰.

⁹⁰ Gaiaren inguruan egin diren ikerketek nabarmentzen dute aseguru pribatuak arazoak planteatzen dituztela bai eskariaren aldetik (arazoaren pertzepzio mugatua eta prima altuak) eta baita eskaintzaren aldetik ere (errentagarritasun baxuko biztanleria kanpo uzten duen arriskuaren aurkako estrategia). Honen ondorioz, aseguru pribatuen erabiltzaileen taldea errenta altuko eta arriskuarekiko sentsibilitate altuko biztanleriaren lagin oso murriz batetara mugatzen da.

5.4.2 Mendekotasun Legeak ekarritako berrikuntza nagusiak

Norberaren Autonomia Sustatzeko eta Mendetasun egoerako Pertsonen Laguntza Emateko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak” edo “Mendekotasun Legeak”⁹¹, hortaz, orain arte garaturiko gizarte-zerbitzuen analisian beste mugarri bat ezartzen du.

Aipatu behar litzateke lehenik, lege honek ez duela soilik eragiten Gizarte Zerbitzuen esparruan, “mendekotasun egoeran diren pertsonen eragiten dieten alor guztietarako neurriak” jaso nahiko baititu, bestelako gizarte-babes esparruak ere ukituz (esparru sozio-sanitarioa bereziki). Hori hala izanik ere, legeak berak aitortzen du gizarte-zerbitzuen esparrua dela legearen bitartez erregulatu dena. Nabarmentzekoa da, halaber, Gizarte Zerbitzuen sisteman txertatu beharreko legea izanik, honen garapen, planifikazio, kudeaketa eta abarrak legez Autonomia Erkidegoen eskumen direla, nahiz eta Estatuak bertan nolabaiteko betekizun eta eskumen batzuk bereganatzen dituen, batik bat sistemaren unibertsaltasun eta berdintasuna bermatze aldera.

Hortaz, esan bezala, “Mendekotasun Legea” ez da izatez lege sektorial bat, eta ezingo litzateke estatu mailako gizarte-zerbitzuen lege batekin ere parekatu, nahiz eta legeak artikulatu ezberdinetan ezartzen duen moduan, erregulazio esparru hori Autonomia Erkidegoen Gizarte Zerbitzuen sisteman integratu beharko den. Zentzu horretan, ordura arteko Gizarte Zerbitzu autonomikoetan aldaketa esanguratsuak ekarri ditu bai legegintza aldetik, bai antolakuntza-mailan eta baita finantzazio esparruan ere (Guillén eta Vilá, 2007), eta horrez gain mendekotasun egoeran ziren pertsonen laguntzeko ordura arte ezarritako gainerako mekanismo ezberdin guztiak⁹², Gizarte Zerbitzuen

⁹¹ Legaren jatorrizko izendapen osoa “39/2006 Legea, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa” litzateke, erdarazko “*Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia*” itzulpena, nahiz eta gazteleraz erabiltzen den laburdura “*Ley de la Dependencia*” den neurrian, guk ere “Mendekotasun Legea” hobetsiko dugu aurrerantzean.

⁹² Nagusiki hiru aipatzen dira Legearen zioen azalpenean: i) aurreko ataletan jorraturiko Gizarte Zerbitzuen Oinarrizko Prestazioen Itundutako Plana; ii) Pertsona Nagusi eta Desgaitasuna duten Pertsonen Ekintza Planak; iii) Gizarte Segurantzaren bitartez desgaitasuna duten pertsonen eta pertsona nagusien bideraturiko prestazio ekonomiko ezberdinak: baliaezintasun handia, hirugarrenei emandako laguntza osagarria kotizatu gabekoentzako baliaezintasun pentsioen kasuan, edo norbere ardurapean ezintasunen bat duen seme alaba izateagatik ematen den familia laguntza. Era berean, kontuan hartzekoak dira ezintasunak dituztenei berriro hezteko eta birgaitzeko eskaintzen zaizkien gizarte-zerbitzuen arloko laguntzak eta adinekoei laguntzekoak direnak.

bitartez kudeatu eta koordinatu behar dira aurrerantzean, bikoiztasunak ekidite aldera (hartara datoz Legearen zenbait xedapen gehigarri).

“Mendekotasun Legeak” gizarte-zerbitzuen esparruan ekarri duen berrikuntzarik nabarmenena gizarte-zerbitzuak jasotzeko eskubide subjektiboaren aitortpena da (1. artikulua), hori betearazteko sistema berri bat ezartzen duelarik (“Autonomiaren aldeko eta Mendetasunari Arreta eskaintzeko Sistema” (AMAS aurrerantzean), gaztelerazko adieran *Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia (SAAD)*, zeina Autonomia Erkidegoen Gizarte Zerbitzuen bitartez kudeatu beharko den. Eskubide subjektiboaren aitortpena hitzez hitz hala jaso dator legearen zioen azalpenean:

“...Hori horrela izanik, eskubide subjektibo bat eratu da, unibertsaltasun, berdintasun eta eskuragarritasun printzipioetan oinarrituko dena, eta horretarako, herritarrei laguntza integrala eskaintzeko eredu bat garatuko da”(IVAP, 39/2006 Legea: 5).

Eskubide subjektibo gisa aitortzeak mugari garrantzitsua suposatu du Gizarte Zerbitzuen unibertsaltasuneranzko bidean, aurreko atalean ikusi dugun moduan, gizarte-zerbitzuen oraindik orain sistema kontributibo eta asistentziala nahasten dituen sistema dual gisa konfiguratua baitago (Aguilar, 2009). Helburua, hortaz, unibertsaltasun honetan sakontzea da, “aginte publiko guztien konpromisoari indarra emanda, beharrezko baliabideak jar ditzaten zerbitzu sozialak kalitatezkoak, berme-emaileak eta erabat unibertsalak izateko” (IVAP, 39/2006 Legea: 5).

Bigarren ezaugarri esanguratsua, gure iritzian, arestian landuriko bigarren analisi-ardatzari lotua legoke: sistemaren izaera publikoaren definizioarekin, hain zuzen ere. Ikusi dugunez, gizarte-zerbitzuen ezarpenaren lehen urratsetan sistema publiko bihurtzerantz jo nahi izan bazen ere, 90eko hamarkadan eragile pribatuen sarrera bultzatu zen, eta “Mendekotasun Legeak” azken ildo horri eutsi dio osterera ere. Legeak 3. artikuluan “izaera publikoa” ezartzen badu ere printzipio gisa, gero zerbitzuen hornikuntza bideratzea ez du sare publikoaren egiteko eskusibito gisa jasotzen Honela, “Mendekotasun Legea” egikaritzeko ezartzen den sistemak, AMAS-ek, herri erakundeen parte hartze eta lankidetzarako markoa ezartzen du, horien arteko koordinaziorako organoak sortuz (nagusiki Lurralde Kontseilua), baina ez du baieztatu sistema honek hertsiki publikoa izan behar duenik. Honela, sistemak berak

“...eskuragarri dauden baliabide publiko eta pribatuen hoberenatzea” (IVAP,39/2006 Legea: 5) bilatuko duela aitortzen duen unetik bertatik, sistema misto baten aldeko hautuan sakontzen jarraitzen du.

Ondorioz, ekimen pribatuaren parte hartzeari zuzeneko aipamena egiten zaio legearen artikulatu ezberdinetan, nagusiki gizarte-ekimeneko eragileei erreparatuz. Zioen azalpenean bertan, hirugarren sektoreak historikoki suposatu duenari aitortpena egiten zaio:

“...Ez dago zalantzan jartzetik hirugarren sektoreko erakundeak (gizarte-zerbitzuen arloan dihardutenak) aspalditik ari direla lanean mendetasunen bat dutenei laguntzeko, eta familiek eta tokiko erakundeek arlo horretan egiten duten lanari bultzada ematen. Erakunde horiek sare sozial zabala osatu dute mendetasunen bat jasaten dutenak gizarte-bereizkeria izateko duten arriskutik babesteko” (IVAP, 39/2006: 5).

Era berean, legearen 16. artikuluko 2. puntuan, AMAS osatzen duten zentro publiko eta pribatu itunduez diharduenean, hirugarren sektoreko erakundeei lehentasuna ematen zaie gainerako ekimen pribatuko eragileen aurrean: “...Hitzartutako zentro pribatuen erregimen juridikoa eta jarduteko baldintzak autonomia-erkidegoek zehaztuko dituzte. Sarean sartzerakoan, arreta berezia jarriko da hirugarren sektorearekin zerikusia dutenetan” (IVAP, 39/2006: 24). Artikulu bereko 4. puntuan, berriz ere, hirugarren sektorearen aipamena egiten da, ez hainbeste aurreko puntuan onartzen zaion hornitzaile funtzioa kontuan hartuz, baizik eta bere *advocacy* funtzioa aintzat hartuz: “...Herritarrek mendetasuna duten pertsonetikiko elkartasunezko lankidetzak izan dezatela sustatuko dute aginte publikoek, hain zuzen ere boluntarioen elkartean eta hirugarren sektoreko elkartean parte hartzearen bidez” (IVAP, 39/2006: 24)⁹³.

Aipa ditzagun, bukatzeko, labur bada ere, “Mendekotasun Legeak” ekartzen dituen berrikuntza nagusiak, horiek Autonomia Erkidegoen eskumenengan duten eraginari bereziki erreparatuz. Arestian aipatu moduan, nagusiki Gizarte Zerbitzuen esparrua da Lege honek erregulatzen duena, eta gainera, Legeak berak azaltzen du ez duela

⁹³ Alabaina, hirugarren sektoreko erakundeez gain, bestelako eragile pribatuen parte hartzea ere kontuan hartzen du Legeak, adibidez 3. artikuluko legearen printzipioak ezartzen dituenean m) azpi-atalean.

“bigarren sistema paralelo” bat ezarri nahi, baizik eta AMAS osoki integratu beharko dela Autonomia Erkidegoen Gizarte Zerbitzuetan. Honek guztiak, baliabide berriak sortu ditu gizarte-zerbitzu autonomikoetan, baita esfortzu gehigarriak eskatu ere, finantzazio aldetik zein giza baliabide zein azpiegitura fisikoen aldetik, zeinak azken buruan zerbitzu autonomikoen berregokitzea eskatu duen bai legegintzaren aldetik bai eta antolakuntza mailan ere.

Legeak, lehenik eta behin, eskumen banaketa argia proposatzen du maila anitzeko herri-erakundeen artean. Honela, Estatuko Administrazio Orokorra, Autonomia Erkidegoak eta Udal Gobernuen arteko lankidetzak bideratzeko, lan banaketa eta koordinazio organo batzuk ezartzen ditu, nagusiki hiru: AMAS-eko Lurralde Kontseilua, Aldebiko Lankidetzak Itunak (Estatuko Administrazio Orokorra/Autonomia Erkidego) eta baterako Planak. Eskumen banaketa horrek sistemaren babes-maila ezberdinen estaldurari erantzuten dio (7. artikulua), zeinaren arabera hiru maila ezartzen baitira: Estatuko Administrazio Orokorrari dagokio onuradun bakoitzari dagokion gutxieneko babes-maila zehaztea eta bermatzea, hots, diruz hornitzea (9. artikulua). Bigarren maila batean, Estatuko Administrazio Orokorrak eta Autonomia Erkidegoek Itun bidez adostu ahal izango dituzte gutxieneko maila horretatik haragoko babes-neurriak, horien finantzazioan bakoitzak izango duen parte hartzea Itunaren bitartez zehaztuko delarik, baina edozein kasutan, Autonomia Erkidegoen ekarpena gutxienez Estatuko Administrazio Orokorraren parekoa izango da (32. artikulua). Hirugarren maila batean, babes neurri gehiagoren ezarpen eta finantzazioa oso osorik Autonomia Erkidego bakoitzaren eskutan geratzen da.

Aipaturiko Itunak koordinatzeko organo nagusia “Autonomiaren aldeko eta Mendetasunari Arreta eskaintzeko Sistemaren Lurralde Kontseilua” izango da (10. artikulua). Lurralde Kontseilu hori da administrazio-arteko lankidetzarako organo nagusia, bertan daude ordezkatuak Autonomia Erkidego guztietako arduradunak bai eta Gobernu Zentralekoak ere, eta bertan adostu behar dira AMAS-aren ezarpenerako funtsezko erabaki gehienak, besteak beste: gutxieneko babes-mailaren intentsitatea, prestazio ekonomikoen baldintza eta zenbatekoak, onuradunek zerbitzuen kostuan izan beharreko parte hartzearen irizpideak, mendekotasunaren baloraziorako organo eta

oinarrizko irizpideak, sistemaren ebaluazio irizpideak, kalitate eta segurtasun irizpideak, etab.

Orain arte esandakotik argiki ondoriozta daiteke Autonomia Erkidegoek nolabaiteko autonomia galera bat izan dutela beren eskumeneko Gizarte Zerbitzuen arautzean, erabakirik nagusienak Lurralde Kontseiluan sistemako gainerako eragileekin adostuta hartu beharko baitituzte, eta gainera, gutxieneko babes-mailaz haragoko zerbitzuak ere Estatuko Administrazio Orokorrarekin adosturiko Itun bidez garatu beharko baitituzte (Guillén eta Vilá, 2007)

Hala ere, Legeak Autonomia Erkidegoek Gizarte Zerbitzuen esparruan duten eskumenaren aurka jo nahi ez duenez, beroriei dagozkien eskumenen zerrenda luzea ere zehazten du (11. artikulua), gehienak sistemaren kudeaketari loturiko eskumenak direlarik, besteak beste: planifikazioa, ordenazioa, koordinatzea eta gidatzea, balorazio eta arretaren kudeaketa, koordinazio sozio-sanitarioa, Zentro eta Zerbitzuen erregistroa, Arretarako Programa Indibidualen elaborazioa, etab. Udal Gobernuen egitekoaren erregulazioa, paradoxikoki, gizarte-zerbitzuen “sarrera-atea” izan arren eta sistemaren lehen presio-puntuak izanagatik ere, oso modu azalekoan garatzen du Legeak eta horiek kokatuak diren Autonomia Erkidegoen eskumenekotzat jotzen du (13. artikulua).

Eskumen banaketaz gain, Legeak, AMAS-aren bitartez abian jarri beharreko zerbitzu eta prestazioen katalogoa definitzen du, horien arteko lehentasun argia ezarriz zerbitzu publikoen⁹⁴ alde, (Autonomia Erkidego bakoitzaren Gizarte Zerbitzuen baitan integratuak, esan bezala) eta zerbitzurik eskaini ezin den kasuan soilik banatuko dira prestazio ekonomiko nagusiak, publikoki eskaini ezin den zerbitzu horri lotutakoak, edo bestelakoak⁹⁵.

⁹⁴ Aurrerago sakonago aztertuko dugunez zerbitzuen katalogo hori, aurrera dezagun labur labur Mendekotasun Legeak bost zerbitzu nagusi ezartzen dituela: a) Prebentzio zerbitzuak; b) Teleasistentzia zerbitzuak; c) Etxez etxeko laguntza zerbitzuak; d) Eguneko eta Gaueko zentroak; e) Egoitza Zerbitzuak (15. artikulua)

⁹⁵ Legeak, berebat, hiru prestazio ekonomiko nagusi ezartzen ditu: a) Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoak (17. art.) ; b) Familiakoek eskainitako zaintzarako eta profesionalak ez diren zaintzaileek emandako laguntzarako prestazio ekonomikoa (18. art.) ; c) Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa (19. art.)

Legeak puntu horretatik aurrera, arautu beharreko alor ezberdinak jorratzen ditu: mendekotasunaren balorazioa egiteko prozedurak, prestaziorako eskubidea aitortzeko prozedura, finantzazioa, AMAS-aren kalitate eta efikazia bermatzeko neurriak, prestakuntza, informazio sistemak, iruzurraren kontrako ekinbideak, organo aholku-emaileak, arau hauste eta zigorrak, etab. Gure analisi esparruari dagokionean, nabarmendu behar litzateke funtzio horiek guztiak, finantzazio salbu, hertsiki erantzukizun publikokotzat jotzen direla, inola ere eragile pribatuen ardurapean utzi ezinekotzat. Finantzazioaren esparrua arautzerakoan, V. Kapituluaren alegia, herri-erakundearen parte hartzeaz gain, onuradunen parte hartzea ere kontenplatu du legeak, ordainketa partekatuko sistemaren alde eginez (doako zerbitzuen eredu baztertuz, hortaz), onuradunak bere egoera ekonomikoaren eta ondarearen arabera parte hartzea izan beharko duela finkatuz, baina baliabiderik gabeko inor ez dela estaldurarik gabe geratuko bermatuz (33. artikulua).

5.4.3 Legearen izaera eta ezarpenaren berrikuspen kritikoa

Asko idatzi eta esan da Mendekotasun Legearen inguruan, 2006ko Martxoan onartu eta hainbat dekretu onartu ostean 2007ko urtarrilen indarrean jarri zenetik gaur arte egin duen bost urte eskaseko ibilbidearen inguruan. Ez da lan honen helburua Mendekotasun Legearen letra eta ezarpenaren⁹⁶ inguruko analisi xehatua eskaintzea. Soilik erreparatuko diegu sistemaren konfigurazioari buruz eta honen hedapenean agertu diren zailtasun nagusiei buruz diharduten autoreei, autonomia-erkidego ezberdinetan lorturiko estaldura maila, eskakizun eta ebazpen kopurua edo guztizko gastu publikoaren analisiak eta abar alde batera utziaz.

Montalbá-k (2010) oso modu sintetikoan laburbiltzen ditu legeak “izan nahi zuen haren” puntu zentralak: i) sektorializazioaren aurkako legea, Gizarte Zerbitzuen

⁹⁶ Berriki Arartekoak argitaratu duen *EAEn norberaren autonomia sustatzeko eta mendetasunari arreta emateko legearen aplikazioa* (Acero et al, 2011) txostena da dudarik gabe Euskadi mailarako legearen aplikazioa aztertzen duen argitalpenik osoena. Bestela, Estatu mailako datuak aztertzeko iturri ezberdinetara jo daiteke, besteak beste: *Observatorio Nacional de la Dependencia*-k argitaratzen dituen txostenetara (<http://www.ondep.es/portal/portada/portada.aspx>), AMAS-aren ezarpenari buruz autonomia-erkidego guztien datu estatistikoak biltzen dituen *SISAAD* informazio sistemaren datuetara, edo bestelako elkarte profesionalen aldizkako argitalpenetara (esaterako, *Asociación Estatal de Directoras y Gerentes de Servicios Sociales* elkarteak sorturiko Mendekotasunaren Behatokia: <http://www.directoressociales.com>)

esparruan ohikoa izan den gizarte-talde konkretuen (haur, gaixo, desgaitu, zahar, etab.) arretarako mekanismoen bilduma izaera gaindituz; ii) zaintzaren erantzukizuna esparru pribatutik atera eta esparru publikoaren eginkizuntzat hartu nahi zuen legea, azken horren izaera subsidiarioa gaindituz (soilik familia-esparruak edo baliabide ekonomikoek huts egiten zieten gizabanakoentzako azken sare gisa ulertua); iii) gizarte-politiken kontzepzio asistentzialista gainditu eta zerbitzuak unibertsal bilakatzea jo nahi zuen legea; iv) eskubide baldintzatua izatetik, hau da, gizarte-egoera konkretu batzuk betez gero (gizarte-segurantzan kotitzatzea, mendekotasun-egoera pairatzea, baliabide-gabezian egotea etab.) aitortutako lege izatetik, eskubide subjektibo izatera, hau da, hiritar orori, edozein delarik ere bere egoera, jatorri edo kondizioa, dagokion eskubide izatera pasa nahi zuen legea.

Lau printzipio orokor horiez gain, feminismoaren baitatik egiten diren irakurketek, legeak mendeko egoeran diren pertsonen arreta-eta erabakitze-eskubidea bermatzeaz gain, beste funtsezko eskubide bat ere bermatu behar lukeela nabarmentzen dute: emakumeek zaintza lanak egin nahi dituzten ala ez (eta nola) aukeratzeko eskubidea, hain zuzen ere (Castro et al, 2008).

Nolanahi ere, Mendekotasun Legeak, bai legeak berak aurreikusitako mekanismoen ez-nahikotasunak eraginda edo bai honen ezarpenean eman diren zenbait joerek eraginda, ez du ia inoren iritzian erdietsi izan asmo zuen hura bilakatzerik. Azterturiko ia autore denek aipatzen dute Legeak ez duela onartu zenean sorturiko ilusio eta igurikapenak betetzerik izan (Acero et al, 2011; Cervera, et al, 2009). Ahuleziak arestian aipaturiko ezaugarri horietako bakoitzean atzeman litezke.

Eskubidearen alorretik hasiz, askoren iritzian, Legeak ez du egiazki eskubide subjektiborik ezartzerik lortu. Arrazoiak hamaika izan litezke, baina gehienak eskaintza publiko ez-nahikoaren ondorio lirateke. Batzuen iritziz ez da bermatzen benetako eskubiderik, soilik ziurtatzen delako legez Estatuko Administrazio Orokorrak finantzatzen duen gutxieneko mailarako eskubidea, gainerako zerbitzuak autonomia-erkidego bakoitzaren borondate politikoaren mende utziaz (AMAS-aren Lurralde Kontseiluaren baitan lorturiko hitzarmenetan lorturikoaren arabera) (Guillén eta Vilá, 2007; Arizkuren, 2010); beste batzuk ekimen pribatuaren sarreraren arriskuez

ohartarazten dute, zerbitzu horiek hiritar orok jasotzeko eskubidea kolokan jar dezakeelako (Díaz Velazquez, 2010); beste batzuen iritzian arrazoi nagusia legeak aurreikusitako eskariarentzako nahikoa eskaintzarik ez ematean datza, dela kasu askotan aurreikuspenak motz geratu direlako (Acero et al, 2011; Cervera et al, 2009) edo legeak ez duelako ziurtatzen zerbitzuaren premia duen pertsonak zerbitzua hori izango duenik (Castro et al, 2008).

Eskubide subjektiboaren onarpen mugatuaren afera oso loturik dago bilaturiko unibertsaltasunaren ahuleziarekin. Unibertsaltasun gabezia, nagusiki bi arazoren ondorioztat hartzen da: mendekotasunaren balorazioan erabilitako baremazio irizpide murrizkor eta nahasiengatik, alde batetik, eta ordainketa partekatuko finantzazio-sistemaren ezarpenagatik, bestetik. Lehenarekin hasiz, batzuen iritziz legeak hasieratik albo batera utzi ditu zenbait mendekotasun egoera, esaterako, 0-3 urte arteko haurrentzat estaldurarik ez eskaintzea, etorkinentzako estaldura baldintzatzea edota soilik kontuan hartzea mendekotasun behin betikoak eta ez iragankorrak (Acero et al, 2011; Plataforma por un Sistema Público Vasco de Atención a la Dependencia, 2006). Horren orde, legeak mendekotasunik larrieneko eta baliabiderik gutxieneko pertsonen leheneste prozedura ezarri du, zeinak leheneste-irizpideetatik kanpo utzi baititu mendekotasun larriko egoerarik egiaztatu ez eta benetako premian aurkitzen ziren gizabanako ugari.

Bigarren argudioak sistemaren balizko doakotasunean egiten du indar, AMAS-aren finantzaziorako ordainketa partekatuko sistema hobesteak urruntzen baitu Gizarte Zerbitzuen alorra Osasuna edo Hezkuntza bezalako estaldura unibertsaleko sistema izatetik. Honela, zenbait zerbitzuren ordainketa eta baita prestazio ekonomikoen zenbatekoa ere, norbanakoaren errenta eta ondarearen arabera kalkulatzeko unibertsaltasunaren irismena kolokan jartzen du (Guillén eta Vilá, 2007). Beste zenbaitentzat ordainketa partekatuko sistema ez da birbanatzailea, errenta ertain/baxuko biztanleriaren aurka egiten duelarik bereziki (Asamblea Feminista de Madrid, 2006). Beste zenbaitentzat klase ertaineko biztanleria da nagusiki pairatzen duena sistema hori, zerbitzu publikoaren truke ordaindu beharreko zatiak eskaera hori desbidera baitezake merkatu informaleko bestelako mekanismoen bidez (eta merkeago) estaltzera zerbitzu

hori (Plataforma por un Sistema Público Vasco de Atención a la Dependencia, 2006; Arizkuren, 2010).

Bada hirugarren argudio bat ere sistemaren unibertsaltasun faltaren arrazoi gisa jartzen dena, sistemaren deszentralizazioa, hain zuzen ere. Legeak autonomia-erkidegoen esku uzten duenez AMAS sistemaren benetako hedapena, autonomia-erkidego bakoitzaren esfortzuaren araberrako lurralde-arteko disparekotasun nabarmenak sortu dira (Arizkuren, 2010) eta honi aurre egiteko zenbaitek Estatuko Administrazio Orokorrak hartu beharreko protagonismo handiagoa aldarrikatzen du zenbaitek (Kahale, 2009). Euskadiko testuingurura etorrira ere, Arartekoaren txostenak (Acero et al, 2011) azaltzen duenez eskuduntza nagusia Foru Aldundi eta Udalen eskutan egoteak lurralde-arteko desorekak sortu ditu bai herrialdeen artean, eta baita udalerrien artean ere, eta horren ondorioz, Eusko Jaurlaritzak lidergo handiagoa hartu beharko lukeela iradokitzen du, Gizarte Zerbitzuen lege berria indarrean dela probestuz. Agerian geratzen denez, herri-erakundeen maila anitzeko sistema izanik abian jarri dena, etengabeko tentsioak agertzen dira bere ezarpenean joera zentralizatzaile eta deszentralizatzaileen artean.

Legearen “jatorrizko bekatuak” modu horretan laburtu ostean, legearen ezarpenean bertan eman diren zenbait joera eta zailtasunek ere auzitan jartzen dute Legeak “izan behar zuen hura” zein puntutaraino ari den betetzen. Zentzu horretan, espainiar gobernuak 39/2006 legearen garapen eta ezarpenaren ebaluazioa egiteko sorturiko Adituen Taldeak eginiko txostenean oinarrituko gara sistemaren ahulezia nagusiak antolatzeke. Argitaraturiko azken txostenari jarraituz, adituek AMAS-aren lau esparru gatazkatsu nagusi detektatu zituzten (Cervera et al, 2009): i) sistemaren sarbiderako arazoak; ii) emaniko prestazioak; iii) sistemaren koordinazio eta gobernuak; iv) finantzazioa.

Azken hori da, finantzazioaren afera alegia, duda handirik gabe askatu beharreko korapilorik gatazkatsuena (Cervera et al, 2009), baina ez gara atal honetan horren inguruko analisi sakonagoan sartuko⁹⁷. Lehen esparruari dagokionean, ordea, sistemaren

⁹⁷ Jo liteke horretarako, Julia Montserrat eta Rodriguez Cabrero-k azken hamar urteetan gai honen inguruan eginiko analisi ezberdinetara. Berriki argitaratu diren proposamenen artean aipagarriak dira Arizkurenen analisia, (Zerbitzuan, 2010: Abendua); eta Euskadiko kasu konkreturako SIIS-ek eginiko lan berrienak (Zerbitzuan, 2009: Abendua).

sarrerarako mekanismoen artean, alegia, Aritu Taldeak errealitate oso disparekoak antzematen ditu eskari kopuruari dagokionez autonomia-erkidego ezberdinen artean, zeina oso lotua dagoen beraien ustez erkidego bakoitzean dagoen gizarte-zerbitzuen kulturarekin, eta jendeak horiengana jotzeko duen ohiturarekin. Baina baita sortzen ari diren balorazio eta tramitazio arazoekin ere, bai izaniko eskaria espero zitekeena baina handiagoa izaten ari delako⁹⁸ edo bai prestazio horiek guztiak gizarte-zerbitzu autonomikoen bitartez kudeatzeak sistema horiek gainezkatu eta kolapsatu egin dituelako (Acero et al, 2011; Cervera et al, 2009). Edozein delarik ere arrazoia, tramitazio-epeen atzerapenek Legeak aldarrikatzen dituen eskubideak benetan baliatzea eta eraginkorrak izatea atzeratzen du (Acero et al, 2011) eta sistema publikoko zerbitzuen eskatzaile potentzialak merkatu informaleko zerbitzuen eskarira desplazatzea dakar (Castro et al, 2008).

Txosteneko bigarren esparrua da, zalantzarik gabe, gizarte eztabaida nagusia eragiten ari den gaietako bat: AMAS-aren bitartez azken urteetan emaniko prestazioen ingurukoa, alegia. Joera nagusiak ez du eztabaidarik onartzen: legeak ezarritakoaren kontra, prestazio ekonomikoak dira, nagusiki “Familiakoek eskainitako zaintzarako eta profesionalak ez diren zaintzaileek emandako laguntzarako prestazio ekonomikoa” (edo familiaren barruan zaintzeko prestazio ekonomikoak, FEZPE aurrerantzean), zerbitzu publikoak baina askoz areago garatu direnak. *Asociación Estatal de Directoras y Gerentes de Servicios Sociales* elkartearen datuen arabera, 2009an Mendekotasun Legearen onuradun izandakoen %65ak prestazio ekonomikoak jaso zituen Espainian, horien artean FEZPE diru-laguntzak gailentzen direlarik nabarmen (Gizarteratuz, 2010). 2011ko lehen seihilekoko datuek joera hori berresten dute, epealdi honetan emaniko laguntzen %54 baino gehiago prestazio ekonomikoak izan baitira (El Pais, 2011-06-27). Arartekoaren txostenak gehitzen du zerbitzu eta prestazio ekonomikoen artetik %41,9 FEZPE laguntzak izan direla EAE-rako 2007-2010 epealdian (Acero et al, 2011: 406).

Joera honen aurkako aldean Etxez etxeko laguntza Zerbitzuak leudeke, *Asociación Estatal de Directoras y Gerentes de Servicios Sociales* elkartearen datuen arabera

⁹⁸ Esaterako, estatu espainiarreko datu orokorreirengatik III Graduko mendekotasun eskaerak Liburu Zurian aurreikusitako zenbakiak bikoiztu egin dituzte (Cervera et al, 2009) eta Euskadiren kasurako, 2007tik 2010eko uztailaren 1 arte mendekotasun egoera onar zedila eskaturiko 98.673 biztanletik 77.352 biztanleri aitortu zitzaion eskaera, Estatuko Administrazio Orokorrak 2007an EAE-rentzat eginiko estimazioan kalkulaturikoa baino 22.808 pertsona gehiago (Acero et al, 2011:404)

2009an emaniko laguntzen %12 besterik ez baitzen Espainian (Gizarteratuz, 2010) eta Euskadirentzako datua paretsua litzateke, %11,88 (Acero et al, 2011:406). Zerbitzu honen eskaintzak, geroz eta eskari handiagoa agertu arren oso garapen murrizta izan duela egiaztatzen da (Cervera et al, 2009), Euskadiren kasuan 2007 eta 2008an hazten joan arren 2009an beherakada bat izan zuen eta Aratekoak ere kezagarritzat jotzen du joera hori, kontuan hartuta herritarrek geroz eta gehiago eskatzen duten zerbitzu bat dela. Azkenik, izaerarik berritzaileena duten eta pertsonaren autonomian modurik positiboenean eragiten duten prestazio ekonomikoak dira, bereziki laguntza pertsonalerako prestazioa, gutxien eman direnak (%2,32 Euskadiren kasuan, ia osorik Gipuzkoan emana)(Acero et al, 2011:406).

Prestazio ekonomikoen bidean sakontzeak ezin uka ondorio nabarmenak dakartzanik, aldeko eta kontrako eraginak sortuz bai herri-erakundeentzat, bai laguntza jasotzen dutenenentzat eta baita laguntza ematen dutenenentzat ere. Honela, herri-erakundeen ikuspegitik gastu publikoaren eustean laguntzen du alde batetik, FEZPE prestazio bakoitzak egoitza plaza baten edo 90 orduko etxez-etxeko laguntzaren kostuaren herena suposatzen baitu (Gizarteratuz, 2010-03); baina beste aldetik, mendekotasunaren alorrean sortu litezkeen enplegu berriei negatiboki eragiten die, alde batetik enplegu horiek espero zitezkeen erritmoan sortzea oztopatzen ari baita (Gizarteratuz, 2010-06) eta beste aldetik sortu dituen enplegu berriak edo “ezkutuko ekonomian” edo lan-baldintza oso eskasen pean sortzea ekarri baitu⁹⁹. Azkenik, herri-erakundeek ezin dute prestazio ekonomikoen helmugaren inguruko kontrolik ezarri, eta dirua emaniko helbururako bideratzen den kasuan ere, ezin dute emaniko zerbitzuaren kalitatearen inguruko inolako ikuskapenik burutu .

Zaintzaileei dagokienean, berriz, zaintzaile informalen artean %95 emakumeak diren neurrian, emakumeen zaintzaile papera indartzen jarraitzen du eta emakumeak etxeko

⁹⁹ Zentzu horretan, hainbat autorek defendatzen dute Mendekotasun Legeak zenbait berrikuntza ekarri dituela zaintzaile informalei emaniko diru-laguntzen bitartez horien lanaren zati baten aitorten ekonomikoa egiten baita eta horiek Gizarte Segurantzaren altan emateko aukera irekitzen baita (Arizkuren, 2010). Dena den, aurrerapen horien norainokoa erlatibizatzen datoz beste hainbat egile, kontratu horiek ez baitira inolako sektoreko hitzarmen kolektibori loturik egiten, ez baitago langile horientzat eskubide sindikalik (Asamblea Feminista de Madrid, 2006), ezarriko soldata ez baita lanbide arteko gutxieneko soldataren %70era heltzen, gizarte-segurantzako babesaren erregimen orokorrekoa baino apalagoa delako, eta ez delako ez istripu edo gaixotasunagatikiko baxarik aitortzen, ez eta langabeziagatik ere (Abasolo, 2010).

zaintza lanetara bideratzen dituen gizarte-jokamoldean sakontzea dakar, emakumeek zaintzak eman ala ez emateko duten eskubidea kolokan jarritz (Castro et al, 2008).

Joera honek eztabaida oso biziak eragiten ditu, zenbaitentzat inboluzio hutsa den bezala (Díaz Velazquez, 2010), beste zenbaitek gizartearen kultura familiarista bati zor zaiola defendituko baitu, edota pertsona nagusien preferentziei lotuko baitie joera hori (Arizkuren, 2010). Beste zenbaitek, ordea, “aukeratzeko askatasunaren” diskurtso hori zalantzan jarriko dute, bestelako kalitatezko eta gertuko zerbitzu publikorik eskaini ezin den neurrian zalantzagarrria baita egiazko “aukeratzeko askatasuneko” afera bati buruz aritzea (Castro et al, 2008; Montalbá, 2010). Adituen Taldearen iritziz bi arrazoiek lukete agerturiko eskariaren garapena azaltzeko gaitasuna (Cervera et al, 2009:66) eta Arartekoaren aburuz faktore gehiagok azal lezakezte prestazio honen gehiegizko eskariaren zergatia: informazio-kanpainen izaera eta eraginkortasunak, herri-erakundeentzat kostu baxuko prestazioa izateak, zerbitzu-sare urria izateak, eta zenbait familiek ordura arte egindako lanean jarraitzeko pizgarri ekonomikotzat ulertu izanak, besteak beste. Zentzu horretan gaineratuko du prestazio ekonomiko hori kasu batzuetan zerbitzuak garatzeko oztopo ere bilakatu dela, bereziki zerbitzuak eta prestazioak bateraezinak izan direnean, baina baita bateragarriak diren kasuan aplikaturiko murrizketek eta prezio publikoek ia guztiz agortu dutelako ere (Acero et al, 2011:410).

Lerro hauetan jasotako argudio eta ideia nagusiak 7. kapituluaren landuko ditugu sakonago, adituei eginiko elkarrizketetan luze eta zabal jardun baikara, besteak beste, baita Mendekotasun Legeak sorturiko aukera eta arriskuen inguruan ere.

Bukatzeko, eta AMAS-aren ezarpenean agertzen ari diren arazo nagusien azken esparruaren aipamena egite aldera, Adituen Taldeak aipatuko du sistemaren gobernu eta koordinazioa ere nahiko afera korapilatsua izaten ari dela, batetik autonomia-erkidegoen gizarte-zerbitzuen sisteman integratu beharreko sistema delako, horrek ekarri dituen eskumen-gatazkak kontuan izanik; bestalde, eremu sozio-sanitarioaren ehundurak ere funtsezko garrantzia duelako; eta azkenik, herri-erakundeen eta sektore pribatu zein hirugarren sektorearen arteko lankidetzan hobetu beharreko esparruak ere nabari direlako (Cervera et al, 2009). Sakonago aztertuko dugu puntu hau Euskadiren testuinguru konkretua aztertzen dugunean.

5.5 Laburbilduz

Kapitulu honetan garatu diren ideia nagusien artean, honakoak nabarmenduko genituzke:

1.- Espainiako Gizarte Zerbitzuen sistema zerbaitegatik bereizten bada gainerako gizarte-ongizateko zerbitzu nagusietatik (nagusiki Osasuna, Hezkuntza eta Gizarte Segurantzatik) bere garapen berankor eta bukatu gabeagatik da. Espainian lehenik Gizarte Segurantzaren oinarritzko hezurdura eratzen da 60ko hamarkadan, eta Hezkuntzak zein Osasunak 80ko hamarkadan beren sistema propioa garatu bazuten ere, Gizarte Zerbitzuen denbora luzez Gizarte Segurantzaren baitako azpi-atal gisa garatu izan da, lehen lege autonomikoak onartu arte, hain zuzen ere. Ekarpen bidezko diru-transferentziarako sistema batean, hots, Gizarte Segurantzaren sisteman txertatuta sortu eta garatu izanak, berebiziko eragina izan du esparru honen garapenean.

2.- Espainiako ongizate-erregimen motari dagokionean berriz, egile gehienek eredu latino edo mediterraneoan kokatzen badute ere, egiazki erregimen ezberdinetako ezaugarrien nahasketa da Espainian ageri dena. Honela, gizarte-segurantzaren zentraltasunak eredu bismarckiar-kontinentalera gerturatzen duen bezala, zenbait gizarte-esparruren unibertsaltasunak (hezkuntzak eta osasunak, nagusiki) eredu sozialdemokratago baterantz desplazatuko lukete. Era berean, 90eko hamarkadatik hona haize neoliberalak ekarritako *New Public Management*-aren arrimuan sistemaren birmerkantilizazioan eragiten duten neurriak dira orokortu direnak. Espainiako Gizarte Zerbitzuen sistema, hortaz, eredu ezberdinetako ezaugarrien nahasketa baten testuinguruan garatzen joan da, nahiz eta hainbat ezaugarri propio bereizgarri eredu latino-mediterraneo batean kokatuko luketen.

3.-Gizarte Zerbitzuen bilakabide propioak, hortaz, oraintxe aipaturiko ereduaren nahasketa bati erantzuten dio. Lehen une batean, sistemak ongintzazko eredu batetik gizarte-laguntzako beste batera jauzi egiten du, Gizarte Segurantzaren babespean egituratuz. 80ko hamarkadatik hona, berriz, sistemaren heldzea bi garapen-ardatzetara lotuta ageri da: sistemaren egituraketa publikoari dagokiona bata, eta sistemaren irismen unibertsalari dagokiona bestea. Lehen ardatzak bultzada garrantzitsua ezagutu zuen Gizarte Zerbitzuen egituraketaren lehen aroan, sistema publikoaren zabalkuntza baita

hastapenetako unean bilatzen dena, nahiz eta 90eko hamarkadatik hona sistema misto gisa egonkortu den. Bigarren ardatzak berriz, mendekotasun legearekin ezagutuko du benetako legezko babes, nahiz eta bere aplikazio erreala oraindik orain zalantzarria izan.

4.- Gizarte Zerbitzuen sistemak gaur arte egin duen bidearen balorazio orokor bat egite aldera, beraz, esan genezake sektore honek aurrerapauso garrantzitsuak eman dituela sistema propio eta definitu gisa egonkortze bidean. Sistema propio hori, gainera, erantzukizun publikoko sistema gisa definitua geratu da, ongizate-estatuaren laugarren habea izango litzatekeelarik. Sistemaren egituraketa eta eraginkortasunari dagokionez, bai zerbitzu teknikoaren lurralde-antolamenduan eta baita zerbitzu mota bakoitzaren espezializazio mailan aurrerapauso nabarmenak eman direnik ezin uka liteke. Hala ere, emaitzen aldetik zalantza gehiago ageri dira sistemak bilatu asmo dituen printzipio nagusiak lortu ote dituen baloratzerako orduan: unibertsaltasuna lehenik, eta berdintasuna eta gertutasuna, ondoren.

5.- Gizarte Zerbitzuen esparruaren baitan guri dagokigun alorrean zentratuz, hots, pertsona nagusiei bideratutako baliabideei dagokienez, sistemak bultzada garrantzitsu bat ezagutu du “Mendekotasun Legearen” onarpenaz geroztik. Ordura arte alor honek gizarte-zerbitzu orokorren bertute eta ahulezia berberak bazituen ere, aipaturiko legeak aurrerapauso garrantzitsuak dakartza gutxienik hiru zentzutari. Lehenik, eskubide subjektiboaren aitortzak sistemaren unibertsaltasunean oinarri sendo berri bat jarri du, nahiz eta irismen unibertsal hori egiazki betetzen ez den ari. Bigarrenik zerbitzuak prestazioen aurretik lehenestek ere, diru-transferentzien sistema batetik zerbitzuen sistema publiko baterako jauzia adierazi nahi luke, nahiz eta gai honetan ere legeak testuak dioenaren guztiz aurkako garapena ezagutu duen. Hirugarrenik, sistema erantzukizun publiko eta kudeaketa mistoko sistema gisa definitua geratzen da, gizarte-zerbitzuek beren hastapenetan bizi izandako izaera publikoaren aldeko bultzada hori berrorientatuz.

**6 KAPITULUA: EAE-KO GIZARTE ZERBITZUEN ANALISIA
ESKAINZAREN TITULARTASUNAREN IKUSPEGITIK**

Aurreko kapituluak EAE-ko Gizarte Zerbitzuen testuinguru orokorraren koordinatu nagusiak aztertu dira, esparru honek Espainian izan duen bilakaeraren analisia eginez, eta hori gainerako herrialde europarretan antzematen diren erregimenen testuinguruan kokatuz. Bigarren zati batean, gizarte-zerbitzu orokorretatik pertsona nagusiei konkretuki bideraturiko gizarte-baliabideen analisia gauzatu da, Mendekotasun Legeak zentzu horretan ezarritako lehenak eta orainak agerturiko ezaugarri nagusiei erreparatu.

Jarraian garatzen den kapituluak berriz EAE-ko errealitatearen analisisira jauzi egingo du. Lehenik, EAE-n garatzen joan den eredu estatua espainiarreko beste zenbait autonomia-erkidegoren testuinguruan aztertuko da, “ongizate-erregimen autonomikoen” proposamenarekin bat eginez. Bigarrenik EAE-ko Gizarte Zerbitzuen bilakaera normatiboari erreparatuko zaio, esparru honetan funtsezko eraldaketa ekarri duen legearen, hots, 12/2008 Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Legearen lehena eta oraina aztertuz. Azkenik, egun EAE-ko pertsona nagusiei eskainiriko gizarte-zerbitzuen analisi kuantitatiboa burutuko da, gure doktorego-tesiaren gai zentrala den ardatzean jarriaz arreta, erakunde pribatuek eta gizarte-ekonomiakoek oro har eskaintzaren egituraren duten parte hartzean, alegia.

6.1 Testuinguru orokorra: ongizate-erregimen autonomikoak

Jarraian aurkezten dugun atalean Gallego et al-ek (2003) garaturiko ikerketa-ildoaren emaitza nagusiak jaso ditugu.

Autoreok, espainiar estatuko 7 autonomia-erkidegoetako ongizate-erregimenen analisia egiten dute, arestian aipatu bezala Espainian ongizate-estatuaren garapena estatu autonomikoaren garapenarekin batera etorri den neurrian, autonomia-erkidego bakoitzak bere eredu propioa garatu izan duenaren ustea frogatuz. Hartarako, egileok ongizate-estatuaren sei gizarte-alorrak (Osasuna, Hezkuntza, Etxebizitza, Gutxieneko Errentak, Gizarte Zerbitzuak eta Enplegua) alderatzen dituzte zazpi autonomia-erkidego ezberdinetan (Euskadi, Nafarroa, Katalunia, Galizia, Valentziar Erkidegoa, Kanariar uharteak eta Andaluzia), alderaketa ongizate-erregimenaren prismetik burutuz, hau da: eragile publiko, pribatu, familiar eta gizarte-sareek sistema horietako bakoitzean duten parte hartzea analizatuz.

Modu honetan, Euskadik gainerako autonomia-erkidegoen aldean, eta Gizarte Zerbitzuek gainerako gizarte-babeserako sistemen aldean zein kokapen duten ondorioztatuko da, Euskadiko Gizarte Zerbitzuen analisirako erreferentziazko marko interesgarri bat eskainiko digularik.


6.1.1 Alderdi substantiboak eta operatiboak

Ongizate-erregimenen analisia bi irizpideren arabera antolatzen dute aipatu egileok: alderdi substantiboa alde batetik, “zer egin?” galderari erantzuten diona, eta alderdi operatiboa bestalde, “nola egin?” erantzun nahi duena.

Alderdi substantiboari dagokionean, erkidego bakoitzaren posizioa bi irizpideren arabera neurtuko da: bereganaturiko eskuduntza maila batetik (eredurik diferentzialenetatik estatuarekin homogeneoena litzatekeen eredura), eta horien arabera abian jarritako politika publikoen eitea, bestetik (eredu hertsiki publikoenetik merkatuko eragileen parte hartze handieneko ereduraino).

Arlo substantiboari dagokionean, interesgarria da erkidego bakoitzaren kokapena aztertu aurretik, Gizarte Zerbitzuek beraiek zein kokapen duten ebaztea. Horrela, jarraian agertzen den irudiari erreparatuz ikusiko da Gizarte Zerbitzuen esparrua nabarmen dela ezberdina gainerako gizarte-ongizateko sektoreekiko, eskuduntza mailan diferentzialtasun handiko egoera baitu (7. puntua ardatz bertikalean), erkidego bakoitzak eskuduntza propioa duen neurrian, eta gainera merkatuko eragileen parte hartzea esanguratsua delako azterturiko erkidego guztietan (7. puntua ardatz horizontalean).

Irudia 9: Gizarte-ongizateko sei esparruen sailkapena, dimentsio substantiboa




Iturria: Gallego et al, 2003:217

Gizarte Zerbitzuak hortaz, azterketa hau burutzerakoan eskubide subjektiborik onartu ez duten neurrian ongizate-estatuko konfigurazioan bazterreko lekua izaten jarraitzen zuten. Ekimen pribatuaren parte hartzea hornikuntza publiko murriztuaren eskasien ondorioz agertzen da, baina modu ezberdinduan: mozkin asmodun enpresak nagusiki eskari kaudimenduneko sektoreetara bideratzen dute beren eskaintza, eta aldiz, gizarte-ekimeneko elkarrekin errendimendu apaleko sektoreetan dihardute, bereziki herri

erakundeengandik behar bezala artatzen ez diren sektoreetan. Era berean, aipagarria da *per capita* errentarik altuenak dituzten herrialdeetan aurkitzen direla gizarte-zerbitzu publikoen sarerik hedatuenak (tartean Euskadi) eta kontrara, pobrezia indizerik altueneko erkidegoetan nabarmentzen da erlatiboki *Cáritas* eta Gurutze Gorria bezalako erakundeen jarduna.

Gizarte-zerbitzuen berezko ezaugarri horiez gain, Euskadik gainerako gizarte-ongizateko sektoreetan praktikan jarritako politika publikoen baturatik aurkezten da hurrengo irudia.

Irudia 10: Autonomia Erkidegoen sailkapena, dimentsio substantiboa



Iturria: Gallego et al, 2003:215

Bi analisi ardatz horien gurutzaketak Euskadi goiko eta ezkerreko koadrantean kokatzen du, hots, eskumen maila altuko eta politika diferentzial esanguratsuko erkidegoa da alde batetik (6. puntua ardatz bertikalean), eta gehiago lerratzen da oro har kudeaketa hertsiki publikoaren eredura merkatu bidezko kudeaketara baino (2. puntua ardatz horizontalean). Datu horiek, ordea, gure ikerketa objektuari dagokionean merezi dute

ñabardurarik, egileek nabarmenduko duten moduan, sei gizarte-ongizateko esparruetan neurri aitzindariak hartu izan dituzten arren (eredu diferentziala), gizarte-zerbitzuak eta enpleguaren esparruan ez baitira eredu hertsiki publikorantz gerturatu. Bi esparru horiei hezkuntza alorreko sare kontzertatuaren errealitatea batuz gero, ardatz horizontalean oraindik merkatu alderago kokatu behar ginateke, nahiz eta egileen iritziz hezkuntzara bideraturiko gastu publikoaren bolumen handiak eragin hori neutralizatzen duen.

Emaitza berdin antzekoak lortuko dira azterketaren maila operatiboa lantzen denean ere. Maila operatiboaren azterketan beste bi adierazle gurutzatzen dira: kudeaketa ereduen izaera batetik (ardatz horizontalean) eta kudeaketan parte hartzen duten gizarte-eragileen konposaketa bestalde (ardatz bertikalean). Lehen adierazleak gizarte-ongizateko zerbitzuen kudeaketa-eredua (antolakuntza-egitura, lan harremanak, kontratazio politikak) propioki sektore publikoarenak diren moldeetan egiten den aztertzen du (*eredu publikoa*) edo kontrara, sektore pribatuaren kudeaketa-ereduetara gerturatzen den gehiago (*eredu pribatua*). Bigarrenak aldiz, gizarte-eragileen (publiko zein pribatuen) nahasketa handia duen *eredu konplexua* jarriko du ertz batean, eta beste ertzean eragile ia guztiak sektore berekoak (publikoak zein pribatukoak) dituen *eredu simplea*.

Maila operatiboko azterketa sektorialean gizarte-zerbitzuei dagokien errealitatea ez da gehiegi urruntzen maila substantiboan lorturiko emaitzetatik, hots, esparru hau bereziki nabarmenduko baita gizarte-eragileen eredu konplexuenetakoa izatean (eragile pribatu eta publikoen nahasketa handikoa, alegia) eta sektore pribatuarenak diren kudeaketa-ereduak agertzean.

Zentzu honetan, interesgarria deritzogu emaitza hori Roldán eta García-k (2006) eginiko lege autonomikoen analisiarekin kontrastatzea. Bi egileon iritziz, arestian aipaturiko bigarren belaunaldiko legeen berrikuntza nagusia ekimen pribatuaren esku hartzeari eginiko aitorten formalean baitatza. Ondorioz, legeetan jasotako parte hartze publiko-pribatuaren oreka ezberdinei dagokienean, egileon iritzian bi multzo nagusitan bana litezke estatuko Autonomia Erkidego guztiak:


Koadroa 16: Gizarte Zerbitzuen sistemaren ikuspegi publiko-pribatua Autonomia Erkidegoen legedian

Berariazko hautu publikoa	Hautu publiko-pribatu integratua
Gizarte Zerbitzuen erregimen publikoa edo sistema publikoa Erantzukizun publikoko Gizarte Zerbitzuen sistema	Sistema integratua Gizarte Ekintzako Sistema Gizarte Ekintzako Sistema Globala
Andaluzia Asturias Balear Uharteak Kanariar Uharteak Kantabria Gaztela-Mantxa Katalunia Extremadura Murtzia Valentziar Erkidego	Aragoi Gaztela-Leon Galizia Madril Nafarroa Euskadi Errioxa

Iturria: Roldán eta García (2006:65) (geuk itzulia)

Koadroan argiro ikusten denez, Euskadiko 5/1996 Gizarte Zerbitzuen Legean “erantzukizun publikoko Gizarte Zerbitzuen sistema integratuaren” aldeko hautua jaso zen berariaz. Honek bide eman zuen, alde batetik ordura arte zerbitzu horietan ziharduten gizarte-eragileen jarduna aitortzeko batetik, baina baita eragile pribatu berrien sarrera ahalbidetzeko ere. Errealitate hori bera da Gallego et al-ek (2003) analisi operatiboaren emaitzetan erdietsiko dutena, Euskadi konplexutasun handiko sistema gisa definituko baita.

Irudia 11: Autonomia Erkidegoen sailkapena, dimentsio operatiboa



Iturria: Gallego et al, 2003:221

Konplexutasun hori gizarte-ongizateko sei esparruetatik bostetan emango da Euskadin (5. puntua ardatz bertikalean), osasungintzan salbu (eredu publiko sinplekoa berau). Era berean, kudeaketa-ereduei dagokienean, gizarte-zerbitzuen esparruan, enpleguan eta hezkuntzan bezalaxe, kudeaketa-eredu pribatuak gailenduko dira, osasuna, etxebizitza eta gutxieneko errentak eredu publikotik kudeatuko diren bitartean (3. puntua, erdibidekoa, ardatz horizontalean).

6.1.2 Euskadiko Gizarte Zerbitzuen kokapena ongizate-erregimen autonomikoen testuinguruan

Gizarte-ongizate esparru gehienetan, eta bereziki Gizarte Zerbitzuen esparruan, argiro azaldu da orain arteko analisietan konplexutasun handiko sistemak direla parte hartzen duten gizarte-eragileei dagokienean: alde batetik, arlo publikoan maila anitzeko gobernu-organismoek eragiten dutelako eskuduntza maila ezberdinarekin, eta beste aldetik, ekimen pribatuak parte hartze esanguratsua duelako, neurri txikiagoan zenbait


esparrutan (osasunean, etxebizitzan edo gutxieneko errenten esparruan, esaterako) baina oso modu esanguratsuan Gizarte Zerbitzuen alorrean.

Honek, lehen begiratuan, sistema misto baten existentzia agerrarazten du. Adelantado eta Jimenez-ek (2003:176) sistema misto honen ezaugarri nagusia eragileen arteko halako banaketa funtzional baten bidez azaltzen dute: i) merkatuko enpresak eskari kaudimenduna topa litekeen sektoreetan kontzentratuko dira, esaterako pertsona nagusien egoitza-zerbitzuetan; ii) gizarte-ekimeneko erakundeak, aldiz, mozkin asmorik gabekoak alegia, beren jarduna errentagarritasun ekonomiko ahuleko sektoreetara bideratzen dute, eta; iii) sektore publikoak bere aldetik gutxieneko zerbitzu bat eskaintzen du sektore ezberdinetan, eta eskaintza publiko mugatu hori bestelako eskaintza pribatu batekin osatzen du, normalki prezio publikoen bidezko ituntzea eginez enpresa pribatuekin eta diru laguntzen mekanismoa erabiliz gizarte-ekimeneko eragileekin.

Baina analisisian zehaztasun handiagoa sartze aldera, Gizarte Zerbitzuen sistema misto publiko-pribatua bainoago, marko teorikoan landu dugun erregimenaren ideiarra gerturatuko gara gehiago. Ongizate-erregimenaren ideiak, ongizate indibidual eta kolektiboaren hornikuntzan, esfera publiko eta pribatuaz (merkatukoa) gain beste bi esfera ere kontuan hartzen ditu: komunitarioa (gizarte-sareak) eta familiarra, hain zuzen ere.

Idea honi eutsiz defendatzen dute Gallego et al-ek (2003), Europako herrialdeekin egin dugun modu bertsuan eskema berdinarekin sailkatu genitzakeela “ongizate-erregimen autonomiko” ezberdinak ere. Modu honetan, arestian aurkezturiko analisi substantibo eta operatiboak kontuan hartuz, aipaturiko egileok ongizate-erregimen ezberdinak marrazten dituzte bai gizarte-ongizateko esku-hartze esparru ezberdinentzat, eta baita aztertuturiko autonomia-erkidego bakoitzarentzat ere.

Irudia 12: Ongizate-erregimen autonomikoak gizarte-politiken esparruen arabera



Iturria: Gallego et al, 2003:227

Analisia beti ere Gizarte Zerbitzuen esparrura bideratuz, hautaturiko 7 erkidegoen errealitateak aztertuta ondorioztatuko dute zerbitzu horien erantzukizuna nagusiki familia esparrua eta merkatuko eragileen artean banatzen dela, esparru publikoaren esku hartzearen ahultasunak eraginda neurri handi batean. Gizarte-zerbitzuena, beraz, bere garapenean bilaturiko sare publikoaren ideiatik nahiko urrun geratu dela ondorioztatuko genuke, nahiz eta Euskadiren kasuan eta gizarte-zerbitzuen alor konkretuetan sektore publikoaren eta gizarte-ekimeneko eragileen papera oso garrantzitsua izan dela argudiatuko dugun aurrerago.

Analisi eskema bera Autonomia Erkidegoen esparrura eramanez, Euskadiren erregimena definitzen duten bi erpin nagusiak sektore publikoa eta gizarte-sareak direla ondorioztatzen dute egileok. Euskadiren azken urtetako gizarte-politiken ezaugarri nagusien artean bi leudeke, hortaz: alde batetik sektore publikoaren parte hartze hazkor eta garrantzitsua eta beste aldetik elkartegintzazko ehun indartsu eta dinamiko bat, bai

biak oraintsuagokoak eta Euskadiko esparruko gizarte-zerbitzuen sarea arautzen dutenak: “12/2008 Gizarte Zerbitzuen Legea” eta “18/2008 Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legea”, hain zuzen ere.

Lehen lege horren elementu nagusiak eta horien inguruko ikuspuntu kritikoak sakonki aztertu ditugu datozen lerroetan. “18/2008 Gizarteratzeko eta Diru *Sarrerak* Bermatzeko Legeari” dagokionean, berriz, gizarte-zerbitzuen esparruan zenbait hobekuntza ekarri arren, soilik eragiten dio prestazio ekonomikoen esparruari, eta ez soilik pertsona nagusiei bideraturiko prestazioei. Honez gain, azken aldiko eskumen eskualdatzeen ondorioz, lege horrek araturiko prestazio guztiak Enplegu Sailaren baitako Lanbide herri-zerbitzuaren bitartez kudeatzera igaro dira, eta hortaz, Gizarte Zerbitzuen sistemaren baitako prestazio propio izateari laga diote. Arrazoi horiengatik guztiengatik, eta gure ikergaiaren mugak gainditzen dituen legea dela iritzita, jarraian ez dugu lege honen analisisirik erantsiko.

Bai ordea, “12/2008 Gizarte Zerbitzuen Legearen” analisia. Lege honek funtsezko aldaketak sartu ditu Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari, eta berau indarrean jarri aurreko egoeraren trazu nagusiak azaldu ostean, legearen elementu nagusien azterketa da jarraian garatuko dena, beti ere gure ikergai zentralari leial mantenduz, hots, lege honek ekarri duen berregituraketa publiko-pribatuaren analisiari, alegia.

6.2.1 12/2008 Legearen aurreko bilakaera normatiboaren mugarri nagusiak

Euskadik mugarri normatibo garrantzitsuak ezagutu ditu 1982an bere Gizarte Zerbitzuen lehen legea onartu zuenetik gaurdaino, arestian aipatu bezala, herrialde europar aurreratuetako eredu progresistetan oinarrituriko lege hartatik gaur arte.

Sotelo-k (2005) zehatz aztertzen duen gisan, ordea, Gizarte Zerbitzuen sistema bere bilakabidean 6/1982 Legearen izpiritutik aldentzen joan da progresiboki, honen aurrerantzeko erregulazioa finkatu duten hiru arau nagusiren eraginez: 1983ko Lurralde Historikoen Legea izarte Zerbitzuen 5/1996 Legea eta geroztik onarturiko 155/2001 Dekretuaren eraginez, hain zuzen ere. Jarraian lege horien errebaso azkar bat egingo dugu, nagusiki gure ikergaiari gertuenetik eragiten dieten puntu esanguratsuei

erreparatuz: (pertsona nagusientzat) hedaturiko zerbitzu eta prestazio nagusien definizioa, horien esleipenerako herri-erakundeen artean emandako banaketa funtzionala eta egitura horren baitan, ekimen pribatuaren (eta bereziki hirugarren sektorearen) garrantzia eta parte hartze modua.

Esan bezala, 1978ko espainiar konstituzioaren baitako Euskadiko Autonomia Estatutuan jasoa geratzen da gizarte-laguntzaren gaineko eskumen eskusiboa Euskadiko Autonomia Erkidegoari (EAE) dagokiola. Eskumen horien egikaritzearen ondorioz onartu zen 1982an lehen Gizarte Zerbitzuen Legea, zeinak zerbitzu horien kudeaketa politiko eta administratibo moderno bat proposatu baitzuen, ongintzazko praktika zaharrak gainditu asmoz, eta zenbait printzipio progresistetan oinarritua: botere publikoen erantzukizuna, elkartasuna, parte hartzea, integrazioa, arreta komunitarioa, etab.

Lege hori bere egituratze instituzionalean oso modu nabarmenean baldintzatu zuen Lege berri bat aurki plazaratuko zen ordea, 1983ko Lurralde Historikoen Legea, hain zuzen ere. Lege honek Foru Aldundiei ezarri zien bere lurraldearen baitan gizarte-laguntzari loturiko instituzio komunak gaineko funtzio betearazlea, baita horien antolakuntzarako eta ikuskapenerako beharrezkoak diren araudiak onartzea ere. Oinarri horien gainean joan da gizarte-zerbitzuen euskal sarea hedatzen, 1996an Gizarte Zerbitzuen bigarren legeak (5/1996) marko berri bat proposatu zuen arte.

5/1996 Legeak berrikuntza ugari sartu zituen gizarte-zerbitzuen esparruan, baina denez gain bat aipatzekotan, hori Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen formalizazioa da, sistemaren oinarritzko unitate eta sarbide nagusitzat ulertuko delarik. Horretaz gain, Legeak Euskadiko hiru mailatako herri-erakundeen arteko funtzio banaketa bat proposatzen du, horietako bakoitzari egokitutako eskumen nagusiak definituz, jarraian agertzen den koadroak laburbiltzen duen bezalaxe:

Koadroa 17: 5/1996 Gizarte Zerbitzuen Legeak ekarritako berrikuntzak

Herri erakundea	5/1996 Gizarte Zerbitzuen Legeak egokituriko eskumenak
Eusko Jaurlaritzak	<ul style="list-style-type: none"> - Eginkizun arauemailea eta ekintza zuzena legez berari dagokion gizarte-zerbitzuen gain - EAEko gizarte-zerbitzuen Planifikazio Orokorra: lehentasunak ezarri, lurralde desorekak ekidin eta gutxieneko babes mailak bermatu. - Maila ezberdinetako herri-erakundeen zein itundutako ekimen pribatuaren jardueren Koordinazioa - Gizarte-zerbitzuen Ordenazioa: zentroyen funtzionamendu arauak, pertsonalaren trebakuntza bermeak eta baimen, itun, homologazio eta ikuskapen arauen ezarpena. -
Foru Aldundiak	<ul style="list-style-type: none"> - Berezko zerbitzuen gaineko arautegiaren eskumena - Bere lurraldearen baitako gizarte-zerbitzuen Programazioa, beti ere Eusko Jaurlaritzak eginiko planifikazioari doitua eta udalen programazioarekin adostua. - Gizarte Zerbitzu Espezializatuaren sorkuntza, mantenu eta kudeaketa - Berezko zentro eta zerbitzuetako programen gaineko kontrola eta ikuskapena - Bere lurraldearen baitako gizarte-beharrizanen azterketa eta zehaztapena. - Udalei zein hitzartutako ekimen pribatuari aholkularitza eta laguntza tekniko ematea - Bere lurraldean finkaturiko izaera pribatuko zentro eta zerbitzuen baimen eta homologazioa -
Udalak	<ul style="list-style-type: none"> - Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen sorkuntza, antolakuntza eta kudeaketa - Larrialditako harrera zerbitzuak eskaintzea - Udal gizarte-zerbitzuen programazioa, beti ere Eusko Jaurlaritzak planifikatuari eta Foru Aldundiak programatuari doitua. - Elkartasuna eta hiritarren parte hartzea bultzatu - Udalerri mailako gizarte-beharrizanen antzematea eta ikerkuntza -

Iturria: Sotelo-n (2005) oinarritua (laburpena eta itzulpena gurea)

Berrikuntza nagusietako bat beraz, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak udal eskumenekotzat eta Gizarte Zerbitzu Espezializatuak foru-eskumenekotzat bereiztean datza, baina horretaz gain, 5/1996 Legeak beste zenbait berrikuntza ere ekarri zituen: unibertsaltasun eta atentzio pertsonalizatuaren printzipioen aldarria, zerbitzuen finantzazioan erabiltzaileen parte hartzeari buruzko erregulazio zehatzagoa, arau-hauste eta zigor sistema baten ezarpena, etab.

Nolanahi ere, gure ikergai nagusiari dagokionean berrikuntza oso esanguratsua ekarri zuen 5/1996 Legeak: ekimen pribatuaren kontrolerako sistema baten oinarriak zehaztu zituen, baimen administratibo, ikuskapen eta itunerako araudia ezarriz, eta azken honetan, itunen erregulazio markoan, mozkinaz besteko erakundeak lehenestea hobesten da efizientzia, kalitate eta kostuen baldintza berdintsuak ematen diren kasuan.

Gainontzean, eta bigarren legea eskumen banaketen argipenerako saio garrantzitsutzat jo badaiteke ere, herri-erakunde inplikatuaren iritzian funtzio konkretuak esleitzerako orduan ez zen batere eraginkorra izan. Hargatik onartuko da urte batzuk aurrerago 155/2001 Dekretua, zeinak gizarte-zerbitzuen gaineko funtzioen zehaztapen berri bat

proposatuko baitu. Dekretu berri honek hankaz gora jarri zituen ordura arteko Foru Aldundi eta Udalen arteko funtzio banaketak, eta bi printzipio nagusi ezarri zituen: lehenak, funtzio bakoitza herri-erakunde bakar bati dagokiola ezarriko du (5/1996 legeak onarturiko delegazio eta enkargu prozeduren kaltetan izan gabe); bigarrenak mendekotasun maila ezarriko du eskumen banaketaren irizpide nagusizat, honela Foru Aldundiena izango delarik aurrerantzean mendekotasun egoeraren bat agertzen duten pertsonentzako arretaren ardura, eta udalena berriz mendekotasunik gabeko pertsonen arretarena.

Horiez gain, Dekretuak funtzio zehatzagoen honako banaketa proposatzen zuen:

Koadroa 18: 155/2001 Dekretuak ekarritako berrikuntzak

Herri erakundea	155/2001 Dekretuak ezarritako funtzio banaketa
Eusko Jaurlaritza	<ul style="list-style-type: none"> - Oinarrizko Errentaren prestazioa - Gizarte-larrialdiko laguntzen prestazioa - Familia ugariko txartelen jaulkipen eta berritzea
Foru Aldundiak	<ul style="list-style-type: none"> Persona nagusiei bideraturiko Gizarte Zerbitzu Espezializatuak - Mendekotasunaren balorazioa - Mendekotasuna duten pertsonen aisialdirako programak - Eguneko Zentroak - Denboraldi baterako egonaldiak - Mendekotasuna duten pertsona nagusientzako egoitzak - Familia-harrera - Ingurune fisikoaren egokitzapenerako eta laguntza teknikoetarako programak - Prestazio ekonomikoen kudeaketa
Udalak	<ul style="list-style-type: none"> Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak - Informazio, balorazio eta orientazio zerbitzuak - Etxegunetara bideraturiko laguntza zerbitzuak: Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua, Tele-asistentzia, Bizikidetzat alternatiboko formulak - Gizarte-prestazioen tramitazioaren kudeaketa: Gizarte-Larrialdiko Laguntzak, Urgentziazko Laguntzak, etab. -

Iturria: Sotelo-n (2005) oinarritua (itzulpena eta laburpena gurea)

Aipaturiko hiru mugari nagusi horiez gain, beste bi arautegi ere aipatzea beharrezko ikusi dugu, gure aztergaiarekin duten zerikusi zuzena dela eta: lehenak, 40/1998 Dekretua, zeinak gizarte-zerbitzuen hornikuntzan diharduten erakunde, zentro eta zerbitzuen ordenazio arauak zehazten dituen, eta bigarrena pertsona nagusiei zuzenki bideraturiko arautegi sektorialak. Lehen dekretuak, titulartasun pribatuko zentroen gaineko baimen administratiboa, erregistroa, homologazioa eta ikuskapena erregulatzen ditu, beti ere egiteko hori herri-erakundeen eskumenekotzat joz, eta horien planifikazio eta zerbitzuaren ezaugarrien eskakizunetara hobekien doitzeko berme-baldintzak ezarriz.

Bigarrenik alor sektorialean, pertsona nagusiei zuzenki eragin izan dieten araudi nagusiak hauexek lirateke:

- 218/1990 Dekretua, pertsona nagusien egoitza-zerbitzuen gutxieneko baldintza material eta funtzionalak erregulatzen dituena
- 1994ko Euskadiko Gerontologia Plana
- 4/1998 Dekretua, hirugarren adineko egoitza-zerbitzuen gainekoa (arestian aipaturiko 40/1998 Dekretuarekin aldi berean onartua)
- 202/2000 Dekretua, pertsona nagusientzako eguneko zentroen eskakizunak ezartzen dituena.
- EAEko Plan Sozio-sanitarioak, 2001ekoa, 2005-2008 artekoa, etab.

6.2.2 12/2008 Legearen aurreko egoeraren diagnostikoa

Azal ditzagun labur bada ere 12/2008 Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Legea onartu baino lehenagoko diagnostikoaren giltzarri nagusiak.

Lehenik eta behin, 2008. urtera arte Euskadiko Gizarte Zerbitzuetan emaniko bilakabidearen datu batzuk aipatu behar lirateke, sektore honek azken hogeitertan izaniko berealdiko hazkundearen isla argia baitira. 1988ko oinarri urtetik: i) Gizarte Zerbitzuen esparruan diharduten langile propioen kopurua ia laukoiztu egin da, sei mila pertsona eskasetik ia 23.000 pertsona izatera igaro baita; ii) epealdi berean biztanleko gastua 8,7 aldiz biderkatu da eta gastu horrek BPG-arekiko suposatzen duena %1ekoa izatetik %2,4koa izatera igaro da, hazkunde bereziki nabarmena emanik 2000-2006 urte artean (%40koa, hain zuzen ere); iii) 1994 urtetik hona, egoitzetako plazen estaldura 1,6 aldiz biderkatu da, eta Etxez Etxeko laguntzarena 3,3 aldiz; ii) eguneko zentroena estaldura maila, berriz, ia boskoiztu egin da 1988-2006 epealdian (Gizarte.doc, 29:2, 2009)

Datu horietatik guztietatik ondoriozta litekeenez, gizarte-zerbitzuen esparrua gizarte-babeseko esparrurik gazteena izanagatik ere erritmo izugarrian handitu da azken hogeitertan eta hortik eratoritzen dira neurri handi batean sistemak gaur egun dauzkan ahulezia nagusiak. Fantova-ren irudiko (2006) lehen horri lotzen zaio esparruak

agertzen duen desegituraketa maila, izan duen hazkunde desantolatuari, alegia. Honela, gizarte-zerbitzua bere artean gaizki koordinaturiko zatien metaketa gisa handitzen joan dela esaten du. Horrez gain, beste bi elementuk eragiten dute, egilearen iritzian, sektoreak bizi dituen egituratze zailtasunetan: maila anitzeko gobernazioa batetik, eta ekimen pribatuaren (bereziki gizarte-ekimeneko eragileen) parte hartze esanguratsua bestetik.

Lehen esparru horren baitan, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiek eta Udalerriek pisu ezberdinekin osaturiko sareaz gain, Mendekotasun Legeak Estatuko Administrazio Orokorrari emaniko pisu handiagoa gehitu behar litzaioke. Bigarrenari lotuta, gizarte-ekimeneko eragileek gizarte-zerbitzuen hornikuntzan historikoki izaniko garrantzia faktore ahaztezina da egungo egituraketa ulertzeko, baita azken hamarkadan emaniko joera aldaketa ere, gizarte-ekimeneko eragileek pisua galtzen baitoaz mozkin asmodun eragileen mesedetan (Fantova, 2006:12). Hargatik ondorioztatzen du ikerlari honek gizarte-zerbitzuen sektoreak kanporatzen duen irudia formazio bidean den sistema heldu gabe batena dela, konplexua parte hartzen duen eragileen aniztasunagatik eta desegituratua bizi izandako hazkunde desantolatuagatik.

Dena den, eta legearen aurretiko diagnostikoarekin jarraituz, Fantova-k (2006) argudiatzen du anitzak izanagatik ere antzematen diren gizarte-zerbitzuen inguruko diskurtsoak, badirela zenbait gutxieneko komun adostasun maila zabal bat erdiesten dutenak EAEko gizarte-zerbitzuen esparruan diharduten eragile politiko-ekonomiko eta sindikalen artean. Adostasun zabal hori, egilearen irudiko sistema misto baten egokitasunean oinarritzen da bereziki, non erantzukizun publikoaren zentraltasunarekin batera egokitzen jotzen baita esparru familiarren parte hartzea, baita gizarte-ekimeneko eta elkarre boluntarioena ere, eta baita erabiltzaileen nolabaiteko parte hartzea ere sistemaren finantzaketan (nahiz eta honek beti behar lukeen eta zein gradutan behar lukeen ez den adosterik lortu); aldi berean, gizarte-zerbitzu pribatuaren eta erantzukizun publikoko zerbitzuen kudeaketa pribatuaren gaineko erregulazioa ere beharrezkotzat jotzen da guztien partetik. Sistema mistoaren ezarpenaz gain, adostasun maila altua eskuratzen duen beste puntu bat gizarte-zerbitzuetarako eskubide subjektiboen aitortzaren afera litzateke.

Fantova-k (2006) identifikatzen dituen adostasun eremu zabal horiek urtebete lehenago argitaraturiko eztabaidarako txosten batean dute oinarri, *Situaciones y Perspectivas del Sistema Público de Servicios Sociales en la CAPV (2005)* txostenean hain zuzen ere, non Euskadi mailako gizarte-zerbitzuetako zenbait aditu esanguratsuk parte hartu baitzuen, 2008an onartuko den Gizarte Zerbitzuen hirugarren legearen aurrekari eta oinarri nagusitzat jo izan den eztabaidarako dokumentuan. Bertan, Fantova-k (2005) koordinatu eta idatziriko hitzaurrean, sistemak ordura arte dituen ahuleziak gainditzeko orientabide nagusiak eskaintzen dira.

Lehenik eta behin, Euskadiko gizarte-zerbitzuen hobekuntzak bestelako hiru aldagai makroren testuinguruan aplikatu beharko direla ohartarazten da: Lurralde Historikoen Legea batetik, Udalen Finantzazio Sistema bestetik eta Mendekotasun Legea, azkenik. Dokumentuan proposatzen diren berrikuntzek, beraz, hiru herstura nagusi horien baitan aurkitu beharko dute kabiera.

Berrikuntza nagusien artean aurki litezke, unibertsaltasunaren aldeko hautua (zeina ez den zerbitzuen doakotasunarekin nahastu behar, zenbait prestaziotarako ordainketa partekatua sistema hobesten baita), gutxieneko zerbitzu eta prestazioen Kartera baterako lehen proposamen-zirriborroa, eredu komunitarioan sakontzearen aldeko hautua (Udalei eskumen gehiago emanaz baina baita zaintzaile informalei, boluntarioen elkarteei, eta oro har erabiltzaile eta beren familiei ere), edota gizarte-zerbitzuetarako eskubide subjektiboen aitorpena barneratu beharra nabarmentzen dira.

Gure ikergai nagusiari dagokionean berriz, hau da, Gizarte Zerbitzuen Sistemaren egituraketa publiko/pribatuaren aferari helduz, ordura arteko ibilbidearen analisi kritikoa burutzen da: asko egin bada ere sistema publikoa eta pribatuaren arteko ezberdintze eta argitze bidean, oraindik orain itun-politikan irizpide eta mugak gehiago argitzeko beharra ikusten da, sistema misto baten konfigurazioan kudeaketa publiko zuzenak gaitasun metatua izatea garrantzitsutzat jotzen baita (Fantova, 2005:27).

Kudeaketa zuzena ez alboratzeaz batera, eskaintza itunduaren gaineko eskakizun publiko handiagoak (baimentze, homologazio, ikuskapen, ebaluazio edo kalitatearen

bermea bezalako alorretan) eta era berean egonkortasun handiagoa beharrezko direla hautematen dute. Azkenik aipamen berezia egiten zaio gizarte-ekimeneko hirugarren sektoreari, ez bakarrik herri-erakundeekin itundutako zerbitzuen hornitzaile paperean duen presentziagatik, baita erantzukizun publikokotzat jo ez daitezkeen bestelako programa eta berrikuntza-ekimenetarako duen gaitasun bereizgarriagatik ere.

Diagnostiko eta definizio mailan lorturiko adostasun horiez gain, beste zenbait gizarte-elementuk bizkortuko dute berrikuntza horiek aplikatzeko lege berri bat premiazkotzat jotzea, 12/2008 Legearen zioen azalpenean jasoak geratzen diren moduan. Horien artean leudeke, batetik 90eko krisi industrialaren gaituta XXI. mendeko lehen urteetan bizi izandako abagune ekonomiko oparoaren konstatazioa, zeinak bide eman baitu baliabide gehigarriekin kontatu ahal izateko (jakina, legea onartu eta gutxira lehertutako krisi ekonomikoaren aurreko garaiaz dihardugu). Bestetik, beren autonomia pertsonalean mugapenak dituzten norbanakoen hazkundera eta aldakuntza kualitatibo bat ere detektatu da, nagusiki mendekotasun-egoeran diren pertsonen zaintza beharren hazkundera eta sare informalen ahultze progresibotik eratorria. Bestalde, bestelako kolektibo berri batzuen zaurgarritasun egoera berriak agertzen hasi dira, modu kronikoan luzatzen direnak, besteak beste etxebizitza faltagatik edo lan prekariotasunagatik kolpaturiko gazte, emakume eta etorkinen kolektiboena edota bakartasunean eta isolamenduen bizi diren pertsona nagusia etab. Azkenik, gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren ildoan emaniko aurrerapausoek gizarte-zerbitzuak ere horietara egokitzea eskatzen du, eta egokitzeaz gain eragitea, emakumeen gizarte-integrazioan lagundu eta emakumeei bizkarreraturiko zaintza lanen karga arintzea ahalbidetuz.

6.2.3 12/2008 Legeak ekarritako berrikuntza nagusiak

Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legea, arestian aipaturiko hutsune horiei erantzun asmoz eta gertueneko beste lege batzuek bultzaturiko izpirituari eutsiz ulertu beharko da. Honela, lehenago Mendekotasun Legeak egin bezala, Euskadiko 12/2008 lege honen elementu zentral nagusia gizarte-zerbitzuetarako eskubidea, eskubide subjektibotzat aldarrikatzea izan da. Legeak, halaber, eskubide hori egingarri bilakatzeko bi mekanismo nagusi ezartzen ditu: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema, batetik, eta honek eskainiko dituen Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoa bestalde.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren konfigurazioari dagokionez, legeak halaxe dio hitzez hitz:

“erantzukizun publikoko arreta-sare antolatu gisa eratzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema, titulartasun publikoko eta pribatu itunduko prestazio, zerbitzu eta ekipamenduaz osatutako sistema gisa, eta pertsona, familia eta talde guztien gizarteratzearen eta autonomiaren alde egitea du xede¹⁰⁰; sustatzeko, aurreikusteko, babesteko eta laguntzeko eginkizunak betez gauzatu nahi du xede hori, funtsean pertsoneri eta harremani buruzkoak diren prestazio eta zerbitzuen bidez” (EHAA 246. zk, Zioen azalpena:31847).

Lehen ondorio gisa, hortaz, nabarmendu liteke legeak ez duela gizarte-zerbitzuen esparrua sektore publikoaren monopoliozko esparru gisa ulertzen, baizik eta erantzukizun publikoan sakondu beharreko esparrutzat (Fantova, 2009).

Lehen ezaugarri horri loturik dator bigarren hau ere:

“Gizarte-zerbitzuen euskal sistema bat finkatu eta haren xedeak gauzatuko badira, Euskal Autonomia Erkidego osoan prestazio eta zerbitzu berberetz baliatzeko aukera bermatzeaz gain, zerbitzuen eta zentro publikoen eta pribatu itunduen sare bat indartu eta sendotu behar da, eta, horretarako, erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzuak eskaintzeko berariazko hitzarmen-araubide bat ezarri behar da, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioak eta erakunde pribatuak, batez ere irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimenekoak badira, elkarlanean aritzeko beste formula batzuen kalterik gabe” (EHAA 246. zk, Zioen azalpena: 31846).

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren izaera mistoa aitortu ostean, sistemaren printzipioak (7. artikulua), erabiltzaile eta profesionalen eskubide eta betebeharrak (9-13. artikulua), sistemak eskaini beharreko prestazio eta zerbitzuak (II Kap. 14-28 artikulua.), sistemaren egituraketa (II. Kapituluak, 28-31. artikulua.), planifikazioa (III. Kap, 35-38. artikulua), koordinazio eta eskumen erregimena (III. Titulua), finantzazioa

¹⁰⁰ Esaldi honek badu bere garrantzia, gizarte-zerbitzuen kontzeptualizazioan funtsezko aldagai izateaz batera, arestian aipaturiko 155/2001 Dekretuak ekarritako ondorio kaltegarriak gainditzea proposatzen baitu, hitzez hitz esaten baita: “Arlo horretan diren formulaziorik aurreratuenekin bat etorrira, beharri beren izaeraren eta ezaugarrien arabera erantzuteko sistema bat ezartzea hautatu da, gizatalde ezberdinei erreparatuz egituratu beharrean; horrek ez du esan nahi, inolaz ere, gizatalde horiek babesik gabe uzten direnik, edo ez direnik kontuan hartzen, sistemaren esparruaren barruan, eragin ahal dizkieten berezitasunak.” (EHAA 246. zk, Zioen azalpena: 31847). Ikusten denez, Mendekotasun Legeak hasitako ez-sektorializazioaren bidean sakontzen jarraitu da.

(IV. Titulua) eta ekimen pribatuaren esku hartzea (V. Titulua) arautzen ditu legeak, besteak beste.

Legea bere osotasunean erreproduzitu gabe, gure orain arteko analisisian elementu berriak diren horietan zentratuko gara nagusiki. Sistemaren printzipioei dagokienean, orain arte aipatutakoez gain (erantzukizun publikoa, unibertsaltasuna, berdintasuna, gertutasuna, atentzio pertsonalizatua, etab) legeak bereziki eragin nahi du sistemaren eredu komunitario baten alde (8. artikulua), pertsonen parte hartzeaz diseinaturiko arreta pertsonalizatua eta beren ohiko ingurunean emandakoa bilatuz.

Prestazio eta zerbitzuei dagokienez, legeak sistemak eskaini beharreko Katalogo bat ezartzen du (22. artikulua), pintzelada lodiz marraztua izan arren, gehiegi zehaztu gabe horien ezaugarri teknikoak eta eskuragarritasun-irizpideak. Dena den, balorazio orokor bat egite aldera, legeak lehen mailako eta bigarren mailako arretako zerbitzuak definitzen jarraitzen du, lehen horien ia gehiengoa udalen eskumenekoa den oinarrizko gizarte-zerbitzuei egokituz, eta bigarrenak Foru Aldundien eskuetara igaroz.

Zerbitzuei dagokienez, arestian jorraturiko lau zerbitzu nagusiez gain (Tele-asistentzia, Etxez Etxeko laguntza Zerbitzuak, Eguneko Zentroak eta Egoitzak) bestelako zenbait zerbitzu ere definitzen dira, udalen eskumenekoa dira (Etxez-etxeko laguntza zerbitzuaz gain): i) informazio, balorazio, diagnostiko eta orientazio zerbitzuak; ii) pertsona zaintzaileei laguntzeko zerbitzuak; iii) eguneko zein gaueko arretako zerbitzuak, zein iv) bestelako ostatu zerbitzuak ere (harrera-etxe, etxebizitza eta apartamentu babestuak edota etxebizitza komunitarioak), besteak beste. Bestalde, Foru Aldundien eskumenekoa dira (egoitzak eta eguneko zentroez gain): i) mendetasuna, ahalmen-urritasuna, bazterketa eta babesgabetasuna baloratzeko eta diagnostikatzeko zerbitzua; ii) atsedenerako zerbitzua; iii) gizarte-larrialdietarako koordinazio-zerbitzua, eta; iv) bigarren mailako arretako beste zerbitzu batzuk ere.

Prestazio ekonomikoari dagokienean berriz, legeak beste bost prestazio nabarmentzen ditu, propioki gizarte-zerbitzukoaren esparrukoak liratekeenak: i) gizarteratzea eta/edo autonomia errazteko eta gizarte-larrialdietan erantzuna emateko prestazioak, ii) beren kasa laguntzen dihardutenei sostengua eta ordaina emateko prestazioak. iii) baliabide

teknologikoak eskuratzeko laguntzak; iv) pertsonen zerbitzuetarako prestazioak; v) beste prestazio ekonomiko batzuk. Horietako batzuk Mendekotasun Legeak ezarritako prestazioen antzerakoak diren neurrian, ikusteke dago nola burutuko den bi prestazio-sistemen arteko bateratzea.

Katalogoan zehazturiko zerbitzu eta prestazio horien guztien ezaugarriak zehatzago definitzeko eta eskuragarritasun irizpideak ezartzeko legeak Kartera delako baten elaborazioa egitea aurreikusten da eta epemuga bat jarri legea onartzen denetik, zeina arazo teknikoekin zerikusirik ez duten bestelako arrazoi politikoengatik nabarmen atzeratzen ari baita (Gizarteratuz, 02:8, 2010).

Hirugarren lekuan Sistemaren egituraketa da legeak xehatzen duena Euskadiko hiru mailatako herri-erakundeen arteko eskumen banaketa zehaztuz, 1996ko legetik hona ezarrita dagoen eta arestian aipatu den eskema orokorrari jarraituaz: lehen mailako arreta zerbitzu gehienak udalen gizarte-zerbitzuen eskumen lirateke eta bigarren mailakoak Foru Aldundienak. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzari bestelako planifikazio zereginak egokitzen zaizkio, nagusiki Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa (35. artikulua) eta Gizarte Zerbitzuen Mapa (36. artikulua) elaboratzea, eta horretan oinarrituz burutuko dituzte Foru Aldundiek zein udalek beren plan estrategiko eta mapa propioak ere.

Planifikazioaren esparruan ekimen pribatu eta publikoaren parte hartzearen inguruko orientabide batzuk ere markatzen dira:

“betiere bermatu egin beharko du zuzeneko kudeaketa publikoaren bidez egingo direla bai sisteman sartzeko prestazioak eta eskaerak lehenengoz jasotzekoak, bai eta kasu-koordinazioari zuzenean lotutako prestazioak ere esku-hartzearen oinarritzko prozedura modura –bereziki balorazioa, diagnostikoa eta orientazioa–.

Eta aurrerago gehituko duenez

“(…) plangintzak ezarri egingo du, esparru honetan eta izaera orokorraz ezarriko ere, bai kudeaketa publikoa eta bai gizarte-ekimenaren bidezko kudeaketa beti gailen izango direla Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoan aurreikusitako zerbitzuak eta prestazioak ematean”(EHAA 246.zk., Zioen azalpena: 31848).

Azkenik, 12/2008 Legeak herri-erakundeen arteko eskumen banaketa zehatzagoa proposatzen du jarraian aurkezten dugun taulan laburbildu duguna:

Koadroa 19: 12/2008 Gizarte Zerbitzuen Legeak ezarririko funtzio banaketa

Herri erakundea	12/2008 Legeak ezarririko funtzio banaketa
Eusko Jaurlaritza (40. artikulua)	(...)erregelamenduak egiteko ahalmena: zentro nahiz zerbitzuen baimentzeak, erregistratzeak, bateratzeak, homologazioak eta ikuskaritzak arautzea, Prestazio eta Zerbitzuen Kartera egitea eta onartzea, erabiltzaileek dohainekoak ez diren prestazioak eta zerbitzuak ordaintzen noiz nola parte hartu behar duten jakiteko irizpide orokorrak arautzea.... - Euskadiko Autonomia Erkidegoan gizarte-zerbitzuen planifikazioa egitea - Eusko Jaurlaritzaren zuzeneko ekintzen artean dauden prestazioak eta zerbitzuak betetzea, adibidez, tele-laguntza zerbitzua. - Bere eskumeneko zerbitzuen prezio publikoak ezartzea, - Gizarte-ekintzaren hirugarren sektorea sustatzea, bai eta herritarren parte hartzea ere. - Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren koordinazio orokorra, prestazioak eta zerbitzuak Euskadiko lurralde osoan orekaturik garatu daitezen -....
Foru Aldundiak (41. artikulua)	- (...) beren zerbitzuak antolatzeke erregelamenduak egiteko ahal - Beren lurraldean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren bere eskumenekoak diren zerbitzuak antolatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan jasota dagoenaren arabera, - (...) bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuak eskaintzea, zuzeneko ekintza-eskumena dela-eta Eusko Jaurlaritzaren esku daudenak izan ezik - Bere eskumeneko zerbitzuen prezio publikoak ezartzea, - Arrisku larrian edo babesik gabe dauden adin gabekoak babesteko dauzkaten eskumenak. - Gizarte-ekintzaren hirugarren sektorea sustatzea, bai eta herritarren parte hartzea ere. (...) - (...)Dagokien lurraldean kokaturik dituzten jabetza pribatuko zerbitzu, zentro eta erakundeak baimentzea, eta beharrezkoa bada, homologatzea, eta, zerbitzu, zentro eta erakunde horiek direla-eta, edo beren titulartasunpekoak direla eta, ikuskaritza-lanak egitea -....
Udalak (42. artikulua)	- (...) beren zerbitzuak antolatzeke erregelamenduak egiteko ahal - Beren lurraldean, udalei dagokie Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako zerbitzuak, bere eskumenekoak, antolatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan jasota dagoenaren arabera - (...) oinarritzko gizarte-zerbitzuak sortzea, antolatzea eta kudeatzea - (...)Katalogoko lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuak eskaintzea, tele-laguntza zerbitzua izan ezik, Eusko Jaurlaritzaren eskumenpekoa da-eta. - Bere eskumeneko zerbitzuen prezio publikoak ezartzea, - Arriskuan dauden adingabeak babesteko dauzkaten eskumenak - Gizarte-ekintzaren hirugarren sektorea sustatzea, bai eta herritarren parte hartzea ere. (...) - Udal-eskumeneko zerbitzuak emateko zerbitzu, zentro eta erakundeak ikuskatu eta haien gaineko zigor-ahalmena erabiltzea, diren beren titulartasun pekoak, pribatu itunduak, kontratatuak, edo, hala balegokio, hitzarmen pekoak. -....

Iturria: Euskadiko Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legea (EHAA, 246 zk) (geuk laburtua).

Bestalde, herri-erakunde ezberdinen arteko koordinazio-organo nagusi bat ere ezartzen du: Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoa, alegia (44. artikulua), eta bestelako gizarte babeseko alorrekin lankidetzeta eta koordinazio erraztea bilatuko du, bereziki, esparru sozio-sanitarioan (46. artikulua).

Sistemaren egituraketaren azken alorra ekimen pribatuaren esku hartzea erregulatzen duena da (V. Titulua). Oro har, legeak zerbitzuak eskaintzeko lau modu aurreikusten

ditu: zuzeneko kudeaketa, itunak (legean aurreikusitako itun-araubidearen menpe), zeharkako kudeaketa (Administrazio Publikoaren kontratazioko araudiaren menpe), eta hitzarmenak irabazi-asmorik gabeko erakundeekin. Kasu guztietan, zerbitzu eta zentroen baimentze eta homologazioa eta baita lehenengo harrerako prestazioak ere (bereziki balorazioa, diagnostikoa eta orientazioa) kudeaketa publiko zuzenekoak izatera behartzen du legeak, gainerako aspektuetan ekimen pribatuak garaturiko baliabide eta gaitasunak profitatzea hobesten duen neurri berean.

Zuzeneko kudeaketa ez den kasu guztietan, izan itun bidezko modalitatean ala izan zeharkako kudeaketako kontratazio modalitatean¹⁰¹, legeak diskriminazio positiboko neurriak ezartzen ditu:

“administrazio publikoek lehenetsuna emango diete, eraginkortasuneko, kalitateko eta kostuko baldintza antzekoak daudenean, irabazizko izaerarik ez duten gizarte-zerbitzuak eskaintzen diharduten erakundeei.”

Eta bigarren puntu bezala gehitzen da:

“(…) erakundearen forma juridikoa alde batera utzita, diskriminazio positiboko neurriak aplikatuko dira, besteak beste, hain ibilbidean, honako neurri hauek benetan aplikatu dituzten erakundeentzat: i) Jardueraren emaitza ekonomikoak (...) zerbitzu eta zentroen etengabeko hobekuntzara bideratu izana; ii) Gizarte-egoera bereziki ahuleko pertsona, familia eta/edo taldeei zuzendutako zerbitzuak eskaintzea edo zentroak kudeatzea; iii) (...)zerbitzuari edo zentroari balioa eranstea, zerbitzuaren hartzaile diren pertsona, familia eta/edo taldeei zuzendutako beste prestazio, zerbitzu edo jarduera batzuekin lortzeko; iv) (...)personal kontratatuaaren ratio ezarriak hobetzea; v) Erasandako pertsonen parte-hartzea eta gizarte-boluntariotzako jarduerak aurreikustea, elkarlaguntzako jardueren bidez, zerbitzuaren edo zentroaren hartzaile diren pertsona, familia eta/edo beharizanak artatzeko, etab. (EHAA 246 zk, 65. artikulua: 31902).

¹⁰¹ Kontratazio atalean diskriminazio positiboko neurriez gain gizarte-klausulen ezarpena erregulatzen da: “Administrazio Publikoek, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko zerbitzuak kudeatzeko kontratuak esleitzeko prozeduretan, gizarte-klausula batzuk erantsi dituzte. Besteak beste, honi egingo diote erreferentzia klausulok: erakundearen aldetik arreta jarraituko eskakizuna betetzeari, zerbitzuaren izatasunaren arabera zehazten den denboran zehar, antzeko beharizanak dituzten pertsona, familia eta/edo taldeei, hau da, zerbitzuaren edo zentroaren hartzaile direnen antzeko beharizanak dituztenei arreta jarraitua, zerbitzu edo zentro horien kudeaketa esleitu nahi bada, eta bereziki aintzat hartuko da zerbitzua eman behar duen eremuan alde aurretik egon bada” (72.art.).

Legeak hortaz, hirugarren sektoreko eragileak lehenestez gain, horiei egokitu izan zaizkien praktiketara gerturaten diren gainerako enpresei ere zabaltzen die diskriminazio positiboko neurrien onuradun izateko aukera.

Halaber, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako erantzukizun publikoko zenbait zerbitzu eta prestazio hitzarmen eta lankidetzak akordio bidez eskaintzea onartzen du, (beti ere zerbitzuaren ezaugarriek horiek ituntzea ezinezko egiten duenean), eta horiek soilik irabazi-asmorik gabeko erakundeekin sinatzera behartzen (69, 70. artikulua). Azkenik, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Katalogoan sartuta ez dauden beste prestazio eta zerbitzu batzuk sustatzeko legeak diru-laguntzak emateko prozedura ezartzen du, beti ere irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeentzat gordez diru-laguntza horien onuradun izateko aukera (73. artikulua).

6.2.4 12/2008 Legearen komentarioa sistemaren publikotasunaren inguruan

Interesgarria iruditu zaigu 12/2008 legeari buruzko analisi hau Fantova-k (2009) eskaintzen duen analisi kritikoarekin amaitzea, sistemaren publikotasunaren inguruan kontuan hartu beharreko eztabaida nagusiak oso modu egokian jasotzen dituela iruditzen baitzaigu.

Autoreak aipatzen du legeak ezartzen duen sistema publikoaren ardatz nagusiak modu honetan laburbildu daitezkeela:

- Erantzukizun publikoko zerbitzutzat jotzen dira bai titulartasun publikoko zerbitzuak eta baita administrazio publikoek itundutako titulartasun pribatuko zerbitzuak ere.
- Titulartasun publikoko zerbitzuak izan litezke herri-erakundeek zuzeneko kudeaketaren bitartez hornituak, edo baita zeharkako moduan ere, ekimen pribatuaren (izaera sozial zein merkantilekoa) parte hartzea bideratuz, bai administrazio publikoen kontratazio araubidearen bidez eta baita irabazi asmorik gabeko erakundeekin eginiko hitzarmenen bidez ere.
- Zerbitzu publikoen esparruan argudio eta arrazoi ezberdinengatik lehenetsi egiten da kudeaketa publikoa (zuzenekoa) edo gizarte-ekimeneko erakundeen kudeaketa

(ahal denetan itun bidezkoa). Hala ere, zenbait prestazio, beren ezaugarriengatik, beti kudeaketa publikokoak izatea ezartzen du legeak, baita gizarte-ekimenetik ordura arte garaturiko gaitasunak probestea ere.


- Zerbitzu publikoen hornikuntzan ekimen pribatuaren esku hartzea arautzeko modu nagusi gisa itun-erregimen espezifiko bat ezartzea aurreikusten du legeak (zeina ez den nahastu behar kontratazio araubidearen baitan kontenplutzen den ituntze modalitatearekin).

- Itun-erregimenerako zein zeharkako kudeaketarako diskriminazio positiboko neurriak ezartzen dira, zeinaren bidez baloratu, aintzatetsi eta sustatu nahi diren zenbat gizarte-balio erantsi (ez direnak eskusiboki mozkinaz besteko erakundeen ondare, baina kasu askotan horien ekinbide-moduei lotuta azaldu izan dira).

- Pertsona erabiltzaileek ordainketa partekatuan bere gain hartu beharreko zatia mugatze aldera aurrerapausoak eman nahi dira, zentzu berean herri-erakundeen konpromisoak areagotuz.

Arestian aipatu ditugun puntu horietan nahasmen puntu bat egon liteke erantzukizun, titulartasun eta kudeaketa publikoaren nozioen artean. Fantova-k (2009) horiek ez parekatzearen beharraz ohartarazten du: titulartasunak ez du zerbitzuaren kudeaketarekin edo azpiegituren jabegoarekin zerikusirik, jarduera bat aurrera eramateko eskubidea eta betebeharra da adierazten duena. Hortaz, gizarte-zerbitzuen egituratze publikoaren eskema jarraian agertzen den moduan sailkatu liteke:

Irudia 14: Sistema publikoaren kudeaketa moduak



Iturria: Fantova (2009:90) (itzulpena gurea)

Egileak jarraitzen du esaten gizarte-zerbitzuen ibilbideagatik eta egungo abagune historikoak eraginda, 12/2008 legeak ere zuzeneko kudeaketa publikoak bazterreko tokia izango duen agertoki batetara garamatzala, ikuspuntu kuantitatibo batetik begiratuta batik bat. Hargatik ondorioztatzen du zuzeneko kudeaketa publikoa kualitatiboki erabakigarriak diren alorretan zentratu behar dela nagusiki, estrategikoki esanguratsuak diren esparruetan, alegia. Bere ustez legeak ezartzen ditu Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman ekimen pribatuaren eskuetara delega ezinak diren jarduera eta egiturak (ikus aurreko kapitulua), baina horrez gain, aipatzen du ez dela bilatu behar jadanik ekimen pribatuak eskaintzen duen zerbitzu baten eskaintza publiko paralelorik ezartzea. Kudeaketa publiko zuzeneko masa kritiko nahikoa mantendu beharra aldarrikatzen du erreferentziazko zuzeneko arretaren esparruetan, besteak beste, ezagutzaren kudeaketa esparruetan (ikerkuntza, berrikuntza etab.), eta baita kudeaketa prozesu nagusietan ere (planifikazioa, ebaluazioa, irudiaren kudeaketa, harremanen kudeaketa, etab.) ekimen pribatuaren aurrean posizio berrindartu batekin agertzeko.

Azkenik, hirugarren sektoreari edo gizarte-ekimeneko erakundeen inguruan ñabardura garrantzitsu bat gehitzen du. Nabaria da 12/2008 legea bere artikulatu osoan gizarte-ekimeneko erakundeak aitortu, babestu eta sustatzearen aldeko erreferentziez beteta dagoela. Honek bete betean bat egiten du gizarte-zerbitzuei eman nahi zaien eredu

komunitarioarekin, pertsona erabiltzailea ahalik eta denbora gehienez bere gertueneko espazioan eta gizarte-harremanen esparruan mantendu nahi izatearen helburuarekin, alegia. Hala ere ñabardura interesgarria egiten du hirugarren sektoreari atxiki izan zaizkion forma juridikoen erabilpenaren inguruan. Egilearen irudiko forma juridikoak geroz eta esangura ahulagoa du kontu guzti honetan, ez baitu inola ere bermatzen berez egotzi behar litzazkioken gizarte-balioak egiazki eskainiko dituenik. Hori hala da bi prozesu elkarloturen ondorioz: alde batetik gizarte-ekimeneko forma juridikoen erabilpen instrumental eta okerra egiten ari delako errealitate horrekin zerikusirik ez duen eragile zenbaiten aldetik, eta bestalde, gizarte-ekimeneko erakunde asko eta asko progresiboki elkartasunezko erakundeak ez diren logikez kolonizatuak izaten ari direlako (Fantova, 2009:94). Hargatik bilatu nahi izan da legean forma juridiko konkretu batzuk faboratu beharrean praktika konkretu batzuk (normalki gizarte-ekimeneko erakundeen praktikei lotu izan zaizkienak) lehenestea, izan forma juridiko bat ala beste.

6.3 EAE-ko pertsona nagusien zaintzara bideratutako gizarte-zerbitzuen datuei buruzko analisia titulartasun publiko-pribatuaren ikuspegitik


6.3.1 Eskaria: pertsona nagusien esangura EAE-ko gizarte-zerbitzuen testuinguruan

6.3.1.1 Biztanleriaren zahartzearen datu nagusiak

Aspaldikoak dira gizartearen zahartze-tasaren joera hazkorraren inguruko analisiak. Biztanleriaren zahartze-prozesu hazkor bat bizitzen ari gara azken hamarkadetan, biztanleriaren piramidearen bi muturretan ematen ari diren prozesu demografikoen baturak eraginda: bizitza esperantzaren hazkundera¹⁰² mutur batean (eta honek dakarren hilkortasun-tasaren eustea batetik) eta jaiotze-tasen erorketa bestalde. IMSERSO-k (Díaz Martín, 2009) emaniko azken datuen arabera, honakoa litzateke bi adierazleon azken 30 urtetako bilakabidea:

¹⁰² Gizonezkoen bizitza esperantza 1992an 73,2 urtekoa zen eta 2005an 77,2koa; andrazkoen kasuan 1992an 81,6 urtetako bizi esperantzatik 84,3kora igaro da datua (Díaz Martín, 2009: 619).


Grafikoa 5: EAE-ko saldo begetatiboa, 1975-2007



Iturria: Díaz Martín, 2009:614.

Bi ertzetan emaniko prozesu paralelo horiek, 2007 urterako EAE-ko biztanleriaren honako piramidea marrazten zuten:

Grafikoa 6: EAE-ko biztanleria sexua eta adinaren arabera: 2007



Iturria: Díaz Martín, 2009:616.

Prozesu horien ondorioz, 2007 urtearekin jarraituz EAE-n kontaturiko 65 urtetik gorako pertsonen zenbaki absolutuak honakoak lirateke:

Taula 2: Pertsona nagusiak EAE eta Espainian: datu absolutuak 2007

	Espainia			EAE		
	Guztira	>65 urte	%	Guztira	>65 urte	%
1991	38.872.268	5.370.252	13,8	2.104.041	266.626	12,7
2007	45.200.737	7.531.826	16,7	2.141.860	397.132	18,5
Andrazkoak		4.341.858	57,6		231.981	58,4
Gizonezkoak		3.189.968	42,4		165.151	41,6

Iturria: Informe 2008. Las Personas Mayores en España, (Díaz Martín, 2009) (geuk moldatua)

Oharra: ehunekoak ezberdinak dira errenkada bakoitzean; lehen bi errenkadetan pertsona nagusien proportzioa kalkulatu da guztizko biztanleriarekiko. Azken bi errenkadetan, andrazko zein gizonezkoek pertsona nagusien taldean duten proportzioa kalkulatu da.

Datuen bilakabidearen azaleko errebaso azkar batek biztanleriaren zahartze-tasaren aldagai nagusiak uzten dizkigu agerian: EAE, duela hogeitun urte zahartze-tasa apalagoetatik abiatuz gaur egun Espainiako batz bestekoaren gainetik kokatu da, EAE-ko bost biztanletik batek kasi 65 urtetik gora baitu egun. Horretaz gain, pertsona nagusien sexuari erreparatuz hamarretik sei andrazkoak lirateke. Datu horri gaineratu behar litzaieke 80 urtetik gorako nagusien portzentajea bikoiztu egin dela ia 2001-2007 epealdian, 56.601 pertsonatik 106.568 igaroz (Arizkuren, 2010).

Bilakabidearen datu horietatik eratorritako zahartze-indizeak¹⁰³ Euskadiren bilakabidearen datu kezagarriak ematen ditu: 1975an %28,81 zelarik indize hori, 2009an %140,38a baita (Espainian datua %35,97tik %106,05era igaro da) (Arizkuren, 2010:156).


EAEko biztanleriak azken hamarkadetan azaldu duen zahartze-joera honek datozen urteetan ere logika berean jarrai dezakeenaren trazak antzeman arren, aldagai askok eragin lezakete etorkizuneko proiektzio horien konfigurazioan, nagusiki migrazio saldoen eta esperotako ugalkortasun tasaren arabera gauzatuko direlarik aurreikuspen horiek.

Eustat-ek bi aldagai horien agertoki alternatiboak igurikatuz, honako hiru proiektzio hipotetiko kalkulatu ditu 2050 urterako: lehen kasuan migrazio saldo mugatua eta emakumeko haur bateko esperotako ugalkortasuna kontsideratu ditu; bigarrenan, migrazio saldo handiagoa eta bi hurreko ugalkortasuna; hirugarrenak aldiz, 0,5

¹⁰³ Zahartze indizeak neurtzen du ehun haur eta gazteko zenbat diren adineko pertsonak (Arizkuren, 2010)

haurreko ugalkortasuna jasotzen du. Edozein izanik ere gertakizun den agertokia, pertsona nagusien hazkunde nabarmena aurreikusten da hiru hipotesietan, batik bat 80 urtetik gorakoen adin tartean, zaintza premiarik larrienak agertzen dituen biztanleria-talderik nagusienean, hain zuzen ere (Arizkuren, 2010).

Grafikoa 7: Biztanleriaren piramideak, EAEn 2050 (agertoki posibleak)



Iturria: Eustat, Arizkuren (2010)-etik hartua.(geuk moldatua)

6.3.1.2 Pertsona nagusiak eta zaintza premiak

Biztanleriaren zahartze-joera eztabaidarik onartzen ez duen egitatea izan arren, sarri askotan modu arinegian parekatu ohi da pertsona nagusien hazkundera eta horien zaintza beharren hazkundera, modu inplizituan bada ere gizarte-talde honen gaineko halako estigma ezkorreko planteamendutan jausiz (Larrañaga eta Jubeto, 2008).

Datu objektiboek ordea, aurrez espero gabeko argazki baikorrak ere eskaintzen dituzte. Esate baterako, *Pertsona Nagusien Bizi Baldintzen Inkestaren (ECVPM-Euskadi 2010)* (Sancho, 2011) ondorioetako bat “Euskadiko pertsona nagusiek bizi-indar bikaina azaltzen dutela” da, “antsietate eta depresio gutxi pairatzen dute, beren gizarte eta familia-harremanekin asebetetze maila altua dute, kirol asko egiten dute eta komunitatearekiko atxikimendua asko baloratzen dute (...) elkarrekotasun printzipioa eta zaintza-transferentziak ere aplikatzen dituzte, adibidez beren seme-alaben zaintza¹⁰⁴ eta erakunde boluntarioetan parte hartuz” (Sancho, 2011). Datu horiek guztiek azken aldi indartzen ari den zahartze-aktiboaren paradigmen potentzialtasuna jartzen dute agerian, zentzu horretan bideratutako politika publikoek modu oso nabarmenean eragin bailezakete mendekotasun egoeren agerpenean eragin dezaketen gizarte-egoeren prebentzioan.

Derrigorrezko lehen ñabardura hori egin ostean, bistakoa da mendekotasun egoera batzuk zuzenki erlazionaturik daudela adinarekin, eta beraz, pertsona nagusien sektorea dela oro har, batz bestea zaintza premiarik larrienak pairatzen dituen gizarte-taldea. 2006an Eustat-ek eginiko *Estadística de Demanda de Servicios Sociales/Necesidades Sociales 2006* (EDSS, 2006) txosteneko datuen arabera, mendekotasun larriko egoeran diren pertsonen %81 (guztira 14.700 bat pertsona) 65 urtetik gorako pertsonak lirateke, datu antzerakoak erdiesten dira mendekotasun mugatuko kasuentzat (guztira 22.800 pertsona, mendekotasun mugatuko pertsonen %78) eta mugapenen bat dutenen artean leudeke 66.500 pertsona nagusi inguru, (kategoria honetako %60,2)(SIIS, 2007b).

¹⁰⁴ Ikus zentzu horretan, Mendekotasunaren Liburu Zurian agertzen diren datuak: pertsona nagusien %44ak zaintza lanen bat burutzen du, beren bikotekide, adinkide edo bilobak zainduz nagusiki, baina baita pertsona oso zaharren zaintzan ere (IMSERSO, 2005:16).

Taula 3: Mendekotasun edo mugapen mailaren araberako 5 urtetik gorako biztanleriaren banaketa, Barthel/Lawton Mendekotasun gradu mistoa

Barthel/Lawton Mendekotasun Mistoko Gradua				
		Mendekotasun erabatekoa edo larria	Mendekotasun gutxienik ertaina	Mugapen bat
Sexua	Gizonezkoa	27,0	34,2	41,3
	Andrazkoa	73,0	65,8	58,7
Adina	≤15 urte	0,1	0,0	1,4
	15-24 urte	1,2	1,1	1,7
	25-34 urte	3,1	4,7	4,5
	35-44 urte	4,1	5,8	7,8
	45-54 urte	4,6	4,3	10,2
	55-64 urte	5,6	6,1	14,2
	65-74 urte	11,8	12,3	17,7
	≥75 urte	69,5	65,7	42,5
	Guztira	100,0	100,0	100,0

Iturria: SIIS, 2007b:120 (itzulpena gurea)

Datu horiek esanguratsuak izanagatik ere, pertsona nagusien mendekotasun mailak kolektibo horren datu orokorrekin harremanetan jarriz gero, datuak nabarmen leuntzen direla ikusten da. Arestian aipaturiko ECVPM-Euskadi 2010 inkestaren datu berriagoetatik eratortzen denez, Euskadin 60 urtetik gorako pertsona nagusien artean etxegune familiarretan bizi direnetatik %22,8k soilik du laguntza premiaren bat eguneroko bizitzako jardueraren bat burutzeko, %17,2ak oinarritzko jarduerak¹⁰⁵ betetzeko laguntzaren bat behar luke eta %17,9 egoera berean aurkitzen da jarduera instrumentalak¹⁰⁶ aurrera eramateko. Berebat, adina eta laguntza premien arteko harreman nabarmena agertzen da, adinean aurrera joan ahala handitzen baitira eguneroko bizitzarako jarduerak burutzeko ezintasun eta laguntza premiak. Honela 80 urtetik gorakoen bi pertsonatik batek laguntza behar du eguneroko bizitzako jardueraren bat edo gehiago burutzeko. Laguntza premia horien eskatzaile nagusiak, halaber, andrazkoak lirateke (%27,5, gizonezkoen %16,6aren aldean), baina datu hau errez uler liteke arestian emaniko bizitza esperantzaren datuak eta laguntza-premia handieneko adin-tartean datuak gurutzatuz: andrazkoak dira, egiazki, laguntza-premia larrireneko adin tartean (80 urtetik gorako tartean) pisurik handiena duen taldea (Sancho, 2011).

¹⁰⁵ Oheratu eta iratzarri, dutxatu eta norbere gorputzaren garbiketa zaindu (azazkalak moztu, etab.), arropak jantzi eta erantzi, komun-ontzia erabili eta bakarrik jan (Sancho, 2011:72)

¹⁰⁶ Erosketak egin, janaria prestatu, etxeko garbiketarako egin, arropa garbitu eta eskegi, telefonoa erabili, medikamentuak administratu eta dirua maneiatu (Sancho, 2011:72).

Ikus liteke emaitza horiek aurretiaz aipaturiko Eustat-ek eginiko EDSS-2006 inkestaren emaitzen ildo bertsuari eusten diotela, inkesta hartatik ondorioztatu baitzen mendekotasun gutxienik mugatuko egoeren bi herenak 75 urtetik gorakoan artean gertatzen direla, nahiz eta datu hori beste batekin osatzea ere beharrezkoa den: 75 urtetik gorakoan ia erdiak beren eguneroko bizitzako jarduerak egiteko autonomia osoa dute oraindik (SIIS, 2007b).

Bestelako datu baseak eta metodologiak erabili arren, INE-k 2008an argitaraturiko *Encuesta de Discapacidad, Autonomía personal y situaciones de Dependencia 2008* (EDAD, 2008) txostenean¹⁰⁷, eguneroko bizitzako oinarrizko jardueraren bat burutzeko desgaitasunen bat duten pertsonen honako datuak eskaintzen ditu:

Taula 4: EAE-ko 65 urtetik gorako pertsonak eguneroko bizitzako oinarrizko jardueraren bat burutzeko desgaitasuna dutenak, larritasun maila eta sexuaren arabera, milaka pertsonatan (2008)

	Laguntzarik gabe					Laguntzarekin				
	Milaka pertsona			Ehunekoak		Milaka pertsona			Ehunekoak	
	Guztira	Gizon	Andre	Gizon	Andre	Guztira	Gizon	Andre	Gizon	Andre
Gutzizkoa	83,7	23,9	59,8	28,6	71,4	71,5	20,4	51,0	28,5	71,3
Zailtasunik gabe						13,5	3,7	9,7	27,4	71,9
Desgaitasun mugatua	12,6	4,4	8,3	34,9	65,9	19,9	5,2	14,7	26,1	73,9
Desgaitasun larria	21,1	5,7	15,4	27,0	73,0	17,7	5,6	12,1	31,6	68,4
Gutzizko desgaitasuna	44,7	11,1	33,7	24,8	75,4	15,1	3,1	12,1	20,5	80,1
Daturik ez	5,2	2,7	2,5	51,9	48,1	5,2	2,7	2,5	51,9	48,1

Iturria: EDAD, 2008 (INE) (itzulpena gurea) .

Datuotatik eratortzen denez, 2008an guztira 83.700 pertsona lirateke guztira eguneroko bizitzako oinarrizko jardueraren bat burutzeko desgaitasunen bat luketenak, horietatik %71,4 andrazkoak liratekeelarik. Desgaitasuna duten horietatik %85ak laguntzaren bat jasotzen dute (izan teknikoa, pertsonala edo bien nahasketa) jarduera horiek burutzeko, eta argi geratzen da honek pertsona horien desgaitasuna nabarmen murrizten duela, bereziki guztizko desgaitasuna dutenen artean (44.700 pertsonatik 15.100 pertsonara jaitsiko litzateke kopurua) baina baita oro har bestelako desgaitasun dutenen kasuan ere,

¹⁰⁷ EDAD 2008 inkestaren helburu nagusia Autonomiaren aldeko eta Mendetasunari Arreta eskaintzeko Sistemarentzako (lehenago AMAS deiturikoa) oinarri estatistikoa eskaintzea da, baina orain arte INE-k gai berdinen inguruan eginiko inkesten aldean (1986koa eta 1999koa) bi berrikuntza barneratu ditu: batetik biztanleria instituzionalizatuaren datuak ere barneratu ditu (etxeguneetatik kanpo bizi direnak, egoitza kolektiboetan alegia) eta bigarrenik, Funtzionamendu, Desgaitasun eta Osasunaren Nazioarteko Saillkapen berria erabili da datuok eskuratzeko. (www.ine.es)

horietako %19ak ia (13.500 pertsonak) neurriren bateko desgaitasunak izan arren zailtasunik gabe burutzen baitituzte oinarrizko jarduera horiek.

6.3.2 Gizarte Zerbitzuen eskaintzaren analisia titulartasunaren eta finantzazioaren ikuspegitik:EAE-ko hiru ereduak

Jarraian aurkezten dugun analisiak, azken hamarkadan gizarte-zerbitzuen esparruan jazo den eskariaren gehikuntzari erantzunez egituratzen joan den sistema publiko-pribatuaren osaerari erreparatzea du xede. Ez ditugu, hortaz, analisian barneratuko zerbitzu horietako bakoitzean lorturiko estaldura mailak, ezta horietara bideraturiko gastu publikoaren zein finantzazio iturrien eta horien urtez urteko bilakabiderik ere, nahiz eta aipatuko ditugun txosten guztietan gaineratzen den mota horretako informaziorik.

Haizu bekigu, halaber, alde aurretik ohartaraztea titulartasunaren araberako analisiak tentuz burutu beharrekoak direla, gutxienik bi arrazoiengatik: alde batetik titulartasun pribatuko zentroak ere izan daitezkeelako publikoki finantzatuak (zentroen edo plazen ituntze politiken bidez) eta hedaduraz, zenbaiten ustez titulartasun publikoko zentro gisa kontsideratuak izatera pasako lirateke; beste aldetik, era berean titulartasun publikoko zentroak zeharka ere kudeatu daitezkeelako (kasurik gehienetan hala izanik gainera), enpresa pribatuen edo mozkinenez besteko erakundeen bitartez, eta beraz, zentroak titulartasun publikoa mantendu arren, egiazki azpi-kontrataturiko edo pribatizaturiko zerbitzu bati buruz ari behar ginateke, zorrotz aritze aldera.

Beraz, eskainiko ditugun datuak azken hamarkadako joera orokorren isla gisa baliagarriak zaizkigula uste arren, datuak behar bezala interpretatu beharko dira kasu guztietan, zenbaitetan ekimen pribatuaren benetako parte hartzearen datuak leuntzeko arriskuari aurre eginez, eta beste kasu batzuetan hedadura publikoaren benetako irismena mugatzen duten datuak bere benetako testuinguruan kokatuz.

Aipaturiko bi zailtasun metodologiko horiez gain, pertsona nagusiei bideraturiko gizarte-baliabideen titulartasunaren analisirako salbaezinak izan zaizkigun beste bi hutsuneren aipamena ere egin nahiko genuke: ez prestazio ekonomikoen kasuan eta ez

etxez-etxeko laguntzen kasuan ere, prestazio horien titulartasunaren inguruko analisirik aurkitu ez izana, alegia.

Lehen horien kasuan nahiko ulergarria suerta liteke hutsunea, prestazio ekonomiko guztiak definizioaz baitira hertsiki publikoak. Alabaina, prestazio horietan hedadura publikoaren benetako irismena auzitan jar lezakeen mekanismo baten existentzia ere kontuan hartu beharreko elementu da, hots, ordainketa partekatuko sistemen erabilpena, honen bitartez erabiltzaileak duen parte hartze mailak emango bailiguke sektore publikoaren hedaduraren benetako neurria.

Bigarrenaren kasuan, ordea, etxez-etxeko laguntza zerbitzuen kasuan, alegia, ezinezkoa izan zaigu gure doktorego-tesirako zerbitzu horien titulartasunaren inguruko EAE mailako analisirik topatzea, legez zerbitzua erantzukizun publiko hertsiko esparru batean kokatzen den arren (tokiko mailako oinarrizko gizarte-zerbitzuen esparruan, hain zuzen ere) jakina baita laguntzaren ia zatirik handiena ekimen pribatuko eragileen bitartez ematen dela, eta soilik salbuespenetzko kasuren batean udaletxeko gizarte-langileen edo hezitzaileen bitartez. Atal honi dagokionean, beraz, soilik arakatuko ditugu Gipuzkoako datuak, landa lanean ustiatutako datu-baseen analisitik eratorritako datuak, hain zuzen ere.

Azken ohar bat emaitzen aurkezpena egin aurretik: jarraian garatzen dugun atalean iturri ezberdinetako analisiak barneratu ditugunez, iturri bakoitzaren analisisia modu berezian aurkeztea jo dugu ontzat, horietako bakoitzean darabilten metodologia ezberdina den neurrian, zenbait datuentzako emaitza nahiko kontraesankorrak agertuko baitira. Atalaren amaieran datu horien ikuspegi orokor bat ematen ahaleginduko gara.

6.3.2.1 Abiapuntua: Arartekoaren 2004ko txostena

Arartekoak 2004an argitaraturiko *Pertsona nagusiei emandako arreta EAE-n: etxeko laguntza, eguneko zentroak eta egoitza zentroak* txostena joko dugu lehen oinarriztat pertsona nagusiei bideraturiko zentroen titulartasunari buruzko erreposoa burutzeko. EAE-rako datuetatik abiatuz, Arartekoak (SIIS, 2004) titulartasun eta kudeaketaren araberrako lehen banaketa bat ezartzen du, bi modalitate horien artean konbinaketa

ezberdinak izan badirela agerian utziz. Horrela, jarraian agertzen dugun taulako datuak erdiesten ziren egoitza-zentroentzako:

Taula 5: EAE-ko egoitza-zentroak eta plazak titulartasunaren eta erakunde kudeatzailearen arabera, 2003

Titulartasuna eta kudeaketa	Zentroak		Plazak	
	Abs.	%	Abs.	%
Tit. publikoa, kud. publikoa	76	23,2	4.244	30,0
Tit. publikoa, kud. pribatua, irabazteko asmorik gab.	7	2,1	400	2,9
Tit. publikoa, merkataritzako kud. pribatua	11	3,4	562	4,0
Tit. pribatua, irabazteko asmorik gabekoa	64	19,6	4.593	32,7
Merkataritzako tit. pribatua	169	51,7	4.282	30,4
GUZTIRA	327	100,0	14.081	100,0

Iturria: SIIS, 2004:208

Lehen argazki honek egoitza-zentroen osaeraren ikuspegi orokorra eskaintzen du: 2003 urtean kontaturiko egoitza-zentro guztien artean titulartasun publikokoak herena lirateke kasik, bostetik bat mozkinenez besteko erakundeena eta erdiak pasatxo merkataritzako enpresena. Eskaintako plazei dagokienez, berriz, zentro publikoen eta mozkinenez bestekoen tamaina handiagoa nabarmenduko litzateke, ia herenaren bueltan bailegoke titulartasun bakoitzaren pisua (zentro publiko eta mozkinenez bestekoak, hortaz, tamainaz handiagoak direla ere ondorioztatu beharko da).

Titulartasun publikoko egoitza-zentroak pribatuen aldean nabarmen gutxiago (%36,9 eta %63,1 plazen kasuan, hurrenez hurren) direla ondorioztatzeko tentaldian eror gintezkeen arren, titulartasun pribatuko erakundeena plazen %85 itundutako plazak (publikoki finantzatuak) zirela kontuan hartuta, eta plaza horiek publikotzat har daitezkeela ontzat joz gero, banaketa modu honetan geratuko litzateke:

Taula 6: EAE-ko egoitza-zentroak eta plazak titulartasunaren arabera, 2003

Titulartasuna	Zentroak		Plazak	
	Abs.	%	Abs.	%
Publikoa	94	28,8	5.206	37,0
Itunpeko pribatua	40	12,2	2.233	15,9
Pribatua	193	59,0	6.642	47,1
GUZTIRA	327	100,0	14.081	100,0

Iturria: SIIS, 2004:209

Hortaz, publikoak gehi itunduak plazen %52,9 lirateke eta pribatu hutsak %47,1.

Analisia eguneko zentroen esparrura eramanda, EAE-ko eguneko zentroen %65 eta plazen %60,8 titulartasun publikoak zirela ondorioztatzen zen, eta beste %13,5 administrazioarekin itundutako plazak zirela kontuan harturik, plazen %75 publikotzat jo zitekeen, egoitza-zentroena baina sare publiko zabalagoa osatuz.

Datu horiek lurraldearen arabera xehatuz gero, arras errealitate disparekoak agertuko zaizkigu: Bizkaian itundu gabeko plaza pribatuak ziren gehienak (%80 kasi), Araban apenas itunduko den plazarik baina plaza publikoak ziren pribatuak baina gehiago (%51,1) eta Gipuzkoan ituntze-politiken tradizio oparoa antzemango da (%43,4), baita plaza publikoena ere (%55,2) ia hutsaren hurrena izanik itundu gabeko plaza pribatuen garrantzia.

Taula 7: EAE-ko egoitzetako plazak, titulartasunaren eta herrialdearen arabera, 2003

Titulartasuna	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Publikoa	1.256	51,1	1.313	19,2	2.637	55,2
Itunpeko pribatua	77	3,1	83	1,2	2.073	43,4
Pribatua	1.125	45,8	5.448	79,6	69	1,4
GUZTIRA	2.458	100,0	6.844	100,0	4.779	100,0

Iturria: SIIS, 2004:209

Egoitzen kasuan bezala, lurralde diferentziak nabarmenak dira titulartasunari dagokionean eguneko zentroentzat ere. Arartekoaren txostenetik (SIIS, 2004) eratorritzen denez, Araban, eguneko zentroetako plazen %96 plaza publikoak diren bitartean, Bizkaian eta Gipuzkoan, %50 baino zertxobait gehixeago lirateke plaza propioak. Horiei plaza itunduak batuta, eskaintza publiko osoa ez da aldatuko Araban, baina Bizkaian eta Gipuzkoan %54,9 eta %84,9ko proportzioetara iritsiko da, hurrenez hurren. Bizkaian hortaz, eguneko zentroen sare publikoagoa sumatzen da egoitzen sarearekin alderatuz, Gipuzkoan plaza publiko eta itunduen sistema nagusitzen da eguneko zentroetan ere (zentro pribatuetako plazen %68 dira itunduak), eta Araban berriz eguneko zentroen eskaintza plaza publikoen bitartez bideratzen da ia bere osotasunean (SIIS, 2004).

Taula 8: EAE-ko eguneko zentroak, titulartasunaren eta herrialdearen arabera, 2003

Lurralde Historikoa	Publikoa		Pribatua eta itundutako plazaduna		Pribatua		Guztira	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Araba	17	94,4	0	0,0	1	5,6	18	100,0
Bizkaia	16	48,5	1	3,0	16	48,5	33	100,0
Gipuzkoa	19	65,5	9	31,0	1	3,4	29	100,0
EAE	52	65,0	10	12,5	18	22,5	80	100,0

Iturria: SIIS, 2004:296.

6.3.2.2 Jarraipen txostenak: “EAE-ko Gizarte Zerbitzuen egoeraren inguruko Txostenen” errepassoa


SIIS erakundeak Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren enkarguz urtez urte eginiko “EAE-ko Gizarte Zerbitzuen egoeraren inguruko txostenen” errepassoa da jarraian eskainiko dena, nagusiki 2004-2008 epealdia aztertzen duten Txostenena, horietan aurkitzen baita EAE-ko zentrozen titulartasunaren inguruko azterlanik interesgarrienetako bat, eta gainera, metodologia bereko txostenak izateak, analisi alderatuak eta bilakaerak aztertzeko bide emango baitigu. Honela, analisisia nolabait antolatze aldera, hiru atal nagusi bereiziko dira: i) pertsona nagusiei bideraturiko zentro guztien inguruko azterketa, lehenik; ii) egoitza-zentrozen analisisia, bigarrenik, eta; iii) eguneko zentroena, azkenik.

a) Pertsona nagusiei bideraturiko Zentroak

Urteroko txostenetan lehen hurbilketa bat egiten da pertsona nagusiei bideraturiko zentroak bere osotasunean aztertzeko. Honela, egoitza-zentroz eta eguneko zentroz gain, analisi horietan bestelako bi ekipamendu nagusi barneratzen dira: zahar-etxeak batetik eta zaharren elkarteak bestetik. Zentro kopuruari dagokionean, gainera, azken bi horiek dira egoitza-zentrozen atzetik ugarienak, eguneko zentroak halako hiru eta halako bi, hurrenez hurren. Horien kopurua baino, horien titulartasunaren analisisia denez hemen jorratzen dugun afera, has gaitezen horien proportzio banaketa eta bilakaeraren inguruko aspektuak landuz.

“EAE-ko Gizarte Zerbitzuen egoeraren inguruko” VI. Txostenean (SIIS, 2007a), zentro horiek EAE-n izaniko bilakabidearen joera orokorrak aztertzen dira, titulartasunaren arabera, zentro publiko, mozkin bezeko eta mozkin asmoko zentroyen bilakabide orokorra honakoak litzatekeelarik:

Grafikoa 8: EAE-ko pertsona nagusientzako zentroyen banaketaren bilakaera, titulartasunaren arabera, 1995-2005




Iturria: SIIS, 2007a:81 (geuk moldatua)

Lehen azterketa batean, hortaz, irudian agertzen den proportzio banaketa horrek zentro publikoen mantentze bat eta mozkin-asmodunen garrantzia handitze bat islatzen du, mozkin bezekoak direlarik erlatiboki pisurik handiena galtzen dutenak.

Zentroyen osakeraren proportzio-banaketa horretatik hazkunderaren balio absolututara joz gero, ordea, absolutuki ireki diren zentro berrien kopuruari erreparatuz joera are argiagoa agertzen da: 1995-2005 urte bitartean zentro publikoek %126,6ko hazkundera izan duten bitartean, mozkin bezeko fundazio eta elkarten zentroyek %22,8ko hazkunde ia hautemanezina izan dute eta mozkin-asmodun enpresen menpeko zentroyek berriz %425koa.

Grafikoa 9: EAE-ko pertsona nagusientzako zentrozen hazkunde tasa, titulartasunaren arabera, 1995-2005




Iturria: SIIS, 2007a:81 (geuk moldatua)

Hazkunde tasa horiek ordea bere benetako neurrian baloratu behar lirateke. Lehenik, termino absolututan zentro publiko berri gehiago zabaldu baitira (243) mozkin-asmodunak baino (187). Hargatik, mozkin-asmodunen hazkunde tasa handiak azpian gordetzen duena da 1995an ia existitzen ez zen modalitateak 2005ean lorturiko stock garrantzitsua, proportzioan %7ko garrantzia izatetik %21eko garrantzia izatera igaroko dena, baina kasu guztietan zentro publikoen (%39,9) eta mozkin bezekoen (%39) oso azpitik geratzen delarik oraindik ere.

1995 urtetik 2005 urtera emaniko bilakaeraren patroi horrek jarraian aurkezten dugun banaketa utziko du EAE-rako, pertsona nagusiei bideraturiko zentrozen titulartasuna publiko, pribatu eta mozkin bezekoen artean bereiziz:

Grafikoa 10: EAE-ko pertsona nagusiei bideraturiko zentroak, titulartasunaren arabera, 2007




Iturria: SIIS, 2009b:17 (geuk moldatua)

Azken urte honetarako datuak behatuz, 1995-2005 urtealdirako marraztu den joera berresten dela esan genezake, nahiz aldaketa modu leunagoan gertatzen joan den: zentro publikoek ia bi puntu portzentualeko galera jasan dute (%39,9tik %38,2 izatera), mozkin bezalakoak ere beheranzko joeran jarraitzen dute baina ez 90eko azken urteetako erritmoan (%39tik %37,9 izatera), eta mozkin asmodunek hazkundearekin jarraitzen dute, nahiz eta 90eko azken urtetako ezstandarekin zerikusirik ez duen (%21,2tik %23,9ra).

Lehen ondorioa, hortaz, zentroen titulartasunari dagokionean: epealdi honetan agerturiko gizarte-premien eskari geroz eta handiago bati erantzuteko baliaturiko mekanismo nagusien inguruan zentro publikoen arrazoizko hedapenarekin batera (1995an halako bi pasatxo zentro publiko egonik 2007an) mozkin-asmodun zentroen hazkunde oso garrantzitsua emango da 1995-2007 urte artean, (apenas 44 zentro izatetik 276 zentro izatera igaroz) eta mozkin bezalakoak apenas izango duten hazkunde aipagarriarik (346tik 438 zentrorra igaroz).

Grafikoa 11: EAE-ko pertsona nagusientzako zentrozen bilakaera, titulartasunaren arabera, 1995-2007




Iturria: SIIS, 2009b:19 (geuk moldatua)

Arartekoaren txostenean aurreratzen den gisan, bi gauza ezberdin dira zentrozen analisia bere titulartasunaren arabera egitea edo analisia finantzazioaren ikuspegitik egitea. Ñabardura garrantzitsua da kasu honetan, herri-erakundeek, lurralde bakoitzean modu disparekoan izan arren, zentroak eta plazak subentzionatzeko politikak baliatzea praktika arrunta baita, bai ituntze-politiken bitartez eta baita norbanakoei zuzenduriko diru-laguntzen bitartez ere. Zentzu horretan, itunduriko zentro eta plazak izaera publikokoak direla ontzat joz gero, titulartasun banaketak emaitza ezberdinak ematen ditu.

Horren isla da jarraian agertzen dugun irudia, zentroak beren finantzazio iturrien arabera sailkatzeko, zentro publikoez gain, publikoki finantzatuak eta finantzazio publikorik gabeak bereizten dituen:

Grafikoa 12: EAE-ko pertsona nagusiei bideraturiko zentroak, finantzazioaren arabera, 2007




Iturria: SIIS, 2009b:17 (geuk moldatua)

Irudiak agertzen duen moduan, banaketa honek zentrozen izaera publikoagoa uzten du agerian, zentro publikoek gain (%40 inguruan), finantzazio publikoa jasotzen duten zentroak (%50en bueltan) batuz gero, apenas baitira herri-erakundeen inolako laguntzarik jasotzen ez duten zentroak.

Finantzazio publikoa jasotzen duten zentroak gehiago osoa izan arren, errealitate nahiko disparekoak antzematen dira lurraldeen arabera, jasotako azken datuen arabera mapa hau azaltzen delarik 2007rako Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarentzat:

Grafikoa 13: EAE-ko pertsona nagusiei bideraturiko zentrozen banaketa, lurraldea eta finantzazioaren arabera, 2007



Iturria: SIIS, 2009b:18 (geuk moldatua)

Datuok arestian aipaturiko titulartasunaren analisiarekin gurutzatuz gero, lurralde bakoitzarentzako emaitza interesgarriak lortzen dira: i) Araban, zentro publikoak erdia baino zertxobait gehiago izan arren, enpresa pribatuen esku dauden zentroak (%22,8) eta finantzaziorik jasotzen ez dutenak (%21,7) tamaina garrantzitsua dute; ii) Bizkaian, zentro pribatuak gehiago dira publikoak baino (%25,2), nahiz eta finantzazio publikorik gabeko zentroen tamaina nahiko txikia izan (%14,2); iii) Gipuzkoan, zentro publikoak erdia baino zertxobait gehiago izateaz gain, mozkinenez besteko erakundeen zentroak osatzen dute zentro pribatuen gehiengoa (%36,1), eta gainera, finantzazio publikorik gabeko erakunderik apenas dagoen (%2,6), hortik eratoritzen delarik Gipuzkoan betidanik mantendu izan den gizarte-ekimeneko erakundeekin ituntzeko tradizioa.

Ikus dezagun jarraian orain arte marrazturiko joera orokorrak neurri berean ematen diren aztergai ditugun bi ostatu-zerbitzu nagusitan (egoitza-zentro eta eguneko zentroetan, alegia), edo ñabardura aipagarriarik antzematen den zerbitzuaren eta lurraldearen arabera.

b) Pertsona nagusiei bideraturiko Egoitza-Zentroak

Egoitza-zentroen titulartasunari buruzko lehen hurbilketa bat egiteko, 1994 urtetik 2007 urtera arte lurralde bakoitzean plaza mota bakoitzak (pribatuak eta publikoak) izaniko garapena taula honetan jasotzen da:

Taula 9: EAE-ko egoitza-zentroetako plaza publiko eta pribatuen banaketa portzentalaren bilakaera, herrialdearen arabera, 1994-2008.

		1994	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008
Araba	Publikoa	69,8	71,4	70,2	70,4	61,5	61,4	61,8	64,0	51,1	47,9	54,3	55,9	53,8	54,8	52,2
	Pribatua	30,2	28,6	29,8	29,6	38,5	38,6	38,2	36,0	48,9	52,1	45,7	44,1	46,2	45,2	47,8
Bizkaia	Publikoa	29,5	31,2	31,8	30,5	28,4	27,0	26,9	24,8	22,0	19,4	19,6	18,3	15,7	14,9	23,6
	Pribatua	70,5	68,8	68,2	69,5	71,6	73,0	73,1	75,2	78,0	80,6	80,4	81,7	84,3	85,1	76,4
Gipuzkoa	Publikoa	56,2	56,8	53,4	53,1	70,3	67,4	65,6	66,0	65,5	52,3	51,5	52,0	48,9	47,3	45,4
	Pribatua	43,8	43,2	46,6	46,9	29,7	32,6	34,4	34,0	34,5	47,7	48,5	48,0	51,1	52,7	54,6
EAE	Publikoa	45,3	46,7	45,7	45,0	47,8	46,7	46,4	45,6	41,2	34,9	36,0	35,1	31,7	30,6	34,3
	Pribatua	54,7	53,3	54,3	55,0	52,2	53,3	53,6	54,4	58,8	65,1	64,0	64,9	68,3	69,4	65,7


Iturria: SIIS, 2011:4 (geuk moldatua)

Lehen datu horietatik abiatuz, azterturiko epealdian egoitza-zentroetan plaza eta zentro pribatuen hazkunderako joera orokorra antzeman liteke, nola EAE-ren kasurako (%54,7

izatetik %65,7 izatera), hala gainerako lurralde guztietarako ere. Hala ere, Bizkaiaren kasurako, 2007-2008 urte arteko diferentziak esanguratsuak direla ikusten da, plaza publikoen %60ko hazkundera ematearekin batera plaza pribatuek betidanik izaniko gailentasuna apur bat leundu baita, nahiz eta ikusteke dagoen joera berri bati zor zaion datua. Araba eta Gipuzkoarentzat berriz, joera argia da: plaza pribatuak dira geroz eta gehiago, Arabaren kasuan plaza guztien herena izatetik ia erdia izatera, eta Gipuzkoaren kasuan aldiz, erdia baino zertxobait gehiago.

Jarrain agertzen den irudiak, ere, modu ikusgarriagoan azaleratzen du lurralde bakoitzean plaza pribatu zein publikoek izaniko garrantzia galera/irabazien errealitatea:

Grafikoa 14: EAE-ko egoitza-zentroetako plazen bilakaera, herrialdearen eta titulartasunaren arabera, 1995-2005




Iturria: SIIS, 2007a:89 (geuk moldatua)

Ondoriozta liteke hortaz, egoitza-zentroeiei dagokienez, 1995-2005 epealdian arestian Arartekoaren txostenean aipaturiko errealitatearen jatorria marratzen dela: Bizkaiaren egoitza pribatuen proportzioa nagusitu izan da betidanik publikoaren aldean; Gipuzkoan alderantziz, plaza publikoak plaza guztien erdia baino gehiago izan dira beti, nahiz eta azken urteetan lekua galduz joan diren horiek plaza pribatu (itundu)en mesedetan; Araban berriz, plaza publikoen nagusitasunezko eredu batetik plaza pribatuen nagusitasunezko eredu baterantz igarotzearela dirudi, 1995-2005 epealdian horietako bakoitzak izaniko hazkunde-tasa diferentziala horren testigu izanik (%41eko hazkundera zentro publikoaren kasuan eta %233,3koa zentro pribatuentzat).

Arestian egin bezala, ordea, plazen titulartasunaz gain plazen finantzazioaren analisia eginez gero, errealitateak bestelako proportzio batzuk ematen dizkigu. 2004 eta 2005ko datuei erreparatu, Araban agertzen dira finantzazio publikorik jasotzen ez duten egoitza gehien (%20-%25 inguru); Bizkaian aldiz, apenas dagoen finantzazio publikorik jasotzen ez duen egoitza-zentrorik (%3-%6 artean), nahiz eta zentroen gehiengoak izaera pribatua izan; Gipuzkoan berriz, zentro publikoek eta publikoki finantzatuak osatzen dute egoitzen ia ehuneko ehuna, eta oso bazterrekoa da finantzazio publikorik jasotzen ez duten zentroen kopurua (%1-%3 artekoa, hain zuzen ere). Analisi honi buruz VII. eta VIII. Txostenetan jasotako datuek ere, gutxi asko, konposizio hori bera mantentzen dela baieztatzen dute.

Grafikoa 15: EAE-ko egoitza-zentroetako plazen banaketa, herrialdearen eta parte hartze publikoaren arabera, 2004-2005




Iturria: SIIS, 2007a:102 (geuk moldatua)

Egoitza-zentroen finantzazio moduen inguruan, Gizarte Zerbitzuen egoeraren inguruko V. Txosteneko eranskinean analisi interesgarri bat gehitzen da, geroztik urtez urte modu sistematikoan errepikatu ez dena, baina lurralde bakoitzaren politika publikoen izaeraren isla garbia dena, gure iritzian. Hala, 2002tik 2005 urte bitartean Foru Aldundiek egoitza-zentroetan izaniko parte hartze ekonomikoa zein mekanismoren bidez bideratu izan den aztertzen da, analisia oraingo honetan finantzazio publikoaren hiru mekanismo nagusien arabera burutzen delarik: aldundien plaza propioak sortzera

bideraturiko diru-partidak batetik, aldundiek plaza pribatuak ituntzera bideraturikoak bestalde eta egoitza pribatuetako plaza ez itunduetara sartzeko erabiltzaileei emaniko diru-laguntza pertsonalak kontuan hartuz azkenik.

Grafikoa 16: Foru Aldundien finantzazioa duten guztizko plazekiko egoitzetako plaza propioen portzentajea, 2005



Iturria: SIIS, 2006:16 (geuk moldatua)

Irudian ikus litekeenez, Arabako Foru Aldundiak esleituriko aurrekontuaren %80 kasi plaza propioak sortzera bideratu izan den bitartean, plazak ituntzeko %20 eskas gordeko da eta erabiltzaileei emaniko diru-laguntzen mekanismoa progresiboki sartzen joango da. Hortik uler liteke, hortaz, arestian aipaturiko finantzazio publikorik gabeko zentroen ugaritasunaren egitatea.


Bizkaiaren kasurako, berriz, arestian aipatu bezala plaza pribatuko egoitzen stocka handiagoa dela kontuan harturik, laguntza publikoa diru-laguntza pertsonaletara bideratu izan da neurri handienez orain arte, %70eko bueltan kokatuz aztertutako urte guztietan. Plaza itunduen esangura, berriz, guztiz bazterrekoa da eta plaza propioena %20aren azpitik kokatzen da urte guztietan. Ondoriorik argiena, hortaz, honakoa litzateke: Bizkaietan ia plaza guztiak finantzatzen direla publikoki, baina ez ituntzearen bitartez, norbanakoei emaniko eskupekoen bidetik baizik.

Azkenik, Gipuzkoaren kasuan plaza itunduen mekanismoa gailentzen da besteen gaitetik nabarmen, aurrekontu publikoaren %80tik gorakoa izanik urte guztietan, eta diru-laguntzen bidea soilik hasiko da erabiltzen 2005ean, oso modu mugatua bada ere. Aipatu beharrekoa da, halaber, ituntze-politika hori Gipuzkoan bereziki planteatu izan

delat gizarre-ekimeneko erakunde pribatuekin izaniko lankidetzatza estrategia baten baitan, arestian ikusi dugun moduan, Gipuzkoan esanguratsua baita titulartasun “sozialeko” egoitzen kopurua (plazen %43 inguru).

Herri-erakundeen parte hartze modu honen analisiari azken bat gehitu behar zaio, hain zuzen ere, horien irismena plazen estaldura mailari dagokionean (kontuan izanik aurreko analisisian kanpo geratzen zirela laguntzat publikorik gabeko plazat guztiak). Honela, egoitzetako plazen stock osoa kontuan hartuz (publikoki finantzatuak eta ez finantzatuak barne) EAE-rako ehun pertsona nagusiko 1,91 daude finantzazio publikorik gabeko plazat batean, 0,57 plazat publiko batean eta 1,79 plazat itundu batean. Proportzio horiek aldatu egiten dira lurraldearen arabera: Gipuzkoan esanguratsuki handiagoa da Foru Aldundiak finantzaturiko plazen estalduraren proportzioa (%81ekoa, Arabako %41,9 eta Bizkaiko %43,5ekin alderatuz), baina Araban plazat propioen ehunekoak ia laukoiztu egiten ditu Gipuzkoakoak¹⁰⁸.

Grafikoa 17: Foru Aldundien finantzazioa duten egoitzetako plazen estaldura maila, 2005



Iturria: SIIS, 2006:12 (geuk moldatua)

¹⁰⁸ Arretaz interpretatu behar dira irudiko datuak, esaterako, finantzaziorik gabeko estalduran sartzen baitira plaza pribatu hutsez gain udalerrien plaza publikoak ere (eta hargatik du hain estaldura-maila handia Araban modalitate honek) eta aldundiek finantzaturiko estalduran sartzen baitira itundutako plazez gain, diru-laguntzat pertsonalen bitartez ordainduriko plaza pribatuak ere (eta hargatik da Bizkaian datu hau Araban halako bikoa).

Hiru lurraldeen arreta-ereduak hortaz, bere ezaugarri nagusien arabera, hiru eredu ezberdin gisa kontsolidatu dira: eredu arabarra plaza propioen eskaintza indartsu batean oinarritzen da, eredu bizkaitarrak beharizanen gehiengoa norbanakoei emaniko diru-laguntzen bidez asetzen du eta eredu gipuzkoarra, gizarte-ekimeneko erakundeekin hitzarmen eta ituntze politiken bidez bideraturiko lankidetzan publiko-pribatuko eredu bat izatearren bereizten da.

c) Pertsona nagusiei bideraturiko Eguneko Zentroak

Egoitza-zentroen kasuan ez bezala, eguneko zentroen kasurako ez da arestian landuriko bilakaeraren inguruko daturik eskaintzen. Arartekoaren txostenean (SIIS, 2004) ezartzen den moduan, eguneko zentroen sistema sistema publikoagoa da oro har, bai EAE-ren kasurako eta baita lurralde bakoitzaren kasua aztertuta ere.

2008 urterako, eguneko zentroen erregistroak zentro pribatu eta publikoen honako konposizioa agertuko du:

Taula 10: EAE-ko pertsona nagusiei bideraturiko eguneko zentro eta plazen kopurua, herrialdearen eta titulartasunaren arabera, 2008

		Pribatuak	Publikoak	Publikoak %
Araba	Zentroak	0	22	%100
	Plazak	0	477	%100
Bizkaia	Zentroak	21	31	%60
	Plazak	545	1.200	%69
Gipuzkoa	Zentroak	25	38	%60
	Plazak	779	705	%47
EAE	Zentroak	46	91	%66
	Plazak	1.324	2.382	%64


Iturria: SIIS, 2011:11 (geuk moldatua)

Arabara, hortaz, sistema ehuneko ehunean zentro eta plaza publikoz osatua dago. Bizkaian ere, egoitza-zentroetan ez bezala, zentro publikoen nagusitasuna hautematen da, eta 2006ko urtetik aldaketa esanguratsua eman dela ikusi da: plazen laurdena izatetik, plazen %60 izatera iritsi dira plaza publikoak. Gipuzkoan, berriz, zentro publikoak pribatuak baino gehiago dira, nahiz eta azken horiek plaza bolumen handiagoa duten. Ondorioz, EAE-rako datu orokorrek eguneko zentroen sistema

publikoago bat ematen dute argitara, bai zentroei dagokienean eta baita plaza kopuruari dagokionean ere.

Berriro ere, titulartasunaren analisia finantzazio iturrien analisiarekin gurutzatuz, analisian bestelako ñabardura batzuk ageri dira. Honela, VI. Txostenean jaso geratzen den gisan, Arabarentzako ez dago espero ez den emaitzarik, eguneko zentrozen %100 publikoki finantzatuak baitira. Gipuzkoarentzat zentro publikoak erdia baino gehiago direla ikusi da, baina horiei publikoki finantzatutako zentroak gehituz, bien artean osatzen da eskaintzaren ehuneko ehuna, eta ez dago beraz finantzazio publikorik jasotzen ez duen zentrorik. Bizkaiarentzat soilik agertzen dira finantzazio publikorik gabeko eguneko zentroak, nahiz eta beheranzko joera agertuko duten jada 2004-2005 urte bitartean (%9,2tik %5,9ra jaitsiz), agian gerora egiaztatu den sistemaren publikotzeko joeraren ernamuina izan litekeena.

Grafikoa 18: EAE-ko eguneko zentroetako plazen banaketa, herrialdearen eta parte hartze publikoaren arabera, 2004-2005



Iturria: SIIS, 2007a:102 (geuk moldatua)

6.3.2.3 Bestelako datu baseen erkaketa: IMSERSOren azterketak

Orain arte landuriko analisia nolabait osatze aldera, bestelako bi datu-base nagusietan jasotako datuen analisi orokorra gehitzea interesgarria iruditu zaigu, oinarri metodologiko ezberdinen erabilerak aurreko emaitzekiko erkaketa zehatza egitea zailtzen duten arren, joera orokorrak errepikatzen diren ala ez ebazteko.

Interesgarria da, zentzu honetan, IMSERSO erakundeak 2009an argitaraturiko datuen analisia egitea, momentuz eskuragarri diren daturik eguneratuenak eskaintzen baititu. Honela, zentroen titulartasunaren inguruko analisia pertsona nagusiei bideraturiko hiru zerbitzu nagusitan aurkitu dugu, hots: zahar-etxeak, eguneko zentroak eta egoitza-zentroak. Horietako bakoitzean erregistraturiko zentro eta plazak, 2008 urterako jarraian osatu dugun taulan laburbilduak datoz EAE-rako eta lurraldeka banatuta.

Taula 11: EAE-ko pertsona nagusiei bideraturiko zentroak eta plazak, titulartasunaren arabera, 2008

	Zentroak					Plazak						
	Guzti ra	Publi ko	%	Priba tu	%	Guzti ra	Publi ko	%	Itund u	%	Priba tu	%
EAE												
Zahar-etxeak	453	230	%51	223	%49							
Eguneko Zentroak	129	85	%65	44	%35	3.560	1.858	%52				
Egoitza-Zentroak	243	65	%27	178	%73	16.015	5.023	%32	7.495	%47	3.533	%22
GIPUZKOA												
Zahar-etxeak	128	126	%98	2	%2							
Eguneko Zentroak	60	38	%63	22	%37	1.408	256	%18	1.133	%80	19	%12
Egoitza-Zentroak	65	23	%35	42	%65	4.903	634	%13	4.124	%84	145	%3
ARABA												
Zahar-etxeak	57	20	%35	37	%65							
Eguneko Zentroak	16	16	%100	0	0	456	456	%100	0	0	0	0
Egoitza-Zentroak	36	15	%42	21	%58	2.110	1.079	%51	211	%10	820	%39
BIZKAIA												
Zahar-etxeak	268	84	%31	184	%69							
Eguneko Zentroak	53	31	%58	22	%42	1.696	1.146	%67	-		-	
Egoitza-Zentroak	142	27	%19	115	%81	9.002	3.301	%36	3.124	%35	2.568	%29

Iturria: Informe 2008. Las Personas Mayores en España. (Díaz Martín, 2009) (elaborazio propioa)

Taulak jasotzen dituen datuak orain arte aipaturiko datuekin alderatuz, zenbait alderditan nahiko bat datozela ikusi den arren, beste hainbat aspektutan emaitza oso disparekoak agertzen dituzte. Datu-base bakoitzaren zehaztapen metodologikoetan sartu gabe, oro har honako ondorio nagusiak aterako genituzke (erkaketa lurraldeka eginez):

- Araban, egoitza-zentroen errealitateak orain arte aipaturiko joerak berresten ditu, IMSERSOren datuen arabera 2008rako zentroen %58 pribatuak izango liratekeelarik, tradizionalki ehunduriko sare publikoaren nagusitasunari amaiera emanez titulartasun pribatuko zentroen alde. Plazen analisiak ere hedadura publikoaren antzeko argazkia erakutsiko du, plazen %51 publikoak baitira, (SIIS-ek 2008rako emaniko plaza publikoen datuaren pareko (%52) dena) eta ituntze-politikaren tradizio eskasa ere agerian geratzen baita.

Eguneko zentroi dagokienean, Araban sistemak hertsiki publikoa izaten jarraitzen duela ondorioztatzen da, nahiz eta zentro kopuruari dagokionean aldaketa esanguratsuak agertu bestelako datu-baseekin alderatuz. Azkenik, zahar-etxeen kasurako, lehenago honen inguruko analisi zehatzik egin ez bada ere, sarea pribatuagoa dela ikusten da, zeinak zentroen egituraketa, oro har, oraindik ere pribatuagoa egiten baitu.

- Bizkaian, egoitza-zentroen egituraketan orain arte aipaturiko moldez jarraitzen da: sistema nagusiki zentro pribatuek osatuko dute (%81), eta kasu honetan ez publiko ez itunduak diren plazen tamaina garrantzitsua agertuko zaigu (%29), orain arte landuriko datuek agertzen zutena baino neurri handiagoan gainera, zeina neurri batean ulergarria izan baitaiteke analisi honetan ez baitira kontuan hartzen norbanakoei esku-dirutan emaniko laguntzak.

Eguneko zentroi dagokienez, SIIS-ek azken analisisian jasotako joera bera errepikatuko da, irauli egiten baita titulartasun publiko eta pribatuen arteko oreka 2007-2008 urte artean zentro publikoen alde, %60 inguru izatera igaroko baitira. Zahar-etxeen kasuan berriz, sareak nagusiki pribatua izaten jarraitzen duela ikusten da.

- Gipuzkoaren kasuan berriz, egoitza-zentroetan plaza itunduen nagusitasuna berresten den arren, honen neurria eta baita zentro publikoen analisisia ere zalantzagarriz joko genuke, plaza publikoen arteko halako alde (%45,4 SIIS-en azken datuen arabera, %13 IMSERSO-ren datuetan) azaltzen zaila baita.


Eguneko zentroi dagokienez berriz, datuak nahiko bat datoz orain arte landurikoekin, eta nagusiki publikoa den (%65) sare baten existentzia baieztatzen dute. Zaharren-egoitzen kasurako, paradoxikoki, zentro publikoen nagusitasun osoko sarea ageri da Gipuzkoan, beste lurraldeetan ez bezala.

- Oro har, EAE-rako, lau egoitza-zentrotik hiru pribatuak dira 2008rako, zeinak bat egiten duen gutxi asko arestian agerturiko plaza publiko eta pribatuen analisiarekin. Plaza publikoak beraz, hirutik bat lirateke gutxi-gora-behera, eta horiei publikoki finantzatutako plaza pribatuak gehitu ostean, finantzazio publikorik gabeko plazen kopurua nabarmen hazten dela ikusten da (%6tik %22ra), nahiz eta alde hori neurri batean zor dakioken IMSERSO-k diru-laguntza pertsonalak ez kontuan hartzeari.

Eguneko zentroentzako berriz oreka irauli egingo da, hiru zentrotik bi publikoak baitira oro har, eta plazen erdiak baina gehiago ere bai (arestian landuriko datuen aldean, panorama are publikoagoa agertuko zaigu, beraz). Zahar-etxeei dagokienean, berriz, sistema nahikoa orekatua agertzen da Gipuzkoaren sare gutiz publikoak neutralizatu egiten baititu gainerako bi herrialdeetako sare pribatuagoak.

Laburbilduz, beraz, eta azken analisiak aurreko datuekin bat egiten duten puntu nagusienak nabarmenduz, zentroen titulartasunari dagokionean, egoitza-zentroei dagokienez sistemaren pribatizazioa antzematen da oro har, Bizkaian azken urteko joera aldaketa bat berresten ez den artean sistemak nagusiki pribatua izaten jarraitzen baitu, Gipuzkoan pribatuak gehiago dira publikoak baino eta Araban oreka irauli egin da zentro pribatuen aldera. Eguneko zentroena berriz askoz ere sare publikoagoa da oro har, hertsiki publikoa izanik Araban, eta pribatua baino publikoagoa gainerako bi lurraldetan.


Grafikoa 19: EAE-ko pertsona nagusientzako zentroak, titulartasunaren eta herrialdearen arabera, 2008



Iturria: Díaz Martín, 2009 (elaborazio propioa)

Analisia finantzazioaren ikuspegitik eginez, plaza publikoak dira nagusi Araban bai eguneko zentro zein egoitza-zentroetan, nahiz eta azken horietan diru-laguntza publikorik gabeko zentro pribatuen kopurua hazten ari den; Gipuzkoan plazak ituntzeko tradizioa nabarmentzen da hemen ere, eta Bizkaian datuak nahiko kontraesankorrak izan arren, neurri handia batean publikoki finantzatutako plaza pribatuen sistema litzateke patroia.

Grafikoa 20: EAE-ko pertsona nagusientzako zentroetako plazak, titulartasunaren eta herrialdearen arabera, 2008




Iturria: Díaz Martín, 2009 (elaborazio propioa)

6.3.2.4 Titulartasunari lotutako beste zenbait aspekturen analisia

Titulartasunari buruzko analisian interesgarria iruditu zaigu honi loturiko beste zenbait aspekturen analisia gehitzea, atal honetan lantzen ari garen zentro publiko eta pribatuen bilakaeraren testuingurua ulertzeko elementu garrantzitsuak eskaintzen baitituzte. Nagusiki plaza mota bakoitzak duen bataz besteko kostua da gure analisian barneratuko duguna, eta honekin batera, kostu horri estuki lotuta agertzen diren beste bi aldagai: plaza mota bakoitzean erabiltzaileak beregain hartzen duen kostuaren zatia (edo ordainketa partekatuaren maila) eta langile propio zein azpikontratatuak duten soldata maila.

Eskuragarri dauden azken datuetatik abiatuz, EAE-ko Gizarte Zerbitzuen Egoeraren inguruko VIII. Txostenean (SIIS, 2009b), 14 plaza baino gehiagoko egoitza-zentroetan plaza publiko zein pribatuen bataz besteko urteko kostua alderatuz, emaitza hauek erdiesten dira:

Grafikoa 21: Plazako gastu totala eta erabiltzaileko ekarpena eurotan 14 plaza baino gehiagoko pertsona nagusientzako egoitza-zentroetan, titulartasunaren eta herrialdearen arabera, 2008



Iturria: SIIS, 2011:26 (geuk moldatua)

Begien bistakoa denez, plaza motaren arabera bataz besteko kostua asko aldatzen da. Oro har EAE-rako plaza publikoa 1,6 bider garestiagoa da plaza pribatua baino, eta diferentzi aldakorrek dira lurraldearen arabera: Araban agertzen da amildegirik handiena, plaza publikoa pribatua baino hiru bider garestiagoa baita; Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, kostua nahiko parekoa dutela antzematen da.

Lehen datu honi loturik agertzen da bigarrena ere: erabiltzaileen parte hartzea handiagoa izan ohi da (erlatiboki) plazaren kostua txikiagoa den neurrian, eta beraz, plaza pribatuetako erabiltzaileek ordaintzen dute gehien plaza bat eskuratzearen. EAE-ko plaza pribatuan dagoen erabiltzaileak plaza publikoa eskuratu duenak baino gehiago ordaintzen du kasu guztietan Araban salbu. Horrez gain, plaza publikoetan ordainketa partekatuaren maila erabiltzaileentzat %20 inguruan dago Araban eta %30 Gipuzkoan eta Bizkaian, baina aldiz, plaza pribatuetan erabiltzaileak beregain hartzen duen zatia handiagoa da beti: %57 Araban, %62 Bizkaian eta %41 Gipuzkoan.

Eguneko zentroentzat ere analisiak emaitza paretsuak ematen dituela frogatzen da. Plazako eta urteko kostua egoitza-zentroetakoaren aldean askoz baxuagoa da, erdia doidoi (10.844 euro batz bestea, plazaren 21.791 euroekin alderatuz), baina lehen horien kasuan bezala plaza publikoen kostua altuagoa da beti plaza pribatuena baino, Araban izan ezik, plaza pribaturik ez baitago. Erabiltzaileek ordaindu beharreko zatia geroz eta handiagoa da oro har, Bizkaiko kasuan esanguratsuki hazi delarik plaza pribatuetan erabiltzaileak ordaindu beharreko kopurua (ia ehuneko ehuna baita), eta kasu guztietan handiagoa da zenbaki absolututan zein erlatibotan erabiltzaileek plaza pribatu batengatik ordaintzen dutena (SIIS, 2011:27).

Egitate honek inplikazio zuzenak ditu herri-erakundeek zentrozen hedapenerako politika publikoetan, bistakoa baita, zentro edo plaza publikoak irekitzea garestiagoa dela, baina gainera bi arrazoigatik da garestiagoa: plazaren kostua bera delako garestiagoa batetik, eta erabiltzaileak ordaintzen ez duen zatia (eta beraz, herri-erakundeek estaltzen dutena) askoz handiagoa delako termino absolututan plaza publikoentzako plaza pribatuentzako baino.

Plaza publikoen batz besteko kostua pribatuena baino askoz handiagoa izateak iruditzen zaigu neurri batean zerikusi zuzena izan dezakeela plaza mota bakoitza hornitzen duten langileen ordainsariekin, lan-kostuen diferentziarekin alegia, are eta gehiago kasu honetan bezala eskulanean intentsiboa den jarduera ekonomiko bati buruz dihardugula jakinda. Datuak ezin argigarriagoak dira zentzu honetan: 2008rako batz besteko soldata erreala egoitza-zentroetako langile publiko batentzat 52.163 eurotako

den bitartean, langile pribatu apenas den 23.000 euroakoa (SIIS, 2011: 21). Hortaz, herri-erakundeek zuzenean kontraturiko langile batek sektore pribatuan diharduen langileak baino 2,3 bider gehiago kobratzen du. Era berean, 1994tik 2007 arte egoitzazentroetako langile publikoen soldatek %94ko hazkundea izan duten bitartean, langile pribatuena ez da %26 besterik igo, KPIaren hazkundearen azpitik, hain zuzen ere (SIIS, 2009b:46).

Lan-kostuen diferentzia nabarmen honek bestelako egitate baten testuingurua azaltzen laguntzen du gainera: langile azpi kontratatuaren erabilera orokortua pertsona nagusientzako gizarte-zerbitzuetan. Datuak honakoa diote: gizarte zerbitzuetan diharduten langile guztietatik %65 sektore pribatuko langileak dira eta, ondorioz, %35 sektore publikokoak. Sektore horietako bakoitzak baliatzen duen langile azpi kontratatuaren portzentajea askoz altuagoa da, ordea, titulartasun publikoko zentroetan titulartasun pribatukoetan baino: %44,7koa eta %14,5koa, hurrenez hurren. Honela, sektore publikoarentzat lanean diharduten langileen (4.157) erdiak baino zerbait gehixeago baino ez dira administrazio publikoko langile propioak (2.216), gainerakoak azpi kontratatuak (1.789) eta oso bazterreko mailan boluntarioak (152) lirateke (SIIS, 2009b:46).

Analisi honekin nolabait amaitze aldera, Arartekoaren (SIIS, 2004) txostenean, ordurako ageri ziren zenbait aspekturen inguruan egiten diren iruzkinak berreskuratzea interesgarria iruditu zaigu, oraintsu aipatu 2007ko egoeraren aurreikusle izatez gainera, sektorearen titulartasunaren banaketan antzematen den bilakaeraren giltzarri azaltzaile nagusietako bi identifikatzen baitira.

Txostenaren gomendio eta balorazioen atalean, ordura arte pertsona nagusiei bideratutako zentroen ezarpenean antzemandako praktika batzuen arriskuez ohartarazten du (SIIS, 2004). Bi esparru dira, nagusiki, Arartekoaren irudiko arazo-iturri nagusi izan litezkeenak: lehena, herri erakundeak itunpeko plazak finantzatzeko ezarritako gehieneko tarifen zenbatekoa litzateke, hori beren zuzeneko kudeaketako zentroetan dituzten plazen kostuak eta tarifekin erkatuz askoz apalagoa dela antzematen baita eta hargatik ondorioztatzen du:

“...baliteke azken batean ondokoa gertatzea: konparaziozko bidegabekeria saihesteko eta gastuak mugatzeko, administrazioek beren langileen bidezko zuzeneko kudeaketari behin betiko uko egitea, eta erantzukizun publikoko plazei (propioak eta itunpekoak) buruzko esku-hartzea baimen, ikuskapen eta homologazio eginkizunetan (plazak itunduz zein aukerako sistemak aplikatuz, adibidez txeki zerbitzuko sistema) baino ez gauzatzea” (SIIS, 2004:409).

Bigarren afera korapilatsua, sektore pribatuko soldata-baldintzei buruzkoa da, Arartekoak ohartarazten baitu indarreko lan-arautegiari lotzen zaizkion arren “zenbait kasutan ez direla Autonomia Erkidegoko bizitzaren kostuaren arabera, batez ere egoitza pribatuetako estatu Hitzarmena aplikatzen denean”. Jarraian zera ondorioztatzen da:

“Kontu hori lan arloko zenbait gatazka larriren jatorria da, batzuetan grebara –oso luzea izan daitekeena- jo delarik. Egoera horiek banakako konponbideak, hau da, zentro bakoitzerako itundutakoak, aurkituz joan dira, baina gero eta argiago ematen du konponbidea estatu hitzarmenarekin zerikusirik ez duten sektoreko hitzarmen kolektiboak ezartzearen eskutik etorriko dela” (SIIS, 2004:409).

6.4 Laburbilduz

Kapitulu honetan jorraturiko ideia nagusien artean, jarraian datozenak iruditzen zaizkigu azpimarragarrienak:

1.- Ongizate-erregimen autonomikoen analisitik Euskadiko Gizarte Zerbitzuen sistema osaera konplexuko errealitate batean oinarritzen dela ondorioztatzen da, bi tradizio ezberdinen nahasketaren gainean eraikitzen ari baita: alde batetik, Euskadiren bereizgarri den sektore publiko eta komunitario garrantzitsua dago eta beste aldetik, gizarte-zerbitzuen esparruan indartsuenak izan ohi diren esparru informala eta merkatuaren presentzia. Sistema honek, hortaz, ezinbestean behar du mistoa izan, bere abiapuntuko gizarte konposaketan gizarte-egitura guztiek hartzen baitute parte, pisu ezberdinarekin bada ere.

2.- Euskadiko gizarte-zerbitzuen sistema egituratzeko, gaitasun araugilea nagusiki autonomia-erkidegoaren eskumenekoa izateak, Euskadik bere bilakaera normatibo propioa izatea ahalbidetu du, nahiz eta, ezaugarri nagusienetan ez den bere inguruko errealitateetatik gehiegi aldendu. Sistema, beraz, instituzionalki egonkortzen

eta teknikoki prestatzen joan da Euskadin ere, hazkunde erritmo handia erakutsi duelarik azken bi hamarkadetan batik bat, eta horren ondorioz berandu eta urte gutxian egituraturiko sistema baten desantolaketa eta heldugabetasun ezaugarriak agertzen ditu oraindik orain.

3.- Euskadiko 12/2008 Gizarte Zerbitzuen (azken) Legeak, nolabait behin betiko ezarrita uzten ditu orain arte sistemak jarraitu nahi izan dituen ipar nagusiak, guk hiru ardatz nagusitan laburbilduko genituzkeenak: i) lehenik, eskubide subjektiboaren aitortza, zeinak sistemaren unibertsaltasunean eragin nahi baitu; ii) bigarrenik erantzukizun publikoaren ezarpena, zeinak esparru informalaren nagusitasuna nolabait arintzen joatea bultzatu nahi lukeen; iii) hirugarrenik, sistemaren izaera komunitarioa, pertsona zainduaren gertutasunezko esparrua lehenetsi nahi duena, tokiko herri-erakundeei, gizarte sareei eta esparru informalarik lehentasunezko garrantzia emanez.

4.- Sistemaren kudeaketari dagokionean ere, 12/2008 legeak ezarrita uzten du zein den lehenetsitako formula: erantzukizun publiko eta kudeaketa mistoko eredu, hain zuzen ere. Kudeaketa misto honetan, zenbait eginkizun hertsiki publikoak izateaz gainera, legeak lehen mailako tokia aitortzen die mozkinen besteko erakundeei, edo hobeki esanda, erakunde horiei egokitu izan zaizkien zenbait praktika egiaztatzen dituzten erakundeei, horien aldeko diskriminazio positiboko neurriak indarrean jarritz. Zeharkako kudeaketa bidezko sistema hori heltze bidean itun-erregimen berri baten proposamena ere egiten du, oraindik indarrean jarri ez bada ere, hitzarmen eta diru laguntza bidezko sistema gainditu eta berme eta egonkortasun handiagoko sistema osatzea bilatuko lukeena.

5.- Sistema misto hori datuen bitartez modu honetan islatua agertzen da: datu orokorrenei erreparatuz, Euskadi mailan pertsona nagusiei bideraturiko zentro guztiak kontuan hartuz, hamar zentrotik lau lirateke publikoak, beste lau mozkinen bestekoak eta bi pasatxo pribatuak. Azken urteetako joerak, ordea, zentro publiko eta pribatuen hazkunde ikaragarria agertzen dute, neurri apalagoan hazi direlarik mozkinen bestekoak. Titulartasunaz harago, analisia finantzazio publikoaren irismenetik eginez gero, sistema ia osorik publikoki diruz lagundua dela ondorioztatu behar da, %12a baino ez baita inolako sostengu publikorik jasotzen ez duen zentro pribatuen kopurua.

6.- Euskadi mailako analisia hiru herrialdeen arabera eginez gero, ordea, herrialde bakoitzak eredu ezberdin argi bat duela ondorioztatzen da: Araban zentro publikoen stocka handiagoa da zentro pribatuena baino, eta lehen horiek finantzatzera

bideratzen da esfortzu publikoaren zatirik handiena; Bizkaian aldiz, zentro pribatuak dira orain arte bederen nabarmenki gehiengoa, eta horietako gutxiengo bat baino geratzen ez bada ere laguntza publikorik jaso gabe, esfortzu finantzari publikoa batik bat diru laguntza pertsonalen mekanismoaren bitartez gauzatu izan da; Gipuzkoan amaitzeko, zentro pribatuen stockak dagoeneko berdinduko luke zentro publikoena, nahiz eta horietatik kasik bakar bat ere ez den geratzen laguntza publikorik gabe, eta kasu honetan finantzazio publikoaren zatirik handiena plazen ituntze-politiken bidez gauzatzen da. Eredu horiek jakina dinamikoak dira, eta Araban eta Gipuzkoan hedadura publikoa apurka-apurka esangura galtzen doan bezala, Bizkaian presentzia publiko ia hauteman ezin horretan aldaketak ageri dira azken urteetan. Azkenik, zerbitzuen banan banako azterketatik eguneko zentroak oro har egoitza-zentroak baino publikoagoak direla ondorioztatzen herrialde guztietan.

7.- Titulartasunaren analisisian azken aldagai gehigarri batzuk sartzeak orain arteko joeren azalpenean lagun dezakeela iruditzen zaigu. Plaza publikoaren kostua ia bi bider garestiagoa da, oro har Euskadi mailan, plaza pribatuaren kostuaren aldean, herrialderen batean are nabarmenagoa izanik alde hori (Araban, nagusiki). Plazaren kostu diferentzia hori, neurri handi batean lan kostuen diferentziaren bitartez azal liteke, langile pribatuak halako bi baino gehiago kobratzen baitu, batz bestea, langile publikoak. Horrez gain, plaza publikoan txikiagoa da proportzioan erabiltzaileak plaza okupatzeagatik ordaintzen duen zatia, gainerakoa bistan denez, herri-erakundeen gain erortzen delarik. Bi datu horien bitartez ondorioztatzen da, sistemak egun agertzen duen eskari hazkor horri erantzuteko, eskaintza plaza publikoen bidez egitea hainbatez garestiagoa denez, azken urteetako eskaintzaren hazkundera zentro publiko azpikontratatu edo zentro pribatu itunduen bidez sostengatu izan dela nagusiki.

7 KAPITULUA: LANDA LANAREN EMAITZAK

7.1 Sarrera eta metodologia

Jarraian aurkezten dugun lan enpirikoak hiru atal nagusi ditu:

- i) Lehen atal batean, Gipuzkoan pertsona nagusiei bideraturiko zerbitzu eta prestazioen zifra orokorrak aurkezten dira, sektorearen dimentsioaren neurria emateaz batera, estaldura publikoak duen irismenaren inguruko zenbait datu eskainiko dira. Horretaz gain, esparru honetan hirugarren sektoreak edo mozkinaz besteko erakundeek duten garrantzia aztertuko da, Gipuzkoako gainerako erakunde publiko zein pribatuekiko analisi alderatua eginez.
- ii) Bigarren atal batean, gizarte-ekonomiakotzat definituriko erakundeekin osaturiko lagina baten gainean eginiko ikerlanaren emaitzak aurkeztuko dira. Arestian emaniko datu konparatiboetatik harago, atal honetan gizarte-ekonomiako erakundeen lagin baten gaineko azterketa sakonagoa burutu da, hautaturiko erakunde bakoitzaren jarduera esparru, giza baliabide eta baliabide ekonomikoak galdeginez inkesta bat igorri zaielarik. Azterketa honetatik eratorritako ezaugarri orokorrez gain, gizarte-ekonomiaren baitan aurki litezkeen tipologia ugarien inguruko analisi ezberdindua ere eskaintzen da.
- iii) Hirugarren atal baterako utzi dugu, berriz, doktorego tesi honetarako elkarrizketaturiko adituen diskurtsoaren analisisitik eratorritako emaitzen aurkezpena. Elkarrizketa horiek hiru analisi-ardatz nagusiren inguruan antolatu dira: gizarte-ekonomiaren deskribapena, lehenik; honek herri-erakundeekin duen harremanaren azterketa, bigarrenik; eta, gizarte-ekonomiak etorkizuneko gizarte-zerbitzuen sisteman jokatu beharreko funtzioen inguruko gogoetak, azkenik.

Landa lana behar bezala eta modu justifikatuan burutu ahal izateko, ordea, aurretiazko ikerketa lan bat burutu behar izan da, gure iritzian doktorego tesi honen beste emaitza esanguratsu gisa har litekeena: aztergai dugun esparruaren zedarritzea, alegia. Gipuzkoako pertsona nagusien alorrean diharduen gizarte-ekonomiaren definizio zehatz

bat proposatzea izan dugu xede, lehen lehenik, beraz. Gisa honetako beste hainbat ikerlanetan gertatu ohi den bezala, oraindik herri-erakundeen erregistro mailan guztiz finkatu gabeko kontzeptu baten analisia burutzeak hori izan ohi du askatu beharreko lehen korapiloa, kontzeptuari dagokiona, alegia, eta kontzeptu berriari loturiko erakundeen lehen katalogo bat proposatzearena.

Jarraian aurkezten dugun azken kapitulu honetan, beraz, lehen lehenik zenbait azalpen kontzeptual eta metodologiko emango dira, ikergaia zehazteko eta ikerlana aurrera eramateko erabilitako irizpideen azalpen zehaztua emango delarik, bigarren une batean ikerketa honetatik lorturiko emaitzen aurkezpen antolatuari ekiteko.

7.1.1 Zedarritze kontzeptuala: pertsona nagusien zaintza esparruan diharduen gizarte-ekonomiaren unibertsoaren zehaztapena.

Marko teorikoaren lehen hiru ataletan luze eta zabal jardun dugu gizarte-ekonomiaren teorizazioari loturiko hainbat aspektu jorratuz. Atal horietan argi ikusi da kontzeptu honek, bere ibilbide luzean, bilakabide ezberdinak izan dituela herrialde ugartan egikaritzen joan den ongizate-estatuaren arabera, eta halaber, bestelako kontzeptu batzuen gertutasunak eraginda (Mozkinez Besteko Erakundeak, Enpresa Soziala, Elkartasunaren Ekonomia, etab.), horiekin nolabaiteko elkarrizketan garatu izan dela gaur egun dena bilakatu arte.

Azken kapitulu honetan bazter batera lagako dira aurretiaz jorratutako eztabaida kontzeptual horiek guztiak, hain zuzen ere, landa lana egin beharrak eskatzen baitu planteaturiko eztabaida horiek neurri batean ixten joatea, eztabaidak planteatzetik lehen erantzun batzuk ematera igarotzeko, beraz, gizarte-ekonomia zer den eta zer ez den errealitatearen gaineko analisiekin osatzen joateko, alegia.

Lan hau burutu ahal izateko bi oztopo nagusi gainditu behar izan dira lehenik: zehaztasun kontzeptualaren gabezia, batetik, eta kontzeptu horri loturiko erregistro bakar baten gabezia, bestetik. Behin kontzeptuaren zehaztasun falta honen arazoak konpontzeko elementu berriak proposatu ostean, eta gizarte-ekonomia zer den eta zer ez den definitzeko irizpide argiak finkatu ondoren, irizpide horiek sektoreko enpresen

zerrenda eta direktorio ezberdinen gainean aplikatu dira, gizarte-ekonomiaren lagin zehatzagoa osatuz.

Zehaztasun kontzeptualaren aferari dagokionean, lehen atalean azalduko CIRIEC erakundearen garapen eta zehaztapen kontzeptualek nahiko argi mugatzen badute ere gizarte-ekonomiaren esparrua, Espainia mailan 2011ko Martxoaren 29ko Gizarte Ekonomiaren legea¹⁰⁹ onartu izana da, zalantzarik gabe, sektore hau zedarrizten joateko mugarri esanguratsuen. Testuari lege izaera emanik gizarte-ekonomia herri-erakunde aldetik onartua izatera igarotzen da, eta era berean, bere baitako erakunde guztientzat marko juridiko bakarra ezartzen da.

5/2011 Legeak ezartzen duena, 1.go kapituluan aztertu dugun bezala, honakoa litzateke: gizarte-ekonomiako erakundetzat joko dira hainbat printzipio komun betetzeaz gain, honako forma juridikodun enpresak: i) Kooperatibak; ii) Mutualitateak; iii) Jarduera ekonomikoa duten Elkarte eta Fundazioak; iv) Lan sozietateak; v) Laneratze enpresak; vi) Enplegu zentro bereziak; vii) Arrantzaleen kofradiak; viii) Eraldaketarako nekazaritza sozietateak; ix) Erakunde singularrak.

Legeak, era berean, Gizarte Ekonomiaren Sustapenerako Kontseilu bat sortzeko betebeharra finkatzen du, zeinari baitagokio Gizarte Ekonomiako Erakunde Katalogoa osatzen joatea, eta honek zehaztuko du hortaz, autonomia-erkidegoetan egingo diren katalogoekin koordinatuz eta legeak aipaturiko printzipioei loturik, erakunde behin betiko zerrenda¹¹⁰.

Izaera juridikoen abiapuntuko zerrenda hori ontzat emanik, aztergai dugun lurralde eta sektoreari dagokion delimitazioa da egin behar izan den bigarren saioa. Honela, lan honen aztergaia Gipuzkoako gizarte-zerbitzuen sektorean konkretuki pertsona nagusien esparruan diharduten gizarte-ekonomiako erakundeak identifikatzea izan da.

¹⁰⁹ Ley 5/2011, de 29 de marzo, de Economía Social (<http://www.boe.es/boe/dias/2011/03/30/pdfs/BOE-A-2011-5708.pdf>)

¹¹⁰ Gainera, aipagarria da legeak ez duela inolako erregulazio ahalmenik Gizarte Ekonomiakotzat jotzen diren erakundeengan, horiek bakoitzak bere status juridiko propioa duenez dagokion erakunde eskumendun edo autonomia-erkidegoko erregulazio sektorialen pean jarraituko baitute. Legearen helburu nagusia hortaz, Gizarte Ekonomia definitu, identifikatu eta zenbatzea da (Fajardo, 2009:32).

Lehenik eta behin, Gipuzkoako erakunde bezala kontsideratuak izan dira bai jarduera esparrua eta egoitza nagusia Gipuzkoako lurralde historikoan duten erakundeak baina baita autonomia, estatu edo nazioarte mailako erakundeak ere, baldin eta modu egonkorrean Gipuzkoan kokatzen badute beren jarduera¹¹¹.

Bigarrenik, azterketa sektorialean soilik hartu dira aintzat pertsona nagusiei bideraturiko zerbitzu edo zentroren bat kudeatzen duten erakundeak. Sailkapen honek, ordea, baditu bere muga eta arazoak. Gizarte-zerbitzuen inguruko estatistiketan bereizi egiten dira erabiltzaileen azpi-taldeak, eta nahiz eta gizarte-talde ezberdin horiek zehazteko irizpide adostu bakarra ez egon¹¹², horien arteko bat izan ohi da adineko pertsonen azpi-taldea. Gure lan honetarako soilik gizarte-talde hori erabiltzaile nagusi duten erakundeak hartu nahi izan dira kontuan. Eta berriz diogu erakundeak direla aztergai izan ditugunak, hemen nahasmenerako esparruak sor bailitezke, erakundeak eta ematen dituzten zerbitzuetako erabiltzaileen artean, gutxienik bi zentzutan: batetik, pertsona nagusiak artatzen dituzten erakunde askok bestelako kolektiboek ere zuzentzen dizkietelako beren zerbitzuak, eta; bestetik, bestelako giza taldeak artatzen dituzten artean egon litezkeelako pertsona nagusiak ere, esaterako, gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonen artean, tratu txarrak jasandako emakumeen artean edo desgaitasunak dituzten pertsonen artean ere.

Zentzu horretan, ikerketa esparrua ahalik eta zehatzen zedarritze aldera eta bikoiztasunak ekiditeko, hautatutako erakundeen zerrenda horiek ematen duten zerbitzuaren arabera taxutu da, soilik kontuan hartuz pertsona nagusiei bideraturiko zerbitzuak, eta beraz ontzat jo dugu hautaturiko erakunde horiek beren erabiltzaileen artean, modu apalagoan beti ere, bestelako kolektiboetako kideak ere izatea.

¹¹¹ Honela, Gurutze Gorria edo DYA bezalako lurraldez gaindiko erakundeak analisisian barneratzea ontzat jo dugu.

¹¹² Eustaten gizarte zerbitzuen estatistiketan sailkapena boskoitza da: i) haurrak, ii) emakumezkoak, iii) adineko pertsonak, iv) ezgaitasuna eta v) gizarte-bazterkeria; (http://www.eustat.es/estadisticas/tema_24/opt_0/ti_Gizarte_Zerbitzuak/temas.html#axzz1oLZxZ7qe) Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Gizarte Zerbitzuetako Erakunde eta Zentroen Direktorioan, ordea, sailkapenak azpi-talde gehiago dauzka: i) biztanleria osoa, ii) familia; iii) generoa, iv) haurtzarora; desgaitasuna duten pertsonak, v) gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonak eta vi) pertsona nagusiak: (<http://www.direktorioa.net/>); Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikarako Departamentuko Gizarte Behatokia aldiz, banaketa laukoitza da: i) adin nagusiko pertsonak, ii) ezintasunen bat duten pertsonak, iii) adingabeak eta familiak eta iv) pobretasuna eta gizarte-bazterkuntza. Ikus litekeen moduan, beraz, gainerako erabiltzaile taldeak azpitalde ezberdinetan bildu izan badira ere, pertsona nagusiei dagokion taldea bakarra da erabiltzen den informazio-iturria edozein dela ere.

Honela, gizarte-zerbitzuen katalogoan zehazturiko zerbitzu guztietatik¹¹³ gure iritzian zerbitzu nagusiak liratekeenak hautatu dira, horietatik hertsiki publikoak direnak baztertuz (esaterako lehen mailako arreta zerbitzu gehienak, etxez-etxeko laguntza zerbitzua salbu). Gizarte Zerbitzuen katalogoan erantzukizun publikokotzat jotako zerbitzu horiez guztiez gain, ikerlan honetarako kontuan hartu nahi izan dira bestelako laguntza-zerbitzu batzuk ere, funtsean publikoki finantzaturiko boluntario elkarteen bidez ematen direnak eta guk “zahartze aktiboaren sustapenerako zerbitzu” gisa izendatu ditugunak.

Laburbilduz, beraz, pertsona nagusiei bideraturiko lau zerbitzu nagusitan oinarritu gara gizarte-ekonomiako erakundeak identifikatzeko: egoitza zerbitzuak, eguneko zentroak, etxez-etxeko arreta zerbitzuak, eta “zahartze aktiboaren sustapenerako zerbitzuak”. Aipatu behar genuke, gure analitik kanpo utzi dugula tele-alarma edo tele-laguntza zerbitzuaren analisia, zerbitzu honen eskumena Eusko Jaurklaritzarena den neurrian, zerbitzu hori zentralizatua baitago, eta beraz ez du ezarri dugun zedarritze territorialaren baldintza betetzen.

Era berean, boluntario elkarteak barneratzeak zenbait zailtasun gehigarri ekarri dizkio ikerketa esparruaren mugapenari. Lehenik eta behin, hori kontuan hartzea beharrezkoa iruditu zaigu bertan kokaturik baitaude pertsona nagusien laguntza lanetan diharduten boluntario elkarte gehienak, zeinak ezinbesteko erakundeak diren gure iritzirako, elkartegintza gipuzkoarraren benetako argazkia eskaini nahi bada. Horiek kontuan hartu beharrak, ordea, kontzeptualki eta praktikoki zenbait erabaki hartu beharra eragin digu, gure azken lagina behar bezala justifikatua gera zedin.

¹¹³ Gizarte Zerbitzuen 12/2008 legean zehazturik dator 22. Artikuluan Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema-ko Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa. Bertan, lehen mailako eta bigarren mailako arreta zerbitzuen artean honakoak agertzen dira: i) Informazio-, balorazio-, diagnostiko- eta orientazio-zerbitzua, ii) Etxez etxeko laguntza-zerbitzua, iii) Gizarte eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua, iv) Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua, v) Gizarte-zerbitzuen eremuan partaidetza eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzua, vi) Telelaguntza-zerbitzua, vii) Eguneko arretako zerbitzuak, viii) Gaueko harrera-zentroak, ix) Harrera-pisua; Etxebizitza babestua; Apartamentu babestuak; Etxebizitza komunitarioa, x) Mendetasuna, ahalmen-urritasuna, bazterketa eta babesgabetasuna baloratzeko eta diagnostikatzeko zerbitzua, xi) Eguneko arretako zerbitzuak edo zentroak, xii) Gaueko harrera-zentroak. Egoitzak, xiii) Atsedenerako zerbitzua, xiv) Gizarte-larrialdietarako koordinazio-zerbitzua, xv) Autonomia sostengatzeko zerbitzuak, xvi) Familian esku hartzeko eta bitartekaritza egiteko zerbitzuak.

Kontzeptualki, boluntario elkarteak gizarte-ekonomiako erakundeak diren edo ez ebatzi behar litzateke, beraz. Gure iritzian Espainiako Gizarte Ekonomiaren 5/2011 legeak ez du argi uzten hori, bere katalogoan “Jarduera ekonomikoa duten Elkarte eta Fundazioak” soilik aipatzen baititu. Hemen eztabaidarako esparru zabal bat irekitzen da, “jarduera ekonomikoa”rekin legelariak zer ulertzen duen ez baita argi geratzen.

Egoitzak kudeatzen edo etxez-etxeko laguntza zerbitzua eskaintzen diharduten elkarte eta fundazioak barneratzeko arazorik ikusten ez dugun moduan, horiek jarduera ekonomiko ezaguna baitute, ez da hain argi geratzen boluntario elkarteen kasuan horien jarduna jarduera ekonomiko gisa ulertu behar litzatekeen ala ez, mota ezberdinetako zerbitzuak eskaini arren, horiek ez baitira kontraprestazio ekonomiko baten trukean ematen, eta gainera, zerbitzu horiek ematearren ez baitu inork ordainsaririk jasotzen. Esan genezake, beraz, zentzu zabal batean “merkatutik pasatzen ez diren jarduera ekonomikotzat” jo behar liratekeela zerbitzu horiek guztiak, legeari zorrotz heldurik, beraz, argi geratzen ez delarik gizarte-ekonomiako eragile diren ala ez.

Hala ere, doktorego tesi honetan boluntario elkarteak gizarte-ekonomiako eragiletzat kontsideratzea ontzat eman dugu, lehen kapituluan azaldu dugun moduan, CIRIEC erakundeak proposatzen duen “Gizarte Ekonomiako ez-merkatuko azpi-sektorean” bete betean kokatu bailitezke. Europako Kontularitza Sistemak deituriko “*instituciones sin fines de lucro al servicio de los hogares*” horien inguruan eztabaida oraindik orain guztiz itxi gabe dago, ez mundu akademikoan are eta gutxiago maila legislatiboan. Monzón-ek aipatzen duen moduan (2010: 51)”

“aunque la gran mayoría de ellas tienen un funcionamiento democrático, desarrollan actividad económica y reúnen las características propias de la Economía Social, la oportunidad de su inclusión en el ámbito de la misma está sometida a debate”

eta aurrerago zehaztuko du:

“...solo las entidades de este sector institucional que desarrollan actividades de acción social son consideradas de forma ampliamente mayoritaria parte integrante de la Economía Social en sentido estricto”.

Zehaztapen honekin bat eginez, beraz, pertsona nagusien “zahartze aktiboaren sustapenean” diharduten boluntario elkarteak dudarik gabe gizarte-ekintzaren (*acción social*) esparruan kokatu beharrekoak dira, nahiz eta Monzón-ek (2010: 557) hemen ere bi motatako erakundeak bereizten dituen: hertsiki gizarte-ekintzakoak liratekeenak alde batetik, eta “enkontru eta aisialdirako, eragin eta ordezkartzarako” (*encuentro y ocio, influencia y representación*) dihardutenak, bestalde.

Lehen horiek dira, egilearen irudiko, gizarte-ekonomiaren identitate irizpideak egiaztatzen dituzten neurrian ez-merkatuko azpi-sektoreko “gune gogorra” (*nucleo duro*) eta zentzu horretan eztabaidarik onartuko ez luketenak. Bigarrenak, aldiz, aisialdirako edo ordezkartzarako erakundeak diren boluntario elkarteak, alegia, eztabaidan leudeke oraindik orain¹¹⁴.

Gure azterketa esparruari dagokionez, azken bereizketa hori egitea ez da huskeria, berebiziko eraginak baititu behin-behineko laginaren zehaztapenean, izan ere, boluntario elkartearen artean gutxienik bi motako elkarteak bereizten dira eta: izaera mutualistakoak, alde batetik (horien artean leudeke, nagusiki, erretirodunen elkarteak eta zahar-etxeak) eta hirugarren pertsonen mesedetan diharduten boluntario elkarteak bestetik (guk “zahartze aktiboaren sustapenerako elkarte” deitu ditugunak). Lehen horiek dira, gure iritzian, aisialdi eta ordezkartzara funtzioak beteko lituzketen erakundeak, eta hortaz, lege aldetik zehazten ez diren neurrian eta maila akademikoan eztabaidagai diren neurrian, ikergai honetarako kontuan ez hartzea hobetsi dugu.

Modu honetan, eta orain arte garaturiko justifikazioa laburbilduz, Gipuzkoako pertsona nagusiei bideraturiko gizarte-zerbitzuetan diharduten gizarte-ekonomiako eragileen unibertsoa jarraian aurkezten ditugun hiru familia nagusitako erakundeek osotuko lukete:

¹¹⁴ Eztabaida horiek guztiak, maila akademikoan irekita jarraitu arren, Gizarte Ekonomiaren 5/2011 Legearen garapenarekin batera argitzen joango diren eztabaidak dira, batik bat autonomia-erkidego bakoitzak bere Gizarte Ekonomiaren Sustapenerako Kontseiluak eratzen joan ahala espero baita bateko eta besteko katalogoak finkatzen joatea.

1.- Kooperatiba elkarteak: izan mozkin asmorik gabekoak ala mozkin asmodunak, izan lan elkartukoak ala kooperatiba mistoak, sektorean diharduten kooperatiba guztiak gizarte-ekonomiako parte lirateke.

2.- Fundazioak: izan fundazio hertsiki pribatuak edo izan parte hartze publikodunak baina kudeaketa pribatukoak (ez fundazio publikoak), sektorean diharduten gizarte-ekintzako fundazio guztiak gizarte-ekonomiako parte lirateke.

3.- Elkarteak: izan jarduera ekonomikodunak edo izan gizarte-ekintzako boluntario elkarteak, sektorean diharduten elkarte guztiak lirateke gizarte-ekonomiako parte, aisialdi eta ordezkartzako erakundeak izan ezik (erretiratuen elkarte eta zahar-etxeak, eta erretiratuen ordezkartza organoak, nagusiki).

7.1.2 Landa lanaren garapena, antolakuntza eta erabilitako ikerkuntza-teknikak

Sarreran aipatu dugun moduan, landa lanean izaera ezberdineko analisiak gauzatu dira eta, ondorioz, horietako bakoitzari egokitutako ikerkuntza-teknikak baliatu dira horretarako.

Gizarte-ekonomiako erakundeek Gipuzkoako pertsona nagusien zaintza zerbitzuetan duten dimentsioa eta banaketa aztertzeke, teknika kuantitatiboetara jo dugu, nagusiki bi motatako informazio iturriak ustiatuz: lehen mailako datuak sortu ditugu erakundeei banan bana igorritako inkestean erantzunetatik, eta bestalde, bigarren mailako analisiak burutu dira jadanik argitaraturiko lan eta estatistiken gaineko azterketak eginez.

Bestalde, landa lanak bigarren ardatz nagusi bat ere izan du, izaera baloratiboagoa duena aurrekoaren aldean, gizarte-ekonomiak gaur egun eta etorkizuneko gizarte-zerbitzuen sisteman izan beharreko toki eta funtzioen inguruko eztabaidan oinarritu dena. Eztabaida hau behar bezala jorratzeke, sektorean inplikaturiko eragile ezberdinen diskurtsoaren analisia egin da, hartarako ikerketa-teknika kualitatiboek baliatu garelarik. Bi izan dira, halaber, eginkizun honetarako erabilitako informazio-iturri nagusiak: lehenik, gizarte-ekonomiako erakundeei igorritako inkestetan baneraturiko galdera irekiak edo iritzi-galderak, erakundeen datu konkretuez harago zenbait gairen inguruan

horien iritzia zein litzatekeen zehaztea eskatu baitzaie, eta; bigarrenik, sektoreko zenbait adituri eginiko sakoneko elkarrizketa erdi gidatuak, gizarte-ekonomiaz oro har eta honek herri-erakundeekiko harremanean izan beharreko toki eta funtzioez garaturiko diskurtsoak aztertu direlarik.

7.1.2.1 Analisi kuantitatiboa

a) Bigarren mailako analisiak: ustiatutako erregistro eta estatistika nagusiak

Gizarte-ekonomiakotzat kontsideraturiko erakundeen izaera juridikoen zerrenda behin finkatu ostean, irizpide horiek baliatuz eskuragarri izan ditugun erregistro eta direktorio ezberdinak arakatu dira, Gipuzkoan esparru honetan legokeen unibertso osoa zehazte aldera. Esan beharra dago, halaber, gizarte-ekonomiako erakundeentzat erregistro bakarra ez izateaz gain, herri-erakundeentzat oraindik orain erregistro-mailan berria den kontzeptu bat lantzen aritzeak zailtasun ugari sortu dizkigula erakundeen kopuru osoa zehaztasunez zenbatzeko.

Nolanahi ere, eta kontuan izanik esparru honetan kooperatiben presentzia oraindik orain nahiko bazterrekoa dela (erakunde kopuruari dagokienean bai bederen, kudeaturiko zentroak kontuan hartuz gero zertxobait garrantzitsuagoa den arren), azterketa kuantitatibo orokorra “mozkinen besteko erakundeen” erreferentziarekin egin da, hori baita bai Eustat-ek eta baita Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako sailak ere darabilten terminologia. Erakundeen banan banako zerrendekin lan egiteko aukera izan dugun erregistroetan berriz, erakunde horietako bakoitzaren izaera juridikoaren informazioa izan dugunetan, alegia, gizarte-ekonomiarentzat arestian finkaturiko irizpideen arabera egin dira multzokatzeak.

Orokorrean, honako erregistro-datuak izan dira kontsultatu eta kontrastatu direnak:

- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Gizarte Zerbitzuetako Erakunde eta Zentroyen Direktorioa (<http://www.direktorioa.net/>). Zerrenda honen bitartez, Gipuzkoako lurraldean Egoitza, Eguneko Zentro eta Etxez-etxeko laguntza zerbitzuetan diharduten erakunde guztien zerrenda osatu da,

horietatik gizarte-ekonomiari atxikitako izaera juridikoak diskriminatu direlarik.

- Eustat – Euskal Estatistika Erakundeak Gizarte Zerbitzuen estatistikak Estatistika horien bitartez, Gipuzkoan pertsona nagusien arretan diharduten erakunde guztien analisi alderatua egin ahal izan da, geronek berariaz eginiko eskari bati erantzunez, erakundeon datuak publiko, pribatu eta mozkin asmorik gabeko hiru azpi-taldetan desagregaturik eskuratu direlarik.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika saileko Gipuzkoako Gizarte Behatokia (<http://www.behagi.net/>). Estatistika horien artean, Gipuzkoako Foru Aldundiak pertsona nagusien alorrean dituen baliabideen, erabiltzaileen, prestazio ekonomikoen eta gastu orokorren inguruko informazioa jaso ahal izan da.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Zentro eta Erakundearen Foru Erregistroa. Erregistro honen bitartez Gipuzkoan Egoitzen eta Eguneko Zentroen kudeaketan diharduten erakunde guztien zerrenda osatu da, horietatik gizarte-ekonomiari atxikitako izaera juridikoak diskriminatu direlarik.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika saileko “Gizarte-Ekimenerako Laguntza Plana 2010” deialdia. Zentroen kudeatzaile ez diren elkarten unibertsoa hurbilketa egiteko, 2010. urtean Aldundiak diru-laguntzen deialdi honen bidez sostengaturiko elkarten zerrenda eskuratu da.
- Etxez etxeko laguntza zerbitzuan diharduten erakundearen zerrenda osatzeko, Konfekoop erakundeak mendekpotasunaren esparruan kooperatiba berriak sortzeko aukerak aztertzeko SSI eta Promokoop-i eskaturiko ikerlan baterako ustiatutako zerrenda baliatu da.

Erregistro eta informazio-iturri ezberdin horietatik eskuraturiko gizarte-ekonomiako erakundearen zerrenda osoa, aldi berean, Gipuzkoako Foru Aldundiko (GFA) Gizarte Politika saileko arduradun (ohi) batekin¹¹⁵ kontrastatu ahal izan da, beronek sektorearen gainean duen zuzeneko ezagutza profitatuz. Honela, erregistroetan eguneratu gabe egon litezkeen datuak zuzentzeaz batera, esanguratsuenak liratekeen erakundeak gure azken

¹¹⁵ Doktorego tesi honetako landa lana egin bitartean pertsona honek Foru Aldundiko Gizarte Politika Departamenduko kargudun ziharduen, nahiz eta gaur egun, eta tartean izan diren hauteskundearen ondorioz izaniko gobernu-talde berriaren alaketaren ostean, ez duen gehiago eginkizun hori betetzen.

laginean barneratu izan direla bermatu dugu, batik bat boluntario elkarteen esparruan unibertsoa oso zabala, bizia eta aldakorra baita, kasu askotan tokiko mailako elkartez osatua, gainera.

Aipaturiko erregistro ezberdinak gurutzatuz eta horiek GFAko arduradunen galbahetik igaro ostean, Gipuzkoan pertsona nagusien esparruan diharduten gizarte-ekonomiako 43 erakundeko zerrenda erdietsi da, jarraian azaltzen dugun eran multzokatuak:

- Egoitza zerbitzuetan, Eguneko Zentro eta Egoitzen titular eta/edo kudeatzaile diren 21 erakunde.
- Etxez-etxeko laguntza zerbitzuan 11 erakunde.
- Bestelako laguntza zerbitzuetan diharduten 11 boluntario elkarte¹¹⁶.

b) Lehen mailako datuen sorkuntza: inkesten diseinua eta jasotako erantzun maila

Behin aztertu beharreko unibertsoaren azken lagina finkatu ostean, erakunde horietara guztietara igorri beharreko inkesta diseinatu da.

Inkesta EHU-k hitzartua duen inkestak egiteko on-line plataforma baten bidez gauzatu da¹¹⁷. Inkestaren lehen bidalketa 2011ko Martxoaren 7an burutu zen eta lehen aldi horretan, mota honetako ikerketetan ohikoa den legez, jasotako erantzun kopurua nahiko apala izan zenez (lagineko erakundeen %31), Martxoaren 21ean bigarren bidalketa bat burutu zen. Bigarren aldi honetan erantzun-maila garrantzitsu bat erdiesteaz gain, on-line bidez erantzuterik izan ez zuten erakundeetako batzuekin inkestak aurrez aurre egitea erabaki zen. Horiez gain, erantzun nahi edo ahal izan ez

¹¹⁶ Kontutan izan, boluntario elkarteen artetik pertsona nagusien esparruan gehiengoa zabala den elkarte mota bat baztertu dugula gure analisitik, erretiratuen elkarte eta zahar-etxeena, hain zuzen ere, justifikazio teorikoan aipatu dugun bezala horiek “aisialdirako erakunde” diren neurrian, gizarte-ekonomiakotzat jotzea eztabaidagai baita gaur egun. Aipaturiko elkarte horiez gain, bestelako “ordezkaritza erakunde” batzuk ere (esaterako, Erretiratu eta Aurre-Erretiratuen Elkartek, eta Elkarteen Federazioak) baztertuak izan dira gure analisitik, arestian aipaturiko arrazoi berberengatik. Horrez gain, Gipuzkoako pertsona nagusien alorrean diharduten bestelako elkarteen unibertsoa gure laginean jasotako baino zabalagoa izan litekela jakitun izanagatik, lagina murriztago batekin lan egitea erabaki da, aipaturiko Foru Aldundiko arduradunaren iritzian horien artetik aktiboenak eta garrantzitsuenak diren horiek hautatzea hobetsi delarik.

¹¹⁷ www.encuestafacil.com

zuten gainerako erakundeekin telefono bidezko harremana egin eta horien ezintasuna edo prestutasun falta egiaztatu ostean, inkesta Apirilak 4ean itxi zen. Azken emaitza bezala, inkesta osorik erantzundako erakundeak guztira 26 izan dira (lagin osoaren %60).

Jasotako erantzunak zerbitzuz zerbitzu honakoak lirateke: egoitza zerbitzuren bat (egoitzak eta eguneko zentroak) eskaintzen duten 21 erakundetatik 10 erakundek bete dute osorik inkesta; etxez-etxeko laguntza zerbitzua eskaintzen duten 11 erakundetatik 7 erantzun jaso dira eta gainerako laginean sarturiko 11 boluntario elkartetatik 9 izan dira inkesta betetzeko lana hartu dutenak. Jarraian taulan laburbildurik inkestan landuriko lagineko enpresen mapa.

Koadroa 20: Inkestaren lagineko enpresen mapa

Izaera juridikoa	Erakundearen izena	Zerbitzu nagusia	Herria
Ongintza Etxea	BENEFICIENCIA MUNICIPAL PETRA LEKUONA	Egoitza zerbitzuak	Oartzun
Kongregazioa	CONGREGACION MADRES DESAMPARADOS Y SAN JOSE DE LA MONTAÑA	Egoitza zerbitzuak	Donostia
	FRANCISCANAS MISIONERAS DE LA INMACULADA CONCEPCION	Egoitza zerbitzuak	Donostia
Fundazioa	BIZITZEN FUNDAZIOA	Egoitza zerbitzuak eta etxez etxeko laguntza zerbitzua	Durango
	FUNDACION JOSE MATIA CALVO	Egoitza zerbitzuak	Donostia
	FUNDACION HURKOA	Egoitza zerbitzuak	Donostia
	FUNDACION BENEFICIENCIA RESIDENCIA SAN GABRIEL	Egoitza zerbitzuak	Hondarribia
	RESIDENCIA NUESTRA SEÑORA DE LAS MERCEDES	Egoitza zerbitzuak	Eskoriatza
	FUNDACION MIKEL DEUNA EGOITZA	Egoitza zerbitzuak	Mutriku
	FUNDACION ZORROAGA	Egoitza zerbitzuak	Donostia
Kooperatiba	ZU ETA BOK SOCIEDAD COOPERATIVA	Egoitza zerbitzuak eta etxez etxeko laguntza zerbitzua	Tolosa
	GESTION DE SERVICIOS RESIDENCIALES SOCIEDAD COOPERATIVA	Egoitza zerbitzuak eta etxez etxeko laguntza zerbitzua	Arrasate
Elkartek	ASOCIACION ACEX-ESKE	Gizarte eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua	Donostia
	HELDUEN HITZA	Pertsona nagusien prestakuntza iraunkorra	Donostia
	LAHAR ELKARGOA ASOCIACION PARA INTERVENCION PSICOSOCIAL	Gizarte eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua.	Donostia
	FEDERACION DE ASOCIACIONES NAGUSILAN DEL PAIS VASCO	Gizarte-zerbitzuen eremuan partaidetza eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzua.	Donostia
	IKASTEN ASOCIACION ALUMNADO ESCUELA DE LA EXPERIENCIA DEBABARRENA	Esperientzia eskola	Eibar
	IZARBIDE-ASOCIACION DE MAYORES VOLUNTARIOS EN INFORMATICA DE GUIPUZCOA	Pertsona nagusientzat informatika hastapenak	Donostia
	CENTRO SOCIO SANITARIO DE CRUZ ROJA.SN.SN.	Atsedenerako zerbitzua eta autonomia sostengatzeko zerbitzuak.	Donostia
	ZAHARTZAROA GERIATRIA ETA GERONTOLOGIA EUSKAL ELKARGOA	Geriatrico profesionalak	Bilbo
	DYA GIPUZKOA	Gizarte-zerbitzuen eremuan partaidetza eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzua.	Donostia
	ILARKI ELKARGOA	Etxez etxeko laguntza zerbitzua	Tolosa
	ZUGATIK ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA	Etxez etxeko laguntza zerbitzua	Alegia
	HAMABI T GIZARTE ZERBITZUAK	Etxez etxeko laguntza zerbitzua	Pasaia
	GOIZ ARGI ASOCIACION ASISTENCIAL	Etxez etxeko laguntza zerbitzua	Bergara
LAN ALAIA ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA	Etxez etxeko laguntza zerbitzua	Aia	

Iturria: geuk egina

Erakunde guztiei igorritako inkestak (**2. Eranskina**) guztira 43 galdera ditu, eta bertan izaera kuantitatiboko erakundeen oinarritzko datuak eskatzen dira bestelako zenbait balorazio-galdera egiteaz gain. Inkesta sei ataletan banatua dago: i) datu orokorrak (sorkuntza urtea, izaera juridiko, etab); ii) jarduera esparrua (zein zerbitzu ematen duten, zenbat zentro/erabiltzaile, etab.); iii) giza baliabideak (langile/boluntario kopurua, sexua, etab); iv) baliabide ekonomikoak (gastu/sarrerak, finantza-iturriak, etab); v) parte hartzea (erakundeak barne-mailan zein kanpoari –gizarte zein herri-erakundeei- begira); vi) azken gogoetak.

Lehen lau ataletako galderak izaera kuantitatiboagoa izan arren, azken bi ataletan galdera zabalagoak egin dira, izaera kualitatiboagoa dutenak, eta sektoreko adituekin egin diren sakoneko elkarrizketekin erlazio zuzena dutenak, emaitza horien guztien aurkezpen bateratua egiteko xedez

7.1.2.2 Analisi kualitatiboa

Arestian aurreratu moduan, analisi kualitatiboak bi jatorri izan ditu nagusiki: bata, gizarte-ekonomiako erakundeetako arduradunen iritzia jasotzeko balorazio-galderak, eta bestea, sektorean modu baten edo bestean inplikaturiko adituei eginiko sakoneko elkarrizketak.

Inkesten diseinuan barneratu diren balorazio-galdera horien bitartez gai konkretu batzuen inguruan gizarte-ekonomiako erakundeek hartuko luketen posizionamendua aztertu da. Zentzu horretan, eta inkesta galdera itxien bidez egin denez, erakundeok jarritako aukeren artean eman behar izan dituzte beren erantzunak.

Horiez gain, sektorean adituak diren norbanakoei elkarrizketak egin zaizkie. Sakoneko elkarrizketa gehienak 2011ko Martxoa eta Apirila bitartean burutu ziren. Elkarrizketa horien gidoia (**1.go Eranskina**) prestatzerako orduan, galderak modu irekian eta ahalik eta malgutasun handienarekin egitea hobetsi da, zehaztutako hiru gai bloke nagusien inguruan galdera orokorrak, norbere diskurtsoa garatzeko bide eman dezaketenak, proposatuz.

Zehazturiko hiru gai bloke nagusietan, doktorego tesi honetan jorraturiko hipotesi ezberdinak jaso nahi izan dira: lehenik, analisisa gizarte-ekonomiaren errealitatean zentratu da, gainerako gizarte-egituren aldean izan litzaketen elementu bereizgarrien inguruan galdetuz, berau osatzen duten erakundeen arteko tipologia ezberdinetan sakonduz eta horietako bakoitzaren epe motzeko bilakabideak nondik nora jo dezakeen eztabaidatuz; bigarrenik, gizarte-ekonomia eta herri-erakundeen arteko harreman ereduaz azterketa egin nahi izan da, harreman horren aspektu ekonomikoak eta bestelakoak jorratuz. Azkenik, Gipuzkoako etorkizuneko gizarte-zerbitzuen sisteman gizarte-ekonomiak izan beharreko tokiaz jardun gara gogoetan, gure abiapuntuko zaintza erregimenari loturiko analisiak burutuz, pertsona nagusien zaintzan jokatzeko duten lau gizarte-egitura nagusien (estatua/merkatua/familia/gizarte zibila) arteko orekak orain arte zein modutan egikaritu diren aztertzeko, eta aurrerantzean, azken lege-berrikuntzen ondorioz, zein zentzutan alda litezkeen eztabaidatuz.

Era berean, gidoi irekia modu honetan planteaturik, komenigarria iruditu zaigu elkarrizketatuen artean herri-erakundeetako ordezkariak eta gizarte-ekonomiako arduradunak gain, bestelako zenbait gizarte-eragile ere barneratzea. Berri-emaileen diseinu hori burutzeko, beraz, oso kontuan hartu nahi izan da inplikaturiko erakunde eta instituzio ezberdinen artean nolabaiteko oreka bat mantentzea. Honela, bai instituzio ezberdinen artean, eta baita instituzio bakoitzaren barruan ere, ahalik eta profil anitzetako berri-emaileak bilatu dira, norik bere ikuspegitik gara litzakeen diskurtsoak beraien artean ahalik eta anitzenak izateko esperantzan.

Profil aniztasun hori bermatzeko baliaitu ditugun irizpideak honakoak izan dira:

- Herri-erakundeetako ordezkarien artean (guztira 5 pertsona): alde batetik hiru mailatako herri-erakundeetako ordezkariak hautatu dira, maila autonomiko (Eusko Jaurlaritza), foru-mailako (Gipuzkoako Foru Aldundia) eta udal-mailako ordezkariak elkarrizketatuz. Gure ikergaiari dagokionez foru-mailak besteen aurrean izan lezakeen pisu handiagoa dela eta, ordezkari gehiago bilatu dira maila honetakoak. Era berean, ordezkari horien artean bi profil ezberdinetako profesionalak hautatu dira: administrazioko teknikariak batetik, eta arduradun politikoak, bestalde.

- Gizarte-ekonomiako erakundeen artean (guztira 7 pertsona): zehazturiko hiru familia ezberdinetako arduradunak hautatu dira: kooperatibak, fundazioak eta elkarteak. Lehen horien artean, kooperatiba zerbitzu-emaile bateko arduradunaz gainera, kooperatiben inguruko sustapen plataformetako bi arduradun gehitu dira. Fundazioei dagokienez, fundazio hertsiki pribatu bat eta patronatuan parte hartze publikoa duen fundazio pribatu bateko arduradunak barneratu dira. Elkarteen esparruan berriz, elkarte zerbitzu-emaile bateko eta boluntario elkarte bateko arduradunak elkarrizketatu dira.
- Bestelako gizarte-eragileen artean (guztira 4 pertsona): hiru profil ezberdinetako berri-emaileak bilatu dira: gizarte-zerbitzuetako ikerketa eta dokumentazio zentroetako bi arduradun, ordezkari sindikal bat eta eragile feminista bat elkarrizketatu dira.

Profil horiek aurretiaz zehaztu ondoren, horietako bakoitzari ondoen egokituriko pertsonak hautatzerako orduan Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika saileko arduradun baten lankidetzaz izan dugu. Pertsona honi eskerrak, profil bakoitzean eskarmentudunak izan litezkeen pertsonen identifikazioa erraztu zaigu, beti ere ekarpen kualitatibo eta esanguratsuak egin litzaketan pertsonak hobetsiz.

Jarraian aurkezten dugun laburpen taulan agertzen dira elkarrizketaturiko 16 pertsonen profilak eta horietako bakoitzari ezarri diogun kodea, landa laneko emaitzen aurkezpenerako kode horiek baitira erabili ditugunak berri-emailei erreferentzia egiteko.

Koadroa 21: Elkarrizketaturiko adituen zerrenda, profilararen arabera

ERAKUNDEA	AZPI-ERAKUNDEA	KODEA	ARDURA
A. HERRI- ERAKUNDETAKO ORDEZKARI ETA LANGILEAK	Eusko Jaurlaritza	A.1.	Erkidego mailako politikari goi-karguduna
	Foru Aldundia	A.2.	Foru Aldundi mailako politikari goi-karguduna
		A.3.	Foru Aldundi mailako teknikari goi-karguduna
		A.4.	Foru Aldundi mailako teknikari goi-karguduna
	Udala	A.5.	Udal mailako teknikari goi-karguduna
B. GIZARTE EKONOMIAKO ERAGILEAK	Elkarteak	B.1.	Elkarte profesionaleko arduraduna
		B.2.	Boluntario elkarteko zuzendaria
	Fundazioak	B.3.	Fundazio pribatuko arduraduna
		B.4.	Fundazio pribatuko zuzendaria
	Kooperatibak	B.5.	Kooperatibako koordinatzaile nagusia
		B.6.	Kooperatiben sustapenerako erakundeko arduraduna
		B.7.	Kooperatiben sustapenerako plataformako arduraduna
C. BESTELAKO GIZARTE ERAGILEAK	Gizarte Zerbitzuen alorreko dokumentazio eta ikerketa zentroak	C.1.	Dokumentazio eta ikerketa zentroko arduraduna
		C.2.	Dokumentazio eta ikerketa zentroko arduraduna
	Sindikatuak	C.3.	Gizarte-zerbitzuen alorreko ordezkari sindikala
	Mugimendu feminista	C.4.	Mugimendu feministako kidea

Iturria: geuk egina

7.2 Landa lanaren emaitzak (I): sektorearen zifra nagusiak

7.2.1 Artatu beharreko pertsonak eta baliabide publikoak

2010eko Eustat-en datuei erreparaturaz, Gipuzkoan pertsona nagusiak 132.857 dira, 65 urtetik gorakoen artean 55.410 gizonezkoak (41,7%) eta 77.447 andrazkoak (58,3%) liratekeelarik. Euskal Herriko Gizarte eta Ekonomiaren atlaseko datuen arabera, 2011an 137.865 lirateke 65 urtetik gorako biztanleak, 57.629 gizonezkoak eta 80.236 andrazkoak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaraturiko Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen II. Foru Mapan (Gizarte Politikako Departamentua, 2008), 2008-2012 urte bitarteko estimazioak jasotzen dira. Bertan, azken urteetan etengabe hazten joan den zahartze-tasari egiten zaio erreferentzia, Gipuzkoako lurraldean (ingurukoetan bezalaxe) batera ematen ari diren bi gizarte-prozesuren ondorioz: bizi-itxaropenaren hazkundera batetik (Gipuzkoan 76,6 urtekoa gizonezkoentzat eta 84,1 urtekoa andrazkoentzat, 2007an) eta jaiotze-tasen murrizketa bestetik. Datuei erreparaturaz, azken 25 urteetan zahartze-tasa bikoiztu egin dela ondorioztatzen da, 1981an %9,4 izatetik, 2007an %18,3 izatera igaro delarik, eta

2012rako, eginiko kalkuluen arabera, aurreikuspenak %20,6ko tasa bat emango lukete, guztira 65 urtetik gorako 142.000 pertsona inguru leudekeelarik Gipuzkoan (horietatik 44.300 inguru 80 urtetik gorakoak).

Pertsona nagusi horien ezaugarriei dagokienez, arestian 6. kapituluan EAE-rako lorturiko diagnostikoaren antzeko emaitzak lortzen dira Gipuzkoarentzako ere: nagusien artean gehiengo andrazkoak lirateke (%60aren buelta horretan), eta are gehiago 80 urtetik gorako pertsonen artean (2007an %73,4). Horrez gain, andrazko nagusien artean %25 bakarrik bizi da etxean, Eustat-en datuen arabera, 2006an 27.000 pertsona nagusi bakarrik bizi zirelarik (familia guztien %11) (Gizarte Politikako Departamentua, 2008).

Datu demografiko horiei mendekotasunaren inguruko datuak erantsiz gero, aipaturiko dokumentuan Gipuzkoako pertsona nagusien %12,6ek onartua izango luke mendekotasun mailaren bat 2008rako, mendekotasuna onartutako pertsonen artean gehiengo liratekeelarik adineko pertsonak gainerako kolektiboekiko (%78 inguru). Lehen datu horiek, ordea, Mendekotasunaren Legea onartu eta bigarren urtera lorturikoak lirateke, legea indarrean jarri eta denbora gutxira, alegia, eta jadanik ordurako eginiko aurreikuspenak gairituak izan baziren, ordutik hona datuek azalduriko bilakabideak joera bertsua mantendu du.

Gipuzkoako Gizarte Behategiaren datuen arabera (Gizarte Politika Departamentua, 2012), 2009 urterako 131.611 lirateke pertsona nagusiak Gipuzkoan, eta horien artean %10,4 gizarte-zerbitzuren baten erabiltzaile ziren: 5.692 pertsona egoitzetan, 2.036 eguneko zentroetan, 5.277 pertsonak etxez-etxeko laguntza zerbitzuen onuradun eta 6.576 tele-alarma sistemaren erabiltzaile.

Iturri berberetik eratorritako estatistiken arabera, jarraian aurkezten dugun taulan laburbilduta jaso ditugun zifra orokorretatik, Foru Aldundiak pertsona nagusien esparrura bideraturiko baliabide nagusien analisitik honakoa ondorioztatzen da:

- Aipaturiko hiru zerbitzu publikoetan, pertsona nagusien kolektiboa da foru baliabideen hartzaile nagusia (egoitzen kasuan %79,25 eta eguneko zentroen kasuan %64,5), baita erabiltzaile gehien dituen kolektiboa ere. Zerbitzu

horien artean egoitza zerbitzuak eta etxez-etxeko zerbitzua dira eskari handiena azaltzen dutenak, lehen horiek mendetasun maila larriagoa duten pertsona nagusientzat bideratzen direlarik nagusiki.

- Aipaturiko hiru zerbitzuetan andrazkoen kolektiboa nagusitzen da, halaber, erabiltzaileen artean, proportzionalki gehiago direlarik etxez-etxeko zerbitzuen aldeko eskaria burutzen dutenak (datua koherentea da etxean bakarrik bizi diren andrazkoen datuarekin).
- Gastuari dagokionean, zerbitzurik garestiena egoitza zerbitzua litzateke, bikoiztu egiten duelarik Foru Aldundiak pertsona nagusi bati eguneko zentro bat eskaintzarren eginiko esfortzuz, eta kasik boskoiztu etxez-etxeko zerbitzuetara bideraturiko unitateko gastua. Oro har, gastua pertsona nagusien kolektibo osoarekiko neurtuz, berdindu egingo liriateke eguneko zentroetara eta etxez-etxeko laguntzara bideraturiko gastuak, bigarren zerbitzu horrek askoz erabiltzaile gehiago izanagatik ere.

Taula 12: Gipuzkoako Foru Aldundiak pertsona nagusiei bideraturiko baliabideak eta erabiltzaileak, 2009.

	EGOITZAK		EGUNEKO ZENTROAK		ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA	
Gaitasuna	Guztira	6.083	Guztira	2.163	Guztira	4.784
	Pertsona nagusiak	4.821	Pertsona nagusiak	1.395		
	Egoitzak, egonaldi iraunkorrak	4.337	Astean zehar	1.395	Urteko arreta orduak	1.247.145
	Etxebizitza eta tutoretzapeko apartamentuak	371	Astebukaerak	674	Erabiltzaile eta urteko arreta orduak	236,34
	Egoitza, denboraldi baterako egonaldiak	123			Pertsona nagusi eta urteko arreta orduak	9,48
	Desgaitasuna duten pertsonak	834	Desgaitasuna duten pertsonak	768		
	Gaixotasun mentalak	102	Gaixotasun mentalak	193		
	Haurrak	428				
Erabiltzaileak	Urtean zeharreko erabiltzaileak	5.692	Urtean zeharreko erabiltzaileak	2.036	Urtean zeharreko erabiltzaileak	5.227
	Erabiltzaileak 2009/12/31an	4.256	Erabiltzaileak 2009/12/31an	1.242	Erabiltzaileak 2009/12/31an	4.317
	Itxaron zerrendan 2009/12/31an	873	Itxaron zerrendan 2009/12/31an	212		
	Estaldura maila*	4,23	Estaldura maila*	1,55	Estaldura maila*	4,01
	Erabiltzaileen batza besteko adina	83,05				
	Andrazkoen portzentajea urtean zehar	67,71%	Andrazkoen portzentajea urtean zehar	71,27%	Andrazkoen portzentajea urtean zehar	76,20%
	Mendetasun larriko pertsonen portzentajea urtean zehar	80,92%			Mendetasun larriko pertsonen portzentajea urtean zehar	53,52%
Gastua	Erabiltzaile eta urteko	14.456,57	Erabiltzaile eta urteko	7.246	Erabiltzaile eta urteko	3.096
	Pertsona nagusiko	446	Pertsona nagusiko	95	Pertsona nagusiko	92,83

Iturria: Gipuzkoako Gizarte Behatokia (Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Departamentua)

Oharra: Estaldura maila: 65 urtetik gorako 100 pertsonetik, erabiltzaile eta urteko kopurua.

Gastuen analisisan apur bat gehiago sakonduz¹¹⁸, bi datu dira hemen nabarmendu nahi ditugunak: Foru Aldundiek egiten dutela, gainerako maila ezberdinetako herri-erakundeen artean esfortzurik handiena, lehenik, eta pertsona nagusien esparrua dela esfortzu horren onuradunen kolektibo nagusia, bigarrenik.

¹¹⁸ Pertsona nagusiei bideraturiko gizarte-zerbitzuen gastuari buruzko analisia ez da doktorego-tesi honen xede nagusia, eta hortaz soilik emango dira alderdi honen zifra nagusiak. Azterketa honetan sakontzeko interesa duenak jo beza *Orientaciones básicas para garantizar la sostenibilidad económica del sistema de Servicios Sociales en Gipuzkoa* (SIIS, 2009a) txostenera.

Jarraian eranstean ditugun tauletan argiro jasotzen da aipaturikoa:

Taula 13: Gastu foralaren portzentajea pertsona nagusiei bideraturiko gastu publiko osoarekiko

Guztira	73,61
Egoitzak	71,72
Prestazio Ekonomikoak	94,2
Gizarte-arretako zentroak	83,8
Etxez-etxe laguntza	60,54

Iturria: Gipuzkoako Gizarte Behatokia (Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Departamentua)

Taulan ikus litekeenez, esparru batzuetan nagusitasuna ia guztizkoa da (prestazio ekonomikoen kasuan esaterako), eta oro har gainerako zerbitzuetan ere eginiko esfortzu publikoaren zatirik handiena Foru Aldundiarena da, zeina espero izatekoa baita, berau baita esparru honetan eskumendun eta finantzatzeko ardura duen herri-erakunde nagusia.

Gastuaren banaketari dagokionean, gizarte-zerbitzuen erabiltzaile diren gainerako gizarte-kolektiboen konparazioan, pertsona nagusien esparrua da diru dotaziorik handiena jasotzen duena, bai absolutuki kolektiborik populatuena delako, baina baita pertsona nagusiei bideraturiko zerbitzuak, oro har, espezializazio maila altuagokoak eta ondorioz garestiagoak direlako ere.

Taula 14: Gastu forala biztanleriaren arabera (eurotan), 2009.

Pertsona nagusitan, pertsona nagusiko	831,79
Pertsona nagusitan, per capita	152,95
Desgaitasuna duten pertsonetan, desgaitasuna duen pertsonako	1.459,43
Desgaitasuna duten pertsonetan, per capita	81,93
Hautzaroan, haur bakoitzeko	223,9
Hautzaroan, per capita	39,53
Pobrezia eta gizarte-bazterketan, langabeko	572,84
Pobrezia eta gizarte-bazterketan, per capita	20,92

Iturria: Gipuzkoako Gizarte Behatokia (Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Departamentua)

Goiko taulako datuen analisisa per capita (edo biztanleko) terminoetan eginez gero, zalantzarik gabe pertsona nagusiena da esfortzurik handiena jasotzen duen esparrua,

desgaitasuna duten pertsonen kolektiboak jasorikoa ia bikoiztuz eta gainerakoen halako lau (haurtzaroa) edo halako zazpi (gizarte-bazterketa) izanez. Datu deigarria da, dena den, erlatiboki desgaitasuna duten pertsonen kolektiboa dela pertsonako laguntza publiko gehien jasotzen duena, absolutuki partida murriztagoak izan arren, kolektiboa ere pertsona nagusia baino askoz murriztagoa baita.

Azken taula baten bitartez ikusi liteke, gutxi-asko, Foru Aldundiak pertsona nagusien kolektibora bideraturiko gastuaren dimentsioa eta banaketa, 2009ko datuen arabera:

Taula 15: Pertsona nagusietara bideraturiko gastu forala zerbitzuaren arabera, 2009

Guztira (milaka eurotan)	107.227,49
Foru Aldundiaren gizarte-zerbitzuen aurrekontuarekiko pertsona nagusietara bideraturiko gastuaren portzentajea	51,7
Per Capita Gastua (eurotan)	152,95
Unitateko Gastua, pertsona nagusiko (eurotan)	831,79
Unitateko Gastua, pertsona nagusiko (eurotan): egoitzak	446,97
Unitateko Gastua, pertsona nagusiko (eurotan): prestazio ekonomikoak	162,73
Unitateko Gastua, pertsona nagusiko (eurotan): etxez etxeko laguntza	94,21

Iturria: Gipuzkoako Gizarte Behatokia (Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Departamentua)

Erakunde foralaren gizarte-zerbitzuen aurrekontuaren erdia pasatxo adineko pertsonen bideraturiko baliabideak eskaintzeko erabiltzen da, eta horien artean zerbitzurik garestiena (ez hala ere eskari handiena duena) egoitza zerbitzuei bideraturikoena da, prestazio ekonomikoen kostua ia hirukoiztuz eta etxez-etxeko laguntzarena ia boskoiztuz.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eskuragarri egin dizkigun daturik eguneratuenean analisiarekin amaituko dugu sektorearen zifren gaineko errepeaso labur hau.

Jarraian aurkeztzen dugun taulan, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2012ko Otsaileko datarekin artatutako pertsonen zerrenda agertzen da, horiek jasotako zerbitzu motaren arabera eta pertsona bakoitzaren mendekotasun mailaren arabera. Taula egoki interpretatzeko komenigarria da ohar pare bat aurreratzea:

- Taulan ageri diren datuak mendekotasunaren balorazioa jaso duten pertsonen datuak dira. Muga horrek agerian uzten du erroreak bi aldetatik etor

litezkeela: alde batetik, baloraziorik jaso gabe gizarte-zerbitzuen premian diren gizabanakoen datuak ezkutatuak lirateke, eta bestalde, baloraziorik izan gabe ere, egun artatuak izaten ari diren pertsonen datuak ere jasoko lituzke. Foru Aldundiko arduradunen iritzian, aipaturiko bigarren errore marjina ia baztergarria litzateke, zenbaki orokorrekiko aldaketa ez bailitzateke esanguratsua. Lehenari dagokionez, mendekotasun legearen garapenarekin batera aurrerantzean azalerazten joango den eskari bat izan arren, gaur-gaurkoz ez dago benetako estimaziorik zenbateko horren inguruan.

- Prestazioz prestazio laguntza jaso duten pertsonen baturak ez du bat egiten guztira balorazio (positiboa) jaso duten pertsona kopuruarekin. Honek azalpen argia du Gipuzkoaren kasuan: diferentzia hori Gipuzkoan pertsona berak aldi berean jaso ditzakeen zerbitzu eta prestazioen bateragarritasunari zor zaio, esaterako, posible baita eguneko zentroetarako asistentzia etxe-etxe laguntzarekin osatzea, edo prestazio ekonomikoa tele-laguntzarekin bateratzea.

Nolanahi ere, eta aurrez egin beharreko zehaztapenak behin eginez gero, jarraian agertzen den taulan 2012ko otsaileko dataekin jasota dauden Gipuzkoako pertsona nagusien esparruaren eskari eta eskaintzari buruzko datu nagusietatik, honakoa ondoriozta liteke:

- Mendetasuna duten pertsonen %68,7 zerbitzu edo prestazio baten (edo gehiagoren) erabiltzaile da, eta %31,3k ez du sostengu publikorik jasotzen. Estaldura maila horrek, halaber, askoz portzentaje handiagoak lortzen ditu pertsonen mendetasun mailaren larritasunean gora egin ahala (3. graduako pertsonen %91 daude artatuak, esaterako).
- Eskatu edo jasotako zerbitzuen artean, lehentasunen ordena agerikoa da: gehienek prestazio ekonomikoa jasotzen dute, zehazki %37,2ak (diferentzia handiz FEZPE motako laguntzak izanik eskatuena); bigarren tokian ageri da tele-laguntza zerbitzua (%17,2), hirugarrengoa goitza zerbitzuak

(15,5%), laugarren tokian etxez etxeko laguntza (%12,4) eta azken tokian eguneko zentroak (%6)¹¹⁹.

- Pertsona nagusiei bideraturiko zerbitzuei dagokienez, desagregazio maila hori onartzen duten zerbitzuetan¹²⁰, zenbait joera marraz litezke: mendetasun mailan gora joan ahala, egoitzetara bideraturiko pertsona nagusien portzentajea handitzen da; etxez-etxeko laguntzen kasuan, joera justu aurkakoa litzateke, eta tele-laguntzaren kasuan nahiko egonkor mantentzen da erabiltzaileen portzentajea mendetasun maila ezberdinetan. Eguneko zentroen erabilera da, gainerakoan aldean, nabarmenki dimentsio apalagoak azaltzen dituen.

Datu objektiboek azaltzen duten errealitate hori eztabaida ezina den arren, frogatzeke geratzen dena da zerbitzu eta prestazio horietako bakoitzaren erabilera maila zeri zor zaion, pertsona nagusien preferentziari ala zerbitzu publikoen nahikotasun ezari. Alderdi horiek guztiak azterketa kualitatiboaren bitartez aztertuko dira aurrerago.

¹¹⁹ Taulan agertzen diren gainerako zerbitzuak oso kolektibo konkretuei bideraturiko zerbitzu oso espezializatuak dira, eta beraz, zenbaki globalen konparazioan, kolektibo ez oso esanguratsuak artatzen dituztenak, hargatik utzi dira analisi orokorretik kanpo.

¹²⁰ Ezinezkoa da analisi-maila honentzat, adibidez, prestazio ekonomikoen kasuan onuradunen artean pertsona nagusiak zenbat diren zehazki jakitea, eta paretsu bestelako zenbait zerbitzu espezializatutan ere, Unitate sozio-sanitarioan, kasu. Tele-laguntzan eta etxez-etxeko laguntzan arazo berbera izan dezakegun arren, zerbitzu horiek jasotzen dituztenen artean gehiengo zabala pertsona nagusien kolektibokoak direla suposatuz, balorazio egitera ausartu gara, nahiz eta aipatu moduan, errore marjina baten arriskua guregain hartzen dugun.

Taula 16: Mendekotasunaren balorazio positiboa jaso duten gipuzkoarrei egokituriko gizarte-prestazioak (2012ko Otsaila)

	Bizirik Guztira	PNE	DPE	PNEZ	DPEZ	OZ	OMO	OMEZ	GDL	USS	EELZ	TL	FEZPE	LPPE	ZLPE	Artatuak Guztira	Artatu gabeak
3. Gradua 2. Maila	2.899	865	185	170	149	5	1	1	0	7	266	343	1.119	389	22	2.654	245
		29,80%	6,40%	5,90%	5,10%	0,20%	0%	0%	0%	0,20%	9,20%	11,80%	38,60%	13,40%	0,80%	91,50%	8,50%
3. Gradua 1. Maila	5.878	1.450	210	475	204	52	3	7	1	28	579	1.021	2.717	675	44	5.360	518
		24,70%	3,60%	8,10%	3,50%	0,90%	0,10%	0,10%	0%	0,50%	9,90%	17,40%	46,20%	11,50%	0,70%	91,20%	8,80%
2. Gradua 2. Maila	3.398	539	68	234	106	105	4	13	1	6	364	569	2.031	0	35	2.988	410
		15,90%	2,00%	6,90%	3,10%	3,10%	0,10%	0,40%	0%	0,20%	10,70%	16,70%	59,80%	0%	1%	87,90%	12,10%
2. Gradua 1. Maila	5.762	702	99	264	84	222	40	70	6	12	654	1.037	3.333	0	41	4.886	876
		12,20%	1,70%	4,60%	1,50%	3,90%	0,70%	1,20%	0,10%	0,20%	11,40%	18%	57,80%	0%	0,70%	84,80%	15,20%
1. Gradua 2. Maila	3.131	200	43	94	19	99	44	54	7	7	426	532	1.381	0	4	2.246	885
		6,40%	1,40%	3,00%	0,60%	3,20%	1,40%	1,70%	0,20%	0,20%	13,60%	17%	44,10%	0%	0,10%	71,70%	28,30%
1. Gradua 1. Maila	4.616	297	82	85	16	76	34	33	10	9	713	890	1	0	0	1.794	2.822
		6,40%	1,80%	1,80%	0,30%	1,60%	0,70%	0,70%	0,20%	0,20%	15,40%	19,30%	0%	0%	0%	38,90%	61,10%
0. Gradua 0. Maila	6.060	123	56	0	1	24	9	15	7	2	929	1.083	1	0	0	1.877	4.183
		2,00%	0,90%	0%	0%	0,40%	0,10%	0,20%	0,10%	0%	15,30%	17,90%	0%	0%	0%	31%	69%
Bizirik Guztira	31.744	4.176	743	1.322	579	583	135	193	32	71	3.931	5.475	10.583	1.064	146	21.805	9.939
		13,20%	2,30%	4,20%	1,80%	1,80%	0,40%	0,60%	0,10%	0,20%	12,40%	17,20%	33,30%	3,40%	0,50%	68,70%	31,30%

Akronimoak:	PNE: Pertsona Nagusiak Egoitzak	GDL: Gizarteratze Diru-Laguntzak
	DPE: Desgaitasuna duten Pertsonak Egoitzak	USS: Unitate Sozio-sanitarioa
	PNEZ: Pertsona Nagusiak Eguneko Zentroak	EELZ: Etxez-etxeko Laguntza Zerbitzua
	DPEZ: Desgaitasuna duten Pertsonak Eguneko Zentroak	TA: Tele-Laguntza
	OZ: Okupazio Zentroak	FEZPE: Familiakoek Eskainitako Zaintzarako Prestazio Ekonomikoa
	OMO: Osasun Mentala Ostataua	LPPE: Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa
	OMEZ: Osasun Mentala Eguneko Zentroak	ZLPE: Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoak

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentua

7.2.2 Titularitatearen araberako analisia: hirugarren sektorearen dimentsioaren azterketa alderatua

Gipuzkoako pertsona nagusien sektoreko eskari eta eskaintzaren datu orokorrak aztertu ostean, interesgarria ikusi dugu aurreko kapituluan egin bezala, Gipuzkoaren kasu konkreturako eskaintza honetan diharduten eragile publiko, pribatu eta mozkin asmorik gabekoen analisi alderatua burutzea.

Analisian sartu aurretik aipatu beharra dago ezinezkoa izan zaigula analisi alderatu horretan gizarte-ekonomiako erakundeen datuak multzo bakar eta berezitan eskaintzea, estatistika horiek lantzen dituen erakundeak ez baitu halako kategoriarik baliatzen datu bilketa egiteko. Zentzu horretan, atal honetan aurkeztuko dugun datu sorta Eustat-ek, Euskal Estatistika Erakundeak, 2009 urterako eginiko “Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren gaineko Estatistikak” datu-basearen ustiaketa batean oinarritu da, erakunde horri berriaz eginiko eskaera bati erantzunez lorturiko datuetatik, hain zuzen ere.

Analisi alderatuan, hortaz, gizarte-ekonomiari loturiko multzoa mozkin asmorik gabeko erakundeen multzoarekin pareka liteke, baina parekidetasun hau egoki interpretatzeko bi desbideratze mota hartu behar lirateke kontuan: alde batetik, mozkin asmorik gabeko erakundeen baitan badira zenbait erakunde gizarte-ekonomiakotzat jo ez ditugunak, batik bat pertsona nagusien ordezkaritza elkarteak eta aisialdirako zahar-etxeak, eta; beste aldetik, erakunde horiez gain gizarte-ekonomiaren benetako magnitudeak erdiesteko kooperatiben datuak enpresa pribatuen multzotik bereizi eta mozkin asmorik gabekoenei batu behar litzaizkieke. Bigarren errore marjina hori nahiko bazterrekoa dela begitantzen zaigu, bi kooperatiba baitira egun gehitu beharreko erakundeak, nahiz eta horietako batek tamaina handi samarra duen neurrian, zentroen zein langileen banaketan nolabaiteko aldakuntzak sor litzakeen. Dena den, eta jakinik ere mozkin asmorik gabeko merkatuko erakundeen datuak ez direla osorik gizarte-ekonomiari dagozkionak, gure eskutan ditugun datuak lorturiko datu-baseekin ez gurutzatzea erabaki dugu. Lehen errore marjina hori ekiditeko, berriz, datu orokorrez gain zerbitzuz zerbitzuko analisia ere burutu da, hertsiki gizarte-ekonomiakotzat jo beharreko zerbitzuak zeintzuk diren azpimarratuz.

Aipaturikoez gain, aurreko kapituluan adierazi bezala badira bestelako errore marjinak sor ditzaketen aferak, titulartasunaren analisi alderatua burutzean ez baita kontuan hartzen titulartasun pribatuko erakundeak publikoki finantzatuak izan litezkeela (eta ohi direla, Gipuzkoaren kasuan), ezta titulartasun publikoko zentroak erakunde pribatuen bidez kudeatuak izan litezkeela ere.

Eman beharreko argibideak emanik, eta jarraian aurkezten dugun analisiak dituen mugak guregain hartuz, titulartasunaren araberrako analisitik honako emaitzak lortu dira.

7.2.2.1 Gizarte-zerbitzuetako erakundeak oro har

Lehenik eta behin, gizarte-zerbitzuen esparrua bere osotasunean hartuz gero, hots, pertsona nagusiez gain gainerako gizarte-taldeeii bideraturiko zerbitzuak ere kontuan hartuz, Gipuzkoako errealitatean mozkin asmorik gabeko erakundeen ehun garrantzitsu bat izan badela ondorioztatzen da.

Taula 17: Gipuzkoako gizarte-zerbitzuetako erakundeen banaketa, titulartasunaren arabera, 2009

	Publikoa	Mozkina asmorik gabea	Enpresa pribatua
Entitateak	111	233	35
Zentroak	475	394	90
Bertako langileak *	1.498	2.686	4.529
Boluntarioak	87	8.812	.
Gastuak guztira (milaka Eurotan)	362.623	141.683	152.947
Finantzazio publikoa %	92	62	34

Iturria: Eustat, Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren gaineko Estatistikak, 2009.


Oharra: Bertako langileak diru bidezko soldataz ordainduriko edo ordaindu gabeko establezimenduarekin lan- edo estatutu-hitzarmena duten langileak dira eta borondatezkoak, zentroan lan egiten badute ere inolako lan-loturarik ez dutenak.

Mozkin asmorik gabekoak dira erakundeei dagokienez gehiengoa, eta baita boluntarioak mobilizatzeko ahalmenik handiena dutenak ere. Dena den, kopuruz gehiengoa izanik ere, datu hori ez doa horien kudeaketa ahalmenari lotuta, proportzionalki, erakunde publiko zein pribatuek baino zentro eta langile gutxiago kudeatzen baitute. Finantzazioari dagokionez, lehen taula honetan argi jasotzen da zein punturaino dauden

erakunde pribatuak publikoki finantzatuak eta mozkin asmorik gabekoak pribatuen gainerik.


Mozkin asmorik gabeko erakundeen kudeaketa ahalmenari loturiko datuak agerikoak dira, erakundeen banaketa langile kopuruaren edota zentro kopuruaren arabera eginez gero.

Grafikoa 22: Gipuzkoako gizarte-zerbitzuetako erakundeen banaketa, titulartasuna eta kudeaturiko zentro-kopuruaren arabera, 2009



Iturria: Eustat, Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren gaineko Estatistikak, 2009.

Grafikoa 23: Gipuzkoako gizarte-zerbitzuetako erakundeen banaketa, titulartasuna eta langile kopuruaren arabera, 2009



Iturria: Eustat, Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren gaineko Estatistikak, 2009.


Bi tauletan argi jasotzen den bezala, mozkin asmorik gabeko erakundeen gehiengoa 0-5 langile artekoak dira eta zentro bakarra kudeatzen dute. Kontrako muturrean, aldiz, enpresa pribatuak daude, horiek proportzioan askoz gutxiago izan arren, zentro handien (100 langiletik gorakoetan) kudeaketan gehiengoa baitira. Hala ere, aipagarria da ez direla erakunde pribatuak aldi berean zentro kopuru gehien kudeatzen dituztenak, hain zuzen ere 5 zentro baino gehiago kudeatzen dituztenen artean ia denak publikoak edo mozkin asmorik gabeak baitira.

Datuon interpretaziotik hortaz ondoriozta liteke, gizarte-zerbitzuen esparruan hedadurarik handiena dutenak, hots, eskaririk txikieneko esparruetan ere dihardutenak (eta beraz, zentro kopuru gehien kudeatzen dituztenak) publikoak eta mozkin asmorik gabeak direla (bigarren horiek gehiago), nahiz eta erakundeon tamaina oro har txikia izan. Enpresa pribatuak tamaina handiko erakundeen jabe dira, eta zentro kopuru txikiagoa kudeatzen dute, esan nahi baita, eskari potentzial garrantzitsuko zentroen kudeaketara emanak bizi direla. Mozkin asmorik gabeko erakundeak, orokorrean, erakunde txikiak dira baina erakunde handien artean publikoak baino gehiago dira. Eta azkenik, erakunde publikoen artean tipologia aniztasun handiagoa dago, baina orokorrean txikiak dira eta bost zentro baino gutxiago kudeatzen dituzte aldi berean.

7.2.2.2 Pertsona nagusiei bideraturiko zerbitzuen eskaintza

Analisi orokorretik pertsona nagusien alorrera igaroz, lau dira Eustat-ek aztertzen dituen zerbitzu edo erakunde-mota nagusiak: i) pertsona nagusien elkarteak, ii) egoitzak, iii) eguneko zentroak eta iv) aisialdirako zentroak edo zahar-etxeak. Lehen argazki bat emateko, titulartasunaren banaketa zerbitzuz zerbitzu honakoa litzateke:

Grafikoa 24: Gipuzkoako pertsona nagusiei bideraturiko zentroyen banaketa, titulartasuna eta zerbitzu-motaren arabera, 2009



Iturria: Eustat, Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren gaineko Estatistikak, 2009.

Lehen taula honetatik ondoriozta daiteke publikoak direla zentro gehienak, baina zerbitzu bakoitzaren analisi xehatuagoak argazki ezberdinak eskaintzen ditu: elkarteen artean denak, espero izatekoa denez, dira mozkin asmorik gabekoak; beste muturrean, zaharren egoitzak nagusiki publikoak dira titulartasunez, baita eguneko zentro eta zahar-etxeak ere, baina horien bilakabidearen analisi berezituak, azpi-talde ezberdinak sortzen ditu.

Taula 18: Gipuzkoako pertsona nagusiei bideraturiko zentroyen bilakabidea, titulartasuna eta zerbitzu-motaren arabera, 2005-2009

	Elkarteak		
	Publikoa	Mozkin asmorik gabea	Enpresa pribatua
2005	0	80	0
2009	0	83	0
	Egoitzak		
2005	59	22	16
2009	77	24	22
	Eguneko zentroak		
2005	37	8	6
2009	37	10	16
	Aisialdirako zentroak (zahar-etxeak)		
2005	91	10	
2009	91	10	

Iturria: Eustat, Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren gaineko Estatistikak, 2009.

Taulan jasotzen denez, elkarteen eta zahar-etxeen egoera nahiko egonkor mantendu da azken urteetan, lehen horien kasuan denak mozkin asmorik gabeak direlarik, eta bigarrengoak aldiz nagusiki publikoak. Justifikazio teorikoan aipatu dugun moduan, bi erakunde-mota horiek ez lirateke hertsiki gizarte-ekonomiakotzat jo behar, baina badute beren garrantzia elkartegintzari dagokionean pertsona askoren elkargune baitira: elkarteen kasuan 90.971 pertsona nagusi bazkide dira eta zahar-etxeetan 17.189 plazentzako gaitasuna metatzen da.

Lehen bi horiek bazter batera lagata, beraz, egoitza zentroyen eta eguneko zentroyen kasuan bilakabide ezberdina izan dutela ageri da: lehenengoen kasuan, zentro publikoen hazkunde nabarmena egiaztatzen da (18 zentro berri 2005-2009 urte artean), mozkin bezekoak bere horretan mantendu direlarik kasik eta enpresa pribatuak ere gehitu egin dira (8 zentro berri). Eguneko zentroekin berriz hazkundera enpresa pribatuen eskutik etorri da (10 zentro berri) gainerakoak bere horretan mantendu direlarik.

Horietako bakoitzaren analisisian plaza zein langileen inguruko datuak gehitzeak bestelako argibideak ematen ditu:


Taula 19: Gipuzkoako pertsona nagusiei bideraturiko egoitza eta eguneko zentroak, plazak eta erabiltzaileak, titulartasunaren arabera, 2009

	Publikoa	Mozkina asmorik gabea	Enpresa pribatua	Guztira
Egoitzak				
Zentroak	77	24	22	123
Plazak	2.560	1.615	1.716	5.881
Erabiltzaileak	2.355	1.576	1.471	5.422
Eguneko Zentroak				
Zentroak	37	10	16	63
Plazak	739	327	497	1.663
Erabiltzaileak	629	307	390	1.326

Iturria: Eustat, Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren gaineko Estatistikak, 2009.

Zentroen titulartasunaren analisia horien plaza eta erabiltzaile gaitasunarekin gurutzatuz gero, ordea, erakunde pribatuena da (mozkin asmodun zein asmo gabe) plaza kopuru handiena, eta beraz, zentro kopuruan gutxiago izan arren, gaitasun handiagokoak direla pentsatu behar litzateke. Egoitzen kasurako jarraian aurkezten dugun taulak egiaztatu egingo luke aipaturiko hipotesia:

Grafikoa 25: Gipuzkoako pertsona nagusiei bideraturiko egoitza-zentroen banaketa, plaza kopurua eta titulartasunaren arabera, 2009



Iturria: Eustat, Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren gaineko Estatistikak, 2009.

Espero zen moduan, zentro publikoen nagusitasuna plaza gaitasunik baxueneko zentroetan ematen da modu nabarmenenean, 15 plazatik beherakoen artean gehiengo osoa baitira. Plaza gaitasunean gora joan ahala, proportzionalki erakunde pribatu eta mozkin asmorik gabekoen garrantzia handitzen doa, zentrorik handienetan gehiengoak direlarik. Kasu guztietan ordea, zentro publikoak gehiago dira mozkin asmorik gabekoak baino.

Titulartasunaren inguruko analisisian langile kopuruaren aldagaia sartuz gero, sektore bakoitzaren dimentsioan ñabardura garrantzitsuak barneratzen dira. Pertsona nagusiei bideraturiko zentro guztien (elkarte eta zahar-etxetakoak barne) langile kopuruaren analisiak honako emaitzak ematen ditu:

Taula 20: Gipuzkoako pertsona nagusiei bideraturiko zentroetako langileak, titulartasunaren arabera, 2009.

	Publikoa	Mozkin asmorik gabea	Enpresa pribatua
Pertsonala Guztira	436	1.068	1.148
Emakumeak	377	952	1.009
Bertako langileak	415	905	965
Zuzendaritza- administraziokoak	72	92	109
Zerbitzuetakoak	73	204	250
Osasun arlokoak	228	672	720
Teknika arlokoak	16	51	36
Hezkuntzakoak	10	25	25
Bestelakoak	37	24	8

Iturria: Eustat, Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren gaineko Estatistikak, 2009.

Lehen taula honetan erakunde-mota guztietan errepikatzen diren ezaugarri komun batzuk azpimarratu behar lirateke: langile emakumeen gehiengo osoa alde batetik (%86, %89 eta %87 hurrenez hurren), eta; osasun arloko langileen gehiengoak, bestalde, (%50-60 buelta horretan kasu guztietan). Osasun arloko langileen atzetik (medikuak, osasun-laguntzaile teknikoak, terapeutak, etab) zerbitzuetakoak ageri dira (mantenimendua, ostalaritza-sukaldaritza, garbiketa, etab) eta horien atzetik administrariak eta

zuzendariak, bestelako teknikariak (logopedak, psikomotrizistak, psikologoak, pedagogoak, gizarte-laguntzaileak) eta azken tokian hezkuntza arlokoak.

Datuok, hala ere, sektore publikoko langileen oso kopuru murrizta jasotzen dute, zeina ez den inondik inora ere zentro publikoetan diharduen langile kopuruaren isla zuzena, datuotan soilik jasotzen baitira “bertakotzat” jotako langileak, hots, hitzarmen publiko bidez kontraturikoak. Jarraian erantsi dugun taulan argi jasotzen da, egoitza zein eguneko zentro publikoetan azpikontraturiko langileak direla bertako langileak baino askoz ugariagoak (bertakoak halako 2,6 eta halako 11,7, hurrenez hurren).

Taula 21: Gipuzkoako pertsona nagusiei bideraturiko zentroetako langileak, zentroarekiko loturaren eta titulartasunaren arabera, 2009.

	Publikoa	Mozkina asmorik gabea	Enpresa pribatua	Guztira
Elkartekak				
Langileak guztira	0	10	0	10
Emakumeak	0	10	0	10
Bertakoak*	0	8	0	8
Urteko bataz besteko pertsonal okupatua	0	9	0	9
Boluntarioak	0	708	0	708
Arreta zuzeneko pertsonal azpikontratatua	0	16	0	16
Egoitzak				
Langileak guztira	376	909	952	2.237
Emakumeak	328	814	848	1.990
Bertakoak*	366	807	848	2.020
Urteko bataz besteko pertsonal okupatua	382	894	928	2.204
Boluntarioak	63	115	.	178
Arreta zuzeneko pertsonal azpikontratatua	1.006	262	190	1.458
Eguneko zentroak				
Langileak guztira	30	145	196	371
Emakumeak	28	124	161	313
Bertakoak*	21	89	117	228
Urteko bataz besteko pertsonal okupatua	30	137	196	363
Boluntarioak	4	32	.	36
Arreta zuzeneko pertsonal azpikontratatua	352	30	25	407
Aisialdirako zentroak (Zahar-etxeak)				
Langileak guztira	5	1	0	6
Emakumeak	4	1	0	5
Bertakoak*	3	1	0	4
Urteko bataz besteko pertsonal okupatua	5	1	0	6
Boluntarioak	20	85	0	105
Arreta zuzeneko pertsonal azpikontratatua	3	0	0	3

Iturria: Eustat, Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren gaineko Estatistikak, 2009.

Sektorean diharduten langile guztiekiko portzentajeak titulartasunaren arabera modu honetan banatuko lirateke: egoitzen kasuan, bertako langileen artean, %19 dira langile publikoak (herri-erakundeei ezarritako hitzarmenarekin lanean dihardutenak), %39 mozkinaz besteko enpresetan dihardutenak eta %42 enpresa pribatuetan dihardutenak. Eguneko zentroen kasuan berriz, %9, %40 eta %51, hurrenez hurren. Lanean diharduten

zentroarekiko kontratuzko lotura duten langileen artean, beraz, gutxiengoa dira langile publikoak. Gainerako elkarte eta aisialdirako zentroetan, aldiz, langile kopurua oso murrizta da, funtsean boluntario elkarte osaturiko zentroak bailirateke.

Langileek zentroarekiko duten lotura aztergai hartuz gero, esan bezala, bi motako langileak geneuzkake: zentroan indarrean den (edo diren) hitzarmenarekin lanean dihardutenak (bertakoak) eta azpikontratatuak direnak, eta beraz, hitzarmena zerbitzu azpikontratatu eskaintzen duen erakundearen baitan ezartzen dutenak. Aldagai hori aztertuz gero, bi motako langileen arteko orekak guztiz desberdinak dira erakunde publiko zein pribatua izan: egoitzei dagokienean, mozkinenez besteko erakundeetako hiru langiletik bat azpikontratatu da, enpresa pribatuko 4,5 langileko bat da azpikontratatu, aitzitik, zentro publikoko langile publiko bakoitzeko 2,6 langile azpikontratatu daude. Desoreka are nabarmenagoa da eguneko zentroen kasuan: mozkinenez besteko 4,1 langileko eta pribatuko 6,4 langileko bakarrik litzateke azpikontratatu, eta kontrara, langile publiko bakoitzeko 11,7 dira azpikontratatuak eguneko zentro publikoetan.

Errealitate honek zerikusi zuzena du, EAE-rako kasuan ikusi dugun moduan, zentro bakoitzeko lan-kostuekin, hitzarmen publiko eta pribatuen arteko aldea nabarmena baita. Zentro bakoitzeko gastuen azaleko analisi bat eginez gero, Gipuzkoako kasuan ere agerikoa da alde hori:

Taula 22: Gipuzkoako pertsona nagusiei bideraturiko zentroetako gastuak (milaka eurotan), titulartasunaren arabera, 2009.

	Publikoa	Mozkina asmorik gabea	Enpresa pribatua	Guztira
	Egoitzak			
Gastua Guztira	75.221	64.922	38.419	178.562
Gastu Arruntak	65.604	44.173	38.131	147.909
Inbertsioa	9.616	20.749	288	30.653
	Eguneko zentroak			
Gastua Guztira	10.947	4.618	5.608	21.173
Gastu Arruntak	10.256	4.426	4.709	19.391
Inbertsioa	692	192	899	1.782

Iturria: Eustat, Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren gaineko Estatistikak, 2009.

Esan dezagun lehenik ez dagoela arintasunez baieztatzetik, ez bederen gastuen analisi xeheagoa burutu barik, erakunde publiko eta pribatuen arteko gastu diferentzia osorik

lan-kostuen diferentziari zor zaionik. Nolanahi ere, gastu arrunten artean, erosketak, kanpo-zerbitzuak eta bestelako gastu-finantzariez gain, pertsonal gastuak izan ohi dira gasturik garrantzitsuenak. Eskulanean intentsiboak diren sektoreetan are eta gehiago, aztergai dugun kasuan bezalaxe. Era berean, zentro publikoetan gutxiengoa da bertako langileen kopurua (%26,6 egoitzetan eta %5,6 eguneko zentroetan). Taulan jasotako gastu arrunten atzean diru-partida ezberdinak eta mota ezberdinetako langileen lan-kostuak daudela jakinik ere, zentro publikoen gastu arruntak nabarmenki altuagoak dira besteen aldean. Zentro publikoetako langile kopuru totala kontuan hartuz (bertako eta azpikontratatuak), oro har mozkinenez besteko eta enpresa pribatuetakoak baino langile gehiagok egiten du lan zentro publikoetan, nahiz eta esan dugun moduan, horien artean gutxiengoa diren langile publikoak. Diferentzia hortaz, osorik lan-kostuen disparekotasunetik eratorriko litzatekeela pentsatzea arriskutsuegia izan badaiteke ere, zentro bakoitzeko bertako langileen batz besteko ordainsariaren datuak alderatzeak zentzu horretan pentsaraztera eramane gaitzake: 42.006 euro langile publikoen kasuan, 28.094 mozkinenez besteko erakundeetako langileena eta 26.698 enpresa pribatuetako langileena.

Atal honetako titulartasunaren analisia amaitzeko finantzazioari dagozkion oinarritzko datuen analisia gehituko dugu, honek irismen publikoaren inguruko datuak areagotu baititzake, titulartasunaren analisitik harago.

Taula 23: Gipuzkoako pertsona nagusiei bideraturiko zentroetako finantzazioa (milaka eurotan), titulartasunaren arabera, 2009

	Publikoa	Mozkina asmorik gabea	Enpresa pribatua	Guztira
Elkartek				
Finantzazioa Guztira	.	2.638	.	2.638
Finantzazio Publikoa	.	1.059	.	1.059
Administrazio Zentrala	.	10	.	10
Administrazio Autonomikoa	.	17	.	17
Lurralde Administrazioa	.	228	.	228
Udal Administrazioa	.	804	.	804
Finantzazio pribatua	.	1.579	.	1.579
Erakundeak	.	55	.	55
Familiak	.	1.471	.	1.471
Besteak	.	53	.	53
Egoitzak				
Finantzazioa Guztira	75.221	64.922	38.419	178.562
Finantzazio Publikoa	53.976	30.404	18.592	102.972
Administrazio Zentrala	.	.	3	3
Administrazio Autonomikoa	83	22	25	130
Lurralde Administrazioa	41.507	28.745	18.510	88.762
Udal Administrazioa	12.386	1.636	55	14.077
Finantzazio pribatua	21.245	34.518	19.826	75.590
Erakundeak	65	18.302	-3.369	14.998
Familiak	21.110	16.200	23.196	60.506
Besteak	70	16	.	86
Eguneko Zentroak				
Finantzazioa Guztira	10.947	4.618	5.608	21.173
Finantzazio Publikoa	8.736	3.471	3.329	15.536
Administrazio Zentrala	.	.	15	15
Administrazio Autonomikoa
Lurralde Administrazioa	7.927	3.467	3.314	14.708
Udal Administrazioa	809	4	.	813
Finantzazio pribatua	2.211	1.147	2.279	5.637
Erakundeak	.	-635	294	-341
Familiak	2.211	1.782	1.986	5.979
Besteak
Aisialdirako zentroak (Zahar-etxeak)				
Finantzazioa Guztira	3.621	336	.	3.957
Finantzazio Publikoa	3.575	173	.	3.748
Administrazio Zentrala
Administrazio Autonomikoa
Lurralde Administrazioa	239	.	.	239
Udal Administrazioa	3.337	173	.	3.510
Finantzazio pribatua	46	163	.	208
Erakundeak	.	19	.	19
Familiak	46	143	.	188
Besteak	.	1	.	1

Iturria: Eustat, Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren gaineko Estatistikak, 2009.

Taulan jasotako datuetatik eratorzen denez, sektore publikoak bereak dituen zentrozen kudeaketaz harago, bestelako parte hartze bideak baliatzen ditu, batik bat zentrozen finantzaketan modu esanguratsuan eraginez. Honela, analisia zentroz zentro eginez:

- Elkarteen kasuan, finantzazio pribatua (%60) handiagoa da publikoaren aldean (%40), eta finantzabide pribatuen artean gehiengo osoa familien kuota

bidez eskuratuko litzateke. Finantzazio publikoaren baitan, udal administrazioak leukake pisurik esanguratsuen.

- Zahar-etxeen kasuan, gehienak publikoak izaki, finantzazio publikoa da nagusi, baita mozkin asmorik gabekoetan ere, nahiz eta azken horietan familien kuotek ere garrantzia duten (%42,5 aurrekontu osoarekiko)
- Egoitzen kasuan aldiz, finantzazio publikoaren garrantzia desberdina da titulartasunaren arabera: publikoetan, aurrekontuaren %71,7 jatorri publikokoa da, nagusiki Foru Aldundiaren finantzaziopekoa (finantzazio publikoaren %76,8 izanik); mozkinen bestekoetan, finantzazio pribatuak gain hartzen dio publikoari (%53,1 eta %46,9, hurrenkera honetan), bertan banatu egiten delarik erakundeak eta familiek eginiko ekarpena; enpresa pribatuetan ere apur bat handiagoa parte hartze pribatua publikoa baino (%51,6 eta %48,4), eta bigarren partida horretan finantzazioa forala da ia bere osotasunean (mozkinen bestekoetan bezalaxe).
- Eguneko zentroen kasuan, finantzazio publikoak pisu handiagoa du oro har, gainerako zerbitzuetan baino: erakunde publikoetan %79,8, mozkinen bestekoetan %75,1 eta enpresa pribatuetan %59,3, guztietan Foru Aldundiarena litzatekeelarik finantzazioaren ehuneko ia ehuna. Finantzabide pribatuei dagokienean, familien ekarpenak lirerateke iturri nagusia.

7.3 Landa lanaren emaitzak (II): gizarte-ekonomiaren analisia

Jarraian aurkezten dugun atalean pertsona nagusien esparruan Gipuzkoan diharduten gizarte-ekonomiako eragileen berri emango da. Hartarako, hautaturiko enpresa-laginaren ustiatetik lorturiko informazioa eta elkarrizketen bitartez lorturikoa gurutzatuko ditugu eta bestelako informazio gehigarriarekin osatuko dugu.


7.3.1 Inkestaren emaitza orokorrak

Sarrera kapituluaz azaldu dugun moduan, inkesta osorik edo ia osorik bete duten gizarte-ekonomiako erakundeen lagina 26 erakundek osatu dute azkenean, eta datu horien ustiatetik honako ondorio orokorrak aterako genituzke:

1.- *Sorrera urteari* dagokionean, bi data mugarriren arabera antolatu ditugu erakundeak: lehenengo Euskadiko gizarte-zerbitzuen legearen aurretik (1982 aurretik) jada existitzen ziren erakundeak batetik, urte horretatik bigarren Euskadiko gizarte-zerbitzuen legea onartu arteko epealdia bestalde (1982-1996) eta ordutik hona sorturiko erakundeak azkenik. Datu orokorretatik gizarte-ekonomian oso aitzinakoak diren erakundeak agertzen dira, guztira 6 erakunde (laginean hautaturikoen laurden bat eskas) bailirateke 1982az aurretik sorturikoak, batik bat egoitzen kudeaketan zentratutako fundazioak eta elkarte esanguratsuak (Gurutze Gorria eta DYA). 1982-1996 epealdian 9 erakunde berri sortu ziren, nagusiki etxez etxeko zerbitzuetakoak, eta azken epealdian, 1996tik gaur arte sortu diren erakundeen artean 10 leudeke, nagusiki boluntario elkarreez osaturikoak.

2.- Erakunde horiek hartzen dituzten *izaera juridikoen* arabera, banaketa modu honetan geratuko litzateke:

Grafikoa 26: Gipuzkoako pertsona nagusien esparruan diharduten gizarte-ekonomiako erakundeen banaketa, izaera juridikoaren arabera




Iturria: geuk egina

Argiro ikus litekeenez izaera juridiko errepikatuena elkarreana da, bai boluntario elkarrean pisuaren ondorioz, baina baita etxez-etxeko laguntza zerbitzuan diharduten gizarte-ekonomiako erakunde gehienak (bi salbu) elkarrean direlako ere. Bestelakoan artean Kongregazioak, Ongintza Etxeak eta Erakunde Humanitarioak ageri dira, denak ere elizari loturiko figurak. Bigarren tokian fundazioak leudeke, gehien gehienez egoitza-zerbitzuen (egoitza eta eguneko zentro) kudeaketan dihardutenak eta azken postuan kooperatibak, biak lan elkartukoak.

3.- Elkarteen fundatzaileei dagokionez, analisiak honako emaitzak ematen ditu:

Grafikoa 27: Gipuzkoako pertsona nagusien esparruan diharduten gizarte-ekonomiako erakundeen banaketa, fundatzaileen arabera




Iturria: geuk egina

Gizarte-ekonomiak elkartegintzarekin duen loturaren beste adierazpide bat litzateke sortzaileen artean herri-ekimenetik sorturiko erakundeak izatearena gehiengoa. Bigarren lekuan erlijio motibazioa duten erakundeak jarri behar lirateke, horien artean sar bailitezke erakunde erlijiosoek abiarazitako erakundeak baina baita norbanako esanguratsuen testamentu bidez sorturikoak ere, gehienak gerora fundazio erlijiosoetan bilakatutakoak. Hirugarren maila batean leudeke, parekaturik, herri-erakundeetatik abiarazitakoak (3), profesional taldeen eskutik sortutakoak (3) eta enpresa pribatuek bultzatutakoak (3).

4.- Gizarte-ekonomiako erakundeek *nagusiki ematen dituzten zerbitzuen* analisisitik honako emaitzak eskuratu dira:

Grafikoa 28: Gipuzkoako pertsona nagusien esparruan diharduten gizarte-ekonomiako erakundeen banaketa, eskainiriko zerbitzu nagusiaren arabera



Iturria: geuk egina

Orain arte aipaturiko datuekin koherentea den moduan, egoitza-zentroen (egoitza eta eguneko zentro) kudeaketan diharduten enpresak dira gizarte-ekonomiako enpresen gehiengoa, bigarren lekuan daudelarik zahartze aktiboa bultzatzen duten boluntario elkarteak eta horien atzetik etxez-etxeko zerbitzuak ematen dituzten enpresak. Analisi honetan boluntario elkarte batzuk jaso ez izanak emaitzak alda ditzakeen arren, deigarria dena da ze dibertsifikazio maila baxuko erakundeak diren gehienak, bi erakundek soilik bateratzen baitituzte esaterako, egoitzen kudeaketa eta etxez-etxeko laguntza, eta gainerakoak oso zentratuak agertzen baitira jarduera konkretu batean.

5.- *Kudeaturiko zentro eta plazen* analisitik, eta ontzat emanik datu hauek ez direla zertan bat etorri arestian eginiko analisiekin¹²¹, honako emaitza agregatuak eskuratu dira: gizarte-ekonomiako erakundeen bitartez guztira 2.860 pertsona nagusi dira


¹²¹ Datu hauek arestian Eustat-en datu-baseen ustiaketatik lorturikoekin bat ez etortzea da zinez espero beharrekoa, arrazoi ezberdinengatik. Lehenik, aztergai dugun unibertsoa ezberdina delako: guk gizarte-ekonomia aztertuz, kooperatibak enpresa pribatuen sektoretik atera eta hirugarren sektorekoei batu dizkiegu. Bigarrenik, osatu dugun laginak, sarreran aitortu dugun moduan, ez du ziur aski gizarte-ekonomiaren osotasuna barnebiltzen, eta horri zenbait erakundek daturik erraztu ez izana gehituz gero, errore marjina nabarmen hazi liteke. Hirugarrenik, Eustat-en analisisian zentroen titulartasuna da baliatzen den aldagaia, eta guk analisisian erakundeen analisisia da burutzen duguna. Ezberdintasun honek eragin nabarmenak ditu gure analisisirako, bereziki ugariak direlako titulartasun publikoa izan arren erakunde pribatuek kudeatzen dituzten zentroak. Gipuzkoako Foru Aldundiak errazturiko datuen arabera, Foru Aldundiaren jabetzakoak diren 9 zentrotatik 8, erakunde pribatuek kudeatzen dituzte (nagusiki bik, Biharko S.L. eta Gerozerlan S.A.) eta udal jabetzakoak diren laurdena baino ez dira hertsiki publikoki kudeatuak, erdiek kudeaketa mistoa dute (langile publikoez gain azpikontraturiko langileak dituztelarik) eta beste laurdenak enpresa pribatuen bidez kudeatzen dira osorik. Eta azkenik, atal honetan etxez-etxeko zerbitzuetan diharduten erakundeen datuak ere erantsi dira, Eustat-en datu basean agertzen ez zirenak.

artatuak Gipuzkoan, 395 eguneko zentroetan, 1.496 egoitzetan eta 969 etxez-etxeke zerbitzuaren bitartez. Pertsona horien zaintza beharrak 17 eguneko zentroetan, 21 egoitzetan eta 26 herritan eskaintzen den etxez-etxeke zerbitzuarekin estaltzen dira. Etxez etxeke zerbitzuen kasuan, Gipuzkoan kontabilizaturiko 88 udalerritako 26 herritako zerbitzua gizarte-ekonomiako erakundeen bitartez ematen da, herri txiki eta ertainez gain, 10.000 biztanletik gorako zenbait herritan ere dihardutelarik (Tolosa, Pasaia, Hondarribia, Zumarraga eta Elgoibar, esaterako).

6.- Gizarte-ekonomiak *enplegatzan duen pertsona kopuruari* dagokionez, honako datu agregatuak erdietsi dira: guztira, zerbitzu guztiak batuz, 1.798 pertsonak dihardute soldatapean lanean, horietatik 1.456 direlarik andrazkoak (%81,3). Horiez gain, sektorean 222 langile-bazkidek dihardute kooperatibetan lanean, 214 direlarik andrazkoak (%96). Soldatapeko langileez gain, gizarte-ekonomiaren baitan bazkide eta langile boluntarioak ere barnebiltzen dira giza baliabidetan. Pertsona nagusiei bideraturiko zerbitzuetan diharduten elkarreentako bazkideak guztira 1.923 dira, 1.255 andrazkoak (%65), nahiz eta Gurutze Gorria bezalako erakunde batek milaka bazkide gehiago bilduko lituzkeen (guztira 18.403). Boluntarioei dagokienez, sektorean 1.393 langile boluntarioen lana kontabilizatzen da, horietatik 950 andrazkoak direlarik (%68), nahiz eta berriz ere Gurutze Gorriak bakarrik beste 2.469 boluntario mobilizatzen dituen, horietatik pertsona nagusien alorrean zenbatek diharduen bereiztea ezinezkoa izan zaigularik.

7.- Gizarte-ekonomiak barnebiltzen dituen giza baliabideen artean *andrazkoak* nabarmentzen dira, alde handiarekin, gizonen gainetik. Analisi hau pertsonal motaren arabera xehatuz gero, honako emaitzak lortu dira:

Grafikoa 29: Gipuzkoako pertsona nagusien esparruan diharduten gizarte-ekonomiako erakundeetan andrazkoen portzentajea, pertsonal motaren arabera



Iturria: geuk egina

Irudietan jasotzen den moduan, orokorki gutiz sektore feminizatu baten aurrean gaudela ondorioztatzen da, nahiz eta proportzioak ezberdinak diren parte hartze edo lan motaren arabera. Soldatapekoen artean andrazkoen gehiengoak ez du eztabaidarik onartzen, datuak eman dituzten 18 erakundetatik 13tan andrazkoak dira langileen %90 baino gehiago, eta soilik batean dira %70 baino gutxiago (erditik gora izanik, hala ere). Aurkako muturra zuzendaritza organoetan ageri da, “kristalezko sabaia” deritzon fenomenoaren beste adibide argi bat delarik hauxe: hain erakunde feminizatuak izan arren, zuzendaritza organo erdietan emakumeak gutxiengoa dira, eta soilik bost erakundetan dira %90 baina gehiago. Bestalde, bazkide eta boluntarioei dagokienean banaketa paretsuagoa ematen da proportzioetan, esan nahi baita, gizonezkoek ere parte hartze maila handiagoa azaltzen dutela, eta boluntarioen kasuan bereziki, badirudi pertsona nagusien laguntza zerbitzuetarako gizonezkoek ere (gehienean erretiroa

harturikoek) gizarte-eginkizun hauek beregain hartzeko joera hazkor bat marraz litekeela.

8.- *Pertsona boluntarioen parte hartzeari* dagokionez, sektoreak lan mota hau mobilizatzeko gaitasun garrantzitsua ageri du (guztira 1.393 boluntario), nahiz eta badiren boluntarioen laguntzarik hartu nahi izan ez duten erakundeak ere (guztira 9 erakunde, nagusiki etxez-etxeko laguntza zerbitzuetan dihardutenak). Boluntarioekin lan egin nahi izan ez dutenen artean, arrazoi nagusia soldatapeko profesionalekin lan egitearen aldeko preferentzia litzateke, nahiz eta bestelako argudioak ere baliatu diren: planteatu ere egin ez izana, horiek koordinatzeko baliabide nahikorik eduki ez izana edo denbora baterako konpromisoko lanek ez balio izatearena, besteak beste.

9.- Giza baliabideen *azken urtetako joeren* inguruan galdetuta, erantzunak nahiko homogeneoak dira: azken urteetan hazkunde bat eman da langile mota guztietan, zer esanik ez soldatapekoenean baina baita boluntario edo bazkideenean ere, zeinak agerian uzten baitu pertsona nagusiei loturiko gizarte-beharrizana dela nabarmen hazten ari dena, eta ondorioz, baita horri erantzuteko mekanismo ezberdinen erabilera ere.

10.- Enpresen *datu ekonomikoei* dagokienean, inkestan erantzun mailarik apalena izan duten aldagaiak izanik, lorturiko datuak zein punturaino erakusgarriak diren zalantzan jarri behar litzateke, aurrena. Erantzun duten 15 erakundetatik, hala ere, 9 lirateke mikroenpresak, hots, 2 milioi euroko fakturazioaren azpitik dihardutenak; beste hiru leudeke enpresa txikien artean eta azken hirurak enpresa ertainak dira, 10 milioi euroko fakturazioaren gainetik mugitzen direnak (GSR. Koop, Matia Fundazioa eta Gurutze Gorria, hain zuzen ere).

11.- Erakundeen diru-iturrien jatorriaz jasotako erantzunen fidagarritasuna ere auzitan jarri beharrekoa litzateke, jasotariko erantzun askok ez baitute zentzu handirik bere horretan harturik. Dena den, eta ondorio ausartegiak atera nahi izan gabe, hiru profil mota bereziten direla baieztatuko genuke: i) egoitza zerbitzuak eskaintzen dituztenena, batetik, zeinetan pisu garrantzitsuena finantzaketa publikoak baitu (%60-75aren bueltan) baina erabiltzaileen ordainketek ere zati garrantzitsua hartzen duten (%20-35 tartean), ii) boluntario elkarteak, bestetik, finantzaketa publikoaren nagusitasun berbera

edo handiagoarekin (%75-100 parte horretan) eta non bazkideen kuota eta dohaintzek hartzen duten gainerakoa, eta; iii) etxez-etxeokoa azkenik, jasoriko datuetatik ezer ondorioztatzea zaila izan arren, ia bere osotasunean publikoki finantzaturiko enpresak liratekeela suposa litekeelarik. Azken urtetako joeren inguruan, finantzazio publikoa zein propioa (erabiltzaileen ordainketetatik eratorria, nagusiki) handitu edo mantendu egin direla baieztatzen du erakundeen gehiengoak, izan ere gutxi batzuk baino ez dira beherakada antzeman dutenak.

7.3.2 Inkestaren analisi partziala: Gizarte Ekonomiaren familia ezberdinak

Inkosten emaitza orokorrek azpian aniztasun handiko erakundeen multzo baten existentzia agerian uzten dute, zeinak gizarte-ekonomiak azpi-talde nahiko definituak eta bereziak dituela ondorioztatzen eraman baikaitu.

Honela, erakundeok eskaintako zerbitzu nagusien arabera, lau logika eta funtzionamendu ezberdinetako azpi-multzo osa litezkeela iruditzen zaigu:

- 1.- Egoitza-zentroen kudeaketan diharduten fundazioak
- 2.- Etxez etxeko laguntza zerbitzuetan diharduten elkarteak
- 3.- Zahartze aktiboaren bultzatzaile diren boluntario elkarteak
- 4.- Zerbitzu dibertsifikazio handieneko kooperatiba eta enpresa soziala.

Analisia multzo multzo eginez gero, barne antzekotasun handiagoko erantzunak erdietsi dira eta hortaz, Gipuzkoako pertsona nagusien esparruan diharduten gizarte-ekonomiako erakundeen artean bost familia ezberdin bereiziko ditugu:

7.3.2.1 Lares Federazioko fundazioak: Matia Fundazioa

Lehen azpimultzoa, hortaz, egoitza-zentroen kudeaketan diharduten fundazioek eratuko lukete, erakunde kopuruari dagokionez ugariak dira, eta inkestaren aparteko ustiaketatik honako ezaugarriengatik nabarmendu dira:

1.- Erakunderik zaharrenak dira, batzuk XVIII. mendean sortuak (Zorroaga kasu), besta batzuk XIX.ekoak (Matia Fundazioa eta Mikel Deuna Egoitza, esaterako) eta gainerako gehientsuenak 80eko eta 90eko hamarkadetan sortuak.

2.- Gehienak dira fundazioak edo bestelako izaera juridiko elizkoiei lotuak (Kongregazioak eta Ongintza etxeak). Hortaz, erakunde gehienek fundatzaileen artean erakunde erlijiosoak daude edo norbanako esanguratsuen karitatezko testamendu lagapenak.

3.- Guztiak daude espezializatuak egoitza-zentroyen kudeaketan, egoitza edo eguneko zentroyen kudeaketan, alegia, eta salbuespen bakarrarekin, erakunde guztiek zentro bakarra kudeatzen dute, izaera lokaleko erakundeak lirake hortaz. Guztira eguneko zentroetako 292 plaza eta egoitzetako 944 plaza kudeatzen dituzte (gizarte-ekonomiako erakundeek kudeaturiko plaen %73 eta %63, hurrenez hurren). Bi erakunderen salbuespenarekin (Zorroaga eta Matia fundazioak) gehienak erakunde txikiak dira, gaitasun apaleko zentroyen kudeatzaile.

4.- Erakunde txikiak izanik gehiengoak, langile kopuruari dagokionez ere 50 langilez azpiko enpresak dira gehienak. Halaber, langile boluntarioen ekarpenak izan ohi dituzte zentro guztietan. Soldatapeko langileei dagokienez, gehiengoak azken urteetan kontratazioak gehitu egin dituztela erantzun dute, eta boluntarioen kasuan gehienetan mantendu egin da pertsona horien kopurua.

5.- Fundazioen gehiengoan (%57) zuzendaritza organo nagusietan (Patronatuan) herri-erakundeek ordezkariak dute, erakunde pribatu izan arren, herri-erakundeei nolabaiteko erabakitze ahalmena bermatzen zaielarik.

6.- Datu ekonomikoei dagokienez, Zorroaga eta Matia fundazioen salbuespenarekin, erakunde gehienek 1,5 eta 2 milioi euro arteko fakturazio bolumena dute eta finantzazio publikoa eta erabiltzaileen ordainketak dira diru iturri nagusiak (batz besterik %65-%35 portzentajetan, hurrenez hurren). Zorroagak bere aldetik, 10 milioiko fakturazioa dauka eta Matia Fundazioa da, oro har, sektore honetako enpresarik handiena 29 milioi euro pasatxoko fakturazio ahalmenarekin.

Egoitzen kudeaketan diharduten fundazio horietako gehienak, laginean hautaturiko hamarretik zortzi, Lares Federazioa (*Federación de Residencias y Servicios de Atención a los Mayores –sector solidario-*) izeneko bigarren graduko plataforma batean daude elkartuak (<http://www.laresfederacion.org/>). Estatu mailako plataforma honetan, estatuko autonomia-erkidego guztiak daude ordezkatuak, eta horietako bakoitzean, lurraldean diharduten eta Lares-en printzipioekin bat egiten duten fundazio eta egoitzak elkartzeko dira. Euskadi mailan (<http://www.lareseuskadi.org/>), guztira 27 fundazio eta egoitza daude elkartuak Lares-Euskadin, eta Gipuzkoako lurraldean 10 dira guztira (horietatik zortzik erantzun dute guk igorritako inkesta).

Federazio honetako enpresen bereizgarritasuna, horien mozkinen besteko izaeraz gain, “humanismo kristauko balioei” loturiko erakundeak izatearena da, zeinak agerian uzten baitu erakundeok elizarekiko duten gertutasuna. Horrekin batera, federazioak dituen eginbeharren artean, bigarren mailako plataformen ohiko eginkizunez gain (informazio eta aholkularitza zerbitzuak, esperientzia trukaketak, etab.) merkatuaren aurrean eragile bateratu gisa eskala ekonomiak lortzeko baliatzea (kanpo erosketak egiterako orduan, esaterako) eta langile zein herri erakundearen aurrean nolabaiteko ordezkari edo “ugazaben elkarte” papera jokatzeko leudeke, mota ezberdinetako negoziatioetan fundazio horien interes komunak defendatzeko.

Aipagarria da bestalde, gizarte-ekonomiaren azpimultzo honetan erakunde batek besteen gaineratik jokatzen duen lidergo argia: Jose Matia Calvo Fundazioak, (Matia Fundazioak), hain zuzen ere. Erakunde hau da, ez soilik azpimultzo honetan baizik gizarte-ekonomia bere osotasunean harturik ere, sektoreko erakunderik handiena, bai kudeaketa ahalmenari dagokionez eta baita enplegatzen dituen langileen ikuspuntutik ere. Honela, momentu honetan 4 eguneko zentro (107 plaza) eta 4 egoitza (358 plaza) kudeatzen ditu aldi berean, eta 507 langileko taldea du, horietatik %81 behin betiko lan-kontratuarekin. Aipaturiko zentro horiez gain, Matia Fundazioak bestelako zerbitzu ugari ere eskaintzen du, gaueko zentroak, ospitalea, desgaitasuna duten pertsonentzako zentroa, bizkortze zerbitzuak, familien parte hartzea bideratzeko programak, eta abar luze bat, eta ikerkuntza eta garapenean esfortzu bereziki aipagarria egiten du, Matia Taldearen baitan sorturiko INGEMA Gerontologia Institutuaren bidez¹²².

7.3.2.2 Gestión de Servicios Residenciales (GSR) kooperatiba

Kooperatiba hau da sektorean gaur egun diharduten kooperatiben artean nagusia¹²³, ez egun hartu duen dimentsioagatik bakarrik, baita bere atzean sostengatzen duen taldeak ematen dion sendotasunagatik ere. Honela, GSR kooperatiba da *Mondragon Humanity at Work* kooperatiba taldeak gizarte-zerbitzuen esparruan egoitzen kudeaketan sartzen joateko baliatu duen esperientzia aitzindaria.

¹²² Informazio gehiago <http://www.matiat.net/caste/index.php> eta <http://www.ingema.es/> esteketan.

¹²³ Zu eta Biok izeneko beste kooperatiba batek Tolosaldea inguruan etxez etxeko laguntza zerbitzua ematen du, baita Yurreamendi egoitzan bestelako zerbitzuak eskaini ere, baina guztira lau bazkide kooperatibistak osaturiko kooperatiba da.

Urte batzuk atzera jo behar litzateke mugimendu kooperatiboaren apustu honen jatorria zehazteko: 2001ean Mondragon taldeak ospatu zuen Kontseilu Orokorrak, Osasun Sektorea etorkizuneko sektore estrategiko gisa definitu zuen, eta erabaki horretatik eratorri zen Mondragon Health¹²⁴ bezalako ikerkuntza eta sustapen plataformaren sorrera. Geroztik mugimendu kooperatiboak etengabe aztertu izan du mendekotasunaren inguruan hedatzen joan den merkatua, bertan kooperatibek izan litzaketen aukera eta erronka nagusiak identifikatze aldera.

Honela, Elkar Ikertegiak 2007an buruturiko azterlan batean, kooperatibak sektorean barneratzeko aukera argiak nabarmendu ziren, nagusiki gizarte gero eta zaharrago batek sorturiko eskari hazkorrak eraginda eta eskaintza pribatua nahikoa ez zela baloratu zelako baina baita herri-erakundeen aldetik emandako bultzada berriak (Mendekotasun Legeak ekarritako konpromiso publikoak medio) finantzazioan aukera berriak sor zitzakeelako ere. Era berean, kooperatibek gainerako erakunde pribatuen aldean izan litzaketen abantailak ere identifikatu ziren: Mondragon talde kooperatiboaren parte izateak ematen dien prestigio eta kaudimena, herri-erakundeetatik zuzenki eginiko aitorpena (bai Mendekotasun Legean eta baita bestelako gizarte-zerbitzuen legeetan ere) eta enplegu kooperatiboaren kalitate eta egonkortasun handiagoa (Elkar Ikertegia, 2007).

Kooperatiben sektoreak, hortaz, herri-erakundeen aurrean izan lezaken eragiteko ahalmenaz baliatuz, eta sektoreko hainbat enpresa pribatuk agertzen zuten kudeatze-gaitasun falta probestuz, bi esparru horietatik zerbitzuen kontratazioak eskuratuko litzkeen enpresa kudeatzaile baten aldeko apustua egin zuen: GSR. Koop, hain zuzen ere.

GSR. Koop 2003an jarri zen abian, *Mondragon Corporación Cooperativa* taldearen bultzadaz (egun *Mondragon Humanity at Work* deitua). Bere sorreratik planteamendu kooperatiboa sektorearen baldintzetara egokitzen joan behar izan da. Honela hastapenetik, bazkideen gabeziak eta inbertsioak egiteko horien gaitasun faltak, GSR kooperatiba misto moduan sortzea ekarri zuen: 2 kooperatibak (egun LKS Ingeniería

¹²⁴ <http://www.mondragon-corporation.com/CAS/Conocimiento/Health.aspx>

bildutako MCC Inversiones eta Auzo Lagun) jarri zuten negozioa martxan jartzeko hasierako kapitala, bazkide kapitalista bihurtuz, eta hortik aurrera kooperatibak autonomia finantzaria mantendu beharko luke bazkideen ekarpen eta enpresaren jardueraren bitartez.

Bestalde, GSR kooperatiba, printzipioz hirugarren erakundeen (publiko zein pribatu) titulartasuneko zentroen enpresa kudeatzaile izateko ideiarekin jaio zenez, arazo bat planteatzen zitzaion zerbitzu kontratazioen behin-behinekotasuna eta langile-bazkideen behin-betikotasunaren artean. Afera honi bazkide guztien derrigorrezko subrogazioarekin egin zitzaion aurre, eta subrogazioa ezartzeak, bazkide-kooperatibisten lan hitzarmenean aldaketa esanguratsuak egitea ekarri zuen: i) batetik, ohikoa den eran Lagun Aro edo Autonomoen Erregimenpean aritu beharrean, kooperatiba Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean txertatu zen, bazkide beharreko langileek gizarte-prestazioetan galerarik nozitu ez zezaten; ii) bestalde, langileak bazkide izateko gutxieneko derrigorrezko ekarpena 2.000 eurotara jaitzi zen; sektoreko langileen eros ahalmen apala bazkide bilakatzeko arazo bilaka ez zedin, eta, iii) azkenik, sarrera-kuota, hau da, bazkideak kooperatibatik baja hartuz gero kooperatibari itzuli beharreko dirua, ahalik eta portzentaje baxuenera jaitzi zen, hasierako ekarpenaren %5ean utziz.

Agerian geratzen denez, GSR. Koop kooperatiba berezi gisa garatzen joan da, sektoreko baldintzei egokitu beharrak eraginda, eta bere apustu estrategikoan zentroen kudeatzaile izatetik, egoitza berrien bultzatzaile izatera ere igaro da, Aretxabaletako egoitza honen erakusle, eraikuntza LKS Injeniería-k burutu baitu GSR-ri egokituz zentroaren kudeaketa. .

Bilakabide honen ondorioaz, GSR. Koop kooperatibak gaur egun honako zifrak erdietsi ditu:

- 1.- Zerbitzuen dibertsifikazio handia lortu du, egoitza zerbitzuez gain, etxez-etxeke laguntza zerbitzua, tele-laguntza zerbitzua, eguneko arreta eta atsedenerako zerbitzuak eta etxebizitza babestu eta komunitarioak ere kudeatzen baititu, ez soilik Gipuzkoan, baita Euskadiko gainerako lurraldeetan zein Euskaditik kanpo ere (Errioxan)
- 2.- Kudeaturiko zentro eta zerbitzuen zifra nagusiak hauexek lirateke: 9 eguneko zentro (83 plaza okupatuak 119 plazako gaitasunarekin), 9 egoitza (524 plaza okupatuak 630eko gaitasunarekin), etxez etxeke laguntza 3 herritan (130 erabiltzaile), 2 etxebizitza komunitario (28 erabiltzaile) eta 2 etxebizitza babestu (3 erabiltzaile). Guztira 728 erabiltzailek jo dute GSR-k eskainitako zerbitzuren batera, Gipuzkoa zein Gipuzkoatik kanpo.
- 3.- Langile kopuruari dagokionez, egun GSR-k 410 langile ditu enplegatuak, horietatik 192 soldatapean eta 218 bazkide kooperatibista bilakatuak. Bazkide/soldatapekoen %53ko ratio hori ere nahiko ezohikoa da kooperatiba industrialen aldean, nahiz eta zerbitzuetako kooperatibetan mota ezberdinetako orekak izatea geratzen den.
- 4.- Datu ekonomikoei dagokionez, urteko 16 milioi eurotako fakturazio bolumenarekin, sektoreko gizarte-ekonomiako bigarren enpresa handienaren tokia hartu du jada, Matia Fundazioaren atzetik.

7.3.2.3 Boluntario elkarteak: Nagusilan

Gizarte-ekonomiaren hirugarren zutabe bat osatuko lukete, justifikazio teorikoan azaldu dugun moduan, sektorean diharduten zenbait boluntario elkartek, nagusiki gizarte-ekintzakoak direnak, baina kasu honetan “aisialdirako edo ordezkartzarako elkarteak” kontuan hartu gabe.

Boluntario elkarte horiei bidalitako inkestetatik lorturiko datuak aparte landuz gero, honako emaitzak eskuratuko lirateke:

- 1.- Erakunderik berrienak lirateke konparazioan, laginean hautaturiko erdia baino gehiago 1996tik hona sortuak baitira, asko mende berriarekin batera. Erakunde hauen artean zaharrenak, boluntario elkarte orokorrak dira, DYA elkarte eta Gurutze Gorria, hain zuzen ere.
- 2.- Izaera juridikoan denak dira elkarteak, Gurutze Gorria izan ezik, (Erakunde Humanitario gisa definitua baitago).
- 3.- Fundatzaileen artean herri-ekimeneko erakundeak izatearren bereizten dira argiki, soilik erakunde batek aitortu baitu herri-erakundeen bultzadaz sortu izana. Normalki, beraz, “gizarte zibil antolatuaren” logikan diharduten elkarteak dira, boluntariora lanetan zentratuak, kasuren baten salbuespenarekin (trebakuntza konkretuko profesional taldeek osaturiko elkarten kasua, Lahar Elkargoa bezalaxe).
- 4.- Elkarte hauek eskainiriko zerbitzuen analisitik, gizarte-zerbitzuen legeak definituriko zerbitzuen artean, “partaidetza eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzua” eta “gizarte eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua” dira gehien nabarmendu direnak, horien atzetik datozelarik “atsedenerako zerbitzua”, “autonomia sostengatzeko zerbitzuak” eta “familian esku hartzeko eta bitartekaritza egiteko zerbitzuak”.
- 5.- Elkarteetan parte hartzen duten pertsonen artean, gehienak boluntario elkarteak izanik, soldatapeko langilerik apenas ageri den. Soilik hiru erakunde aitortu dute soldatapean diharduen langileren bat izatea, alde batetik Gurutze Gorriak (234 langilerekin), bestalde Lahar Elkargoak (esku hartze psikosozialerako gerontologia profesionalen elkarteak 84 langile ditu) eta azkenik Nagusilan-ek (langile bakarra).
- 6.- Ordaindutako lanetik ez dutena, bazkide eta boluntario bidez osatzen dute elkarteak. Horrela gehienak gizarte-oinarri garrantzitsu baten gainean sortuak dira, 100-200 bazkideren laguntzarekin eta elkarte handienak gehiagorekin: Nagusilan-ek 855 bazkide ditu eta Gurutze Gorriak 13.063. Orokorrean bazkide kopuruaren oso azpitik egon ohi da lan boluntarioak modu egonkorrean egitera animatzen direnen kopurua, tamaina guztietako elkarteak daudelarik: 14 boluntariorik hasi eta 855 boluntariora bitarte. Azken urteetan bazkide kopurua boluntario kopuruaren gainetik hazi dela ondoriozta liteke halaber.
- 7.- Datu ekonomikoei dagokionez, boluntario elkarte txikiek fakturazio ahalmen apala ageri dute (25.000 eurotik beherakoa). Boluntario elkarten artean bakarrak gaingitzen du langa hori, Nagusilan-ek, eta gainerakoak soldatapeko langileak dituzten elkarteak lirateke.
- 8.- Diru iturrien jatorriari dagokionez, nagusiki herri-erakundeen subentzio bidez bizi diren elkarteak izan arren, baztergarriak ez diren zenbatekoak eskuratzen dituzte bazkideen kuoten bidez (%10etik %25era bitarte).

Aipatu ditugun elkarten artean, dudarik gabe, Nagusilan Elkarteak erreferentziazko lana betetzen du pertsona nagusiei bideratutako boluntariora dagokionean. Azpimarratzekoa da horien lana hirugarren pertsonen mesedetan diharduten pertsona

boluntarioak baitira, asko eta asko adinean gora joandakoak, gainera. Aspektu horretan bereizten dira gainerako zaharren elkarte eta zahar-etxeetatik, edo gainerako pertsona nagusien ordezkariak erakundeetatik, “zahartze aktiboaren paradigmak” bete betean sartzen direlarik, pertsona nagusien artean boluntariotza lanak kanalizatzeko funtsezko elkarteak bihurtuz. Era berean, bestelako elkarte orokorragoen aldean (DYA edo Gurutze Gorria bezalakoak) pertsona nagusien premiak asetzera bideraturiko elkarteak delako nabarmendu nahi izan dugu atal honetan.

Elkarte gisa dimentsio garrantzitsua lortu duen bezala (855 bazkide-boluntario), berebiziko funtzio betetzen du pertsona nagusien beharriak herri-erakundearen aurrean agerrarazi eta defenditzeari dagokionean ere. Horren lekuko, Nagusilan-ek Gipuzkoako Pertsona Nagusien Kontseiluan duen parte hartze esanguratsua, 19 kideetik 7 eskualde mailako adinekoen kontseiluetako ordezkariak baitira, denak ere Nagusilan-en lanari esker izendatuak. Era berean, Nagusilan Gipuzkoa mailako boluntario elkartearen sareko parte da, Sareginez osatu zuten elkarte fundatzaileetako bat delarik (<http://sareginez.blogspot.com.es/>).

7.3.2.4 Etxez etxeko laguntza diharduten elkarteak: Ilarki Elkargoa

Azken talde bat etxez etxeko laguntza zerbitzuetan diharduten elkarteena litzateke. Etxez etxeko laguntza zerbitzuen sektorea bereziki pribatizaturiko sektorea da, oso gutxi baitira udal txeko gizarte-langileen bitartez zerbitzu hori zuzenean eskaintze dutenak (udalerrien %10 eskas). Beraz, enpresa pribatuaren bitartez eman ohi den zerbitzu bati buruz ari gara, non estatu mailako bizpahiru enpresa handik (nagusiki CLECE eta EULEN) ematen baitute udalerririk gehienetako zerbitzua. Hala ere, gizarte-ekonomiari loturiko erakundeek Gipuzkoako udalerrien heren batean dihardute lanean, herri txiki asko baina baita tamaina ertaineko herrietan ere (10.000 biztanletik gorakoetan). Elkarte hauen analisi alderatutik honako emaitzak nabarmenduko lirateke:

- 1.- Erakunde gehienak 90eko hamarkadatik aurrera sorturikoak dira, gizarte-zerbitzuen legeek ezarritako zerbitzu berri baten garapenak bultzatuta ziurrenera.
- 2.- Fundatzaileen artean askotariko eragileak agertzen diren arren, nagusiki logika konkretu bati erantzuten dio elkarteon sorrerak: ordura arte zerbitzu horiek eskaintzen zituzten langile (emakume) taldeek auto-enplegurako sorturiko erakundeak lirateke, gehienetan herri-erakundeen eskariari erantzunez. Honela, ordura arte modu informalean edo herri-erakundeetatik emaniko zerbitzua formalizatzeko mekanismo gisa interpreta liteke elkarte horien sorrera. Hala ere, badira bestelako logika bati erantzuten diotenak ere, mozkin asmorik gabeko elkartetan bilakatu diren enpresa pribatuena, hain zuzen ere, legeak ezarritako zenbait abantailen onuradun izateko helburuarekin bilakatuak.
- 3.- Izaera juridikoari dagokionez, gehiengo elkarteak dira, kooperatiba baten (Zu eta Biok. Koop) salbuespenarekin.
- 4.- Guztira 744 pertsona artatzen dira, erakunde horietan diharduten 292 langile eta 4 bazkide-langileren bitartez. Gainerako pertsonal motari dagokionez, bestelako elkarteekiko diferentzia nabarmenak ageri dira: oso gizarte-oinarri ahuleko elkarteak dira, bazkiderik gabeko elkarteak batzuk, eta guztira 24 bazkidek sostengatzen dituzte aztertutako 6 erakundeak. Boluntarioen erabilpenari dagokionean ere antzerako emaitzak erdiesten dira, erakunde bakarrak erantzun baitu boluntario bidez osatu izana bere zerbitzua. Boluntarioak ez erabili izanaren argudio gisa, horien lanak baliorik ez izatea edo soldatapeko langileekin aritzearen preferentzia nabarmendu dira.
- 5.- Datu ekonomikoei dagokienez oso informazio murrizta eskuratu da. Erakunde bakarrak osatu du alor hori, eta beraz, hortik guztientzako baliagarri izan litekeen ondorioz ez ateratzea hobetsi dugu.

Elkarte mota horien artean Ilarki Elkargoa litzateke erakunde adierazgarrienetako bat. Tolosa eta Tolosaldeako beste 10 herritan zerbitzua eskaintzen duen elkarte da, eta “auto-antolatutako langile taldearen” logikari eutsiko lioke bete betean. Lehenagotik udaletxearen finantzazioari esker lanean ziharduen emakume talde bat dago elkarte honen atzean, une batean eta udaletxearen eskari zuzen bati erantzunez, erakunde formal gisa aritzeko pausoa eman zutelarik. 11 emakumek bazkidek osatzen dute egun elkarte, eta beste 31 langilek dihardute soldatapean elkarte horrentzat lanean.

Gainerakoan, elkarte zerbitzu-emailearen profilari lotu behar litzaiokete bete betean, hirugarren sektoreko elkarteek egin ohi dituzten bestelako eginkizun sozialak horien eginbeharrak ez direla uste baitute. Honela, ez dute parte hartzen hirugarren sektoreko plataformetan, ez eta herri-erakundeek planteaturiko eztabaidarako foro eta

kontseiluetan ere, eta gizarte-gaien inguruko sentsibilizazio gaiak ere herri-erakundeen erantzukizun direla uste dute. Boluntario bidezko lanik ez dute egiten, hau ez baita konpromiso egonkor eta uneoro erabilgarri baterako formula baliagarria horien irudiko, eta hortaz, elkarteko langileek beraiek hartu behar izaten dituzten beregain laneko orduz kanpoko bestelako zenbait eginkizun. Elkarte honetako arduradunak elkarrizketatua izan denez, hurrengo atalean garatuko dugu sakonago esperientzia hau.

7.3.2.5 Enpresa soziala: Bizitzen Fundazioa

Orain arte aipatu gabe utzi dugun elkarte batentzat gorde dugu azken atal hau, nolabait gizarte-ekonomiaren bosgarren familiazat har genezakeena, kuantitatiboki apala izan arren kualitatiboki ezberdintzat eta bereizgarritzat har bailiteke. Bizitzen Fundazioa¹²⁵ da aparteko atal honetan sartu nahi izan duguna, sektore honetan Gipuzkoan diharduen gizarteratze edo laneratze-enpresa bakarra baita.

Erakunde honek Durangon (Bizkaian) du egoitza nagusia, baina Gipuzkoako hiru herritan ere ematen ditu bere zerbitzuak, Mutriku, Deba eta Elgoibarren, hain zuzen ere. Hiru herri horietan 95 pertsonari etxez etxeko zerbitzua eskaintzeaz gainera, azken bi herri horietako eguneko zentroetan diharduen pertsonalaren kudeaketan ere parte hartzen du. Horrez gain, egoitza bat ere kudeatzen du Bermeon eta zaintzaileei laguntzeko zerbitzuak ere eskaintzen ditu. Guztira 59 langilez osaturiko taldea osatzen du, bi pertsonaz salbu, gainerako denak andrazkoak direlarik.

Bizitzen Fundazioa, Sartu Federazioaren (<http://www.sartu.org/>) baitan martxan jarritako gizarteratze-enpresa da, gizarte-zerbitzuen esparruan diharduen bakarra, eraikuntza alorrean, haurtzaindegi zerbitzuetan, telekomunikazio komunitarioan, serigrafian, mezularitzan eta abar luze batean diharduten beste laneratze-enpresen artean. Egun, 59 langilek osatzen dute enpresa, gehiengoa lan munduan barneratzeko zailtasunak izan ohi dituzten pertsonak, eta mota honetako enpresa moten bitartez gizarte-helburu bikoitza betetzea bilatu ohi da: zaintza premiak dituzten pertsonen beharrak asetzea enplegatzeko zailtasunak dituzten pertsonen alternatiba profesionalak eskaintzearekin batera.

¹²⁵ http://www.bizitzen.org/web/login.php?poner_idioma&idioma=EU&pagina=home_EU.htm

Sartu Federazioa lau elkarteren bilketatik sortzen da 1988an: Bilboko Gaztaroa Elkartea, Arabako Sartu Elkartea, Donostiako Erroak Elkartea eta Durangoko Zabaltzen Elkartea, eta beren egitekoen artean “gizarte-bazterketaren eta kanporaketaren aurka borroka egitea” nabarmentzen dute, “gizarte-babeserako zerbitzu komunitarioen sare barruko zerbitzu publikotzat” jotzen dutelarik euren burua, beti ere gizarte-zerbitzuen sarean funtzio osagarri bat eginez eta bestelako eragileekin (publiko zein herri-ekimenekoekin) lankidetzak bilatuz. Gainera, bestelako gizarte-sareetan ere parte hartzen dute, esate baterako REAS-Euskadin, zeina baita Euskadi mailan Ekonomia Solidarioaren esparruan erreferentziazkoa den erakundea.

Enpresa mota honek, hortaz, doktorego-tesi honen lehenengo atalean definituriko “enpresa sozialaren” profilarikin bat egingo luke bete-betean, erakunde zerbitzu-emaileak izateaz gain, bestelako gizarte-dinamika eta sare ezberdinetan parte hartze aktiboa agertzen baitute, beti ere bestelako balio solidarioagoak barneratzen dituzten jarduera ekonomikoak bultzatzeko helburuarekin.

7.3.3 Elkarrizketatuen diskurtsoaren analisia

Elkarrizketak burutzeko erabili dugun gidoi irekian, pertsona nagusien sektorean Gipuzkoan diharduten gizarte-ekonomiako enpresen analisia egiteko atal oso bat planteatu dugu, horien artean izan litzaketen ezaugarri komun eta bereizgarriez gain, enpresa mota ezberdinen arteko elementu disparekoen inguruan ere gogoeta bilatzeko xedearekin. Ohar bedi irakurlea, elkarrizketatuek gehienetan “hirugarren sektore” edo “mozkin asmorik gabeko erakundeak” terminoen bitartez egiten diotela erreferentzia esparru honi, guk aurretiaz “gizarte-ekonomiaren” nozioa hobetsi nahia azaldu arren, oraindik orain bi mundu nahiko bereizi baitira hirugarren sektore tradizionalekoak eta kooperatiben mundukoak. Elkarrizketatuen ideiarik nagusienak, eginiko galdera nagusien gidioia jarraituz aurkezten dira jarraian:

7.3.3.1 Gizarte-ekonomiaren berezko ezaugarri bereizleak: tipologia ezberdinak

Elkarrizketatuei, lehenik, gizarte-ekonomiako eragileek berezko dituzten ezaugarriak buruz galdegin zaie, ezaugarri horiek modu eksklusiboan ote dituzten galdetuz.

Esklusibotasunari dagokionez, eztabaidak nahiko adostasun maila altua lortu du, teoriarik gizarte-egitura bakoitza ezberdintzeko ezaugarri propio batzuk zehazten diren arren, praktikan ezaugarri horiek maila guztietan aurki baitaitezke:

“Realmente, a mí siempre me ha gustado el dibujo de Pestoff [1. atalean jasoa], según ese dibujo no hay ninguna característica que sea sólo del tercer sector, porque siempre o la comparte con la comunidad, o la comparte con el sector empresarial lucrativo o la comparte con el sector público. Por tanto, exclusiva no hay ninguna.” (A1)

Berezko ezaugarrien analisian, berriz, emaitzak nahiko disparekoak izan dira, bereziki elkarrizketatu bakoitzak eredu erreferentzial ezberdin bat izan duelako buruan. Hortaz, gizarte-ekonomiarenak berezkoak diren ezaugarriak baino, gizarte-ekonomiako tipologia ezberdin bakoitzaren berezko ezaugarriak jardungo dugu jarraian, horien arteko bat etortze posible edo ezinezkoak aztertuz.

Orokorrean logika ezberdinen koexistentzia nabarmentzen da gizarte-ekonomiako eragileen artean. Berri-emaile baten arabera hiru logika ezberdineko erakundeak berezi behar lirateke tradizionalki hirugarren sektoreari loturiko erakundeetan:

“Bueno, pues, lógicamente es diferente que una persona destine un patrimonio a un fin, que eso es una fundación, y que ponga en manos de alguien es decir, las fundaciones tipo Matía o tipo Zorroaga etc....(...) y bueno es una lógica no lucrativa pero lógicamente muy diferente de la pequeña entidad de personas afectadas o familiares, muy diferente de la entidad por ejemplo de una entidad como puede ser Cáritas que interviene lógicamente mucho en el ámbito de las personas mayores, ¿no? Son tres lógicas diferentes, a mi modo de ver, las tres de ellas compatibles y las tres válidas dentro de lo que es el tercer sector” (A1).

Hiru logika horiek, beraz, fundazioena, kaltetuen elkarreana eta boluntarioen elkarreana lirateke, pertsona honen irudiko. Fundazio eta elkarrean arteko logika

ezberdinen existentzia, elkarriketaturiko pertsona askoren ahotan agertu da, lehen horiek logika enpresarialagoekin lotuz eta bigarrenei bestelako ezaugarriak erantsiz:

“...tampoco todas las organizaciones del tercer sector son iguales, una organización de personas y familias afectadas que se organiza para buscar respuesta a sus necesidades contando con sus propios recursos, que integre la prestación de servicios de responsabilidad pública jamás la vas a poder equiparar a una empresa. Un organización que esté constituida por cuatro o cinco personas que con el tiempo se han ido profesionalizando que no tienen base social y que se centra exclusivamente en la prestación de servicios de responsabilidad pública, por mucho que tenga carácter no lucrativo no va a tener un montón de elementos que son propios del tercer sector y se va a parecer cada vez más a una empresa” (C1).

Pertsona honek tipologia ezberdinen kausa, erakundeetako bakoitzak azpian duen oinarri sozialaren arabera bereiztea proposatzen du, hirugarren sektoreko erakundeen berezko ezaugarriei lotuz gizarte-oinarri sendoa, hots, bazkide kopuru esanguratsua izatearena, eta enpresa zerbitzu-emailearen logikari atxikiz gizarte-oinarririk gabeko erakundeena. Beste honentzat ere, ezberdindu beharrekoa erakundearen orientazioa litzateke, merkatu-orientazioa duen edo auto-eraketaren orientazioa duen bereiziz:

“...hor daude bi maila, eh, nola da? auto-antolaketa elkarteak, ezta? afektatuena eta beste maila bat da iruditzen zait zuk esaten duzuna...(…) baina beste maila hori, eh, hor geratzen dana da azken batean dela zerbitzu publikoen perbertsio bat” (C4).

Bereizketa nagusia hortaz, gizarte zibilaren logikari eta merkatuaren logikari jarraitzen dioten erakundeen artean dago, bigarren horiek ongizate-estatuaren perbertsioa direlarik, nahiz eta bereizketa hori modu ideal batean egiterik ez dagoen:

“...iruditzen zait hirugarren sektore horretan azkenean merkatua dagoela, osea hor ez dala oso ondo bereizten batzutan merkatua eta hirugarren sektorea, batera doala. Klaro hor, zuk kontatu duzuna da hiru konpartimento [merkatua, estatua, gizarte zibila], baina eske igual hiru konpartimentu horiek daude lotuago, printzipioz teorian ikusten dana baino, ezta?” (C4)

Bestetzuk, ordea, erakundeen logikaren atzean erakundeak martxan jarri duten fundatzaileen analisia barneratu beharra ikusiko dute, fundatzaileen motibazio ezberdinak baldintzatuko baitu finean, erakundeak beregain hartuko duen zerbitzu nagusiaren definizioa, eta horrek bere azken izaera:

“En las fundaciones hay detrás un patrimonio... (...) y normalmente o bien la iglesia o bien el ayuntamiento está allí presente a título individual, pero están allí. (...) Mientras que las que vienen de la asistencia a domicilio, en realidad han sido antiguas trabajadoras de una contrata que de pronto alguien se da el piro o alguien tal, y se quedan ellas con que coño! algo tendremos que hacer...” (A4)

“Baina nire ikuspuntua da lehen esan deun bezala gaur egun zahar egoitzatan gaudenak lehen izan gea Casas de Misericordia edo holako zerbait, eta beste batzuk zian lekaimerearen etxiak, bai, bai, ikastetxe batzuk eta hola, orduan horrek bihurtu dira eh... zahar egoitzak gaur. Orduan horrek gehixenak ginen edo fundaziñoak edo animo de lucro barikuak. Eta ordea etxez etxe laguntzan sartu diran beste guztiak ero pribatu bezala edo bestela sortutako lagun batzuk tartian enpresa bat aurrera eramateko, adibidez Donostikoak, lehen esan dizuten bezala, Zalako eta Lamiak ziren kooperatiba. Zergatik egin zuten hola? Ba bueno, langile batzuk pixkat hasten dia eta bueno ba guk emango diegu eh erantzuna behar horri... (B4).

Laburbilduz, beraz, hiru esparru nagusi bereiziko lirateke gizarte-ekonomiaren baitan: alde batetik hirugarren sektoreko merkatuko erakundeak, hots, erantzukizun publikoko zerbitzuen hornitzaile direnak (bi azpi-sektoretan banatuak: egoitza zentroak kudeatzen dituztenak eta etxez-etxe laguntzan dihardutenak); beste aldetik, hirugarren sektoreko ez-merkatuko erakundeak, boluntario elkartetan gorpuztuak, eta azkenik, kooperatiben mundua.

“Es verdad que bueno, pues, que las asociaciones de familias de personas enfermas donde puede haber mayores pues puede ser un subsector, estas fundaciones religiosas o no religiosas que sobretodo prestan servicios pues es otro ámbito, ¿no? donde algunas de ellas pues han generado ya digamos un entidad como fundación Matía que es como una especie de “nonprofit de nueva generación”, ¿no? ya como muy profesionalizada en la gestión etcétera. No sé, luego hay sin embargo otras entidades que igual estarán muriéndose, ¿no? la típicas monjitas de no sé donde que están ahí que no saben qué hacer con su vida etcétera, ¿no? Y luego, pues, como decimos el mundo más asociativo, los clubs de personas jubiladas... Hombre y luego tambien hay a veces sectores emergentes, de gente por ejemplo personas mayores que ellas mismas son voluntarias, o gente prejubilada que trabaja por el envejecimiento activo” (A1).

7.3.3.2 Hirugarren sektoreko erakunde zerbitzu-emaileak: logika ezberdinak eta ezaugarri lausotuak

Bi logika ezberdin dirateke, hortaz, erantzukizun publikoko zerbitzuen hornitzaile diren erakundeen artean, etxez etxeko asistentzian diharduten elkartenak eta egoitza-zerbitzuetan diharduten fundazioenak. Elkarrizketaturiko pertsona baten kontakizunak argiro azalduko luke etxez etxeko laguntza zerbitzuetan diharduten auto-enplegu logikatik sorturiko elkarten logika:

“Por medio de Servicios Sociales iban llamando a gente e iban contratándoles a nombre de los ancianos. Entonces eso llegó un momento en que todo el mundo se echó encima porque ya íbamos siendo, pues, bastante gente, y los ayuntamientos ya no se querían hacer cargo de nosotras, entonces tenían que liberarse de nosotras. Y como eso no era legal en ningún sentido, pues nos dijeron: o formáis alguna empresa o si no tenemos que llamar a alguien para que....(...) Nos reunimos todas...¿pros y contras? Que si queríamos seguir trabajando teníamos que intentar, y así intentamos, porque así no había intermediarios...yo me lo guiso y yo me lo como. Eso es.

Y los primeros años pues estuvimos ahí, como cooperativa, y bueno lo llevaban otras dos chicas eh....antes que nosotras, y hubo unos problemas con esas chicas, entonces se decidió volver a poner a otras, nos dijeron a nosotros para ponernos, porque éramos las únicas que teníamos formación y entonces nos tocó a nosotras y de ahí en adelante es cuando empezamos a cambiar ya de panorama, vamos a decir. De cooperativa pasamos a asociación, intentamos pasar de empleadas de hogar a autónomos, de autónomos empezamos con media jornada, con unas horitas porque no nos llegaba pa más, porque todo es con un precio/hora, de autónomos pasamos a régimen general, también empezamos poquito a poco, y así fuimos haciendo hasta que llegamos a la jornada completa la socias, y luego empezamos a coger gente, porque claro se iban ampliando los servicios...”(B1).

Kontakizun honen bitartez Tolosa eta Tolosaldeako herri askotan etxez etxeko laguntzan diharduen elkarte baten historia jasotzen da, herri-erakundeen babespean handitzen eta egonkortzen joan den erakunde baten historia. Auto-enplegurako logika hori, hortaz, aurretiaz udaletxeko gizarte-zerbitzuen finantzaziopean jardundako zaintzaileen ekintzailetasunari zor zaio, ekintzailetasun hori berezkoa edo behartua izan daitekelarik, behetik gorakoa ala goitik beherakoa, alegia.

“Una asociación que haya estado en ayuda domiciliaria no nace porque existía y se les da, nacen por impulso político” (C3).

Donostiako etxez-etxe laguntzaren ernamuietan ere antzeko logikak ageri dira, nahiz eta dimentsio handiagoko merkatu bati aurre egin beharrak dimentsio eta kudeaketa arazoak izan dituzten elkarteen errealitatea ekarri duen sarri:

“Zalako eta Lamiak, hor zeuden bi kooperatiba ez dakit nondik sortuak baina kooperatiba baino lehen pertsona horiek ere bazeudela esan nahi dut, hor pertsona batzuk eongo zian, ba, ez dakit, udaletxearen enkarguz, ez dakit nola zan, baino zaintza hoiek egiten edo lan hori egiten(...). Nolabait esateko, alde batetik, eh, zerbitzuaren definizioa, zerbitzuaren kontrola, kontratazioaren regularizazioa ta guzti hori hobetzen dijoan tamainan, kooperatiban estilo...bueno kooperatiba hauek zian oso kooperatiba bereziki... bueno, oso boluntariosoak, nahi badezu esan, baina egestura nolabait gestiorako eta egestura enpresarial ahulekoak, bai? Orduan Donostia gainea gendun bi zatitan banatuta, bat kooperatiba bakoitzarentzat. Guretzat hori zan ere bai... gestiorako arazoak eta genitun. Ta pentsatu genun egokiagoa izango litzatekeela lote bakar batean ateratzea kontrato osoa. Ta orduan lote bakar batean atera genuenean ba, etzian, aukera bat zegon beraien artean ados jartzea edo eta elkarrekin presentatzea eta bueno beste gaineitura bat sortu pixka bat enpresarialagoa edo bueno gestioaren ikuspegi pixkat sakonago batekin..., eta etzuten beraien artean akordiorik lortu, bietako bat presentatu zan konkurtsoa baina bueno Clece- k irabazi zuen konkurtsoa.” (A5)

erakunde horiek sare publikoan beren tokia izaten jarrai zezaten harturiko neurri positiboak.

Sektorea bultzatu eta indartzeko neurri horien artean mekanismo ezberdinak jartzen dira martxan herri-erakundeen aldetik: zerga tratamendu faboragarria, lege mailako konpromisoak, sektorea ordezkatzeko duten organo instituzionalen sorrera, etab. (Bakaikoa et al, 2009). Guk kasu honetarako, gizarte-zerbitzuen 12/2008 Euskadiko legeak ezartzen dituen diskriminazio positiboko neurriak jarri ditugu aztergai, 6. atalean aztertu den gisan, neurri horiek legeak aurreikusten dituen finantzazio modu ezberdin guztietan aplikatu beharrekoak baitira, eta berdintasun teknikoko kasuan hirugarren sektoreko erakundeak lehenestera derrigortzen baititu erakunde publikoak.

“Alde al zaude?” galdera planteatu zaie, zuzen zuzenean, landa lan honetan inkesten bidez aztertutako gizarte-ekonomiako erakundeei, eta baita elkarrizketatu ditugun adituei ere.

Lehen horietatik hasita, inkesten emaitzak espero izatekoak dira: gehiengo batek (%72) diskriminazio positiboko neurrien aldeko jarrera hartu du, soilik bi (%9,5) azaldu dira aurka eta gainerakoek ez dute baloratu nahi izan.

Analisia gizarte-ekonomiaren familia ezberdinen arabera burutuz gero, emaitzak ere nahiko koherenteak dira: zerbitzu hornitzaile diren erakunde guztiek, bai egoitza zerbitzuetan dihardutenek eta baita etxez etxeko laguntzan dihardutenek ere, denek batek salbu, baieztatu erantzuna eman dute. Salbuespena Matia Fundazioa litzateke, honek aurkako jarrera azaldu baitu. Aldiz, boluntario elkarten artean bestelako oreka bat ageri da: %62,5-%37,5 dira aldekoen eta baloratu nahi izan ez dutenen portzentajeak. Eta azkenik, kooperatibako arduradunak, aurkako jarrera agertu du.

Aldeko jarrera hartu dutenen artean, galdetu zaielarik zerk justifikatuko lituzkeen diskriminazio positiboko neurri horiek, gehien nabarmendu dena beren mozkin asmorik gabeko izaera izan da, aldearekin gainera, eta horren atzetik jarri dituzte, garrantziaren arabera, beste arrazoi hauek: i) erantzukizun publikoko zerbitzuen hornitzaile izateak ematen dien izaera berezia, ii) gizarte-beharrizan berriak identifikatzeko duten gaitasuna

iii) ez herri-erakunde eta ez enpresa pribatuek kontuan hartzen ez dituzten bestelako funtzio sozial batzuk betetzea (eskubide sozialen defentsa, boluntariora, etab.), eta azken lekuan, iv) langile eta erabiltzaileen parte hartzea bultzatzen duten erakundeak izatea.

Kontrako jarrera azaldu duten bi erakundeen artean berriz, lehenak (GSR.Koop kooperatibak) erantzun du mozkin asmorik ez izatea ez dela kontuan hartu beharreko aldagai bakarra, langileen parte hartzea garrantzitsuagoa dela, eta bigarrenak aldiz (Matia Fundazioak), mozkin asmorik eza baino, kudeaketa ereduari eta zerbitzuen kalitateari begiratu behar litzaiokeela uste du erakunde bati lehentasuna emateko beste baten aurrean.

Galdera honek, elkarrizketaturiko pertsonen artean mota askotako erantzunak jaso ditu, baina ez da inondik ere adostasun zabalik erdiesten, ez herri-erakundeetako arduradun ezberdinen artean, ez gizarte-ekonomiako eragileen artean ez eta bestelako gizarte-eragileen artean ere. Herri-erakundeen artean, aldekoak baino zalantzan direnak gehiago dira, gizarte-ekonomiako eragileen artean ere, gehiago dira zalantzan direnak aldekoak baino eta beraz, interesgarria da ikustea puntu honek ez duela adostasunik sortzen ez harengandik faboratuak izan litezkeen artean, ezta hori aplikarazi behar dutenen artean ere.

Azalduriko argudio eta jarreraren artean nabarmen alde daudenetatik honako argudioak azaldu dira herri-erakundeetako arduradunen aldetik:

“Bueno, sí estoy de acuerdo y la justificación viene por el valor social añadido que aportan las entidades del tercer sector, es decir, de alguna manera entidades que se autolimitan en la obtención del lucro, o que incorporan personas con dificultades de empleabilidad o promueven la participación, aportan un valor social añadido que debe ser reconocido por lo poderes públicos y que se traduce en una discriminación positiva que les permita no tener que competir entre comillas en pie de igualdad con la empresa con ánimo de lucro.” (A1)

Gizarte-balio erantsi bati buruz dihardu, ekonomikoki neur ezin litekeena eta gizartean betetzen dituzten bestelako funtzio sozial batzuekin lotura leukakeena. Gizarte-ekonomiako eragileen eta bestelako gizarte-eragileen aldetik, aldiz, aldeko argudioak jatorri ukigarriagoa du, mozkin asmorik ez izatea da gehien nabarmentzen den

ezaugarria, hori eta horrek dakarren guztia, besteak beste, zerbitzuak merkeago eskaini ahal izatea, gardentasuna kudeaketan edo iraunkortasuna lurraldean, modu horretako argudioak azalduko dira mozkin asmorik ez izateari lotuta:

“porque el precio/hora que se presenta en el concurso se les demuestra donde se gasta porque yo presento...yo desgloso una nómina y desgloso todo el precio/hora a donde se va y ahí se ve lo que queda para los gastos generales y para los proyectos y para esas cosas. Más transparente que nadie, por las exigencias que tenemos que cumplir” (B1)

“Zegatik? Gaur egun eta arlo honetan jokutzen ari dira enpresa pribatuak ikusten dutelako ba badagoela aukera bat dirua etarateko, zergatik sartu behar da Mondragon kooperatiba? Ba ikusten duelako hemen badaukala irabazteko zertxobait. Zer pasatuko luke egunen baten iristen baldin bada ba ez dagoela aukera ba lukroa eukitzeko? Hoiek danak irten ein behar dira. Eta aurretik gaudenok? Eta lukro barekuak ba jarraitu eingo degu zeren eta gure esentzia ez da hori, ez da hori eukitzia baizik eta guria da atenditzia jentia, eta ordun gure kontuak egoten dia ero nibelatuta ero galerarekin, eh? Orduan erakutsi egiten degu egoera horretan be bai, gaizki egonda, jarraitu egiten degu lana egiten” (B4)

“Justifikatzen duten argudioak, bat da bueno alde batetik igual sinpleena da baina da rentabilidade ekonomikoa, osea un coste menos que tienen que es el de buscar dividendos para sus accionistas. Hori lehenengoa da, suposatzen da berez merkeago egingo dutela. Eh bigarrena da entidade hauek gehienak hemen zeudela eta hoiek izan direla gauzak mugitzen hasi direnak. Gainera irabaziaren kontua ez da bakarrik diru kontua baizik eta badakigula hauek errotuagoak daudela territorioan, ez? (...) Eta orduan lurraldean errotuta egotea inportantea dala, eta lurraldean errotuta egoteko hirugarren sektorea askozaz ere egokiagoa da. Eta gainera beraiek ondo egin dutela denbora askoan, jendetik askozaz ere gertuago daudela, ez? orduan nik uste det ez dakit ekonomistek esaten duten bezela sinergia asko daudela ez? Eta enpresa pribatuek ez det esaten ezin dituztenik lortu, baina arazo gehiago dazkate lortzeko” (C2)

Azkenik, kooperatiben mundutik gertu dagoen pertsona batek ekarpen interesgarria egiten duela iruditzen zaigu, alde batetik herri-erakundeen aldetik babes neurriak izatearen egokitasuna defendatzen baitu, baina bestalde, bestelako irizpide batzuk gehitu beharra aipatzen du babestu beharreko eragileen definizioa egiteko, eta mozkin asmorik gabeko izaeraren birdefinizio bat proposatzen:

“Ni ados eongo nintzake. Baina karo arazua da nola baieztatzen dozu, nola frogatzen dozun benetan diskriminaziño positibo hori eitzen dotzazun enpresa edo entidade hori benetan irabazi asmorik gabekoa dan. Ta gero ez da bakarrik sin animo de lucro hori eukitzea atzian, ba lehen

esan doguna ez? kooperatiba bat, hor desberdintasun hori eitxia garbi dago osea, kooperatiba bat izan leike con animo de lucro baina ez bere sozioak irabazten urteteko baizik bueno ba rebertitzeko beren negozio horretan, lanpostu gehiago sortzeko, osea, beste ikuspegi sozial batekin eta hori da sin animo de lucro be bai” (B6)

Oso argi mintzo da, zentzu honetan, gizarte-zerbitzuen legearen diseinuan parte hartze eta garrantzia esanguratsua izan zuen pertsonetako bat, argi uzten baitu legeak ez dituela lehenesten mozkin asmorik gabeko figura juridikoak dituzten enpresak, baizik eta tradizionalki hirugarren sektoreari lotu izan zaizkion praktikak egiaztatzen dituztenak, izan enpresa horiek mozkin asmorik gabekoak ala ez:

“En principio está abierto a todo el mundo, pero hay por un lado requisitos de acceso y por otro lado medidas de discriminación positiva. Y tanto los requisitos de acceso como las medidas de discriminación positiva tienen que ver con prácticas que a la postre caracterizan, en mayor medida, habitualmente, no siempre, a las organizaciones del tercer sector. Pero no por una determinada figura jurídica, no por el hecho de tener carácter no lucrativo, de ser asociación, fundación...sino prácticas, que también si quisiera podría garantizar una empresa. Por ejemplo la reinversión del beneficio en la actividad. Eso es al final el carácter no lucrativo, pero no está asociado a la figura jurídica, sino a la práctica en sí. Y como esa muchas otras. Por ejemplo la permanencia.” (C1)

Diskriminazio positiboko neurrien aldekoen argudioak bildu ostean, aldeko argudioak baino zalantza gehiago dituztenenak jorratuko ditugu jarraian.

Herri-erakundeetako arduradunen aldetik ageri dira nagusiki zalantza gehien, mota horretako neurrien aurrean kontrakotasun argiko jarrerarik ez izan arren, diskriminazio horren nolakoa ondo arautu, definitu eta ikuskatu beharra aldarrikatzen da, eta mozkin asmorik ez izatea ezereen berme ez dela uste da:

“Habría que estudiar medida por medida. Pero yo creo que en prestación de servicios hay cuestiones más relevantes que la naturaleza jurídica de la entidad. Esa es mi opinión. A mí no me parece que tenga que ser absolutamente determinante la forma jurídica de la entidad, sea, ponga en los estatutos que tenga ánimo de lucro o no, creo que hay factores más relevantes. Hay que hablar también de las condiciones laborales de las personas que trabajan, ha habido problemas laborales en entidades sin ánimo de lucro, importantes también. Hay que ver el tipo de servicio que se oferta, hay más cuestiones a ser tenidas en cuenta. Las solvencias también, es decir, tu

cuando vas a prestar un servicio a través de una entidad con o sin ánimo de lucro la solvencia de la entidad también es importante, porque claro, por aquello de no arrastrarte en su caída” (A2)

Mozkina asmorik eza baino garrantzitsuagoak diren aldagaiak ere azertu behar lirateke hortaz, lan baldintzen egoera, zerbitzuaren kalitatea, erakundearen kaudimena:

“ Nosotros estamos hablando de que tiene que haber concurrencia, entonces, ¿en igualdad de condiciones? ¿En caso de empate? Por supuesto. Ningún problema. Pero tienes que demostrar que estás en situación de igualdad, o que no eres peor que otro, eres capaz de prestar mejores servicios, con mayor implantación, con mayores programas, entonces, ahí se marcan una serie de criterios” (A3)

Aldagai teknikoei garrantzia handiagoa aitortzen zaie, logikoa denez, zerbitzua erosten dutenen partetik, herri-erakundeen aldetik, alegia. Nahiz eta orduan, hori izanik lehenetsuna, eztabaida faltsu baten aurrean geundekeen beste zenbaiten iritzian:

“...para nosotros ese artículo es falso. No hay dos empresas que tengan dos...vamos a ver. El que valora, nunca valora igualmente (...) es rarísimo que en un concurso se empate técnicamente, por qué? Porque es la parte, digamos, de libre albedrío de los concursos, no? Cuando un concurso tiene poco de económico y mucho de técnico, sabemos que va a haber una decisión política debajo. Por lo cual, el supuesto...supuesta garantía que da la ley del 2008 sobre en caso de igualdad darle al tercer sector nunca se convierte porque realmente lo que hay es una decisión de yo decidiré yo en la mesa de valoración a quién se la doy” (C3)

Antzeko terminoetan mintzo da herri-erakundeetako ordezkari bat ere, berdintasun teknikoaren ezintasuna aipatuz, eta beraz, legea ekilibrisimo politikoko ariketa huts gisa interpretatzen du, diskriminazio positibo hori egiazki inoiz praktikan jarriko ez dela pentsatzen duelarik:

“...eso de la igualdad técnica no existe. Es muy raro que dos ofertas se igualen en lo técnico. Otra cosa es que tú inconscientemente valores mejor técnicamente una entidad sin ánimo de lucro porque tú entiendas que es mejor y tal, y en la propia subjetividad de la valoración, hay un elemento subjetivo, pero igualdad técnica...yo todavía no he visto un concurso... Y al final se tira por vías intermedias que no son ni una cosa ni la otra entonces se quedan en declaraciones de intenciones, que al quien propone la ley le sirven pues de una especie de bálsamo o lubricante moral, pero realmente dices, yo creo que había una intención de acotar la presencia de las entidades privadas en la prestación de servicios que otra contraparte decía que ni

para judas, osea que no quería esa limitación, y dices bien, vamos a llegar aquí a un entente donde hay un artículo que diga que bueno que en igualdad de condiciones se prime y tal, hombre quien está en la otra contraparte interpreta que esa igualdad no se va dar nunca y que bueno pues una declaración de intenciones nada más. “(A2)

Beste eragile batzuentzat ordea, zinez ez da beharrezkoa halako neurri gehigarririk jartzea, jadanik lehenago existitzen direlako herri-erakundeen aldetik kontrolerako bestelako mekanismoak edo sektore hau bultzatzeko bestelako neurriak ere:

“ si yo controlo la garantía de la atención desde la administración ¿por qué voy a hacer una discriminación positiva a través de una empresa sin ánimo de lucro?” (B3)

“Bueno, nik ez tet horren biharrezko ikusten. Guk kontrolauta baldin bada kau pribatu hoiek ze marjenian barruan ibili bihar baldin badue, ba berdin zait, ikusi ezkeo ondo lana iten duela, eta teknikamente preparauta baldin badaude, zeatikan ez? Eztet uste horreatikan gehio baloratu bihar dala, edo puntu gehio eman behar zaiola, eztet uste. Inportantiena da teknikamente, darle el servicio al que tecnicamente esté mejor preparado, aunque no sea una fundación” (B2)

“Eh...ez dakit beharrezkoa zan. Aber, ez dakit egia esan ez dakit kontratazio legean dago, kontratazio legeak klausula sozialekin dituen aukerak erabilia, bai? (...) Orduan legeak egiten duen garapen guzti hori ez dakit beharrezkoa dan, ez dakit ze ekarriko digun” (A5)

Zalantzak ageri dira, hortaz, neurriaren egokitasunaz baina baita neurriaren aplikagarritasunaz ere. Zentzu horretan, neurria bere hastapenetatik oker planteatuta dagoela uste duenik ere bada, nagusiki kooperatiben munduko eragileek beren burua zuzenki kaltetua ikusten baitute diskriminazio positiboko neurriengatik, eta legearen atzean egiten diren zenbait erabilpen makur salatzen dituzte:

“Sí, sí, hay empresas mercantiles que hacen fundaciones, y asociaciones sin ánimo de lucro. No voy a criticar pero, está claro que las fundaciones, es no lucrativa pero ya me gustaría a mí el sueldo que tiene el gerente de... [fundazio bat aipatzen du], porque claro puede haber derivaciones todas las que quieras. Osea no es lucrativa pero por otro lado pues te estás aprovechando de que al final los resultados los dejas donde los dejas a base de haber incrementado o de haber hecho el reparto de resultados de otra forma, no? Mientras que aquí en cambio en el mundo cooperativo pues eso no hay trampas, ahí al final participa todo el trabajador y al final tienes los retornos en base al valor añadido que tú has generado con tu trabajo” (B5)

“Nik usten det danok jokatzen ai geala nolabait partido berdina, ez? ai gea, konpetitzen ai gea eta esateizut asko izkututzen dia larruazal horrekin [mozkin asmorik gabekoarekin] negozioak eiteko eta ordun ez nago konforme. Osea nik ustet hobe dala justizia distributibo bat langileen artean eta emaitzak gaixoentzako hobeak izan daitezkeela” (B7)

Legearen gainean egin litezkeen erabilpen makurren inguruan aldiz, legearen aldekoek gainditu beharreko albo-kalte gisa kontsideratuko dituzte horiek:

“...baina es un mal menor, osea esan nahi det, ez baldin badezu hori jartzen legeetan, osea esan nahi det hori da bigilantzia gehiago jartzeko arrazoi bat, eta bueno horren kontsekuentzia bat, baina nik hori pasatzeko arriskua dagoelako ez nuke bestea egin gabe utziko, ez?” (C2)

“Ese sin duda es un riesgo, ¿no? Lo que ocurre es que cualquier política o cualquier medida o cualquier decisión tiene riesgos, entonces la obligación por parte del sector público es establecer los indicadores y los mecanismos para discriminar y separar el grano de la paja. Y la responsabilidad del propio tercer sector es la de auto-organizarse, auto-regularse y generar mecanismos para distinguir aquellos que realmente son tercer sector genuino y organizado y voluntario y etc. de aquellos que lo que hacen es hacer una utilización espúrea de la fórmula jurídica” (A1)

7.4.3 Finantzazio mekanismoak aztergai: ituntzea, kontratazioa, hitzarmenak eta diru laguntzak.

Gipuzkoan herri-erakundeen eta gizarte-ekonomiaren harreman ekonomikoen argazki orokor bat izateko, arestian aipatzen joan garen moduan, bi motatako ordainketa bideak nagusitu direla esango genuke: alde batetik, zerbitzu hornitzaileen kasuan, erakunde pribatuen zentroetako plazen kontzertazio edo ituntze politika da gehien erabili izan den bidea, eta bestalde, zerbitzu hornitzaile ez diren elkarrekin, hitzarmen edo diru-laguntzen bidea erabili izan da gehiago.

Horrez gain, titulartasun publikoko zentroen kudeaketarako, azken urtetako joera zerbitzu horiek azpikontratatzeko joatearena izan da, zuzeneko kudeaketari muzin eginez eta kontratazio publikoko erreglamenduen bitartez, zerbitzuak konkurtsora atera eta hirugarrenengoei esleituz. Jarraian deskribatzen da, elkarrizketaturiko pertsona baten ahotan, finantzazio publikoko politiketan gizarte-zerbizuetan gaur arteko izaniko

ibilbidearen zentzua, diru-laguntzen mekanismotik hitzarmenetara eta hortik ituntze politiketara:

“Se refiere a la relación entre la administración y el tercer sector en un ámbito en concreto que es la prestación de servicios, servicios que progresivamente se han ido configurando como servicios de responsabilidad pública, pero progresivamente, y que eran servicios que originalmente están impulsados por las organizaciones del tercer sector. Entonces, esta relación tiene distintos componentes y uno es el de la formalización de la relación para la prestación de servicios. Para formalizar la relación se ha pasado históricamente de dar las subvenciones al marco de los convenios o los contratos. Las subvenciones ¿qué les pasa? Pues que son graciabes, hay un tipo de subvenciones que son las subvenciones nominativas que se pueden conceder directamente, pero en la inmensa mayoría no, hay que acceder a la subvención en la convocatoria de subvenciones, te presentas, se cubre el principio de publicidad y el régimen es de concurrencia competitiva, hay un determinado monto, la administración fija unas prioridades, si tú entras dentro de las prioridades que la administración es libre de fijar, se va entrando en base a un baremo en el monto que hay previsto y te dan determinada cantidad hasta que se agota. De alguna manera es graciable, en un año puede haber en función de cómo evolucionan los presupuestos una determinada cantidad y el año siguiente otra y depende no solamente de disponibilidad presupuestaria sino también de las prioridades que fija la administración. No parece que sea el escenario más adecuado para la prestación de servicios de responsabilidad pública.

A partir de ahí se pasa al convenio. Los convenios normalmente han tendido a ser plurianuales, y los convenios se ajustan a un planteamiento en el que hay mutua voluntad de las partes de firmarlos. Y en cierta medida son graciabes también. Los convenios normalmente encuentran acomodo en la Ley de Subvenciones....¿qué ventajas tiene? Que tiene una flexibilidad muy grande desde el punto de vista de la gestión, pero dependen de la voluntad de quien esté de responsable político de firmar el convenio y también de quien esté en el otro lado...Los subvenciones nominativas como se conceden directamente tienen en integrarse en presupuestos y tiene que pasar por Gobierno, en caso de Gobierno (Vasco) por parlamento vasco, en caso de Diputaciones por Juntas Generales, se revisan cada año. Los convenios, si tú firmas un convenio plurianual, una vez que lo has firmado le das publicidad y ya está, pero tú lo puedes firmar con quien quieras, en ese sentido están mucho menos fiscalizados y además son mucho más flexibles en la gestión. Pero son absolutamente graciabes.

El concierto lo que pretendía era, mediante el régimen de concierto que prevé la ley, era tener un régimen específico, en el ámbito de servicios sociales de la CAV y para la concertación de servicios del catálogo. (...)Se entiende que estas entidades vienen prestando ese servicio desde hace tiempo, que el servicio es de su titularidad y que en la medida en que se cumplen una serie de criterios tiene derecho a solicitar ser concertada. Y la administración en la medida que se ha

consolidado un catalogo de responsabilidad pública tiene la obligación de concertar, pero eso lo tendrá que decir el decreto si lo contempla así, siempre y cuando no garantice el servicio de ninguna otra manera.” (C1)

Graziazko mekanismoetatik sistema itundu batetara igarotzeko apustu honetan, elkarrizketatu honek aipatzen duen dekretua gaur gaukoz oraindik argitaratu gabe dago, hain zuzen ere desgaitasunaren alorreko hirugarren sektoreko erakundeek atzera bota nahi izan dutelako, herri-erakundeetako ordezkari batzuen iritzian guztiz desproporzionatua den eragiteko gaitasun bat baliatuz:

“...el decreto de concertación que desarrolla esto, (...) entonces es una versión que nosotros consideramos absolutamente desproporcionada por parte de las entidades de discapacidad, no? Porque es que eluden, se auto-excluyen de la concertación. Ellos dicen que primero que no tienen que estar ni, ni autorizados, ni acreditados, ni homologados, ni inspeccionados, ni nada (...) Justamente han presentado una enmienda a la totalidad, es un texto completamente nuevo, en el cual digamos que dicen: “no, no, antes de repartir la concertación estamos nosotros, en aquello que es nuestro, en aquello que nosotros conocemos” (...) “Nosotros somos como la administración pública” en el fondo es eso” (A3).

Eztabaida honek ere zerikusi zuzena du, beraz, gizarte-ekonomiaren eta herri-erakundeen artean sor litezkeen harreman moduen analisiarekin, erlazio horiek izan baitaitezke ordezkapenekoak, osagarritasunezkoak edo kasu honetan bezala, lehiatzekoak. Hargatik defendatzen da herri-erakundeetako ordezkari batzuen aldetik kontratazioaren egokitasuna, herri-erakundeei kontrolerako mekanismo errazagoak emateaz batera, ez duelako halako menpekotasunezko loturarik ezartzen herri-erakundeengan zerbitzuaren hornitzailearekiko:

“Pero claro, es que en los convenios es verdad que se establece una relación de tú a tú, y eso puede ser problemático para la administración. Porque yo entiendo que la administración es garante último de esos servicios. Yo entiendo que haya entidades que les incomode. Pero como responsables públicos tenemos que hacer valer esa primacía” (A2)

“Gu oso zorrotzak izan gea ikuspuntu horretatik, pentsatzen dugu ardura publikoa defendatzeko kontratu bidez jokatzea hobe genuela, eta kontratu bidez jokatu dugu beti, eta ardura publikoa ez dena, subentzioa da” (A5)

Azken honek aipatzen duenaren ildotik, bereizketa hori funtsezko elementua da eta esango genuke adostasun maila oso zabala lortzen duela elkarrizketaturiko pertsona guztien artean: legez erantzukizun publikoko zerbitzu gisa definituriko zerbitzuak ezin dira diru-laguntzen mekanismoaren bidez ordaindu, eta erantzukizun publikokoak ez diren zerbitzuentzat gorde behar lirateke diru-laguntzak.

“...legeak ekartzen duen gauza bat da kontsolidatu egiten dela los servicios de responsabilidad pública, ez? Ta hor hortako dago katalogoa eta kartera. Ta zerbitzu horiek berdin da nork ematen dituen, pribatuak, publikoak, son de responsabilidad pública, eta zuk daukazu eskubidea erresidentzia batera juteko eta ez da asko inporta norena dan residentzia hori, eta hoiek eukiko dituzte kobertura exigentzia batzuk, ratio exigentzia batzuk, kalitate exigentzia batzuk, eta abar. Ta dirua horretara joango da ze hori da legeak betetzera behartzen duena, ez? Eta gero geldituko dira hortik nik beti jarri det risoterapia tailerrena, ez? Risoterapia tailerrak oso ondo egon daitezke baina ez dira erantzukizun publikoa, ez daude karteran ez daude katalogoan. (...) Hori guk normalean esan dugu dala una maduración del sistema. Sanidadeak eta Edukazioak ere berdina egin zuten, kartera zein da? guk ze zerbitzu prestatzen ditugu? Ba hauek prestatu behar ditugu!” (C2)

“Lógicamente un marco de concertación es más exigente para las entidades que un marco de subvención. También es más exigente porque también les aporta más estabilidad y les aporta más financiación, etc. Son dos herramientas, el concierto y la subvención para dos finalidades distintas, y bueno, tendrán que coexistir, habrá cosas que tendrán que concertarse porque son de responsabilidad pública y muchas otras cosas que se podrán subvencionar porque una iniciativa propia de una entidad y bueno pues aspira a que se le apoye pero que no está en el ejercicio de una responsabilidad pública” (A1)

Erantzukizun publikoko sistema ezartze bidean argi dago hornitzaileentzat egonkortasun handiagoa eta ordaintzailearentzat (herri-erakundeentzat) kontrol gaitasun handiagoa emango luketen formuletara jo behar litzatekeela, eta beraz, printzipioz eta desgaitasuneko adibidea kenduta, ez dirudi eztabaida handirik dagoenik pertsona nagusien esparruan diharduten eragileen artean: gizarte-ekonomiako erakundeentzat oso interesgarria den bezala da komenigarria herri-erakundeentzat.

“Habría que preguntarse si es buena o mala para la administración, y yo creo que la concertación lo que hace es, es una garantía de responsabilidad pública, de que la responsabilidad descansa en ti del servicio, y yo creo que eso es importante” (A2)

“Vivir de subvenciones que no sabes si mañana vas a tener no te garantiza una estabilidad, una captación de profesionales de calidad, una garantía de continuidad en el servicio, no te garantiza nada. Hay que pasar a un convenio en el que tú sabes que vas a poder desarrollar un proyecto” (B3)

Epe motzera bilatu beharreko finantzazio ereduari adostasun handia aurkituagatik, moldatze edo egokitzapen horretan arazoak agertzen ari dira konkurtsoetara aurkeztu beharra onartzea kostatzen zaien elkarteetan aldetik, honek egitura enpresarialagoak hartzea eta zerbitzu profesionalagoak eskaintzea eskatzen baitie:

“ Osea, yo creo que la tendencia legal, básicamente por la presión del capital, es que los convenios y los conciertos desaparezcan y salga todo a concurso. Y en un concurso, el tercer sector que tú llevas no tiene nada que hacer (...) Cada vez hay menos concertado, cada vez hay más de concurso público y en el concurso público el tercer sector va desapareciendo” (C3)

“Pero es verdad que todas estas entidades cuando hay algún concurso por ejemplo porque muchas veces cuando digamos prestan un servicio en un local que es de diputación, tenemos que sacar necesariamente a concurso, no podemos decir que lo haga uno u otro, se resisten a tener que concurrir, se resisten!” (A3)

“Y yo creo que se están adaptando, porque hay entidades que en la vida se hubieran planteado hace una década presentarse a concursos y que ahora lo hacen con total normalidad, sabiendo que hay una valoración donde se valora más el pliego técnico.(...) Es verdad, no es mayoritario, pero bueno, hace una década yo creo que hubiera sido impensable, y ahora lo es” (A2)

Eta bigarren arazo bat aldaketa hori ematerik lortzen ez dutenen artean gerta liteke, hau da, erantzukizun publikoko zerbitzurik ematen ez duten boluntario elkarteetan etorkizuna da zalantzan egon litekeena, gizarte-zerbitzuen sistemak, bere heldutze prozesuan finantziobide egonkorragoetara joz gero, diru-laguntzen partidak mehetzen joatea baita logikoena.

“Esa es una de las preocupaciones de las organizaciones ahora, que la necesidad de destinar recursos a la consolidación del sistema de responsabilidad pública no deje en mantillas la partida de subvenciones. Es un tema complicado y más en tiempo de crisis. Hay que tener en cuenta que muchas organizaciones no prestan servicios del catálogo, muchísimas, más de lo que parece” (C1)

Diru-laguntzen ahultze hori, beraz, bestelako bide berriak urratzen hastetik joan beharko da konpentsatzen:

“Orduan ze pasako da beste responsabilidad pública ez dan beste hainbeste zerbitzu oso beharrezkoak zirenekin, ez? Gainera asko daudela eta oso beharrezkoak direla, ez? (...) Baina hor subentzioen kontuan bi gauza hartu behar dira kontuan: egiten den guztia ez da subentzionagarria, (...) hor alde horretatik erakundeen aldetik aldaketa kultural bat egon behar da, eta bigarren aldaketa kulturala da subentzioak ematerako orduan hor enpresak eta kajak hor badaukatela...administrazioak nahikoa dauka ya nik uste det bere responsabilitatea diren zerbitzuak finantzatzen” (C2)

Inkesta bidez lorturiko emaitzen analisiak, ordea, unibertso mugatu baten gainean eginikoak izanda ere, finantzabide berri horietan oraindik egiteko bide asko dagoela ondorioztatu behar litzateke, gizarte-ekonomiako erakundeek lankidetzaz gehien erakunde publikoekin izaten dutela erantzun baitute, bai zerbitzuen kontratazioan eta baita diru-laguntzen alorrean ere. Aldiz, 6 erakundek baino ez dute baieztatu enpresaren baten zerbitzua kontratatu izana eta 5 erakundek baino ez aurrezki kutxen diru-laguntzak jaso izana.

7.4.4 Parte hartze instituzionalerako organoak eta gizarte-ekonomiaren parte hartze maila

Gizarte-ekonomia eta herri-erakundeen harremanean azter litekeen azken esparru bat politika publikoen diseinu eta ezarpenerako mekanismo parte hartzaileen existentzia da. Organo horiek Euskadi mailakoak eta Gipuzkoaren esparrukoak dira, nagusiki Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua eta Elkarrizketa Zibilerako Mahaia, Eusko Jaurlaritzaren esparruan eta Pertsona Nagusien Kontseilua, Gipuzkoako Foru Aldundian.

Atal honetan aztertu nahi izan da, alde batetik, ea gizarte-ekonomiako erakundeek parte hartzen duten aipaturiko organo horietan; beste alde batetik, ze motatako balorazioa egiten duten organo horiez, eta oro har, parte hartze honek zein mailatakoa eta intentsitatekoa behar lukeen, azkenik.

Lehen puntuari dagokionez, inkesten emaitzetatik eratorritzen da gizarte-ekonomiako erakundeen erdiek baino gutxiagok (%45) hartu izan dutela parte behin edo behin

Pertsona Nagusien Kontseiluan. Parte hartzerik handiena zerbitzu hornitzaileak ez diren boluntario elkarteena da, egoitzen kudeatzaileen artean erdiek aitortu dute parte hartu izana eta etxez etxeko laguntzan diharduteneko inork ez du parterik hartu.

Parte hartzea bideratzeko organo egonkorrez gain, erakundeei galdetu zaie ea parte hartu ohi duten bestelako behin behineko foroetan, esaterako Gizpuzkoako Foru Aldundiak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema Gipuzkoan nola garatu aztertzeko 2008-2010 urteen artean antolaturiko Hausnarketa Prozesuan. Aipaturiko prozesuan, inkestaturiko erakundeen erdiek baino ez zuten parte hartu, eta maila kontsultibo batean 7k baino ez, horien artean leudekelarik sektorea osatzen duten familia ezberdinetako erakunde handienak (Matia eta GSR zentroen kudeatzaileen artean eta Gurutze Gorria eta Nagusilan boluntario elkarten artean, nagusienak aipatzearren).

Bi horien inguruko balorazioa eskatuta, iritzia nahiko banaturik daudela esan behar: herena pasatxok (%38) uste du politika publikoetan eragiteko ahalmen garrantzitsua duten organoak direla, beste heren batek gaitasun mugatua aitortzen die, eta beste heren batek kasik, edo ez du baloraziorik edo ez ditu ezagutzen.

Elkarrizketatuen artean ere iritzia mota guztietakoak dira. Lehenik eta behin, organo horiek izan beharreko funtzioen definizioa zehaztu behar litzateke ondo, zein puntura arte izan behar diren erabakitze-organok ala kontsulta eta informazio-trukaketarako organoak.

“Yo formo parte del consejo de personas mayores y tal, pero formé en un momento en el cual había que montarlo, y entonces había que decidir cual era por una parte los objetivos, pero por otra parte las limitaciones no? porque aquello no podía ser tampoco una especie de Juntas Generales vis, no?” (A4)

Erabakitze organoak baino, kontsultarakoak behar luketela iritzi dute foru mailako arduradunek, erabakitzeko azken gaitasunak langile publikoarengan edo herritarren ordezkariengan behar lukeela defendatuz:

“Pues yo creo que es el hecho de que cuando tú tomas decisiones, o cuando estás a punto de tomarlas, las tienes que explicar, osea eso no vale con tomarlas, claro...lo más importantes es

tomarlas, no? Porque si no las tomas mal, pero, sí sí, tienen que ser de carácter consultivo pero realmente escuchando, porque hay veces que uno va suelta su speech digan lo que digan quien está allí, no?” (A3)

Izaera informatibotik kontsultibora pasatzeko ordea, herri-erakundeen aldetik gizarte-eragileen eskaerak kontuan hartzeko borondatea agertu behar da:

“...y a veces también a la inversa, para digamos llegar a conocer determinadas demandas que si no, no llegan, que eso también tiene esa parte, no tanto de rebatir documentos de digamos de diputación, sino que poner encima de la mesa determinadas demandas que igual el departamento no las ha valorado, o no las ha estimado necesarias y de repente se plantean incluso más a nivel casi a local, no?” (A4)

Jakina, hemen eztabaida esparru oso zabal eta mamitsu batean sartuko ginateke, herritarren parte hartzerako mekanismoen ingurukoa edo egungo organo ordezkagarrien funtzioen ingurukoa, eta ez da hori doktorego-tesi honen xedea. Soilik aipatua utzi nahi genuke eztabaida horretan jarrera ideologiko ezberdinak existitzen direla, eta alde batetik, egungo herri-erakundeek herritarren ordezkotza behar bezala betetzen ez dutela uste dutenak daude, eta beste muturrean, parte hartzearen halako mitifikazio bat salatzen dutenak ere badira:

“A día de hoy existen canales de información, que no de participación. Entonces, nosotros sí que queremos que esos canales de información se transformen en canales de participación. (...) Eso hay que regularizarlo, los Consejos Sectoriales [Pertsona Nagusien Kontseilu Sektorialak] son un buen órgano y que yo creo que tienen mucho que aportar. Es verdad que la última decisión depende de la administración. Siempre y en todo caso. Pero bueno, yo creo que tienen mucho que aportar y que tienen que ser no sólo escuchados sino que tienen que participar del diseño de esas políticas, porque seguramente también están a pie de campo” (A2)

“Hala ere nik orokorrean hartuta hirugarren sektorearen parte hartzea nik esango nuke administrazioan Euskadin alde batetik jarri direla medioak, dextente, eta de hecho nik esango nuke (...) gehiegi ere ematen zaiela, hasteko gu ere hirugarren sektorea izanik. Osea hemen nik uste det parte hartzearen mitifikazio ba dagoela eta del “*bottom up*” y tal, hemen erabakiak hartu behar ditu administrazioak, eta administrazioak hitz egin behar du batzuekin, hitz egin behar du besteekin, kontutan hartu baina, politika erabakiak hartu behar dituzte politikoeak eta teknikoek” (C2)

Hirugarren sektorea herritarren parte hartzerako mekanismo egoki gisa jo eta gobernantza eredu berrien aldeko jarrera dutenen artean ere, herri-erakundeekiko harremanean bi plano ezberdindu beharra nabarmentzen dute, bata teknikoa, zerbitzuen hornitzaile diren erakundeekin eta bestea politikoa, oro har bestelako gizarte-eragile guztiekin:

“...pero son órganos consultivos de los que se dota la administración para que le asesore el desarrollo de sus propias funciones. Otra cosa es hacer evolucionar eso hacia un nuevo modelo de gobernanza y tal y decir pues bueno ahora se está trabajando bastante desde el paradigma del Diálogo Civil (...) está en el ámbito de discapacidad y lo que consagra es la potestad de las propias organizaciones de sociedad civil organizada para que representen a las propias personas afectadas en ese ámbito, eh? (...) Ahora lo que va a suponer eso también es diferenciar distintos planos. En el ámbito de la prestación de servicios de responsabilidad pública el marco de relaciones es éste, tenemos que tener un diálogo de tipo técnico para gestionar conjuntamente los servicios y eso que significa, y otra cosa es como yo, entidad que estoy prestando servicios de responsabilidad pública y que igual el 80% de mi presupuesto depende de la administración, cómo al mismo tiempo mantengo otra interlocución con la administración en una mesa en la que estamos hablando de políticas en general en materia de discapacidad, desde un punto de vista transversal de servicios sociales, o promoción de derechos o denuncia de la propia AA.PP que igual no está desarrollando lo que tenía comprometido y como ejercer las funciones ¿no?” (C1)

Bestetzkuk ordea, hirugarren sektoreari dagokiona baino pisu handiagoa ematen zaiola uste dute, halako moduz ezen, ia erakunde publikoak desplazatzeraino iristen baitira:

“Eh, zer behar degu administrazioan, bi lerro nagusi definitu ta beraien eskutan utzi diskapazidadea? Ala, beste zeoze...osea, ardura norena da? ba administrazioarena. Eta diskapazidadean entitate potenteak ditugulako diskapazitatuak egon behar dute ba ez dakit beste afektatu batzuk baino hobeto atendituak? Ze bere erakunde hoiek kapazidade ikaragarria daukate baina administrazioaren betebeharra beste bat da” (A5)

“Es más el Gobierno Vasco, en este caso, a la hora de desarrollar toda esa normativa está poniendo casi casi en igualdad de condiciones en cuanto a su diálogo a lo que son el resto de administraciones públicas, diputaciones y ayuntamientos, como lo que es el tercer sector. Yo entiendo que es desproporcionado. Es más yo creo que lo está utilizando muchas veces como contrapeso o como un forma indirecta de poder tener un aliado frente a las diputaciones, no? Porque todo esto, cuando se ponga en marcha, quien lo va a gestionar siempre van a ser las diputaciones, entonces me parece que es desleal el tener que plantear cuestiones hablando con un tercero y luego tú [Foru Aldundia] que tengas que prestar allí, hacer determinadas cuestiones en

las cuales no has podido intervenir o tienes que intervenir en lo contrario que es tu opinión o tu forma de actuar, no?” (A3)

Erreferentzia egiten ari garen eztabaida hauek guztiak, ordea, nabarmenago eragiten diete desgaitasunaren alorrari pertsona nagusien alorrari baino, esan dugun bezala, bigarren alor honetan elkartegintzaren indarra ez baita halakoa, ez zerbitzuen horniduran baina are gutxiago lobby modura. Orokorrean, aztergai dugun esparruan parte hartzen duten eragileen aldetik balorazio positiboa jaso dugu egun planteaturiko parte hartze mekanismoen inguruan:

“Yo creo que sí, que los agentes que están tomando parte en este análisis en esta discusión y en este...yo creo que se está contando, concretamente en Gipuzkoa, con todos los agentes del sector” (B3)

“Bai, bai, nik egingo nuke positiboa, cien por cien ez baina ez dakit, eh...batetik hamarrea nik non jarriko nuke, sei baino behera ez behintzat, eh? Gure etxian bizitze horrek ia sortu du Eusko Jaurlaritzan ia partida guztiyak onartu due hori lege bat sortu bihar duela horren bueltan, eta ai dia. (...) Diputaziyuan ere ze esango nizuke, hauek azaldu duen sensibilidadia lehen ere pixkat aitatu dizut nola aldaketa hauek eta ein dian oseake sensibilidade hori badauka. Prest daude eta ein ditue gauzak. Guk eskatzen genduzen bi o hiru gauzak zien transporte mailan, ba ein ditue, danak ez, ai dia. (...) Beste holako gai garrantzitsua ekilibrio territoriala, ikusi due hori re garbi gure apoyuakin da ai dia residentziak iten hutsuniak zebe tokian, eta horrekin e bastante ekilibrauta geatzen da asuntua. Ley de la dependencia ai dia desarrollatzen, intachable. Izugarritzko problema da hori, eh? Ta hori ai dia iten oso ondo. Eh...residentziko esperak o zeak, hori ere moztuta dauke oseake gauza asko ein dia gure bultzazua? Bueno, beak e ikusten due eta gaintikan gure bultzazua baldin badake ba nik uste det guk ezteula inbento berrikan eramaten, baizikan pixkat bultzazua iten deu guk eta, zer lortzen deu gure zeakin? Ba usten det pixka bat azeleratzia, besteik ez” (B2)

Bi aipu horiek hirugarren sektoreko bi erakunde ordezkagarrienak dira, baita handienak ere, lehena zerbitzuen hornikuntza eta bigarrena boluntariotza mailan, eta ikusten denez, balorazioa oro har, baikorra da. Are eta balorazio baikoragoak aurkitu ditugu, halaber, kooperatiben mundutik, herri-erakundeen aldetik interes oso argi bat azaltzen ari direla baieztatzen baitute, mundu kooperatiboak etorkizuneko gizarte-zerbitzuen sarean parte hartze esanguratsuagoa izan dezan.

“...Baina guzti honetan gu nahiko komodo sentitzen gea eta gainea deituak izaten gea, ta nik ustet gero eta deituago gainea. (...) Ta gainea beste arrazoi bateatik, ta da mundu kooperatiboak konfliktibitate laborala gutxitu egiten du ez? Pribatuarekiko behintzat, ez? eta ordun hori ere balore bat da, ez? administrazioarentzat konfliktibitate laborala gutxituko duen talde bat sartzen bada beti garantia da” (B7)

“Karo, honek dauke abantaila bat eta da bertan lanian dauden pertsonak baldin badia kooperatibistak orduan sortzen da arlo oso zaila eta da eskakizunarena, osea, lan baldintzarena. Zergatik esaten det hori? ba, sektore honetan gaur egun ez dagi ia makinarik pixkat erabiltzeko, (...) hori gaur egun ondio eskuz egiten degu, (...) orduan daude pertsonak pertsonak atenditzeko, pertsona horiek dauke ba bueno bere eskubideak baina batzutan be bai ba...netako gehiegi eskatzen dute, eh ta karo, hori ikusitxa, mundo kooperatibotikan datoztenak hoiek baldin badira sozioak ez dute horrenbeste eskatzen. (...) Hori honerako abantaila da” (B4)

“...han hecho todo lo posible para que la Corporación entrara en el sector, nos apoyaron la diputación de Gipuzkoa en concreto para que sacáramos la residencia de Aretxabaleta con subvención, con esto con otro pero, básicamente para que la Corporación entrara en ese sector. Porque estaba muy basado en que la gestión estaba en asociaciones, sin ánimos de lucro y tal y cual, y sin irse a lo mercantil, pues querían ir a algo que tuviera digamos,...Porque aquí muchas veces los concursos son a 40 años, concesiones administrativas a 40 años, entonces esto quiere decir que no vamos a estar como persona nosotros, pero si sería bueno que la institución siguiera. Y entonces una corporación como la de Mondragón da confianza en que ese tema va a tener estabilidad” (B5)

Sinpatia hori herri-erakundeen ordezkari batzuen aldetik ere agerian geratu da:

“desde luego que al menos este departamento por varios lados a mostrado esa disposición y esa visión favorable.(...)” (A1)

“...yo creo que una cosa que es a favor de las cooperativas es que digamos desde el punto de vista filosófico ellos están por el trabajo y por el trabajo local, y muchas veces además por el trabajo local de mujeres, no? que es justamente el yacimiento de empleo que nosotros tenemos. Entonces, digamos objetivamente que tenemos muchas cosas en común no?” (A3)

“...pero dan mucha garantía, eh? osea si entran, dices jode, se lo han mirado bien, no entran a la ligera...” (A4)

7.4. atalean landuriko ideia nagusien laburpena:

- Desgaitasunaren aldean pertsona nagusien sektorean esangura apalagoa izan duen arren, gizarte-ekonomia ongizate-estatuaren aurrekari argia da, areago gizarte-zerbitzuen sortzaile badela ere esan liteke. Bestalde, zerbitzu publikoen hedapenarekin ez du desagertzera jo, denboran mantendu egin da egoera berrietara egokituz, eta egokitu beharra izango du aurrerantzean ere.
- Herri-erakundeetatik hirugarren sektorearen alde ezarritako diskriminazio positiboko neurrien aferak eztabaida bizia pizten du. Mozkin ez besteko erakundeen artean balorazio positiboa egiten da oro har, neurri handiagoan zerbitzu hornitzaileen aldetik boluntario elkarten aldetik baino. Kooperatiben aldetik, berriz, aurkakotasuna agerikoa da.
- Adituen artean diskriminazio positiboa defendatzen dutenek erakunde horien gizarte-balio erantsia nabarmentzen dute, mozkin asmorik gabeko izateak zenbait bereizgarri ematen baitizkie: lurraldean txertatuago egotea, zerbitzuak merkeago eskaintzea, gardentasuna kudeaketan, permanentzia denboran, gertutasuna zerbitzuan eta abar.
- Adituen artean zalantzak dituztenak ere asko dira: mozkin ez bestekotasuna baina ezaugarri garrantzitsuagoak azpimarratzen dituzte batzuek (zerbitzuaren kalitatea, lan baldintzak, enpresa-egitura kaudimendunak izatea, langileen parte hartzea), beste batzuen iritzian ez da beharrezkoa halako diskriminazio gehigarrik ezartzea, eta azken batzuek uste dute ez dela diskriminazio hori praktikara sekula eramango.
- Adituen artean kontra daudenen iritziz, neurri horiek hirugarren sektoreko figura juridikoen erabilpen makurra egiteko bidea zabaldu besterik ez dute egiten.
- Finantzazio mekanismoei dagokienean, diru laguntzen sistematik ituntze formuletara igarotzearen inguruko adostasun zabala ageri da: herri-erakundeei kontrol handiagoa emateaz gain, gizarte-ekonomiari egonkortasun handiagoa ematen dio. Zalantzak ageri dira, ordea, diru laguntzekiko oso menpekoak diren elkarten etorkizunaren inguruan.
- Parte hartze instituzionalaren aferari dagokionean, oro har gizarte-ekonomiako erakundeek parte hartze altua dutela ikusi da, komunikaziorako kanal formal eta informalak existitzen direlako horretarako eta interesa dagoelako bi aldean partetik. Eztabaida ordea, parte hartze horren nolakoaren inguruan ageri da: batzuen iritzian egungoak ez dira erakunde parte hartzaileak, kontsultiboak baizik; beste batzuen iritzian desproporzionatua da gizarte-ekonomiari ematen zaion erabaki edo eragiteko ahalmena.

7.5 Landa lanaren emaitzak (IV): gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren etorkizuneko eredia eztabaidagai: gizarte-ekonomiaren tokia

Doktorego tesi honetan, gaur gaurkoz gizarte-ekonomiaren konposaketa aztertu eta honek herri-erakundeekin dituen harremanak moduen analisia egiteaz batera, prospekzio ariketa txiki bat egin nahi izan da, analisi orokorrari itxiera emateko.

Oro har, epe laburrera egikaritzen ari den Euskadiko gizarte-zerbitzuen sistemak nolakoa behar duen jarri da mahai gainean eztabaidagai, eztabaida alderdi teknikoetatik baino ikuspegi ideologiko batetik planteatu nahi izan delarik. Honela, sistema honek titulartasunaren ikuspegitik zer nolako orekak bilatu behar dituen galdegin da, doktorego tesi honetan ezberdindu diren lau gizarte-egitura nagusien (estatua, merkatua, familia, komunitatea) arteko oreka desiragarria zein litzatekeen ebazte aldera.

Eztabaida hau nolabait antolatzeko, hiru atal nagusi bereizi dira: lehen gure abiapuntuari dagokiona, hots, egungo errealitatean zein (des)orekatik abiatzen garen aztertu nahi izan da, Gipuzkoako ongizate-erregimenaren analisia egitea proposatuz elkarrizketatuei; bigarrenik, azken urtetan martxan jarritako lege nagusien inguruko analisia eskatu da, lege horiek zein norantzetan eragin duten aztertu nahi eta; azkenik, ereduak zein norantzetara jo behar lukeen galdetu zaio elkarrizketatu bakoitzari, nork bere ideologiatik defendatuko lukeen sistema idealaren erreferentzia aztertuz eta besteekin kontrastatuz. Hiru atal horietan, noski, arreta berezia jarri zaio oreka horietan gizarte-ekonomiak jokatu beharreko paperari.

7.5.1 Gipuzkoako ongizate-erregimena aztergai: lau gizarte-egituren egungo konposaketa

Gipuzkoan nagusi den gizate-erregimenaren analisia burutzeko, doktorego-tesi honetan landu ditugun Europako erregimenak erreferentziatzat hartuz, adituen iritzian gure kokapena modu honetan definituko litzateke:

“...egia da hau ikertu dutenak onartzen dutela ba Euskadi mailan badagoela, gainera Nafarroarekin konpartitzen duguna, badagoela erregimen berezi bat. Orduan, Europako erregimenekin hori ya kokatuz? Ba desde luego nik esango nuke badaukagula erregimen propio

bat, eta segurasko ditugula beste erregimenetatik gauza batzuk, bueno erregimen guztiak bezala edo herrialde guztiak bezala, ez? Ez direla exactamente batekoak baizik eta dauzkatela ezaugarriak batekoak eta bestekoak.

Gu desde luego argi dagoena da, bueno nik uste det existitzen dela modelo mediterranean bat, laugarren modelo bat, sin duda, eta gu ez geala modelo hortakoak, ez Gipuzkoan eta ez Euskadin orokorrean. Ez gea modelo nordikoa baina modelo nordikotik baditugu gauzak, eta hartzen ari gera gauzak. Ez gea... modelo zentroeuroparra edo korporatista, baina hortatik ba asko daukagu, seguritate sozialak eta sistema kontributiboak horrenbeste pisu daukan neurrian, eh, ba, badaukagu modelo horren parte bat ez? (...) ez gea atera modelo mediterraneotik ere guztiz, ez gea hortakoak baina baditugu ezaugarri asko, (...) ze kulturalki eta familiak daukan pisua eta abar eta abar mediterranea da gurea, eta soziologia aldetik, ez? (...)

...hirugarren sektorea bai, bai, nik ustet hori bai dela beste ezaugarri inportante bat, gure ezaugarri garrantzitsuenetako bat, eta hori modelo korporatista horren parte bat den neurrian, ba hurbiltzen gaitu Alemaniako modelora, adibidez, argi eta garbi. (...) Gainera gure lekua incluso geografikoki nahiko gurutze zea danez, ba geografikoki hor erdi eh bidegurutze batean gaude, eta maila honetan ere bidegurutze batean gaude. Orduan ba gu nordikotatik pixka bat hartzen hasi gea, eh unibertsaltasuna, eh eskubide subjektiboak, ez? hortik ere hasten ari gara edukitzen ezaugarri batzuk. (...) Estatu mailatik datorkigun araudi guztia, eh, desenpleguko eta pentsiokoa batez ere ba oso korporatista da, hori ere egia da. Egia da hemen apustu bat egin dala eta hori da nordikoen apustu bat estatuaren interbentzioaren aldeko apustu bat egin dala. (...) Igual urrutiena agian egia da modelo liberala, nik uste dut baietz, bueno modelo liberaletik eukiko genuke selektibitate pixka bat, baina ez gehiegi, (...) baina bueno nik uste det modelo hori ez dala gure tradizioan egon eta gero bilakaera politikoa ez doala horruntz, ez? (...) nordikoetaruntz joan gara maila batean, nik ustet, mediterraneotatik ez gea guztiz aldendu, eta askotan gure leku naturala izango litzateke ba hori zentroeuroparra, Alemania, Frantzia.” (C2)

Pertsona honen irudiko beraz, bidegurutze batean geundeke: kulturalki eta soziologikoki mediterraneanak gara oraindik, batik bat familiak duen garrantziagatik baina baita presio fiskal apalago bategatik ere, besteak beste; instituzionalki eredu korporatistako elementu asko daukagu, hirugarren sektore indartsu bat edo gizarte-segurantzako sistema kontributiboa, esaterako; baina apustua, etorkizuneko apustua, herrialde nordikoetako erferentzia sozialdemokrotan dago, eskubideen unibertsaltasuna eta estatuaren esku hartze handiagoa ipar harturik.

Beste aditu honen arabera, gure erregimenak ezaugarri propioak izanagatik ere, erregimen ezberdinetako elementuen nahasketa bat agertuko da, eta hiru elementuk egingo dute bereizgarri: sektore publikoaren hedapen berantiarrak, familiaren parte hartze handiak eta hirugarren sektorearen pisu esanguratsuak:

“Yo sí que creo que hay, o veo más claramente la diferencia de cuatro regímenes y ciertamente pues en ese sentido el caso español forma parte de un modelo de estado de bienestar tardío, donde el papel de la familia pues es mucho más preponderante que en otros, ¿no? (...) hombre pues yo diría que, dentro de lo que puede ser el ámbito español, pues no cabe duda de que el País Vasco y Gipuzkoa particularmente constituye un modelo más avanzado, más desarrollado de estado de bienestar y especialmente en el ámbito de los servicios sociales, y que, en ese sentido, pues sí es verdad que las características sociológicas o culturales del País Vasco pues han dado también un protagonismo del tercer sector en algunos servicios. Precisamente en el que tú más estudias de las personas mayores, menos” (A1)

Orain arte eginiko argazki orokorretatik ondorioztatzen denez, adostasun zabala dago familiak oraindik orain ongizate-zerbitzuetan, eta gizarte-zerbitzuetan oso bereziki, hartzen duen nagusitasunezko paperaren inguruan. Errealitate honek sustrai sakonak ditu, genero, arraza eta adin aldagaiak barneratuz identifikatzen ahalegindu gaitzkeenak:

“Hombre nik esango nuke hor ideologia bat dagoela. Osea ideologia bat da, oso naturalizatuta daukagu emakumeen lan hori, emakumeok eh, orokorrean, eh? baina bueno joera da hezitzen gaituztela bestei begira egoteko, eta orduan, eh, ba, ardura gurea da. Klaro, hori dena den, gurutzatu behar da adinarekin, ze ez dira edozeintzuk, dira emakume helduek, eh? zaintzen dutenak. Orduan, bakarrik generoarekin ez duzu ondo ulertzen zer gertatzen dan. Osea hor uztartu behar da genero, klase, eta adina, ze orokorrean dira emakume pobreak, behintzat lanak egiten dituztenak, hor bebai dena den pentsa liteke ardura ere, edozein emakumek daukala ardura, eh? Baina gero, lan egin behar, hor egotea, gehiago egiten dute emakume pobreek. (...) Gero, klaro, hori gehi merkatua. Emakumeak klaro merkatuan gutxiago daude, eh, zera, arduraldi erdiko enpleguetan egoten dira, orduan klaro libreago zaude, eh, langabezia, osea, nik usteot biak direla, batetik ideologia bat ba horretara eramaten zaituena eta bestetik zu zaudela libreago nolabait prestage lan hoiek egiteko, ezta?” (C4)

Beste azalpen honen bitartez ere argi ikusten da zaintza lanak hornitzeko lehen baliabidea familia izan ohi dela, eta soilik horrek huts egiten duenean (*family failure*) jotzen duela jendeak baliabide publikoetara:

“se aguanta, se aguanta, se aguanta, [sendian zainduz] porque nos parece que es la mejor de las soluciones o porque te parece que no debes de hacer ciertas cosas, cuando ya haces crack! Es cuando dices: a tomar por saco, rápidamente que me den una plaza” (A4)

Familiaren nagusitasunak, beraz, ez du eztabaida handiegirik onartzen, 4. atalean ikusi dugun moduan, datu objektiboak ere errealitate gordin horren erakusle baitira.

Zalantza handiagoak sortzen ditu, ordea, gizarte-zerbitzuen sistemaren publikotasunak, ongizate-estatu berantiar baten oinordeko izanik ere, Gipuzkoa mailan estaldura publikoa nahiko zabala dela defendatzen dutenak bat baino gehiago baitira:

“...yo en este momento si tuviera que decantarme por los tres modelos que decías, el público, el privado o el informal yo diría que está por el peso de las prestaciones claramente decantándose por el público, porque es verdad que en gran parte de las familias que atienden a personas dependientes las atienden en casa, pero también es verdad que reciben una prestación económica y muchas de ellas además porque son compatible reciben servicios de ayuda a domicilio, o incluso van al centro de día. Con lo cual, ¿público? Pues yo creo que sí, a través de las prestaciones sin duda alguna” (A3)

“Es mixto. (...) Es decir no hay un claro vencedor entre los tres sectores [estatua, merkatua, familia] yo creo que los datos sí apuntan a eso (...) Es verdad que tenemos unos agentes del mercado bastante potentes en Gipuzkoa pero claro, bajo responsabilidad pública. Es decir, no compiten con la administración pública, sino están bajo responsabilidad pública, contratan para la administración. Tienes un tercer sector sin ánimo de lucro con una relevancia muy importante en Gipuzkoa, sobre todo en el campo de la discapacidad, (...) y sí que hemos visto en los últimos años un incremento de las tres (...) sea por reconocimiento a través de la ley de la dependencia, bien sea porque la administración pública ha ido creando más servicios, bien sea porque la iniciativa privada también ha crecido al albur de las decisiones que ha tomado la administración de incremento del gasto social” (A2)

Orain arte aipaturiko diagnostikoetatik, pertsona nagusien esparruko eredu gipuzkoarraren argazkirik osatuena egiteko honako aldagaiak nabarmenduko lirateke, beraz: lehenik esparru informalak izaten jarraitzen duen garrantzia eta bigarrenik hedadura publiko garrantzitsu bat, nagusiki, prestazioen bidez esparru informal hori diruz laguntzera bideratu dena, baina baita zerbitzu berrien kontsolidazio bidez ekimen pribatuaren parte hartzea erakartzen joan dena. Familia eta estatuaz aparte beraz, irudi luke esparru pribatuak oro har, eta gizarte-ekonomiak konkretuki, pertsona nagusien esparruan nahiko garrantzia apala leukakeela konfigurazio instituzional honetan:

“ En este momento privado, sin la subvención o sin las plazas concertadas con la administración podemos contar con los dedos de una mano, pero con un dedo igual y nos sobra, eh?” (A3)

Titulartasunetik harago, hau da, zerbitzua noren jabetzakoa den aztertzeaz harago, sistemaren publikotasuna sektore publikoaren benetako irismenaren arabera neurtu behar litzatekeela ondorioztatzen dugu, hortaz, sektore publikoak darabilzkien lanabes ezberdinak kontuan hartuz: prestazio publikoak, zerbitzu publikoak eta zentro pribatuetao plazen ituntze politikak.

7.5.2 Berrikuntza normatiboen norantza: Mendekotasun legearen eta Gizarte Zerbitzuen Euskadiko legearen analisia

Abiapuntuko oinarria aipaturiko hori izanik, interesgarria iruditu zaigu azken urteetako berrikuntza normatiboez zein norabidetan eragin nahi izan duten aztertzea, orain arteko ereduak sakontzea edo hori aldatzen joatea bilatu duten begiratzea, hain zuzen ere. Aipaturiko berrikuntza normatibo horiekin artean, gerturapen teorikoan egin bezalaxe, Espainiako 39/2006 “Mendekotasun Legea” eta Euskadiko “12/2008 Gizarte Zerbitzuen Legea” hartu ditugu erreferentzia nagusitzat.

Bi lege horien izpirituak norabide berean eragin nahi du batzuren ustetan:

“ Nik uste det lege mailan, Dependentsia legea eta Gizarte Zerbitzuen legearen artean ez dagoela kontraesanik, zentzu horretan bi legeak dira nahiko...incluso esango nuke nordikoak, ze zentroeuroparekin eduki duten desberdintasun handi bat, Dependentsia legea, ta hortan nahiko nordikoa da, ez duela sortu finantzatzeko seguru bat, ez? edo finantzatzeko bide berezi bat (...) nik uste det, unibertsaltasuna, eskubide batzuk garantizatu, apustu teoriko bat gainera zerbitzuen alde, oseake hor ez dago kontraesanik.”(C2)

Bi legeek hortaz, eskubideen unibertsaltasunaren ikuspegitik, finantzaziobideen analisitik, eta zerbitzuen aldeko lehentasunagatik (diru prestazioen aldean), eredu nordikorantz joatea bilatuko lukete. Jakina, bat da legeak dioena, eta oso bestelakoa, benetako aplikazioa. Gizarte-zerbitzuen legearen inguruan eztabaida apalagoa da, bereziki gaur gaurkoz oraindik ez duela garapen handiegirik izan:

“De hecho a la ley de servicios sociales le puedes poner muchos peros porque no se ha puesto en práctica. (...) Ese decreto [zerbitzuen kartera eta katalogoa zehaztuko duen dekretua] no verá nunca la luz, no, no porque no hay financiación, y ese es el problema. (...) Que no tenía un acompañamiento económico, no tenía memoria económica, y así seguimos pues cuatro años después. (...)” (A2)

“...guk jarri nahi izan degu zerbitzu sare berri bat baina ez diogu finantzaziorik eman. Ez genuen presio fiskal nahiko, eta gainea ez degu nahi kotizazio eta zerga berriak jartzea, ez? Ordun hor nahiko orijinalak izan gea, ez? Horrela joan zaigu joan zaigun moduan“ (C2)

Garapen maila ezberdina izan du, ordea, Mendekotasun Legeak, eta honen aplikazioak gizarte-eztabaida mamitsua jarri du mahai gainean, ez bakarrik testuan zioenaren kontra, prestazioak garatu dituelako zerbitzu publikoen oso gaintetik, baizik eta politika publikoen eite horrek orain arteko ereduan sakontzea ekarri duelako zenbaiten iritziz, bilatu asmo zen eredu aldaketa oztopatuz:

“Por ejemplo la ley de atención a la dependencia en teoría sí que toma partido por uno de los modelos, y dice: yo primo el modelo de los servicios frente a prestaciones, pero claro, luego en la práctica dices, he universalizado el acceso a la prestación pero no al servicio. Por lo tanto la teoría es una pero la práctica ha sido la contraria” (A2)

“ en realidad con la ley de dependencia es un sistema que ha venido bien para aflorar justamente la demanda, porque hasta ahora la demanda era una lista de espera en un servicio, pero claro esto con el ambientillo que le da las ayudas económicas (...) realmente si tú eres susceptible de cobrar eso (...) alguien se habrá movido para que tú tengas derecho a cobrar eso. (...) bueno esto tiene su ventaja pero obviamente después salen otras preguntas, no? ¿ya y cómo se atiende? Segundo, ¿realmente toda esa gente tiene un contrato de trabajo?” (A4)

“...con la ley de la dependencia están volviendo a los años del 86, ¿sabes por qué? Están dando prestaciones económicas y la gente tiene que contratar a una persona y eso es un descontrol, eso es lo que pasaba al principio.“ (B1)

“ Horrek ze ekarri du? Ekarri duna da ba pikareska handia. (...) Ba horrek negozioa estandarizatuta dauden enpresak txikitzen ai da, batez ere dependentzi legeak kalte handiena egiten du ez teleasistencia eta ez residentzi munduan, kalte handiena egiten du etxez etxeko atentzioan. Eta zeaitikan? Ba probokatzen duelako zuzen zuzenean jendeak diru iturri bat lortzen ba familiarra zaintzeko eta askotan edo zaintzen du, ez du zaintzen edo subkontratatzan du bere zaintza, ez?” (B7)

Gizarte-ekonomiako eragileei dagokienean, beraz, diru-prestazioen bideak zerbitzu formalen eskaera uzkurtzea ekarri du eta asko kaltetu ditu, zentzu horretan, sektorean indartzen joateko enpresa pribatu hauen igurikapenak. Herri-erakundeen ikuspegitik, berriz, prestazio publikoen bidea jende gehiagoren premietara iristeko bide errazago eta merkeagoa izan den arren, emaniko azken zerbitzuaren kalitatearen kontrol galera ekarri du. .

Legearen ezarpen kontraesankor honek sakoneko eztabaida oso mamitsuak gordetzen ditu. Alde batetik, eztabaida (itxuraz) teknikoago bat legoke, gizarte-zerbitzuen sistemaren ezarpenerako, prestazioen bidean sakontzeak dakartzan ondorioen inguruan. Baina bada bigarren eztabaida maila bat, kasik kulturalagoa dena, jende askok uste baitu mendekotasun legearen garapen honek berez Gipuzkoan existitzen den preferentzia kultural bati erantzuten diola, hots, pertsona nagusiek nahiago izatea bere etxean eta senideen aldetik zainduak izatea, bere premiak etxetik edo ingurunetik kanpoko zerbitzu publikoen bidez estaltzea baino.

“Gure objetibua da, oaingoz behintzat garbi dakau guk adineko jendiak ze eskatzen dun eta ze nahi dun eta da etxian eotia, ahal dan luzeena, ahal dezun arte, eh? Ezertako gauza etzeanean ordun ba residentzira ba ez dakit baztertzea, hiltzera ezta? Garbi esanda ezta?” (B2)

Bereizketa egin behar litzateke, ordea, etxean zaindua izatea eta etxean inolako kanpo laguntzarik gabe zaindua izateran artean:

“Y además ya se han hecho reflexiones en todos los ámbitos, social, sanitario, comunitario... ahí claramente se ve que hay unanimidad de criterio a todos los niveles y por tanto hay unas estrategias compartidas para intentar que tanto a través del uso de tecnologías, a través del análisis de nuevos modelos de atención, a través del soporte familiar necesario, ¿no? pues se logre que, pues de alguna manera complementar lo que una persona puede proveer en su domicilio, ayudando incluso a definir qué es lo bueno de que esté en su domicilio, y por tanto evitar esta institucionalización hasta llegar a estos niveles, ¿no?” (B3)

Zaintza lanak etxeguneetan emateak sortzen dituen mota ezberdinetako arazoez gain, bada ordea, ustezko preferentzia kultural hori zalantzan jartzen duenik ere:

“Ez, ez nago ados. A ber, hori da espekulatzea pixka bat. Baina pentsatu behar da emakumeek zer egiten duten. Eta emakumeak badoaz zerbitzuetara eskatzera laguntza eta ez zaie ematen laguntza hori. Orduan, nik uste dut nahita erabiltzen ari direla datu hoiek kontra egiteko emakumeen joerari edo. (...) A ber, beste aldetik badago zerbait, eh? ba hori jendeari gustatuko litzaioke etxean egotea...bueno, bale, osea esan nahi dut adibidez, eguneko zentroekin gertatzen da, herri batzutan zabaldu dituzte eguneko zentroak eta jendea ez doia. Orduan hor leku batzutan feministak ere daude kanpainak egiten jendeak ezagutu ditzan, eske jendeak ez daki zer egiten dan, eta jendeak ezagutzen dituenean badoa pozik. Orduan egia da, ba klaro zuk ez badaukazu kultura hori zuk identifikatzen dozu hori eh residentziak eta ez dakit zer eta beldurra ematen dizu. Baina jendeak ezagutzen dituenean zerbitzuak erabiltzen dira” (C4)

Preferentzia kulturala baino, hortaz, zerbitzu publikoen gabezia edo ezagutza falta legoke jendeak prestazio ekonomikoen bidea hobestearen atzean, elkarriketatu honen irudiko. Hortaz, prestazioen bidea hobeste honek ez lioke egiazki preferentzia batik erantzungo, ez baitago zinez esaterik bi alternatibaren artean aukeratzeko aukerarik dagoenik oraino, eta beraz, errazen eskuratzen den horren aldeko jarrera islatuko luke prestazioen aldeko hautuak:

“Porque si tuviésemos un sistema por el que nosotros apostamos, que es: yo quiero consagrar una serie de derechos y un derecho subjetivo de acceso a los servicios, (...) lo de, el cuidado en el entorno sería una elección. Es decir, tú decides si acceder a un servicio o tú decides si cuidas en el entorno, o si compatibilizas, que nosotros creemos que es muy interesante que se pueda compatibilizar también. Primer problema para ese escenario ideal: que no hay un acceso universal a los servicios sociales. Segundo gran problema: que no hay un nivel mínimo de renta suficiente garantizado a las familias” (A2)

Aukeratzeko aukerarik izan ezean, zerbitzu publiko nahikorik eta kalitatezkorik garatu ezean, alegia, prestazioen bidetik joaten ari da mendekotasun legearen ezarpena, nahiz eta bide honek ere, onura bezainbat arazo ekar ditzakeen:

“¿Qué ocurre con la prestación? La prestación tiene una virtud: tú reconoces el cuidado que ya están realizando en el entorno familiar, y bueno, otras grandes virtudes es, la regularización en el régimen de la seguridad social, por ejemplo, que es muy importante también. ¿Cuál es su defecto también? Que puede perpetuar el rol de la mujer cuidadora, y además que se vea obligado a hacerlo.” (A2)

“Prestazioa aitortza publikoa da, prestazioa nahikoa bada, eh? Soldata bat bada! Karidade bat bada ez da aitortpena, eh? (...) Orduan, hor feministak batzuk eta ados nago, esaten dute “soldata bat bada bueno, pentsatuko dugu; soldata bat ez den bitartean ezin dogu onartu” (C4)

Prestazioen aldeko jarrera horrek beraz, ondorio ezkor bat baino gehiago dituela nabarmendu behar litzateke, bai zerbitzuak formalizatzeari begira (izan eskaintza publikokoak ala pribatukoak) baina baita sistema are eta familiaristago batera joz, herri-erakundeen erantzukizuneko den zerbitzu publiko baten kalitatearen eta prestazioaren erabilpen zuzenaren gaineko kontrola galtzen delako:

“...está habiendo además un cambio importante debido a la crisis económica, pues las personas están viendo que puede ser una fuente de ingresos el cuidado de su familiar, y por tanto, muchas de estas ayudas derivadas de la valoración de la dependencia se está convirtiendo en ayudas económicas a la familia para poder mantener a la persona mayor en su domicilio. Esto por otro lado nos crea un vacío porque no sabemos si este dinero que emplea la familia para el cuidado del familiar, cómo lo emplea” (B3)

“Bat da serbiziua ematia, eta geo serbizio horrek segimentua behar du. (...) bere alabak zaitzen du, baina ikusi zagon, ikusi zagon nola! Bere semeak zaitzeu, ikusi zagon nola! Diru kopuru bat ematen dio hori atenditzeko, egia al da? ez da? Segimentu bat bihar du. (...) Porque gero igual aitatuiko de, maltratuak hor daude! Badakiu badabela. Hoiek detektatzen ta, pixkat zaila da baina badaude, badaude.(...) Orduan segimentua, garbi ikusten de segimentu bat behar dala, eta segimentu hori ez dala bihar bezela egiten” (B2)

7.5.3 Etorkizuneko gizarte-zerbitzuen ereduaren inguruko eztabaida: eredu mistoa aztergai

Gizarte-egitura ezberdinek parte hartzen duten eredu misto hori da eztabaida honetarako abiapuntua:

“La ley [gizarte-zerbitzuena] lo que habla es de un sistema de responsabilidad pública y provisión mixta. Eso supone que la administración financia, controla, regula, evalúa, pero no necesariamente asume todos los aspectos que tienen que ver con la gestión, la coordinación de casos y muchos más” (C1)

Eredu misto horren egokitasuna arrazoi ezberdinengatik justifikatzen da:

“...el reconocimiento de ese modelo mixto con especial papel para el tercer sector en nuestro entorno tiene varias explicaciones. Una explicación es precisamente el desarrollo tardío del estado de bienestar. (...) Y el hecho de que cuando se empieza a organizar, cuando se empieza a desarrollar ya había una iniciativa social al menos en algunos ámbitos, bien por asociaciones de familiares, bien por la iglesia o por otro tipo de agentes, pues bueno ha hecho que en el ámbito de los servicios sociales este tercer sector gozara de una legitimidad, a la hora de no ser sustituido, sino de ser apoyado, ¿no? Entonces, si le sumas desarrollo tardío con un poco las amenazas de la sostenibilidad que se visualizan en sectores como el sanitario, ¿no? donde la combinación de gestión pública directa con ausencia de copago pues genera, en una sociedad consumista como la nuestra donde realmente pues, eh... no nos caracterizamos por la contención en aquello que se nos da de forma gratuita, posiblemente, pues, bueno, genera ahí una serie de contextos en los cuales pues parece que no hay un cuestionamiento, ¿no? y de hecho pues la ley de servicios sociales de 2008 en el País Vasco pues consagra de alguna forma ese modelo mixto, ¿no?” (A1)

“...bueno osasunien izan da ez? Guztiz publikoa ta ikusi da behintzat ikusi dien datuak zeintzuk dien eta nondik joango dan, orduan nik usteot zerbitzu sozialek ez dabiela eingo osasunean ein dan bide berdina. Bai, nik usteot eredu mistora fango garala (...) Eta hor sartuko dala ba ez dala ia bakarrik administraziño publikoaren gauza bat, bai ekonomikoki eta bai erantzukizun aldetik, beste agente batzuk be hartu beharko dabiela eta familiak be, ba kopagoarena adibidez be, ba asko esaten da” (B6)

Alde batetik, beraz, hirugarren sektore indartsu baten aurretiazko existentzia, eta beste aldetik, zerbitzu publikoen iraunkortasunaren inguruko zalantzak, bi horiek dira eztabaida hau gidatzen duten giltzarri nagusiak. Beste era batera formulaturik, sistema mistoaren atzean gordetzen diren bi justifikazio nagusiak, bata, ekimen pribatuarekin egin beharreko banaketa funtzional baten argudioa litzateke, eta bigarrena, ereduaren kostua, hornidura publikoko ereduaren iraunkortasunaren gaineko zalantzak eragiten dituen.

Lehen aferari dagokionean, hirugarren sektorea sektore publikoaren aurretik jardun izanak, zenbait abantaila eman dakizkioke zerbitzuan beharrezkoak diren ezagutza eta kualifikazio mailari dagokionez. Zentzu horretan, eredu mistoaren justifikazioa, zentzuzko banaketa funtzional batean oinarritzen da, hots, “bakoitza ondoen egiten dakien horretan” espezializatzearen aldeko argudioetan.

Funtzioen banaketa hori nahiko definitua dago legez, eta nahiko partekatua gainera sektorean diharduten eragileen aldetik:

“Esto deviene prácticamente de la ley de servicios sociales que al final consolida un modelo que ya existía. Entonces de administración pública son: provisión de servicios, reglamentación, planificación, financiación, valoración, inspección y control. Esos son teóricamente indelegables. ¿Entidades de iniciativa privada?: prestación de servicios reglamentados por la administración, apoyo a procesos de valoración, insisto apoyo, no la valoración en sí, cobro de la aportación económica del usuario, trabajos de asesoría y construcción y mantenimiento de infraestructuras. Así queda consagrada.” (A2)

“ cada vez está más claro que la responsabilidad de la calidad y de la provisión de los servicios es de la administración y yo creo que esto lo tienen muy claro, y por tanto garante de la atención, eso sí, mayoritariamente prestada por empresas privadas. Entonces la administración tendría que garantizar a través de los recursos necesarios la calidad prestada a través de todas estas empresas de servicios” (B3)

“A ver...el estado francés hasta hace poco estaba metido en Michelin, en Renault, en transportes, en la madre que los parió... ¿qué tiene que ver el estado en Renault? ¿Qué pasa que sabe hacer mejor los vehículos que lo privado? bueno, pues, salvando las distancias, a nosotros nos pasa lo mismo, ¿Qué es lo que nosotros, que es lo que la ley nos dice que tenemos que hacer? Ah! Nosotros tenemos que garantizar dos o tres cosas: uno: el acceso, osea la equidad, es decir, cualquier persona que está en el Grado III, sea desde Irún hasta Arrasate que tenga el mismo derecho y la misma probabilidad de entrar ahí donde esté. Entonces, digamos que la valoración del caso, ésto es indelegable (...) Dos: tenemos que definir el servicio, osea yo quiero que el servicio se preste de esta forma determinada; Tres: tenemos que autorizar si ese centro cumple las obligaciones que tiene que tal, (...) antes que eso incluso es la planificación, oye, déjanos que la administración pública tendrá que decidir si monto en Arrasate, o lo monto en tal, en función de la lista de espera que haya pues igual digo que sí donde hay muchos o digo que sí donde no hay nadie y sin embargo no aflora la demanda...Ése tipo de cosas que son un poco las tareas fundamentales de la administración, ésas son las indelegables...inspección, autorización, acreditación, todo eso, definición de la formación del personal, todo eso es absolutamente indelegable, (...) ¿el resto? A ver, ¿tú crees que yo tengo, que sé cómo hay que prestar un servicio a un viejo que tiene un alzheimer? ¿Yo le tengo que decir a un médico, o a un psicólogo o a una tal que lleva ya no se cuanto tiempo si realmente lo está haciendo bien, regular o mal? Pues no, no.” (A4)

“ ...y luego como digo el hecho de que el desarrollo también de las políticas públicas haya llevado a unas conclusiones ¿no? es decir, bueno: “zapatero a tus zapatos”, es decir ¿en qué es

bueno el sector público? Pues bueno, en regular etcetera etcetera, pero en la propia prestación del servicios ¿necesariamente es mejor? Pues quizás no, ¿no? Y entonces ahí es donde aparecen las sinergias que tiene una iniciativa social, un tercer sector, desde el momento en el cual pues bueno, puede generar unos mecanismos de participación, de auto-responsabilización, de colaboración que son interesantes para la propia prestación de este servicio” (A1)

Banaketa funtzional honek, ordea, arazo bat baino gehiago sortzen ditu sektore publikoarengan, alde batetik ezagutzarekin zerikusia dutenak, baina baita kudeaketarekin loturikoak ere, zeharkako kudeaketaren bitartez sektore publikoaren irismena eta kontrolerako gaitasuna mugatzen baita, kontuan izanik bera dela, azken buruan, emaniko zerbitzuen finantzatzaile eta erantzule nagusia.

“Aber, hemen ez da ondoen egitearen kontua. Ondo egin behar duzu egitea tokatzen zaizuna! Neri hor definizio hori iruitzen zait oso hirugarren sektorekoa, esan nahi dizut, guk ondo eiten dugu zerbitzua eta administrazioak ez du ondo egiten zerbitzua. Hori hirugarren sektoreak esatea, barkatuko diate baino, nik daukat ardura osoa, sentitzen det. Eta nik kontratatzen baldin badet ardura delegatu egiten det baino delegatu bakarrik, ardura nerea da! (...) Guk dauzkagun ekipoekin eta udaletan bereziki, (...) ezinezkoa da esparru guztietan dagoen jakintza maila, eredu berrien gainean egotea informatuta, ezinezkoa da, ez daukazu ekipo teknikoak horretarako hainbestekoak, (...) eta beraz egia da, niretzat hori da daukagun problema, hau da, kanpokoen eskutan utzi behar dugula ezagutzaren espezializazio horren kontua, (...) Baina, hori da kontua, uzten baldin badezu...osea esaten baldin bada “ondoen egiten dutena” hoixe ondoen egiten dutela! eta gainea ondoen egiten dutelako, jarraituko dute ondoen egiten beaiek eta zu gero eta jibarizatuagoa geldituko zea administrazio bezela, ez dezu ezer jakingo horri buruz! Etzea gai izango definitzeko ez beharrak, ez ezerre! ez ze zerbitzu maila, beraz horrekin ezin dezu oso urrutira jun.” (A5)

“...porque aquí sí que hemos visto un problema muy importante (...) hay empresas que tienden al monopolio, a crecer mucho y a ocupar gran parte de su servicio. Claro cuando tienen problemas te amenazan con arrastrarte con ellos. (...) Y eso es un grave problema. Y te resta margen de maniobra, eh? Ése es el problema. (...) Y en el régimen de contratación, todavía, pero es que en los regímenes que tenemos establecido aquí en varios servicios, a cincuenta años, osea, es atar a la administración a una empresa determinada durante cincuenta años. Claro, los problemas son cada dos por tres. ¿Qué pasa si no tienes solvencia de repente?” (A2)

“Cuando por ejemplo yo calculo que el absentismo tiene que ser del 8%, y tú calculas que vas a financiar el 8%. Por lo que sea, en esa residencia pues es del 20%, por poner un ejemplo eh?, o del 15%. ¿Es normal que sea el 15%? ¿Tú como responsable del centro no podrías entre comillas

gestionar un poquito esas bajas a ver a qué se deben e intentar bajar igual? (...)...porque sino ahí tienes una fuga de gastos” (A3)

“..y te dice, “a propósito, la semana pasada tuve que firmar el convenio colectivo y bueno firmé el IPC más 0,5, porque así aseguramos la paz social, y tal...” y dices, pero que me dices a mí, osea ¿tú no eres la patronal? Tú sabrás lo que tienes que negociar pero no me vengas después aquí diciendo que te pague el IPC más 0,5 eh?” (A4)

Zeharkako kudeaketak beraz, arazoak sor ditzake batik bat botere harremanak, bai kudeaketa ahalmenari baina baita ezagutzaren jabetzari loturikoak ere, sektore publikotik at desplazatzen dituelako, eta hortaz, sektore publikoaren erregulaziopean diharduten erakundeak izan arren, azkenean sektore publikoak hartu behar dituelako beregain berak erabakitzerik izan gabe finantzaketa eta zerbitzuaren kalitatean eragiten duten hainbat afera.

Hala ere, eta zeharkako kudeaketak aipaturiko arazo hauek sortuagatik ere, asko dira zuzeneko kudeaketa publikoari etorkizunik ikusten ez diotenak, arrazoi ezberdinak tarteko, baina nagusiki lan kostu garestiagoen errealitateak eraginda:

“ Bai, bai, alde batetik da garestiago eta beste aldetik oso lotura handixa dauka ba zenbait gauzatarako (...) administraziñoako zentro nola den, aplikatuko lituzkete administraziñoan dauken baldintzak eta klaro administraziñoako baldintzak ezta hortarako kalkulatu. (...) Horregatik hori pikutara dijoa. Hori desgertzera doa. (B4)

“Gero beste gauza bat dago, eta da, eh zerbitzu hoiere kostea. Gipuzkoan ez dela hainbesteko problema baina adibidez Araban oso problema handia da, eta gertatu daiteke izatea. Eta hor hitz egin behar da hor daudela pribilegio batzuk, eh, jasanezinak direnak. Jasanezinak direnak. Langile publiko batek kobratzen duen dirua eta dituen eskubideak eta exijitzen zaion askotan lan konpromisoa, ez det esan nahi denak daudenik hor kafea hartzen egunero, baina ez da, eh... ez dakit nola esan sostenigarria, eh...hemen lanean ari dan langilego guztia langile publikoak dituzten lan baldintzak eukitzea. Goitikan ezin da parekatu incluso presio fiskala danesa izan da ere...” (C2)

“Yo creo que hay una realidad clara y es que los costes derivados de la gestión pública de los centros, pues son costes muy elevados, y en algunas ocasiones difícilmente controlables, y en ese sentido hay que ser claros. La prestación de servicios a través de empresas privadas pues está mucho más controlada” (B3)

Ikusten denez beraz, sektore publikoaren iraunkortasuna zalantzan jartzea, batik bat, sektore honetako kostuei, eta zehatzago esanik, lan-kostuei loturik agertzen da, eredu publikoa eredu mistoa baino askoz garestiagoa dela uste baitute batzuk. Beste zenbaitek, ordea, ezeztatu egingo dute argudio hori:

“Está condenada a desaparecer [kudeaketa publikoa] por una decisión política, porque ELA discute la mayor. Creemos que a la larga el modelo de subcontratación es bastante más caro, en función del precio-coste y servicios dados que los servicios que tenemos actualmente, no? El gran problema no está ahí. Nosotros creemos que en este país si toda la discusión o el debate se genera en torno a cómo hay que gastar lo que hay, evidentemente no hay posibilidad de meter tu cuña. Porque no nos dejan discutir lo previo, no? ¿Qué se ingresa?” (C3)

“Claro, la iniciativa privada no es imprescindible (...) Y tampoco es inevitable. Eso hay que dejarlo sentado. ¿Cuál es el principal problema? Más allá de la introducción del ánimo de lucro en la prestación de servicios, que es algo que debería motivarnos una reflexión, ese teórico abaratamiento de los servicios, que no es tal,. (...) El modelo que se importó hace veinte años de Gran Bretaña de iniciativa de financiación privada (*Private Finance Initiative*), ese modelo no es más barato. Es decir, se ha demostrado que a los años sale más caro a la administración” (A2)

Azken bi elkarrizketatu horien iritzian hortaz, ez da hain agerikoa eredu azpikontratatua merkeagoa denik, ereduaren kontratazioan mozkin asmodun enpresak sartzeak merezi luke bestelako gogoetarik eta gastuen inguruko eztabaida soilik planteatzea ez da zuzena sarreren, hau da, zerga-politikaren inguruko eztabaidarekin loturik ez badaoa, bederen.

Edozein delarik ere norberak eztabaida honetan defendatuko lukeen eredu, egiazki ez da guztiz muturreko eredurik planteatzen ari, ez hertsiki publikoa izango denik ez hertsiki pribatua izango denik ere, ezta hertsiki familiarista izango denik ere, eredu mistoak ez baitu esan nahi sektore publikoa guztiz desagertzera doanik, ez eta sistema osorik familiarengan oinarrituko denik, baizik eta oreka bat egon behar duela gizarte-egitura guztien artean:

“El sistema de Servicios Sociales descansa sobre un equilibrio entre el cuidado formal y el cuidado informal, y ese equilibrio hay que preservarlo. Tiene que ser absolutamente compatible con la incorporación de las mujeres al trabajo fuera de casa, hay que trabajar también porque los hombres asumamos más responsabilidades que tiene que ver más con el cuidado informal, pero

hay que tratar de preservar lo más posible ese equilibrio. Por detrás de esto hay opciones ideológicas, y todas son legítimas, que tiene que ver con el modelo de sociedad y nosotros creemos que debe seguir habiendo participación de la sociedad civil en la respuesta de las necesidades sociales y en materia de servicios sociales, que la familia tiene que seguir teniendo un papel y que hay que seguir buscando el equilibrio” (C1)

“Bueno nik uste det modelo mistoa ondo dagola, baina modelo mistoak ez du esan nahi modelo publikoa desagertu behar denik. Modelo mistoak esan nahi du egon behar direla plazak publikoak, gestio publikoarekin, eta egon behar direla beste plaza pribatuak gestio pribatuakin, hori da modelo mistoa. Osea modelo mistoa ez da bakarrik batzuk egin inspeksioa eta abar eta besteak prestazioa” (C2)

“Bai, bai, nik uste baietz, batez ere nik uste dut, osea, eske ez dakit nola esan, eske lan asko dago! Lan asko dago eta diru asko behar da. Hori hasteko, orduan ba bueno, ez dakit, pentsatu behar duzu ez duzula lortuko zerbitzu publikoekin bakarrik, familiarekin argi dago ezetz, ez dozula lortzen, eh? Ze gainera eske jendea ez dago ondo zainduta. Familiarekin bakarrik jendea ez dago oso ondo zainduta (...) Orduan estatuak bakarrik segurasko ez orduan guztiok hartu behar dugu parte. Baina klaro tranpa egiten digute instituzioek, egite dutena da bai bai guztiok hartu behar dugu parte orduan orain benga komunitarioa eta...ez, ez, zerbitzu publikoak bebai, ulertzen? Orduan izan behar da dena batera, iruitzen zait niri eh?” (C4)

Etorkizuneko eredu misto honetan beraz, gizarte-egitura guztiak daude deituak parte hartzera, horien artean guk aztergai dugun sektoreak zein etorkizun izango duen jakitea zaila izan arren.

Inkestaturiko erakundeei beren etorkizunari buruz galdetu zaienean, gehiengo batek (%55) gizarte-ekonomiaren parte hartzea handitzen joango dela uste du, herenak zenbait sektoretan mantendu egingo dela uste du eta soilik %15ak uste du gizarte-ekonomia enpresa pribatuen bitartez desplazatua izango dela.

Hori bai, inortxok ere ez du uste gizarte-ekonomiaren parte hartzea gutxiagotuko denik eskaintza publiko handiago baten kausaz, eta hortaz, guztiek interpretatzen dutena da sektore publikoaren parte hartze handiagoa gizarte-ekonomiaren pisu handiago batekin lotuago doala (lankidetzaz edo osagarritasun erlazio moduetan sakonduz, beraz). Horri loturik ageri dira, erakundeon iritizian, etorkizunean gizarte-ekonomiak sektore honetan arrakastaz jarduteko bi elementu giltzarri nagusiak: herri-erakundeen babesa, lehenik, eta kalitate hobegoko zerbitzuak eskaintzea, bestetik.

Elkarrizketatuen artean zalantzak ageri dira gehienek aldetik. Nahiko argi dagoena da, gizarte-zerbitzuen sistemak, geroz eta helduagoa eta espezializatuagoa den eremu bat izanik, eta kudeaketa publikoko ereduetatik aldentuta garatzen doala ikusirik, enpresa egitura indartsu eta konprometituen premia izango duela; indartsuak zerbitzu hornitzaile diren neurrian erakunde kaudimendunak izatea eskatuko baitzaie, eta konprometituak ezaugarri oso bereziko sektore batean dihardutelako. Ezaugarri horiek bereganatuz, merkatua enpresa kapitalisten mesedetan garatuko den edo ez den, ikusgai dago.

“...tener empresas que no sean empresas que estén metidas en estos rollos, empresas en el sentido de que no tengan la posibilidad de endeudarse, o hablar con un banco, o tal, es muy arriesgado.” (A4)

Egitura geroz eta enpresarialagoak izatea beraz, nahi nahiezko baldintza izango da aurrerantzean gizarte-zerbitzuetan aritzeko, nahiz eta horrek enpresa pribatu kapitalisten mesedetan joko lukeen ez dagoen hain argi, enpresa horietako asko sektorean behin sartuta, atzerako bidean direla ikusten ari baita, arrazoi ezberdinak tarteko: publikoki erregulaturiko sistema batean aritzeak beren mozkin marjinak asko estutzen dituelako, krisi ekonomikoak negatiboki eragin duelako, etab.

“Ze arlo honetan eztao diru askorik, osea ez dago negozio askorik, marjenak txikiak dia, orduan eskala handia badaukazu agian bai, baina enpresa txiki asko itotzen ai dia. Esate bateako momentu honetan dependentziaren legea dala eta eztao asistencia a domicilioko edo etxez etxeke atentzioa ba hainbat enpresa itota daude, itota daude administrazioak ipini ditun arau konkretu batzuk itotzen dutelako gero aukera enpresariala” (B7)

“Ez, ez. Hasieran pentsatzen zuten hauxe izango zala “la letxe”, gaur egun ya danak keizatzen daude (...) horregatik sartu dira hainbeste enpresa inmobiliarioak, ba karo gaur egun ikusten dute nik dirua sartu det eta ohituta gainera lehen bezela dirua ateratzen... ez dogu ateratzen! Ba orduan hauxe ez dau balio guretako” (B4)

“...es insostenible que tú en un mismo sector tengas condiciones laborales tan diferentes haciendo el mismo trabajo. Eso a largo plazo es insostenible. Entonces tenemos que ir a marcos de homogenización. Claro, si se dan esos marcos de homogenización, esa ventaja que representa la iniciativa privada en cuanto a abaratamiento de servicios ¿dónde queda?” (A2)

“Eta merkatua, klaro, pentsatu dugu menpekotasunaren legearekin batera merkatua zabalduko zala, (...) baina nik ez dakit orain krisialdiarekin eta hori hainbeste garatu dan, sortu dira enpresak, sortu dira lanpostuak, baina esango nuke eta hor bai daturik ez daukadala, hori gelditu dela nahiko, osea aurreikuspenak nahiko baju gelditu direla, horretan, eta familiak jarraitzen duela protagonismo osoarekin” (C4)

“Aber, nik enpresa pribatuari hemen ez diot zera gehiegi ikusten, ez diot leku gehiegi ikusten. Ez diot gehiegi ikusten irakaskuntzan ez diodan ikusten moduan, eta sanidadean ere ez. Nire ustez egon beharko litzateke oso demanda konkretu bat, oso solbentea joan dadila zera pribatu-pribatura, bere kabuz ordainduta eta abar, eta gero dago el sistema de responsabilidad pública, no? Que es para todos” (C2)

Enpresa pribatua itxuraz betetzen ari ez den hutsune hori, hirugarren sektoreko edo gizarte-ekonomiako eragileek hartuko duten ere ikusgai dago, horrek esparru honen barruan zenbait erronkari aurre egitea ere eskatuko baitu, barne aniztasun handiko esparru bati buruz ari garela jakitun:

“Ahí efectivamente la duda es si la diversidad unirá o la diversidad romperá, eso es lo que de alguna manera no sabemos lo que va a pasar. Puede ocurrir que la diversidad, porque ¿tiene que haber diversidad! Es normal que unas más profesionalizadas, otras más pequeñas, otras más reivindicativas, eso es normal y eso es bueno. Lo que pasa es que si luego eso en la diversidad se identifican como lo mismo y se articulan, o si se fragmentan” (A1)

“Eta hori nik ustet hirugarren sektoreari jartzen diola oso egoera zail batean, ez? Izango dalako prestatzailea alde batetik, bueno aparte del debate ese de siempre de prestatzaile eta defendatzaile eta hori, baina gainera prestazioaren orduan bi eredu oso desberdin egongo direla, lo que es de responsabilidad pública y lo que no es de responsabilidad pública. (...) Eta nik ustet benetan hirugarren sektorearen erronka handiak bi hoiek direla ez? Alde batetik responsabilidad publikoan fundamentuarekin sartu, profesionaltasunarekin, (...) eta gero beste erronka bat da eskema helduago batean, ya ezin dutela administrazioaren eskutik horrenbeste jun” (C2)

7.5. atalean landuriko ideia nagusien laburpena:

- Pertsona nagusien alorra hiru aldagai nagusik definitzen dute: sektore publikoaren garapen berantiarrak batetik, esparru familiarraren nagusitasunak bestetik, eta gizarte-ekonomiaren pisu erlatiboki garrantzitsuak, azkenik. Hiru ezaugarri horiek eredu mediterraneoko ongizate-erregimen batenak dira nagusiki, nahiz eta gurean erregimen ezberdinetako ezaugarriak ageri direla egiatzatu den.

- Azken urteetako lege berrikuntzek sistema heldutasunerantz bideratu nahi izan duten arren, alde handia dago testuan ezarrita dagoenetik praktikan gertatzen ari denera. Euskadiko gizarte-zerbitzuen legeak apenas izan duen oraindik garapenik. Mendekotasun legeak aldiz, teorian bilatu asmo zenaren aurkakoa ekarri du: prestazio ekonomikoen bidean sakontzea zerbitzu publikoen bidea alboratuz.

- Etorkizuneko gizarte-zerbitzuen ereduaren eztabaidari dagokionean, erantzukizun publikoko sistema misto gisa definitzen da eredu, funtzioen banaketa argia ezarriz herri-erakundeen eta eragile pribatuen egitekoen artean. Azken horiei zerbitzuen hornikuntza soilik egokitzen zaienez, eztabaida nagusiki zerbitzu publikoen hornikuntza pribatuaren gaiak pizten du. Aditu batzuek banaketa hori eraginkortasun terminotan defendatu arren, beste zenbaiten iritzian kudeaketa osorik eragile pribatuen eskutan uzteak menpekotasun harremanak sortzen ditu herri-erakundeentzat.

- Gizarte-ekonomiako eragileek gizarte-zerbitzuen etorkizuneko sisteman izango duten parte hartzearen inguruan, bi aldagai dira nabarmendu direnak: alde batetik egitura enpresarial sendoko eta zerbitzu kalitate oneko erakundeak izateko gaitasunak baldintzatuko du hori, eta bigarrenik, herri-erakundeen engaiamendu handiagoak. Gizarte-ekonomia, beraz, herri-erakundeen eskutik eta enpresa egitura sendoagoak bilakatzearen bidetik garatu ahal izango da etorkizunean, enpresa kapitalistek baino aukera gehiagoren jabe den argi ez dagoen arren.

7.6 Laburbilduz

Landa laneko emaitzak aurkezteko garatu dugun kapitulu honetatik honako ideiak nabaremnnduko genituzke, atalez atal:

Sektoreko eskari eta eskaintzari dagokionean

1.- Eskariari dagokionez, mendekotasuna aitortua duten pertsonen gehiengoa (%78) pertsona nagusiak direla ikusi da, eta logikoki, herri-erakundeetatik mendekotasunera bideraturiko gastuaren gehiengoa pertsona nagusien esparrura bideratzen da. Azken datuen arabera, Gipuzkoan ia 32.000 pertsona lirateke

mendekotasunari loturiko zerbitzu edo prestazio publiko bat (edo gehiago) eskatu dutenak, eta horien artean %68ak jaso du batz bestea eskaturiko prestazioa, ehuneko hau handitu egiten delarik pertsonen mendekotasun gardua handitu ahala. Zerbitzu ezberdin guztietan erabiltzaileen artean gehiengoa (lautik hiru, gutxi gora behera) andrazkoak direla frogatu da.

2.- Mendekotasuna duten pertsonen eskariak, baliabide publiko ezberdinak lehenesterako orduan, eredu nahiko argia erakusten du: gehiengoak, herenak gutxi asko, prestazio ekonomikoak eskatzen ditu, nagusiki familiakoek eskainiriko laguntzei bideraturiko diru laguntzak Horien artean ageri da, bigarren tokian, telelaguntza zerbitzua, gero egoitza zerbitzua, ondoren etxez etxeko laguntza eta azken tokian eguneko zentroen erabilera, azken biak direlarik hortaz izaerarik komunitarioena duten zerbitzuak. Prestazio horietako bakoitzaren erabilerak pertsona nagusien lehenetsunari erantzuten dion ala baliabide publikoen existentzia faltaren ondorio den argitzeke geratzen da.

3.- Eskaintzari dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundia da, herri-erakunde guztien artean gastu publikoaren zatirik handiena bere gain hartzen duena, prestazio ekonomikoen kasuan ia ehuneko ehuneko. Horren ondorio da, Foru Aldundiak gizarte-ongizatera bideraturiko aurrekontuaren erdia pasatxo, pertsona nagusien esparrura bideratzea. Dena den, finantzazio horren esangura ezberdina da egoitza-zentroen kasuan zentroa pribatua ala publikoa izan: zentro publikoen kasuan finantzazioaren gehiengoa forala izan arren, zentro pribatu zein mozkinen bestekoetan diru iturrien artean portzentualki handiagoa da jatorri pribatuko finantzazio, hots, familien aldetik eginiko ekarpenek suposatzen dutena.

4.- Gizarte-baliabideen titulartasunari dagokionez berriz, errealitate ezberdinak ageri dira zerbitzuaren arabera: egoitzen kasuan, SIIS, IMSERSO eta Eustat-en datuak alderatuz gero diferentzia nahiko nabarmenak ageri diren arren, argazki orokorra egitekotan, plaza kopuruari dagokionez %45 inguru publikoak lirateke, eta pribatuen artean gehienak, ia ehuneko ehuna, itunduak leudeke, hots, osorik publikoki finantzatuak. Mozkinen besteko erakundeek kudeaturiko plazen kopurua plazen herenaren bueltan legoke, gutxi-gora-behera. Eguneko zentroen kasuan berriz, aipaturiko hiru datu-iturrien arabera zentroen %60 publikoak lirateke, eta mozkinen bestekoak %15 eskas. Plaza gaitasunari dagokionean, berriz, publikoak txikiagoak dira,

ziuraski herri txikietan kokaturik egotearren, plaza guztien artean %44,4 soilik kudeatzen baitute eta aldiz mozkinenez bestekoak %20 inguru.

5.- Zentroen titulartasunari zentro bakoitzeko langileen analisia gehituz gero ordea, titulartasun publikoaren emaitzak nabarmen apaltzen dira: pertsona nagusien egoitza zentroetan guztira lanean diharduten langileen artean %20 lirateke publikoak, eta %9 eguneko zentroen kasuan. Egoitza zentro publikoetan beraz, langile publiko bakoitzeko 2,6 azpikontratatuak dira, eta eguneko zentroetan, langile publiko bakoitzeko 11 dira azpikontratatuak.

6.- Ondorio orokor bezala, hortaz, Gipuzkoako gizarte-zerbitzuen esparruan elkartegintza ehun indartsu bat izan badela baieztatu den arren, pertsona nagusien esparrura etorrita esangura hori apalagotzen doala ikusten da, zentroen enpresa-kudeaketa eskatzen duten zerbitzuetan askoz apalagoa baita mozkinenez besteko erakundeen garrantzia. Finantzazioari dagokionez berriz, sistemak oro har, nagusiki izaera publikoa izaten jarraitzen duela ere baieztatu behar litzateke, titulartasunean zentro pribatu guztien batura baino apur bat apalagoa izan arren zentro publikoena, finantzaketan ia plazen ehuneko ehuna zuzenki ordaindu edo ituntzeko ohitura mantentzen baita (plazen %2-3 buelta horretan legoke finantzazio publikorik jasotzen ez duten plazen portzentajea). Enpresa pribatuen garrantzia, azkenik, mozkinenez bestekoena gainditzera iritsi dela ondorioztatzen da kudeaturiko zentro eta plazei dagokienean azken urteetan izaniko hazkundera dela medio, bereziki gaitasun handiko egoitza zerbitzuetan kontzentratzen delarik horien esku hartzea.

Pertsona nagusien esparruko gizarte-ekonomiaren analisia

7.- Igorritako inkesta erantzun duten gizarte-ekonomiako 27 erakundeen erantzunetatik, gizarte-ekonomiaren honako datu orokorrak erdietsi dira: guztira 2.860 pertsona dira artatuak gizarte-ekonomiako erakundeen bitartez, Gipuzkoako 21 egoitzetan, 17 eguneko zentrotan eta 26 herritan ematen duten etxez etxeko laguntzaren bitartez. Horretarako, 1.798 pertsona enplegatzen dira soldatapean eta 222 langile-bazkide gisara. Horiez gain, gizarte-ekonomiako elkarteetan 1.923 pertsona bazkide dira eta boluntarioei dagokienean, 1.393 boluntarioen lana kontabilizatu da. Lan figura horien guztien artean andrazkoak gehiengoa dira, soldatapeko langileen artean %90tik gora ia kasu guztietan, eta neurri apalagoan bada ere baita bazkide eta boluntarioei

dagokionez ere. Kontrara, zuzendaritza organo gehienetan emakumeen presentzia nabarmen apalagoa da. Enpresen tamainari dagokionean, azkenik, gehiengo mikroenpresak dira, eta solik hiruk gainditzen dute 10 milioi eurotako fakturazioa, GSR. Kooperatibak, Matia Fundazioak eta Gurutze Gorriak, hain zuzen ere.

8.- Datu orokorrez gain, gizarte-ekonomia logika ezberdinekin funtzionatzen duten bost azpitaldek osatzen dutela ondorioztatu da: i) lehenik, egoitza zentroyen kudeaketan diharduten fundazioak, gehienak Lares Federazioan bilduak, Matia Fundazioa delarik erreferentzia nagusia; ii) bigarrenik, GSR kooperatiba, Mondragon taldearen baitakoa; iii) hirugarrenik, zahartze aktiboan diharduten boluntario elkarteak, Nagusilan elkarte buru; iv) laugarren tokian, etxez etxeko laguntzan diharduten elkarteak, Ilarki elkargoa horien artean handiena; v) azkenik, Bizitzen Fundazioa laneratze enpresa, enpresa sozial edo solidario kategoria eman dioguna.

9.- Gizarte-ekonomiaren baitako logika ezberdin horiek ere jaso dira analisi kualitatiboaren bitartez. Izaniko elkarrizketa ezberdinen nola halako sintesi bat egite aldera, hiru multzo ezberdin egiten dira: lehenik, mozkinenez besteko erakunde zerbitzu-hornitzaileak. Horien artean logika ezberdineko enpresak ageri dira zerbitzuaren arabera, (nagusiki etxez etxeko laguntzan diharduten elkartearen jarduna zentroyen kudeaketan diharduten fundazioetatik bereizten da), eta era berean, eztabaida nahiko bizia jaso dugu elkarte horien berezko ezaugarrien inguruan, batzuen irudiko hirugarren sektoreko praktikei lotuak agertu arren, beste askorentzat logika horien erabilpen makurra egiten baita sarri askotan. Bigarren multzo batean leudeke boluntario elkarteak, hirugarren sektoreko logikie lotuagoak baina garrantzia nahiko ahula dutenak pertsona nagusien esparruan desgaitasuneko sektorearekin alderatuz, izan ezintasunagatik ala izan zerbitzu horietarako beharrezkoak ikusten ez direlako. Azkenik, esperientzia kooperatiboa dago, bertako partaideen iritziz hirugarren sektoretik gertuago egonagatik, gainerako berriemaile gehienaren iritzian enpres pribatuen logikatik gertuago egongo litzatekeena. Eztabaida horiek luze zabal jorratu dira.

Gizarte-ekonomia eta herri-erakundearen arteko erlazioa

10. Gai hori lantzeko aztertutako lau esparruetatik honakoa ondorioztatu daiteke: lehenik, gizarte-ekonomia ongizate-estatuaren aurrekari argia dela uste du elkarrizketatuen gehiengoak, eta ongizate-estatuaren garapenak gizarte-ekonomia

desagerrarazi baino, hau etengabe egokitzera behartzen duela irizten diote gehienek. Herri-erakundeek mozkinenez besteko erakundeen alde historikoki aplikaturiko diskriminazio positiboko neurriei inguruan eztabaida oso mamitsua jaso dugu. Aldeko zein kontrako jarrereaz gain, ekarpenik interesgarrienak mozkin asmorik gabeko izaeraren berrikuspenaren alde jo dutenen aldetik jaso dira, horiek gizarte-ekonomiaren logika kooperatiboetara gerturatzeko aukera defendatu baitute.

11.- Gizarte-ekonomia eta herri-erakundeen harremanaren beste bi ikuspegi ere landu dira, finantzaria eta harremanezkoa. Harreman finantzarian sistemak mekanismo egonkorragoetara jo beharra argudiatu du gehiengo osoak, diru-laguntzen sistema batetik kontratu edo itun bidezko harremanetara igaro beharra aldarrikatuz. Finantzaio mekanismo mota bakoitzaren onura zein kalteez, aplikazio zein etorkizuneko apustuez, eztabaida interesgarria jaso da. Azkenik, harremanezko esparruari dagokionean, orokorrean nahiko sintonia onean bizi diren bi sektore direla ondorioztatzen da, batzuen irudiko gehiegizkoa ere izaten ari delarik herri-erakundeetatik agertzen ari den sinpatia hori, interes eta motibazio ezberdinak tarteko.

Gizarte-ekonomiaren tokia gizarte-zerbitzuen eredu mistoan

12.- Azken zati batean gizarte-zerbitzuen ereduaren inguruko eztabaida jarri da mahai gainean, bereziki erreparatuz sistema honek etorkizunean behar lukeen osaera instituzional publiko/pribatu/informalaren aferari. Lehenik, egungo abiapuntuaren analisia egitean, esparru informalak duen nagusitasuna nabarmentzeaz gain, sistema publikoak Gipuzkoan duen hedapen zabala ere aitortu izan da, honek erregimen mediterraneo edo korporatibotik, nondik gertuago kokatuko gintuzkeen eztabaidatuz. Bigarrenik, azken urteetako lege berriak zein norabidetan eragiten ari diren ikusi da, teorian direnetik praktikan izaten ari direnera ezberdintasun handiak daudela modu orokorrean baieztatu delarik. Azkenik, gizarte-zerbitzuen eredu mistoa jarri da eztabaidagai, kudeaketa publiko zuzenaren eta zeharkakoaren bertute eta arazoak agertzeaz batera, gehiengoak sistemak derrigorrez mistoa behar duela ondorioztatu du, nahiz eta guztizko adostasunik ez dagoen sistema misto honetan gizarte-ekonomiak izango duen tokiaren inguruan.

8 AMAIERAKO GOGOETAK

Amaitzear dugun tesi honetako azken atal hau lan guztian zehar landuriko ideia nagusien sintesirako gorde dugu. Honela, atalez atal landuriko ondorioak errepikatu baino, horien komentario kritikoa da jarraian garatuko duguna, helburu nagusi batekin: sarreran finkaturiko hipotesiak zein neurrira arte kontrastatu ahal izan diren frogatzeko, hain zuzen ere.

Gure argudiatzea ahalik eta modurik ordenatuenean burutzeko, hiru atal bereiziko ditugu: lehenik, gure hipotesiak kokatzen diren testuinguruaren giltzarri nagusiak marraztuko ditugu, bigarrenik, hipotesien kontrastea gauzatuko da, eta azkenik, etorkizunera begira gure aldetik egokitzen jo ditugun zenbait ekarpenen proposamena egingo dugu.

8.1 Hipotesien inguruabarra

Abiapuntua: bidegurutzeko herria, sektorea eta unea

Gipuzkoako pertsona nagusien esparruan konkretuki, eta gizarte-zerbitzuen sektorean oro har, gizarte-ekonomiak duen tokiaren inguruko gogoeta egiteak ikuspegi zabal batetik abiatzea eskatzen du. Bai gizarte-ekonomia denaren inguruan, eta baita gizarte-zerbitzuak direnaren inguruan ere.

Bigarren horietatik hasiz, gizarte-zerbitzuen sistema, egiazki sistema misto bat dela ondorioztatu behar genuke lehenik. Mistoia, bertan parte hartzen duten gizarte-egituren aniztasunagatik, baina baita bertan eragiten duten politiken jatorriari begiratzuz ere.

Honela, Euskadiko gizarte-zerbitzuen analisia ongizate-erregimenen (autonomikoen) prismatik burututa, gizarte-zerbitzuetan oro har nabarmentzen diren bi gizarte-egiturei, hots familia eta merkatuari, Euskadin indartsuak diren sektore publikoa eta komunitatea ere batu behar zaizkiela ikusi da. Gainezarpen horien kausaz, Euskadik gizarte-zerbitzuen eredu misto propio bat izan baduela ondorioztatu genezake, nahiz eta jakina, ez den inguruko herriekiko isolaturiko eredu.

Izan ere, Euskadiko ongizate-sistemak ongizate-erregimenen analisisan aipatu diren tipo ideal ezberdinetako ezaugarriak nahasten dituela ikusi da: nagusiki eredu mediterraneo batean kokatu behar genuke, funtsezko bi ezaugarriren kausaz: sektore publikoaren hedapen murriz eta berantiarragatik eta esparru informalararen nagusitasun osoagatik. Baina analisiak sektoreka eginez gero, Europan iparralderagoko bi eredu nagusien ezaugarriak ere baditugula esan liteke.

Esate baterako, eredu korporatistakoak lirateke gizarte-segurantzaren sistemaren bidez bideratzen diren errenta-transferentziarako mekanismoak, hirugarren sektore indartsu baten existentzia (zenbait sektoretan), edota subsidiarotasun ideia indarra, familiaren lehentasunari dagokionean. Eredu sozialdemokratik erreferentzia ildo gisa eragiten digu gehiago, zenbait sektore, osasuna kasu, nagusiki publiko eta unibertsal gisa konfiguratu badira ere (ez luzerako, itxura guztien arabera). gizarte-ongizateko bestelako esparruek

ez baitute marko hori jo eredutzat, legeetan jasotako intentzioetatik harago ez bederen. Eta jakina, ez gara azken bizpahiru hamarkadetako oldarraldi neoliberaletik salbu, ongizateko esparru horiek guztiak apurka-apurka pribatizatzen joatearen tentsioak etengabeak baitira, dela sektore publikoaren arrazionalizazioaren argudiopean edo dela erabiltzaileen aukeratzeko askatasun handiagoaren aitzakiarekin.

Analisia esparru bakoitzaren garapenaren kronologiaren arabera eginda ere izaera nahasi hori bera ageri da: lehenik gizarte-segurantzaren sistema ezartzeak eredu bismarckiar-korporatistaren lorratzean jarri bagintuen ere, 80ko hamarkadan hezkuntzan zein osasunean emaniko hedapen publikoak bazirudien eredu nordiko baterantz jotzea bilatzen zuela, nahiz eta 90etik aurrera sistema mistoaren ideia izan den nagusitasuna hartzen joan dena. Gizarte-zerbitzuen kasu konkreturako ere ibilbide berdin antzekoa marraz liteke: ongintzako sistema batetik gizarte-segurantzaren azpisektore gisara instituzionalizatzen hasi zen lehenik, 80ko hamarkadan sistema publiko bilakatzea jo zen helburu nagusitzat, eta 90etik aurrera erantzukizun publikoko sistema unibertsal eta mistoa osatzea izan da erreferentzia nagusia, bai Euskadin eta baita Espainia mailako gainerako herrialde gehienetan ere.

Ongizate-ereduen gainezarpen horiek ulertzeko bi azalpen nabarmendu nahi genituzke: bata, denbora aldetikoa eta bestea eskumenen aferari eragiten diona.

Gainezarpen horien lehen kausa, beraz, oro har ongizate-estatuko esparru guztietan baina bereiziki agerikoa dena gizarte-zerbitzuen alorrean, horien garapen berantiarrari zor zaio: gainerako herrialde europarretan ideia neoliberalen berrindartze batek eraginda ongizate-estatuaren berrantolatze eta pribatizatze neurriak orokortzen hasten diren garai berean hasten dira esparruok, Espainian, lehen urratsak ematen. Hortaz, lehen gainezarpen bat oinarri korporatista batetik abiatuz, eredu sozialdemokrata baterantz jo nahi eta nazioartean nagusitzen doan eredu (neo)liberalaren arteko talkatik erator liteke.

Gainezarpen horien bigarren kausak aldiz zerikusi zuzenagoa Espainiaren estatu ereduarekin, autonomia-erkidegoen eskumenen banaketan, eta Euskadik espainiar estatuaren barruan lortu duen autonomia graduarekin. Honela, erregimen ezberdinen koexistentzia esparru bakoitzean duen eskumen maila ezberdinaren arabera ere uler

liteke: enplegu politika pasiboetan eskumenik ez eta gizarte-segurantzaren eredu korporatistatik zintzilik dagoen bezala, eskumen osokoak izan dituen esparruetan eredu nordikoagoak bilatu ditu, zerga bidez finantzaturiko zerbitzu unibertsalagoetara joz, bai osasunean eta baita hezkuntzan ere. Analisi alderatuan ikusi dugunez, Euskadin oro har sektore publikoak esangura handiagoa du (Nafarroarekin batera) gainerako herrialdeetan baino, eta pertsona nagusiei bideraturiko gizarte-zerbitzuen analisisian ere, oro har Espainiarenak baino irismen publiko handiagoko zifrak agertu zaizkigu.

Euskadiko gizarte-zerbitzuen esparrua, beraz, bai bertoko zenbait ezaugarri ezberdinen kausaz eta baita izaten ari den garapen berantiarra dela medio, funtsean bi eredu nagusiren bidegurutzean dagoela iruditzen zaigu, nora jo eztabaida bizian: osasun sistema (nagusiki) publikoa alde batetik edo hezkuntza sistema publiko-itundua bestetik.

Sistema mistoa bai, baina batik bat informala

Gizarte-zerbitzuen sistema mistoa dela baieztatzeak gizarte-egitura guztiek parte hartzen dutela esan nahi du, baina ez du ezer zehazten gizarte-egitura horietako bakoitzaren pisuaz.

Horren berri izateko aurkeztu ditugun analisi kuantitatiboek ordea, eztabaidarako tarte gutxi uzten dute: Euskadin, zaintza premian diren 60 urtetik gorako pertsonen erdiek familiarren zerbitzuak baino ez dituzte jasotzen, nagusiki alabek eta ezkontideek emanak, eta %5a baino ez dira zerbitzu publikoak bakarrik jasotzen dituztenak. Baliabide formal eta informalak batera jasotzen dituzten pertsonak, jasotzen duten baliabide formala ez da kasurik gehienetan zerbitzu publiko batetik jaso, (neurri handi batean etorkinak diren) etxeko-langile pribatuen kontrataziotik lotua baizik.

Baliabide formal horien eskarian ere lehentasun argi bat errepikatzen da bai Euskadi mailarako baita Gipuzkoarako ere: gaur egun gehien gehiena mendetasunagatiko diru laguntzak eskatzen dira, ia osorik familiarrek emaniko zaintza lanengatiko diru laguntzak, eta beraz, publikoki subentzionatua izanagatik ere, funtsean baliabide informal baten erabileraz jardun behar genuke, nola eta ez den diru hori etxeko-langile

partikular bat kontratatzeko erabiltzen. Zerbitzu publikoak eskatzerako orduan, berriz, pertsona nagusiek izaera komunitarioko baliabideak hobesten dituzte, hots, telelaguntza eta etxez etxeko laguntza zerbitzuak hobesten dituzte egoitza-erregimeneko baliabideen aurretik, eta azken horien artean eguneko zentroak egoitza zentroen aurretik.

Datu horiek guztiak kontuan hartuta, sistema bere osotasunean eredu familiaristako eredu batean kokatuko genuke, oraindik orain familia baita alde handiarekin, gainerako gizarte-egituren aldean zaintza lanen gehiengoa beregain hartzen duena, kasu batzuetan bestelako gizarte-egituretatik datozen baliabideak ere uztartuz, baina kasu askotan bera delarik hornitzaile bakarra. Eta are gehiago, baliabide formal eta informalak uztartzeko ere tradizio nahiko eskasa dugu, arrazoi ezberdinak tarteko: edo ez dugulako baliabide formal hori eskuratzeko aukera errealik, edo ez dugulako halakorik ezagutzen, edo kalitate txarrekoetat jotzen ditugulako. Edo besterik gabe, hierarkizazio argi batekin funtzionatzen dugulako: ahal den artean mendeko pertsona etxean mantentzera jo ohi dugu, familiak huts egiten duenean (*family failure*), kasik beste erremediorik ez denean, baliabide formal batera jotzen dugun arte.

Gure iritzian errealitate hau azaltzeko zenbait argudio nahiko modu tranpati edo aldrebasean erabiltzen dira, askok uste baitu sistemaren izaera informal honek funtsean pertsona nagusien preferentzia kultural bati erantzuten diola, hots, “non hobeto etxean baino” moduko preferentzia orokortu bati.

Lehenik eta behin, sakoneko (eta agian intentzio txarreko) parekidetasun oker batean dagoke arazoa: ez da gauza bera zaintza komunitarioa eta zaintza familiarra, eta beraz, pertsona nagusiek ahalik eta denborarik gehien bere ohiko ingurunean eman nahi izatea kasu askotan egiantzekoa izan daitekeen arren, horrek ez du esan nahi zaintza horiek, nagusiki, etxekoan aldetik jaso izan behar direnik.

Okerreko parekidetasun honek, izaera oso negatiboko ondorioak ditu. Alde batetik, familiako emakumeengan berealdiko presio morala eragiten du, uste orokortuz jotzen baita lehen hornitzaileak familiarra behar duela, eta gizonok oraindik orain kontuok gureak ez balira bezala hartzen ditugunez (nahiz eta aldaketa zantzuak ere ageri diren), genero arteko zaintza-lanen banaketa hori denboran mantentzea dakar. Bigarrenik,

familien aldetik zaintza lan horiek beregain hartzeko geroz eta zailtasun handiagoak ageri direla argi da, bai familia-unitate eredu aniztasun handiago baten ondorioz eta baita andrazkoen lan (enplegu) munduratzeko progresiboak eraginda ere. Zentzu horretan, epe motzera espero behar izatekoa den agertoki bakarra ezkutaturiko babesgabezia egoeren larriagotzea da. Hirugarrenik, herri-erakundeen ikuspegitik, diru laguntza publikoen erabilera zuzenaren gaineko kontrola eta zaintza lan informalaren kalitatearen gaineko kontrola galtzen da, are larriagoa dena sistema (legez) erantzukizun publikoko sistema gisa definitu dugun honetan. Etxeguneen baitan gertatzen diren tratatu txarrei buruzko azken ikerlanek agerian utzi dute etxe barruko zaintza esparrua ez dela kalitate oneko zaintza eredu baten berme, inondik inora. Eta azkenik, sektorea formalizatzen joateko enpresa pribatuen merkatua garatzea ere oztopatu egiten du, eskari potentziala uzkurdu edo urperatu egiten baitu.

Eztabaida, termino horietan planteatua beraz, eztabaida faltsua dela iruditzen zaigu. Gure iritzian, ingurune familiarrarekiko preferentziak baino, baliabide formalen existentzia, ezagutza edo ohitura faltak baldintzatzen du gehiago egoera hau. Zenbait datu norabide horretan doazela iruditzen zaigu gainera: pertsona nagusiek etxez etxe zerbitzuak nahiago izan arren egoitza zerbitzuak baino, Gipuzkoan gutxiago dira gaur gaurkoz lehen baliabide horren erabiltzaileak, non eta gainera erabiltzaile potentzialen kopuru handiagokoa den giza talde batean (mendetasun maila apalagoetara bideratzen baita lehena eta kasurik larrienerako bigarrena).

Hortaz, preferentzia kontu bati baino, lanaren banaketa sexual konkretu bat bultzatzen duen ideologia dago errealitate honen atzean. Eta preferentzia kultural kontu bati baino, etxe esparruaren aldeko hautu bati baino, zinez aukeratzeko aukeragabezia bati erantzuten dio gehiago errealitate honek, zeinari modu bakarrean baino ezin baitzaio erantzun: zerbitzu publikoak biderkatuz, hain zuzen ere.

Baliabide formalen osaera eta azken urteetako joera nagusiak: gizarte-ekonomia bidegurutzean

Gizarte-zerbitzu formalek informalen aldean duten esangura apalagoa agerian utzi ostean, doktorego tesi honetan Euskadi zein Gipuzkoaren kasurako, baliabide formal horien titulartasunaren araberrako analisiak burutu ditugu, gizarte-ekonomiak merkatuko eragile berezi moduan bertan duen kokapena ebatzte aldera. Analisi kuantitatibo horiek datu nahiko esanguratsuak ematen dituzte gizarte-ekonomiarentzat.

Euskadi mailan, pertsona nagusiei bideraturiko zentro guztiak kontuan hartuz (eguneko eta egoitza zentroak, zaharren aisialdi elkarteak eta zahar-etxeak), hamar zentrotik lau dira publikoak, beste lau mozkinenez bestekoak eta bi pribatuak. Erakunde pribatuen aldean beraz, elkartegintzazko esperientziak gehiago nabarmentzen dira pertsona nagusien esparruan, sektore publikoaren parean kokatuz. Hiru herrialdeen arteko konparaziotik, Gipuzkoan Araban baino zentro pribatu gehiago dagoela ikusi da, eta Bizkaian baino gutxiago. Arabak beraz nagusiki zentro publikoen finantzaziora bideratzen du bere esfortzu handiena. Bizkaiak, orain arte behintzat, eta azken urte gutxian sakoneko aldaketarik eman ez bada bederen, diru laguntza pertsonalen bidea jorratu izan du pribatuak diren zentroetara pertsona nagusiei sarbidea errazteko politika gisa. Gipuzkoako ereduak, bi horien aldean, gizarte-ekonomiako erakundeekin itunduriko sistema litzateke, bai erakunde horiek pisu garrantzitsua dutelako baina baita plaza pribatuen ituntze politika izan delako jarraituriko bide nagusia.

Gipuzkoaren kasurako, eta gizarte-ekonomiakotzat jo ez ditugun bi erakunde motak albo batera utzita (hots, zahar-etxeak eta aisialdi elkarteak), egoitza zentro guztietako hamar plazatik 4,5 publikoak lirateke, hiru pasatxo gizarte-ekonomiako eragileek kudeatuak, eta gainerakoak enpresa pribatu kapitalisten zentroetakoak. Eguneko zentroen kasuan, berriz, hamar plazatik sei lirateke publikoak eta 1,5 eskas gizarte-ekonomiakoak. Etxez-etxeko laguntza zerbitzuan azkenik, Gipuzkoan zerbitzu hau jaso duen lau pertsonatik batek jaso du gizarte-ekonomiako erakunde batek emaniko zerbitzua, gure inkestaren lagineko errore marjinak kontuan hartuz.

Titulartasunaren analisi honek, lanean zehar behin baino gehiagotan errepikatu dugun moduan, baditu bere arazoak herri-erakundeen zein gizarte-ekonomiako erakundeen benetako irismena baloratzeko, funtsean bi arrazoigatik. Batetik ez duelako kontuan hartzen zentro horien finantzazio publiko maila, oso gutxi baitira, apenas bat ere ez (%2 eskas), Gipuzkoan maila handiagoan ala txikiagoan beren zentroetako plazak Foru Aldundiaren aldetik itunduak ez dituzten zentroak. Ikuspegi honetatik, beraz, irismen publikoak titulartasunaren analisitik ondorioztaturikoa baino handiagoa behar luke. Eta bestalde, ez du kontuan hartzen zentroaren kudeaketa erreala daraman erakundearen figura juridikoa. Zentzu honetan, analisi sakonagorik egin ez dugun arren, irudipena dugu enpresa pribatuak liratekeela mozkinenez bestekoen aurrean gehiago nabarmentzen joan direnak azken urteetan, eskura izan ditugun datu baseetan oinarrituz, titulartasun publikoko zerbitzu gehienek kudeaketan enpresa pribatuak ageri baitira, kasuren batean kooperatibak, baina gehien gehienez enpresa pribatu kapitalistak (Biharko, Gerozerlan, Sanitas, Eulen, Clece, etab.).

Datu hau gizarte-zerbitzuen azken urteetako garapenaren bestelako datu batzuekin gurutzatuz gero, azken urteetako joera nagusia honakoa litzatekeela ondorioztatuko genuke: gizarte-zerbitzuen alorrean urte gutxian pertsona nagusien aldetik eman den eskari gehikuntza oso garrantzitsu bati, herri-erakundeen aldetik hiru ardatz nagusien bitartez egin zaio aurre: lehenik, prestazio ekonomikoen mekanismoak aktibatzen, bigarrenik zentro pribatuen plazak ituntzen, eta azkenik, zentro publiko berrien irekieraren bitartez, horietako gehien gehienak enpresa pribatu kapitalisten bitartez kudeatuak izaten ari badira ere. Lehen mekanismoak sistemaren familiarismoan sakontzen duela ondorioztatu dugun bezala, azken biek sistemaren privatizazioan eragin dute, nahiz eta paradoxikoa dirudien arren, sistemaren privatizazioa ez den eman sektore publikoaren uzkuztearen eskutik, honen hedapen oso garrantzitsu (eta desordenatu) baten arrimuan, baizik.

Azken urteetan gizarte-zerbitzuen esparrua zabaltzeko abian jarritako estrategia horiek gizarte-ekonomiako eragileei nola eragin ote dieten ebaluatu behar bagenu, erantzunak ezberdinak lirateke eragile bakoitzarentzat. Elementu batean berdintzen dira denak: nagusiki mendekotasun legearen eraginez, zerbitzuen bidea hartu beharrean prestazioen bidean sakontzeak, batetik zaintzen eskaria uzkuritu egin du, urperatu egin du, eta

bestetik eskaintza, formala den kasuan, oso modu irregularrean eta sakabanatuan garatzen joatea ekarri du. Baldintza horiei sektoreko zenbait eragilek aipatzen dituzten erregulazio publikoaren eskakizun zorrotzak gehituz gero, gizarte-ekonomiari esparru honetan garatzen joateko merkatu “normalizatu” bat ezin topatua ekarri dio, eta gizarte-ekonomiako eragileen gehiengoa trantsizio aro batean kokatu du. Jarraian ikusiko dugu gizarte-ekonomiaren baitako familia bakoitzari nola eragin dieten prozesu horiek.

8.2 Hipotesien kontrastea

1.go hipotesiaren kontrastea: gizarte-ekonomia esparru anitza eta barne koherentzia ahulekoa da, nahiz eta egun bizi den trantsizio arotik ezaugarri berezi eta partekatu batzuekin ateratzeko aukerak ageri dituen.

Bai teorikoki eta bai enpirikoki ondorio nagusi honetara iristeko fundamentu nahikoa eskuratu dugula iruditzen zaigu.

Tesiko kapitulu batean baino gehiagotan aipatu dugu Espainiako Gizarte Ekonomiaren Legeak gizarte-ekonomiaren nozio zabaldua bere gain hartzen duela, ordura arte CIRIEC erakundeak jorraturiko ildoekin oso modu koherentean, gizarte-ekonomiaren esparrua kooperatibez gain, mozkin asmorik gabeko zenbait erakundetara eta beste zenbait enpresa sozialetara irekia utziz.

Gure gizarte-ekonomiaren berrikuspen kontzeptualaren bitartez ere horixe bera justifikatu nahi izan dugu: gerturatze bat eman dela azken urteetan hirugarren sektoreko bi eskola nagusien artean, mozkin bezalako eta gizarte-ekonomiaren eskolen artean, hain zuzen ere. Eta horrez gain, bestelako esperientzia berritzaile batzuen berri ere eman dugu, enpresa sozial edo solidarioen berri alegia, gizarte-zerbitzuen esparruari oso lotuak ageri direnak eta gizarte-ekonomiarentzako zentzu berriak proposatzeko interesgarriak iruditzen zaizkigunak. Guzti horiek osatzen dute gaur egungo gizarte-ekonomiaren unibertsoa, lehengoa baina barne aniztasun handiagoa duena, eta logikoki, lehengoak baino barne koherentziarako arazo handiagoak agertzen dituena.

Gizarte-ekonomiaren nozio zabaldu honek errealitatea modu koherente batean hautemateko arazoak sor ditzakeen arren, aipatu behar dugu bestelako analisi eskolek oraindik ere lanabes eskasagoak eskaintzen dituztela, gure iritzian. Bereziki mozkinen besteko erakundeen eskolako teoria ekonomiko neoklasikoez dihardugu.

Nekez esplika litezke gure gizarteko gizarte-ekonomiaren logikak eskola neoklasikoko eskariaren aldeko teoriak baliatuz, (Hansmann-en kontratu-akatsen teoria edota Krashinsky-ren transakzio kostuen teorien bitartez, esaterako) gizarte-ekonomia ez delako informazio asimetriadun merkatu inperfektu baten emaitza. Gizarte-ekonomia merkaturik egon ez den sektore batean garatu da egiazki, hornitzaile alternatiboen artean aukeratzeko aukerarik gabeko sektore batean, alegia, lehenik estatutik gabeko egoera kasik monopolistiko baten baitan eta azken urteetan estatuak erregulatutako quasi-merkatuen baitan, hain zuzen ere.

Azken honi loturik, bestalde, nekez defenda lezake inork Weisbord-en ondasun publikoen teoria erabiliz edo James-en eskariaren heterogeneotasun teorian oinarri hartuz, gizarte-ekonomia estatu-akatsen ondorio denik. Egiazki ez baita hala. Gizarte-ekonomiako eragile asko estatuaren aurrekariak dira, ez honen gauzatze-akatsen ondorio, eta horien azken urteetako garapena ezin da estatuarekiko lehia harreman baten ingurumarian ulertu, estatuarekin eskuz esku edo, honen osagarri eta sarri honen ordezkotza gisa joan baita garatzen.

Analisi eskema horiek baztertu eta Salamon eta Anheier-ek proposatutako lanen ildotik ulertu ahal izan dugu hobeto gure gertueneko esparruko gizarte-ekonomiaren osaera eta funtzionatzeko logiken aniztasuna. Honela, gizabanako arrazionalen hautespen individualen logikatik baino, jatorri sozial eta historiko sakonagoek sorturiko *path dependency* fenomenoetatik azaltzen ahal dira hobeki gizarte-ekonomiaren egungo formak, nagusiki bi gizarte-egitura nagusik estatuarekin izandako harremanaren ikuspegitik: langile klasea batetik, eta eliza bestetik, hain zuzen ere. Honela, Sarasa-k dioen moduan eredu mediterraneoko bereizgarri da bi jatorri ezberdineko erakundeen gaur arteko existentzia aurkitzea, bata karitatezko tradizio elizkoiari lotua eta bestea kooperatibagintza laikotik sorturikoa. Bi tradizio handi horiek, bakoitza bere analisi

eskolan txertatua, dira gure iritzian gaur egungo gizarte-ekonomiaren nozio zabalduan elkar topatzeko parada izan dutenak, ez noski, barne koherentzia arazorik gabe.

Berrikuspen teorikoko intuizio horiek errealitatearen gainean kontrastatuz, analisi enpirikoan ere logika ezberdinen koexistentzia bat aurkitu da. Sektoreko adituak irizietatik ondorioztatu behar denez, Gipuzkoako pertsona nagusien esparruan diharduten gizarte-ekonomiako erakundeen artean gutxienik hiru logika nagusi bereizi behar dira, talde bakoitzaren azpian motibazio ezberdinak aurkitu baditzaiegun ere. Hiru logika nagusiak hauexek lirateke: mozkinaz besteko erakunde zerbitzu-emaileena batetik, boluntario elkarteena, bestetik, eta kooperatibena, azkenik.

Lehen talde horren barruan kokatzen dira egoitza zentroen kudeaketan diharduten fundazioak eta etxez etxeko laguntzan diharduten elkarteak. Erakunde hauetan hirugarren sektoreari loturiko praktikak oso ahulduak agertzen direla nabarmendu behar litzateke, apenas gizarte-oinarririk gabeko erakundeak baitira (elkarte asko bazkiderik gabekoak, bestelako gizarte-sareetan txertatze maila baxukoak guztiak ere), zerbitzuen prestaziora guztiz emanak bizi direnak eta boluntario bidezko formulak kasik modu folkloriko batean darabiltzatenak. Erantzukizun publikoko zerbitzuen hornitzaile diren neurrian, eskakizun publikoekiko menpekotasun handia ageri dute, eta sektoreak berak geroz eta gehiago eskatzen die enpresa-egitura profesionalizatu eta kaudimendun gisa garatzen joatea. Zenbaiten aburuz, funtsean herri-erakundeek beren zerbitzuak kanporatzeko eta bere erantzukizunak ekiditeko bultzaturiko esperientziak dira, edo bestelako ikuspegi batetik, konkurtso publikoetara aurkeztu ahal izateko enpresa kapitalista arrunt mozorrotuak baino ez dira.

Era berean batek baino gehiagok uste du berezkoak zaizkien ezaugarri horiek benetan praktikara eramanda ere, zalantzarria dela horrek egokiago bilakatzen ote dituen zerbitzuon eskaintzaile izateko. Esaterako, denboran zehar, galerak edo etekinak izan, zerbitzua ematen mantentzearen ezaugarria, mozkinaz bestekoen aldeko argudio gisa jokatu izan duena beti, nahiko indargabetua geratzen da sektorean indarrean den subrogazio klausularekin, klausula honek gizarte-zerbitzuetako langileari nolabaiteko betiereko egonkortasun bat ematen baitio, kontratatzaile duen enpresan nolana hiko aldaketak emanda ere, baita enpresa zerbitzu emailea bera aldatuta ere. Bai herri-

erakundeen aurrean, eta baita kontsumitzaileen aurrean ere, “mozkinen banaezintasun printzipioa” da duten berme ezaugarri bakarra, beren praktketan hirugarren sektoreko eragile urardotuak baitira.

Bigarren talde bat osatzen dute boluntario elkarteek. Bere baitan logika ezberdinak ageri dira, batzuk mutualistagoak (zahar etxe eta aisialdi elkarteak) eta bestetzuk altruistagoak edo boluntario argiagoak, baina oro har, pertsona nagusien sektoreak boluntario sare nahiko ahula duela ondorioztatu behar da, ez behintzat desgaitasunaren alorrean ezagutu denaren parekoa. Familiek beraiek ez dutelako gizarte zibiletik abiatutako halako elkartegintza esperientziarik sortzeko beharrik edo aukerarik ikusi, pertsona nagusiak ere orain gutxira arte ez direlako antolatzen hasi, eta zail dagoelako konpromiso maila bat eskatzen duen halako sare zabal bat artikulatzea eta gainera, herri-erakundeek tradizionalki arretarik gehien eskaini izan dien giza taldea direlako, boluntariotzaren esparruari gero eta esparru meheagoa geratzen zaiola dirudi.

Boluntariotzaren afera, neurri batean gizarte-zerbitzuen garapen berantiarraren islarik argiena litzateke, sistema bere heldutasunera iritsi ez denaren seinalerik adierazkorrena. Teorian argi egonagatik erantzukizun publikoko zerbitzuen hornikuntzan boluntarioen lanak izatekotan funtzio osagarri bat baino bete behar ez lukeela, lan profesionalaren eta lan boluntarioaren arteko banaketak nahasmenak sortzen ditu oraindik ere. Batzuen iritziz boluntarioen erabilpen makurra ere egiten da zerbitzuaren kostuak murriztearren. Beste batzuen iritziz, zenbait funtzio ez daude oraindik guztiz definiturik. Kontua kontu, boluntariotzak nahasmen handiko egoerak sortzen ditu, eta hargatik sektoreak, oro har, boluntariotzaren erabilerari muzin egiten dio, halako estigma ezkor batekin (profesionaltasun gabezia batekin) lotu izan delako tradizionalki.

Eta azkenik esperientzia kooperatiboa dugu, nagusiki Mondragon Taldeko GSR kooperatibak gorputzen duena. Lehenago azaldu dugun moduan, kooperatibagintzaren etengabeko berrasmate bat ematen ari da sektore honetan, sektorea kooperatibizitzeko mota ezberdinetako zailtasunak gainditu beharrenden poderioz. Zentzu horretan, kooperatibizazio *sui generis* baten emaitza izanagatik ere, zenbaiten iritzian funtsean mantentzen dira enpresa kapitalistekiko bereizgarri dituzten elementu zentralak: pertsonaren zentraltasuna kapitalaren aurrean, enplegua mantentzea mozkinak

maximotzearen gainera, eraldaketa sozialerako bokazioa, mozkinen berrinbertsio komunitarioagoa, etab.

Horrek ez du kentzen, ezaugarri propio horiek mantentzen ahalegindu arren, funtzionamendu enpresarial argiko erakundea izatea. (GSR) Kooperatiba mozkin igurikapen batzuen ondorioz murgildu da sektorean, eta mozkin eskakizun batzuen arabera funtzionatzen du, eta horiek izan badirelako mantentzen da, ez beraz izpiritu altruista batek bultzatuta. Zentzu horretan, ez litzateke arazo batengatik kalteturiko pertsonak biltzetik sorturiko esperientzia bat, ezingo litzateke “gizarte zibil antolatuaren” logikarekin alderatu, eta elkarrizketatu ditugun aditu gehienek iritzi gertuago legoke enpresa merkantilen praktikatetik, hirugarren sektoreko praktikatetik baino.

Puntu horretan azaldu nahi dugu gure ezadostasuna, eta gure ekarpena, gure ikerlanaren xede nagusia espazio komun hori josten joateko elementu nahikorik badela defendatzea baita. Iruditzen zaigu badela elementu teoriko nahikorik bi mundu horien uztarketa logiko bat egiteko, eta gainera, errealitatean ikusten ari diren zenbait joerak konbergentzia horren gertagarritasuna eta desiragarritasuna iradoki dezaketela.

Maila teoriko batean, lehenago ere defendatu ditugu kooperatiben eta mozkinen besteko erakundeen munduak arazo handirik gabe elkar litzatekeela *not-for-profit* bezalako formulazio zabalago baten pean, honela, mozkinen banaezintasunaren bermeak eskusiboki mozkin asmorik gabeko erakundeen ondare izateari utziko liokeelarik. Izan ere, bietako inork ez baita sortu kapital etekinak maximotzeko logika batetik, eta bietako inork ez baitu debekaturik etekinak erdiestea (eta beraz, ezta bilatzea ere). Bi munduok batuko litzatekeen elementu komuna mozkinen banaketaren trataera litzateke.

Are gehiago esango genuke, gure iritzian formula kooperatiboak, bai estatutu aldetik eta baita barne praktiken gardentasunaren aldetik ere, mozkinen besteko hainbat erakundek baino berme handiagoak eskaintzen ditu, lorturiko etekinak modu komunitarioago batean berrinbertitzen direla egiaztatzeko, dela bazkideen arteko errenta banaketarako mekanismoen bitartez edo dela funts banaezinen mekanismoen bitartez. Mozkinen besteko erakundeen kasuan ez da hain argi gelditzen nora bideratzen diren izan

badituzten mozkin horiek, ikerkuntzara, azpiegituretara, zein lan baldintza duinagoak ahalbidetzera bidera daitezkeen arren, ez baitute legez hartara derrigortzen dituen inolako barne araudirik. Lehen uztarketa prozesu bat, hortaz, teoriar bi munduetako bati egokitu izan zaion praktika bat egiazki biek partekatzen dutela defendatzen etor liteke.

Bigarren konbergentzia prozesu bat kontrako eragiketa eginez lor genezake: ustez kooperatibena litzatekeen enpresa egitura demokratikoaren bereizgarria, gaur egun sektore honetan nahiko malgutu ageri da, kooperatiba honetako langileen erdiak kasi soldatapeko langileak baitira. Era berean, subrogazioaren klausulak bazkide kooperatibistaren lan egonkortasunaren ezaugarria ere apur bat indargabetu egiten du, eta beraz, *sui generis* eginiko kooperatibizazio baten aurrean gaudenez, ez dugu uste inork bereizi dezakeenik kooperatiba bat mozkin asmorik gabeko elkarte batetik, preseski ezaugarri horietan indar eginez. Demokrazia faltaren arazoa larriagoa litzateke fundazioen kasuan, neurri handi batean erakundetik kanpoko bestelako eragileen (dela udal politikari, kongregazio erlijioso edo enpresa pribatu) eskutara desplazatzen baita erabakigunea, eta hortaz, ez litzateke inondik inora eredu mutualistako enpresen sokakoa izango.

Badirudi doktrinak bestelako ezaugarri baten garrantzia handiagoa nabarmenduz berdindu nahi izaten duela hutsune hau, hots, fundazio horiek duten gizarte-ekimeneko izaera, edo komunitatearekiko konpromisoarekin. Gure iritzian azken alderdi horiek oso etereoak dira, bereziki zailak neurtzen, eta beraz, ez genuke inoren alde leporik jarriko hori hala dela baieztatzen. Komunitatearekiko konpromisoaren aldagai bat bada, esaterako, borondatezko lan komunitarioen erabilera, errealitatean ikusten ari da lan mota horientzat gero eta jarduera esparru meheagoak geratzen ari direla, eta kasik figura horren banalizazio moduko bat ere gertatzen ari dela, itxurazko ezberdintasun baten estandarte bihurtzeraino kasi.

Finean, ez dugu gizarte-ekonomiaren adiera lar edulkoratu eta altruista batean sinesteko aparteko motiborik. Gizarte-ekonomiako eragileak enpresak dira, ezer baino lehen, eta erantzukizun publikoko esparru batean espezializazio maila altuko zerbitzu konplexuak emateko gaituak egon behar dute, bai zaintza lan horietarako langileei eskatu beharreko ezagutza eta prestakuntza mailaren aldetik, eta baita erakundearen kudeaketan eskatu

beharreko seriotasun eta profesionaltasunagatik ere. Zentzu horretan, mozkinen besteko erakundeei lotu izan zaien “gizarte zibil antolatua” mistika hori, sektore honetan mito hutsa da. Ez da orokorrean halako praktikarik sumatzen.

Eta beraz, aipaturiko arrazoiengatik, bi mundu horiek konbergentziarako esparru zabal bat dutela defendatzen dugu, baina ez tarteko punturen batean elkartuz, gure iritzian norantza argi batekin, sektorea kooperatibizatzearen zentzuan, hain zuzen ere. Hori iruditzen zaigu guri izan litekeela mozkinen besteko erakunde askoren egungo endekatzea ekiditeko aurrerako pausorik logiko eta koherenteena, eta herri-erakundeen aldetik, bermerik handienak eskaintzen dituenak.

2. hipotesiaren kontrastea: gizarte-ekonomia herri-erakundeen arrimuan garatzen joan da gaur arte, eta etorkizuneko gizarte-zerbitzuen sistema mistoaren osaeran herri-erakundeen aliatu naturala izateko bermerik handienak eskaintzen dituen eragile pribatua da.

Berrikuspen teorikoan frogatua geratu da gure iritzian hirugarren sektorea eta sektore publikoaren irakurketa neoklasikoak ez duela baliozkotasunik marko orokor gisa, guztiz erlazionatua agertzen baitira azalpen horiek herrialde liberalen egituraketa instituzionalarekin. Honela, sektore publikoarekiko lehia garatu diren eragile independenteen nozioa ez da inola ere aplikagarria errealitate europarrera, baina ulergarriagoa izan liteke herrialde liberaletan, estatuaren hedapena askoz apalagoa izan baita bertan, eta ondorioz, esparru formalean protagonismoa handiagoa agertu izan baitute eragile pribatuek edo mozkinen bestekoak.

Guk, gure kasurako hobeki doitzen den marko teorikoa dela sinetsita, harreman hori ongizate-estatuaren testuinguruan kokatu nahi izan dugu, ongizate-erregimenak zein zaintza-erregimenak aztertu ostean, gizarte-ekonomia eta ongizate-estatuaren harremanak modu ezberdinak marraztuz, eta gurea eredu mediterraneo batean kokatuz. Sarasa-ren hitzetan errezeloz beteriko elkar hartze mesfidati batek ezaugarrituko luke harreman hori.

Gure kasu konkretura etorriz, gizarte-zerbitzuen garapenean ikusi da lehen une batean, 80ko hamarkadan sistema publikoaren zutarriak jartzen hasi zirenean izan bazela ongintzazko elkarteekiko nolabaiteko errezelo bat, eredu hori gainditu beharra defendatzen zuena, eta hartarako, sistema hertsiki publikoa (udal mailako gizarte langileen hedapenaren eskutik) osatu nahi zuena. Dialektika honen atzealdean, eliza eta estatu laikoaren arteko talka ideologikoa suma liteke, funtsean erregimen aldaketa bati begira aurreko diktadura aroan lehen mailako botere faktikoa izaniko elizari botere kuotak kentzen joatea izango delarik orduko sozialdemokraziaren helburuetako bat.

Gizarte-zerbitzuen garapenaren historiak, ordea, ezeztatu egin du sistema batek bestea gainditzea lortu zuenik, ongintzazko elkarte elizkoiak beren jardunean mantendu baitziren eta pixkanaka-pixkanaka, gizarte-zerbitzuen sistema publiko baten aldeko idearioak sistemaren izaera mistoaren onarpenera makurtzen joan baitira, lege autonomiko ezberdinetan jaso geratzen den legez.

Joera honek bestelako ekarpen teoriko bat ere gezurtatu egingo luke, ongizate-estatuaren teorialariek defendaturikoa hain zuzen ere, horiek hirugarren sektorea fenomeno kasik anakronikotzat jotzen baitute, ongizate-estatu publikoaren garapenarekin batera desagertzea jotzen duena. Historia da hori horrela izan ez denaren lekuko, titulartasunaren arabera eginiko analisietan ondorioztatu baitugu erakundeok bizirautea lortu dutela gaur arte, zentro publiko eta pribatuen hazkunde absolutu ikaragarriaren ondorioz garrantzia erlatiboa galdu arren, apenas desagertu baita lehenagotik zetorren mozkinenez besteko zentrorik. Eta egokitzapen arrakastatsuen adibiderik ere ez da falta, Matia Fundazioa, horien artean esanguratsuen.

Gizarte-ekonomia eta herri-erakundeen arteko gaur egungo harremanaren marko orokorra, 12/2008 Euskadiko gizarte-zerbitzuen legeak zehatz uzten du ezarrita: bi sektoreok erantzukizun publikoko eta hornidura mistoko sistema baten testuinguruan garatzen dute beren arteko harremana.

Hornikuntza misto honen aitortzak erreferentzia berezia egiten dio hirugarren sektoreari, sektore publikoa eraiki aurretiko eragilea den neurrian eta enpresa pribatu kapitalisten aurrean zenbait berezitasun ager ditzakeen neurrian, horiek aintzat hartu eta babestea

baitu xede. Egituraketa misto honetan beraz, banaketa funtzional argia ezartzen da: azken erantzukizuna publikoa da, herri-erakundeak dira hortaz emaniko gizarte-zerbitzuen egokitasunaren azken bermatzaile, eta funtzio bermatzaile hori burutzeko eskumen delega ezin batzuk dituzte, nagusiki hauek: zerbitzuen erregulazioa, definizioa, planifikazioa, finantzazioa, baimentzea, ikuskaritza eta ebaluazioa, beti ere kalitatezko zerbitzuetarako hiritar ororen aukera berdintasuna ziurtatzeko.

Herri-erakundeei egokitzen zaie, hortaz, bere erantzukizun publikoa gauzatzeko eginbeharraren artean, zerbitzu guztien kalitate eta unibertsaltasunaren gaineko kontrolerako eskumen osoa, baina ez zaie hornitzaile nagusi funtziorik ematen. Eta hornikuntza hori modu mistoan egiteko, hirugarren sektorearen aldeko diskriminazio positiboko neurriak planteatzen ditu legeak.

Diskriminazio positiboko neurri horiek ordea, ikusi dugu sektoreko eragileen artean erreakzio disparekoak sortzen dituztela. Oro har, gizarte-ekonomiako erakunde zerbitzuek neurri horiekin ados dira (kooperatibak izan ezik) eta boluntario elkarteak ere bai, adostasun maila apalagoarekin bada ere. Aldiz, sektoreko adituen artean aldekoak baina zalantzati gehiago azaldu dira. Gure iritzian hainbat gauza ez dago oso argi.

Lehenik ez dago oso argi hirugarren sektoreko erakundeek, horiei egokitzen zaizkien praktika horiek benetan egiaztatzen dituzten (iraunkortasuna, gertutasuna, lurraldean errotuta egotea, zerbitzuak merkeago eskaintzea), ez baita zehaztu “gizarte-balio erantsi” horiek ebaluatzeko adierazle argirik. Bigarren, ez dago argi diskriminazio hori benetan aplikatuko ote den, legeak klausula hori “berdintasun teknikoko” egoerak ebazteko gordetzen baitu, eta gaitasun tekniko hori xehe-xehe nola puntuatu daitekeenaren inguruan zalantzak izateaz gainera, errealitatea da hirugarren sektoreko erakunde askok ez dutela, gaur gaurkoz, enpresa kapitalistekin lehiatzeko irekitzen diren konkurtso publikoetara aurkezteko joera handiegirik.

Kontsiderazio horiez aparte, gure iritzian garrantzitsua da argi uztea legeak ez dituela hirugarren sektoreko figura juridikoak babestu eta bultzatzen. Zorrotzak izanik, legeak hirugarren sektoreari egokitu izan zaizkion zenbait praktika zaintzearen alde egiten du, besteak beste: mozkinen berrinbertsioa, iraunkortasuna, komunitatearekiko errotzea,

erabiltzaileen parte hartzea, etab. Praktika horiek beraz, bestelako enpresek egiaztatzeko aterik ez du ixten, eta gure iritzian interesgarria hori da, bestelako enpresak faboratzeaz gain bestelako praktika batzuen garrantzia aintzatestea ere ahalbidetu dezakeelako, esaterako lan baldintzak duintzeko konpromisoa edo langileen parte hartzea bideratzeko egiturak sortzea, etab. Gure iritzian, hortaz, interesgarria izan liteke ildo honi eutsiz diskriminazio positiboko neurriak *non-profit* erakundeetan pentsatuz egin beharrean, *not-for-profit* erakundeetara zabaltzea, formula kooperatiboa ere aintzat hartua izan dadin.

Hori hornikuntzari dagokionean. Finantzazioari dagokionean, berriz, gizarte-zerbitzuen heltze graduaren beste erakusle bat da egungo finantzazio markoen aniztasuna bera ere. Gizarte-zerbitzuen legeak, ordea, oso argi utzi du helburua zein den: diru-laguntzen moduko formuletatik ituntze-politiketarako jauzia eman beharra dago, erantzukizun publikoko zerbitzuen hornikuntzarako kontratu edo ituntze modalitateak gordez, eta erantzukizun publikokoak ez diren gainerako zerbitzuetarako gordez hitzarmen eta diru-laguntzen bidea.

Iruditzen zaigu afera honek nahiko adostasun zabala lortzen duela pertsona nagusien esparru honetan, desgaitasunean ez bezala, gizarte-ekonomiako erakundeek egonkortasun handiagoa emango diela uste baitute. Bere aldetik, herri-erakundeetako ordezkariak formula horiek zerbitzuen azken bermatzaile funtzioa betetzeko printzipioz lanabes egokiagoak eskaintzen dizkiela uste dute, diru-laguntza edo hitzarmen bidezko harremanek nolabaiteko morrontza egoerak sorrarazten baitizkie hornitzaile pribatuekiko.

Itxuraz denok ados egonagatik, finantzazio markoen aldaketa honek dudarik ez da gizarte-ekonomiako eragileei erronka berriak aurkezten dizkiela: alde batetik, ez dago argi kontratazio eta ituntze modalitateek gizarte-ekonomiako eragileei mesede handiagoa egiten dien gainerako enpresa pribatu kapitalistei baino. Azken urteetako datuek ez dute, behinik behin, joera hori adierazi. Eta bigarrenik, nahiko umezurtz uzten ditu boluntariotzari loturiko elkarteak, erantzukizun publikokoak ez diren zerbitzuetan dabilzanak alegia, herri-erakundeen esfortzu handiena katalogoan jasotako zerbitzuen finantzaziora bideratua egongo baita, eta beraz, elkarteok beren diru iturrien

dibertsifikazioan sakondu beharko dute, dela aurrezki kutxen gizarte-ekintzatik edo dela enpresen gizarte-erantzukizunetik eratorritako funtsak neurri handiagoan erakarriz.

Eta azkenik, politika publikoen diseinuan ageri duten parte hartzeari dagokionean ere, gizarte-ekonomiak nahiko pribilegiozko posizioa duela ikusi da. Oro har gizarte-ekonomiako familia ezberdinek parte hartze bideen eta herri-erakundeekiko harremanaren balorazio baikorra egiten dute, oso bereziki kooperatiben esparruko eragileek, sintonia maila handia topatu baitugu herri-erakundeetako ordezkari eta enpresa horietako ordezkarien atean.

Esparru honetan doktorego-tesi honen ikerketa esparrua gainditzen duten eztabaida oso interesgarriekin aurkitu gara, kasik zientzia politikoetako gaiak direnak, hiritarren eta herri-erakundeen arteko harremanentze moduak aztergai dituztenak. Ez gara zentzu honetan nabarmenegi posizionatuko, oinarri teoriko sendoagorik ez dugun artean ez behintzat. Soilik esana utziko dugu gure iritzian ezinbestekoa dela parte hartzearen plano ezberdinak bereiztea. Alde batetik plano teknikoa dago, zerbitzuen hornitzaileek herri-erakundeekin mantendu beharrekoa, eta non gure ustez, erabakigune nagusia herri-erakundeen eskuetan mantendu behar litzatekeen, horiek baitira kalitatezko zerbitzuaren azken bermatzaileak. Eta bestalde plano politikoa bereizi behar da, gizarte-politiken diseinuarekin zerikusia duena. Bigarren plano honetan gizarte-ekonomiako eragileek errealitatearekiko gertutasun handiagoa izateagatik, eta beharrian berriak detektatzeko duten gaitasun handiagoagatik, ekarpen interesgarriak egiteko posizioan direla iruditzen zaigu, eta hemen bai, formatu kontsultiboetatik gobernantzaren ereduko dinamika parte hartzaileetara jauzi egiteak herri-erakundeak freskatzen eta demokrazia biziberritzen lagunduko lukeela iruditzen zaigu.

Kasu guztietan, baina, azken erabakiguneak herri-erakundeetan behar duela defendatzen dugu guk ere, bestenaz, horniduran sistema mistoa izateaz gain, erantzukizunean ere sistema mistoa osatzen joateko arriskuan eror baikintezke, politika publikoak interes partikularrak interes orokorrekiko mozorrotzen dituzten presio talde indartsuen morri bihurtu litezkeelarik. Legez erantzukizun publikokoa den sistema batean, erabakigune nagusia sektore publikoan mantentzea ezinbestekoa iruditzen zaigu, nahiz eta hornikuntzari buruzko eztabaida, beste eztabaida bat izan.

Eztabaida horri helduz garatuko ditugu gure azken gogoetak.

8.3 Etorkizuneko agertoki desiragarriak zirriborratzen

Orain arte nahiko modu deskriptiboan garatzen ahalegindu garen ikergai honek dudarik ez da atzean eztabaida ideologiko eta politiko pisuzko bat gordetzen duena, egungo krisi garaietan berriro ere indar handiz mahai gaineratu dena.

Eztabaida hau zerbitzu publikoen definizio eta irismenaren ingurukoa da, edo termino politikoagoetan esanik, azken urteetan zerbitzu publikoen narriadura eta pribatizazio prozesuek eragindako kezkarekin loturiko eztabaida da. Ez gara, honaino helduz gero, zientziaren edo akademiaren ustezko inpartzialtasun batean ostenduko, eta eztabaida honetan gure iritzian giltzarri nagusiak non kokatzen diren esango dugu jarraian, horietan gure posizionamendua ahalik eta argien utziz, posible zaigun kasuetan, noski.

Lehenik eta behin, doktorego-tesi honen ahaleginik handiena eztabaida honen bertsio sinplifikatura ez mugatzea izan da. Esparru batzuetan aspaldikoa da zerbitzu publikoen aldekoen eta aurkakoen arteko eztabaida, eta gure iritzian, eztabaida bi jarrera horietara murriztea gehiegizko sinplifikazioan erortzea da.

Honela, zerbitzu publikoen titulartasunaren inguruko analisi abstraktu bati ekin baino, nahiago izan dugu ondo aztertu lehenik zein zerbitzu publikori buruz ari garen, gizarte-zerbitzuei buruz, hain zuzen ere. Esparru honek ezaugarri oso konkrituak ditu, bestelako gizarte-ongizateko esparruez nabarmen bereizten dutena: esparru informalaen betidaniko nagusitasunezko funtzioa alde batetik, zerbitzu publikoen hedapen berantiar eta murrizta, bestalde, eta gizarte-ekonomiaren inguruko eragile pribatuen pisu esanguratsua, azkenik. Hiru giltzarri horiek baldintzatzen dute, gure iritzian, eztabaidaren nondik norakoa eta lehentasunak ordenatzen laguntzen dutela ere iruditzen zaigu.

Honela, gizarte-zerbitzuen titulartasunaren eztabaidaren aurretik bi aurre-premisa, bi gainditu beharreko agertoki identifikatzen ditugu guk. Lehena eta garrantzitsuena, esparru informala garrantzia iraultzearena da.

Osasunean zein hezkuntzan jadanik gaindituak ditugun eztabaida horiek oraindik orain gizarte-zerbitzuen esparruan gainditu gabekoak direla ikusi dugu. Inor gutxik jotzen du gaur egun beren seme alaben hezkuntza garapenerako instituzio nagusitzat familia esparrua, eta hortik hezkuntza arautuko (eta ez arautuko) baliabideak. Berdin antzera osasunean, konplexutasun maila konkretu bat duten osasun arazoak konpontzeko egituratu dugu osasun sare publikoa. Sozialki zerbitzu publikotzat jotako esparruak dira bi horiek, ez horrela gizarte-zerbitzuena. Gizarte-beharrizan ezberdinean diren pertsonen arreta, oraindik orain, lehenik familiak ase beharreko esparru gisa ulertzen dugu, eta honek arestian aipatu dugun bezala, oso ondorio ezkorrak sortzen ditu bai emakumeen genero disparekotasunari dagokienean, bai mendeko pertsonak jasotzen duten zerbitzua kalitatezkoa dela bermatzeari begira eta baita, esparru hau formalizatzen joateko gutxieneko baldintzak, eskari eta eskaintza formal bat, azaleratzen joateko ere.

Eztabaida honetan lehen mailako egitekoa da, hortaz, gizarte-zerbitzuen formalizazioan positiboki eragingo duten neurriak lehenestea, eta zentzu horretan, mendekotasunaren legearen garapen okerrak sorturiko egoerak ez dira batere desiragarriak. Esparru informalean gehiago sakontzea ekarri duten prestazio ekonomikoen ereduarekin hautsi, eta sistema egiazki formalizatzeko bide eraginkor bakarra dagoela begitantzen zaigu: zerbitzu publikoen eskaintza biderkatzearena, hain zuzen ere. Soilik zerbitzu publikoen gutxieneko eskaintza bat dagoenean izango da egokia gaur egungo hainbat eztabaidari ekitea, besteak beste, zaintzaren eredu komunitarioaren eztabaidari.

Gu geu ere zaintzaren eredu komunitario baten aldekoak baikara, zaintzaren eredu “erresidentzial” bati kontrajarriz. Pertsona nagusiak, hala nahi dute kasuan behinik behin, beren gertueneko esparruan mantentzea ahalbidetuko duen sistema baten aldekoak gara gu ere. Baina gertutasunezko zerbitzu formalen eskaintza publiko nahikorik ez den artean, zentzu horretan jo nahi izateak emakumeen lan karga familiarretan sakontzea baino ez dakar. Zentzuzkoena, hortaz, etxez etxeko laguntza

zerbitzuen eta eguneko zentroyen estiloko zerbitzu komunitarioak lehenestea dela iruditzen zaigu, dira laguntza publikoen aurrean.

Jakina denez, zerbitzu horiek eskaintzea diru-laguntzak ematea baino nabarmen garestiagoak da herri-erakundeentzat. Sistema heldu gabe batek gainezka egin dion eskari bati aurre egiteko hobetsitako moduaren testuinguruan uler liteke orain arte eginiko ibilbidea, baina ez epe ertain edo luzera begirako zaintzen gizarte-egituraketa arrazional bati begira. Egituraketa hori zerbitzu publiko eraginkorretan oinarritu beharko da eta beraz, jorratu beharreko beste eztabaida interesgarri batzuei aurre egitera derrigortuko gaitu horrek: nola bilatu zerbitzu berriontzako finantzazio bide gehigarriak (zerga-politika edo gizarte-kotizazioen erreformen bidetik, esaterako), nola egituratu sistema komunitario hori maila anitzeko herri-erakundeen eskumenei dagokienean, eta abar.

